


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

EUSKAL LEXIKO ETNOMETEOROLOGIKOAREN AZTERKETA

Kepa Dieguez Barahona

Doktorego tesia

Zuzendariak: Gotzon Aurrekoetxea Olabbarri
Mikel Martinez Areta

Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia doktorego programa

Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

2021

Aurkibidea

Laburpena	1
1. Sarrera	3
1.1. Hitzaurrea.....	5
1.2. Ikerketaren mugak eta helburuak.....	7
2. Esparru teorikoa zehaztea	11
2.1. Esparru semantikoa.....	13
2.1.1. Semantika, lexikologia eta lexikografia.....	13
2.1.2. Hizkuntzaren egitura.....	16
2.1.3. Unitate lexikoak eta eremu semantikoak.....	17
2.1.4. Lexikoa eta mundu-ikuskera.....	19
2.1.5. Hizkuntza eta kultura-egintzak.....	20
2.1.6. Saussure: hizkuntzen arbitrariotasuna eta motibazioa.....	23
2.1.7. Eremu semantikoak mugatzea: eremu etnometeorologikoa.....	28
2.2. Esparru kultural eta etnolinguistikoa.....	30
2.2.1. Kulturari buruzko nozioa.....	32
2.2.2. Etnolinguistikaren ikergaiak: historia eta bilakaera.....	33
2.2.2.1. Boas hizkuntzalaria.....	34
2.2.2.2. Erlatibismo linguistikoa.....	36
2.2.2.3. Etnosemantika.....	43
2.2.2.4. Hizketaren etnografia.....	51
2.2.2.5. Hizkuntzalaritza kognitiboa.....	53
2.2.2.6. Hizkuntzalaritza kulturalaren sintesia.....	55
2.2.3. Mitxelena: hizkuntza eta kultura.....	59
2.2.4. Euskal Herriko ikerlanak.....	61
2.2.5. Komunitate baten ingurumen-azterketa osoa: ikerketak ingurumen-antropologian.....	62
2.3. Aukeratutako eremu teorikoa: ingurune etnolinguistikoa.....	65
3. Metodologia	69
3.1. Datuak prozesatzea.....	71
3.2. Nozio orokorrak eta espezifikoak.....	77
3.3. Azterbide etnolinguistikoa.....	81
4. Etnometeorologia eremuaren nozio orokor eta espezifikoaren azterketa: ostagiak	83
4.1. Ostadarra.....	86
4.1.1. Analisia.....	86
4.1.2. Ondorioak.....	93
4.2. Ekaitza.....	94
4.2.1. Izakiak.....	97
4.2.2. Kalitatea.....	110
4.2.3. Jarduera.....	111
4.2.4. Denbora.....	113

4.2.5.	Ondorioak.....	113
4.3.	Haizeak.....	115
4.3.1.	Izakiak.....	120
4.3.2.	Kantitatea.....	130
4.3.3.	Kalitatea.....	132
4.3.4.	Jarduera.....	138
4.3.5.	Denbora.....	140
4.3.6.	Espazioa.....	141
4.3.7.	Ondorioak.....	183
4.4.	Hodeiak.....	185
4.4.1.	Izakiak.....	188
4.4.2.	Kantitatea.....	204
4.4.3.	Kalitatea.....	214
4.4.4.	Jarduera.....	219
4.4.5.	Denbora.....	228
4.4.6.	Espazioa.....	229
4.4.7.	Ondorioak.....	232
4.5.	Ur-meteoroak.....	234
4.5.1.	Elurra.....	234
4.5.1.1.	Izakiak.....	237
4.5.1.2.	Kantitatea.....	246
4.5.1.3.	Kalitatea.....	254
4.5.1.4.	Jarduera.....	262
4.5.1.5.	Denbora.....	269
4.5.1.6.	Espazioa.....	270
4.5.1.7.	Ondorioak.....	273
4.5.2.	Euria.....	275
4.5.2.1.	Izakiak.....	282
4.5.2.2.	Kantitatea.....	290
4.5.2.3.	Kalitatea.....	317
4.5.2.4.	Jarduera.....	338
4.5.2.5.	Denbora.....	348
4.5.2.6.	Espazioa.....	354
4.5.2.7.	Ondorioak.....	356
4.5.3.	Hezetasuna.....	358
4.5.3.1.	Izakiak.....	359
4.5.3.2.	Espazioa.....	360
4.5.3.3.	Ondorioak.....	361
4.5.4.	Ihintza.....	362
4.5.4.1.	Izakiak.....	365
4.5.4.2.	Jarduera.....	368
4.5.4.3.	Denbora.....	368
4.5.4.4.	Espazioa.....	369
4.5.4.5.	Ondorioak.....	369
4.5.5.	Izotza.....	370
4.5.5.1.	Izakiak.....	371
4.5.5.2.	Jarduera.....	397
4.5.5.3.	Denbora.....	399
4.5.5.4.	Espazioa.....	400
4.5.5.5.	Ondorioak.....	401

4.5.6. Lanbroa, lainoa eta gandua.....	403
4.5.6.1. Lainoa.....	404
4.5.6.2. Lanbroa.....	421
4.5.6.3. Gandua.....	428
4.5.6.4. Ondorioak.....	430
4.5.7. Txingorra.....	432
4.5.7.1. Izakiak.....	434
4.5.7.2. Kantitatea.....	445
4.5.7.3. Kalitatea.....	447
4.5.7.4. Jarduera.....	452
4.5.7.5. Denbora.....	453
4.5.7.6. Ondorioak.....	453
5. Ondorio orokorrak.....	455
5.1. Ondorio nozionalak.....	457
5.2. Ondorio etnolinguistikoak	460
Bibliografia.....	467

Laburpena

Euskarak bere baitan gordetzen du lexiko etnometeorologiko oparoa, altxor ezin adierazi adinakoa. Okerbiderik ez ematekotan, etno- aurrizkiak hiztun xeheek erabiltzen duten lexikoa eman nahi du aditzera, ez besterik. Ikerlan honi ekin baino lehen, inork nekez irudika lezakeen ezin konta ahal eguraldi-egoerari heltzen dio euskal hiztunen lexiko harrigarriak, hainbat ñabardura eta xehetasun atzemangaitz tarteko. Barreiatu samartuta eta ahantzixe egon diren termino gehientsuenak bildu, sailkatu, aditzera eman, interpretatu eta ondorioak azaleratzen dira tesi honetan: hain da joria etnometeorologiaren lexikoaren eremua, non *ostagiena*¹ —fenomeno atmosferikoak— aztertzea baizik ez dut erabaki: beste batzuk, berriz, baztertu dira hurrengo baterako azterkizun, hain da ikaragarria berbategi guztia. Ondoko ostagi hauen terminoak dira aztergai: ostadarra, ekaitza, haizeak, hodeiak eta ur-meteoroak—elurra, euria, hezetasuna, ihintza, izotza, lainoa-lanbroa-gandua eta txingorra—.

Hainbat iturri erabili izan dira taxuzko corpora osatzeko, ahozkoak nahiz idatziak, zaharrak zein berriak; ziurrenik datu bat edo beste faltako da, baina ikuspegi orokorrak jabetzeko lain. Munta honetariko ikerketa aurrera eramateko, lexikoaren azterteketa hau testuinguru zehatz eta argi batean kokatu behar izan da: hizkuntzak eta kulturak bat egiten duten muga-barru zabalean: eremu horretan XIX. mendeaz geroztik plazaratu izan diren askotariko iritzi eta hipotesiak azaltzen dira tesiaren esparru teorikoan. Trumoi ugari izan dira harrezkero, deblauki. Asko eta asko osagarriak, beste batzuk, ordea, eztabaidagarriak oso; adibidez, Sapirren eta Whorfen hipotesi determinista. Beti korapilatsu eta nekeza gertatu ohi da edukiaren adierazia azaldu nahi izatea. Ez da batere samurra, eta ika-mikak ez dira nolanhikoak izan: zer ote da lehenago, pentsamendua ala hizkuntza? Zer-nolako harremana dago hizkuntzaren, pentsamenduaren eta errealitatearen artean? Zeinek zeini eragiten dio lehenago? Gizateriak antzinarotik gogoan erabili izan duen auzi bera da: arrautza ala oiloa? Kezka eta hipotesi horiek isalatzen dira tesian nondik-norakotasuna adierazteko asmoz; beste zenbait egile, berriz, ahalegindu dira mintzairaren lanabes kognitiboak agerira ateratzen; beste batzuk, aldiz, — adibidez, Coseriuk (1981), eta berrikiago, Palmer-ek (1996/2000) eta Martin Camachok (2016)— ahalak eta leherrak egin dituzte, kulturak eta hizkuntzak bat egiten duten eremuan,

¹ *Ostagi* berba Azkuek asmatu zuen “fenomeno atmosferikoa” esateko. Beste batzuetan *egurasketa* erabiltzen du. Ez zuen arrakastarik izan, eta guztiz ahaztu zen; izan ere, behin baino ez du berak erabiltzen Euskalerraren Yakintzaren laugarren liburukian, 205. orrialdean, ostadarraren izendapenen berri ematen duenean: “Lan onen lenengo liburuan, [...] bekuski irakurleak ostagi onen [ostadarraren] beste amazapzi izen”. (Azkue, 1935-1947/1989)

diziplina berriztatzaile bezain erakargarri baten zutabeak ipintzeko: etnolinguistika. Horrexek ematen dio argi izpi bat ikerketa honi. Oro har, antropologiaz eta beste jakintza batzuez baliatzen da etnolinguistikaren ildo berria ondorio linguistikoak ateratzeko: bide malkarra du etnolinguistikak hizkuntzalaritzatik kanpoko esparrua izanda: orori kausitzea lan du, aditu guztiek begi onez ez dute ikusten eta. Oraindik, gaur egun, garabidean diharduela baieztatzen auzartzeraino heltzen naiz tesian: kontu teorikoak bai, baina ez dago ikerlan askorik kulturaren eragina hizkuntzan, bereziki lexikoan, aztertzen duenik: are gutxiago hizkuntza baten lexiko etnometeorologikoan. Alde horretatik ikerlan hau aitzindaritzat jo daiteke. Ziurrenik, hizkuntzalaritzaren upategi erraldoian botila xume bat baino ez da izango, baina nago hemen lexikoa sailkatu eta aztertzeko ez ote den eskaintzen azterbide bat, kulturak lexikoari nola eragiten dion antzemateko. Ere horretan, hain zuzen ere, ezohikoa baita, ezartzen da tesi hau: kulturak hizkuntzari, eta batik-bat lexikoari nola eragiten dion azterzea.

Lexikoaren sorkuntza dela-eta, Palmerri (1996/2000) hartutako kontzeptu bat ardaztat jo dut tesi guztian barrena: *mind's eye*. Nik *adimen-begia* itzulpenaz baliatzea erabaki dut kontzeptu hori adierazteko, hau da, euskal hiztunen adimen-begia lexikoaren sortzailea da buru-iruditeriaren bitartez. Beren-beregi sahietsi dut Palmerren “azterketa kulturala”, ondorio etnolinguistikoak, eta ez antropologikoak, erdietsi gura izan baititut; Palmerrek, ordea, ondorio antropologikoak lortzea du helburu.

Behin ikerlan honen esparru teorikoa zedarritu ondoren, hizkuntzak irakasteko metodologiatik datorren sailkapen-metodo batez baliatu naiz: syllabus nozionala, nozio orokorrak eta nozio espezifikoak bereizten dituen (Wilkins, 1976). Wilkinsen arabera, nozio orokorrak sei dira: izakiak, kantitatea, kalitatea, jarduera, denbora eta espazioa. Aldi berean, nozio orokor horiek dauzkaten kontzeptuen arabera ezarri dira beste kategoria batzuk. Beraz, era horretara ostagi guztien lexikoaren sailkapen sendo eta irmoa osatu da.

Corpuseko nozio espezifiko guztiak kokatu eta sailkaturik, proposatzen dudana azterbide etnolinguistiko batez baliatu naiz; adierazi bezala, kulturak eta lexikoak bat egiten duten gune ezin zirrargarriago horretan, hizkuntzalaritzaren, antropologiaren, dialektologiaren eta meteorologiaren ekarpenak aintzakotzat hartu ditut ikerketa sakon eta xehe-xehea gauzatu eta hezurramitzeko. Termino oro errotoz azalera aztertzen da haren testuinguruan, eta horrela jabetzeko gauza izango gara norainokoa den nozio espezifiko bakoitza bere eremuan eta gainerako eremuen terminoekiko: 4319 piezadun puzzle erraldoia eratu da.

1. Sarrera

1.1. Hitzaurrea

Euria maite dut, eta elurra, eta hotza, eta...“eguraldi txarra” deritzona. Lainoak eta lanbroak zorutzen naute, baina hego-haizea ez dut batere gogoko; gogaikarria da, aztoragarria, erotu egiten gaitu. Txikitatik izan dut aroaz jabetzeko joera, ulertzeko, hain da menderaezina! Ez zidan batere ardura lagunekin kalean futboleko zirimiripean olgetan ibiltzeak. Gozatu egiten nuen. Indar eta kemen berezia ematen zidan mela-mela eginda jarduteak. Pozarren egoten nintzen, praktetan kabitu ezinik. Inguruko jendeak ez ninduen ulertzen, baina nik sentipen bereziak izaten nituen. Barneko sentimendu hori lagun izan dut bizitza guztian; adi-adi egoten naiz noiz etorriko euria, elurra, noiz gerta litekeen ekaitzik, ea egoera egokirik izango den elurra egiteko. Klima-aldaketak atsekabetzen nau; negu epel eta ateriak izutu egiten nau, goibeldu. Euskal Herriko klima ez da bat; askotarikoa da. Alde ederra dago eskualde batetik bestera; itsasertzetik barrualdera; mendialdetik ordokira. Elkarren ondoko herri batzuek klima desberdin samarra izaten dute, kontu orografikoren bat tarteko. Zenbat eskualde hainbat mota. Ez da bat; euskara bezala. Badirudi euskal klima eta euskara eskutik doazela. Euskarak hizkera ugari ditu, Euskal Herriko klimaren antzean. Berbek ere lilurutzen naute; arima azaltzen da haietariko askotan. Euskarak eguraldiaren inguruan dauzkan hitzak betidanik gogoko asko izan ditut. Sekula ez zitzaidan bururatuko euskarak daukan eguraldiaren gaineko hitz-altxorra ikertu eta aztertzea, baina horrela suertatu da. Egia esan, ez zen inondik inora nire asmoa honelako tesia gauzatzea. Badira urte asko aroari buruzko hitzak biltzen hasi nintzela. Apurka-apurka, presarik gabe. Zer egin jasotako hitz guztiekin? Erantzuna erraza izan da: datuak bilduta, sailkatu, aztertu, interpretatu eta ondorioak atera. Bai, baina hori nola egiten da? Denbora luzea eman dut, urte asko datuak sailkatzen, eta hori egitea aski izango zelako ustea neukan; baina, ez: usteak erdi ustel; aztertu eta interpretatu egin behar ziren. Lan eskergea, inondik ere. Azkenean, ondorio honetara iritsi nintzen: tesi honen ardatz nagusia euskarak bere baitan gordetzen duen lexiko etnometeorologikoa sailkatu, aztertu eta ondorioak ateratzea zela, behar bezalako zerbait ekarriko banion euskal kulturari. Harroko samarra, ordea. Nahiz eta unibertsitatetik kanpo lan egin, euskal kulturari ekarpen xumea egiteko moduan nengoen (edo hala uste nuen). Bada, Michelangelo handiak esan zuen moduan, eskultura hortxe dago, harritzar horretan, hortxetik baino ez da erauzi behar. Berak, inor gutxik ikusten zuena itxurarik gabeko harritzar batean, ikusi egiten zuen. Nik era apal batean horixe egin dut: lexiko etnometeorologikoa azalatu, sailkatu eta interpretatu egin dut. Haitzulotik lurraren azalera egin du bidaia. Itxurarik gabeko hitz-altxor hori itxuraturik dago. Ez da edonolako bidaia izan. Batek baino gehiagok galdetuko dit zergatik lexiko etnometeorologikoa. Erantzuna emanda dago aurreko lerroetan eta, horretaz

gain, batik bat, kulturaren eragina era zuzen eta garbian sumatzen den arlo linguistikoetariko bat delako; hizkuntz komunitate baten arima eta iruditeria. Badirudi lexikoa dela hizkuntzaren baitan kulturaren isla eta eragina ondoen eta zuzenen antzematen den eremua. Euskal lexiko etnometeorologikoaren bitartez, metodologia etnolinguistikoa aplikaturik, euskal hiztunaren komunitatearen mundu-ikuskeraz jabetu ahal izatea dugu xede, gizatalde baten egitura kontzeptualak eraikitzea lexikoaren esanahi sinbolikoa aztertuz. Euskal hiztunaren adimen-begiak eratu duen buru-iruditeria azalratzea dut helburu ikerlan honen bitartez. Hori dela-eta, alderdi askori errepara lekieke kulturaren eragina zein den aztertzeko. Horretarako honela dago egituratuta tesi hau.

Lehenik, helburuak aipatzen dira, nolako itzaropena dagoen, noraino uste den hel daitekeela (1. atala). Bigarrenik, esparru teorikoa zehazten saiatzen da: kulturaren eta hizkuntzaren arteko uztarketa; zeintzuk teoria izan diren historian arlo etnolinguistikoan; zer teoriak eragin dion gehien tesi honi; Saussuren kontzeptuak, nahitaezkoak hizkuntzalaritzari antz emateko; Coseriu ikertzaile nekaezinaren ekarpen etnolinguistikoa; Koldo Mitxelenaren ikuspegi saihestezina; Boas, Sapir eta Whorfen ideia erlatibistak, arriskutsu samarrak, baina argigarriak (2. atala). Hirugarrenik, metodologia: etnometeoroen azterketa, etnolinguistikaren ekarpena, nola lortu diren datuak eta nola prozesatu diren eta hizkuntzen irakaskuntzatik ekarritako nozio espezifikoaren sailkapena (3. atala). Laugarrenik, datuak aztertzeko proposamena: ostagiak (fenomeno atmosferikoak); hots, ostadarra, ekaitza, haizeak, hodeiak eta ur-meteoroak —elurra, euria, hezetasuna, ihintza, izotza, lainoa, lanbroa eta gandua, eta txingorra— (4. atal osoa). Hasierako asmoa denbora eta ortzia ere aztertzea zen, baina ikusita norainoko ikerketa izango zen, bazterrean uztea erabaki da hurrengo baterako, euskal hiztunaren buru-iruditeriaren nondik norakoa azaltzeko nahikoa delakoan. Azkenik, ondorio orokorrak (5.atal osoa) eta bibliografia. Hauxe da duela urte asko hasitako bidaiaren ibilbidea.

1.2. Ikerketaren mugak eta helburuak

Datu guztiak bildu, sailkatu, eta interpretatu aurretik, helburu batzuk ezarri dira. Noraino irits zitekeen susmatzen zen, baina xedea ez zegoen garbi. Datuen azterketak adieraziko zuen itzaropena bete edo huts egingo zuen. Itxura batez, xedeek handinahitasuna eman dezakete aditzera, baina nago ikerketa hau ezohikoa ez ote den. Kontuak kontu, etnolinguistikak bere gain har ditzakeen helburu hauek eta ikerketaren mugak azpimarratzea komeniko litzateke (Martín Camacho, 2016: 198-202).

1. Inguruneak nola eragiten dion lexiko etnometeorologikoari antzematea. Dirudienez, lexikoa ingurunearen arabera eratzen da. Hizkuntza oso gida baliotsua da jakiteko nola gizarteak egokitu eta moldatzen diren beren ingurune natural, sozial, material eta naturaz gaindikora (Morant Marco eta Díaz Rojo, 2005: 10-16). Horrela bada, hitz eta esapide ugari islatuko dute nola gizarte batek taxutu eta interpretatu duen hizkuntza jakin bat. Beraz, natura, giza harreman eta sinesmenen elementuak –mitologia ahaztu gabe– izendatzen dituzten berbak kulturak arlo horiek interpretatu dituen moduaren ondorioak izango dira. Kasu honetan, naturari dagokionez, arlo etnometeorologikoa izango da aztergai, hau da, eguraldiaz jarduten denean erabili ohi den lexikoa, baina ez zientziak eraturako lexikoa, baizik eta mendeak joan, mendeak etorri, hiltun xeheek sortutakoa.

2. Eguraldiari buruzko lexikoan bereizketa semantiko ugariak azalratzea (Casado Velarde, 1991: 68-69). Oso ohikoa da baieztatzea komunitate baten kulturaren alderdiak, gizabanakoen bizimodurako berebiziko garrantzia daukatenak, bereizketa lexikoak sortzen diren gune bihurtzen direla. Bereizketa horien bidez, hizkuntzak alor jakin batzuen interpretazioa zehaztu egiten du; adibidez, italiarrek pastari irizteko hitzak edo AEBetako ingelesak nola garatu duen armak izendatzeko lexikoa. Euskarari dagokionez, aurrerago ohararaziko denez, bereizketa semantiko ugari dira fenomeno meteorologikoak desberdintzeko.

3. Kulturaren bilakaeratik abiatuz, lexikoa bilakaturik doala frogatzea. Etnolinguistikak ikuspegi diakronikoa ere har dezake bere gain. Horrela, kultur aldaketek lexikoari eragiten diotela azter dezake ikerketa etnolinguistikoko batek eta, era berean, nola agertzen diren hitz berriak eta nola galtzen diren beste hitz batzuk. Etnometeorologiaren esparruan, zalantzarik gabe, zientzialarien iritziz gertatzen den eguraldi-aldaketak ezinbestez eragiten dio berbak erabiltzeari; izan ere, gal litezkeen fenomeno batzuei dagozkien hitzak ezari-ezarian ahaztuko dira beharrezkoak izango ez baitira: beharrezkoak nolako, hitzak halako.

4. Lexikoa, komunitate edo gizarte baten mundu-ikuskeraren isla izaten dela ondorioztatzea. Alderdi hau garrantzi handikoa da. Maiz baieztatu izan da hitz batzuek giza komunitate baten oso alderdi intimoak adierazten dituztela. Euskarak fenomeno zehatz bati irizteko hitz-elkarketa jakin bat erabiltzeak eman lezake aditzera zein ote den gizarte baten “ideologia” edo bizitzarekiko ikuspegia. Adibidez, arlo etnometeorologikoan ugari dira eratutako metaforak, oso sinbolismo aberatsa sorturik. Esaterako, *izotz-burruntzia* hitz-elkarketaren bigarren osagaiak islatzen du euskal hiztunaren pentsamoldea, nekazaritzari lotua, lan egiteko tresnei uztartua. Beraz, “izena den guztia omen da” deritzon euskal esapidea, ikuspegi hermeneutiko batetik begiratuta, “hizkuntzak errealitatearen giza esperientzia eta bizipen guztiak antolatzen ditu; ondorioz, errealitatearen eta gizakiaren arteko elkarrekintza adierazi eta irudikatzen da izenean, eta, izena aipatzean, elkarrekintza hori eratu eta interpretatzen da” (Ortiz-Osés, 2006: 54).

5. Euskal lexiko etnometeorologikoa, gehienbat, ez dela arbitrarioa, eta nolabait motibatua dela frogatzea. Saussuren arbitrariotasun- eta motibazio-kontzeptuak aztertuko dira horretarako (Saussure, 1915/1945: 88). Sortutako sinbolismoa kultura jakin baten adierazpena dela erakutsi behar da. Badira arbitrariotasunaren aurkako kontzepzioak, ikonotasuna deritzon hizkuntza naturalaren printzipioa azaltzen dutenak. Harreman semantikoak eredu formaletan isla daitezke; eratutako printzipio pragmatiko-kognitiboa zenbait baliabide linguistiko kognitiboren bidez azaleratzen da, eta gramatikalizazio-prozesuen eraginez hizkuntzan finkatzen dira estrategia diskurtsibo gisa. Euskal lexiko etnometeorologikoa, hein handi batean, dezente motibatua da, eta ez arbitrarioa, hainbat termino hitz-elkarketaren, eratorpenaren eta onomatopeien bidez eratzen baitira. Aldi berean, ez da bereziki sakonduko, baina azaldu egingo da nolako teoriak dauden hots-sinbolismoaren inguruan.

6. Hitzen etimologiak ikertzearen bidez antzinako kultur egintzak argitara ematea. Batzuetan oso arlo labana delarik ere, ardura eta kontu handiz eginda erraztu dezake kulturaren ezkutuko datuak deskubritu eta azaleratzea. Adibidez, *ostots* terminoa *ortz(i)* + *hots* berben bat egitetik bide dator, hau da “ortziren hotsa”. Horrelako eleak eta hitz-elkarketak xehatzeak eman litzake eremu batzuetan oso ondorio adierazgarriak. Beste batzuetan berbak zatikatzea oso kontu korapilatsua izan liteke, eta egiazkoak ez diren osagaiak aditzera emateraino hel liteke; adibidez, *euri* ez-motibatua dela esan genezake, baina baldin eta halako eta halako osagaiz eraturik dagoela adierazten bada, motibatua dela ondoriozta liteke.

7. Maileguak jaso eta aztertzearekin batera, gizarteak erabili eta ezartzen dituen kulturarteko ezagutza-iturriak azaltzea. Horrek ere eman lezake, zalantzarik gabe, euskararen kultur arteko harremanen berri. Zenbaitetan lexikoaren eremu batzuetan egon litezkeen hutsune

semantikoak betetzera etortzen dira, baina beste zenbaitetan bi hizkuntzaren arteko harremanen isla besterik ez dira. Esaterako, *enbata* eta *galarrera* hitzak erabiltzen dira fenomeno bera izendatzeko eta biak maileguak, itsasoan lanean jardun duten arrantzaleek ekarritakoak, beste hizkuntza batzuen hiztunekiko harremanen ondorioz. Beraz, giza harremanek ahalbideratzen dute lexikoaren ondarea ugaltzea.

8. Hiztunek adimen-begiaren bidez eratzen duten irudi multzo egituratua –iruditeria– azaleratzea. Gary B. Palmer irakasleak 1996an argitaraturiko *Toward a Theory of Cultural Linguistics* (gaztelaniaz 2000. urtean egindako itzulpenean *Lingüística Cultural*) ikerlanean adimenaren iruditeria jotzen du ardatzat hizkuntzak eta kulturak ikertzean. Euskaratu egingo dira kontzeptu horiek behin eta berriz azaltzen baitira tesi honetan: “Hizkuntza adimenaren iruditerian erabilitako hitzezko sinbolo-jokoa da. Adimenaren begiaz (“Mind’s eye”) ikusten duguna da iruditeria, eta osterantzeko sentsazio eta sentipen batzuk” (Palmer, 1996/2000: 23). Haren ikuspegiaren arabera, “irudikatzen duguna pertzepzio-forma guztien bidez lortutako esperientzietan oinarrituta dago, eta, gainera, hitz egiten dugu” (*idem*). Joera bertukoa da ikerlan honen izenburua: “Hablar y pensar, tareas culturales” (Velasco, 2003); mintzatzea eta pentsatzea kultur jarduerak dira, alegia.

9. Hitzen eragina gizabanakoaren pentsamenduan aztertzea: Sapir-Whorf deritzon printzipioa. Hizkuntzak pentsaerari eragiten ote dion hipotesia frogatzen saiatu ziren Sapir (1921/1962) eta Whorf (1956). Nahiz ideia hori garai hartan berria izan ez, Benjamin Lee Whorfek, Edward Sapirren ideia interesgarriak oinarritzat harturik, beste era batera lotu zion aferari. Whorfek eman zuen aditzera hizkuntza bakoitzaren sistema linguistikoa ez dela ideiak adierazteko sistema erreproduzitzaila huts-hutsa, baizik eta sistemak berak gizabanakoaren ideiak eratu eta itxuratu egiten dituela, hots, gidari duela adimenaren jardueretarako eta inpresioak aztertzeko. Badirudi gure mintzairek finkatzen dituzten arauak lagun, natura ataltzen dugula. Whorfek garatutako erlatibismo linguistikoa hiru adierazpenetan azaltzen da: lehenengoa, erlatibista hutsa da, eta agertzen du bestelako mintzairen berbadunek mundua bestela eratzten dutela, hots, mundu-ikuskera desberdina daukatela. Bigarrena determinista da, hizkuntza ez da komunikatzeko tresna hutsa, pentsamendua determinatu egiten du. Hirugarrenak aniztasun linguistikoa aldarrikatzen du, eta aurreko biak baino lehenagokoa da. Gizabanako eta komunitateen jokabide linguistikoaren aldakuntza izan liteke norma. Aniztasuna izan liteke norma.

10. Esparru etnometeorologikoaren eremu guztietako lexikoa azterturik, ea antzeman daitekeen nola bilakatzen den Euskal Herriko klima. Aipatutako lehenengo, hirugarren eta laugarren xedeak aintzat harturik, hau da, nola inguruneak eragiten dion lexiko

etnometeorologikoari, kultura aldatu ahala lexikoa bilakatuz doala, eta lexikoa izaten dela komunitate edo gizarte baten mundu-ikuskeraren isla, hauteman daiteke herri euskaldunetan klima bilakatuz doan heinean, era berean lexikoa aldatuz doala. Begi-bistan dago klima-aldaketak lexikoari eragiten diola: zenbait berba ahanzturaren zorroan jausten dira, eta beste batzuk sortu, gaur egun, oro har, eta salbuespenak salbuespen, maileguak edota ez era egokiak eratutako hitz-elkarketak eta ikuspegiak.

Horrenbestez, ikerlan honen helburuak eta mugak azalduta, jarraian hizkuntza, lexikoa, kultura eta mugitu izan diren eremuak aztertuko dira taxuzko azterbide etnolinguistikoa eratzeko asmoz. Horretarako, lehenengo eta behin lexikoaren azterketak nolako ibilbidea izan duen ikusiko da; bertan mundu-ikuskerarekiko harreman berezia aztertuko da, eta batez ere, saiaturiko da eremu etnometeorologikoa zehazten. Bigarrenik, zer jotzen den kulturatzat azaleratuko da; etnolinguistikaren tradizioa eta ikergaiak xehetuko dira; hizkuntzalaritza kognitiboaren ekarpenaren berri emango da; Mitxelenaren hizkuntza eta kulturaren arteko ikuspegiari garrantzia emango zaio. Horrezaz gain, nahiz eta ikuspegi antropologikoa izan, Ginea Berriko komunitate baten ingurumen-azterketaren nondik norakoa ikusiko da, eta, ikerlanaren helburuak eta esparru teorikoak azalduta, tesiak izango duen eremu teorikoa agerira azalduko da. Azkenik, ondorio behinenean berri emango da.

2. Esparru teorikoa zehaztea

2.1. Esparru semantikoa

2.1.1. Semantika, lexikologia eta lexikografia

Semantika, lexikologia eta lexikografia hizkuntzalaritzaren barruko esparru desberdinak direnez gero, oso ondo bereizi behar dira. Jende askok hainbat arrazoi direla-eta hirurak nahasteko joera du. Hirurek daukate aztergai bera, baina ikuspuntua desberdin samarra. Izan ere, giza hizkuntza arlo askotatik azter daitekeenez gero, bakoitzaren behatokia ondo baino hobeto zehaztu beharra dago. Hirurek hitzak daukate ikusmiran, eta hirurak ahalegintzen dira haiek ikertzen lanabes desberdinekin. Hori dela-eta jakintzagai desberdintzat jo daitezke, nahiz eta ikergai bera daukaten. Dena ikerketaren nondik-norako eta zailtasunean datza. Ikerketa batzuk beste batzuk baino zailagoak izaten dira. Eta ikertzeko aztergai gutxi daude giza hizkuntza bezain zail eta konplexuak. Giza hizkuntzak gizakiak berak sortu dituzenez gero, gizakia bezain korapilatsuak izan ohi dira: malguak eta mugarik gabekoak dira; ez dira batere zurrinak. Ez daude inondik inora hizkuntzaren muga guztiak aurkituta. Behin eta berriz aurkitzen dira esploratu gabeko “eremu berriak” hizkuntzaren barruan. Horregatik, hizkuntzek mugarik gabeko “unibertsoa” eratu eta osatzen dutela esateraino hel daiteke, eta hitzen eremua magikoa dela, ustekabez beterikoa.

Ulerterraz samarra da hizkuntza baten “hitz”ak behatu eta aztertzea hainbat ikuspuntutatik egin daitekeela. Semantikak hitzen esanahia du aztergai. Baina zeri heltzen diote lexikologiak eta lexikografiak? Oinarrizko kontzeptu batzuk azaldu behar dira, aipatu bezala hirurek ikergai bera daukate eta. Hala eta guztiz ere, ez da batere erraza gertatzen ikergai hori zehaztea, Auzi horren inguruan zenbait arazo suertatzen baitira:

- Zer da hitza?
- Esanahia hitzean ala morfeman dago?
- Zein da semantikaren ikuspuntu zehatza, eta zein lexikologiarena edo lexikografiarena?
- Nolako terminologia erabili behar da?

Hizkuntzalaritza gaur egun ardatz-zientzia izango litzateke; izan ere, hizkuntzalaritzaren barruan den-dena aztertzen zen, baina urteen joanean, fonologia, morfologia, sintaxia, etab., apurka-apurka bereiziz joan izan dira, hau da, gramatika ez zen aztertzen atal bakarra izango balitz bezala, baizik eta bera osatzen duten eremuak banaka aztertzen hasi ziren hizkuntzalariak. Hitzen esanahien zientzia aldi berean, gaur egun ere, ardatz-zientzia bat izango litzateke (beste ardatz-zientzia batean aterpeturik dagoena, ziur asko

semiologia) eta era berean, ezari-ezarian semantika, lexikologia eta lexikografia ateraz doaz bertatik.

Hizkuntzalaritza modernoa aldi formal batetik pasatu zen, non formak eta funtzioak ikertzeari baino ez zitzaion ekiten. Ez dago oroitu beharrik azken hamarkadetan Noam Chomsky hizkuntzalariaren eragin nabarmena. Hori zela-eta, egitura immanenteak aztertzea baino ez zela zientifikoa baieztatzeraino heldu zen (barruko hizkuntzalaritza). Horren ondorioz, hitzen esanahiari buruzko ikerketak gaitzetsi samartuak izan ohi ziren. Inor gutxi ausartzen zen hitzen adieraziaren ikertzeari ekitera: uzkur zebilztan ikerlariak. Halarik ere, soziologoek, historiagileek, etnologoek, antropologoek, psikologoek, psikoanalistak eta abarrek arazo horiekiko gero eta interes handiagoa izateak giza hizkuntzaren alderdi honi bizitasun berezia ematea lortu du (kanpoko hizkuntzalaritza). Egun inor gutxik jartzen du zalantzan esanahiaz arduratzen diren jakintzagai horien garrantzia.

Semantika, lexikologia eta lexikografia elkarretatik bereizi baino lehen, oinarritzko kontzeptu bi argitzea beharrezkoa da; hau da, “lexiko” eta “hiztegi” kontzeptuak.

Lexikoak, oro har, komunitate bateko kideek elkarrekin komunikatzeko erabiltzen duten hitz-multzoa adierazten du (Férrnandez González, 1989). Beraz, lexikoa hizkuntzari dagokion nozio teorikoa da. Baina, eguneroko bizitzan gizabanakoak hizkuntza baten lexikoaren zati batez baino ez dira baliatzen; hiztegia, berriz, ohiko era baten arabera, zerrenda eta deskriba daitekeen lexikoaren atala da. Gizabanako baten, gizarte-talde baten, publizitatearen edo eguraldiaren hiztegia aztertzeari lotzen bagatzaizkio, multzo jakin, zehatz, mugatu eta aztergarria dugu eginkizun: hizketari dagokio. Begi-bistakoa ematen badu ere, ez dago hizkuntza baten hitz guztiak biltzen dituen hiztegirik. Hortaz, behin oinarritzko kontzeptuak azaldurik, bakoitzaren eremua mugatzea askoz ere errazagoa da. Semantika jakintzagai orokorragoa da, beraren eremua diakronikoa edo sinkronikoa da, ikertu nahi denaren arabera. Batik bat, hitzen esanahi-bilakaeraz arduratzen da. Lexikografia, hitz bitan, Férrnandez Gonzálezek dioenez (1989) hiztegiak egiteko teknika da, hizketari dagokio: hitzak era erosoan eta ordenan antolatzea du helburu, hau da, hizkuntza baten unitate lexikoak eratzean datza. Lexikologia, berriz, hizkuntzari dagokio. Une jakin batean hizkuntza baten hitzen arteko harremanak aztertzen ditu. Beraren eremua sinkronikoa da. Erabiltzen duen gizartearen eta hizkuntzaren artean ezartzen den elkar-menpekotasunaren arazoaz aritzen da.

Beraz, bai lexikologiak, bai lexikografiak, bai semantikak hitzen adierazle eta adierazia aztertzen dituzte. Baina, lexikologiak kontu horiek ikuspegi teoriko, orokor eta zientifikotik ikertzen baditu ere, lexikografia, “Hiztegiak eratzeako artea” da, edo —definizio modernoagoa eginez— “Hiztegiak eratzeako teknika”.

Hizkuntzaren jakintzagai horien eremua mugaturik, definizioak eginda badaude ere, zailtasun handi samarra dago horrelakoen mugak eta ikergaiak zehazteko. Baina, ez da harriztekoa; izan ere, garatuz joaten diren jakintzagai guztiei gertatu ohi zaie.

Bestalde, azaldu beharrekoa den beste arazo bat “teknika” “zientzia” baino lehen sortu ote den kontua da. Izan ere, hiztegi gintza lexikologiaren aurretikoa da, zeren berau lexikoaren ikerketa zientifiko gisa orain dela gutxi eratu baita. Eta oraintxe da, hain zuzen ere, egokia jakintzagai horiek dauzkaten zenbait arazo azaltzea.

Lexikografiak eta lexikologiak hizkuntzaren ikergai berari ekiten diotenez gero (berben eremua), sarri askotan agertzen dira nahasita. Irudi du elkarren arteko menpekotasuna nabaria izan behar litzatekeela (aipatutako nahasmendurako bidea). Pentsa liteke lexikografia lexikologia baten isla, aplikazio bat baino ezin dela izan, eta ikerketa lexikologiko baten ondorioa izan behar litzatekeela, lexikologiak lan lexikografikoak sakon bideratu behar litzukeelako. Hala eta guztiz ere, hori ez da inondik inora horrela gertatu. Lexikografia arrazoi praktikoak zirela-eta, XVIII. mendean sortu zen. Itzultzaileei lanabes egokia eskaini behar zitzaie, hitz-zerrendak, erreperitorio teknikoak. Merkataritzaren zabalkundea, nazioarteko harremanen eta kulturaren hedapena zirela-eta, horiek gero eta beharrezkoago zituzten itzultzaileek. Erreperitorio soil elebakar, elebidun edo eleaniztunak ziren, gutxi gora-behera espezializatuak. Berezko hiztegi elebakarrak geroago agertu ziren, gizarte-talde jakin baten ohiko erabileraren araberrako hitzen esanahia zehazteko asmotan.

Eremu linguistikotan azken urteotan egindako aurrerapenek ireki dizkiete lexikografoei arlo berriak. Orain dela gutxi arte tradizio lexikografikoak bere teknikak garatu izan ditu, hizkuntzaren inguruko ikerketa teknikoetatik kanpo, eta, bestalde, lexikologia sortu da aldi berean lexikografiatik kanpo. Beraien arloak zedarritzea samur gertatzen ez bada ere, gaur egun oraindik ere bananduta jardun ohi dute. Hala ere, bata “zientzia” eta bestea “teknika” direlako kontzientzia edukitzen hasiak gara.

Atal hau amaitzeko lexikologia eta semantika bereizi baizik ez dugu egin behar, gaiari behar besteko zehaztasuna ematekotan.

Hainbat ikuspegi plazaratu izan dira auzi honen gainean, baina gogokoenetariko bat Frantzian sortutakoa da. Fernández Gonzálezen esanetan (1989), han lexikoari buruz oso lan teoriko eta praktiko garrantzitsuak eraman izan dira aurrera. *Cahiers de Lexicologie* deritzon aldizkarian azaldu zenaren arabera, lexikologiak lexikoa eta bere osagaiak sistema gisa aztertzen ditu; eta semantikak hizkuntza-zeinuak beraren funtzio eta efektuen arabera (aspektua eta esanahia) aztertzen ditu.

Beraz, semantika hitzaz arduratzen da, baina beraren izaera hartzen du oinarritzat. Esanahiaren substantzia du ikergai beraren esanahi aldaketak eta motibazioak ditu gogoko. Bestalde, gaurko lexikologiak unitate lexikoak eta haien arteko harremanak ditu aztergai. Gero eta garatuago dago itzulpengintzari eta hizkuntza-irakaskuntzari aplikaturiko lexikologia.

2.1.2. Hizkuntzaren egitura

Hitz guztiak beste batzuekin lotzen dituzten asoziazio-sare batek inguratuta daude. Asoziazio horietako batzuk esanahien arteko loturretan oinarritzen dira, beste batzuk ostera, guztiz formalak dira eta beste batzuk bion artekoei, adieraziari zein adierazleari, dagozkie. Oso ezaguna da, Fernández Gonzálezen hitzetan (1989), Saussure asoziaziook diagrama baten bidez irudikatzen saiatu zela:




Diagrama horretan, *enseignement* izenetik lau asoziazio-lerro ateratzen dira: 1) elkarrekiko enborrean oinarrituriko antzekotasun formal eta semantikoaren bitartez, *enseigner* aditzarekin loturik dago; 2) antzekotasun semantikoaren bitartez *apprentissage* eta *éducation* berbekin; 3) *changement* eta *armement* hitzekin aditzen izen abstraktuak sortzen dituen *-ment* atzizkia daukatelako; 4) beren bukaeretan ustekabeko antzekotasuna daukatelako *clément* eta *justement* hitzekin.

Idea horiek aurrerago eraman nahian, Ballyk (1940: 193-206), Saussureren ikasleak, eremu asoziatiboa kontzeptu ezin baliotsuagoa asmatu zuen. Baina, berak asoziazio semantiko hutsak baino ez zituen aintzat hartu:

Asoziazio-eremua zeinua inguratzen duen haloa da, eta beraren kanpoko ertzak ingurunearekin nahasten dira. *Idi* hitzak ondokoaz pentsarazten du:

1) behia, zezena, txahala, adarrak, hausnartu, marru egin, etab.

2) laborantza, goldea, uztarria, etab.

3) frantsesez oroitaraz ditzake, indarra, euskortasuna, lan gogorra egiteko ideiak, baita geldotasuna, pasibotasuna eta astuntasuna ere.

Aipu honetan ikus daitekeenez, “hitz baten asoziazio-eremua asoziazio-sare bihurri batek eratzen du, batak antzekotasunean oinarrituak, besteak albokotasunean, batak esanahitik ateraz, besteak izenetatik, eta beste batzuk bien artekoetatik” —neuk euskaratua— (Ullmann, 1991: 271). Eremua berez irekia da, eta zenbait asoziazio halabeharrez subjektiboak badira ere, nagusiak berak izango dira hiztun gehientsuenentzat. Asoziazio nagusi horietariko batzuk esperimentu psikologikoen bidez identifikatzen saiatu dira, baina azterbide linguistiko hutsen bidez ere ezar daitezke: hitz baten begi-bistako sinonimoak, antonimoak eta homonimoak bilduz, baita esanahi edo soinuaren aldetik antza duten terminoak eta ohiko konbinazioetan sartzen diren haiek ere, hau da, “asoziazio kidetasunak” (Sperber, 1978). Asoziazio horietariko asko eta asko irudizko mintzairaren bidez gauzatzen dira: metaforak, erkaketak, atsotitzak, esaerak eta abar. Ballyk (1952) aipatzen du, esaterako, bere lehenengo saila aditzera emateko “un vent à décorner les boeufs”, hitzez hitz, “idiak adargabetzeko haizea”; “mettre la charrue devant les boeufs” (goldea ipini idien aurretik), bigarren sailerako; eta “c’est un boeuf pour le travail”, (lan egiteko idia da) hirugarrenerako. Hitz batean ardazturiko asoziazio kopurua, jakina, oso aldakorra izango da, eta termino arruntentzat oso handia izan daiteke. Guiraud irakasleak (*apud* Fernández González, 1989), *chat* hitz frantsesaren asoziazio-eremua sakon-sakon ikertu zuenak, berarekin zerikusia zuten 2000 bat termino bildu zituen. Horretarako oinarri formalak nahiz semantikoak erabili zituen. Irizpide estrukturalerik baliaturik, horrelako corpus zabala hirurehun bat hitzetara gutxitu zuen, *chat* terminoaren gutxienezko asoziazio-eremua osatzen dutenak, alegia.

2.1.3. Unitate lexikoak eta eremu semantikoak

Hizkuntzalaritzan XX. mendearen lehenengo laurdenean oso helburu zehatzak ezarri ziren hizkuntza baten lexikoa edo, zehazkiago, lexiko horren aspektu semantikoa sistema gisa irudikatzeko. Josef Trier izan zen horrelako araua aurrera eramaten ahalegindu zen lehenengoetarikoa (Geckeler, 1976). Berak eremu semantiko eta kontzeptualen teoria garatu zuen. Gaur egun eremuei buruzko bibliografia ugaria da. Esaterako aski ezagunak dira ikerlan

hauek: Corrales Zumbadoren lana (*El estudio de los campos semánticos*, 1991); Escobedo Rodríguez liburua (*El campo léxico-hablar en español*, 1992); Lodares Marrodánena (*El campo léxico mujer en español*, 1988); Mouninen lana (*Un champ sémantique: la denomination des animaux domestiques*, 1965); Quilisen liburua (*El campo léxico del parentesco español*, 1979) eta Trujilloren lana (*Para un a discusión del concepto semántico*, 1998).

Beste hizkuntzalari batzuek eremu semantikoa erabili beharrean lexikoa edo linguistikoa erabiltzen dute; baina, funtsean, kontzeptu bera adierazten bide dute.

Trierren ideiek eztabaida biziak eta zorrotzak erakarri zituzten eremu semantikoaren definizioen gainean. Batzuk interesgarriak ziren arren, batek ere ez du izan Trierrenek besteko eraginik:

Hizkuntza baten lexikoa hierarkizaturiko hitz-multzo (edo eremu lexiko) batez osatuta dago; hitz-multzo bakoitzak nozioen mailan ondo mugatutako esparrua betetzen du; eremu bakoitza, lexikoa zein kontzeptuala, mosaiko baten harri irregularren antzera, elkarren alboan jarritako unitateek osatuta dago. (Geckeler, 1976: 121 —neuk itzulia—)²

Eztabaidak eztabaida, azkenik bat etorri izan dira hizkuntzalariak honako kontzeptu hauetan:

a. Hizkuntza baten hiztegia ez da izan behar esanahi-unitateen anabasa-metaketa huts-hutsa. Lexikoa eremu kopuru batean ardaztu egiten da, hau da, konstelazio modukoak dira, hitzak biltzen dituztenak beren komunitate semantikoaren arabera.

b. Eremu semantiko bakoitzak islatzen duen errealitate osoaren zati hori hizkuntzari dagokion bitarteko baten bidez bereizten du. Ohiko adibidea, hainbat liburutan aipatutakoa koloreena da (Ullmann, 1991: 282-283; Berlin eta Key, 1969; William A. Foley, 1997: 150-165). Nolako hizkuntza den halako oinarriko koloreak omen dira. Hori dela-eta, hizkuntzek errealitate bera era desberdinean zatitu eta sistematizatzen omen dute³. Beraz, honako hau ondorioztatzeraino hel daiteke: *hitzaren eduki semantikoa ez da berez, bere baitan nahikoa, baizik eta, hitz bakoitza eremu bereko beste hitzekiko aurkakotasunen arloan eratzen diren erlazioek baldintzatuta dagoela*. Saussureren terminologiaren arabera, hitzak ez leukake *esangurarik, balioa baizik*. Kontuaren formulazio horrek ulertarazten du hizkuntza baten alderdi semantikoa sistema fonologiko edo gramatikalekin erka daitekeela. Jakinaenez, antzeko edo hots berdinek fonema desberdinak eratzen dituzte hizkuntzen sistema fonologikoetan. Eraitza hizkuntza bakoitzaren adierazlearen plano zehatzaren egitura eratzea da. Era berean, esanahi aldetik oso hurbil dauden hizkuntza desberdinen hitzek (adibidez *azul*,

² Zenbait autoreren pasarte batzuk itzuli ditut euskaraz ematea interesgarria delakoan. Horrelaxe izango da hemendik aurrera.

³ Eztabaida ederra sor liteke ea hizkuntza guztiak bizi ote duten errealitate bera; hau da, ea hiztun guztiak begi aurrean dutena berdin hautematen ote duten.

blue, bleu, blau...) hizkuntza horien eremu semantikoetan balio desberdinak dauzkate. Emaitza hizkuntza bakoitzaren adieraziaren plano zehatzaren egitura eratzea da.

Bada beste kontu bat: lexikologo edo semantistari interesatzen zaion unitate lexikoa ez ohi da beti hitzarekin bat etortzen. Unitate lexiko asko hitz bat edo gehiagok osatuta egoten da. Adibidez, *hego-haizea* bi hitzek osaturiko unitate lexikoa dugu. Horrelako unitatea hizkuntzan eremu semantikoetan egituratzen dira. Aurrera jarraitu baino lehen, adierazi behar da zenbaitetan *eremu semantikoa* eta beste batzuetan, *eremu lexikoa* terminoak erabiltzen direla. Izendapen desberdina erabiltzeak ez dauka ia garrantzirik. Eremu semantikoa semantikari dagokio eta eremu lexikoa lexikologiari, alegia. Hala eta guztiz ere, ez da batere erraza gertatzen eremuak finkatzea. Egitura lexikoak ezin dira gramatikalak bezain finko eta iraunkorrak izan; bestalde, zeinu lexikoen arteko harremanak, ustekabekoak baitira, ia-ia mugagabeak dira. Hala ere, zeinu lexikoen artean gero eta erlazio objektibo gehiago ezar daitezke, beti ere azterbide enpiriko egokia erabiliz. Itxurazko azterketa lexikologiko bat edozein subjektibotasunetatik kanpo egon daiteke eta egon behar da. Gaur egun ez dago ezbaian jartzerik lexikoak multzo egituratua osatzen duela, nahiz eta hori makina bat azpi-eremu aldagaitzetan izan.

2.1.4. Lexikoa eta mundu-ikuskera

Eremuaren teoriari buruzko ildo honetatik jarraituz, funtsezkoa da hizkuntzalaritza eta antropologia uztartzen dituen hipotesi edo printzipio baten lehendabiziko aipamena egitea: Sapir-Whorf printzipioa (ikus Sapir 1921/1962). Oraingoz bi gai besterik ez dira azaleratuko, gure azterlanarekin zerikusia dutenak: bata, zenbateraino eragiten dioten hizkuntza baten egitura linguistikoek gure munduaren ikuskerari eta bestea nola ihes egin lekiokkeen Whorfeke aditzera emandako “gurpil zoro” horri, hots, “biribiltasunari”. Zer da lehenengo, hizkuntza ala kultura?

Hizkuntzak pentsaerari eragiten ote dion hipotesia frogatzen saiatu ziren Sapir (1921/1962) eta Whorf (1956/2011). Ideia hori berria ez bazen ere, Benjamin Lee Whorfeke, Edward Sapirren iradokizun “interesgarri”-ei jarraituz, era berrian heldu zion kontuari: Europako hizkuntzen eredu ertaina (Standard Average European), bestelako egitura daukaten Estatu Batuetako hizkuntza indigenekin erkatu zuen. Horrela, Europako eta Estatu Batuetako hizkuntzak alderaturik, ahalegindu zen zer-nolako tasunak araka zitezkeen pentsaeran eta kulturaren eragin linguistikoa eduki zezaketanak.

Aurrera eramandako ikerlanek hizkuntzek “ezkutuko metafisika” bana daukatela aldarrikatzeraino bultzatu zuten. Horren arabera, “ezkutuko metafisika” horrek mundua ikusteko era berezi batean gauzatu eta ikuspegi jakin eta zehatza ezartzen die hiztunei. Whorfen hitzetan “mintzaira bakoitzaren sistema linguistikoa ez da ideiak adierazteko sistema erreproduzizaile huts-hutsa, baizik eta sistemak berak gizabanakoaren ideiak eratu eta itxuratu egiten ditu”, hots, gidari du adimenaren jardueretarako eta inpresioak aztertzeko. Gure hizkuntzek ezartzen dituzten araei jarraituz xehatzen bide dugu natura. Sapir-Whorfen printzipioak hizkuntzalaritzaren eta antropologiaren eremuetan aldeko eta aurkako iritziak jaso izan ditu halaberrez. Hasieran beraren aztergaiak gramatika-egitura eta pentsaeran daukan eragina izan du ardatz; adibidez, gure denbora-kontzepzioaren oinarri linguistikoak, arazo lexikoak, gaitzetsi ez badira ere, baztertu samarturik egon izan dira. Hizkuntzaren azterbide horren eta eremuaren teoriaren arteko lotura estuak nahiko balio handia izan lezake. Izan ere, semantikan jorra litezke erraztasun handiagoz Whorfen ideia batzuk. Ez dago ukatzerik, oso abiapuntu desberdinak izan zituzten bi mugimenduek —eremu semantikoek eta Sapir-Whorfen teoriak— ia-ia elkar ukituzeraino iristen diren bi ondorioetara heltzeari oso interesgarri irizten zaio.

2.1.5. Hizkuntza eta kultura-egintzak

Lehen aipatu denez, Whorfek aldarrikaturiko biribiltasunarekin zerikusia daukan bigarren gaia aipatzekoa da orain. Haren ustez, herri baten hizkuntzak eta kulturak ezinbestez eragiten diote elkarri, etengabeko elkarreragina dago bien artean, alegia. Zentzu horretan esan daiteke biribiltasunik badela. Batean hizkuntzak kulturari eragiten dio, eta bestean kulturak hizkuntzari. Ez da batere aise gertatzen da zer den lehenengoa erabakitzea. Kontu garrantzitsu horretan Whorfen pentsamoldea oso zehatza ez izanagatik ere, ematen du nahita ez duela berau azaltzen egitura linguistikoen eta gizarte-arauen arteko auzia izango balitz bezala: “Ni azkena izango nintzateke —idazten du— kulturaren eta hizkuntzaren arteko korrelazioa gisako zerbait bezain definiturik dagoela aldarrikatzen ...” —neuk euskaratua— (1956: 160). “Kulturaren eta hizkuntzaren arteko korrelazioaren ideia —zehazten du— eskuarki hitz horri ematen zaion esanahian, kontzeptu okerra da” (1956: 160). Esan beharrik ez dago, Whorf “gurpil-zoroa”ren gaineko eragozpena saihesten ahalegindu zen. Hori dela-eta, kontu labankor horretan honelakoak aipatzen zituen: hizkuntzaren eta kulturaren arteko “elkarrekiko eraginak”, “eragin-zikloak”, “harremanak” eta “elkarrekiko zerikusiak”. Eta horrelako baieztapenekin etnohizkuntzalari asko bat datoz gaur egun. Haien artean, Hill (1988) eta Koerner (1992).

Gaur egun ezin uka daiteke kulturaren eta hizkuntzaren arteko harremana. Autore ugariaren iritziz, begi-bistakoa da (Velasco, 2003). Horrexetatik sortu dira, hain zuzen ere, antropologia linguistikoa eta etnolinguistika deritzenak. Berebiziko garrantzia daukate kulturak eta hizkuntzak bat egite horretatik eratortzen diren teoriak. Aurrerago itzuliko da gai horretara, baina aipagarria da egun “erlatibismo linguistikoa”-k bere bertsio “bigunean” bereganatu duen garrantzia; inor gutxi dago “determinismo linguistiko”-aren alde, hots, bertsio “gogorra”; hala ere, franko dira Whorfen kontzeptuen interpretaraztearen alde daudenak, hau da, ez Whorfek agerian esan nahi zuena, ezkutuan edo inplizituki ulertarazi nahi izan ziguna baizik. Baina, egia esanda, ikerlan honen helbururako ez da garrantzitsua Whorfen gurpil kontzeptuala “zoroa” den ala ez erabakitzea. Haren printzipioaren nolabaiteko biribiltasuna ote dagoen kontu hutsak baizik ez digu eragiten.

Era berean, Trierren hipotesiaren kasuan, eremu semantikoaren gainekoa, biribiltasuna onartua ere bada. Aurrerago, etnolinguistikaren ikergune nagusiak aipatzen direnean, sakonago aztertuko da hipotesi hori azterlanerako berebiziko garrantzia baitauka.

Izan ere, arazoa ez da hain sinplea. Trierrek eta haren jarraitzaileek eremu lexikoak eta eremu kontzeptualak bereizten bazituzten ere, bigarrenak lehenengoeekin nahasi ohi dira. Bestalde, Whorfen eta Trierren kontzeptuez gain, munduaren ikuskeraren gaiari heltzekotan, hirugarren kontzeptu bat ere guztiz beharrezkoa da: *errealitatea*. Esan ote daiteke errealitatea berez egituraturik dagoela? Benetako auzia ez da izan behar ea hizkuntzaren aurretiko mundurik ote dagoen, baizik eta ea hizkuntzaren aurretiko mundu zeharo segmentaturik ote dagoen. Mundu erreala, onartzen du Trierrek, gizakiaz landa existitzen da, baina errealitate hori, alde batetik eraldatuz doa, eta bestetik hizkuntza baten lexikoa itxuratzen du.

Horrela bada, teknika berriak agertzearekin batera, tresnak hobetzearekin batera, gizartea ezari-ezarian bilakatuz joaten da. Hizkuntzaz kanpoko eragile batzuei esker, izugarri konplexuak direnak, kulturatzat hartzen dena oso fenomeno bizi eta dinamikoa da. Gizartea ez dago geldi, ez da estatikoa. Herri baten kultura, gainera, ez da existitzen lexikoan, behintzat, islarik izan gabe. Hjemselevk honako hau idatzi zuen: “Edukiaren substantziaren deskripzioak hizkuntza beste gizarte-erakundeetara hurbilarazi behar ditu eta hizkuntzalaritzaren eta gizarte-antropologiaren beste adarren arteko ukigunea izan behar du” —neuk itzulia— (Hjemselev, 1971: 142). Horren ondoren, azaltzen du “txakurra”ren deskripzio semantikoa ez dela berdina inuit, persiar, indiar edo mendebaldeko gizakientzat, kasu guztietan era desberdinean atzemandako errealitatea baita: gurdi-aberea, animalia sakratua, pariatzat hartutako animalia edo etxeko animalia, hurrenez hurren. Euskaldunontzat txakurra ez da “aberea”, “animalia” baizik; abereak beste batzuk dira: behia, astoa, idia ... hau da, “piztia ez dena, eta bereziki

baserrian lanerako edo janaritarako erabiltzen dena” (Harluxet). Ondorioz euskal hiztunon ikuspegia ere desberdina da, eta, jakina, munduko mintzaira guztiek dauzkate beren ikuspegi bereziak. Ezaugarri batzuk komunak badira ere, beste batzuk, aldiz, ez. Nolanahi ere, autore gehienek uste dute kulturaren eta hizkuntzaren artean nahitaezko korrelaziorik ez dagoela. Bai, lehen esan dudan bezala, lotura, uztardura edo zerikusia, baina ez halabeharrezko erlazioa.

Bestalde, argitze aldera, gramatika- eta lexiko-esparruak bereiztea komeni da. Gramatika-esparruan, esaterako, makina bat adibide eman litezke hizkuntzen izenordain pertsonalei buruz: hizkuntza erromanikoen era batera egiten dute, ingelesak beste era batera, euskarak beste era batera, turkierak bestela... Germain hizkuntzalariak (1986) adierazten du L. Aragon idazle frantsesak Malaysiera hizkuntzaren izenordain pertsonalen inguruko azalpena eman zuela. Haren arabera, Malaysieraren gramatika-formen ugaritasuna Malaysiarren eta europarren arteko giza harremanen konplexutasunaren isla besterik ezin izan daiteke. Hala eta guztiz ere, edozein hizkuntza-egintzaren bilakaerak edo sormenak gizarte-egintzekin korrelazioa daukala adieraztea arriskutsu samarra izan liteke. Badirudi batzuek zerikusirik badaukatela, eta beste batzuek ez. Zerikusia diot, ez korrelazioa. Hizkuntzak gizarte-gertakizuna denez gero, izan ohi dituen aldaketek gizarte-izaera dute. Baina horrek ez du esan nahi egitura linguistikoaren eta egitura horretara jotzen duen gizartearen artean menpekotasun zuzena gertatzen denik. Horrelako paralelismoak frogatzeko, bi hizkuntza desberdinen egitura gramatikalak bi gizarte-egitura desberdini dagozkiela demostratu behar litzateke. Dena dela, irudi du, gizarte batek bere egituraren erabateko bilakaera izan arren, bere hizkuntzaren egitura morfologikoa horregatik ez dela aldatzen. Eta beste aldetik, ostera, ematen du zuhur jokatu behar dela. Egitura politiko batean goitik beherako aldaketa gertatzen denean, horrek ez dio berehalakoan eragiten hizkuntzari: denbora aurrera joan ahala, ikusiko da eragiten dion ala ez: hizkuntzaren bilakaera ez da bat-batekoa, arian-arian joaten da.

Beraz, zer gertatzen da maila lexikoan? Kasu gehienetan badirudi komunitate baten esperientziaren eta hiztegiaren oparotasunaren artean nolabaiteko lotura dagoela; adibidez, Argentinako gautxoek zaldien ilajeak azaltzeko 200 berbatik gora omen dauzkate; Afrikan palmondoa errealitate nabaria izanda, bertako hizkuntzek 60 hitzetik gora erabiltzen omen dituzte beraren inguruan. Euskaldunok ere, euriari atxikiriko zenbat-gura berba daukagu, eta ikerlan honen eginkizunetariko bat horiek atzeman, sailkatu eta aztertzea izango da.

Horiek horrela, antza denez, eremu lexikoan esperientziaren oparotasuna errealitatearen segmentazio linguistikoari dagokio. Konplexutasun handiko esperientziak konplexutasun handiko eremu semantikoa sortzeko bidea ematen du. Bestela izango balitz, erraz pentsa liteke herri baten elikagai bakanetarikoa landare-sustraiak direla, eta errealitate hori izendatzeko hitz

bakarra daukala. Baina seguru asko ez da horrela: hainbat ele izan litzake errealitate hori agerrarazteko. Bestalde, ezinezkoa dirudi herri batek bere hizkuntzan inongo gizarte-jarduerari dagozkion hitzak edukitzea. Herri horrek errealitate hori bizi ez badu, ezin izan daiteke berbarik jarduera hori izendatzeko. Eta jarduera berririk agertuko balitz, orduantxe sortuko luke hizkuntzak behar lukeen terminoa, maileguren bitartez edo hitzak sortzeko bere barne-sistemaren bidez. Hori dela-eta, euskaraz oso esaera egoki eta ezaguna bizi dugu: “izena duen guztia omen da”; hots, komunitate batek zerbait edo norbait existitzen dela uste edo igartzen badu, izendatu egingo du. Hala eta guztiz ere, gerta liteke antzinako hitz bat gaur egun ez erabiltzea, zerbait edo norbait hori ez delako baliagarria edota maileguren batek ordezkatu duelako. Eta horixe da, hain zuzen ere, gizartean eraldaketaren bat izan den seinale. Hortaz, halabeharrezko korrelaziorik ez badago ere, kultura, gizartea eta hizkuntza estu-estu loturik joaten dira; adibidez, *gaizkata* hitza *acipenser sturio* arraina izendatzeko, jende askok Errusia aldean baino ez dagoela uste duena. Egun ez dago horrelako arrainik Euskal Herriko ibaietan, baina hitz hori edukitzeak gure herrian, izan, izan zela adierazten digu: “izena duen guztia omen da”. Azterlan honi dagokionez, esate baterako, “elur-maluta” dela-eta, haren tamaina mailakatzeko hainbat berba dauzkagu geure hizkeretan. Seguru asko, ez oso aspaldi, maluten tamaina graduatu beharra izango zuen hiztunak —eta bazter askotan izango du—, errealitate meteorologiko baten isla izango baitzen. Gaur egun, oster, nekez topa genezake elur-maluta motak bereizten dituen gazterik; batetik, izan liteke klimaren bilakaeraren ondorioa, eta bestetik, gizartearen egoera soziolinguistikoaren eragina.

2.1.6. Saussure: hizkuntzen arbitrariotasuna eta motibazioa

Sapirrek hasieran egindako ikerketatik hona aztertu izan dira hitzaren esanahiaren eta hots-adierazlearen arteko nolabaiteko harreman zuzena ezartzen diren fenomenoak. Hala ere, Sapirrek dio herri tradizionalen mintzairak ez direla nabarmentzen imitaziozko berba ugari edukitzeagatik, hots, onomatopeiak edo harridurak (Sapir, 1921/1962). Ipar Amerikako kulturen hizkuntzek imitaziozko berba gutxi daukate edo zenbait kasutan ez daukate bat ere. Erdialdeko Europako mintzairetan, ordea, adibidez, ingelesa edo alemana, onomatopeia franko erabiltzen dira. Badirudi Sapirren baieztapen hau aintzat hartzeko dela antropologia linguistikoaren lehenengo aroan. Jakintza horren geroagoko garapenek eta kidekoak — hizkeraren etnografia eta etnolinguistika—, ikerguneak zabaltzen dituzte mintzaira natibo askotara hedatuz: horrek berretsi edo ukatzen ditu Europako erdialdeko hizkuntzetarako enuntziatutako hizkuntzaren printzipioak. Azalpen horiek, sarritan, hizkuntzalaritza

orokorraren eremuan berriak izaten dira; areago, hizkuntza unibertsalaren azterketa formalek irauten dute, harik eta “hizkuntza txiki”ko (Whorfen kontzepzioan) ikerlari ezezagun batek kontrakoa frogatu arte (Navarro, 2014).

Suitzako hizkuntzalariak (Saussure, 1915/1945) zenbait osagai definitu zituen, asko bitarikoak, nahi gabe sortzen ari zen zientzia deskribatzeko: hizkuntza eta hizketa; diakronia eta sinkronia, adierazia-adierazlea, zeinu linguistikoaren barruan. Azken honen ezaugarriak direla-eta, azaldu zuen adieraziak eta adierazleak osatuta dagoela. Honela ematen du zeinuaren arbitrariotasunaren berri:

El lazo que une el significante al significado es arbitrario; o bien, puesto que entendemos por signo el total resultante de la asociación de unsignificante con un significado, podemos decir más simplemente: el signolingüístico es arbitrario.

Así, la idea de sur no está ligada por relación alguna interior con la secuencia de sonidos s-u-r que le sirve de significante; podría estar representada tan perfectamente por cualquier otra secuencia de sonidos. Sirvande prueba las diferencias entre las lenguas y la existencia misma de lenguas diferentes: el significado 'buey' tiene por significante bwéi a un lado de la frontera franco-española y böf (boeuf) al otro, y al otro lado de la frontera francogermana es oks (Ochs).

La palabra arbitrario necesita también una observación. No debe dar idea de que el significante depende de la libre elección del hablante (yaveremos luego que no está en manos del individuo el cambiar nada en un signo una vez establecido por un grupo lingüístico); queremos decir que es inmotivado, es decir, arbitrario con relación al significado, con el cual no guarda en la realidad ningún lazo natural. (Saussure, 1915/1945: 93-94)

Hala ere, hizkuntzalariak onomatopeien kontua ematen du aditzera, printzipio horri eragozpenak ipintzearren:

Se podría uno apoyar en las onomatopeyas para decir que la selección del significante no siempre es arbitraria. Pero las onomatopeyas nunca son elementos orgánicos de un sistema lingüístico. Su número es, por lo demás, mucho menor de lo que se cree. Palabras francesas como *fouet* 'látigo' o *glas* 'doblar de campanas' pueden impresionar a ciertos oídos por una sonoridad sugestiva; pero para ver que no tienen tal carácter desde su origen, basta recordar sus formas latinas (*fouet* deriva de *fagus* 'haya', *glas* es *classicum*); la cualidad de sus sonidos actuales, o, mejor, la que se les atribuye, es un resultado fortuito de la evolución fonética. (*ibid.*: 94)

En *cuanto* a las onomatopeyas auténticas (las del tipo *glu-glu*, *tic-tac*, etc.), no solamente son escasas, sino que su elección ya es arbitraria en cierta medida, porque no son más que la imitación aproximada y ya medio *Carácter lineal del significante convencional* de ciertos ruidos (cfr. francés *ouaoua* y alemán *wauwau*, español *guau guau*). (*ibid.*: 94-95)

Courseren VI. atalean, Saussurek arbitrario absolutuaren eta arbitrario erlatiboaren arteko zenbait desberdintasun azaltzen ditu, eta onartzen du arbitrariotasunaren funtsezko printzipioak graduak dauzkala, edota, *continuum* bat dela zeharo motibogabearen eta motibogabe samarraren artean; munduko hizkuntza guztiak kokatzen dira bi mutur horien artean. “El signo puede ser relativamente motivado” dio (*ibid.*: 145), eta hitz-elkarketan eta hitz eratorrien bidez adibideak ematen ditu, hots, gramatika-prozeduren bidez: zenbakiak (*diecinueve*), zenbait izen eratorri (*vaquero*), atzizkigintza (*limonero*). Azpimarratzen du nolako garrantzia daukan hizkuntzalarientzat arbitrariotasunari mugak ipintzea: “No hay lengua alguna en que no haya cosa motivada” (*ibid.*: 157). Bi muturren aretan, antolakuntzarik txikiena

eta arbitrariotasun txikiena, munduko mintzaira guztiak ezartzen dira. Sausureren iduriko horretantxe datza munduko hizkuntza guztien sailkapena: motibo edo ziogabea gorenera iritsiz gero, hizkuntzak lexikologikoak dira, eta beherenera iritsiz gero, gramatikalagoak dira (*idem*).

Badira arbitrariotasun-kontzeptuaren aurkako ikusmoldeak, kontrakoan oinarritzen direnak, hots, “ikonotasun” deritzon hizkuntza naturalaren printzipioa mahai-gaineratzen dute Lucía Golluscioaren arabera, harreman semantikoak eredu formaletan islatzen dira (Golluscio, 2005: 255). Printzipio pragmatiko-kognitiboa zenbait baliabide linguistiko kognitiboren bitartez azaleratzen da, eta gramatikalizatzeko-prozesuen ondorioz, hizkuntzan tinkatzen dira estrategia diskurtsibo zehatz gisa.

Ildo horretan datza Sydney Lambek hizkuntzalaritza kognitiboaren eremuan egindako ikerketa: Ipar Amerikako hizkuntza indiarak aztertu zituen, bereziki Kalifornia aldekoak, eta haien artean monachi mintzaira (Navarro, 2014: 18).

Bestalde, Sydney Lamb hizkuntzalari neurokognitiboak bere liburuan *Pathways of the brain* (Lamb, 1999) kolokan jartzen du Saussurek proposaturiko arbitrariotasun-kontzeptua arbitrariotasunaren aurkako adibideak emanez: antza denez, hizkuntza motibatutik ateratzen ditu. Honela aztertzen du Lambek arbitrariotasuna:

Arbitrariness. The relationship between sound and meaning is in principle arbitrary. To the question, “Why is a rose called a rose?”, the answer “because it looks like a rose” is not satisfactory. There seems to be no natural connection between the sound and the meaning. This fact can be clearly seen in the case of *horse*, whose meaning is represented by quite different sounds in French (*cheval*), German (*Pferd*), and Russian (*loshad*). On the other hand, this relationship is not necessarily and not always arbitrary. For example, there is a tendency for high front vowels —spoken with the mouth only slightly open— to correlate with small objects or concepts of smallness. Thus *teeny* is smaller than *tiny* a *slit* is smaller than a *slot*. But there are many exceptions, like *big* and *small*. Linguists use the term *iconicity* for non-arbitrariness. In the structures of sentences and larger units, there is considerable iconicity, especially with respect to the passage of time. In Julius Caesar’s famous statement *veni, vidi, vinci* “I came, I saw, I conquered”, the sequence of events corresponds to that of the words. There is another form of iconicity, more abstract and easier to overlook. In most languages —but not so much in English, with its numerous lexemes from foreign sources— the phonological forms of noun and verb stems (and often other categories) agree to a large extent in their general shape. Such forms are called *CANONICAL FORMS*. For example, some languages have CVCV or CVCCV as the canonical form of the verb stem and/or the noun stem (where C stands for consonant, V for vowel). Also, prefixes and suffixes are generally shorter than stems, the most common form in typical languages being CV. *Quasi-morphemes*. Although the morpheme is usually defined as the smallest meaningful unit, we sometimes find parts of morphemes with suggestions of meaning. For example, *sl-* in *slide*, *slurp*, *slush*, *slip*, etc., with meaning ‘smoothly wet’ (Bloomfield 1933). (Lamb, 1999: 35)

Alderdi fonologikoari lotuak, paragrafo horretan bi kontzeptu nagusi dira, hizkuntzaren ikonotasuna indartzeko: aurreko bokal altuek tamaina txikia adierazten dute. Badira morfemak berez esanahia daukatenak. Lamben ikuspegi honekin bat egiten du Berlinek (1992, 2006) bere teorizazioetan.

Hizkuntzaren motibazio edo arbitrariotasunaren ikergunean aurrerapauso handi eta garapen nabaria dago hizkuntza indigenen lexiko etnobiologikoaren adibideak aztertzean. Hizkuntza horiek hiztegi etnobotaniko eta etnozoologiko guztiz motibatua daukate.

Brent Berlinek (Berlin 1992, 2006) etnobiologiaren alderdi linguistikoaren ikuspegia garatzen du, hau da, biologiaren etnolinguistika egiten duela esan daiteke. Horrela, ulertarazten du eremu etnobiologikoan hiru izendatze-printzipiok gobernatzen dituztela genero natibo gehienak: organismoaren propietate nabariren baten deskripzioa (hitzez hitzekoa edo metaforikoa), hots-sinbolismoa eta onomatopeia (Navarro, 2014: 20).

Berlinen proposamenak hizkuntzaren arbitrariotasun-nozioari aurre egiten dio, zeren hiztegi etnobotaniko eta etnozoologikoen atal garrantzitsu asko nola edo hala motibaturik baitaude. Egileak aztertu du kalitate bokalikoaren ([i]ren agerpena) eta tamaina erlatiboaren arteko zerikusia huambisa hizkuntzan (Peruko hizkuntza jibaroana) eta senidetu gabeko hiru hizkuntza natibo amerikarretan: waxampi (tupi), apalai (carib) eta tzeltal (maia). Ondorio honetara heltzen da: [i] sarri agertzea lexiko etnoornitologikoaren eredu translinguistikotzat har daitekeela.

Hitz baten hots-adierazleak esanahiarekin zerikusi zuzena edukitzeari hots-sinbolismoa deritzo. Hizkuntzaren ikonotasunaren printzipioan errotatutako prozedura da, eta hizkuntzaren gardentasuna gainditzen du, ez haren arbitrariotasuna. Hori dela-eta, honen arabera sailkatzen dira hots-sinbolismoaren gaineko fenomenoak: hotsaren eta esanahiaren arteko hurbiltasuna eta konbenzionaltasuna (motibazioa / arbitrariotasuna), lau kategoria bereiziz (Hinton et alii, 1994): gorputzekoa, imitaziozkoa, sinestesikoa eta konbentzionala (*idem*).

Lehenengoa —gorputzekoa— harridura eta oharkabeko hotsei dagokie; bigarrena —imitaziozkoa— giro naturaleko hotsen hitz onomatopeikoak (kolpeak) eta beste animalia batzuen txioen eta hotsen irudikapenak biltzen ditu. Hirugarrena —sinestesikoa— objektuen ikusizko, ukituzko eta hautemanezko propietateei buruzkoa da (kokapena, orientazioa, mugimendua, tamaina eta eitea), hau da, ikonotasuna dago erreferente edo esanahiaren zentzumen-kualitatearen eta adierazle fonologikoaren edo hitzaren zenbait propietate fonetikoren artean; hala nola, hots bokalikoaren eta tamainaren arteko zerikusia, edo luzatze bokalikoaren eta jarraikortasunaren edo gertaera baten iraupenaren artean. Lambek gorago aipaturiko paragrafoan adierazten zuenez gero, joera nagusi bat dago goi-bokaleak erabiltzeko tamaina txiki edo ñimiñoaren tasun semantikoak adierazteko. Gogora ditzagun euskaraz *txiki* edo *titi* eta eremu etnometeorologikoan *zirimiri* berbak. Laugarren kategoria —konbentzionala— azaltzen du morfemen edo multzo azpimorfemikoen eta esanahi zehatzen

arteko harremana, kultura jakin bati uztartuak; Lamben ikuspegiarekin bat datozen baieztapenak.

Lehenengo hiru kategoriek antzeko ezaugarri translinguistikoak azaltzen dituzte; azkenak, ordea, hots-segmentua aukeratzea hizkuntza bakoitzaren lexiko etnobiologikoaren araberakoa da.

Euskal Herrian hots-sinbolismoaren inguruan Oñederrak (1990, 2002) eta Ibarretxe-Antuñanok (2006) idatzi dute gehien. Oñederrak hizkuntzaren adierazgarritasunari buruz, euskarak dauzkan zenbait baliabide aipatzen ditu: eratorpen adierazgarria, hitz erroaren errepikapena, forma eta ahoskera arrotzen erabiltzea, metaforak, erregistro aldaketak, azentuaren leku-aldatzea eta abar, baina oroz gainera euskarazko bustidura adierazgarria azpimarratzen du (Oñederra, 1990: 59). Handik urte batzuetara berriz ekin zion gaia aztertzeari, eta honako baieztapenak plazaratu zituen:

Gauza gutxi esan dezakegu hortik aurrera. Esate baterako, zergatik sabaikaritasuna txikigarritasunarekin? Konbentziora jo beharra nahitaezko da gure ezagutza iristen den puntura iristen delarik. Lotura hori hitz edo atzizkien esanahia bezain arbitrarioa dela aitortu behar da besterik ezinean. Egia da euskarazko atzizki txikigarrietan ere bustidura sarri aurkitzen dela (-*txo*, -*tto*) eta, halaber, txikitasuna adierazten duten hitzetan ere maiztasun handikoa dela sabaikaritasuna hitza osatzen duten kontsonante klase baten ezaugarri fonetikoaren artean (*txiki*, *ttiki*, *gutxi*, *gutti*, *pixka*). Ezin da ukatu, halere, erraz esplikatu daitezkeela horrelakoak bestelako hots oinarritzkoagoen bustikuntzatik?. (Oñederra, 2002: 506)

Oñederraren hausnarketa hau bat dator gorago aipatu den Berlinek egindako azterketarekin: [i]ren agerpenak tamaina erlatiboarekin daukan zerikusia. Euskararen eremu etnometeorologikoan zenbait adibide dira baieztapen hori berresteko; ondorioetan, hain zuzen ere, gertaera honen nondik norakoaren berri emango da, baina aipatu den bezala, burura datorkigun lehenengo adibidea *zirimiri* berba da, lau [i] dauzkana. Honi oso kontu interesgarri irizten zaio, eta ziurrenik azterketa sakonago bat merezi luke. Bestalde, Ibarretxe-Antuñanok (2006) euskal-soinu-sinbolismoaren eremu semantiko baten analisi zehatza egiten du: mugimendu-imitazioak, hau da, mugimendua deskribatzeko erabiltzen diren adierazpen sinbolikoak. Era honetara antolatzen du: lehenik eta behin, azterketa linguistikoaren hots-sinbolismoaren estatusari buruzko eztabaida; horien ezaugarri formal nagusiak laburbiltzen ditu; mugimendu-imitazioen egitura, morfosintaxia eta semantika deskribatzen ditu; ondorio batzuk ateratzen ditu eta etorkizuneko ikerketetan analisi sakonagoa merezi duten hainbat ikerketa-arlo azpimarratzen ditu. Azkenik, eranskin bat ere barne hartzen du, lan honetan erabiltzen diren 800 mugimendu-imitazio baino gehiagoren corpus eta guzti, ingelesezko itzulpenekin eta informazio semantiko eta egituratuarekin batera. Eguraldiari buruzko berbak ere aipatzen ditu: “according to this author (Trask, 1997: 257), sound symbolic words cover

specific areas of the lexicon: (iii) weather phenonema: *txingor* «hail», *tximist* «lightning»” (Ibarretxe-Antuñano, 2006: 10).

2.1.7. Eremu semantikoak mugatzea: eremu etnometeorologikoa

Gorago aipatutako Trierren hipotesiak beste postulatu bat dauka: hizkuntza baten lexiko guztia elkarren ondoan ezarritako eremuen hierarkizazio gisa azaltzen da, hutsunerik eta gainjartzerik gabe. Hala ere, horrelako kontuak bi arazo konponduta ekarri behar lituzke: ikertu beharreko eremua mugatzea eta eremu horri dagozkion unitateak mugatzea. Hori dela-eta, gai horren inguruan jardungo da “etnometeorologia” eremua egoki eta taxuz zedarritzearren.

Zer da, zehatz-mehatz, eremu semantikoa mugatzea? Zer irizpide linguistiko eta objektibo hartuko dira kontuan ikertu beharreko eremuan unitateak sartzeko ala ez? Hasteko eremu semantikoa mugatzeak bi gauza adierazi nahi ditu: batetik, ikertu beharreko eremua zehaztu eta zedarritzea; bestetik hautatutako eremuari dagozkion unitateak aukeratzea. Horra hor, etaparik garrantzitsuenak, desberdinak eta elkarren segidakoak. Haien konplexutasuna desberdina da. Bigarren faseak, lan eskerga eta latzak, lehenengoa dakar berekin. Izan ere, lehenengo faseak, eremua mugatzeak ez dauka zailtasun berezirik, hartzen den edozein abiapuntu subjektibo samarra delako. Abiaburuari dagokionez, gogoratu behar dugu George P. Murdock-ek *Outline of Cultural Materials* (1987) izeneko liburuan antropologia arloan egindako sailkapen zabalentzariko batean etnometeorologia gaiaren mugaketa. Beraz, eremua aukeratzekoan, nolabaiteko “arbitrariotasuna” hautatzeko ahalmena badago, egon. Ikertzaileak interesatzen zaion edo maite duen eremua aukeratzen du: erabakia ezin izan daiteke guztiz objektiboa.

Kasu gehienetan erabakia hizkuntzalaritzaz kanpoko da, beste zientzia batek emandako kontzeptu batean oinarritu ohi da (antropologia, soziologia, meteorologia...). Orain arte egin izan diren eremuen ikerketetan hizkuntzalaritzatik kanpoko abiapuntu kontzeptualak erabili izan dira. Adibidez, etxebizitza, jarlekuak, abereak, koloreak, senidetasuna, abiadura eta abar. Azterlan honetan etnologia, linguistikaz eta meteorologiaz baliatzen da, finean, nolabaiteko kutsu etnolinguistikoa ematekotan. Nahiz eta Murdocken definizioa guztiz argia izan ez, nola edo hala mugatu egiten ditu ikergaia eta eremua.

Behin zein den eremua erabakita, hurrengo pausoa eremu hori unitatez betetzea da. Autoreen araberrako irizpideak desberdinak dira. Hala eta guztiz ere, bi gailentzen dira besteen gainetik: intuiziora jotzea eta irizpide objektiboak aintzat hartzea (hizkuntzalaritzatik kanpokoak edo hizkuntzalaritzarenak berarenak).

Azterkizun den eremuari dagokionez, honela geratuko da :

ETHNO-METEOROLOGY: Ideas about night and day, dawn and twilight, rising and setting of the sun, phases of the moon, eclipses, solstices and equinoxes, and the succession of seasons; notions about heavenly bodies (e.g., sun, moon, stars, constellations planets, comets, meteorites); ideas about meteorological phenomena (e.g., clouds and fog, frosts and drought, rain and snow, ice, hail and sleet, winds and whirlwinds, storms, thunder and lightning, rainbow, perihelion and aurora); associated behavior patterns (e.g., greeting the dawn, dispelling an eclipse). (Murdock, 1987: 187)

Beraz, Murdockek aipaturiko guztia aintzat harturik, honako eremu eta azpi-eremuetan sailkatu dugu corpusa:

1. Eremua: Denborarekin zerikusia dutenak.

Gau eta egun, egunsenti eta ilunsenti, eguzki-ateratze eta sartzeari buruzko ideiak, ilargialdiak, eklipseak, solstizioak, ekinozioak, urtaroak eta hilabeteak. Hortaz, eguzkia eta ilargia eta berauen araberako denbora-nozioak. Hasieran aztertu bada ere, azkenean, tesitik kanpo utzi da eremu hau.

2. Eremua: Fenomeno meteorologikoekin zerikusia dutenak.

Ostagi edo meteoroen zerikusia dutenak: hodeiak eta lainoa, izozteak eta lehorteak, euria eta elurra, izotza, txingorra eta elur-bustia, haizeak eta zirimolak, ekaitzak, trumoiak eta oinaztargia, baita hezetasuna eta laino eta antzekoak ere.

Jokabideari loturiko ereduak aurreko eremuen herri-interpretazio mitologikoa azaltzeko utziko dugu.

3. Eremua: Zeruan, ortzian ibiltzen diren gorputzekin zerikusia dutenak.

Zeruko gorputzei buruzko nozioak (eguzkia, ilargia, izarrak, planetak, konstelazioak, kometak, meteoritoak...

Hirugarren eremu hau ere bazter utziko da tesi honetan. Aski irizten zaio bigarren eremua aztertzeari, ostagiak, alegia, ondorio sendo eta zuzenak erdiesteko.

Zientziaren Meteorologia, berriz, honela definitzen da: “Atmosferako fenomenoak aztertzeaz arduratzen den zientzia. Eguraldia iragartzea eta honekin batera klima-aldaketak aurreikustea dira aplikazio-eremu garrantzitsuenak” (Harluxet).

Beraz, etnometeorologiak denboraren, ostagien eta ortzian ibiltzen diren gorputzei buruzko ideiak eta nozioak ditu aztergai; baina meteorologiak eguratsean gertatzen diren fenomenoak aztertu eta eguraldi iragarri eta klima aldaketak hartzen ditu kontuan. Azterlanean barrena meteorologia zientziaren zenbait kontzeptu erabiliko dira ezinbestez berarekiko herri-ikuspegia hobeto azalduko direlakoan; beste batzuetan, ordea, zientziaren eta herri-ikuspegia alderatu egingo dira, bakoitzak kontu eta kontzeptuak nola zehazten dituen jabetzeko. Hortaz, bien arteko elkarreragina nabaria izango da.

2.2. Esparru kultural eta etnolinguistikoa

Orain arte azaldutako guztia dela-eta, aipatu eta jorratuko den hizkuntzaren eta kulturaren arteko uztartze eta bat-egite zabal bezain oparoan oinarritzen da ikerlan hau. Eredu semantiko huts-hutsera mugatuz gero, hainbat ikergai bazter geratu behar lirateke. Semantikak eremuak definitu eta zedarritzen laguntzen du, eta etnolinguistikak corpusa interpretatu eta ulertzen lagunduko du. Ildo horretatik, gaingiroki jorratutako Sapir-Whorf printzipioak uztartzen ditu bi zientziak. Bietan du zer esanik, eta, gainera, ezinbestekoa gertatzen da etnolinguistikaren garapenean, eta bera ere bada tesiaren ardatzetariko bat. Hori dela-eta, beraren jakintza-esparrua kokatzekotan, lehenengo eta behin aspaldiko urteotan han-hemenka gai bertsuari ekin eta jarduten duten lau izendapen plazaratuko dira jakintza-esparrua argitzeko asmoz: antropologia linguistikoa, hizkuntzalaritza antropologikoa, etnolinguistika, eta hizkuntzalaritza kulturala (Palmer, 1996/2000). Lau izendapen horiek era askotara ulertzeko arriskua dagoenez gero, tesi honetan nola erabiliko diren zehaztea komenigarria da. Guztiek aztergai bertsuari heltzen badiote ere, badirudi lehenengo tokian dagoen izendapenaren arabera abiapuntua hartzeko joera dagoela: lehenengo lekuan zein dagoen, horrela ematen zaio garrantzi handiagoa alor bati edo besteari; hau da, antropologia linguistikoa erabiliz gero, abiapuntua antropologia dela ematen du, eta hizkuntzalaritza tresna osagarria, eta baldin eta hizkuntzalaritza antropologikoa edo etnolinguistika aukeratzen bada, irudi du hizkuntzalaritza antropologiari gailentzen zaiola: nahiz eta *etno-* aurrizkia hizkuntzalari guztien gogokoa izan ez, etnolinguistika hobesten da, gainerakoak gaitzetsi gabe, eta aldi berean ere hizkuntzalaritza kulturala oso egokia da; azterlan honen abiaburua linguistikoa izanda, antropologia lexikoa interpretatu eta sailkatzeko zientzia osagarri gisa erabiliko da. Bestalde, etnometeorologiaren eremua aztertzea helburu duenez gero, badirudi lotu samartuago geratzen direla etnolinguistika, etnometeorologia eta etnosemantika *etno-* aurrizkiaren bidez. Horrezaz gain, adituen arabera, Europan gehienbat etnolinguistika terminoa erabili izan da, baita etnologia antropologiaren ordeza⁴. Nolanahi ere, Estatu Batuetako antropologoaren artean antropologia linguistikoa gailendu denez gero, izendapen hori ez da batere baztertzekoa. Gauzak horrela, Eugen Coseriu hizkuntzalari errumaniarraren ekarpena ere funtsezkotzat jotzen da etnolinguistikaren eremua mugatzean:

Si el objeto de estudio es el lenguaje, si se trata de los hechos lingüísticos en cuanto determinados por los “saberés” acerca de las cosas, se hace etnolingüística propiamente dicha o lingüística etnográfica; si, en cambio, el objeto de estudio es la cultura, si se trata de los “saberés” acerca de las “cosas” en cuanto manifestadas por el lenguaje [...] se hace etnografía lingüística. (Coseriu, 1981: 12-13)

⁴ Alesandro Durantiren arabera (2000: 20) Europako hegoaldean etnolinguistika hitza hobetsi dute.

Horrenbestez, hizkuntzaren eta kulturaren arteko lotura hiru zentzutuan uler zitekeela azaldu zuen. Berak proposaturikoa honela laburbil liteke:

a) Hizkuntza bera kulturaren oinarritzko eta funtsezko forma da.

b) Hizkuntzak kultura ez-linguistikoa islatzen du: ezagunaren inguruko jakintzak, ideiak eta sinesmenak agertzen ditu.

c) Mintzatzen garenean, ez dugu hizkuntza hutsaren bidez bakarrik egiten, gaitasun linguistiko hutsarekin, baizik eta gaitasun estralinguistikoaren bidez ere. Hots, “gauzei” buruzko jakintza, ideia eta sinesmenen bitartez eta berauek hizkuntza-adierazpenari eragiteaz gain, nolabaiteko itxura ere ematen diote.

Hizkuntzaren eta kulturaren arteko harremanaren inguruko hiru norabide horietarik, Coseriuren arabera, azken biek ematen diote benetako izaera etnolingüistikari. Izan ere, lehenengoak hizkuntzalaritza hutsa justifikatuko luke, besterik ez. Beraz:

La etnolingüística sería una ciencia encargada de estudiar la íntima conexión existente entre lenguaje y cultura desde dos perspectivas, una dedicada a analizar como los hechos lingüísticos están condicionados por la cultura y otra interesada por descubrir los datos culturales que reflejan esos mismos hechos. (Martín Camacho, 2016: 186-187)

Hori dela-eta, etnohizkuntzalariek gizarte-antzezle moduan ikusten dituzte hiztunak — beren ikergaia—, hau da, komunitate berezi eta konplexu samarretako kideztat jotzen dituzte. Hiztunak kulturaren aktoreak direla esatera ausartzeraino hel liteke, kultura eta hizkuntza ezinbestez banaezinak baitira. Kultura hizkuntzaren bidez ulertu behar da; ez dago hizkuntzaren edukidun osagaia baztertzetik. Kultura izango bada, hizkuntzak izan behar du. Ondorioz, beste hizkuntzalarien eta etnohizkuntzalarien artean bada alderik: batzuen eta besteen helburuak eta azterbideak desberdinak dira; hizkuntzalariek, gehienbat, adierazleari ematen diote garrantzia; etnohizkuntzalarientzat, ordea, adierazia nagusi da hiztun-komunitate baten hizkuntzaren funtzionamendua ulertzeko. Hizkuntza ez da forma hutsa, forma edukiduna baizik. Hortaz, aintzat hartzekoa da Coseriuk (*apud* Duranti, 2000) aipatzen duenean hizkuntza-komunitateak “kultura-komunitate” gisa ulertu behar ditugula; izan ere, ondoriozta daiteke hizkuntzak sistema gisa existitu eta garatzen direla, ez bere orekaren barneko arazoien arabera bakarrik (harreman estrukturalak), baita, eta batik bat, gogoaren eta espirituaren beste gertakizun batzuen erlazioan ere: hortaz, hizkuntza estu-estu loturik dago gizarte-bizitza, zibilizazio, pentsamenduaren garapen, arte, politika eta abarrekin; laburbilduz, gizakiaren bizitza osoarekin. Gainera, etnohizkuntzalariek hizkuntza ikusten dute benetako munduen banakako irudikapenen eta gizartearen atala diren estrategia sinbolikoen multzo gisa.

Bestalde, “hizkuntzaren eta kulturaren artean mugaturiko arlo zabal horretan garrantzitsua da oso hartzen dugun abiapuntua hizkuntza edo kultura ote den bereiztea, alegia,

“hizkuntza baten kultura-interpretazioa edo kultura baten hizkuntza-interpretazioa ote den” (Terracini, 1951: 127-128). Korapilo hori argitzeko, irudi du etnolinguistika honako azpijardueretan sailka daitekeela (Casado Velarde, 1988: 41).

Linguistika etnografikoa: hizkuntza-gertakariak aztertzen ditu (edo berezko etnolinguistika) gauzei buruzko jakintzek zehaztuta dauden aldetik (kultura).

Etnografia linguistikoa: kultura aztertzen du (gauzei buruzko jakintzak) hizkuntzak adierazita dauden aldetik.

Eguraldiari buruzko lexikoa, linguistika etnografikoan, hau da, berezko etnolinguistikan kokatu behar litzateke. Nolanahi ere, beraren mugak gainditzea komeni litzateke, eta harantzago joan, Coseriuk egindako etnolinguistikari buruzko zedarriztapena eta Palmerren hizkuntzalaritza kulturala oinarriztat harturik.

2.2.1. Kulturari buruzko nozioa

Azterlan honek kulturak eta hizkuntzak topo egiten duten mugaldea jomuga daukala adierazteak garamatza kultura kontzeptu gisa zer ulertzen den jorratzera. Ez dago ukatzerik denok ez dugula berdin ulertzen zer den kultura; izan ere, maiz erabiltzen dugu gizakiaren gizarte- eta kultur bizitza interesatzen zaigun aldetik. Adibidez, Durantik egiten du kulturaren inguruko teoria zabala (Duranti, 2000: 47-81). Baina, ikerlan honetarako ez da ezinbestekoa horren inguruan teoria sakonik egiterik; aski da nolabaiteko adostasunera iristea, etnolinguistikak erreferentzia-eremua izan dezan, behar bezain sendoa, irmoa eta tinkoa, ikerguneak garbiak izan daitezen.

Helburu hori lortzeko asmoz, euskararen hiztegiatara jotzea besterik ez da behar, *kultura* nola definitzen duten aintzat hartzeko; adibidez, hau bazter utziko dugu: “gizaki baten jakintza eta ezagutza, ikastearen, irakurtzearen, bidaien, telebistaren eta abarren bitartez”. Hori ez dugu inongo hiztegitan aurkituko, baina *vox populi* izaten da. Zoritxarrez, nahiz eta euskaraz hitzen definizioa ematen duen hiztegi askorik egon ez, bat egingo da honako definizio hauekin:

-Herri edo zibilizazio bateko gizarte-egitura eta ezagutza edo fenomeno zientifiko, edo fenomeno zientifiko, artistiko edo erlijiosoen multzoa; gizakiak gizartean ikasten dituen jokamoldeen multzoa, herentzia biologikoaren bidez hartutakoari kontrajarria (Harluxet).

-Gizarteetan, ikasten diren jokamoldeen multzoa; herri edo zibilizazio baten burulanaren emaitzen multzoa (*EH*).

Definizio horiek aztertuz gero, funtsezko ezaugarriak azaleratuko dira: *kultura* lehenik, bi esparru handiren inguruko errealitate-multzoari dagokio: immaterialari buruzkoa (izaera

espiritual, psikiko edo mentalagatik), eta materialari buruzkoa. Ondorioz, kulturaren emaitzak immaterialak zein materialak izan daitezke, berez naturari kontrajarriak (cfr. Casado Velarde, 1991: 11-12). Casado Velarden iritziz, natura da gizakiari berez datxekiona; hau da, gizakiak berak esku hartu gabe, dela izaki gisa dagokiona (gorputza, organoak, gogoa...), dela ingurumenari dagokiona (lurra, ibaiak, izakiak...); kultura, ostera, izango litzateke gizakiak naturari eragitean landu eta egindako produktuen multzoa, gorputzez zein gogoz jardutean; adibidez, arrautza bat natura da, baina jateko frijituz gero, kultura izango da, natura eraldatu dugu eta. Eremita etnometeorologikoan, *matxa* artilez osatutako multzoa da, “euskarrik gabe bira handietan bildurik dagoen haria” (*EH*), baina “elur-maluta (handia)” adierazteko erabiltzen badugu, prozesu kultural baten ondorioa izango da, irudi batez, nolabait, natura eraldatu dugu eta. Ez dago ukatzerik hizkuntzen eremu batzuen lexikoa natura eraldatzeagatik sortzen dela, hots, kulturaren eraginez produktu kulturalak dira; nahitaezkoa da kulturaren eta hizkuntzaren arteko uztardura.

2.2.2. Etnolinguistikaren ikergaiak: historia eta bilakaera

Azken urteotako etnolinguistika, gutxienez, hiru tradizioz elikatuz joan da, elkarrekin nahasi samarturik badaude ere, beren garapenak edukitzeko adinako desberdintasunik badaukate: hizkuntzalaritza boastarra, hizketaren etnografia eta etnosemantika. Hirurok erlatibitate linguistikoari buruzko jarrera bertsua dute, hala nola esanahiari buruzko interesa (hizkuntzalaritza boastarra eta etnosemantika) edo diskurtsoari buruzkoa (hizketaren etnografia). Gaur egun, askok zaharkituz jotzen dituzte hizkuntzalaritza boastarra eta etnosemantika, sasoi jakin bati zegokion hizkuntzalaritza mota zirelakoan. Baina iritzi horiek ez dira guztiz egokiak; egun, hizketaren etnografiak dauka etnolinguistikan esparrurik zabalena, baina txatalak ipini beharreko esparrua da; izan ere, beren zulo kontzeptualetatik ihes egiten duten interes linguistiko eta antropologiko handiko kontu ugari daudelako. Palmerren ikuspegiarekin bat eginez (1996/2000) etnolinguistikak hizkuntzalaritza kognitiboaren printzipioak esplizituki gehitu litzake; hizkuntzalaritza boastarrari ikuspuntu modernoak eskain diezaiokeen azpi-eremu berria da, eta, aldi berean, ekar dezake etnosemantikaren aurkikuntzak integratzeko esparru berria eta hizketaren etnografiari ere funtsezko ikuspegia eman diezaioke. Palmerren ildotik jarraituz, hizkuntzalaritza kognitiboaren teoria hizketaren etnografiakoarekin konbinatzeko modua egonez gero, emaitza oso sintesi erabilgarria izan liteke hizkuntza-teoria, kultura-teoria eta teoria soziolinguistikoa elkarri lotu ahal izateko.

2.2.2.1. Boas hizkuntzalaria

Ikuspegi boastarrak, XX. mendeko hasieratik 40 hamarkadako amaiera arte iraun zuenak, bereziki gramatiken berezko deskripzioak egiteari ekiten zion, eta ez zituen erabiltzen aldez aurretik hizkuntza indoeuroparrak aztertzeko garaturiko kategoria berak. Franz Boasi ere hizkuntzen eta kulturen oinarri psikologikoak aurkitzea interesatzen zitzaion. Beraz, ez da harrizkoa hizkuntzak adimenaren iruditeriarekin⁵ zerikusi handia duela ohartzea:

...se reconecerá que en cada lengua sólo se expresa una parte del concepto total que tenemos en mente, y que cada lengua tiene una tendencia peculiar a seleccionar este o aquel aspecto de la imagen mental transmitida por la expresión del pensamiento. (*apud* Palmer, 1996/2000: 32)

Boasek 1911n idatzi zuen hizkuntza buru-bizitzaren agerpenik garrantzitsuenetarikoa zela. Hori zela-eta ikerketa linguistiko hutsa munduko herrien psikologiaren aztergune sakonaren atal bat besterik ez da. Beraren iritziz, hizkuntzaren azterketak etnologiari dagozkio; izan ere, hori munduko herrien bizitzaren gogo-gertakariez diharduen zientzia da. Azken buruan, Boas jabetu zen hizkuntzek esperientziaren azpiko sailkapenak ezartzen dituztela, eta hizkuntzek esperientzia era askotara sailkatzen dutela eta horrelako sailkapenak ez dagoela zertan kontziente eginik. Hala eta guztiz ere, gramatikan azaleratzen diren sailkapenek islatu egiten dute adimenaren iruditeriaren aukeratze-adierazpena. 1911n Boasek hizkuntzek hiztunen psikologia edo pentsaera agerrarazten zuten modua nabarmentzen bazuen ere, urte batzuk geroago, hizkuntza-kategoriek beren hiztunen pentsaera menderatzerainoko posibilitatea aintzat hartzen hasi zen. Zalantzarik gabe, kategoria kontzeptua erlatibitate linguistikoaren ardatza bihurtuko zen eta hizkuntza batek sailkatze-sistema dela erakusteko balio du: “la investigación puramente lingüística es sólo una parte de una investigación exhaustiva de la psicología de los pueblos del mundo”. Haren ustez, hizkuntza ikertzea etnologiari zegokion: “la etnología es la ciencia que trata de los fenómenos mentales de la vida de los pueblos del mundo” (*apud* Palmer, 1996/2000: 32).

Badirudi hizkuntzen aniztasunaren enuntziatua dela, baina erlatibitatearena da; izan ere, artikulatutako hizketaren azpian dauden esperientzien sailkapena eman nahi du aditzera, eta horrela suma daiteke kontrasteagatik erakutsitako aniztasun linguistikoa noraino bilakatzen den erlatibitate linguistikoa. Boasek azaltzen dituen adibideak, besteak beste, elurra izendatzeko inuitek erabiltzen dituzten terminoen ingurukoak —hala ere, teoria hori bertan behera utzita dago gaur egun—, gerora sarritan aipatu izan dutenak, esperientziaren “sailkapenak” erakusten dituzte ingelesez, inuitez eta dakotaz eta beraien artean termino bakunak edo anitzak

⁵ Adimen-iruditeria adimen-begiaz ikusten duguna da, Palmerren esanetan. Erdarazko itzulpenean “imajinería” eta “ojo de la mente”, hurrenez hurren.

erabiltzeagatik bereizten dira. Baina “determinismoa” garatzeko lanabes metodologikoak bideratu arren, antzeman egiten da Boas ez zela halakoa; izan ere, desberdintasun horiek “herrien interesen araberakoak” zirela deritzo.

Egia esan, adibide horiek hizkuntzen gramatika-mailari ez, lexiko-mailari egokituko litzaizkioke, eta hortxe dago gure ikerlanari bete-betean eragiten dion arloa. Puntu hori oso garrantzitsua da eztabaidan: nahiz eta esperientziaren eremu jakin batean mintzaira batek besteren betek baino hitz gehiago edukitzea berezia ez izan, Boasek egokiro susmatzen zuen bereizketa lexikoak agertzeak motibazio kulturala izan lezakeela. Sapirrek eta Whorfek intuizio hori gerora zehaztuko zuten: haiek argudiatzen zuten baldin eta hizkuntza batek munduko esperientzia berezi bat kodetzen bazuen, bera erabiltzeak eragin ziezaiekeen hiztunei hizkuntzan kodetutako esperientziaren arabera mundua ikusteko. Erlatibitateaz jabetzeak, gerora Sapirrek eta Whorfek garatua, hemen oinarrizko lehen alderdia du, ezbairik gabe. Eduki materialei zenbat-gura ideia sortzeko ahalmena ematen zaie eta, osagai modifikatzaileei, oster, oso gutxi; lehenengoak aztertzea lexikografiari dagokio, eta bigarrenak, berriz, gramatikari. Horrela izanda, gramatiken eta hiztegien arteko muga argi eta garbi urraturik agertzen zen, zirrikiturik gabe. Hala eta guztiz ere, Ameriketako hizkuntzetan horrelako bereizketa ilun samarra da, ezen konposizio formaletan elementu ugariak parte hartzen baitute. Esaterako, *tsimshian*⁶ hizkuntzan badira aditzondo ugari beregainki ez dihardutenak, baizik eta beste osagai batzuei atxikita joanda, aditzak aldarazten dituztenak (Halpin & Seguin: 1990): adibidez, mugimenduzko aditzak ez dira asko, baina horiek aditzondo-osagaiekin konbinaturik agertzen direnean, kopuruak ikaragarri egiten du gora. Hortaz, galdera hau da: konbinazio horiek gramatika-formatzat ala lexiko-termino desberdintzat jo behar genituzke? Bestalde, erroak —osagai modifikatua— eta hizkiak (afixuak) —osagai modifikatzailea— bereiztea nahiko iluna ere bilakatzen da, eta azkenik, hautazkoa; izan ere, osagai modifikatzaileak ugari izaten direnean, nola igarri daiteke zer osagaik zeri eragiten dion? Begi-bistan dago Boasek horrela aztergunea kategorietarantz desbideratzera bultzatzen duela. Era horretara eginda, beraien garrantzia gailurtu nahi izan zuen, hizkuntza indoeuroparrak ikertzean egin ohi ez zen bezala, etimologietan hain murgilduta. Boasek uste zuen ideien adierazpena, gehienbat, hitzen erroetan zetzala (Velasco, 2003).

⁶ Tsimshian hizkuntzak Columbia Britaniarreko ipar-mendebaldean (Kanada) eta Alaskako hegoaldean (Estatu Batuak) hitz egiten den mintzaira-multzoa da. Herri tsimshianeko 2.170 hiztunek gutxi gorabehera erabiltzen dute Kanadan mintzaira tsimshianaren bat. Bestalde, Alaska aldeko 1.300 biztanle tsimshianetik 50 bat baliatzen dira kostaldeko tsimshian hizkuntzaz.

2.2.2.2. Erlatibismo linguistikoa

Ildo horretatik bi hizkuntzalariren teoria ospetsu samarra aztertuko da, funtsezkoa baita ikerlan honetan. Semantikaren arloan gaingiroki jorratuta badago ere, etnolinguistika garatzeko ezinbestekotzat jo ohi dira bi hizkuntzalari hauen teoriak: Sapir eta Whorf. Sapirrek (1884-1939) Boasen printzipio nagusia bere egin zuen: hizkuntzak beren kategorien arabera deskribatu behar dira, eta koherentziaz aplikatu zuen Ameriketako hizkuntza indigenen azterketan eta teoria linguistikoaren inguruko idazkietan. 1921ean *Language* liburua argitaratzearekin batera, estrukturalismo amerikarraren korrante antropologikoa sortu, eta adierazi zuen esanahia azterketatik kanpo geratzea ez zela oso zilegi, ez zela metodologikoki edukia –adierazia– bazter utzi behar. Edukiak bere baitan badauka zer ikerturik haren arabera. Hizkuntzak hiztunen komunitateen kulturari estu-estu loturik eta uztarturik ikusten zituen. Sapirrek adierazi zuen zalantzarik gabe, hizkuntzaren garrantzia berebizikoa dela kulturaren definizio, adierazte eta transmisiorako. Halaber, kultura sakonago ulertzeko xehetasun linguistikoen egokitasuna garbi-garbia da, aldi berean adierazle eta adierazian.

Sapirrek 1929an argitaraturiko artikuluko batean dago erlatibismo linguistikoaren aitzindaritasuna. Hantxe dio gizakiok erabiltzen dugun hizkuntzak gure mundu-ikuskerari eragiten diola. Gizakiok hitz egiteko erabiltzen dugun hizkuntzaren mendean gaudela azaldu zuen:

Human beings do not live in the objective world alone, nor alone in the world of social activity as ordinarily understood, but are very much at the mercy of the particular language which has become the medium of expression for their society. It is quite an illusion to imagine that one adjusts to reality essentially without the use of language and that language is merely an incidental means of solving specific problems of communication or reflection. The fact of the matter is that the 'real world' is to a large extent unconsciously built up on the language habits of the group. No two languages are ever sufficiently similar to be considered as representing the same social reality. The worlds in which different societies live are distinct worlds, not merely the same world with different labels attach. (Sapir, 1929: 209)

Sapirren pentsamoldea ondo ulertzeko asmoz, aurrerago, 1931n *Science* aldizkarian berriz ere idatzitako aipu ospetsu hau erantsiko da:

Categorías como número, género, caso, tiempo, modo, voz “aspecto” y una miríada de otras más, muchas de las cuales no se reconocen sistemáticamente en nuestras lenguas indoeuropeas, se derivan en último término de la experiencia, desde luego, pero, una vez abstraídas de ella, se elaboran sistemáticamente en el lenguaje y no se descubren en la experiencia tanto como se imponen sobre ella, por la tiranía que ejerce la forma lingüística sobre nuestra orientación en el mundo. (*apud* Palmer, 1996/2000: 33)

Sapirrek jarraitzaile ugari utzi zituen, besteak beste, M. Swadesh, M. Haas, K.L. Pike, H. Hoijer, E.A. Nida eta B. Lee Whorf. Azken honek bere irakaslearen lerro nagusiak garatu eta ezarri zituen “erlatibismo linguistikoa” izeneko teoriaren bitartez. Haren arabera,

komunitate baten pentsamolde, pentsaera, jokamolde eta mundu-ikuskerak hizkuntzak berak zehazten ditu.

Beraz, Whorfen ekarpena da hizkuntzaren eta mundu-ikuskeraren arteko harremana azaleratzea. Berak zioenez, edozein hizkuntzaren egiturak unibertsoaren teoria zeukan bere baitan, “metafisika” bat. Whorfen esanetan analisi linguistikoaren lehenengo eginbeharra horrelako mundu-ikuskerak deskribatzea da. Informatzaileei zuzen-zuzenean galdetuz, ondorio garbirik ateratzerik ez dagoenez gero —ez ohi dira beren aukeren edo ohituren jabe izaten—, edozein ikerketa gramatika-ereduak sistematikoki behatuz egin behar da, eta, batik bat, zeharo ezberdinak diren hizkuntzak erkatuz; adibidez, ingelesa (edo Europako beste edozein hizkuntza) eta hopi-a (edo beste edozein hizkuntza amerindiar). Sapirren antzera, Whorfek gramatikari rol garrantzitsua ematen zion munduaren gure pertzepzioa mugatzean. Adierazi zuen hizkuntzaren oharkabeko eredu automatikoak ez direla gizaki guztientzat berdinak, baizik eta hizkuntza bakoitzarentzat zehatzak direla, eta hizkuntzaren atal formalizatua, edo bere gramatika eratzen dutela.

Hamar urte geroago, Whorfek Sapirren ideiak berriz ere hartu eta “Erlatibitate linguistikoaren printzipioa” izenburua ezarri zion. Sapirrek bezalaxe, Whorfek gramatikari berebiziko garrantzia ematen zion, beraren ustez gure mundu-ikuskerara mugatzen baitzuen. Hizkuntzaren eredu automatiko eta ez-boluntarioak ez dira gizaki guztientzat berberak, hizkuntza bakoitzaren berezkoak, baizik eta hizkuntzaren atal egituratua osatzen dute, edo haren gramatika:

De este hecho se deriva lo que yo he llamado el “principio de relatividad lingüística”, que significa, en términos informales, que las personas que utilizan gramáticas acusadamente diferentes se ven dirigidas por sus respectivas gramáticas hacia tipos diferentes de observación y hacia evaluaciones diferentes de actos de observación externamente similares; por lo tanto, no son equivalentes como observadores, sino que tienen que llegar a puntos de vista diferentes sobre el mundo. (*idem*)

Whorfen irudiko, edozein hizkuntzaren gramatika-egiturak unibertsoaren egiturari buruzko teoria bat dauka, hau da, metafisika bat. Honelako teoria plazaratzeko, aztertu zuen hizkuntza batzuek nola sailkatzen dituzten espazio, denbora eta materia.

Idea horiek antropologiaren eta psikologiaren barruan bazterrak inarrosi zituzten, eta hori zela-eta, erlatibismo linguistikoaren teoria baietsi edo gaitzesteko ikerketa ugari eraman ziren aurrera. Whorfek AEBetako hopi indigenen hizkuntzari buruz egindako tesiak, ikerketa batzuen arabera, zalantzakook badira ere, gaur egun, oraindik ere han isuritako kontzeptuak erakargarriak dira, eta herriek daukaten mundu-ikuskeran ikertzeko irekitako atea da. Dena dela, nola adierazten duen bainoago, zer esan nahi duen eta zer ulertarazi nahi digun hartu behar dugu aintzat, eta horrela bide ematen du hizkuntza kultura-egoera batean kokatzeko.

Nahiz eta Whorfen azterketa linguistikoak zenbait arazo enpiriko gainditu behar izan dituen, ezin uka daiteke hizkuntzak pentsaerari eragitearen inguruko ika-mikak antropologia linguistikoaren eta etnolinguistikaren barruan arazo nagusietako bat izaten jarraituko duela. Gauzak horrela, azken urteotan are erakargarriago bihurtu da, zeren, ikertzaileen belaunaldi berriek Whorfen intuizioak frogatzeko irrika sentitu baitute; batik bat, ea nola gramatika-kategoriak eratzen duten mundu pribilegiatu bat gizarte- eta kultur kategoriak transmititu eta erreproduzitzeko, hiztunaren kontzientzia ertainarentzat helgaitz samarrak eta beharrezkoak eta ohikoak diren aldetik. Hori oso ideia erakargarria da arrazoi askorengatik, baina, oroz gainetik, praktika kulturalen ikerketan ardatz diren gai epistemologikoak direlako.

Whorfek Sapirren ideiak garatu bazituen ere, bien pentsamenduen artean bada alde handirik:

-Sapirren irudiko, hizkuntza bitartekoa da mundua ezagutzeko prozesuan, baina Whorfen hitzetan, kanpoko mundua, hizkuntza gabea, anabasa, kaosa besterik ez da.

-Sapirrek pentsatzen zuen hizkuntza baten lexikoari dagokiola mintzatzen den herriaren esperientziaren antolatzailearen rola; Whorfen aburuz, ostera, gramatika guztiak egokiarazten du komunitate baten pentsaera.

Azkenaldi honetan, eskuarki, haien printzipioaren bertsio “leuna” onartzen da, hots, herri batek munduaren ikuskera jakin bat duela bere lexikoaren bitartez, baina hizkuntza horrek ez duela mundua ulertzeko era baldintzatzen. Era berean, baliteke hizkuntzak gure pentsaera ez erabakitzea, baina eragin egiten bide dio hauteman eta gogoratzeko erari. Aurrera eramandako saio ugari frogatu dute pertsonak gauzak hobeto gogoratzen dituztela, baldin eta horiek hitz edo esaldi oroiterrazei badagozkie. Eta ez bairik gabe, pertsona bati aiseago gertatzen zaio kontzeptu-bereizketa bat, non eta horrek bere hizkuntzan existitzen diren hitzekin zerikusirik baitu.

Kontuak horrela, irudi du egokiago izango litzatekeela erlatibismo linguistikoaren bertsio “leuna”z baliatzea. Gaur egun nekez gerta lekiguke hizkuntza batek herri baten pentsaera moldatzen duelako hipotesiari eustea, baina egia da hizkuntza bakoitzak bere erara antolatzen duela eragiten dion errealitatea edo esperientzia, oro har, hizkuntzek ikuspegi desberdin samarrak edukitzen dituztela. Azterlan honetaz bezainbatean, euskarak fenomeno meteorologikoak atzemateko dauzkan moduak eta erak ugariak eta askotarikoak dira, eta ñabardurak, zenbat-gura. Sarritan fenomeno bat izendatzeko, euskara osagai lexiko bakar batez baliatzen den arren, inguruko erdarek bat baino gehiago behar dute gauza bera adierazteko. Eta, noski, alderantziz ere jazotzen da; erdarek termino bakarra daukate, eta euskarak lokuzio batez baliatu behar du errealitate bera islatzeko. Hori dela-eta, maiz baino maizago suertatzen da

batak besteari maileguak igortzea, hiztun gehienak elebidunak diren aldetik; hizkuntza-kulturartekotasuna uste baino zabalduxeagoa izan bide da, mendeak joan, mendeak etorri. Aipatutakoaren eredu, hauxe: *txotor*: “copo pequeño de nieve” (*DVEF*: 336); oro har, elur-maluta lehor samarra eta txikia da Bizkaiko mendebaldean. Baina Azkuek gaztelaniaz ematen duen itzulpena “copo pequeño de nieve” den arren, bene-benetan itzulpenak ez du adierazten zehatz-mehatz euskarazko funtsezko esanahia; bestetik, gaztelaniazko “chispear” adierazteko euskaraz lokuzio batez baliatu behar da kontzeptu bertsua ulertarazteko: *huri-zipriztinak bota, gesala ari, euria mehe ari...* Ziur asko hizkuntzek ez dute herrien pentsamoldea moldarazten, baina herri horietako hiztunek errealitatea era desberdinean atzematen dute. Euskaldunok haize-zurrunbiloari irizteko, besteak beste, *sorgin-haizeaz* baliatzen garen bitartean, nolabaiteko osagai magikoaz horniturik, erdarek *remolino de viento*, *tourbillon de vent* eta *whirlwind* erabiltzen dituzte. Badirudi natura era esanguratsu batean hauteman eta antolatzen dela kontzeptuetan, batez ere horrela antolatzekeo hizkuntza-komunitate baten kideak garelako.

1950etik 1980ra doazen hogeita hamar urteetan, hizkuntzako esanahiaren konfigurazio kultural eta psikologikoak bilatzeko programa boastarrak jarraitzaile sutsu gutxi zuen. Sasoi hartan ikuspegi formalak eta matematikoak nagusi izan ziren, zalantzarik gabe. Halarik ere, zenbait hizkuntzalari eta antropologo estatubatuarrek erlatibitatearen esparruan lanean jardun zuten. Sapir-Whorf hipotesiaren gainean hainbat aritu ziren beharrean. Hogeita hamargarren urteen amaieratik berrogeigarren urteen amaiera arte, Dorothy Lee Californiako iparraldeko wintun herriaren mundu-ikuskeraz jabetzen ahalegindu zen, haien gramatika eta mitologia ikertze sakon eta xehearen bitartez. Adierazi zuen gramatikak era kristalduan metatutako eta metatzekoa den esperientzia daukala bere baitan, herri baten *Weltanschauung*a (Lee, 1938: 89, *apud* Lucy, 1992: 89).

1953an Harry Hoijer-ek eta Robert Redfield-ek Chicagoko Unibertsitatean kongresu bat antolatu zuten kulturaren eta hizkuntzaren arteko erlazioa aztertzekeo. Hoijer-ek jakinarazi zuen ezen Whorfek benetan azaldu zuenaren gainean, kongresu-kideek adostasun eskasa agertu zutela, baina adierazi zuen arazoaren definizioan nolabaiteko aurrerapena lortu zutela. Beraren ustez, baldin eta hizkuntzak pentsaera zorrotz bideratzen bazuen, horren arrazoia izan zitekeen hizkuntzak kulturaren barruko beste sistema guztiak blaitzen dituela. Leek ez bezala, Hoijer-ek Lucyk mahai-gaineratutako proposamenaren ahulezia kritikatu zuen, nahiz eta hizkuntza eta kulturaren arteko loturak ezartzen saiatu.

Guztiarekin ere, urte batzuk geroago, 1979an, Madeleine Mathiot-ek etnosemantistak laudatu zituen:

...por sumar la investigación sistemática del significado léxico a la semántica empírica. Distinguiendo entre significado léxico y gramatical, concluía que los dos tipos se prestan igualmente bien a una investigación de las relaciones entre el lenguaje, la visión del mundo y el resto de la cultura. (*apud* Palmer, 1996/2000: 36-37)

Nolanahi ere, ez zuen jarrera erlatibista gogorrari edo deterministari buruz jarrerarik hartzen. Mathiot-ek esanahi erreferentziala (irudi du esanahi lexiko eta gramatikalaz ari zela) eta mundu-ikuskerara bereizten zituen, eta teorizatzen zuen mundu-ikuskerara esanahi erreferentziala baino zabalagoa zela, esanahi erreferentziala jokabide linguistikoaren bitartez *zuzenean* komunikatzen den munduari buruzko informazio zehatza da-eta: “la visión del mundo es la forma general de pensamiento sobre el mundo que subyace a toda conducta cultural incluyendo la conducta lingüística” (*apud* Palmer, 1996/2000: 37). Ondoriozta daiteke bitartekoak (hizkuntza), eta mundu-ikuskerak elkarri eragiten ziotela sumatzen zuela; hizkuntzak, nola edo hala, baina argi eta garbi zehaztu gabe, eragiten ziola mundu-ikuskerari:

...proponía que el dominio semántico del lenguaje es aquel aspecto de la visión del mundo que está ligado a la conducta lingüística y que es discernible solamente a través de ésta, mientras que el dominio cognitivo del lenguaje es aquel aspecto de la visión del mundo que puede expresarse también por otros medios. (*idem*)

Antza denez, semantikarekiko ikuspegi hori kognizio eta munduarekiko ikuspegitik banatu, eta eremu autonomo bihurtzen zuen; semantikatik forma linguistikoei agintzen dieten esanahi linguistikoaren osagaiak kenduko lituzke, baldin eta osagaiok beste forma batzuei agintzen badiete. Aitzitik, egitura semantikoek hizkuntzari agintzea kognizioaren esparrutik kentzeko ez da arrazoi nahikoa. Bestalde, esanahiaren osagaiak, semantikotzat jotzen ditugunak, aldi berean mundu-ikuskeraren osagaiak direla, edota mundu-ikuskerarekiko berarekiko egitura kontzeptual paraleloak dauzkala, edota jokabide ez-linguistikoei agintzen dieten mundu-ikuskerari estu-estu loturik daudela adierazi zuen Palmerrek (1996/2000). Haren iritziz, hizkuntzak tasun berezi batzuk ager ditzakeen bitartean, hizkuntza eta mundu-ikuskerara sare kognitibo berberaren kide dira. Horrezaz gain, Mathiotek argudiatzen zuen ingurune zabaletan eta zuhaitzik gabe bizi diren ehiztari-biltzaileen gizarteek beren izen-klaseetan agerian / ezkutuan eta bertikaltasun ideia distala⁷ bereizketa adierazten dutela, eta basodun ingurune hostotsuetan bizi direnek gogortasun eta malgutasun ideiak adierazten dituztela, seguru asko, bereizketok aldi berean kulturalak eta semantikoak direlako. Lucyk (*apud* Duranti 1997/2000) Mathiot kritikatu zuen haren hizkuntza-zentrisismoagatik eta egitura gramatikala eta eduki lexikoa bereziki ez-linguistikotzat jotzeagatik.

⁷ Urrunekoak; erdigunetik urrunen dagoena.

Lucyk erlatibitate linguistikoari buruzko hipotesia berriz aztertzen dituen bi liburu idatzi ditu (Lucy, 1992a; Lucy, 1992b). Sapir-Whorfen hipotesiaren egiaztatze esperimentala zailtasunez beteta dagoenez gero, Lucyren ikuspegiak zehatz-mehatz aztertzea merezi du.

Lucy Whorfen hipotesiari berriro ekiten saiatu zen hizkuntza pentsaerari buruzko eragina mugatuz, batez ere ez-espezialisten ohiko pentsaeraren gaineko kategoria morfosintaktikoen formalki egituratutako esanahi linguistikoaren eragina. Lucyren aburuz kontu erabakigarria hauxe da:

Whether or not patterns of habitual thought can or should be summed up into an overall notion of worldview is a difficult problem which will be addressed only briefly in this study. For the purpose of this project, the critical question is whether there is or can solid empirical evidence *linking* distinctive language patterns to distinctive habitual behaviour or belief at the level of the aggregable individual social actors. (Lucy 1992a: 7)

Erantsitakoaren ohiko pentsamenduek mundu-ikuskeraren emaitza emateari buruzko auzia esplizituki bazter utzi nahiago du. Lucyren iritzia laburturik, erlatibitate linguistikoari buruzko ikerketak lau printzipio metodologikori jarraitu behar dio:

1) bi hizkuntza edo gehiago erkatu behar ditu; 2) estimulatzeko baldintza komunak eman behar lituzke (kanpoko errealitate ez-linguistikoa; adibidez, marrazkiak); 3) eremu semantiko baten analisi formala eduki behar du; 4) erabilera linguistikoaren ohiko eredu desberdinek ondorioz, pentsaeraren desberdintasunak ekarri behar lituzkete —neuk euskaratua—. (*idem*)

Ondoren, Lucyk zehazten du zertan den ikerketa: saio-multzo batean erabilitako kanpoko errealitate ez-linguistikoa, hau da, animaliak, edukiontziak, lanabesak eta sustantziak irudikatzen dituzten test-marrazkien sortak. Alde batetik, maia-hiztunak, eta bestetik, Estatu Batuetako ingeles-hiztunak erabili zituen saiootan. Emaitzak interpretatzean, Lucyk ez zuen aipatu, ez buru-iruditeriaren parte hartzea, ez eskema edo eredu kognitiborik, baina adierazi egin zituen, disposizio kognitiboa, inplikazio kognitiboa, errealitate komun baten kontzeptualizazio diferentzialak, eta numeroaren inguruko hausnartze sakona (*ibid.*: 188-256). Ingeles-hiztunek eta maia-hiztunek ez omen zuten numero-kontzeptu bera. Beharbada, “esanahi-konfigurazio” guztiaren ikerketa proposatzean hurbildu zen gehien buru-iruditeriaren kontzeptura. Hala ere, definitu zuenaren arabera, egoera kontrolatuetan jokabide linguistikoa jokabide ez-linguistiko eta “testuinguru-inguramendu”-arekin uztartzea da arazo nagusia.

Lucyk ondorioztatu zuen “ebaluazio kognitiboaren emaitzak itxaropenen ildoarekin bat zetozela” —neuk euskaratua— (*apud* Palmer, 1996/2000: 39). Eta azkenik, pentsamenduaren gaineko hizkuntzaren eragina dela-eta, hau esateraino ausartu zen: “hizkuntza bakoitzaren pluralizatzeko maiztasunak bai irudien hitzezko interpretazioari, bai hitzik gabekoari eragiten diola” eta “bi hizkuntzen numero-markari (maia eta ingelesa) lotutako sakoneko egitura lexikoek objektuen hitzik gabeko interpretazioari nolabait eragiten diotela” (*apud* Palmer, 1996/2000: 39). Beraz, hori guztia azalduta, ondorio horiek arazoak ematen badituzte ere, atal

honen helburua etnolinguistika edo antropologia linguistikoaren eremu kontzeptualaren nondik norakoaren berri ematea da. Eta teoria boastarrak ahaztu samarturik egon badira ere, azken urteotan beste berrikuste bat izan dute Lucyren ikerlanei esker.

1950etik 1980ra bitartean hizkuntzalari estrukturalek beren interes-gunetik kanpo utzi zuten esanahia. Bestalde, etnohizkuntzalari askok, etnosemantika edo etnozientzia etiketapen idazten zutenek, tasun-multzoen oinarriaren gaineko osagai-analisiaren eta sailkapen taxonomikoaren azterbideak erabiliz, kulturaren arabera antolatutako esanahi-eremuak aztertzeari ekiten zioten. Ikuspegi boastarra, Mathiotek, Lucyk eta beste bakar batzuek praktikatzen zuten bezala, gutxienena zen, eta ez, inondik inora, eginkizun horren ordezkari.

Urte haietako ikerketa gehienek erlatibismoaren hipotesia nekez eta zailtasun handiz frogatzen jardun badute ere, gorago aipaturiko bertsio “leuna”k nolabaiteko zabalkundea izan du, eta etnohizkuntzalari zenbait onartzen hasiak dira hizkuntzaren eragin “leuna” pentsaeran. Slobin-ek (*apud* Palmer 1996/2000) azaldu zuen hizkuntza bat erabiltzeak mundu fisikoaren dimentsio zehatz bati jaramon egitea dela, eta beste hizkuntza batzuek beste dimentsio batzuei. Ingelesean espazio-deixiari dagozkion bi termino linguistiko dira. *This* eta *that* hurbil edo urrun dagoen objektu bat seinalatzeko erabiltzen dira. Euskaraz hiru berbaz baliatzen gara, *hau*, *hori*, *hura*, hau da, espazioa hiru eremutan banatzen da distantzia hurbila, ertaina eta urruna aditzera emateko, ez bitan, ingelesean gertatzen den bezala.

Garai hartan ikerketa berriak eraman dira aurrera kontzeptuak sortzeko hizkuntzen balizko eragina ebaluatzeko asmoz. Adibidez, Lucyk eta Gaskinsek (2001) ondoko hau baieztatzen dute: maia hizkuntzaren izen-sistemak material-motari erreparatzen diola, eta ingelesak (*chair*, *armchair*, *couch*, *lounge*...) edo gaztelaniak objektu-motari (*silla*, *sillón*, *silleta*, *sillín*...). Haien arabera, maiek hizkuntza-edukiei jarraitu gabe sailkatzen dituzte objektuak: material motaz baliatzen dira batik bat, eta objektuen eitea bazter uzten dute. Bestalde, ingelesdun edo gaztelaniadunek objektuen eiteari ematen diote garrantzia. Ahozko hizkuntzaren ezaugarri bati esker, pentsatzeko eran nolabaiteko joera suma dezakegu eta, hortaz, Whorfen hipotesi “leuna”-ren aldeko argudio xumea bezain garrantzitsua.

Aipatu eta agertutako guztia aintzakotzat harturik, Whorfek garatu eta defendatu zuen erlatibismo linguistikoa hiru proposamenetan laburbil daiteke:

Lehenengoa, *erlatibista* peto-petoa; hizkuntza desberdinen hitzunek era desberdinean antolatzen dute mundua.

Bigarrena *determinista* da; hizkuntza ez da elkarrekin komunikatzeko tresna hutsa, pentsaera mugatu eta determinatzen du.

Hirugarrenak *hizkuntza-aniztasuna* aldarrikatzen du: munduan hizkuntza indoeuroparrak zati txikia besterik ez dira: askoz gehiago dira indoeuroparrak ez direnak, beste familia batekoak. Lehen aipatu denez, lehenengo proposamena erlatibismoaren bertsio “erradikala” da eta bigarrena “leuna”. Horixe hartuko da aintzat tesi honetan, nolabait, bigarren proposamen “leuna”. Nolanahi ere, programa baten sintesiaren enuntziatuak baizik ez dira, zeinen garapena, Whorfen lanari buruz esan dena esan dela, sistematizazio handiz eraman baitzen aurrera. Programa hari ekiteko esfortzuak eskatzen zuen hizkuntza eta pentsamenduaren arteko erlazioaren gaineko kontzepzio finkatuak aldaraztea. Hori zela-eta, teoria azaltzeko zenbait estrategia hartu beharra zegoen. Egia esan, lehen aipatu denez, eragina ez zen nolana hikoia izan; izan ere, erlatibitate linguistikoaren printzipioaren eraginkortasuna eta efikazia orduko garaiko giza eta gizarte zientzien eremuan inpaktuaren arabera neur daiteke. Teoria hark hautsak harrotu zituen, zeren etnolinguistika landu eta sortzera bultzatu egiten baitzuen. Berarekin hizkuntzalaritzaren eraldaketa zekarren, hark bere legeak hizkuntza indoeuroparren ikerketan soilik oinarritu zelako eta ez mundu osoko hizkuntzetan. Hizkuntzalaritzarentzat zientzia-estatusa aldarrikatzeaz batera, Whorf zientzia hizkuntza bezala auzitan jartzen ahalegindu zen, garai hartan proposamen berritzaile eta iraultzailea eta sen handikoa.

2.2.2.3. Etnosemantika

Antropologiaren arloan 60 eta 70ko hamarkadetan etnosemantika analisi linguistiko gogokoena izan zen. 1969an Stephen A. Tyler-ek Etnosemantika sorrarazi eta antropologiaren abiapuntuari buruz hauxe esan zuen:

Las revistas están llenas de artículos sobre análisis formal, análisis componencial, taxonomía folk, etnociencia, etnosemántica y sociolingüística, por mencionar sólo algunos. Casi todos estos temas han aparecido en el breve espacio de aproximadamente diez años, y con frecuencia creciente en los últimos tres o cuatro años. (*apud* Palmer 1996/2000: 40)

Tylerren *folk* terminoa honela ulertu behar da:

... el sistema de ordenación revelado en el léxico tanto de los pueblos llamados primitivos como de los pueblos tradicionales fue denominado “folk” (...) en realidad esta diferenciación entre lo culto y lo popular, entre la ciencia y el conocimiento folk, entre el saber académico y el saber del iletrado estaba ya establecida desde el surgimiento del movimiento romántico que en Alemania se llamó *Volkskunde*, en Inglaterra *Folklore* y en Francia *Traditions populaires*. (Velasco, 2003: 418)

Horren ondorioz, *folk* terminoa euskaraz *herri* hitzarekin lot genezake, hots, herri-jakinduria, herri-meteorologia eta abar.

Tylerrek zioenez, “etnosemantikak edo etnozientziak aztertzen du nola kulturek antolatatu eta mailakatzen dituzten ezagutzaren esparruak, hala nola, landareak, animaliak eta

senidetasun-erak” —neuk euskaratua— (*apud* Palmer 1996/2000: 41). Tylerrek etnosemantika antropologia kognitiboaren ataltzat jotzen zuen. Horrek herriek nola antolatu eta erabiltzen dituzten beren kulturak aztertzen du eta haien jokabidearen azpiko antolakuntza-hastapenak bilatzen ditu. Hasieran sailkapen taxonomiko folken⁸ deskripzioak egiteari ekin zioten etnosemantistek eta esanahiaren tasun atomistikoak aztertu zituzten.

Etnosemantikak kognizioarekiko interes sendo samarra eduki arren, hartaz baliatu ziren gehientsuenek ez zuten garatu, ezta erabili ere, buru-iruditeriaren teoriarik. Gehienbat sailkapen taxonomiko folkaren sistemak eta esanahiaren tasun atomistikoak ardaztat harturik, eremu semantiko garrantzitsuetan proiektatzen ziren lexikoen edo taxonomia folken osagai-analisiak sorrarazten zituzten.

Osagai-analisia tasun semantikoen matrize baten gaineko termino-bilketa da. Tasun edo tasun-konbinazio bera partekatzen duten termino guztiei kokapen bera ezartzen zaie matrizean. Eraitza paradigma da. Horrelako ikuspegi batean, ikertzailea kulturek antzeko ezaugarri objektiboak dauzkaten entitateak era desberdinean sailkatzen dituztelako hipotesitik abiatu (adibidez, senidetasun biologikoko antzeko estatusak), berauei tasun unibertsaleko matrize batean kokaleku desberdinak ematen dizkie (adibidez, sexu-dimentsioan oinarriturikoa, belaunaldia, linealtasuna, lateralitatea eta adina). Era berean, ikertzailea kultura desberdinek horrelako entitateak (senidetasuna) era desberdinean antolatzen dituztelako hipotesitik abiatu, kultura-tasun bereizgarri osatutako matrizean barruko kokalekuei terminoak ematen dizkie, esanahi denotatiboak eratzen dituztenak.

Taxonomia batean berbak orokorrenetik zehatzenerako hierarkian antolatzen dira. Era ideal batean klase bakoitzak bere gainetik dagoen klasearen tasunak dauzka eta aurkaritzan egoten da tasun batean edo gehiagotan maila bereko beste klase batzuekin. Etnosemantista asko koloreen oinarritzko hizkuntza arteko banaketa zehazten ahalegindu izan dira eta beste batzuk, ordea, landareena eta animaliena.

Etnosemantika ia semantika lexikoaz bestez ez da arduratu. Eremu lexikoei buruzko datuak biltzeko, etnosemantistek “elizitazio kontrolatua” deritzon metodoa erabiltzen dute eskuarki (*ibidem*: 42). Hizkuntza indigenan galdera egokiak egiten ikastea da gakoetariko bat. Egin ohi diren galderetariko bat hau da: “Zer da hau?”, argazki bat erakutsiz edo zerbait atzamarrez seinalatuz. Erantzuna “euri-zaparrada” izango balitz, beste kontu bati buruz ere

⁸ Las taxonomías son disposiciones jerárquicas de clases basadas en la relación semántica “x es un tipo de y”. Por ejemplo, Cecil Brown escribió que “para los hablantes de inglés americano, robles blancos, robles palustres y robles rojos son tipos de roble; robles, nogales y arces son tipo de árboles; y árboles, viñas y arbustos son tipos de plantas. Este tipo de relaciones de inclusión forma una taxonomía biológica folk. (Palmer, 1996/2000: 118)

galde genezake. “Hau ere bada euri-zaparrada?” Eta “euri-zaparrada” zer da? Euri asko eta denbora laburrean? Zein beste euri-mota ezagutzen duzu? Nola bereizten dituzu? Behin eta berriz egin litezke horrelako galderak taxonomia bat lortzeko asmoz. Etengabeko kontsultan informatzaile indigenekin garatuz joan diren galderak, kontu handi-handiz eraikitakoak, beraien erreferentzia-eremuekin bat etor daitezke. Horrela, etnografoak aurrez iritziak emaitzak saihesten ditu bere erreferentzia-eremuari baizik ez dagozkion galderak eginez eta kategoriak ezarriz. Tasunetan oinarrituriko analisiak etnosemantikari mugapen garrantzitsua ezartzen dioenez gero, giza-kategorizazioaren buru-iruditeriaren gainean gehiegizko abstrakzioa egiten baitu, elizitazio kontrolatuaren azterbidea bere puntu sendoena izan daiteke. Hala eta guztiz ere, elizitazio kontrolatuak arriskuak dakartza berekin. Oso era zorrotzean aurrera eramanda, horrelako azterbideak pentsamendu indigenaren dimentsio garrantzitsuak bazter ditzake. Adibidez, demagun ikertzailea besarkaduraren erlazio semantikoak identifikatzen tematurik dagoela, ez ditu kontuan hartzen antzekotasuna, hurbiltasuna, osotasuna, funtzionalitatea edota hiztunek berek aditzera emandako bestelako kontsiderazioak, hala nola landare mota batek beste batekin daukan lotura.

Paradigma eta tasunetan oinarrituriko taxonomiak nagusi izan arren, etnosemantikaren barruan hizkuntzalaritza kognitiboa sortzearen inguruko seinaleak agertu ziren. Mathiotek (*idem*) kognizioa eta mundu-ikuskeraz aztertu zituen, baina erabili zuen metodologian aurkakotasun semantikoak aurkitzeko tasun bereizgarriak formulatzera igaro zen. Ikertzaile batzuek prototipo-teoria erabili zuten edo kategoriaz indigenak, forma fisikoaren ezaugarrietan bakarrik oinarritu beharrean, beren erreferenteetan hautemandako erabilgarritasun gisa definitu zituzten. Lehentxeago, Lonsburyk (*idem*) argumentatu zuen crow-omaha motako sistemetak senide urrunentzako senidetan-berbak senide hurbilentzako berben hedatze semantiko sistematiko gisa ikus zitezkeela. Lucyk eta Shwederrek (*ibidem*: 43) kolore-terminologiari buruzko Whorfen erlatibitate linguistikoaren alde egin zuten; oroimen kromatikoari kulturalki definitutako terminoek eta esanahiek gehiago eragiten diote jaiotzatiko oinarria daukaten koloreak hautemateak baino. Bestalde, Frakek ikertu zuen AEBtako subsanum herriaren gaixotasunen inguruko terminologiaren etnosemantikoa. Horrek egundoko eragina lortu zuen; izan ere, honela definitzen zuen kultura: “dramak sortzeko, gidoiak idazteko eta, jakina, aktoreak eta audientziak biltzeko printzipio-multzoa” (Frake, 1981: 375-376). Ez zitzaion iruditzen norabide hau interpretaziozko ikuspegi simbolikoei lotzea zenik, baizik eta etnozientziaren ikuspuntu kognitiboak zabaltzea.

Aipatuak aipatu, etnosemantikak ez zuen inoiz aintzat hartzen buru-iruditeria edo iruditeria-ikuspegia. Egia esan, azterbideek eremu semantikoaren iruditeria-oinarriak ilundu ohi

zituzten. Duela gutxi arte, etnosemantikak eta antropologia kognitiboak ez dute lortu hizkuntza interpretatu eta hizkuntza eta kultura ikertzeko kultur gidioen inplikazioak aprobetxatzea.

Etnohizkuntzalari guztiak ez zeuden pozik garai hartako teoriaren egoerarekin; adibidez, Friedrich kexu zen. Haren ustez, eskasa zen aukera, “hauxe baino ez dugu, sintaxi logiko-transformazionala, orientazio estatistikako soziolinguistika eta antropologoaren taxonomiak” (Friedrich, 1975: 235). Sinbolo lexikoen ez-arbitrariotasuna onartzearen alde egiten zuen, hizkuntzalaritza hizkuntzaren jolas-erabilerari aplikatu ahal izateko, bereziki, sormen poetikoari eta “egitura fonetiko eta lexikoaren mundu errealekiko eta kode semantiko eta kulturaletako esanahi-sistema sakonagoekiko erlazioei” (*ibid.*: 235-236). Interpretaziozko eta ikuspegi sinbolikoek indarra hartzen zuten heinean, antropologiaren gaineko etnosemantikaren eragina 80ko hamarkadan ezabatu zen. Etnolinguistika semantika lexikotik aldendu, eta diskurtsoan ardazturiko soziolinguistikarantz lerratu zen.

Beste alde batetik, Margot Bigot irakasle argentinarrak hizkuntza jotzen du kulturaren komunikazio-sistema eta sistema sinbolikotzat. Haren ustez hizkuntzaren, pentsamenduaren, kulturaren eta gizartearen arteko harremanak ikertzeak ahalbidetzen du gizakiaren ekoizpen kontzeptual eta sinbolikoen azterketan sakontzea eta, horrela, gogoetarako ardatz bat eraiki liteke aniztasun linguistiko-kulturalari heltzeko. Bere liburuaren seigarren atalean Fernández Guizzetti antropologo-hizkuntzalaria aipatzen du, eta azaltzen du Fernández Guizzettiren ikuspegiaren arabera, etnolinguistika diziplina arteko jakintza dela, hizkuntza bera aztertzen duena, baina kultura osoa sinbolizatzen duen neurrian. Metodologia etnosemantikoa proposatzen du, hizkuntzaren bitartez, gizatalde baten mundu-ikuskeraz jabetu ahal izateko:

Desde la perspectiva de G. Fernández Guizzetti (1930-1986) la etnolingüística es un saber interdisciplinario que tiene por objeto el estudio de lo idiomático en cuanto simboliza la totalidad de la cultura. Propone una metodología “etnosemántica” (o etnohermenéutica) para acceder, por medio de la lengua, a la cosmovisión de un grupo humano. Esto es posible tanto en su aspecto descubierto a través de diferentes tipos de discursos (mitos, leyendas, cuentos etc.) como en su cosmovisión encubierta, que involucra aspectos inconscientes del psiquismo humano, también condicionados culturalmente. De este modo es viable reconstruir las estructuras conceptuales de un grupo humano a partir del léxico y de las categorías gramaticales, e indagar la lógica étnica analizando las relaciones entre los elementos UMSE (unidad morfosintáctica eje, se trata de unidades que los hablantes consideran no segmentables, aunque de hecho los son para el lingüista) en los planes jerárquicamente superiores. (Bigot, 2008: 127)

Adierazpen horrek berebiziko garrantzia dauka tesi honetarako zeren gizatalde baten egitura kontzeptualak eraiki baitaitezke lexiko eta kategoria gramatikalak abiapuntua direlarik: dena dela, hemen lexikoa aztertzeari besteri ez zaio ekingo.

Horrezaz gain, aipatu behar dira taxonomia biologikoak. Conklinek (1962) aurkeztu zuen lehenengo aldiz landareen munduari taxonomien aplikazio analitikoak, bere doktorego-tesian, Hanunóo kulturean: 1800tik gorako terminoak mailarik espezifikoenan; beste aldean,

berriz, botanikoez 1300 baino ez zeuzkaten sailkaturik (Velasco, 2003: 412). Berlinek (1992) ondu egin zuen Conklinen azterbidea.

Ildo beretik, nahiz eta azken urte haietan etnosemantikak aspaldiko indarra galdu, B. Berlinek etnobiologiari buruzko sailkapen taxonomikoaz argitaratu zuen lana berriz ere aipatzea merezi du (§2.1.4). Hurrengo lerrootan, Berlinen puntu garrantzitsuenak zehaztuko dira (Berlin, 1992: 35-51).


Berlinek sailkapen biologikoko folk-sistemetan egin zuen lan, eta gaur egun erreferentzia garrantzitsua da horrelako sailkapena aurrera eramango bada. Haren arabera, edozein sistema etnobiologiko egitura taxonomiko batean egituraturik dago, gehienez sei tasun dauzkana. Goi-maila, *unique beginner* edo *kingdom level* deritzona da, hau da, “gorenko maila”, landare edo animalia berben bidez adierazia. Hurrengo maila, bizitza-erei dagokiena da; adibidez, gorenko maila animalia bada, hurrengo mailan, txoriak, sugeak eta arrainak. Hurrengo maila da Berlinen sailkapenaren ardatza, “tasun generikoa” izenekoa. Adibidez, txorien izenak. Horrela jarraitzen du azken maila arte. Honela geratzen dira mailak: Maila Gorena → Bizi-era → Generikoa → Espezifikoa → Barietatea.

Berlinek ezagutza etnobiologikoa irudikatzeko taxonomia-formen murrizketa unibertsalak aurkitu dituela aldarrikatzen du. Berak dioenez, sailkapen-sistema etnobiologiko guztiak azaleko egitura taxonomiko baten arabera antolaturik daude, gehienez sei kategoria elkar-ukatzaileak dituztenak. Maila gorena “hasiberri bakarra” *unique beginner* edo “erreinu-maila” *kingdom level* da. Ingelesez landare edo animalia markarik badauka ere, beste hizkuntza-sistema batzuetan markarik gabekoa izaten da. Hurrengoak bizi-formaren tasunak dira, markaturik dauden arren, eskuarki gutxi, hamarretik hamabostera izaten direnak. Ingelesezko Animalia maila gorenak bere baitan txoria, sugea, arraina, eta abar hartzen ditu. Dibertsitate handiko maila erakusten duten bestelako bizi-formak; adibidez, ostrukak, indioilarrak eta mikak txoria bizi-formaren azpian sarturik daude, baina era desberdinean markatuta daude.

Taxonen —sailkapen biologikoetan erabilitako unitatea— hurrengo maila, “kategoria generikoa”, *generic rank*, edozein sailkapen etnobiologikoren muina da Berlinen iritziz. Edozein sailkapen-sistematan topa daitekeen taxon kopururik handiena kategoria honetan dago, baina bakan-bakanetan 500 itemetik gorakoa izaten da erreinu bakoitzean. Berlinen arabera kategoria generikoko taxonak dira nabarmenenak jatorrizko hiztunentzat: badira lexema sinpleak, maiz erabiliak, umeez jatorrizko hizkuntzan goiz ikasten dituztenak eta informatzaileengandik errazago eskuratzen direnak. Animalia erreinuko txoria bizi-formaren azpiko kategoria generikoaren taxonei buruzko adibideak *indioilarra* edo *kookaburra* (Australiako txori txikia) dira edo *landare* erreinuko *zuhaitzaren azpian eukalipto* edo *pinua*.

Maila gorenari zuzenean lotutako taxon generikoak eduki daitezke bizi-forma baten taxon baten kide izan gabe; adibide bat *olagarroa* izan daiteke; izan ere, animalia izan arren, argi eta garbi ez da arraina, ezta zenbait bizi-formaren taxona ere (garrantzitsua da aipatzea herri-kontzeptuez ari garela, ez zientzia-kontzeptuez; izan ere, olagarroak moluskuak dira, geroagoko kontzeptu hori zientziak jorraturikoa da, ez ingeles-hiztunen herri-ezagutza biologikoaren atala). Horren harira, Wierbiczka, puntu horri dagokionez, zehaztu zuen taxon generikoen eta bizi-formen artean “a kind of” -mota parafasia erabil daitekeela; horrela, *kookaburra txori*-mota da eta *eukalipto* *zuhaitz*-mota da. Taxon generikoen arteko erlazioa kontrastekoa da, bizi-formaren taxonak gauzen klase nagusiko mota desberdinak denotatzen ditu. *Txoria* gisako bizi-formaren taxon bat ez bezala, *txakurra* gisako taxon generiko baten kidea nahiko homogenea da; izan ere, gutxi gora-behera genero biologikoei dagozkie, hau da, ezaugarri komun asko dauzkaten talde naturalak. Berlinen edozein sailkapen etnobiologiko egiteko oinarritzko maila direla aldarrikatzen du (Wierbiczka, 1992: 119-123).

Taxon generikoak maiz monotipikoak mota bakarrekoak izaten dira, hots, harantzagoko taxonak menderatzen ez dituzten unitate terminalak. Halarik ere, zenbait taxon generiko politipikoak dira, mota askotarikoak, bere baitan taxon espezifiko azpi-generikoak dauzkate. Horiek gutxi izaten dira eta lexema polinomiko konplexuek markatzen dituzte emandako taxon generikoak. Horrela, Australiako ingelesaren *eucalyptus* (eukalipto) taxon generikoak honako taxon espezifikoak eduki ditzake berekin: *snow gum* (Australiako eukalipto mota bat, “*eucalyptus coceifera*”) eta *blue gum* (Australiako beste eukalipto mota bat, “*eucalyptus globulum*”). Printzipio honek salbuespen bat dauka, ingelesezko taxon generikoa, *dog* (txakurra); gizakiaren aldetik, milaka urteko zainketa eta arraza-gurutzatzea direla-eta, taxon espezifiko ugari dauzka. Azkenik, taxon espezifiko batek barietate-taxon asko menpera ditzake; berauek arraroak dira eta marka polinomikoak dauzkate. Berlinen ereduaren arabera, taxonomia osoa honela irudika liteke:




MG = Maila Gorena (Hasberri bakarra); BF = Bizi-forma; G = Generikoa; E = Espezifikoa; B = Barietatea

Conklinek (1962) nahiz Berlinek (1992) jarraitzaileak izan dituzte; haien artean James Hamill-ek, H. Sidkyk eta Janardian Subedik (2002) haien ereduak aplikatzen diote Jirel (Nepalgo etnietariko bat) herriko hizkuntzaren txorien sailkapenari. Guztira 134 txori-izen batu zituzten. Oro har, euren arabera, Jirel hitzek ez dute ezustekorik ematen sailkapen folk orokorrean, bizi-formaren taxon argia (“txoria” glosatua) daukate eta zenbait taxon generiko Jirel-en txori-lexikorako. Hala ere, datuak iluntxoagoak gertatu ziren maila espezifikoko edo barietaterenean, nahiz Jirel hiztunek multzoak bereizi. Artikuluan guztira 8 taularen berri ematen dute: txoria izendatzeko Jirel herriaren izen guztiak ordena alfabetikoz, izen binomialak, sailkatze-saiatze baten emaitzak, hautatutako txorien deskribapenak, altitudearen araberako taula, habia egiteko ingurunearen araberako taula, janariaren araberako taula eta taula librea.

Gaztelaniaren esparruan, adibidez, oso adierazgarria da Errioxako landareen gainean Martin Ezquerrok (1994) egindako sailkapena; lan konplexu eta interesgarria (*apud* Velasco, 2004, 415). Ondoriorik azpimagarriena da —era boastar batean—, taxonomia guztia kulturaren emaitza dela, eta ez beraren beheerako mailak, hau da, natuaren eraldaketa gertatzen dela maila guztietan (*apud* Velasco, 2004, 415); beraz, adierazi behar da kulturak jakintza-sistemak direla. Horrela, edozein eremu lexiko era sistematiko batean taxuturik dago, barneko kohesio gotorra dago, hain zuzen ere. Folk-taxonomiaren azterbidearen erakusgarri da, besteak beste, Martin Ezquerroren (*idem*) Errioxako landareen honako sailkapen hau:

Planta							
Planta cultivada							
Arboleado							
Prisco				Viña (uva)			
Alejandro Dumas Amarillo dorado Babigol Del cabo	Carnival Catarina Dison Encarnado de Gallur	Jerónimo Miraflores Del piquillo Rejabel	Rezglobe Rubidús Sudanel Tomatero Vesubio	Albillo Francés De gato Cojón de gato	Charesilla doré Garciano Garnacha negra	Garnacha roya Granadina Miguel del Arco Miura	Monastel Moscatel Tempranillo
1. taula. Errioxako landareak [Iturria: cuadro 12.30, Martin Ezquerro, 1994]							

Azalpenak azalpen eta teoriak teoria, nabarmendu behar da lexiko etnometeorologikoa ez dela eremu botanikoarena bezain hierarkikoa; zenbait maila izaten da, bai, ez dago ukatzerik, baina Berlingen sailkapena kontuan hartzekoa bada ere, ez da aplikatzekoa berak egin zuen bezalaxe: ez luke zentzurik izango. Ez dirudi goitik beherako sailkapena taxuzkoa zian litekeenik. Zentzukoagoa dirudi alderik aldeko sailkapenak. Nolanahi ere, ikergune etnometeorologikoa garbiago ikustearren, honelako taxonomia egin liteke azterketa aurrera eramateko. Jakina, hutsune asko eduki arren, aztertuko litzatekeenaren eskemaren laburpena besterik ez izanagatik ere, nondik norakoaren berri eman dezake:



2.2.2.4. Hizketaren etnografia

Palmerrek antropologia linguistikak dauzkan hiru tradizioen artean, hizketaren etnografiari toki berezia ematen dio (2000: 44). Hizketaren etnografiak bere egiten du, kulturaren arabera definituriko egoeretan hiztunek hizkuntza-baliabideak aplikatzen dizkietela gizarte-helburuei. Hizketaren etnografiak nahitaezko gizarte-egoera eta ikuspegi dinamikoa ezartzen ditu. Berauek, hain zuzen ere, falta dira neurri handi batean, ikuspegi etnosemantikoen bereizgarri diren hiztegi indigenen ikerketa estatikoetan. Baina hizketaren etnografia — hemendik aurrera HE—, etnosemantika baino hobexea da hizkuntzaren kulturalki definitutako adimenaren iruditeriaren rolaren kontzeptualizatzean. Gizarte-xedeak, hizketa-tankerak, hizketako egintza eta egoerak batzuetan folk-eraikuntzen edukitzat hartzen dira (*emic*), baina, antza denez, sarriago teoriaren funtsezko kategoria analitikotzat (*etic*). Anbiguotasun hori *emic* / *etic*, Palmerren ustez Dell Hymesen (1962-1974) eta beronen jarraitzaileen idazkietan azaleratzen da (2000: 44).

Hirurogei eta hirurogeita hamarreko hamarkadetako eragin handiko artikulu sorta batean eratu zuen Hymesek HEren ikuspegia hasiera batean. Haietan hizkuntzaren eta kulturaren arteko uztardura esplizituki azaltzen zuen, baina, Boasek ez bezala, ez zituen sartzen funtsezko bere interesen artean “buru-gertakariak” (hau da, kognizioa): “trataba el habla como un sistema de conducta cultural, pero él mismo no se dedicó al estudio del lenguaje y la cultura como psicología o cognición” (Palmer, 1996/2000: 45). Horrenbestez, Hymesek hizketa kultur jokabidearen sistematizat hartzen zuen, baina berak hizkuntza eta kultura ez zion psikologia edo kognizio gisa aztertzeari ekin; aitzitik, garrantzi handia eman zion hizketako egintzak, diskurtsoa eta ariketa aztertzeari, hori guztia gizarte-egoeretan. Horixe da, hain zuzen ere, antropologia linguistikoa menperatzeraino heldu den ikergunea.

Palmerrek dio:

Hymes argumentaba que la competencia lingüística de los hablantes no sólo incluye la capacidad de producir una sintaxis apropiada, como había propuesto el generativista Noam Chomsky, sino también la capacidad de usar el lenguaje pragmáticamente en contextos sociales y culturales. (*idem*)

Ondorioz, Chomskyren teoria kritikatu, Hymesen ustez, sintaxi egokia sorrarazteko gaitasuna ez ezik, kultur eta gizarte-egoeretan hizkuntza pragmatikoki erabiltzeko gaitasuna ere hartzen du bere baitan hiztunen gaitasun linguistikoak. Hymesen ikuspegi baliatzen ziren espezialistek orduko nagusi zen hizkuntzalaritzaren aztergaietatik kanpoko hizketa-fenomeno ugari bildu eta dokumentatu egin zituzten; adibidez, kaleko beltzen hizkera, indioen denboranozioa, hizkuntza errituala, hileta-erosta, eta abar. Hymesek berak chinook herriaren narrazioen ariketa eta olerki-erak aztertu zituen.

Palmerren arabera, Hymesek ez zuen sekula ukatu hizkuntzan kognizioaren edo ezagutzaren garrantzia; izan ere, bere antologian lan boastar eta etnosemantikoak sartu zituen, eta Boasi berari eskaini zion ondoko lorea: “...concedió al mismo Boas el crédito de definir casi todo el ámbito de la antropología lingüística americana hasta el presente” (*idem*). Etnozientzialarien deskripzio estruktural eta analisi kontrastatzaileei on iritzi omen zien Hymesek, eta noraino herri baten kategoria kognitiboek hizkuntza-adierazleetan islarik daukaten ala ez plazaratzeraino iritsi zen. Hala ere, hizkuntzaren azterketa kognitiboa etnozientzialariei utzi zien, zeintzuek ez zituzten inoiz beren teoriak eratu HEren barruan sartzeko. Gehienbat nomenklatura-sistemen osagaien analisi kontrastatzailea egiten jarraitu zuten (senidetasuna, koloreak, botanika, gaixotasunak), eta ez ziren gramatika, diskurtso eta hizketaren teoria kognitiborik aurrera eramaten saiatu.

Palmerren arabera, “más que presentar una teoría explicativa, Hymes abogaba por una «teoría descriptiva» dirigida a producir una taxonomía de lenguas” (*idem*). Azken batean, teoria deskriptiboa funtsean kontrol linguistikoaren zerrenda baizik ez da; etnografoak agertokiak, parte-hartzaileak, helburuak, egintza-sekuentziak, klabeak, baliabideak, arauak eta generoak dokumentatu behar lituzke. Hymesen eremu teorikoan, agertokiak, “kulturalki definitutako denbora eta lekua, edo eszena” esan nahi duenak, beste batzuek izendatzen duten egoeraren baliokidea ematen du. Baliabideak kategoria konplexua da, kanalak (ahozkoa, idatzia) eta hizketa-erak (hizkuntza, dialektoa, kodea, aldaera eta erregistroa) hartzen dituena. *Klabeak* era lauso batean definitzen ditu tonua, era edo espiritua adierazteko.

Kategoria horiek irudikapen, ideia, irudi, eskema edo eremuekiko interes handiegirik agertzen ez zutenez gero, ez dago batere garbi non txertatu behar litzatekeen hizkuntzalaritza kognitiboa Hymesen ikuspegian. Baldin eta hizkuntzaren eta buru-gertakizunen arteko lotura boastarra baliozkotzat ematen bada, HE, Hymesek definitzen zuen bezalaxe, osatu gabeko ikuspegia zen, teoria kognitibotik etekina atera zezakeena.

Hymesen esparru teorikoaren barruan egindako azterketek ukatu ezinezko balioa badute ere, HE ez da oraindik estu-estu eratutako hizkuntzaren teoria. Askoz hobeto deskriba liteke ikuspegi zabal eta eklektikoa erabiliz, zeinek, hizkuntzalaritzaren eta etnografia estrukturalen azterbideak hartzen baititu eta bere teoria hizkuntzalaritza, kultur antropologia, filosofia eta soziologiatik. HEk koherentzia handiagoa bereganatuko luke hizkuntzalaritza kognitiboaren printzipioak bere gain hartuko balitu.

Laburbilduz, hizkuntzalaritza boastar, etnosemantika eta hizketaren etnografiak indigenaren ikuspuntuari begira elkarrekiko interesa agertu eta partekatzen dute. Arazoa honakoa honetan datza: Whorfen programa bultzatuz, etnosemantikaren objektibismoa

saihestuz eta HEri zehaztasuna erantsiz. Sintesi linguistiko kulturala egin liteke, lerro hauetan jorratu den Palmerrek (*ibid.*: 48) proposatzen duen bezalaxe. Hiru alorren ekarpenek garaiko hizkuntzalaritza kognitiboarekin bat egitean Palmerrek aurrera eramane nahi duen hizkuntzalaritza kulturalaren oinarri sendoak ipintzen dira, baina beti ere antropologiaren ikuspegiaren arabera, eta ez hizkuntzalaritzarena.

2.2.2.5. Hizkuntzalaritza kognitiboa

Hizkuntzaren analisiak ohiko adimenaren iruditeriaren bitartez hasi behar lukeen premisa argi eta garbi sortu da hizkuntzalaritza kognitiboaren arlo berrian. Arlo horrek hizkuntzalaritza boastarraren interesgune psikologikoak partekatzen ditu eta ikuspegi horren berpizkunde modernotzat jo liteke. Dena dela, orain arte ez du agertu hizkuntzalaritza boastarrean aurkitzen den kulturarekiko interes bera edo, azken buruan, hizketaren etnografian. Baina, hizkuntzalaritza kognitiboa ulertzeko era zuzenago bat zientzia kognitiboaren arloaren barruan kokatzea da.

Hizkuntzari buruzko teoriak, arrazoinamendua, kultura, buru-iruditeria eta mundu-ikuskeraz zenbait jakintzaren artean banaturik egon izan dira tradizionalki, baina, zientzia kognitiboa heltzeaz batera, gaiok bat egiten hasiak dira. Antropologia, adimen artifizial, hizkuntzalaritza, neurozientzia, filosofia, psikologia eta erretorikako ikertzaileek berriki sortutako teoriari ekarpenak egin dizkiote. Elkarrekiko ikerguneak zientzia kognitiboa izena hartu ohi du, baina giza zientziek eta zientziek hain dute parte hartze handia, ezen interesgune komuneko alorrak ikerketa edo ikasketa kognitiboak izendatzea hobe izango bailitzateke. Baina, zer adierazi nahi dute kognizioak eta zientzia kognitiboak?

Adimen eta prozesu konputazionaleri buruzko ikerketak bazter utzita, adibidez, Gardnerrek honela definitu zuen zientzia kognitiboa:

un empeño contemporáneo de base empírica por responder a interrogantes epistemológicos de antigua data, en particular los vinculados a la naturaleza del conocimiento, sus elementos componentes, sus fuentes, evolución y difusión. (Gardner, 1985/1988: 21)

Definizioa erabilgarria da oso, zeren, arrazoinamenduari, adimenaren iruditeriari, pertzepzioari, hizkuntzari, kulturari eta mundu-ikuskerari heltzeko bide ematen baitu, ez bairik gabe. Hizkuntzaren beraren barruan, sintaxiari nahiz semantikari tartea uziko lioke.

Gardnerrek Zientzia kognitiboari buruzko definizioak sare handi samarra zabaltzen du; izan ere, orokorregia da hizkuntzalaritza kognitiboan erabili ohi den kognizioa terminoaren zentzua atzemateko. Gardnerrek berak murriztu zuen zientzia kognitiboaren ezaugarri behinena buru-irudikapenekiko interesa dela proposatuta:

La ciencia cognitiva se basa en la creencia de que es legítimo —más aun, necesario— postular un nivel separado de análisis, al que podría denominarse el “nivel de la representación”. El hombre de ciencia que opera en este nivel comercia con entidades representacionales como símbolos, reglas, imágenes —la materia prima de la representación, que encontramos entre lo que afluye y lo que efluye, entre lo que entra a la mente y lo que sale de ella—, y explora la forma en que estas entidades representacionales se amalgaman, transforman o contrastan entre sí. Este nivel es indispensable para explicar toda la variedad de las conductas, acciones y pensamientos humanos. (Gardner, 1985/1988: 55)

Hortaz, haren iritziz, giza jarduera kognitiboa sinbolo, ikur, eskema, irudi, ideia eta bestelako buru-irudikapenen arabera deskribatu behar da. Gardnerrek baieztatu zuen zientzia kognitiboa ez bezalako jokabide-zientziek beren azalpenetan ez dutela zertan buru-irudikapenik postulatu: neurologoek, adibidez, burmuinaren jokabidea zelula nerbiosoen arabera azaltzen dute, eta antropologoek giza jokabidea kulturaren ikuspegiaren arabera azaltzen dute.

Irudikapenak garrantzitsuak dira hizkuntzalaritza kognitiboarentzat. Hori horrela izanda, Gardnerrek zientzia kognitiboarentzat nondik-noratu zuen esparru kontzeptual berean kokatzen da. Chafe-k (1990: 80) adierazi zuen “Giza organismoa irudikatzeko bere trebeziari esker ingurunearekin aritzeko gai dela”, hots, “inguratzen duen munduaren irudikapen landuak sortzeko abilezia, bere mundu-ikuskerara irudikatzeko gaitasuna” —neuk euskaratua—. Langackerrek (1987) eta Lakoffek (1987) egindako hizkuntzalaritza kognitiboaren barruko ikerlanen arabera, hizkuntzak buru-irudikapen edo ideia koherenteak adierazten ditu, direla gestaltak, eskemak, irudiak edo Idealizatutako Eredu Kognitiboak (IEK).

Lakoff & Mark Johnsonek (1986) “gestalt esperientzialak” espresioa erabili zuten, “egituratutako osotasunetan esperientziak (dimentsio aniztunak) antolatzeke erak” bezala ulertuak (1986:121). Lakoffek geroago “Idealizatutako Eredu Kognitiboak (IEK)” terminoa asmatu zuen Hizkuntzalaritza kognitiboaren barruan hain rol garrantzitsua jokatzen duten gogo-irudipen konplexuetarako. IEK bat “egituratutako osotasun konplexua da, lau printzipio egituratzaile mota erabiltzen duen gestalt bat”. Printzipio egituratzaileok ondoko hauek dira: egitura proposizionala, egitura eskematiko-iruditzailea, proiektzio metaforikoak eta proiektzio metonimikoak.

Azterketa linguistikoan gestalt teoriaren baliatzea ez da batere berria. Whorfek (1940) gestalt printzipioak jadanik esplizituki erabili zituen AEBetako shawnee hizkuntzaren oinarri lexikoen irudiaren eta hondoaren arteko erlazioak aztertzeke.

Hizkuntzalaritza kognitiboak itxuraz oso bestelakotzat jo ohi diren arlo askoren azterketa batzen du bere baitan: hala nola, fonologia, sintaxia, semantika eta diskurtsoa. Horiei guztioi printzipio sorta beraren bitartez heltzen die. Hortaz, hizkuntzalaritza kognitiboak hizkuntza osagai diskretu multzotzat hartu beharrean (morfema > lexema > sintagma > perpausa), kategorien graduzko continuumtzat hartzen du. Bitarteko kategoriak, continuum

linguistikoak, fenomeno prototipikoak era sare semantiko irregularrak erraz egokitzen dituen ikuspegi sintetikoa eskaintzen du. Sare semantiko irregularretan, nomenklatura botanikoa, toponimia eta termino anatomikoak ditugu.

Orain arte hizkuntzalari kognitiboek gramatika-ereduak azaltzeari ez besteri ekin diote. Kultura, diskurtsoa, narrazioa eta mundu-ikuskerak tankerako nozio zabalez noizean behin jardun izan dute. Halarik ere, hizkuntzalari kognitiboek kulturak eta mundu-ikuskerak ulertzeko ekarpen handiak egin dituzte, batez ere sistema metaforikoak aztertze orduan. Hizkuntzalari kognitiboek maitasuna, sumina, eztabaida, denbora eta beste gai askori dagozkien sistema metaforikoak aztertu izan dituzte.

Mundu-ikuskerak eredu eta eskema kognitiboen moduko material kontzeptualetan oinarriturik dagoenez gero, hizkuntzak zein mundu-ikuskerak arrazoinamenduaren prozesuekin zerikusia dute.

Amaitzeko, antropologoek argi eta garbi ikusiko omen dute hizkuntzalaritza kognitiboaren erabilgarritasuna nomenklaturak, hizkuntzaren eta kulturaren arteko lotura eta hizkuntzaren eta arrazoinamenduaren arteko erlazioa ikertzeko, baina aplikazioak gai horietara mugatzea oker handia izan liteke. Fonologia, morfologia, sintaxia, soziolinguistika eta diskurtsoa gisako ohiko gai linguistikoak aztertu ere egin daitezke hizkuntzalaritza kognitiboaren alor teoriko berriaren barruan, antropologiarentzat garrantzi handia hartuz doazen formak direnak.

2.2.2.6. Hizkuntzalaritza kulturalaren sintesia

Hizkuntzalaritza boastarraren, etnosemantikaren eta hizketaren etnografiaren ildo nagusiak eta azterguneak ikusita, Palmerrek (1996/2000: 59) proposatzen du horiek hizkuntzalaritza kognitiboarekin bat egitea, batera jokatu eta azterbide berriak sortzeko: “una síntesis de la lingüística cognitiva con la lingüística boasiana, la etnosemántica y la etnografía del habla (HE)”. Haren ustez, nolabait, arlo horiek elkarrekiko sustraietatik datoz eta hipotesi, helburu eta azterbideak partekatzen dituzte. Hori dela-eta, baliteke gaur eguneko adierazpen eta formulazioetan sintesi bat izatea. Horiek guztiek kultura-erlatibitate eta enpirismorako mailaren bat onartzen dute. Helburu boastarrak dauzkaten zenbait ikertzailek batzuetan azterbide etnosemantikoak erabili izan dituzte. Etnosemantikak hiztun indigenen psikologiarekiko interes boastarra partekatzen du. Ikuspegi boastarra bezala, HE hizkuntzaren kategoria indigenak dokumentatzen ahalegintzen da, batik bat benetako diskurtso eta ariketan era natural batean agertzen diren generoetan, eta ez, sarritan gertatu ohi bezala, elizitazio kontrolatuaren bitartez edo egoera artifizialetan testuak grabatzen direnean. Hizkuntzalaritza boastarrak bezala, HEk

gramatikaren kategoria indigenen analisia lantzen du, eta, etnosemantikak bezala, eremu lexikoak aztertzeari ekin diezaioke.

Palmerrek dioenez (*idem*), “nolabaiteko bat egitea gertatua zen, eta beharbada HEk adierazten du ondoen”. Baina, etnolinguistikan ikuspegi kognitibo sistematikoago baten beharra bada oraindik, ikuspuntu indigena atzematen uzten duten azterbideak bere baitan hartzen dituen, baita hizkuntza bere gizarte- eta kultura-testuinguruan ikertzea ere. Beharrezkotzat jotz gero, datuak era kontrolatuan lortzeko metodoak, parte-hartzaileak behatzea eta testuinguru naturalerako etnografia sistematikoa. Behin aurreko ikuspegietatik alderdi horiek txertaturik, sintesiak bere kategoria kontzeptualak hizkuntzalaritza kognitiboari dagozkion terminoen arabera azaltzen du Palmerrek:

La síntesis debería redefinir sus categorías conceptuales en términos de las que son propias a la lingüística cognitiva. Esto es, deberían redefinirse como categorías folk cuyas conceptualizaciones indígenas son desconocidas antes de la investigación Si estas restricciones se aplicaran a la EH, nociones como las de comunidad de habla, género de habla, escenarios participantes, objetivos, variedades y estilos lingüísticos, modos y maneras de actuación, actos de habla y normas de interacción deberían analizarse como modelos cognitivos folk, esto es emic, como modelos que están en la mente de los hablantes más que en las mentes de los etnógrafos. (1996/2000: 60)

Aipatu bezala, Palmerren (*idem*) ikerlanean adimenaren iruditeria jotzen da ardaztat hizkuntzen eta kulturen ikerketan. Horretarako, hizkuntzalaritza kognitiboaren eta antropologiaren ikuspegiez baliatzen da hizkuntzalaritza kulturalari buruzko teoria berria azaldu eta plazaratzeko. Ikerlan batzuk lagun, Palmerrek erakusten du iraganean hainbat teoriatan sarturik zeuden eremu linguistikoak ikuspuntu desberdinak baizik ez dituztela adierazten, eta mundu-ikuskeraren batean murgilduta daudela.

Palmerren ikuspuntuaren arabera, hizkuntza adimenaren iruditerian erabilitako hitzeko sinbolo-jokoa da. Adimenaren begiaz ikusten duguna da iruditeria, baina, baita laranjaren zaporea, euripean ibiltzen gareneko sentipena, eta *Zea Mays* musika-taldearen *Elektrizitatea* kanta ere. Haren hitzetan, itzulita, “irudikatzen duguna pertzepzio-era guztien bitartez eskuratutako esperientzietan finkaturik dago, eta, gainera, berba egiten dugu (*ibid.*: 23).

Hizkuntzak iruditeriarekin daukan uztardura azaltzeko metafora batez baliatzen da:

El pueblo kaluli del sur de Nueva Guinea considera a los pájaros del bosque como reflejos espirituales de personas muertas, que habitan en un mundo paralelo (Schiefflin 1976; Feld 1990). Creo que las palabras son como los pájaros de los kaluli: vocalizaciones fugaces enlazadas simbólicamente con las sombras que habitan el mundo paralelo de nuestra imaginación. Este mundo imaginado representa, a veces muy cerca, lo que aprehendemos a partir de la experiencia cotidiana directa, pero no siempre es de fiar: en muchas ocasiones nos ofrece realidades alternativas y mundos de fantasía basados en la mitología, o series de televisión, o teorías no demostradas. Sin embargo, en las visiones del mundo encontramos esas representaciones estables y esas imágenes fugaces que son los significados convencionales de las expresiones lingüísticas. (*idem*)

Palmerren esanetan, adimenaren iruditeria aztertzeak ematen dizkigu askotariko gai linguistiko ugari ikertzeko oinarriak. Hizkuntza narratibo eta figuratiboari ez ezik, hitzen eta gramatika-egituren semantikari, diskurtsoari eta fonologiari ere aplikatzekoa da. Iraganean hainbat teoriak hartzen zituzten beren gain hizkuntzaren eremu horiek, gauza zeharo desberdinak izango balira bezala, baina, Palmerren berbetan, “ikuspegi diferenteak besterik ez dute adierazten” (*ibid.*: 24). Ondoen ulertzeko era, kultura aldetik definituriko adimenaren iruditeriaren teoria baten arabera dela argudiatzen du: esanahi linguistikoaren kulturaren teoria. Hizkuntzalaritza kultural horretan, Palmerrek ondoko hau ematen du aditzera:

En esta *lingüística cultural*, los fonemas se oyen como imágenes verbales organizadas en categorías complejas; las palabras adquieren significados que corresponden a esquemas imaginísticos, escenas y escenarios; las cláusulas son construcciones basadas en imágenes; el discurso surge como un proceso regido por su propia imaginaria reflexiva; y la visión del mundo lo subsume todo. (*idem*)

Ikuspegi horrek tradizio zaharragoetan du oinarri, baita hizkuntzalaritza kulturalaren inguruko teorietan ere, baina, batik bat, hizkuntzalaritza kognitiboan azken urteotan egindako aurrerapenetan du bere funtsa, azkarren eta arinen hazitako hizkuntzalaritzaren arloa, hain zuzen ere.

1941ean Whorf hil zenez geroztik, antropologia linguistikoak ez dio buru-iruditeriari oso egoki erreparatu, Palmerren ustez. Hala ere, antropologo interpretatibo eta sinbolikoek beren teorietan garrantzi handia eman izan diote: “esperientzia“ esan diote. Egindako azterketen emaitzak adierazteko, urritzea edo murriztapena, hitz gordin samarrak badira ere, antropologia linguistikoak urritze kognitiboa jasan du, beharrezkoa ez dena. Palmerren irudiko, “taxuz egindako etnografiak analisi linguistiko xehe-xeheak behar dituzenez gero, interes handirik ez edukitze horren ondorioak oso garrantzitsuak izan ziren antropologiarentzat” (*ibid.*: 31). Palmer saiatzen da Langackerren eta Lakoffen linguistika kognitiboei buruzko definizioak hizkuntzari eta kulturari aplikatzekoak direla erakusten, “hizkuntzalaritza kognitiboa etnolinguistikarentzat berebiziko garrantzia duten hiru ikuspegirekin uztar daiteke: hizkuntzalaritza boastarra, etnosemantika (eta etnozientzia) eta hizketaren etnografia. Gertaturiko sintesiari hizkuntzalaritza kulturala izena eman zaio” (*ibid.*: 25).

Ondoren, Palmer baliatzen da “coeur d’alene” AEBetako Idahoko hizkuntzatik ateratako adibide batez frogatzeko nola buru-iruditeriak ezinbesteko garrantzia daukan hizkuntzaren mailetariko batean, hitzaren edo lexemarenean, alegia. Hitz horren itzulpena “esku-ahurra” da, couer d’alene-z bost morfemaz osatuta omen dagoena: /s-n-cêm-í`cen'-i`ct/ izen-aurrizkia-en-azalera-atzea-eskua. Palmerren iritziz, adibide horrek okerreko inpresioa eman dezake, hau da, hizkuntzek mundu-ikuskerak eta esperientziak emandako buru-iruditeria adierazi besterik ez dutela egiten. Beraren ustez, diskurtsoak buru-iruditeria konbentzionala

agertu, eta buru-iruditeria berria eraikiarazten duela esatea hobe da. Aldi berean, buru-iruditeriak diskurtsoa egituratzen du; elkar eraikitzen dute diskurtsoak eta buru-iruditeriak. Denboraren poderioz eta hizketa etengabe erabiliz, mundu-ikuskeraren aldakorren buru-iruditeriaren gainean elkarrekin lan egin eta negoziatzen dute hizkuntza-komunitateetako hiztunek. Nahi gabeko ideiak, berriak edo zaharrak, baztertzen dira. Buru-iruditeria berria eta hizkuntza berria aldi berean sortzen dira. Horri Sapirrek (1949) iritzi zion “oharkabeko belaunaldien lan eskerga eta anonimoa” (*ibid.*: 27).

Jarraian, Palmer azken urteotan argitaraturiko lan batzuez baliatzen da zer den hizkuntza aztertzea adierazteko. Haren berbetan, “hizkuntza ikertzea esperientzia gordinarekin borrokan aritzen den kulturaren aldarria entzutea da; duela gutxi hasitakoa xurgatzeko berez erregulatzen den tradizioaren hotsa da”, “testu eta testuinguruaren arteko bat egite zoragarria” (*idem*). Testuinguruaren isurian mundu-ikuskeraren buru-iruditeriak, kulturalki, konbentzionalki eta aurrez suposatuz, ematen ditu diskurtsoa interpretatzeko erreferentzia-gune egonkorrak. Prentsa horiak eta zinemak, adibidez, ematen dizkigute estralurtarren irudi konbentzionalak, giza itxurakoak, zurbilak eta begi-handiak eta begi-luzeak, edota ahotik behera lerre likitsa darien narrasti zital ankerren antzekoak, eta gizakien gorputzetan euren larba suntsikorrek uzten dituztenak, *Alien* film ospetsuan gertatzen den bezala. Horri dagozkio Givónek “generikoki partekatutako testuingurua, edo kultura-jakintza” (*idem*) deitu ziona, edo “informazio-egoera” izendatu zuen horri, “hiztunak dakienari eta entzuleak dakienari” eragiten diona (*idem*). Horri Tannenek eta Wallatek “jakintza-eskemak” esan zioten (*idem*), hau da, munduko pertsona, objektu, gertakizun eta agertokiei buruzko itzaropenak. Diskurtso baten historia eta egoerarekin batera bereziki, kultura-jakintzak partekaturiko testuinguruak ematen ditu. Berauek topiko diskurtsiboak ere erreferentzia-irrisgarritasuna ematen diete.

Palmerrek baieztatzen du kultura-jakintza funtsezkoa dela tropo konbentzionalak interpretatzeko, batik bat metaforak eta metonimiak. Haren arabera, “kultura-jakintzak eredu edo eskema kognitiboen era hartzen du, esparru topiko errepikariei buruzko oso ezagutza eskematikoa antolatzen dutenak” (*idem*).

Palmerren kulturaren hizkuntzalaritzari kultura bakoitzaren gauzen esentzia naturala definitzen duten folk-ontologiak ere interesatzen zaizkio. Ondoren hainbat hizkuntzaren adibideak ematen ditu (*ibid.*: 28).

Esanahia ez da huts-hutsean existitzen; izan ere, diskurtsoan, enuntziatuek beren buru-iruditeriaz harantzagoko esanahi gehigarriak eskuratzen dituzte. Diskurtso-gertakizun orok era konbentzionalen berrinterpretatze kokatua eskatzen du. Baina, diskurtso kokatuak ere eskatzen du formulazioa sinbolo linguistiko konbentzionalekin. Gertakizun sozio-linguistikoen buru-

iruditeria eskematikoek, metalinguistikoa edo metadiskurtsiboa, diskurtsoa bera egituratu eta agintzen dute. Diskurtsoaren buru-iruditeria erreflexibo hori kulturalki hizkuntza figuratiboa bezain definiturik dago. Izan ere, folk metahizkuntza metaforikoa izan daiteke, esaterako, “hizketan jarraitzeari buruz” hitz egiten dugunean edo hitzek informazioa “daukatela” esaten dugunean, edukiontzi fisikoak izango balira bezala eta informazioa materia-objektuz osaturik balego bezala.

Beraz, Palmerren teoriak antropologia linguistikoaren aurreko teoretan oinarriturik, hizkuntzalaritza kognitiboaren elementu ugari hartzen ditu. Horrela kultura-hizkuntzalaritzaren inguruko teoria eraikitzen saiatzen da, antropologoek beren landa-lanean aurkitu ohi dituzten hizkuntza-gertaera mota guztiak aintzat har ditzakeena. Bere liburuan hizkuntzen diseinu kognitiboak ilustratzen dituzten kasu jakin asko ematen ditu aditzera. Kasu horien arabera, ikusiko da nola munduaren ikuskerek ematen dituzten hizkuntzen egituratzeari buruzko oinarritzko eredu batzuk.

2.2.3. Mitxelena: hizkuntza eta kultura

Hizkuntzaren eta kulturaren arteko uztardura dela-eta, ezinbesteko autore bat azpimarratu behar da: Mitxelena (1972/2011). Estrukturalistek eta sortzaileek edo generatibistek hizkuntzaren eta kulturaren arteko loturaren inguruko ikuspegia oroitarazten du:

Esana dugu estrukturalistak bi alderdi hauetan batez ere bereizgarri dena nabarmentzen eta aztertzen saiatu zirela, eta transformazionalistak, berriz, berdin dena, guztiekikoa, hizkuntzaren “unibertsalak” bilatzen. Aipaturiko bi egitura horiek ametitzen baldin baditugu, *axaleko egitura* eta *egitura sakona*, gainekoa ñabarra da, desberdina, mota ugaritakoa, bitxia eta abar, sakonean dagoena, aldiz, berdintsua hizkuntza guztietan. (Mitxelena, 1972/2011: 250)

Mitxelenak erabili ohi zuen zehaztasunaz baliaturik, XX. mendeko hizkuntzalaritzaren bi ildo nagusien proposamenak buruz buru ipini eta eztabaidaren muinari ekiten dio: Saussure Genevako maisuaren jarraitzaile eskrukturalistek mintzairaren eta kulturen ezberdintasunak agerian jartzen dituzte, eta Chomskyk eta haren gogaide sortzaileek, aldiz, hizkuntzen arteko berdintasunak. Nahiz eta zehatz-mehatz iritzirik eman ez, sarritan egin ohi zuen legez, Mitxelenari mutur guztietatik ihes egin nahi zuela antzematen zitzaien, ez bide zegoen, ez bataren, ez bestearen alde, bere iritzi sendo eta egituratua eraiki nahi zuen, nonbait. Haren iritziak, egia da mintzaira guztien eraketa printzipio unibertsal batzuetan oinarritzen dela; hala ere, hizkuntza bakoitzak bere kabuz antolatzen ditu funtsezko eginkizun unibertsal horiek, horrela hizkuntz komunitate horren mundu-ikuskerara agerrarazten du.

Hizkuntzaren gainean aipaturikoa kulturari ere aplikatzen dio Mitxelenak:

Bitasun honetako bigarren elementua kultura dugu, edo kulturak. Ni-neu, jakina, ez naiz nor kultura bat zer daitekeen esateko. Lévi-Straussek definizio baten bereizkuntzen bilduma dela esaten du. Zalantzarik gabe pertsona bat bera kultura eremu diferenteetan ari eta bizi daiteke. Eta hizkuntzen muinean eta hondoan Giza Mintzaira den bezala kulturen hondarrean ere Giza Kultura dugu. Alde batetik kultura giza fenomeno da, gizadi osoak mentura horretan parte hartzen duelarik. Baina Giza Kulturaz gainera kulturak ere badira, kulturatxoak, eta abar, bereizgarriez bereizten eta mugatzen direnak. (*ibid.*: 259-260)

Hurrengo puntuetan kulturaren esparrua mugatzen edo, behintzat, hobeto esanda, kulturaren ertzak irekitzen ahalegintzen da Mitxelena:

Kultura ez da izpirituaren goi gailurretan den zerbait: kultura lan-ohiturak dira, senitarteko eta lagunarteko harremanak, gizarte bizitzako alderdi guztiak, eta abar. Honek ez du esan nahi, noski, artea edo zientzia kultura ez direnik; halaz ere hauek ez dira agerpide bereziak eta are gutiago bakarrak. (*idem*)

Gaia plazaratu ondoren, baieztapen zehatz batzuk ematera ausartzen da Mitxelena. Horietariko batean kultura bati hizkuntza zein neurritan dagokion aztertzen du:

Humboldték zioenez gizona hizkuntzari eskerrak da gizon. Alegia, hizkuntzarik gabe ezin daitekeela egiazko giza kulturarik; beraz, beharrezko baldintza da hau. Sapirrek ere honela dio: “Ene ustez, hizkuntza lehen kultur agerpenak baino lehenagokoa da, eta, egia esan, agerpen hauek berarek ere ezinkizun ziren harik eta hizkuntza mintzabide eta adierazpide egoki bilakatu zen arte. (*ibid.*: 262)

Hortaz, Humboldt eta Sapir oinarriztat harturik, hizkuntza kulturarako gakoa denez gero, Mitxelena kulturak hizkuntza ezinbesteko duela baieztatzeraino heltzen da.

Mintzairaren eta kulturaren arteko elkarreragina dela-eta, hiru eragin mota gerta litezkeela nabarmentzen da: lehenengoa, hizkuntzak kulturari eragiten diolakoa; bigarrena, kulturak hizkuntzari eragiten diolakoa; eta, hirugarrena, biek ala biek bata besteari eragiten diotelakoa. Hala eta guztiz ere, Dell Hymes (1964) antropologoaren sailkapena aintzat harturik, Koldo Mitxelenak (1972/2011) laugarren bide bat gehitu zuen:

Badute zerikusirik herri baten hizkuntzak eta kulturak. Jakina, erraz da esaten badela zerikusirik edo loturirik bien artean; haatik, zertan datzan agertu behar. Dell Hymes etnologoak dioenez, iritzi bakar dirudien honek lau uste modu izkututzen ditu:

- a) Lehena eta eragilea, hizkuntza da.
- b) Lehenik kultura da.
- c) Ez da lehenik eta azkenik: biak dira eragile.
- d) Ez da lehenik eta azkenik, ezta nagusirik ere: biak dira beste zerbaiten mirabe. (Mitxelena, 1972/2011: 268)

Lehendabiziko irakurrian gaitz da asmatzen zein ote den laugarren baieztapen hori. Zer ote da beste zerbaiten mirabe izatea? Jarraian honela adierazten du Mitxelenak:

Azkenik, Humboldtén iritzi famatua dugu hemen. teoria hau Whorfen izenari gelditu da bereziki lotua, eta Sapir ere uste honetakoa zen, berdin ene ustez egungo egunean Weisgerber eta Alemaniako beste batzu ere. Hauek diotenez, bai kultura eta bai hizkuntza azpiko indar batek determinatzen ditu. Indar hori mundu ikuskera da, herri izpirituaren fruitua, nazio izaera, zera... badakizue zertaz ari naizen. Gizarte bakoitzak, gizarte den aldetik, ikusmolde berezi bat du eta beraren arauera aztertzen eta neurtzen ditu gauzak. Eta herri-izpiritu honek (alemanen esaera erromantikoaz baliatzearen; baina badu arbasorik Voltaireren harako *esprit du peuple* hartan) kulturari eragiten dio, kultura izpiritu horren ispilu da, eta orobat hizkuntza: biak dira herritasunaren errainu, distira eta jario. (*ibid.*: 270-271).

Horretatik guztitik ondorioztatzen da mintzairaren eta kulturaren baitan herri bakoitzaren “mundu-ikuskerak” bizi dela. Herriaren jiteak eta nortasunak bete-betean eragiten diete hizkuntzari eta kulturari Mitxelenaren arabera. Lexiko etnometeorologikoaren azterketa egiten denean, funtsezko kontu hau agerian jarriko da.

Artikuluaren bukaeran herri batek hizkuntza galduz gero, ea kulturak era berean eusten dion herriaren mundu-ikuskeraren inguruko iritzia ematen du Mitxelenak:

Gauza bat da; beraz, hizkuntzak herriaren pentsamolde, izaera eta gainerakoak noraino mugatzen dituen erabakitzea, eta bestea, arras bestea gero, hizkuntzak herri batekin, herria gizarte eta gizatalde den aldetik duen zerikusia. Urrutira joan gabe, egungo egunean Euskal Herriaz mintzatzen bagara, Euskal Herria deritzan zerbait baldin bada oraindik munduan, mendez mendez gorde dugun hizkuntzari zor zaio. Ez da, esan beharrik ez, hizkuntza bakarrik izan; bai, ordea, beste arrazoi askoren azkeneko erro eta oinarri. (*ibid.*: 280)

2.2.4. Euskal Herriko ikerlanak

Koldo Mitxelenak hizkuntzaren eta kulturaren arteko uztarduraz jardun zuen teorizatzen. Aurrerago beste egile batzuk aritu izan dira horren inguruan, ikerlan zehatzak eginda. Gorago aipatu denez, kulturaren eta hizkuntzaren arteko harremana izendatzeko zientziaren izena era askotara egin da. Haietariko bat etnozientzia izan da, eta horixe erabili izan dute eremu hori jorratu duten autore bakanek. Euskal Herrian batez ere, etnolinguistikaren arloan jorratu izan diren azterketek euskaldunok koloreekiko daukagun pertzepzioari ikertzeari ekin izan diote. Aitzindarietariko bat Perurenak (1992) egindako lana da. Eremu horretan ere badira aipatzekoak Preziadoren lanak (1992-2003), eta Mtz. Lizarduikorekin batera argitaraturikoa (2003). Azken lan hori da, hain zuzen ere, euskaldunok koloreei buruz daukaten pertzepzioaren gainean sekula egindako ikerlanik handiena.

Preziadoren eta Mtz. Lizarduikoaren arabera, jendeari galdetuz gero zenbat kolore ikusten dituen ortzadarrean zazpi ikusten dituela erantzungo du gaur egun, baina haien ustez, milaka daude, nahi adina, espektro jarraitua delako. Mtz. Lizarduikoak eta Preziadok (2003) baieztatzen dute: “Eta badaude batere kolorerik ikusi ez duten herriak. Grezian, esaterako, urdinik ez zuten, baina urdin mota ugari bereizten zituzten beste hitz batzuen bidez” (2003, 304-305). Euskaldunok, berriz, haizeen koloreak ere bereizi izan ditugu eta haize beltza, gorria eta zenbat-gura koloretakoak agertzen dira. European, orain, zoritxarrez geratzen den azken herri aurre-indoeuroparra omen gara, Europako azken herri indigena garela esan ohi dute Preziadok eta Mtz. Lizarduikoak, eta koloreen arloan edo beste askotan hemen egin daitezkeen ikerketek interes handia dute Europarentzat. Liburuan koloreari buruzko ikerketen bilketa bat egin dute. Horretarako kolorearen ikuspuntu fisiko, kimiko, biologiko eta kulturala aztertu dituzte etnozientzien ikuspegiaren arabera.

Alfonso Mtz. Lizarduikoa izan da, hain justu ere, etnozientziak Euskal Herrian gehien bultzatu dituztenetariko bat. Haren ustez, helburua euskaldunen jatorrizko pentsamendua bilatzea da, hau da, historian zehar zer-nolako bilakaera izan duen euskaldunen pentsamoldeak eta zein den gure pentsaeraren jatorria.

2.2.5. Komunitate baten ingurumen-azterketa osoa: ikerketak ingurumen-antropologian

Paul Sillitoe egin zuen Ginea Berriko herri baten nolabaiteko ingurumen-azterketa osoa (Sillitoe, 1996). Berak egindako ikerlana aitzindaritzat har genezake zalantzarik gabe arlo horretan. Horrelako ikerlana ingurumen-antropologia jakintzaren barnean koka liteke; izan ere, Ginea Berria uharte erraldoiko Wola herria alderdi askotatik aztertu zuen: lurraren erabilera, klima, topografia eta geologia, etnobotanika eta etnopedologia, eta horien barruan askotariko interesguneak. Guri, batik bat, klimari eskainitako atala interesatzen zaigu eta horren barruan etnometeorologia, hain zuzen ere, jatorrizko hiztunek erabiltzen duten aro-hizkera aztertzen du eta. Bertan zientzia-datu eta izendapenak erkatzen ditu herri-izendapenekin eta aditzera ematen du meteorologiatik abiatuz, nolako ikuskera daukan Wola herriak bere inguruarekiko, hau da, wolatarren fenomeno meteorologikoekiko adimenaren iruditeria azaleratzen saiatzen da. Jorratu eta aztertzen dituen arloak ondoko hauek dira: eguneroko eguraldi-ereduak, sasoiak, prezipitazioak, zerua, haizea, hozberoa eta hezetasuna, izotza eta eguraldia eta nekazaritza. Oso era atseginean alderatzen ditu berak bildutako datu zientifikoak herriak erabiltzen dituenekin eta Wola herriaren eguraldiari buruzko hiztegi eta adigaien ikuspegi zabala ere ematen du. Esan gabe doa lan hau oso interesgarria dela aurrera eraman nahi den ikerlanerako erreferentzia eskaintzeaz gain, nolabaiteko ispilua ere izan daitekeelako. Aipatuak aipatu, Sillitoearen ikerlana era honetara taxaturik dago.

Lehenengo atalean aitzin solas moduko bat egiten du eta ingurumen-etnozientzia zertan den azaltzen du, lurraren erabilera, lurzoruak eta gizartea, alegia; aurrerago, bigarren atalean, lurrak lantzeko txandakatze-sistema, hots, txandakako nekazaritza eta patata gozoa gaiak jorratzen ditu; hirugarren atalean, klima-faktorea aztertzen du; zertan datzan etnometeorologia eta klima, eta horren aldaketei aurre egitea, eta gosetearen espektroa; laugarren atalean, Lurreko baliabideen faktorea jorratzen du eta horren barruan etnogeozientzia, topografia eta geologia; horren barruan, galdutako lurrarekin bizi izanez, higaduraren kostua; bosgarren atalean, Biotiko faktorea, hau da, etnobotanikaren eremua eta landaretza. Horretaz gain, beste gai hauei ere heltzen die: oihan eta lugorriekin borrokan, berriz landatzeko beldurra eta lurzoruaren barruan:

elikagaien zikloa eta deskonposizioa; seigarren atalean Lurzorua bera aztertzen du eta etnopedologia deritzon gaia, hots, lurzoruaren estatusari eustea eta aldagarritasunaren inplikazioak. Bestalde, lurzurutik kanpo, laborantzapeko emankortasuna. Azkenik, ondorioak ateratzen ditu: lurzoru-metak, egoera oneko lurren baliabideak kudeatzeko arazoak eta denborarekin batera arineketan, degradazioa ala kontserbazioa?

Dagoeneko adierazi denez, hirugarren atala biziki interesatzen zaigu. Bertako sarreran Sillitoez klimaren inguruko oinarrizko nozio orokorrak emateaz gain, bisitariak, Wola herria lehenengo aldiz bisitatzen duenean, eguraldiaren gainean jasotzen dituen inpresioak ematen ditu aditzera. Bestalde, Sillitoeren arabera, Wola herrikoek euren eguneroko elkarrizketan etengabe egiten diote aipamena eguraldiari, baina ez berba egiteari ekiteko eratzat hartuta, euren bizimoduan bereziko garrantzia daukalako baizik.

Sillitoez Wola herrialdeko klimaren azterketa ingurune etnometeorologiko batean egiten du. Beraren iritziz, klima aztertzeko moduari bestelako ikuspegia ematen dio. Zientziak Wola herrialdeko klima nola ikusi ez ezik, Wola herriak berak nola ikusten duen ere bada ikerlanaren gakoa. Hori dela-eta, funtsezko kontzeptu batzuk emanik, zientziaren ikuspegia eskaintzeaz gain, herriarena berarena ere agertu eta bata bestearekin erkatu egiten ditu.

Lehenik eta behin, eguneroko eguraldi-ereduaren berri ematen du Sillitoez. Horretarako egunean nola hautematen dugun eguraldia hiru kontzeptutan banatzen du: gehienbat eguzkitsua, eguzkitsua goizez baina arratsaldez lainotuta edo alderantziz eta gehienbat lainotuta. Hori guztia hilabete guztiak dauzkan taula batera pasa eta ehunekoak ateratzen ditu. Behin taula azalduta, horrelako kontzeptuak adierazteko nolako izendapenaz baliatzen den Wola herria ematen du aditzera.

Bigarrenez, Wolatarrek urtea bi urtarotan banatzen dutela aipatzen du Sillitoez; bata, urritik martxora eta bestea, apiriletik irailera. Dena dela, hamabi hilabeteko urtea kristautzak sartutako kontzeptua omen da. Beren hizkuntzan denboraren beste nozio bat omen daukate. Ondoren, Sillitoez bi urtaroez meteorologiaren ikuspegia eta Wola hiztunek daukatena azaltzen ditu. Desberdinak dira. Bestelakoak dira herritarren pertzepzioa eta datu objektiboak adierazten dutena.

Behin urtaroen kontua aipaturik, jorratzen hurrengo gaia euria da. Herrialde hartan prezipitazioak ugariak dira, planetako handienetarikoa. Sei estazio meteorologikotan urte batzuetan jasotako kopuruen berri eman ostean, Wola herriak nolako kontzeptuak erabiltzen dituen euri-motak izendatzeko jakinarazten du Sillitoez. Euria ez da “euri” hutsa Wola hiztunentzat. Biziki herrialde hezean bizi izanda eta euria sarri baino sarriago egin ohi duenez gero, zenbait euri-mota bereizten dituzte: euria orokorrean *chay* da; zirimiria edo euri mehea

chay pokot-pokot; ekaitz batek sortutako euria *chay onda*; txingorra edo kazkabarra *taendok hobor ebay*; ekaitza *hatsab bay*; etengabeko euri mehea lainoa oso behean dagoela etortzen dena *chaykund*, eta abar. Horrela, adierazpen askoren berri ematen digu Paul Sillitoe. Ondoren, sailtxo berean ortzadarraren inguruko kontuak aipatzen ditu. Izendapenak emateaz gain, sineskeria bat azaltzen du: umeeak txikiak direla ezin begira diezaiokete ortzadarrari, bestela beraien gurasoak gaixo daitezke, baita batzuetan hil ere. Gero, Wola herritarrek ekaitzekiko nolako pertzepzioa daukaten jakinarazten digu Sillitoe. Horren arabera, uste dute maizago gertatzen direla urte sasoiatariko batean bestean baino; izan ere, sasoi horretan hegazti batek beste alde batera emigratzen du eta horrek askoz gehiago sorrarazten omen ditu zeruan. Euriari loturiko beste kontu bat Wola herritarrentzat euriaren intentsitatea da. Ba omen dauka berebiziko garrantzia landatuta dauzkaten laboreetarako. Nolakoa den euria, onuragarria edo kaltegarria izan daiteke. Hori dela-eta, Sillitoe hainbat izendapenen berri ematen du.

Ondoren, zeru lainotuaren jiran dihardu. Hasteko taula bat agerrarazten du. Bertan hilabete guztiekin batera, hodei motak zenbat aldiz agertzen diren hilabete bakoitzean jakinarazten du. Taula horretan meteorologiaren ikuspegitik hodeien sailkapena agertzen da, hau da, zientzia-komunitateak usu erabiltzen duen nomenklatura da. Horren ondoren Wola hiztunek zenbat hodei-mota bereizten dituzten azaltzen du. Jakina, askotan gertatzen den bezala, zientzia- eta herri-sailkapenak ez datoz bat. Wolatarren arabera hodeiak Lurraren sutatik ateratzen diren ke-metak dira. Eurek ez dute uztartzen hodeiak sortzea bestelako fenomeno meteorologikoekin. Ez daukate aire hezea igo edo jaisteari buruzko adierarik.

Sillitoe jorratzen duen hurrengo gaia haizea da. Lehenengo eta behin, hilabetez hilabete Wola herrialdean egon ohi den haize-arrosa adierazten du, hau da, zein haize den nagusi eta zenbaterainoko abiadura daukan. Hasierako azalpen zientifikoak emanda, Wola herritarrek ezin azal dezaketela nondik datorren haizea dio eta ondoren haizeekiko beraien pertzepzioaren nondik norakoa aipatzen du: intentsitatearen arabera sailkatzen omen dituzte haizeak, eta uste dute haize oro edozein sasoiaren ibil daitekeela. Ohi bezala, zientzia-datuak eta herritarrek hautematen dutena ez datoz bat.

Ondoren hozbero eta hezetasuna kontzeptuei dagokie. Aurrekoetan bezalaxe, jasotako datu meteorologikoak jakinarazita, batez besteko urteko tenperaturak, hilabetez hilabete, eta hezetasunaren gaineko xehetasunak ematen ditu, baita horrelakoak biltzen dituen taulak ere. Wola hiztunek eguzkiaren argiari *nat day* esaten diote, hau da, “eguzkiak erretzen du”. Badirudi, eurek diotenez, ez daukatela eguzkiaren jatorria azaltzeko narrazio mitikorik. “Zeruan barrena batetik bestera doa, eta kito” (Sillitoe, 1996: 72). Eguzki-mota zenbait bereizten dituzte Wola herritarrek: goizean goizeko eguzki epela, eguerdiko eguzki bero-beroa, besteak beste.

Egunaren denbora eguzkiak zeruan hartzen duen posizioaren arabera banatzen omen dute. Bera dela-eta, Wola hiztunek hainbat adieraz baliatzen dira. Adibidez, izendapen berezi bat dute euria egingo ote duen susmopean daudelako aurreko eguzkia deskribatzeko. Azkenik, aterraldi luzeak, nekez gure “lehorteak” izan litezkeenak, adierazteko erabiltzen diren hitzei buruzko zerrendapena egiten du Sillitoeak.

Jorratzen duen hurrengo gertakizun meteorologikoa izotza da. Ez da sarri gertatzen, baina zenbaitetan aterraldi luze samarrak izanez gero, oskarbi egoten delarik, temperatura aski jaisten da. Wola hiztunek azaltzen dute izotza edo antzigarra *baen* sorginkerien bitartez. Horrelakoak egun eguzkitsuaren ondotiko gau hotzetan jazotzen dira edo, eurek diotenez, jotzen dute. Antzigarraren inguruko behar besteko azalpenak emanik, Sillitoeak kontatzen du nola Wola herritarrek ospatzen duten euren zoritxarra baldin eta, izotza dela-eta, uztaren bat galtzen badute eta behe-rago bizi den beste komunitate batek ez. Ondoren, ospakizunotan erabiltzen dituzten esaldi eta lexikoaren berri ematen du.

Azkenik, eguraldia eta laborantzaz dihardu. Wola herria batik bat lurretik bizi izanda, eguraldiaren gorabeherak ez daukate nolana-hiko garrantzirik. Eguraldiak edozein sasoi-tan honda dezake egun askotako lana. Wolatarren bizimodu guztia, bizi-iraupenean oinarriturik, nekazaritza eta abeltzaintzaren inguruan ardazturik dagoenez gero, eguraldiarekikoek eragiten diete bete-betean. Atal honetan, aldiz, Sillitoeak (*ibid.*: 75-78) ez du lexikoaren gaineko gairik jorratzen, gehienbat garapen antropologiko eta soziala egiten du.

2.3. Aukeratutako eremu teorikoa: ingurune etnolinguistikoa

Esparru teorikoaren zehaztapena atalean zehar (§2) azaldu denez, ikerlan hau kulturaren eta hizkuntzaren arteko harreman estu-estuan kokaturik dago. Jarraian, lexiko etnometeorologikoa aztertze-ko hautatu den eremu teorikoa emango da aditzera, nahiz orain arte etengabe beraren mugak ezartzen jardun den. Etno- aurrizkiaz bezainbatean, irudi du bera erabiltzea ez dela hizkuntzalari guztien gogoko; izan ere, etnolinguistika bera linguistika orokorraren barruan ertzeratu samarturik egon izan da. Ez dago esan beharrik barneko hizkuntzalaritzak —fonologiak, fonetikak, morfologiak eta sintaxiak— ikaragarri-zko garapena izan duela, eta kanpoko hizkuntzalaritzari buruzko diziplinak, besteak beste, hizkuntzaren harremana gizartearekin, kulturarekin, izakiaren biologiarekin zerikusia dutenek bestelako garapena izan dutela. Bestalde, lehenago aipatu denez, etnometeorologiaren lexikoa aztertzen da, ez meteorologiarena, aditzera ematen baita herri-lexikoarena dela, eta ez meteorologia zientziarena. Gutxienekoa da zein motatako izendapena ematen zaion aukeratu den eremu

teorikoari; garrantzitsuena da eremu horren mugak zehaztu eta era garbi eta erraz batean azaltzea zergatik aukeratu den eremu teoriko jakin bat. Izendapenak aipatzekotan, hizkuntzalaritza kulturala biziki egokia da, kultura berbak bere baitan biltzen duenagatik, baina arrisku bat dago: Palmerrek etnosemantika, linguistika boastarra eta komunikazio boastarra antropologia linguistikoaren adartzat jotzen ditu (Palmer, 1996/2000: 31-48), eta ondorioz antropologia orokorraren barruan. Tesi honen xedea, ordea, ez da antropologikoa, linguistikoa baizik: ikerlan honek hizkuntza du helburu nagusi, zeren kulturak baldintzaturiko kontu linguistikoak ikertu nahi baititu; antropologia lagungarria da zenbait kultur egintza azaltzeko, baina bitarteko da, ez tesiaren jomuga. Horren guztiaren ondorioz, etnolinguistikaren barruan kokatuko da ikerlan hau, garbi utzita zein diren mugak eta azterbidea.

Kulturaren eta hizkuntzaren —bereziki, lexikoa— arteko harremanaren inguruko teoria eta ikerlan garrantzitsuenak aipatu ondoren (§2.2), adierazi behar da etnometeorologiaren lexikoa aztertzeke aukeratutako eremu teorikoa ez datorrela bat egile bakar batekin, baizik eta, azaldu denaren arabera, etnolinguistikaren inguruan denboraren poderioz garatuz joan diren zenbait autoreren teoriekin. Jarraian, lehenago aipatutako egile batzuen ideiak xehatuko dira ingurune etnolinguistikaren mugak zehazteko.

Azpimarratu behar da Gary B. Palmerren (1996/2000) hizkuntzalaritza kulturalen garatutako kontzeptu bat oinarritzat hartuko dela eguraldiari lotutako euskal lexikoa aztertzean: *mind's eye*, hau da, adimen-begia (§1.2). Hark azaldutako gaiak azterketa osoan islatuko dira. Nolanahi ere, atal honetan adierazi denaren ildotik, tesi honen xedea ez da antropologikoa linguistikoa baizik; izan ere, Martín Camachok dioenez (2016: 193) “no obstante, Palmer (2000: 31-48) considera la etnosemántica como una de las corrientes de la antropología lingüística, junto con la lingüística boasiana y la etnografía de la comunicación”. Palmerren teoriaren aspektu linguistiko guztiez baliatuko da, eta aspektu antropologikoak bitartekoak izango dira kulturaren eta hizkuntzaren arteko harremana azaltzeko: nola kulturak eragiten dion lexikoari aztertuko da, nola lexikoa, hein handi batean, kultur prozesu baten ondorioa da: tesi honen muina kulturak baldintzaturiko egintza linguistikoak ikertzea da. Horrenbestez, ikerlan hau lehenago aipatu denez (§2.2) etnolinguistikaren eremuan kokatu behar da, baina hizkuntzarekiko antropologiaren ekarpenak aintzat harturik.

Palmerren hizkuntzalaritza kulturalaz haratago joango da, ez baitago bazterterik kultura gizarte batean txertaturik dagoela, hots, lexiko etnometeorologikoa aztertzeak bide emango digu euskal hiztunaren pentsamolde sakona ezagutzeko, eta, alderantziz, euskal hiztunaren testuinguru soziokulturalak atek zabalduko dizkigu lexiko etnometeorologikoaren hainbat kontzeptu ulertzeko. Gizartea, kultura eta hizkuntza estu-estu uztarturik daude; adimen-

begia euskararen bizitzaren aro zehatz batean eraikiz joan da lexiko etnometeorologikoa, euskal hiztunek garatutako gizartearen kulturaren bitartez. Hainbat hitz eta adierazpide eraldaketa kultural baten produktuak dira; beste gizarte batean izan balitz, ziurrenik bestelako emaitza izango zatekeen. Testuinguru soziokulturalak baldintzatzen du ezinbestez hiztun-komunitate baten lexikoa. Iraganeko kultur eragina aditzera ematen duten datuak ikertzea erabilgarria izan daiteke, datuok kultur aztarna interesgarriak erakusten baitituzte:

...el investigador puede dar cuenta de ellos (datos) por mucho que no sean ya visibles para los hablantes de una determinada sincronía; lo fundamental es que la investigación etnolingüística deslinde la interpretación histórica de los hechos y la de su funcionamiento en la mente del hablante. (Martin Camacho, 2016: 198)

Egia da Martin Camachok (2016) zer azaltzen duen. Behinola euskal hiztunaren gogoak iruditeria jakin bat tinkatu eta lexikoa garatzeari ekin zion. Nekez jakin genezake zergatik termino batzuk gailendu diren eta beste batzuk galdu; zergatiak orotarikoak izan litezke, baina gehienbat soziokulturalak izaten dira. Gainera, aldi baterako eta bizitza laburra izan zuten ele ugari ere izango ziren. Irudi batzuk garaile suertatuko ziren, eta beste batzuk galtzaile. Ez dago jakiterik zenbat berba galdu diren lexikoa eraikitzean. Ezin uka daiteke hizkuntza guztiek, salbuespenik gabe, beren lexiko zabaldu eta murrizten dute beharren arabera. Edozein hizkuntzaren hiztunak beharrezkoak izango ez zaizkion berbak ahaztuko ditu. Euskal hiztunok herentzia lexikal jakin bat jaso dugu, eta ez diogu galdetzen geure buruari zergatik esaten dugun *ortzadar*, eta ez **hodeiadar*. Gure beharra da zenbait hitzen nondik norakoaren berri ematea; soziokulturalki gardenak direnak bai, adibidez, *kuku-izerdia*, euri xehe-xeheari irizteko (Bizkaiko Kortezubi: *EHHA*), baina, beste zenbait, adibidez, *laino*, ez. Dena dela, esan liteke, badirela, jatorrizko hitz batzuk, ondarezkoak, eta beste batzuk, geroago sortuak edo maileguak, munduko hizkuntza guztiek berdin antzera jokatzen dute eta. Bestalde, berba batzuk oso eremu txikietan erabiltzen dira, eta beste batzuk eremu handiagoetan. Badirudi hitz batek arrakasta lortzen duela une zehatz batean hiztun batzuek oharkabean edo berariaz bultzatzen dutelako. Gaur egun ere horrela gertatzen da; badira modak ere lexikoaren inguruan. Gauzak horrela, irudi ugari daude loturik lexiko etnometeorologikoari, ziurrenik, euskararen antzinatasunaren adierazle.

Hasieran, Ikerketaren helburuak eta mugak atalean (§1.2), adierazten da zein eremu linguistikotan islatzen den argien kulturaren eragina: lexikoa; zergatik bera izan litekeen etnolingüistikaren ikergune nagusietarikoa.

3. Metodologia

3.1. Datuak prozesatzea

Ikerlan hau aurrera eramateko ezinbestez eta halabeharrez corpus handi samarra osatu behar izan da irizpide jakin batzuei jarraituz. Horretarako —aurreko atalean azaldu bezalaxe eremuari dagozkion hitzak eta lokuzioak hautatu behar izan dira. Lehengoan zer-nolako irizpideak erabili diren terminoak corpusean sartzeko adierazten bazen ere (§2.1.7), oraingoa zein motatako iturriak erabili diren eta norainoko datu-basea osatu den azalduko da.

Corpusa osatzeari dagokionez, hasiera-hasieratik pentsatu da onena ahozko iturri zein idatziak erabiltzea. Horrelako ikerlana herren geratuko zatekeen, ezbairik gabe, bideetariko batek huts egin izan balu. Ahoz jasotako terminoak baino bildu ez balira, argitaraturiko liburu askoren makina bat berba bazter geratuko ziratekeen, eta, aitzitik, liburuen hitzak baizik aintzat hartu izan ez balira, ahozko adierazpidearen jardun ezin oparoagoa ikerlanetik at geratuko zatekeen. Honelako ikerketak, sendoa, zabala eta ikuspegi askotarikoa izango bada, ezin saihets dezake iturrietariko bat. Sarritan termino berak aurkituko ditugu bietan, baina beste zenbaitetan, ez; izan ere, hiztegiek eta tankerako lanek, zoritxarrez, ez dute bere baitan biltzen ahozotasunaren oparotasun guztia. Hala ere, ahozko iturriak uste baino gehiago dira zeren argitaraturiko hainbat lanek bere jatorria ahozko testuetan baitaude. Adibidez, Euskal Herri osoan, han-hemenka, herri askotako hiztegitxoak edo lexikoiak ezin esan liteke iturri idatzia direnik; adibidez, Gaminderen lanek, zenbait herritako euskara aztertzen dutenek, bertako hiztunen ahozko testuak dute oinarri. Beraz, ahozko kontu asko, zorionez, gaur egun era idatzian jasota dauzkagu. Ahozko testuak aipaturik, hauxe eman nahi da aditzera: inkesta edo elizitazioaren bidez lortu ohi diren terminoak. Horretarako beren-beregi atondutako galdekizunen bitartez, lekuko edo informatzaile batzuei egiten zaizkien galderen bidez eskuratzen dira datuak. Horren adibide da Euskaltzaindiak gauzaturiko *Euskararen Herri Hizkeren Atlas*a (2008) —aurrerantzean, *EHHA*—. Argitaratu baino lehen, eguraldiari dagozkion datuak eskuragarri izan dira emandako baimen berezi baten bitartez, eta bertatik corpusa osatzeko 1740 berba lortu dira. Hortaz, tesi honetara aurrera eramateko ezinbesteko ahozko tresna izan da *EHHA*. Jarraian ikusten da hiru zutabetan zeintzuk termino lortu nahi izan diren euskaraz: lehenengo zutabea gaztelaniakoak azaltzen dira, bigarrenean frantseseakoak eta hirugarrenean ingelesezko ordainak. Besteak beste, honako termino hauek hartu dira aintzakotzat:

galderak		
GA_CAST	GA_FRAN	GA_INGL
tiempo atmosférico	temps atmosphérique	weather
viento	vent	wind
viento del Norte	vent du nord	north wind; northeaster
viento del Sur	vent du sud	south wind; southwester
viento del Este	vent d'est	east wind
viento del Oeste	vent d'ouest	west wind
remolino (de viento)	tourbillon de vent	whirlwind
abrigo del viento (al)	abri (à l'abri du vent)	wind shelter
abrigo de la lluvia (al)	abri (à l'abri de la pluie)	rain shelter
nube	nuage	cloud
niebla	brouillard	fog
bruma matinal	brume matinale	morning haze
oscurecerse el tiempo	obscurcir (s') (le temps)	grow dark (to)
lluvia	pluie	rain
llover	pleuvoir	rain (to)
tempestad	tempête	storm
borrasca	bourrasque	squall, storm
chaparrón	averse	shower, cloudburst
chubasco	giboulée	downpour
llovizna	bruine	drizzle
trueno	tonnerre	thunder
relámpago	éclair	flash of lightning
rayo	foudre	lightning
tormenta	orage	thunderstorm
arco iris	arc-en-ciel	rainbow
charco	flaque	puddle
chapotear	patauger	wade (to)
mojarse	mouiller	wet (to)
desprendimiento de tierra	éboulement	landslide
escampada	éclaircie	break in the clouds
sequía	sécheresse	drought
agotarse, secarse	tarir	dry up (to)
pedrisco	grêle	hailstone

galderak		
GA_CAST	GA_FRAN	GA_INGL
granizo	grésil	hail
devastar	ravager, abîmer	damage, devastate
rocío	rosée	dew
frío	froid	cold
helada	gelée blanche	frost
helada fuerte	gelée noire	black frost
nieve	neige	snow
copo de nieve	flocon	snowflake
alud	avalanche	avalanche
carámbano	glaçons	icicle
fundirse	fondre (la neige)	melt (the snow) (to)
2. taula. EHHako galderak		

Azpimarratu behar da Euskaltzaindiak 145 herritako 20497 erantzun jasotzeaz gain, hizkera guztiak daudela ordezkaturik.

Beste ahozko iturri garrantzitsu bat gorago aipatutako Gaminderen lanak izan dira; *Berbarik Berba* izenburupean sorta ederra osatu du ikertzaileak. Orain arte, salbuespenak salbuespen, Bizkaiko herrietako euskararen azterketa egin du. Liburuok izaera etnolinguistikoa daukatenez gero, meteorologia eta zeru-astroak atalak izaten dira liburu guztietan. Gainera, jasotako hitza ez ezik, gehienetan lekukoek esandako testuak ere ipintzen ditu, batuaz eta bizkaieraz. Beraz, etnotestuak ditugu, hau da, herritarren ahoetatik bertatik entzun eta jasotako kontakizun eta azalpen ezin interesgarriagoak. Guztira, Gaminderen 203 berbak dute tokia corpusean. Iturri idatziei dagokienez, lehenengo eta behin Azkueren hiztegia azpimarratu behar da. Bera izan zen, hain zuzen ere, ikerlan honen abiapuntua. Izan ere, beraren hiztegia goitik behera arakatu zen corpusaren lehendabiziko bertsioa osatzeko. Hustuketa egiteko Euskaltzaindiak 1905-1906/1969an argitaraturiko edizio faksimilea erabili izan da. Hiztegia sarritan aipatzen denez gero, *DVEF* laburdura erabiltzea erabaki da. Idatzitako iturrien artean sarturik ere, hiztegiaren izaera duelako egin da, baina egia esan, ahozkotzat ere jo zitekeen. Bertatik lortutako hitz kopurua ez da inondik inora nolana hikoia: 1280 hitz. Hortaz, batuketa erraza eginda, *EHHA* eta *DVEF*ren bitartez corpusaren % 60 dugu; erdia baino gehixeago. Horietz gain, beste iturri idatzi garrantzitsu batzuk honako hauek dira:

-*Diccionario Retana de Autoridades de la Lengua Vasca* (1991), 9 liburukiz osatua. *Orotariko Euskal Hiztegia* argitaratu baino lehen, euskal hitz gehien biltzen zituen corpusa, bere barnean Azkueren hiztegia daukala. Tesi honetan *DRALV* erabili izan da adierazteko bertatik hartutako berba eta beste zenbaitetan, zuzenean aipatzen den liburua. Azkueren hiztegitik jasotako hitzak kenduta, 273 erabili dira corpusa osatzeko.

-Joxe Landa, *Gara* egunkarian: 165 hitz. Eguraldi-iragarpenak egiten baditu ere, idaztanka herriar lexiko jasoarekin konbinatzen du.

-Candido Izagirre, *El vocabulario vasco de Aranzazu-Oñate* (1959) deritzon liburutik 220 berba. Izagirreren lanak garai bateko herri-lexikoaren berri ematen digu: oparoa eta ezinbestekoa.

-Justo M. Mokoroaren *Repertorio de locuciones del habla popular vasca* (1990) delako lan eskergatik 382 hitz eta lokuzio erdietsi dira. Mokoroaren lanak ez dauka parekorik euskal esaeragintzan. Ataletan bananduta dago eta haietariko bat meteorologiari buruzkoa da. Adibidez, euriaren eremuan sartu diren jarduera gehienak Mokoroarenak dira.

-Pierre Lhanderen *Dictionnaire Basque-Français et Français-Basque* (1926) ere miatu da, eta bertatik 215 hitz hartu dira, guztiak Euskal Herriko ipar-ekialdeko euskalkiei dagozkienak.

-M. Harrieten *Diccionario manuscrito vasco-francés* deritzon liburutik ere 106 hitz, guztiak iparraldeko euskalkietakoak. Ikerlan honetan aipatzen diren batzuk *OEH*tik aterata daude.

-Mariano Izetaren *Baztango Hiztegia* (1996) izeneko liburutik 73 hitz. Izenburuak dakarrenez, guztiak Baztangoak. Azpimarratu behar da adituen arabera Baztango hizkera goinafarreraren edo lapurteraren aldaera dela.

-Toribio Etxebarriaren *Lexicón del Euskera dialectal de Eibar* izeneko ikerlanetik 42 hitz. Lan eder eta mardula osatu zuen bere garaian Toribio Etxebarriak.

-Hainbat idazleren lanak ere miatu dira, eta tantaka izanagatik ere, berba ugari ere jaso dira. Zehatz-mehatz bibliografian agertzen da.

-Beste zenbait hitz lortu izan dira egindako inkesta batzuen bitartez edo jendeak aipatuta horretarako propio Interneten ezarritako www.etnomet.eus blogean. Irakurle batzuen laguntzari esker, hiztegi eta liburuetan aurkitzen ez diren hitz sorta polita lortu da. Datutegian informatzailearen izena aipatzen da.

-Ikertzaile batzuek egindako zenbait herritako euskararen azterketak aintzat hartu izan dira. Askok direnez gero, bibliografian banan-banan aipaturik daude.

-Azkenik, argitaraturiko corpusak direla-eta, *Orotariko Euskal Hiztegia*, paperean, *Ereduzko prosa*, Euskal Herriko Unibertsitateko webgunean, eta *XX mendeko euskararen corpus estatistikoa*, Euskaltzaindiaren webgunean, behin baino gehiagotan kontsultatu behar izan dira beste toki batzuetan jasotako hitzak berresteko asmotan. Ez dago esan beharrik zer-nolako lan eskerga eta erraldoiak diren. Gaur egun ezinbesteko lanabesak dira hiztegi gintzan. Tesi honetarako, batik bat kontsulta tresnak izan dira zeren bertan aipatzen diren jatorrizko liburueta jo izan baita.

Datu-baseari dagokionez, sortzeko erabili den lehenengo programa *Lotus* etxearen *Approach* izan da. Geroago datutegi guztia *Apple* enpresako ordenagailuetan erabili beharreko *FileMaker* etxearen *Bento* aplikaziora pasatu da. Beheragoko laginean suma daitekeenez, honako eremu hauetaz osaturik dago:

- Hitza: hemen aurkituriko berbak, aditzak eta forma lexikalizatuak sartzen dira.
- Katēgoria gramatikalari dagokio; izena, adjektiboa, aditza... Erabilitako laburdurak honako hauek dira: izena (iz.), aditza (ad.), aditz-lokuzioa (ad. lok.), aditz laguna (ad. lag.) adberbioa (adb.), adjektiboa (adj.) eta izenlaguna (izlag.).
- Arloa⁹: zer eremu etnosemantikori dagokion hitza, hau da, ur-meteoroa, haizeak...
- Esanahia: zer adierazten duen hitzak, definizioa, deskripzioa edo itzulpena gaztelaniaz eta frantsesez.
- Herrialdea, Herria, Euskalkia: Ahal dela, jasotako hitza Euskal Herriko zein herrialde eta herritakoa den eta garbi ez badago, zein euskalkitakoa. Herrialdeak honako hauek dira: A-Araba, B-Bizkaia, BN-Nafarroa Beherea, G-Gipuzkoa, N-Nafarroa, L-Lapurdi eta Z-Zuberoa. Euskalkien sailkapenari dagokionez, Azkuek bere hiztegian erabilitako berbera hartu da kontuan, baina izendapena euskaraturik. Hauxe da: B-bizkaiera, BN-behe nafarrera, G-gipuzkera, GN-goi-nafarrera, L-lapurtera eta Z-zuberera.
- Testua: kasu batzuetan hitzaren testuingurua jaso da. Horrela bada, esaldia txertatu da.
- Biltzailea edo informatzailea: zein autorek edo egilek jaso duen hitza, bestela zein lekukoren ahotik bilduta dagoen.
- Idazlea: zein idazlek erabili duen.
- Liburua: zein den hitzaren euskarria, beraren izenburua, dela liburua, dela hiztegia, dela aldizkaria...
- Atsotitzak eta esaerak: bildutako hitzaren inguruko atsotitz eta esaerak. Azken hauek ez dira sartu tesian ikergai gisa.

⁹ Ikus bedi aurreko atal hau: 2.1.7. Eremu semantikoak mugatzea: eremu etnometeorologikoa.

Lotus etxearen Approach programaren bitartez egindako lehenengo datu-basea.

Approach - [EGURALDIA5.APR:Hoja 2]

Base de datos vacía \ Hoja 2 \ Tabla 1 \ Gráfico 1 \ Tabla 2 \ Gráfico 2 \ Informe 1

HITZA	KATE	ARLOA	ESANAHIA	HERRIALDEA / ETNOTESTUA	BILTZAILEA / INF	IDAZLEA	LIBURUA
LANGAR	iz.:	OSTAGIA. UR-METEOROA.	Lainoa dagoenean b	B-Mendata	Langarra da ta e	Idoia Mallea	Mendatako Hiztegi
LANPARA	iz.:	OSTAGIA. UR-METEOROA.	Lanbroa, euri fina	B-Mendata	Lanparra asi dex	Idoia Mallea	Mendatako Hiztegi
KAKA ?(kaki, kakie)	iz.:	OSTAGIA. EGURALDIA. TX	Eguraldi txarra, haize	B-Mendata	Geur denporale	Idoia Mallea	Mendatako Hiztegi
ARRAIZE	iz.:	OSTAGIA. HAIZEA. HEGO-T	Viento del sudoeste				3000 Hiztegia
LEI BALTZ (leibaltz)	iz.:	OSTAGIA. UR-METEOROA.	Normalean zero azpi	B-Mendata	Ez da ikusten b	Idoia Mallea	Mendatako Hiztegi
LEKARRALDO	iz.:	OSTAGIA. UR-METEOROA.	Horren eraginez ura,	B-Mendata	Barbota daben	Idoia Mallea	Mendatako Hiztegi
LESA	iz.:	OSTAGIA. UR-METEOROA.	Basoan euriteen ond	B-Mendata	Euri itzelak eif	Idoia Mallea	Mendatako Hiztegi
LIÑETASI	iz.:	OSTAGIA. UR-METEOROA.	Hotzaren hotzaz euri	B-Mendata	Goixaldien liffet	Idoia Mallea	Mendatako Hiztegi
LURMEN	iz.:	OSTAGIA. UR-METEOROA.	1. Esate baterako lur	B-Mendata	ondoren dana b	Idoia Mallea	Mendatako Hiztegi
ONAZTARRI (oinestariye)	iz.:	OSTAGIA. EKAITZA. TXIMIS	Tximista batek zerba	B-Mendata	Hemendixik urr	Idoia Mallea	Mendatako Hiztegi
POTXINGO	iz.:	OSTAGIA. UR-METEOROA.	Euria egin ondoren s	B-Mendata	Euriye botalan i	Idoia Mallea	Mendatako Hiztegi
ZARRAZOI (sarrasoi)	iz.:	OSTAGIA. UR-METEOROA.	Eguraldia iluntzen du	B-Mendata	Geur goixien eb	Idoia Mallea	Mendatako Hiztegi
ZEMENDI (semendi)	iz.:	HILABETEA. AZAROA	Azaroa	B-Mendata	Semendien il bi	Idoia Mallea	Mendatako Hiztegi
ZEZEIL (seseil)	iz.:	HILABETEA. OTSAILA	Otsaila	B-Mendata	Seseille baño b	Idoia Mallea	Mendatako Hiztegi
SOKIL (sokille)	iz.:	OSTAGIA. UR-METEOROA.	Euri asko egin ondor	B-Mendata	Atxurrik be esif	Idoia Mallea	Mendatako Hiztegi
TRUXU	iz.:	OSTAGIA. UR-METEOROA.	Denbora luzez eta ia	B-Mendata	Geur egun gust	Idoia Mallea	Mendatako Hiztegi
TXIKOLDU	ad.:	OSTAGIA. EGURALDIA. LE	Lehortu, sikatu	B-Mendata	Daben siketiega	Idoia Mallea	Mendatako Hiztegi
TXINGOR	iz.:	OSTAGIA. UR-METEOROA.	Hotzaren hotzaz euri	B-Mendata	Dauen otzagas	Idoia Mallea	Mendatako Hiztegi
ASTUN	asj.:	OSTAGIA. HODEIAK. GOIBI	Kargatuta, lainotuta	G-Oñati	Itxasaldia astun		El vocabulario vasc

FileMaker etxearen Bento aplikazioaren bitartez egindako bigarren datu-basea.

Bento

BIBLIOTECAS: Eurria

HITZA	ARLOA	ESANAHIA	EUSKALDIA	ETNOTESTUA	BILTZAILEA	IDAZLEA	LIBURUA	ATSOTITZAK	KATEGORIA
1. EGURALDIA EURIU	OSTAGIA. EGURALDIA. EKINTZA. EURIA	PONERRE EL TIEMPO LLUVOSO	Bekara	"Eguraldi be berru yaku"	Justo M. Mokoroa		Reportorio de loc...	0	ad. loc.
2. EGURALDIK EURIAR EMON	OSTAGIA. EGURALDIA. EKINTZA. EURIA	DARLE POR LLOVER	Bekara	"Eguraldia euria emon eban"	Justo M. Mokoroa		Reportorio de loc...	0	ad. loc.
3. ALDAGDI	OSTAGIA. HAIZEA. ERAUNTISA. EURIA	HURACAN ACOMPANADO DE LLUVIA	G-Ebor	"Odei motzez osoro / llundu da goi / aldi oro ganean dartzago turno..."		Atzea	Mugara. Aretah...	0	iz.:
4. AFRONTU (afrontu)	OSTAGIA. HAIZEA. EURIA	HAIZE ZAKARRA ETA EURI BATERA	B-Lasa	"Worru ba datorrenez haserene, on urare le ase saratu le lasterko..."	Idoia Mallea		Leza Berarik B...	0	iz.:
5. AFRONTU (afrontu)	OSTAGIA. HAIZEA. EURIA	"Asek dakaren eurdie, aurrekar pten gel..."	B-Abasilo	"Asek dakaran eurdie, aurrekar pten geluarne"	I. Gamindo - M. S...		Abasiloa Leak...	0	iz.:
6. AFRONTU (afrontu)	OSTAGIA. HAIZEA. EURIA	Euria eta haize furtak, ikak bat egink. zer...	B-Mendata	ken den afurtagas orna partye busti du"	Idoia Mallea		Mendatako Hiztegi	0	iz.:
7. EURI-AZTE	OSTAGIA. HAIZEA. EURIA	WENTO QUE PRECEDE A LLUVIA	G-Ebor	"Euri-azte dir abel eta eguradia bako ten izango da zaparada"	T. Elvenerio		Lavein del euri...	0	ad.:
8. EURI-HAZE	OSTAGIA. HAIZEA. EURIA	WENTO QUE PRECEDE A LLUVIA	G-Oñati	"Euri-haize dir abel eta zaparada bosteko orna deak"	Idoia Mallea		Laborju Hiztegi	0	ad.:
9. MERENDATKO HAIZE (Ber...)	OSTAGIA. HAIZEA. EURIA	EURIA DAKARTEN HAIZEA	B-Bako	"Berendatoko aike, kalmetan espado e, almatrako,	Idoia Mallea		Bako Berarik B...	0	iz.:
10. KURPUPITA	OSTAGIA. HAIZEA. EURIA	VENDAGAL CON LLUVIA	Zuberoa		Folk		Rotana Hiztegi	0	ad.:
11. BRIBIKAKAK HARTU	OSTAGIA. HAIZEA. EURIA. EKINTZA	TOMAR LOS GOTES DE WENTO Y LLUVIA	G-Oñati		Candido Lagrino		El vocabulario va...	0	ad.:
12. JO	OSTAGIA. HAIZEA. EURIA. EKINTZA	AZOTAR. EMBESTIR (WENTO. LLUVIA. TE...	Bekara	"Non pten du gien aizeak? Merdi gonenat... Jo oian aizeak, curta..."	Bernardo Estam...		Rotana Hiztegi	0	ad.:
13. BRISOTE	OSTAGIA. HAIZEA. EURIA. ERAUNTISA	BRISA DURA Y CON FUERTES ONDASCOS	N-Eronkari		Bernardo Estam...		Eronkario uska...	0	ad.:
14. KOKATU	OSTAGIA. HAIZEA. EURIA. ERAUNTISA	TEMPERADO DE LLUVIA. WENTO	N-Eronkari		Akue		Hiztegi	0	ad.:
15. AHARI-BURUAK (Aari burak)	OSTAGIA. HODEIAK. EURIA	NUBARRONES QUE APARECEN A LA BALL...	G-Oñati	"Goizean Azkorni gahera aari burak datorrenez ogela bu ordu bari..."	Candido Lagrino		El vocabulario va...	0	iz.:
16. AIRE GAIZTO (AIRE GAIZTO)	OSTAGIA. HODEIAK. EURIA	Nubes en forma de cortas largas	Bekara		Candido Lagrino		PROCP.1983.214	0	ad.:
17. EURI-LAND (LAND)	OSTAGIA. HODEIAK. EURIA	NUBARRONES CARADOS DE AGUA	B-Bernio		Akue		Hiztegi	0	iz.:
18. EURI-LAND (LAND)	OSTAGIA. HODEIAK. EURIA	EURIA DAKARTEN LANDAK	B-Mundaka	"Beitu sekiko euri-lafu datorren euri"	Eneko Berrutia		Bekako Arrantz...	0	iz.:
19. EURI-SARTA	OSTAGIA. HODEIAK. EURIA	NUBES DE LLUVIA	B-Mundaka	"Arria formadun lanok"	Eneko Berrutia		Bekako Arrantz...	0	iz.:
20. GONGERA	OSTAGIA. HODEIAK. EURIA	NUBARRONES MUY LLUVIOSOS?	B-Bekara		Akue		Hiztegi	0	iz.:
21. HODEI (ODEI)-ERRU	OSTAGIA. HODEIAK. EURIA	NUBARRON. MANGAS DE LLUVIA	B-Lekotz		Akue		Hiztegi	0	iz.:
22. HODEI (ODEI) MONTOR	OSTAGIA. HODEIAK. EURIA	NUBARRON	B-Zamudio	"Odei montorak", hodei beltzak, euria sagartzen dutenak"	Idoia Mallea		Zamudio Berarik...	0	iz.:
23. LAMALTA	OSTAGIA. HODEIAK. EURIA	NUBARRONES LLUVIOSOS	N-Eronkari		Akue		Hiztegi	0	iz.:
24. LEKAMU	OSTAGIA. HODEIAK. EURIA	NUBARRONES LLUVIOSOS	N-Zarautz		Akue		Hiztegi	0	iz.:
25. KOKZOR	OSTAGIA. HODEIAK. EURIA	Hodeia DE LLUVIA	B-Bernio		Akue		Hiztegi	0	iz.:
26. KOKZOR	OSTAGIA. HODEIAK. EURIA	Euri-hodeien azpian aini mugitzen diren hodei...					Hiztegi	0	iz.:
27. LABAN	OSTAGIA. HODEIAK. EURIA	EURIA DAKARTEN OITZEN HODEIAK	G-Elgeta	"Eguraldi labana edo eguradia laban dagi"	Enrika Gonzalezgi		Hiztegi	0	iz.:
28. LABAN	OSTAGIA. HODEIAK. EURIA	NUBARRON	B-Zamudio, Jatzio	"Montor beltzak: hodei beltzak, euria sagartzen dutenak"	Idoia Mallea		Zamudio Berarik...	0	iz.:
29. TXAKAMEL	OSTAGIA. HODEIAK. EURIA	Hodeia MUY LLUVIOSAS	G-Hondarribia / B...		Akue		Hiztegi	0	iz.:
30. ZAKOTA	OSTAGIA. HODEIAK. EURIA	Hodeia MUY LLUVIOSAS (?)			Akue		Hiztegi	0	iz.:
31. DALDI-GAINDO (Saki gaingoa)	OSTAGIA. HODEIAK. EURIA	EURIA DAKARTEN HODEIAK	B-Bako		Idoia Mallea		Bako Berarik B...	0	iz.:
32. ZERRO	OSTAGIA. HODEIAK. EURIA	Hodeia MUY LLUVIOSA	B-Ondarroa		Akue		Hiztegi	0	iz.:
33. AZARO	OSTAGIA. UR-METEOROA. EURIAR. MALUTA. PKORRA...	Tadoma eta euria nahastuta					El vocabulario va...	0	ad.:
34. ENAMITU (BAT)	OSTAGIA. UR-METEOROA. EURIA	Una lluvia v. gr de olas	G-Oñati	Silago asarok. Txidoma eta euria nahastan ten dau. Euri ten dau, ead...	Candido Lagrino		El vocabulario va...	0	ad.:
35. BEURTXORI	OSTAGIA. UR-METEOROA. EURIA. ATSOTITZTA	ESTORMINO. YEGUADERO		"Beurtxori? kamatan danean, euria file xinen da"	Akue		Hiztegi	0	iz.:
36. BERTZATA	OSTAGIA. UR-METEOROA. EURIA. ESGERA	LLUVIA A CANTAROS	Z-Zalgbe	"Bertzata ezin"	Unako		Festacion Prosp...	0	ad.:
37. URDU	OSTAGIA. UR-METEOROA. EURIA. KOLAKA	LLUVIO		"Urdu ba hahortak, Marzotik hasirik, urdu dra"	Akue		Prosp.1983.214	0	ad.:
38. ZAMARKATUZ	OSTAGIA. UR-METEOROA. EURIA. ALDIA	POR RACHAS	Beha-Nafarera	"Zamarkatuz ari da erarbita"	Justo M. Mokoroa		Reportorio de loc...	0	ad.:
39. EURI-ANTZ	OSTAGIA. UR-METEOROA. EURIA. ANTZA	TRAZA DE LLUVIA	Bekara	Beraga ateko hiztegia	Akue		Eustalberaren J...	0	iz.:
40. EURI-BERA	OSTAGIA. UR-METEOROA. EURIA. ASTRO	LLUVIA QUE CAE TRANQUILAMENTE	G-Oñati		Akue		Hiztegi	0	iz.:
41. EURI-ATERI	OSTAGIA. UR-METEOROA. EURIA. ATERI	LLUVIA QUE CAE TRANQUILAMENTE	B-Izator		Akue		Hiztegi	0	iz.:
42. EURI-ATERI	OSTAGIA. UR-METEOROA. EURIA. ATERI	LLOVER VS NO LLOVER	Bekara	"Euri nai ateri egunero elorten da"	Justo M. Mokoroa		Reportorio de loc...	0	iz.:
43. ATELARTE	OSTAGIA. UR-METEOROA. EURIA. ATERTU	ESCAMPA	G-Hondarribia		Espalzarandia		Spal'Heriko HL...	0	ad.:
44. ATELARTE	OSTAGIA. UR-METEOROA. EURIA. ATERTU	ESCAMPA. ACCION DE ESCAMPAR	N-Zarautz		Akue		Hiztegi	0	iz.:
45. ATERI	OSTAGIA. UR-METEOROA. EURIA. ATERTU	TIEMPO SECO. SERENO	Glozkeria	Ateri dagi			Arantzazu. Egipi...	0	ad.:
46. ATERIKI	OSTAGIA. UR-METEOROA. EURIA. ATERTU	EURIA. ELURIA EDO ARI EZ DUEN DENB.	N-Bazan	"Ule ez zuten la orai aterik"			Bazango Hiztegi	0	iz.:
47. ATERKUNZA	OSTAGIA. UR-METEOROA. EURIA. ATERTU	EURIA. ELURIA EDO ARI EZ DUEN DENB.	N-Bazan	"Neuruntze batan atri ginen"			Bazango Hiztegi	0	iz.:
48. ATERIALDI	OSTAGIA. UR-METEOROA. EURIA. ATERTU	ESCAMPA					Hiztegi	0	iz.:
49. ATERIALDI	OSTAGIA. UR-METEOROA. EURIA. ATERTU	ESCAMPA	N-Bazan / Bekar...		Akue		Hiztegi	0	iz.:

3.2. Nozio orokorrak eta espezifikoak

Behin tesi honen norabidearen eremu teorikoa, hizkuntzalaritzaren eta antropologiaren elkargunea zedarritu, eta corpora osatzeko zer-nolako pausoak jarraitu diren azalduz, atal honetan oraintsu arte jorratutako teoriak eta corpusak aztertzeke bestelako ekarpenak lagun, aztergaiari ekin beharko zaio: euskarak bere baitan biltzen dituen termino etnometeorologikoen sailkapen eta azterketa, eta, aldi berean, kulturak hizkuntzarekin izendapenetan daukan erlazioa azaldu. Aurreko atalean azaldu eta deskribatutako ekarpen teoriko lagungarriak oinarritzat hartzeaz gain, hizkuntzen irakaskuntzan 80ko hamarkadan pil-pilean egon zen beste teoria semantiko baten bidez eskainiko da tresna baliotsu bat etnometeorologiaren inguruko lexikoa sailkatu eta aztertzeke. Horretarako, Wilkins (1976) ezinbesteko euskarria izango da etnometeorologiaren eremuan erabiltzen diren hitzak kontzeptu eta kategorietan sailkatzeko. itxuraz etnolinguistikaren eremuarekin zerikusirik ez daukana. Haren ekarpena funtsezkoa da etnometeorologiaren eremuko berbak, kontzeptu eta kategorietan sailkatzeko. Hurrengo atalean sakontxoago aztertuko da Wilkinsen proposamena, baina beraren lana irakurrita ondoko ondorio honetara heltzen da: edozein hizkuntzatan sei nozio edo kontzeptu nagusi daudela, eta nozio edo kontzeptu espezifikoak (hitzak) horien arabera ardaturik daudela (Wilkins, 1976: 25-54). Hori dela-eta, eremu bateko hitz guztiak (nozio espezifikoak), nozio orokorretan sailkatzeko modua egongo litzateke —nozio etnosemantikoak baliokidetzat hartuko da ikerlan honetan—. Beraz, Wilkinsen teoriak ahalbideratuko du tesi hau jasotako berba guztiak zerrendatu eta sailkatzeko.

Nahiz eta lerro bakar batean adierazita egon ez, orrialde batzuk irakurrita ondorioztatzen da edozein hizkuntzatan sei nozio edo kontzeptu nagusi daudela eta nozio edo kontzeptu espezifikoak (hitzak) horien arabera ardaturik daudela (*idem*: 25-54). Beraz, horren arabera eremu jakin baten hitz guztiak (nozio espezifikoak) nozio orokorretan sailkatzeko modua egongo litzateke. Geroago Euskal Herrian AEK erakundeak Wilkinsen teoria bereganatu, bere erara moldatu, eta syllabus nozio-funtzionala plazaratu zuen kontu funtzionalak eta nozionalak uztartuz “Euskalduntzerako helburu orokor eta zehaztuak” deritzon liburuan: “Antolaketa nozio-funtzionalak, beste antolaketa motek planteatutako zenbait arazo gainditzen du (esanahiaz jabetzea komunikazio eginkizun lanketa, e. a.)” (AEK, 1988: 5). Aurrerago urratsez urrats azaltzen dira nozioak. Adibidez 1. urratsean (*ibid.*: 14-15):

Nozio orokorrak

1. Izakiak

Existentzia

- Pertenentzia / Jabetasuna
- Identitatea
- Izaki eta fenomeno konkretuak
- 2. Kantitatea
 - Kopuru absolutua
 - Kopuru erlatiboa
- 3. Kalitatea
 - Kalitateen neurketa
 - Kalitate konkretuak
- 4. Iharduera (*sic*)
 - Parte hartzea
 - Modua
 - Iharduera (*sic*) konkretuak
- 5. Denbora
 - Unea
 - Sekuentzia
- 6. Espazioa
 - Posizioa
 - Higidura
 - Kokamendu erlatiboa
 - Toki geografikoa

Council of Europek (1988/1996) euskaraz argitaraturiko *Atalase Maila* deritzon liburuan –Wilkinsen lanaz baliaturik (1976)–, berriz ere azaltzen dira nozio espezifiko (hitzak) eta orokorrak:

Nozio espezifiko gehienak lexikoaren bitartez adierazten dira; horregatik gai bakoitzean erabiltzen den lexikoaz (hiztegiak) mintza gaitzke. Tenedore hitza, adibidez, sukaldaritzaren gaiari lotutako hiztegiak bilatuko dugu, ez ordea zinemarenean. (bistan denez, probalitateez ari gara beti, ez erregela absolutuez). Nozio orokorrak, berriz, lexikoan ez ezik egitura edo forma gramatikalen bidez ere gauzatzen dira askotan. Hona hemen liburu honetan egingo dugu sailkapena nozio orokorretzat:

1. Izakiak (existentzia, pertinentzia, identitatea...)
2. Kantitatea
3. Kalitatea
4. Iharduera (*sic*) (prozesua, partehartzea. modua...)
5. Denbora (unea, iraupena, maiztasuna, sekuentzia, abiadura, puntualtasuna)
6. Espazioa (posizioa, higidura, kokamendu erlatiboa, distantzia, toki geografikoa). (Alan King, 1988 / 1996: 22)

Jarraian, aditzera emango da nozio orokor bakoitzaren ezaugarria eta nola egokituko ditugun tesi honetara, beti ere Wilkinsek (1976) sortutako teoria erabiliz. Euskarazko itzulpenak neureak eta AEKrenak dira (AEK, 1988).

1. Nozio orokorra. Izakiak: Gure komunikazioaren atal garrantzitsuenetariko bat entitateak identifikatzeari buruzkoa izaten da. Eta hori ez ezik, haien arteko harremanak ere adierazten dira gure arteko komunikazioan. Honelako ezaugarriak dauzkaten hitzak lotu behar zaizkio nozio honi: existentzia, jabetasuna, identitatea, izaki eta fenomeno zehatzak eta materialak. Hori dela-eta, etnometeoroen izendapenei dagozkien adiera guztiak sartuko dira nozio orokor honetan. Adibidez, ostagi edo fenomeno atmosferikoen izendapenak, nolako identitatea daukaten, beste ostagi batekin batera azaltzen direnez...

2. Nozio orokorra. Kantitatea: Irudi du hizkuntzaren ezaugarri unibertsala izenak zatigarri / zatiezin edota zenbakarri / zenbatezin bikoteen arabera sailkatzen dela. Hori dela-eta, oro har, gauza guztiak kuantifikagarri / kuantifikaiezintzat har litezke. Wilkinsen arabera honelako ezaugarriak dauzkaten hitzak lotu behar zaizkio nozio honi (1976: 31): kopuru absolutua eta kopuru erlatiboa. Horregatik, nola edo hala kantitatea adierazten duten etnometeoro guztien hitzak sailkatu behar lirateke nozio orokor honetan. Eta argi eta erne ibili beharra dago kantitate eta kalitate nozioak nahas ez daitezen; adibidez, *huri* edo *elur kopurua* edo *txingor zaparrada*.

3. Nozio orokorra. Kalitatea: Berba egiten denean, sarritan, gauza edo pertsonen kalitateak aipatzen ditugu. Wilkinsen esanetan (*ibid.*: 38) nozio orokor honetan ondoko hauek daude bilduta: kalitateen neurketa, lexikoa eta egiturak; kalitate zehatzak, jatorria, dimentsioak, pisua, koloreak, tenperatura, kalitate fisikoak, pertsona ezaugarriak; fisikoa; egokitasuna eta garrantzia. Horrenbestez, etnometeoro guztien kalitateak sartu behar genituzke kategoria orokor honetan: nolakoa den, zein kolore daukan, nola zehazten den. Wilkinsek jatorria nozio honetan nahiago bazuen ere, badirudi egokitxoagoa izango litzatekeela *espazio* nozio orokorrean txertatzea.

4. Nozio orokorra. Jarduera: Mintzatzen garenean, nola edo hala, zerbait edo norbaiten ekintzak jakinarazten ditugu. Hizkuntza batzuek berezko aditzekin egiten dute eta beste batzuek subjektuari hainbat marka ezarriz. Wilkinsen arabera (*ibid.*: 41-42), nozio orokor honetan honelako kontzeptuak jorratu ohi dira: prozesua, parte hartzea, modua, jarduera zehatzak eta funtzioa. Hemen eremu bati buruzko aditzak eta aditz-lokuzioak sartzten dira, baita nola galderari erantzuten dioten aditzondo guztiak ere. Adibidez, *nola egiten duen euria* edo *elurra hasten duenean*.

5. Nozio orokorra. Denbora: Hizkuntza gehienetan, guztietan ez esateagatik, ia ezinezkoa da denbora-kontzepturik gabeko perpausik esatea. Nekez egin liteke. Wilkinsen berbetan (*ibid.*: 25-27), nozio orokor honek honako kontzeptu hauei buruzkoak jorratu ohi ditu: unea, iraupena, maiztasuna eta sekuentzia. Hortaz, horrelako kontzepturen bat bere baitan biltzen duen termino oro sartzen da. Adibidez, ekaitzen eremua dela-eta, zein berba dauden *ekaitz* edo *trumoi garaia* adierazteko edo euriari buruz, *euriaren ondorengoa*.

6. Nozio orokorra. Espazioa: Hizkuntzetan espazioa preposizio edota postposizioen bitartez adierazten da. Gainera, batzuetan, hitzek berek daramate beren baitan espazio-nozioa. Adibidez “ipar”. Wilkinsi jarraikiz (*ibid.*: 32), nozio orokor honetara honelako kontzeptuak biltzen dira: kokamendua eta mugimendua. “Jatorria” kontzeptua izakiak noziotik espaziora aldatu da nozio honetan hobeto ulertzen delakoan. Halanda ze, corpuseko hitzen batek baldin badu kokamendu, mugimendu edo jatorri zehatzik bertan sailkatuko da; adibidez, haizeak nongoak diren: ipar, hego, mendebal haizea... Bestalde, haizeen eremuan, hain zuzen ere, beste azterbide bat erabiliko da; Aurrekoetxeak (2000: 93-107), uste baino askoz garrantzitsuagoa den artikulu batean *EHH*Arako galdetzen ziren lau haize motei buruz herriaren ikuspegia xehetu zuen proposaturiko azterbide zehatz baten bidez. Atlaseko haize guztien izendapenak honako honetara bildu zituen Aurrekoetxeak:

01. Aroaren araberako izendapena
02. Haizearen izaerari buruzko izendapena
03. Izendapen kardinala
04. Izendapen orografikoa
05. Ondoko herriak
 - 05.1. Elementu geografikoa
 - 05.2. Herrialdea
 - 05.3. Izendapen toponimikoa
06. Ostagiekin lotura duten izendapenak
07. Pertsonifikazioa
08. Sasoi izendapena
09. Erreferentzia astronomikoa
10. Bestelako izendapenak

Wilkinsen nozio orokorrak (1976) eta Aurrekoetxearen azterlana (2000) hizpide eta lagun, haizea aipaturiko azken ostagia denez gero, adibidetzat hartuko da ikusteko nola geratuko den sailkapen bat:

Haizearen izendapenak (izakiak) => Haize erauntsia (kantitatea) => Haizearen nolakotasuna (kalitatea) => Haizearen inguruko jarduerak (jarduera) => Haizearen garaia (denbora) => Ipar Haizea (espazioa).

Azkenik, nozio orokor guztien kontzeptuak taula batera ekar daitezke; horrela, errazago atzemango da bakoitzak zenbat kontzeptu biltzen dituen bere baitan. Beste batzuk erantsi eta ken litezke, baina direnak nozio espezifikoak sailkatzeko adinakoak dira.

Izakiak	Kantitatea	Kalitatea	Jarduera	Denbora	Espazioa
Existentzia Jabetasuna Identitatea Izaki eta fenomeno zehatzak eta materialak	Kopuru absolutua Kopuru erlatiboa	Kalitate zehatzak Dimentsioak Pisua Koloreak Tenperatura Kalitate fisikoak Egokitasuna eta garrantzia	Prozesua Parte hartzea Jarduera zehatzak Funtzioa Modua	Unea Iraupena Maiztasuna Sekuentzia	Kokamendua Mugimendua Jatorria
3. taula. Nozio orokorrak eta kontzeptuak					

Horrela corpusean dauden item guztiak 3. taulan dauden kontzeptuen arabera sailkatuko dira. Hurrengo urratsa hauxe izango da: esparru etnometeorologikoan egindako banaketaren arabera hitz guztiak tauletan txertatu eta sailkapena egitea. Nozio orokorretan dauden kontzeptuek bide emango digute nozio espezifiko guztiak sailkatzeko.

3.3. Azterbide etnolinguistikoa

Gogora dezagun esparru bakarra aztertuko dela, ostagiak, eta azterketa etnolinguistikoari dagokionez, berriki azalduko Wilkinsen (1976) nozio orokor eta espezifikoek gain, gorago aipatu bezala, hiru arloren ekarpenak (hizkuntzalaritza boastarra, etnosemantika eta hizketaren etnografia) hartuko dira aintzat hein handi batean lexikoari buruzko iruzkinak egitean. Bestalde, hizkuntzalaritza kognitiboaren ekarpenak ere aintzat hartuko dira; Palmerren (1996/2000) proposamen kulturallean oinarrituta, beste autore batzuen bidez osatuta –beherago zehaztuko direnak–, nozio espezifikoak aztertzeko azterbide etnolinguistikoa aplikatuko da. Ondorioz, ikerlan hau ez da mugatuko hitz guztiak nozio orokorren arabera sailkatzera. Sailkapenean, lehenengo nozio orokorrak hartuko dira kontuan; bigarrenik nozioen kontzeptuetan oinarrituriko kategoriak, hirugarrenik azpi-kategoriak, eta azkenik, nozio espezifikoak edo hitzak. Kategoriak baizik ez dira letra larriz idatziko, gainerakoetatik bereizteko.

Hala ere, lexiko etnometeorologikoa sailkatu eta aztertzea ez da inondik inora erraza, ezen erabaki zehatz eta artatsuak hartu behar baitira behar bezalako sailkapen eta azterketa egoki eta argia egiteko. Hortaz, azterlan honen izaera jakintza-alor anitzekoa begi-bistan dago: nahiz eta hizkuntzalaritzak, etnolinguistikak, antropologia linguistikoak, meteorologiak eta, nolabait, dialektologiak gune jakin batean topo egiten duten, corpus guztia ikertzeko azterketari etnolinguistikoa deituko diogu. Tesi honen beste ekarpenetariko bat da lexikoaren azterketa etnolinguistikoa bultzatzea (Martín Camacho, 2016: 198-202). Gauzak horrela, honako kontu hauek hartuko dira aintzakotzat azterketa etnolinguistikoan:

-Palmerren adimen-begi (mind's eye) kontzeptua funtsezkoa izango da tesi honetan; horri lotuta, adimenaren iruditeria eta buru-iruditeria terminoak ere erabiliko dira.

-Hiztunen adimen-begiak sorturiko irudien berri ere emango da, batez ere, metaforak; hitz-elkarketa ugari metaforikoak dira.

-Berba bat nork bildu edo erabili duen eta non jaso den. Oso garrantzitsua da zein euskalkitan, hizkeratan edo herritan erabiltzen den, ingurune horretako gizarte eta kulturari uztarturik egon baitaiteke. Ez da gauza bera Bermeon (Bizkaia) edo Arbizun (Nafarroa) jasota egotea, ingurune soziokulturala desberdina baita; hortaz, terminoen erreferentzia soziokulturalak argitzen ahaleginduko da.

-Berben polisemia ere aztertuko da, batik bat zenbait eremu etnometeorologikotan erabiltzen denean. Zenbait hitz eremu askotara lerratu, eta zenbait adiera sortu izan dira.

-Kontrakoa ere gertatuko da; batzuetan zenbait hitz "hapax legomenon" izango dira, hots, behin baino agertu ez den hitz, hitz-forma edo adierazpidea. Adibidez, hemen bat erabiltzen da: *ostagia* (§2.1.6.)

-Zenbaitetan hitzen etimologian aztarrika jardutea lagungarria izango da jatorrizko esanahia azalertzeko. Horrela, batzuetan, jakin ahalko da zein den aitzin euskal hiztunaren kontzeptu-pentsaera:

El estudio de las etimologías de las palabras puede servir para descubrir datos interesantes de las culturas que han ido asociándose a una lengua, tanto a nivel general (...), como a nivel particular, dado que la etimología de una palabra puede descubrir hechos culturales del pasado. (Martín Camacho, 2016: 201)

-Bide emanaz gero, zenbait kasutan beste kultura eta hizkuntza batzuekin erkatuko dira corpuseko berbak.

Terminoen morfologia ere aztertuko da ea hitz soilak diren, elkarketak, eratorpenak edo onomatopeiak diren. Elkarketak, eratorpenak edo onomatopeiak izanez gero, azpimarratuko da lexikoa motibatugabea, ziogabea dela, eta ez motibatua.

4. Etnometeorologia eremuaren nozio orokor eta espezifikoen azterketa: ostagiak

Jarraian aipatutako eremua baizik ez da aztertuko: ostagiak, hots, ostadarra, ekaitza, haizeak eta ur-meteoroak. Horietan, ondoko hauek: elurra, euria, hezetasuna, ihintza, izotza, lainoa, lanbroa eta gandua, eta, azkenik, txingorra. Ostagiak aztertzea askitzat jotzen da euskal hiztunaren buru-iruditeria zertan den azaltzeko.

Ostagi hitzari buruzko azalpena eman behar da. Tesi honetan *fenomeno atmosferikoa* aditzera emateko erabiltzea erabaki da, ez garbizalekeriarengatik, erosotasunarengatik baizik; izan ere, hitz bakar batez baliatuz forma lexikalizatu bat adieraz daiteke. Lehen aipatu bezala (§2.1.7), hitz hori badirudi Azkuek (1935-1947/1989) asmatu eta lehenengo aldiz erabili zuela. Zehaztapen hori eginda, ostagien eremua etnometeorologiaren oparoena dela azpimarratu behar da bere baitan azpi-eremu gehien biltzen baitu. Berak osatzen du jakintza honen ardatz nagusia, eta bertan gertatzen dira fenomenorik interesgarrienak. Honako hauek dira (*MetHizt*, 1988):

- **elektrometeoroak** edo azterlan honetan erabiltzen denaren arabera, argi-meteoroak (ostadarra baizik ez da sartu, gainerakoek ez baitute garrantzirik euskararen hizkeretan).
- **ekaitza**, hor ekaitza beraz gain, trumoi, tximist eta oinaztuaren ingurukoak ere badira; haizeak, puntu kardinali buruzkoak ez ezik, bestelakoak, eta batez ere herri ikuspegitikoak ere bai.
- **haizeak**, zeintzia abiaburu herri-ikuspegirantz.
- **hodeiak**, beti ere zientzia eta herri-ikuspegia uztartuz.
- **hidrometeoroak** edo tesi honetan erabiltzen denez, **ur-meteoroak**. Horiexek osatzen dute ostagietan fenomeno eta termino gehien. Espero izatekoa zenez, *euria* biltzen du bere baitan berba gehien. Honako hauek dira, hurrenez hurren: elurra, euria, hezetasuna, ihintza, izotza, lainoa-lanbroa-gandua (azpi-eremu bakarra osatzen dute tesi honetan) eta txingorra.

Horrenbestez, behin azpi-eremu guztiak aurkeztuta, jarraian banan-banan xehetu, aztertu eta azaleratuko da antzinako euskal hiztunaren buru-iruditeriaren bidez, adimen-begiak sorrarazitako berbategi guztia.

4.1. Ostadarra

4.1.1. Analisia

Mundu guztian barrena ostadarrak azalpen eta interpretazio ugari izaten du: zenbat herri hainbat azalpen. Herri askorentzat suge erraldoia da. “Europa aldean marinela eta itsasgizon askok uste zuten euren ontzia ostadarrak ura xurgatzen zuen une berean igarotzen bazuten, ontzia bera ere xurga zezakeela” (Verdet, 1987). Euskaraz erabiltzen den izenatariko bat *itsaso adar* (*itxasoadar*, G-Ataun: Barandiaran, 1983b) da. Leku askotako ipuin eta kontakizunetan, baita Euskal Herrikoetan ere, ostadarraren azpitik pasatuz gero sexua aldatzeko arrisku handia zegoelako sinesmena oso hedaturik zegoen. Azkuek herri anitzetan honako hau aurkitu zuen: “Ostreilakak (ostadarra) lurra jotzen duen lekuan dauden mutilak neskatxa egiten omen dira eta neskatxak mutil. Erromako zubiaren azpitik igarotzen dena, gizona bada emakume egiten da; emakumea bada gizondurik” (Azkue, 1935-1947/1989: 166). Hau ere interesgarria da:

Entre las creencias que cita en su estudio Bähr son curiosas una de Fuenterrabía, en dónde al arco iris doble llaman “azerien boda” = boda de zorros (denominación casi igual a la rifeña de “thamr’era bussen” = boda del chacal, que se usa para designar el arco iris simple y que refleja una curiosa relación), y la de Oñate, en donde se cree –como en el N. de Alemania y en otras muchas partes –que toda muchacha o muchacho que pase bajo el arco iris cambia de sexo automáticamente. (Caro Baroja, 1984: 23)


Aurrerago aztertuko dira “azerien ezkontza” guztiak, euriaren eremuan, hain zuzen (§4.5.2). Beste toki batzuetan gaitzekin ere badu zerikusirik ostadarrak. Atzamarrarekin seinalatuz gero, azpizarrak atera litezke. Hori dela-eta, beharbada, ostadarren ura edaten badugu, kalitxak ihartuko zaizkigu: “Oltzadarra edaten ene kalitxa ihartzen” (BN-Mix: *OEH*). Eta sinesmen honek ere jakinarazten digu ez diogula ostadarrari begiratu behar, bestela haginak usteldu egingo zaizkigu: “Ostarkuari –ostadarrari- begiratzuz gero, haginak usteldu egiten dira” (Azkue, 1935-1947/1989: 165). Beste zenbaitetan konnotazio biblikoekin egiten da topo. Jakinaenez, Dilubio Handia gertatu zenean, Antzinako Testamentuko Genesian, beraren amaiera iragartzen zen behin ostadarra agertuz gero. Baliteke horregatik ere euskaraz “Ostarkua (ostadarra) ikusiz gero ehun urtean ez dago dilubiorik” (Azkue, 1935-1947/1989: 165) atsotitzaz baliatzea. Sarritan ere bidaiari kristauari Erromako bidea erakusten dio ostadarrak: “Ostreilakak bidaiariari Erromako bidea erakusten dio” (Azkue, 1935-1947/1989: 165).

Izendapenei buruz egin diren ikerlanen artean goratxoago aipaturiko Gerhard Bähr euskalari alemaniarrena gailurtu behar da (Bähr, 1931): “El arco iris y la vía láctea en Guipúzcoa (vocablos, etimologías y difusión, creencias populares)” deritzon artikuluan, lehenengo eta behin bildu zituen terminoen zerrenda ematen du, bigarrenik etimologien azalpena egiten du, eta, azkenik sinesmenak azaltzen ditu. Sasoi hartan jaso zituen hitzetatik, gaur egun, *EHH*Aren arabera (2008), *Erromako zubia*, *ortzadar*, *ostarku* eta *uztargi* baino ez

dira erabiltzen; areago, *Erromako zubi* (EHHA) izendapena nagusitu egin da Gipuzkoako hizkeretan: Aia, Amezketeta, Andoain, Asteasu, Ataun, Azkoitia, Azpeitia, Beasain, Deba, Donostia, Elduain, Errezil, Ezkio-Itsaso, Hernani, Hondarribia, Ikaztegieta, Lasarte, Legazpi, Oiartzun, Oresa, Orrio, Tolosa, Urretxu, Zegama eta Zestoa. Herrialdeko mendebaldean, *ostarku* (EHHA) berbaren inguruko aldaerek iraun egin dute: Eibar, Elgoibar, Leintz-Gatzaga, Mendaro eta Oñati. Beraz, garai hartan hiztunen adimen-begiak erabiltzen hasia zen beste izendapen baten alde egin zuen, eta Bähr-ek horretaz ohartu eta hauxe adierazi zuen:

En algunos puntos se puede comprobar que *Erromako zubi* es el término usado generalmente y en particular por los jóvenes, al paso que *ostrailaka* sólo es conocido de los viejos. Parece también que en conjunto aquél va ganando terreno a éste sustituyéndolo hasta el punto de ser comprendido hoy día en la casi totalidad de la provincia. (Bähr, 1931: 404)

Galdutako hitzen artean ondoko hauek dira: *estreila* (Ormaiztegi), *estreilaja* (Legazpi), *intxearka* (Oikina), *intzearka* (Aizarnazabal), *inzerka* (Arroa), *inzirkea?* (Itziar), *intzirki?* (Sasiola, Itziar?), *itzearka* (Getaria), *kostrilaka?* (Errearteria), *oskillote* (Aizarana, Aia?), *ostabar* (Irun, Hondarribia), *ostalika* (Bidania, Errezil), *ostil* (Azpeitia), *ostrailaka* (Usurbil, Itziar (DVEF), *ostrailia?* (Bidania), *ostralika* (Ezkio, Zarautz, Asteasu, Errezil, Azpeitia), *ostreillaja* (Legazpia), *ostreillaka* (Aduna, Elduain, Igeldo), *ostrilika?* (Gabiria), *ostrilaja* (Zerain, Segura, gabiria, Ormaiztegi), *ostrilaka* (Ataun, Hernani), *oztil* (Azpeitia (DVEF)) eta *oztralika* (Azpeitia (DVEF)). Nabari denez, zalantza asko adierazi zituen ? galdera-ikurraren bitartez (Bähr, 1931). Hauxe da hark egindako mapa:



1. mapa. Ostadarra eta Esne-Bidea Gipuzkoan. [Iturria: Bähr (1931: 401)]

Honela azaltzen du:

Al abarcar de un vistazo la provincia de Guipúzcoa tal como aparece en el croquis adjunto nos damos cuenta inmediatamente de tres tipos principales de nombres del arco iris: en el centro, es decir en la casi totalidad del área ocupada por el dialecto guipuzcoano predomina el *ostraillaka*, en la zona de habla navarra se emplea *ostadar* y en el oeste donde el dialecto es el vizcaíno *ostarku* o alguna variante suya. (Bähr, 1931: 401)

Etimologiari dagokionez, honako azalpen hau ematen du:

...si tenemos en cuenta que, según queda dicho más arriba, el centro de la provincia está ocupado por *ostraillaka*, el noroeste por *ostadar*, el oeste por *ostarku* –teniendo estas dos últimas denominaciones idéntica significación– y que estos tres vocablos se usan cada uno en una región bien determinada de Guipúzcoa –aunque perteneciendo a diferentes dialectos– no resulta nada atrevida la suposición de que también *ostraillaka* deba traducirse de manera análoga, es, a saber, por “arco del cielo”. (*Ibidem*: 403)

Bähr-ek bildutakoaz gain, euskararen hizkeretan ostadarrari irizteko erabiltzen diren izenei dagokionez, askotarikoak eta ugariak direla azpimarratu behar da. Ezin uka daiteke kristautzearen eragina: izen askotan jaungoiko edo jaingo eta santuen izenak agertzen dira. Beste batzuetan, ordea, alde batetik, lehenengo osagaien askotan *ortzi-*, *uztai-* eta bigarrenen *-adar*, *-arku*, *-arka* eta *-argi*. Beste eremu batzuetan bezalaxe, irudi du nolabaiteko sinkretismoa gertatu dela lexikoan ere. Jatorrizko hitzak gorde bide dira, arrotzak onartu eta beraien arteko ezkontza ere izan dira. Sinbolismoaz den bezainbatean, kontu interesgarri bat da azpimarratzekoa: oraingoan ere zerikusi handia dauka Bibliak: ba omen dago interes handiko analogia sotila Noeren Arkaren eta ostadarraren artean. Gogora ditzagun *-arka* eta *-arku* terminoak. Arka behereneko uretatik omen dabil eta arkuaren goienekoetatik. Ostadarra goialdean Arkaren behealdean ezarritako ordenaren seinalea da; irudi biak alderantzizkoak eta osagarriak dira, eta biek bat eginik, osotasunaren era zirkularra eratzen dute. Horrela, beraien bi erdiak munduko arrautzaren antzinako ikurrari dagozkio. Franko dira euskaraz *-arka* eta *-arku* terminoak dauzkaten hitzak: corpusean aurkituriko guztiak daude. Corpuserako hainbat berba aterata dira *EHHAtik*¹⁰.

Jarraian, hitzen azterketa etnosemantikoa egingo da. Oraingoan, nozio orokorretatik ostadarrak izakien nozioa besterik ez duela azaltzen azpimarratu behar da. Beraz, beste bostak falta dira: kalitatea, kantitatea, jarduerak, denbora eta espazioa.

¹⁰https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_ehha&view=frontpage&Itemid=466&lang=eu&testua=&gaia=Eguraldia&mapa=246&lekua=

	adar	argi	arka	arku	baranda	Faxa/gerriko	hanka	iris	zubi
arke								+	
erromako									+
eurri	+								
frantziako									+
ihintz			+						
iresta?		+							
itsaso	+								
jaungoikoaren					+	+			+
oilo							+		
ortzi (iri)	+		+	+					
san migelen									+
san nikolasen									+
uztai	+	+		+					
zeruko									+
zubi	+								
4. taula. Ostadarra. Hitz-elkarketen ustezko osaera.									

4. taula ikusita hauxe izango litzateke ostadarra adierazteko hitzen azterketa:

a. Erlijio edo mitologi jatorria

Erromako zuba. Aldaerak honako hauek: *erramuko zubi* (G-Zestoa: EHHA); *erremako edo erremago zubi* (N-Aniz: EHHA); *erromago zubi* (G-Beasain: EHHA); *erromako zubi* (Azkue, 1935-1947/1989: 166); *erromako zupi* (G-Zegama: DVEF).

Jaungoikoaren baranda (*jangoikuem baranda*, N-Dorrao: EHHA).

Jaungoikoaren faxa. Aldaerak honako hauek: *Jainkuam paxa* (N-Etxaleku: EHHA); *Jainkoaren paxe* (Azkue, 1935-1947/1989: 165); *yinko paxa* (N-Zilbeti: EHHA).

Jaungoikoaren gerrikoa. Aldaerak honako hauek: *Jainkoan gerriko* (N-Oderiz: EHHA); *Jainkoaren gerriko* (DVEF); *Jaungoikoaren gerriko* (N-Etxarri-Aranatz: DVEF); *Jangoikuan gerrikua* (N-Urdiain: EHHA).

Jaungoikoaren zuba. Aldaerak honako hauek: (*Jainkoan zubi*, N-Etxarri: EHHA); *Jaungoikoaren zubi* (Azkue, 1935-1947/1989: 165).

Ortzadar (oso zabaldua ekialdeko hizkeretan: EHHA). *Ostadarri* buruz hauxe dakar OEhk:

ostadar . (AN-gip, L, S), ustadar (G-bet; uzt- AN-gip, hus- Lecl , H (S)), ostagar, ostabar (AN-gip). Ref.: A (**ostadar**, uztadar); Bähr ArcGp (ostabar, **ostadar**, ustadar, uztadar); Lrq. Arco iris. "En la zona de habla navarra [de Guipúzcoa] se emplea **ostadar** " Bähr ArcGp 401. "**Ostadar**, arco del cielo (S)" A EY I 165. "Se conoce en Eibar por la literatura, no por el uso común. Ostadarran zazpi koloriak" Etxba Eib. Cf. Vill Jaink 22: "Ortzadar / **ostadar**, ozkarbi, ortzegun". (OEH)

Ortziri + arka. Gorago aipatutako Bähr ikerlariaren arabera, osagai hauek egon litezke honako hauetan: *ostarrika; ostilika; ostilleka; ostrailika; ostraillaka; ostralika; ostreilaka; ostreillaka; ostrilika; ostrillaka; oztralika* eta *oztreillaka* (Bähr, 1931).

Ortzi+arku. Aldaerak honako hauek: *ostarku* (G-Elgea, Urrexola, Oñati, Araoz, Aginaga, Alzola: Bähr, 1931); (B-Markina-Etxebarri: *EHHA*); *ostraku* (B-Mundaka: *DVEF*); *ostruku* (B-Zeanuri: *EHHA*); *oztriku* (B-Elorrio: *DVEF*). Ziurrenik, honako hauek ere bai: *sustruku* (B-Arratia, Txorierri: *DVEF*); (B-Urbe-Etxebarri: *EHHA*); *sustrupu* (B-Larrabetzu: *EHHA*); *ustarku* (bizkaiera: *DVEF*); *ustruku* (B-Arratia, Galdakao, Orozko, Txorierri: Azkue, 1989: I 166); (B-Dima: *EHHA*).

San Migelen zubi (bizkaiera: Azkue, 1935-1947/1989: I 165); (B-Otxandio: *EHHA*).

San Nikolasen zubi (bizkaiera: Azkue, 1935-1947/1989: I 165).

Zeruko zubi (B-Orozko: *EHHA*).

b. Metaforak

Irudimenaren zentzumen-eraikuntza. Adiera-antzekotasuna. Animalia jatorrikoak: *oilohanka* (*ollanka*, B-Bermeo: *EHHA*).

c. Metonimiak

Arku. Aldaerak honako hauek: *arko* (B-Kortezubi: *EHHA*); *arku* (B-Bakio: *EHHA*). *Bost arku* (B-Gizaburuaga / A-Aramaio: *EHHA*). Lapurdiko Uztaritzen ere *bortxadar* erabiltzen da (*EHHA*). Baliteke *bortz* eta *ortz(i)* eleen arteko nahasketa izatea. Horrezaz gain bost zenbakia ere erabiltzen da, adibidez, Hartz Nagusia izendatzeko: *bost izar* (*bost ixer*: *EHHA*). Bestalde, Orion edo Pleiadeak Bizkaiko Gernikan *bostorratz* esaten da (*DVEF*); Gipuzkoako Zestean *bostollo* Orion da (*EHHA*).

Arranbel (Duvoisin *apud OEH*). Hauxe da *arranbel*: “Uztaia, arkua. *Arranbela* tenkaturik. *Arranbel eta geziak*” (*EH*).

Ihintz+arka? Aldareak honako hauek: *intzirka* (Barandiaran, 1972); *inzurki?* (Darricarrere *apud OEH*); *antzirka* (G-Zestoa: *EHHA*).

Itsasoadar (*itxasoadar*, N-Bera: Barandiaran, 1983b). Hau da, “itsasoan sortzen den adarra”. Berako hiztunen adimen-begia ostadarrak itsaso aldean sortzen direlakoan bide daude.

Uztai + (adar). Kasu honetan baliteke *ortzi* eta *uztai* hitzen arteko nolabaiteko gurutzaketa gertatu izana: agian, adimen-begiak analogiaz ere funtzionatzen duenez, batetik bestera lerratu zitekeen, *ortzi* (*osti*) eta *uztai* berben antzekotasun fonetikoa kontuan harturik.

Dena dela, aldaerak honako hauek dira: *uztai* (gipuzkera: *DVEF*); *uztadar* (G-Irun, Hondarribia: *DVEF*).

Uztai + argi. Aldaerak honako hauek: *uztargi* (gipuzkera / goi-nafarrera: *DVEF*); (G-Oiartzun: 2008); *ustargi* (G-Oiartzun: *DVEF*).

Uztai + arku. Aldaerak honako hauek: *ustarku* (bizkaiera: *DVEF*); *usterku* (G-Oñati-Zubillaga: Bähr, 1931); *uztarku* (bizkaiera: *DVEF*); *uzterku* (G-Arrasate: *DVEF*).

Uztarri (N-Lesaka: *DVEF*). Aldaera hau: *buztarri* (G-Arrasate: *EHHA*) Zuzenean adimen-begiak ostadarra uztarri gisa ikusten du.

Zubiadar (N-Uztarroze: *DVEF*). Aldaera hau: *zibiadar* (N-Erronkari: Estornes, 1997). Adimen-begiak *adar* elea berriz ere erabiltzen du.

Horietaz gain, Euskal Herriko hizkeretan badira maileguak ere. Besteak beste:

Arkanziel (BN-Bastida: *EHHA*).

Arkoidis (G-Deba: *EHHA*).

Arkoiris (B-Sondika: *EHHA*).

Arkoirix (B-Gatika: *EHHA*).

Bestelako hitzak:

Astiar (N-Ezkurra: *EHHA*). Agian *astigar* zuhaitz izenetik dator. Adimen-begiak ostadarra *astigar* baten moduan ikusiko luke.

Azeriaren bodak. Honako aldaera hauek: *axarien bodak* (N-Alkots: *EHHA*); *azerien boda*. Azken hau “arco iris doble” (G-Hondarribia: Bähr, 1931). Aurrerago azalduko denaren arabera, Euskal Herriko hizkera batzuetan elkarketa hau eguzkia eta euria aldi berean izaten direnerako baliatzen dute; adibidez, *azeri-etztei* (L-Itsasu: *EHHA*).

Frantziako zubi. Ondoko aldaerak: *Frantziako zubi* (B-Elorrio: *EHHA*); *Prantziako zubi* (B-Elorrio: Azkue, 1989: 165 I). Azkuek jasotakotik *EHHA*k dakarrenean *p-f* aldaketa gertatu bide da; *Frantziko zubi* (B-Fika: *EHHA*). Herri horretan Esne Bideari irizteko erabiltzen da (*EHHA*). Haizeei dagokienez, arrunt samarra da Frantzia herrialdea entzutea: *Frantzi-aize* (G-Oñati: Izagirre, 1959); *Frantzi-ipar* (G-Oñati: Izagirre, 1959); *Frantziaxe* (B-Sondika: *EHHA*). Zer dela-eta adimen-begiak sorrarazi du *Frantziako zubi* ostadarra izendatzeko? Beharbada, hiztunak Frantzia herrialdea urrun-urruntzat jotzen du.

Gerriko bizkaitar (*garriko bizkaitar*, B-Leioa: Gaminde, 2001); (B-Mendata: *EHHA*).

Irusustru (B-Zaratamo: *EHHA*). Berba horrek *ostruku* (B-Zeanuri: *EHHA*), *sustruku* (B-Urube-Etxebarri: *EHHA*), *ustruku* ((B-Dima: *EHHA*) eta *uztruku* (bizkaiera: Bähr, 1931) terminoekin dauka zerikusia, antza.

Ostilara (N-Etxarri-Aranatz: Maiz & Mundiñano, 1998). Horretaz gain, *ostrillera* aldaera ere bildu da (N-Etxarri-Aranatz: Maiz & Mundiñano, 1998). Lehenengo osagaiak

ortzirekin duela zerikusia sumatzen da. Bähr-ek bilduriko terminoetan dagoen gorabehera bera geratzen da Etxarri-Aranatzen jasotako aldaeretan, *osti / ostri*, alegia.

Bestalde, adimen-begia nolako munduaren ikuskeraz jabetu den atzemateko, erka ditzagun euskarazko berbak frantsesez erabiltzen direnekin.

arc aux sept couleurs, arc celeste arc de dieu arc de la pluie arc de saint-bernard (Guarek ar glao) arc de saint-del arc de saint-martin arc de saint-michel arc de soie (arc de sédo) arc d'iris arc du brocken arc du temps arc-en-ciel arc lumineux	ceinture d'iris ceinture du bon dieu cercle de saint martin cerne clerc de la pluie couronne de Saint-bernard couronne de Saint-denies couronne de Saint giracque, de Saint leonard courroie de saint leonard pont de Saint-bernard pont du Saint-esprit pont de soie queue de loup (lost ar bleiz)
5. taula. Ostadarra. Frantsesezko terminoak	

Jean Philippe Cassany ingeniari meteorologo frantsesak (1989: 39-44) jaso zituen, besteak beste, ostadarra izendatzeko Frantziako herrialdeetan erabiltzen diren terminoak. Frantsesez ez ezik, bretoieraz eta bertako *oc* eta *oil* hizkuntzetatik datozen hizkerak ere eman zituen argitara. Zerrendan itzulita agertzen dira beroriek, bretoieratik, hain zuzen ere. Irakurtze hutsarekin ohartzen gara, batzuek zerikusia daukatela euskarazko berbeekin. Zalantzarik gabe, erlijioak ere badauka eragin handirik: hitz-elkarketa askok santu baten izena daukate edota Jaungoikoa agertzen da.

Beraz, frantsesezko izenek eta euskarazkoek lotura edukitzeak gauza bat pentsaraztera garamatza: antzina-antzinatik harreman estu samarrak izan direla albo hizkuntzen hiztunen artean. Hizkuntzen arteko harremanak begi bistakoak izan dira, elkarri laga izan dizkiote hitzak, maileguak, berori lexikoa sortzeko bideetariko bat izanda; kontzeptu-mailegatze prozesuak ere gertatu izan dira. Hizkuntzaren berezko kulturak eraturiko kontzeptualizazioak elkarri igorri izan bide dizkiote. Adibidez: *ceinture du bon dieu / jainkoaren gerrikoa*. Badirudi erlijio kristaua beste era batera azaltzen saiatzen zela antzinatik errotuta zeuden izendapenak, eta horretarako euren ikuspegia ezartzen ahalegintzen zela. Behinolako erlijioa, antzinakoa ez zen erlijio kristauarentzat gogokoa izaten zela. Naturari oso lotuta zegoenez, kutsu jainkotiarragoa eman beharra zegoen. Hori dela-eta, jainko eta santuen inguruan beste iruditeria bat sortu zen. Katalanez ere antzeko terminoak dira ostadarra izendatzeko:

arc de Sant Martí. Forma popular de llamar al arcoíris, muy extendida en Cataluña. También se conoce como arco de Dios o del Señor, arco de San Juan o arco de la vieja, entre otras curiosas denominaciones. En los refranes meteorológicos hay numerosas referencias a ellas. (Viñas, 2019)

Horrelako fenomenoek zeruarekin zeukaten zerikusia, ez natura edo mitologiarekin. Ustez mitologian ardazturiko terminoak, ostera, ez ziren galdu, sustraitu samarturik zeuden herriarengan eta gaur egun ere bizirik daude. Adibidez, *ortzi* hitzaren inguruan eraturiko eraikuntza. Ondorioetan azalduko da luzeago, baina jasotako datuen arabera, *ortzi* eremu gehienetan agertzen da. Beste kontu bat da nondik ote datorren *ortzi* berba, ondarezkoa ala mailegua ote den.

Terminoetan ez ezik ostadarrari buruzko kontakizunetan ere aurkitzen dira antzekotasunak kulturen artean. Gorago aipatutakoaren arabera, baten bat azpitik pasatuz gero, sexua aldatzeko arrisku bizia dago. Cassanyk horren berri ematen du: “Une idée courante au XVI siècle émettait que la personne passant sous l’arc changeait de sexe” (1989: 42).

4.1.2. Ondorioak

Lehenengo eta behin, azpimarratu behar da izakien nozioa baino ez dagoela, eta haren barruan, Izendapenak kategoria. Datu guztien arabera, ia izendapen guztiak hitz-elkarketak dira: oso hitz gutxi dira ostadarrari irizteko, besteak beste, *arku*, *arranbel*, *uztarri* eta *astiar*. Batzuek, itxuraz, izenak dirudite baina funtsean hitz-elkarketa batetik datoz; adibidez, Bähr-ek jaso eta gaur egun galdutzat ematen direnak.

Terminoak sortzeko euskal hiztunaren kultur sinbolismoan lau ikuspegik egiten dute topo: jatorrizko berbak, erlijio kristauaren eraginez eratutakoak, Mendebaldeko hizkuntzetan erabiltzen direnak eta maileguak. Hori dela-eta, denboraren joanean ibilbide bat egin daiteke: jatorrizkoak => erlijiozkoak => Mendebaldekoak => maileguak. Beraz, bilakaera horrek adierazten du euskal hiztunaren ingurunearekiko egokitzapena: inguruneak bete-betean eragin dio lexikoaren sormenari.

Adimen-begiak *ortzi* eta *adar* izenen bidez sortzen zituen hitz-elkarketek ematen dute aditzera euskal hiztunak izan zuen mundu-ikuskerak: ortziaren adar bat da *ostadarra*, naturari estekaturiko guztizko berba; naturan oinarrituriko terminoak eratzen zituen euskarak. “Ideologia naturalista” islatzen da horrelakoetan. Hiztunen adimen-begiak fenomenoak ikusi, eta erkaketa sendo baten bitartez sortzen du hitz-elkarketa.

Berba gehienak hitz-elkarketak izanda, eta asko metaforak eta metonimiak direnez gero, nabarmentzekoa da ostadarraren gaineko lexiko etno-meteorologikoa ez dela arbitrarioa, hau da, motibatua dela: oso baliabide gramatikala da, eta ez batere lexikologikoa. Ikonotasuna gailentzen da.

4.2. Ekaitza

Ekaitzaren gainean zer ulertzen den azaltzea ez da erraza. Azterlan honetan Meteorologia Hiztegiak (*MetHizt*, 1988: 243) *trumoi-erasoa* sarrerak dakarrenaren arabera ulertuko da:

Bat-bateko deskarga elektriko bat edo gehiago, argi-pirrinta (oinaztu) eran eta soinu supituko edo burrunbatsu (trumoi) gisa nabaritzen dena (Oharra: euskaraz erabiltzen dira bestelako hitz batzuk ere “tormenta” edo “tormentoso” esateko: “trumoiko euria”, “odeikua” (“oreikua”), “odei jasa”,... Baina “hodei” adiera honetan erabiltzeak nahaste dezake “nube” ere esan nahi duelako. (*MetHizt*, 1988: 243)

Ekaitz berbari buruzko sarreran honako hau dakar hiztegi berak: “Atmosferako asaldura bortitza, haize, txingor, elur eta abarren eraso gogorrek dakartzana. Adib. harea-ekaitza, hauts-ekaitza, ekaitz ionosferikoa”. (*MetHizt*, 1988: 87) Eta ondoko hau ere bai: “Haize-abiaduraren Beaufort eskalako 10 indarra: 44-50 korapilo bitarteko abiadura duen haizea” (*MetHizt*, 1988: 87). Kasu horretan haizearen abiadurarekin loturiko ostagia izendatzeko *erauntsia* erabiliko da. Beraz, hiztun batzuen ustez *ekaitz* / *erauntsi* bikotea baliokidetzat har badaiteke ere, tesi honetan bereizi egingo dira. Euskalterm Terminologia bankuan¹¹ definizio bera agertzen da, baina hitz sorta honi dagokiona: “eu trumoi-ekaitz trumonada es tormenta fr orage en thunderstorm”. Hala eta guztiz ere, azken urteotan ematen du euskara batuan *ekaitz* berbaren esanahia lerratu dela Meteorologia Hiztegiak (*MetHizt*) *trumoi-erasoa* sarreran agertzen den definiziora, hots, “tximistak, trumoiak eta oinaztuak bere baitan bildu ohi dituen *ostagia*”. Definizio gehiagorik ematekotan, hauxe da aipatzekoa: “Eguratsaren nahasmendu handia, haize gogorra eta, gehienetan, euria edo elurra eta trumoi-tximistak ekarri ohi dituen” (*EH*).

Argi-argia ez den fenomeno hori dela-eta, Euskaltzaindiak egindako inkestetan (*EHHA*), izan zitekeen guztiz garbi ez egotea zer galdetzen zitzaien lekukoei, eta horiek ere aiko-maiko ibiltzea erantzuterakoan¹². Hortaz, arazoak arazo, hemen kontu honi nola edo hala argia ematen saiatuko da.

Horretaz gain, mitologia hizpide, indoeuropar mitologiaren arabera, ekaitzak beren jainkoek sorrarazten dituzte zero guztiz egituratuan. Sarritan oinaztarria, tximista zeruko jainkoaren armatzat jotzen dute, eta tximistak jaurtiz zigortzen ditu Zeruko Jainko Nagusiak txarto edo era desegokian jokatu dutelako. Beraz, ekaitzak indoeuroparren irudiko elementu zigortzaileak izateaz gain, zeruan —jainkoen egoitza nagusia— eratzen dira. Aitzitik, euskaldunen adimen-begiaren arabera, ekaitzak zeharo desberdin ikusten dira bai egileari, bai

¹¹ <http://www.euskadi.eus/euskalterm/>

¹² https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_ehha&view=frontpage&Itemid=466&lang=eu&testua=&gaia=Eguraldia&mapa=245&lekua=

sorlekuari dagokienez: ekaitzak lurretik bertatik ateratzen dira eta Marik, euskaldunen jainko nagusia, sorrarazi eta jaurtitzen ditu. Barandiaranek Euskal Herrian zehar hainbat kontakizunetan bildu zituen horrelako frogak. Mariren bizilekua lurpea da, haitzuloak, kobazuloak, leizeak eta osinak. Tximistak eta trumoiak ekaitzaren ondorioak badira ere, inork ere ez bide ditu inoren kontra zuzentzen. Indoeuoparren kasuan, ostera, bai. Thor mailua, eskuan duela, gogorarazi baino ez da egin behar. Marik inori zigorrik ematekotan ez du kiskaliko tximistarik jaurtiz, ez. Zigortzekotan haren ondasunaren gainean txingorra edota harria botako du. Barandiaranek bildutako herri-kontakizunen arabera, horixe dauka herriak lehenik gogoan. Euskal adimenean beste ekaitz-sortarazle batzuk ere badaude. Izan ere, Mariri, senarra –Sugaar...- bisitan etortzen zaion bakoitzean, biak elkarrekin egotearen ondorioz, itzelezko ekaitzak sorrarazten dira eta dauden haitzuloetatik kanpora ateratzen omen dira. Bestalde, Mari ortzian zehar batetik bestera joaten denean, bizilekuz aldatze hutsak eragiten omen ditu ekaitz izugarriak. Beraz, zerua euskaldunentzat ez da jainkoen bizitokia, pasabide hutsa. Mari lurpeko izakia da. Zerua indoeuoparrentzat, aldiz, sakratu-sakratua da, euren jainkoen egoitza.

...Barandiaranek ohi duen xehetasun eta zehaztasunez, ekaitz odei eta ekaitz haize nahasien jatorria: Lurpeko mundua, Mariren egoitza. Oineztarria eta ozkarra ekaitzaren ondorio zuzena dira eta nolabait bere kasa eta inoren gidaritzapean egon gabe gertatzen dira ekaitzaren baitan. Marik sorrerazi, jaurti eta zenbaitetan gidatu egiten ditu ekaitzak, baina ekaitz osoa, odei multzoa da orduan gidatzen duena harria han edo hemen bota arte; ez da sekula arduratzen ordea, oineztarria honi edo hari jaurtitzen. Ekaitzen sortzailea izanik, inori zigorren bat ematekotan ere, harria haren ondasunean gainean botako du, baina ez dugu ikusiko laidotu duen bat oineztarritz kiskaltzen Indra edo Jupiter-en antzera. Esan bezala, harria eta kazkabarra da herri gogoan dagoena lehenengo, ekaitzaz oroitzera, baina halere euskal jainkosa nagusiak badu oineztarri eta ozkarrarekiko beste lotura zuzen berezia. (Hartsuaga, 1987: 40)

Hori dela-eta, ez dago batere garbi *ortzi* hitza agertzea euskaldunen egurats-lexikoan. Corpusean bilduriko hitzen arabera, jainkoen aztarnarik ere ez dago; ugariak dira, berriz, naturari loturiko terminoak.

Bestalde, aipatu bezala, gaur egun *ekaitz* hitza erabili edo entzuten denean tximista, trumoi eta horrelakoekin lotzen da. Arakatu ditugun testu eta Euskararen Herri Hizkeren Atlasean (*EHHA*) gauzak ez daude hain argi. Hiztun batzuen ustez, bai, badira trumoiak eta tximistak, eta beste batzuen ustez, ekaitza, euria gogotik ari duenean eta haize zakar baino zakarragoa denean izaten da. Horren kariaz, ekaitzaren itzulpena zail samar gertatzen da. Askok *tormenta*, *orage* eta beste askok *tempestad*, *tempête* eman ohi dituzte. *Tximista-trumoi*a bikoteari dagokion adiera baino ez da sartu eremu honetan. Bestalde, “euria-haizea” esanahia dela-eta, ur-meteoro eta haizeen eremuan sailkatu ditugu aurkituriko hitzak: guztira 494 nozio espezifiko dira, aldaera eta guzti. Hala eta guztiz ere, kasu batzuetan zalantza sortu da berba bat sailkatzerakoan. Horrelakoetan ohar baten bidez emango da azalpena.

- Ekaitza izendatzeko izenak
- Ekaitzari loturiko jarduerak
- Ekaitz-garaia
- Ekaitzaren sortarazlea
- Trumoia / Tximista / Tximistargia
- Trumoia izendatzeko izenak
- Trumoiari lotutako jarduerak
 - Trumoiaren hotsa
 - Trumoi-garaia
 - Trumoi lehorra
 - Tximista
 - Tximistargia
 - Tximistargiari lotutako jarduerak

Era berean, hiztun askok ez dituzte *trumoia*, *tximista* eta *tximistargia* ostagiak bereizten. Horren ondorioz, sarritan hitz bera erabiltzen dute fenomeno desberdinak izendatzeko. Hori dela-eta, izendapen hauek (*MetHizt*, 1988) erabiliko dira:

Tximista: “Hodeitik lurrerako deskarga”.

Trumoia: “Oinaztuari jarraitzen dion durunda edo burrunba gisako hotsa”.

Tximistargia (oinaztua): “Bat-bateko deskarga elektrikoarekin batera azaltzen den argitasuna. Deskarga hori, hodei barnean izaten da edo hodei batetik abiatzen da gehienetan, baina, batzuetan, lurreko eraikin altu nahiz mendietatik ere sar daiteke”.

Meteorologiaren hiztegian *oinaztu* hitza azaltzen da, baina argiago eta gardenagoa da *tximistargiaz* baliatzea. Izan ere, *oinaztu* “*Bizk*. Tximista. Beldurraren beldurrez, oinaztua legez etxeratu ziren denak” (*EH*).

Bestalde, Wilkinsen (1976) nozio orokorrak aplikaturik, beraien arabera, honako sailkapen hau egingo da:

1. Izakiak. Ekaitzaren izendapenak. Trumoi, tximista eta tximistargiaren izendapenak.
2. Kantitatea. Ez da.
3. Kalitatea. Trumoi lehorra.
4. Jarduera. Ekaitzari loturiko jarduerak. Trumoi eta oinaztuari loturiko jarduerak.
5. Denbora. Bi dira corpusean azaldu diren kontzeptuak: ekaitz- eta trumoi-garaia.
6. Espazioa: ez da.

Taula batean ipinita honela geratuko da sailkapen etnosemantikoa:

1. Izakiak	2. Kantitatea	3. Kalitatea
Ekaitzaren izendapenak Ekaitzaren sorrarazlea Trumoiaren izendapenak Trumoiaren hotsa Tximistaren izendapenak Tximistargiaren izendapenak	Ez da	Trumoi lehorra: trumoi sikua
4. Jarduera	5. Denbora	6. Espazioa
Ekaitzari loturiko jarduerak Trumoiari loturiko jarduerak Tximistargiari loturiko jarduerak	Ekaitz-garaia: ekaizte Trumoi-garaia: trumoi-denbora	Ez da
6. taula. Ekaitza: Sailkapen etnosemantikoa		

4.2.1. Izakiak

Izakien nozioa sailkatu eta aztertzeko sei taula erabili dira: Lehenengoa orokorra da eta bertan ekaitzaren izendapenak, ekaitzaren sorrarazlea, trumoiaren izendapenak eta hotsa, tximistaren izendapenak eta oinaztuaren izendapenak azaltzen dira. Bigarren taula, ekaitzaren izendapenen barruan, *ortzi* osagaia duten berbei buruzkoa da. Hirugarrena, trumoiaren izendapenen barruan, *ortzi* osagaia duten berben ingurukoa da. Laugarrena, tximistaren izendapenak direla-eta, *oinatz* osagaia duten hitzen gainekoa da. Bosgarren taula, tximistaren izendapenen barruan, *ortzi* osagaia duten berben gainekoa da. Azkenik, seigarrena, oinaztuaren izendapenei dagokienez, *oinatz* osagaia duten hitzen ingurukoa da.

Ekaitzaren izendapenak			Ekaitzaren sortarazlea		Trumoiaren izendapenak		
Adar aire Aire gaizto (aidegaixto) Azari Borraska Ekaitz Elementak Enbat Eramaitza	Erauntsi Eraso (gaixto) Galerna Hodei Hodei + Karraska Orage	Ortzi (ikus 8. taula) Tenpesta Tenporal Tormenta Trumoi + Trumonada Tulubio	Mari		Burrunba Durunda Hodei Hodeien zarata Hodei hots Ilungi (- zaparta) (Bero- Inaztu)	Itsas orro Karraska Ortzi osagaia (ikus 9. taula) Trumoi (ezagata) Trumoi hots Trumonada	Bestelakoa k: iskao-une Jostai, jostoi Oneztu Oñazkar Ostroj, oztroi Ozkar, ozkarri
Trumoiaren hotsa		Tximistaren izendapenak		Tximistargiaren izendapenak			
Burrunba hots Burrunbun Dart Dunba hots Hodei aztapar Hodei garraska Hodei hots	Hodei marraka Karraska Marraka Orro Oskar Trumoi hots	Aire gaitz, gaizto Aniskar Arraio, arrallu Ausnarri Durunda Erraizo Haize txar Harri iraztu Inazi, inaztura, inezetu	Irastarri, irastu Ixta Oinatz saila (ikus 11. taula) Ortzi saila (ikus 12. taula) Ozme(a) (harri) Uhulgu Xasta Xinka Zimizta (eta beste	Aiduin eztulka Bristada En + ortzi + euri? Inazi, inaztura, inezetu Inazi + harri Irestu	Jainkoaren argi Oinatz saila (ikus. 13. taula) Zimizta + (argi) Zirimiri + zimizt(a)		
7. taula. Ekaitza: Izakiak							

7. taula orokor honetan gorago aipatutako kontzeptuak azaltzen dira. Adierazi bezala, ez dago erabateko ziurtasunik nozio espezifikoko horiek guztiek benetako ekaitza adierazten ote duten. Baliteke batzuek haizearen indar bortitza adieraztea, eta ez, ordea, ekaitza. Hala eta guztiz ere, hemen egingo da dagokion azterketa. Gauzak horrela, ekaitzaren izendapenei dagokienez, berezko *ekaitz* berbaz gain, beste hainbat erabiltzen dira. Hitzen jatorriaren araberako sailkapena egingo da:

- Ondarezkoak (ustezkoak): *adar aire, aire gaizto, azari, ekaitz, eramaitza, erauntsi (gaixto), eraso, hodei, karraska* eta *ortzi*.
- Maileguak: *borraska, elementak, enbat, galerna, orage, tenpesta, tenporal tormenta, trumoi, trumonada* eta *tulubio*.

Ondarezkoei dagokienez, *ekaitz* hitzak (OEH) **egu*+*gaitz* elkarketatik datorrela ematen du: “Osaeraz **egu-gaitz* da: **eg-gaitz* > *ekaitz* (cf. goian *ekain*). Bnaf. *nekaitz*, erronk. *nekatx* ustezko aldaerak *negu*-rekin gurutzaturikoak izan litezke (FHV: 310); edo agian *neke*-rekin? Ik. *nekaitz*” (EHHE: 169).

Horrezaz gain, jasotako corpusean *adar aire* (*adarraire*, L-Bardoze: *EHHA*) elkarketak beste adiera bat ere badu: *erauntsia*. Ikusten denez, *adar airek* gorago deskribatu diren *trumoi-ekaitza* eta *ekaitza* berben eremua hartzen du. *Adar* soilik ere beste eremu batzuetan erabiltzen da, batik bat *euri-erauntsiari* loturikoetan.

Aire gaizto (*aidegaixto*, BN-Gamarte: *EHHA*) eleak “tximista” ez ezik, “ekaitza” ere esan nahi du. Aurrerago azalduko da haren konnotazio mitologikoa.

Azari (B-Durango: J. Garate *apud DRALV*) berbak “azeri” animaliarekin izan lezake zerikusia. Hala ere, irudi du gaur egun *aseri* terminoa erabiltzen dela (*EHHA*).

Borraska hitza mailegua da (N-Urdiain: *EHHA*). Adimen-begiak mailegu bat aukeratu du ekaitzari irizteko.

Elementak ele bitxia Zuberoako Pagola herrian bildutakoa da (*EHHA*). Horrekin batera *ortzi* eta *tenpestat* terminoak ere jasota daude ikerlan berean. Aurrerago azalduko denaren arabera (§4.5.2), euriaren eremuan, hiztunek *elementa(k)* gehienbat baliatzen dute “euri-erauntsia” esateko. Antza denez, mailegua da: “elementa, -orum, n. pl., *abecedario; elementos* [de las ciencias]. Elementa L., *chaparrones, aguaceros*” (Segura & Etxebarria, 1996: 146).

Enbat ere bada mailegua. Adiera ugariko berba da, baina batez ere “galerna” adierazteko erabiltzen da Euskal Herriko hainbat bazterretan. Haizeen eremuan (§4.3) luze eta zabal aztertuko da hitz honen nondik norakoa. Aldaera hau Lapurdiko Hendaia eta Gipuzkoako Aia eta Oiartzun herrietan erabiltzen da (*EHHA*).

Eramaitza berba “ekaitz handia” bide da (bizkaiera / gipuzkera: *DVEF*). *Eramaittu* berba, gaur egun, batez ere Gipuzkoako Oñatin baliatzen dute hiztunek euri handiei loturiko ostagietan (Izagirre, 1959).

Beste hitz batzuei dagokienez, besteak beste, (*H)odei* (B-Getxo, Uribe Kosta: UK, 2011), ekaitzaren edo trumoiaren pertsonifikazioa da. Barandiaranek (1983) hauxe jaso zuen:

Con el nombre de *Odei* es designado a veces el trueno; otras, el nubarrón de tormenta o simplemente el agente del trueno, el tonante. Cuando se oye tronar, se dice: *Odeiak* jo du “ha sonado el tonante”; cuando suena fuerte, *Odei* asarrea “tonante enojado”; cuando asoman nubes gruesas, *Odeia* dakar “viene el tonante o nube tormentosa”; *Odei* dago “está el tonante o ambiente tormentoso”. (Barandiaran, 1983: 149)

Ortziren antzera, (*H)odei* eremu ugaritan agertzen da. Bestalde, *Ortzi* ustezko osagaia denez gero, aparteko beste taula batean jartzen dira corpuseko berba guztiak. *Ortzi* berba dela-eta, ika-mika asko sortu izan dira. Berari buruzko lehenengo aipamena hauxe da:

En el año de 1880 publicó el padre Fita un estudio sobre el código latino del siglo XII, que se conserva en Santiago de Compostela, llamado código de Calixto II, en que ese halla el más antiguo vocabulario vasco hasta ahora conocido. Este código consta de cinco partes. De ellas, la última, titulada “Varia”, dividida en once capítulos, contiene, en el séptimo, una especie de guía itinerario que hizo el peregrino francés Aymeric Picaud. En medio de ésta y de una negra, pero curiosa, descripción de las costumbres de los vascos habitantes en los valles por los que pasó, está el vocabulario, que dice así:

Deum vocant *Urcia*, Dei genitricem *Andrea Maria*, panem *orgui*, vinum *ardum*, carnem *aragui*, piscem *araign*, domum *echea*, dominum domus *iaona*, dominam *andrea*, ecclesiam *elicera*, presbiterum *belatera*, quod interpretatur pulcra terra; triticum *gari*, aquam *uric*, regem *ereguia*, sanctum Jacobum *iaona domne Jacue*” (sic). (Caro Baroja, 1984: 17)

Urtzi deitzen zioten benetan antzinako euskaldunek Jaungoikoari? Halaxe uste dute ikertzaile batzuek, baina zalantzak ere badira; izan ere, baliteke ele horrekin Picauden berriemaileak “zerua” esan nahi izatea. Izan ere, nola adieraz ziezaieketen bidaiari hauek beren berriemaile euskaldunei zein hitz esatea nahi zuten? Euskaraz jakin ez, berriemaileak latinez ere ez, eta, nahitaez, keinuka edota objektuak seinalatuz moldatu beharko ziren. Beraz, irudika dezagun Picaud bere berriemaileari “Jaungoikoa” euskaraz nola deitzen zion esanarazi guran; agian, beste ahalegin batzuk eginik, atzamarraz zerua erakutsiko zion, eta berriemaileak “urtzi” esan zezakeen; “zerua”, jakina. Hona Mitxelenaren zalantza (1964):

No haremos más que apuntar de pasada el problema de *Urcia* “Dios”, nombre que no se documenta directamente fuera de este pasaje. Indirectamente, *or(t)z- / ost-* es frecuente en composición con un valor general de “cielo (tempestuoso)” e incluso hay algunas pruebas de la forma autónoma del nombre (véase arriba, 2.1.8). Algunos, empezando por Azkue, pretenden que nuestro peregrino se equivocó: para preguntar por Dios, señaló con la mano el cielo y obtuvo por error el nombre de éste en lugar del de aquél. Sin embargo, no hay otro indicio de un error semejante en la lista que recogió y no parece que esta pregunta fuera más difícil de contestar que otras para las cuales obtuvo respuesta satisfactoria, aparte de que no podemos suponer a todos sus interlocutores totalmente ignorantes del romance. Después de todo, tal vez sea esta una cuestión un tanto académica, porque “Dios” y “cielo” son conceptos que tienen estrecha relación entre sí. (Mitxelena, 1964: 51)

Bestalde, maileguak direla-eta, zaharrak eta berriak bide dira. Hemen ere izenen artean nolabaiteko nahasketa egon liteke. Batetik, *ekaitz* hutsa adierazten dutenak eta bestetik, “haize bortitza”. Hala eta guztiz ere, zerrenda honetan uztea erabaki da.

Ortzi	Ortzi + azantz	Ortzi + galerna, ximixtak	Ortzi + hots + (erauntsi)
Ortzi Ortze Ortزيدun Ortزيدtsu Orzi Osti Osti(a)	Ortzantz Or(t)zantz + aire Ortzantz(a) aire Ortzantz+erauntsi Ortzantz erauntsi Ortzantz + uhar	Ortzi galerna Ortzi tximixtak (ximixtak)	Ortots erauntsi Osots Ostots erauntsi
Ortzi + ikara	Ortzi + uhar	Ortzi + zaparra(da)	En(a)? +ortzi (urtzi) + euri (iri?), aldi
Ortzikara	Ortziugar	ostizaparra	Ihurtzuri Juzturaldi
8. taula. Izakiak: Ekaitzaren izendapenak, ortzi osagaia			

8. taulan badirudi *ortzi* hitza oso oparoa dela ekaitza adierazteko. Era honetara agertzen da: *ortzi*; *ortzi+azantz*; *ortzi+galerna* edo *ximixtak*; *ortzi+hots+erauntsi*; *ortzi+ikara*; *ortzi+uhar?*; *ortzi+zaparrada* eta?+*ortzi*+ *euri* edo *aldi*. Zer ote den *ortzi* berba argitzea korapilatsu samarra da; eremu frankotan agertzen da: “Zeru sabaia, izartegia. *Ortzi urdina*.”

Ortziko izarrak” (EH). Hodeiren kasuan bezalaxe, itxura denez, nolabaiteko pertsonifikazioa ere bada. Hala ere, tesiaren egileak badu horri buruzko artikulua bat (Dieguez, 2002). Berriki argitaraturiko EHHEn (2019) hauxe topatu da *ortzi* berbari buruz. Han ere zalantza dago termino horren inguruan:

Gorostiagak (1934) hitzaren amaierako *-i* bereizten du. Hastapeneko *or(t)z-* azaltzeko, berriz, **bortz-*etik abiatzea izan liteke aukera bat, herskari ahostuna *-o-* bokalaren aurrean galdu dela proposatuz (FHV 253, VII 96, 13. oh.); kasu horretan, eta **bor* ‘borobil’ erroa legokeela onarturik, *-tz* atzizkiarekin (cf *beltz*), *bortz*-en partizipio moduan (*b*)*orzi* genuke, igurzkiarekin (cf. *gatz* / *gazi*, *orraz* / *orrazi* etab.; FHV 289). Esanahiari dagokionez, ‘borobildua’ edo izan liteke; cf. irl. *spéir* ‘zeru’ < lat. *sphaera* (Vendryes s.v.).

Beste aukera bat da, arazo gehiagorekin, **hur-(t)z-i-* osaeratik abiatzea; lehen osagaia *hur* (isurkaria, ez fruitua) litzateke, eta, esanahiari dagokionez, ‘urez betea’ edo ‘uraren antzeko’ izan liteke. Paralelo moduan, cf. hebr. *shamayim* ‘zeru’, osaeraz agian *sha* ‘eman’ + *mayim* ‘ur’; garai bateko gizakiak, itsaso eta lakuetako kolore urdina zeruarenarekin berdindurik, zerua eta urez egin zela pentsatu ahal izan zuen (Sachs 2006). Beste hainbat hizkuntzatan ere zeruaren izenaren etimologia euriari, lainoei (‘hodei’ adieraz, ik. *ortzadar*) edo urari lotua ageri da. (EHHE)

Adierazleari dagokionez, irudi *ortzi* / *osti* bikotea dagoela, zein den euskalkia, hau da, *-rtz-* ekialdean eta *-st-* mendebaldean. Antzeko bikoteak hauexek dira: *bortz* / *bost*, *bertze* / *beste*.

Ortzantz elea dela-eta, hitz-elkarketa dago, *ortzi* + *azantz*, hots, *ortziren hotsa*. Aire berriz ere agertzen da *adarraire* berban bezala. Badirudi *aire* hitzak bere hedadura semantikoa ekaitzeraino ere iristen dela. Hitz askok higadura semantikoa izaten dutenez gero, beste berri batzuk sortzen dira, edo beste zenbaitetan lagun berri batzuk eransten zaizkie. Hori dela-eta, honako hauek eratu bide dira: *ortzi-galerna* (BN-Larزابale: EHHA) eta *ortzi-ximistak* (L-Mugerre, Urketa: EHHA); sail horretan *ortzik* beste bi abizen ere hartzen ditu, *erauntsi* eta *uhar*. Azken hau *ortziugar* elkarketan (BN-Isturitze: EHHA) ere azaltzen da. Trumoiak jotzen duenean, lurrak burrunba egin eta ikarutzen denez gero, adimen-begiak beste elkarketa bat eraiki du: *ortzikara* (L-Urketa: EHHA). Gainera, *ortziri* lagun bat ez ezik bi ere atxikitzen zaizkio: *ortots-erauntsi* (N-Eugi: EHHA) eta *ortotseauntsi* (N-Igoa: EHHA), hots, adimen-begiaren arabera, *ortzi+hots+erauntsi* edo *ihurtzuri* (BN-Arnegi: EHHA), hau da, **en+ortzi+euri* edo *justuraldi* (bizkaiera: Mokoroa, 1990), hau da, **en+ortzi+aldi*. Hasierako *en-* osagaia guztiz ustezkoa da. Izan ere, aurrerago aztertuko denez, berba ugarik hasieran *eh-*, *en-*, *ih-*, *in-*, *j-*... + *ortzi* osagaia daukate; beraz, ez da zentzugabea pentsatzea jatorrizko osagaia **en-* izan litekeela. Ekaitzek zaparrada galantak ere ekartzen dituztenez gero, *ostizaparra* (G-Azkoitia: EHHA) elkarketa ere azaltzen da. Badirudi jatorrizkoa *ortzi+zaparra* dela. Adimen-begiak *ortzi*-ren bitartez hainbat eremu hartzen ditu bere gain.

En(a)?+ortzi / (urtzi)+euri (iri?)				Ortzi
Bihurtzuri	Iaurtzurio	Ihurtzuri(o)	Ithortziri	Ordzi
Busturi	I(n)usturi	Ihurziri	Iurtzuri	Ortzi
Dusturi	Idurtzuri	Inusturi	Iurtzurio	Orzi
Ehurtziri	Ibortziri	Iñusteri	Iurzuri	Ozti
Ehurtzuri	Igor(t)ziri Ihurtziri	Iñusturi	Iusluri	
Ehurziri	Ihurtzuri	Iortziri	Iusturi	
Eurtzuri	Ihortziri	Iortzuri	Jutzul	
Eurziri	Ihortzorio	Irurtziri	Jutzuri	
Fusturi	Ihortzuri	Irurtzuri		
Iaurtzuri	Ihurtziri			
Ortzi + iri	Ortzi+mihi(n)+(harri)	Ortzi + azantz	Ortzi +hots + (-ari)	Ortzi + orro
Ortziri	Hozpin(a) Ozmin Ozminarri Ozpin	Hostazantz Ortzantz Ortzi-azantza Orzantz Otsantz Ozantza	Ortots Ostots Oztots	Ortzorru
9. taula. Izakiak: Trumoiaren izendapenak, <i>ortzi</i> osagaia				

9. taulan trumoiaren izendapenak direla-eta, sumatzen da *ortzi* osagai gisa berba guztietan egon litekeelako susmoa. Aurrekari gisa, Lacombe (1912) Bonaparteren izenean argitaraturiko artikulua dugu aitzindari:

Cet article, auquel nous avons simplement donné un titre et ajouté la signature du prince Louis-Lucien Bonaparte, occupe les pages 13-14 du ms. 171 (fonds celte et basque) de la Bibliothèque Nationale. (Cf. cette Revue, III, 267. — G. Lacombe 1912)

Bonapartek honako ele hauek jaso zituen, hitzez hitz eta hurrenez hurren. Herrien izenak gaztelaniaz eta frantsesez eman zituen, baina euskaraz idatzi dira:

Herria	Hitza
Hernani	<i>turmoi</i>
Zegama	<i>odoi</i>
Telleriarte	<i>odei, iñusturi</i>
Markina	<i>trumonada, trumonots</i>
Gernika	<i>odoi</i>
Arrigorriaga	<i>ode</i>
Otxandio	<i>trumoi</i>
Bergara	<i>trumboi</i>
Leintz-Gatzaga	<i>trumoi</i>
Sara	<i>ihautzuri, ihaurzuri, ihurtzuri</i>
Donibane Lohizune	<i>iyurtzuri, irurtzuri</i>
Biriatu	<i>irurtzurio</i>
Arrangoitze	<i>ihortzoriorio, ihautziri</i>
Arbona	<i>ihortzuri</i>
Atharratze	<i>ühülgü, ihurziri, irurziri</i>
Barkoxe	<i>düründa</i>
Bidakonze	<i>odei</i>
Uztarroze	<i>odoi</i>
Bera	<i>trumoi</i>
Eguesibar	<i>ortots</i>
Urraul	<i>osots</i>
Hargoiti	<i>otsozka</i>
Gares	<i>otsos</i>
Luzaide	<i>ihortziri</i>
Uztaritze	<i>ortzi, ehurtzuri</i>
Cambo	<i>ihortziri, ihurtziri</i>
Luhosoa	<i>ihautziri</i>
Aribe	<i>otsots</i>
Garazi	<i>orzantz</i>
Suhescun	<i>ozantz</i>
Domezain	<i>dülünda</i>
Bardos	<i>ihortziri</i>
Arberoue	<i>ortzi</i>
Hélette	<i>ihautziri</i>
Briscos	<i>ortzi, orzi, ihortziri</i>
Lahonce, Mouguerre, Saint-Pierre-d'Irube	<i>ihurzuri.</i>
Jaurrieta	<i>odoi.</i>
Ochagavía	<i>odei.</i>

10. taula. Bonaparte: trumoia

Bonapartek ohar hauek egiten ditu:

“Je trouve dans Larramendi, mias je n’ai pas rencontré: *kalerna, eurziri, igorziri, iurtziri, iusturi, odots, osti, ostots*. Je ne doute pas de leur existence, à l’exception de *kalerna* pour “*tonnerre*” (Lacombe / Bonaparte, 1912).

“Je trouve dans un manuscrit, mais je n’ai pas rencontré: *turboi* (commun), *odots* (guip.), *ostots* (id.), et je ne doute pas non plus de leur existence” (Lacombe / Bonaparte, 1912).

Bonapartek egindako ikerketa dela-eta, zenbait gogoeta egin behar da:

a) Aipatzen duen zenbait herritako jatorrizko euskara gaur galdu egin da: Bidankoze, Uztarroze, Urraul, Hargoiti (ezin jakin liteke zer herri den), Gares, Eguesibar, Eaurta eta Otsagi.

b) Herri batzuetan bizpahiru aldaera bizi ziren elkarrekin; adibidez, Telleriarten *odei* eta *iñusturi*; Atharratzen, *ühülgü*, *ihurziri* eta *irurziri*; Uztaritzen, *ortzi* eta *ehurtzuri*; Beskoitzen: *ortzi*, *orzi* eta *ihortziri*.

c) Azken bi herriotan –Uztaritze eta Beskoitze–, *ortzi* / *ehurtzuri* eta *or(t)zi* / *ihortziri* aldaerak egoteak pentsatzera narama *eh-* eta *ih-* osagaiek beste jatorri bat izan lezaketela.

d) Euskararen Herri Hizkeren Atlasean (EHHA) agertzen diren aldaerekin erkaturik¹³, berehala ohartzen gara eleek bere hartan iraun dutela. Gauza bera ez da agertu ostadarrari loturiko nozio espezifikoeekin (§4.1).

Horretaz gain, honako sail hauek egingo dira:

a. *En(a)? + ortzi (urtzi) + euri (iri?)*: corpusean bildutako hitz guztien hasierako osagaia dela-eta, ez litzateke izango zentzugabea pentsatzea **en-* edo **ena-* izan litekeela. Hitzen jatorriaren nondik norakoa oso interesgarria izan liteke muinera heltzeko, kulturaren atal garrantzitsua da eta. Bestalde, hitz batzuetan, analogia dela-eta, badirudi beste berba batzuen antza dela-eta, bestelako elkarketak sortzen direla; adibidez, *ithortziri* (DRALV). Baliteke, *ithur(ri)* hitza tartean sartzea. Hitzen zerrenda hauxe da:

Bihurtzuri (BN-Gamarte: EHHA). Kasu honetan irudi du adimen-begiak *bihur-* *ihur-*ekin nahasi duela. Herri berean *ortzantz* ere erabiltzen da (EHHA).

Busturi (Lacombe / DRALV). Ez dago beste erreferentziarik, Bizkaiko Orozkon berba berak ‘tximistargia’ esan nahi du (EHHA).

Dusturi (bizkaiera: Lacombe *apud* DRALV). Bizkaiko mendebaldean *guzti-*ren ordez, *duzti* erabiltzen da.

Ehurtzuri (behe-nafarrera: Harriet *apud* OEH). Nafarroa Behereko Arruta herrian ‘tximista’ da (EHHA). *Ihurtziri* ere erabiltzen da. Beraz, badirudi *eh-* > *-ih* bilakatzen dela.

Ehurtzuri (Harriet *apud* OEH).

Ehurziri (DRALV).

Eurtzuri (Harriet *apud* OEH).

Eurziri (Harriet *apud* OEH).

Fusturi (G-Oñati: Fseg, DVEF / OEH). Oñati aldean, adibidez, *fan* erabiltzen da *joan* adierazteko.

Iaurtzuri (L-Sara: EHHA). Zenbaitetan *karraska* izenarekin ere erabiltzen da: *iaurtzuri karraska*.

Iaurtzurio (L-Arrangoitze: EHHA).

¹³https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_ehha&view=frontpage&Itemid=466&lang=eu&testua=&gaia=Eguraldia&mapa=242&lekua=

I(n)usturi (Refranes y Sentencias *apud* OEH).

Idurtzuri (L-Hendaia: EHHA).

Ibortziri (Etcheberry *apud* DRALV). “Tximista” ere bada (Lhande, 1926).

Igor(t)ziri (Leizarraga *apud* DRALV).

Ihortziri (L-Bardoze: EHHA). “Tximista” ere bada (Lhande, 1926).

Ihurtziri (Harriet *apud* OEH).

Ihurtzuri(o) (Joannateguy *apud* DRALV).

Ihurziri (DRALV).

Inusturi (Labayru Hiztegia).

Iñusteri (Barandiaran *apud* OEH).

Iñusturi (Lardizabal *apud* DRALV).

Iortziri (Barandiaran *apud* OEH).

Iortzuri (L-Hazparne: EHHA).

Irurtziri (Harriet *apud* OEH). “Tximista” ere bada (Azkue, DVEF).

Irurtzuri (Larreguy *apud* DRALV).

Ithortziri (DRALV).

Iurtzuri (Lhande, 1926).

Iurtzurio (L-Ahetze: EHHA).

Iurzuri (N-Luzaide: EHHA). Han *orzantz* ere erabiltzen da.

Jusluri (Lhande, 1926). “Tximista” ere bada (Lhande, 1926).

Justuri (G-Oñati: Izagirre, 1959). Getxon “tximista” da.

Juztul (DVEF).

Juzturi (B-Araba, Mundaka, Otxandio: DVEF). “Tximista” ere bada (B-Leioa: Gaminde, 2001b).

b. *Ortzi* + *iri*: *ortziri* (Duvoisin *apud* OEH). Hauxe dio Duvoisinek: “Erran nai baita, *ortziri* edo *ihurtzuri* semeak”. Kasu honetan argi samarrago ikusten da bigarren osagaia *-iri* izan litekeela. Hori dela-eta, jarri da zalantza lehengo sailean, *-iri* eta *-uri* agertzen direnez gero, *-euri* edo *-iri* izan litekeela. *-iri* izan baledi, “ortziren ingurukoa” edo adierazi nahi luke.

c. *Ortzi* + *mihi(n)* +(harri): *hozpin(a)* (DRALV); *ozmin* (Goi Nafarrera: DVEF); *ozminarri* (N-Arakil: DVEF); *ozpin* (Joannateguy / DRALV). Sail horren azpian dauden hitzak direla-eta, batetik, *ortziaren mihia* dago eta bestetik, *ortziaren mihi-harria*. Caro Barojak (1984) honako hau azaltzen du:

Los nombres del rayo “ozme”, “oneztarri”, “tximistarri”, tienen su origen en mitos como el del martillo de Thor (“Mjölfnir”), o de Júpiter Tonante. Compárense con las expresiones “Donnerkeile” de los alemanes o “lapides” y “malleos joviales” que empleó Saxo Gramático. El rayo según las ideas del pueblo

vasco- es un hacha neolítica o un cuchillo o punta paleolítica que cae en tierra introduciéndose siete estados. Luego, cada año sube un estado hasta llegar a la superficie. El que posea una piedra de rayo sabe que con ella puede proteger su casa en caso de tempestad. (Caro Baroja, 1984: 26, 27)

Beraz, behin eta berriro sumatzen da euskal kultura ez dela bakarturik egon: kultura artekotasuna begi-bistakoa da. Tximistari dagozkion izenak badira ere, gogora dezagun hiztun askok “tximista” eta “trumoi” fenomenoak nahasten dituztela, osagaiak antzekoak baitira: *ortzi*, *mihi(n)* eta *harri*. Bestalde, euskaldunon *Ortzik* greko eta erromatarren mitologian baditu aurrekariak. Hala, Grezian *Zeus* gurtzen zuten, gizaki eta jainkoen buruzagia, Olinpoan nagusia izateaz gain, euria eragin, tximista eta tximistargiak jaurti eta ekaitzak zuzentzen zituen. Erromatarrek Jupiterrekin identifikatu zuten, zeruaren, egun-argiaren, eguraldiaren, tximistaren eta trumoiaren jauna. Bestalde, zeltek Taranis gurtzen zuten, tximista eta trumoiaren jainko eta gerrarien babeslea, eta herri germaniarrek Wotan zeukaten, hodei eta lainoen gainetik zaldiz joaten zen jainkoa.

Hortaz, antzinako garai hartan ekaitzaren inguruko gertakariak direla-eta, irudi du bazela herri guztien arteko iruditeria edo “ideologia” komuna. Ziur asko, elkarri eragingo zioten eta herri eta hizkuntza bakoitzak bere erara moldatuko zituen kontzeptuak. Hala eta guztiz ere, *ortziren* eragina lexikoan nabaria den arren, ez da egundo agertzen kontakizun mitologikoetan:

Aurreko mendearen bukaeran eta honen hasieran bilduak izan arren, euskal kontakizun mitikoek ez dute Aymeric Picaud-en “Urtzi”ren inongo aztarnarik erakusten, eta areago, erromes frantsesaren adierazpen hori gezurrestera daramaten egitura mitologikoak plazaratzen ditu. (Hartsuaga, 1987: 36)

Bestalde, *ostegun*, *ostiral* eta *eguen* astegunak ez dira ahaztekoak; izan ere, beste hizkuntza askoren izendapenen antz handi samarra dute; adibidez, *Jueves* (Jovis dies), *Thursday* (Thor’s day), *Donnerstag* (Donner’s tag)... hortaz, orduko euskara ba bide zegoen txertaturik beraren inguruan nagusi zen terminologian.

Hurrengo hirurek hotsari uztartutako osagaiak dituzte:

d. *Ortzi* + *hots*: Aurrekoaren antzekoa. Hemen ere soinuari loturiko hitza agertzen da, *hots*. Ondoko aldaerak aurkitu dira: *ortots*, besteak beste, Nafarroako Baztan haranean jasoa (N-Baztan: Izeta, 1996); *ostots*, besteak beste, Nafarroako Arbizu eta Ezkurra herrietan (EHHA); *oztots*, besteak beste, Nafarroako Areso eta Etxarri-Aranatz herrietan (EHHA).

e. *Ortzi* + *orro*: Elkarketa honetan ere *Ortzik* egiten duen orroa uler liteke. Hauxe da aldaera: *ortzorru* (DRALV).

Oinatz + argi	Oinatz + dura	Oinatz + gai	Oinatz + gar	Oinatz + harri	Oinatz + justuri
Oñestargi	Oinaztura Oñazdura Oñestura Oñoztura Oizaztura Oñaztura Oñoztore Oñozture	Oñazkai	Oñazkar Onaskar Oñazkar Oñaztar	Oñastarri Oneztarri Oñastarri Oñaztarri Oinestarri Oñeztarri Oñaztarri Oñestari Oñeztarri	Oñusturi Oñesturi
11. taula. Izakiak. Tximistaren izendapenak: oinatz osagaia					

11. taulan tximista izendatzeko *oinatz* oinarri gisa berben zerrendapena egiten da. *Oinatz* berba hau da: “oinak lurrean uzten duen aztarna edo seinalea” eta “aztarna, seinalea, marka” (*EH*), baina “tximistargia” ere esan nahi du zenbait hizkeratan:

1. (H). Brillar, resplandecer. Zuziz oñhaztua baita itsusien partea . EZ Man I 133. [Iguzkiak] klaroki oñhazturen du munduaren gañean . Ib. 78. 2. (oñ- H (V, G); oñh- H (L)), oñeztu (Añ, H). (Vb.). "Relampaguear" Añ . "Éclairer, faire des éclairs" H. (*OEH*)

Corpusean jasotako datuen arabera, zazpi multzotan sailkatuko da. Hitz-elkarketen arabera, zentzuzkoa da pentsatzea *oinatz* berbak ere herri indoeuoparren beste jainkoren batekin zerikusia izatea. Batez ere, harridun elkarketak: “Indoeuopar irudirakuntzak Zeruan eratukotzat jotzen du, eta *oinaztarria* da eskuarki jainkoen erregearen arma, eta; beraz, Zerua duen armarik deuseztatzaileena bere gailentasunari eusteko” (Hartsuaga, 1987: 39). Bestalde, Mitxelenak zailtasunak sumatzen zituen hitza aztertzeko: “Se trata sin duda de un compuesto ya difícil de analizar (con oin ‘pie’?), en el cual *-n* debería quedar en final del primer miembro” (*FHV*: 307). *Oinatz* elearen inguruko termino guztiak honako hauek dira:

a) *Oinatz + argi*: hau da, oinatzen argia. Nabaria da tximistaren argitasuna: *oñaztargi* (gipuzkera?: Azkue, *DVEF*).

b) *Oinatz + dura*: zer ote da *-dura*? Badauka loturarik *-dura* atzizkiarekin? Agian, bai: *oinaztura* (N-Abaurregaina, Urdiain: *EHHA*); (N-Aezkoa: Kamino, 1997); (Goi Nafarrera / gipuzkera: *DVEF*). Beste batzuk: *oñazdura* (BN-Baigorri: Bonaparte *apud DRALV*); *oñestura* (N-Etxarri-Aranatz: *DVEF*); *oñoztura* (N-Erronkari: *DVEF*); *oizaztura* (Herria *apud DRALV*); *oñaztura* (1935-1947/1989 II: 334); *oñoztore* (N-Berute: *EHHA*); *oñozture* (N-Etxarri: *EHHA*).

c) *Oinatz + gai*: kasu honetan argiago bide dago bigarren osagaia. “Oinatzen gaia” ikusten da ortzian: *oñazkai* (gipuzkera: *DVEF*).

d) *Oinatz + gar*: ziur asko adierazgarriena. “Zeruko garra” da *oinazkarra*. “Trumoa” zein “tximista” eta “tximistargia” adierazteko erabiltzen da: Aldaeren artean *oinaztar* hitza

dago: *oiñazkar* (G-Oñati: Izagirre, 1959); *oinaztar* (Agirre *apud DRALV*); *onaskar* (Elizondo / *DRALV*); *oñazkar* “trumoia”: “*tximist* eta *oñaztarrien* izenak badute zer ikusirik turmoiarenekin, beren len-zatai begiratzeko ba’diogu beintzat. ona emen izen oiek: *oñizitu... oñaztu... oñazkar, oñazta, ozpiñarri* (*ozmin = trumoia + arri*), *tximistarri*” (Barandiaran *apud OEH*); *oñazkar* “*tximista*” adierazteko gaur egun, besteak beste, Gipuzkoako Beizama herrian erabiltzen da (*EHHA*) eta *oñazkar* “*tximistargia*”-ri irizteko ere aurkitu da: “*Tximistaren argiya oñazkarra*” (Egutegia, Tolosa, 1921 *apud DRALV*). Beraz, *oinazkar* berbak, hiztunen adimen-begiarena arabera, ekaitza suertatzen deneko hiru fenomenoei heltzen die: “trumoia”, “*tximista*” eta “*tximistargia*”. Aipatu bezala, zenbait hiztunek ez bide dituzte ondo bereizten hiru ostagiak. Hala eta guztiz ere, badirudi adimen-begiak *-gar* osagaia suarekin erlazionatzen duela, eta ez hotsarekin; *oiñaztar* aldaera Gipuzkoako Legazpin bidutakoa da (*EHHA*). “*Tximistargia*” nahiz “*tximista*” adierazteko baliatzen dute hiztunek.

e) *Oinatz + harri*: azken hau dela-eta, sumatzen da, *ozpinarri* berban bezala, mitologiaren eragina. Azaldu bezala, *oinaztarria* izan liteke lurraren barruan sartzen den harrizko aizkora: *oiñastarri* eta *oiñaztarri* eta (G-Oñati: Izagirre, 1959); *oneztarri* (Barandiaran *apud OEH*); *oñastarri* (Iturzaeta *apud DRALV*); *oinestarri* (1935-1947/1989 I: 174); *oiñeztarri* (*DRALV*); *oñaztarri* (*DRALV*); *o(i)ñestarri* (B-Mendata: Mallea, 2002); *oñeztarri* (N. Etxaniz *apud DRALV*).

f) *Oinatz + justuri*: sail honetan irudi du bi izenek bat egin edo sinbiosi bat gertatu dela: *justuri* “*tximista*” esateko ere erabiltzen da eta bertan *Ortzi* ere nabaritzen da: *Oiñusturi* (Arantzazu Egutegia, 1970/04/24 *apud DRALV*); *Oñesturi* (Urruzuno, Zeruko Argia: 43 *apud DRALV*).

g) *Oinatz + tu*: Zer ote da *-tu*? Beharbada, *oinatzen* pertsonifikazioa “*tximista*” adierazteko: *oinaztu* “relámpago, rayo. (*Durunda, ihurtzuri, inizitu, inusturi, justuri, lineztu, oinazkar, oinaztarri, oinaztura, ortzi*)” (Labayru Hiztegia); *oiñaztu* (Etxebarria, 1965-66).

Sail horien guztien arabera, adimen-begiak nola sailkatzen duen emango da aditzera:

- Zeruko argitasunarekin zerikusia duten hitz multzoa: *oinaztargi* eta *oinazkar*; hau da, “su” elementuari lotutakoak.
- Oinatzen materiarekin lotutakoa: *oinazkai*; hau da, “lur” elementuari lotutakoak.
- Jatorri mitologikoa dutenak: *oinaztarri* eta *oinusturi*; hau da, “zeru” eta “aire” elementuei lotutakoak.
- Jatorri ezezaguna: *oinaztura* eta *oinaztu*.

En?+ortzi+auri Enaurzi+ (z)iri	Ortzi	Ortzi + azantz	Ortzi + mihi(n) + (harri)	Ortzi + erori
Ehurtziri Ihurtziri Ibortziri Ihurtzuri Irurtziri Iurziri Iyurzuri Jusluri Jisturi	Ehurtziri Ihurtziri Ibortziri Ihurtzuri Irurtziri Iurziri Iyurzuri Jusluri Jisturi	Ortzantz Orzantz	Ozpin Ozpinarri Ozpiñarri Ozpirin Ozpriñ	ortzierori
12. taula. Izakiak. Tximistaren izendapenak: ortzi saila				

12. taula honetan “tximista” adierazteko *ortzi* berbarekin zerikusia bide duten hitzen sailkapena egiten da. Aise antzeman daitekeenez, trumoa aditzera emateko 9. taularen antz handi samarra du. Izan ere, aurrekoan ez dagoen hitz elkarketa bakarra *ortzierori* da (BN-Isturitze: *EHHA*). Beronen bi osagaiak oso garbiak dira eta era zehatz eta polit batean adierazten dute tximistaren beraren izakiak, hots, *ortzi erori egiten dela*. Horrek bide ematen digu eremu honen hasieran agertzen genuena oroitarazteko: hiztun askok izendapen aldetik ez dituztela horrelako fenomenoak bereizten. 9. taularen gainean aipatu denak hau aztertzean ere balio du.

Bestalde, tximistari irizteko berben artean, *aire gaizto* (*aidegaixto*, N-Baztan: Izeta, 1996) eleak badu konnotazio mitologikoa:

Ciertos nombres del rayo, como OZPINARRI, ONEZTARRI y TXIMISTARRI (probablemente también OZKAR, OZKARRI e INHAR) que significan ‘piedra de rayo’, responden a un viejo mito muy difundido en países europeos, según el cual el rayo es una piedra especial (hacha neolítica, cuchillo o punta de sílex) que, al caer a la tierra, se introduce en ella hasta la profundidad de siete estados; después va subiendo un estado cada año, hasta que al cabo de siete años llega a la superficie; desde entonces protege la casa donde se halle contra los malos espíritus o AIDE-GAIZTO, que es el mismo rayo. Este mito comprende el tema indoeuropeo del martillo de Thor y de las flechas de Júpiter. (Barandiaran, 1983: 137)

Hitz hau *EHHA*n (2008) herri askotan jasotakoa da: *aidegaixto* (L-Azkaine); *aidegaizto* (G-Ataun); *airegaixto* (N-Lekaroz / L-Hazparne); *airegaizto* (N-Suarbe); *airegasto* (L-Arraingotze).

Oinatz	Oinatz + argi	Oinatz + dura	Oinatz + gar	Oinatz + harri	Oinatz + *tilu + harri
Oinetz	Oiñaztargi	Iñezture Ñaztura Oinaztura Oiñaztura Oñazture Oñeztul Oñoztura	Oiñazkar Oñazkar Oñaztar	Oiñastarri Oiñestari	Oinastilu Oinastilarri
13. taula. Izakiak. Tximistargiaren izendapenak: oinatz saila					

Izakien nozioari dagozkion taulen azterketa amaitzeko 13. taulan, *oinastu* edo *tximistargiari* buruzko izendapenak ditugu aztergai. Aurrekoan bezalaxe, *tximistargia* zein *tximista* adierazteko ez bide dago desberdintasun handirik. Behin eta berriz esan denez, horrek adierazten digu hiztunen artean nahasmendu handi samarra dagoela. Termino batzuk dagoeneko aztertutik daudenez, berriak baino ez dira azalduko:

Oinatz; *oinetz* aldaera (Añibarro *apud DVEF*).

Oinatz + dura; *iñezture* (N-Baztan: Izeta, 1999); *ñaztura* (N-Uztarroze: *DVEF*); *oñeztul* (N-Eugi: *EHHA*).

*Oinatz + *tilu + (harri)* baizik ez da berri hutsa *tximistargiaren* izendapenak aztertzekoa den taula honetan. Goraxoago, 9. taulan, azaldu da zer dela-eta agertzen den *harri*. Baina, zer ote da ustezko **-tilu* edo **-dilu* osagai hori? Ez da erraza jakitea. Gaur egun inongo hiztegitan ez da agertzen horren antzik duen berba bat ere. Ba ote leukake zerikusirik *Ortzi + mihi(n) + harri* hitz elkarketarekin? Gauza bera adieraziko ote lukete? Beharbada, bai. *Oinastilu* (goi-nafarrera: *DVEF*); *oinastilarri* (*DVEF*).

Bestelakoan artean aipatzekoa da Nafarroako Mezkiritz herrian bildutakoa: *aiduineztulka* (*EHHA*). Tximistargia hodeietan tximistak sorturako dirdira izanagatik ere, zenbait hiztunek hotsarekin lotzen dute: “eztula”. Lehenengo osagaiak, *aiduin*, aide elearekin izan lezake zerikusia, eta, bestalde *-uin* noren kasuaren bilakaera izan liteke. Herri horretan *iñeztura* aldaera era jaso da (*EHHA*).

4.2.2. Kalitatea

Kalitate nozioa dela-eta, kategoria bakarra dugu: trumoi lehorra. Horrela izanda, izendapen bakarra ere aurkitu da: *trumoi siku* (*trugoi siku*). Berriemaileak honela definitzen du: “trugoi siku da kasureko trugoi saratak andik burrustadak itzelak, or aurren, da auririk es, baya asi or aurren ta bado trugoi yoten yoten, eta sartxen bada Armintzen edo itxoson sartxen bada, ordun fijo antzen auri itten dauna (B-Jatabe: Gaminde, 2002). Beraz, zalaparta handia sortzen omen du, baina euririk ez du botatzen.

4.2.3. Jarduera

Ekaitzari loturiko jarduerak	Trumoiari loturiko jarduerak	Tximistargiari loturiko jarduerak
Adarraitu Eguna ortzikara izan Ekaiztu Ekaitz burua jo Ekaitza baketu Ekaitzak hartu Hodeia etorri (oréixa dator) Hodeia sartu (odéixa sart da(u)) Hodeiak jo Trumoitik egon Tximistea eta trumoi a gogotik ari	Ihaurtzuriak ari Durundaz ari (dündaz ari) Durundu egin (dündü egin) Hodeiak jo, eragon (odeixa(k) jo, odeiak eragon) Inusturia jo Ortzitu (hortzitu) Orzantz ari Orzanztu Ortoska ari Ortosketan ari, egon Ortostu Ortzitu Trumoiak jo, arrondu Txarrenek, txerrenek eragon Txerren bolan ibili	Inusturiketan egon Zimiztakatu
14. taula. Ekaitza. Jarduera: ekaitza		

14. taulan jarduera nozioari dagokiona dugu aztergai. Hiru multzotan sailkatu dira corpusean topaturiko jarduerak: ekaitzari, trumoiari eta tximistargiari buruzkoak. Lehenengoa dela-eta, lokuzioetan ekaitz eta hodei eleak agertzen dira batik bat, eta, nolabait, adimen-begiak denborari loturiko sekuentziazio kronologikoa agertzen du.

Ekaitza heldu baino lehen => ekaitza heldu => ekaitza hasi => ekaitzak dirauen bitartean => ekaitza amaitu.

Ekaitza heldu baino lehen: *adarraitu* “ekaitz itxura hartu” (behe-nafarrera: Lhande, 1926); adibidez, Lapurdiko Bardozen ekaitza *adarraire* esaten da (EHHA); *eguna ortzikara izan* (behe-nafarrera: Mokoroa, 1990). *Ortzikara*, hau da, “ortzitzeko joera” du; *trumoitik egon* (*turmoitik egon*, G-Aia: Mokoroa, 1990).

Ekaitza heldu: *ekaiztu* (behe nafarrera: Harriet *apud OEH*); *o(d)reixa etorri* (G-Oñati: Izagirre, 1959).

Ekaitza hasi: *hodeiak jo* (bizkaiera: Mokoroa, 1990); *odeixa sartu* (G-Oñati: Izagirre, 1959). Aditz-laguntzaileari dagokionez, hiltunek “da” eta “dau” erabiltzen dituzte. Naturaren inguruko fenomenoak izanda, oraintsu arte arrunta izan da nor-nork erabiltzea:

Ortzian gertatzen diren agerkariak deskribatzeko gure hizkuntzak galdu beharko ez litzatekeen esamolde jator bat badu: “...atera du”. Eguzkia atera du, hilargia (sic) atera du, haizea atera du, eguraldi ederra edo txarra atera du, e.a., beti aipatzen ez den izaki demiurgiko bati gagozkiolarik. Eta hau bitxikeria gramatikala ez dela argiago gera dadin, pentsa dezagun “euria ari du” esaten dugunean, tabu erlijioso baten eraginez bakarrik ulertaraz daitekeen oker gramatikalean erortzen garela, zeren euskaraz aditz bat trantsitiboa izan arren “ari” sartzen badugu perpausean “izan” aditz laguntzailea jarri behar da derrigorrez “ukan” laguntzailearen lekuan. Baina “euria ari du” horretan, euriaren atzetik norbaiten eskua dagoela azpimarratzeagatik seguraski, erlijioak gramatikak baino indar haundiagoa erakusten du. (Hartsuaga, 1987: 41-42)

Ekaitzak dirauen bitartean; *ekaitzak hartu* (bizkaiera: Mokoroa, 1990); *tximistea eta trumoia gogotik ari* (gipuzkera: Mokoroa, 1990).

Ekaitza amaitu: *ekaitz burua jo* (G-Orexa: Mokoroa, 1990); *ekaitza baketu* (bizkaiera: Mokoroa, 1990).

Trumoiari dagokionez, den-denak trumoiak jotzen duen bitartekoak dira. Trumoiaren izaera berezia dela-eta, honako sailkapen hau egin da:

Onomatopeikoak: biak Zuberoako Larraine herrian jasotakoak, *durundaz ari* (*dündaz ari: EHHA*) eta *durundu egin* (*dündü egin: EHHA*).

Hodei hitza oinarri: *hodeiak jo / eragon: odeixa(k) jo* (G-Oñati: Izagirre, 1959); *odeiak eragon* (B-Orozko: Mokoroa, 1990): “Odeiak badaragoio”. *Eragon* aditz zaharra fenomeno atmosferikoekin ere erabili izan da. Beherago ere hau aipatuko dugu: “Txarranek baragoio” (bizkaiera: Mokoroa, 1990).

Ortziren ingurukoak: *hortzitu* (Lhande, 1926); “Egun *hortzi* dezake”. *Hots* elea oinarria duten hiru ekintza: *ortoska ari* (N-Baztan: Izeta, 1996); *ortosketan* (N-Baztan: DVEF); *ortostu* (N-Baztan: Izeta, 1996). Bestalde, *ortzitu* (L-Makea: EHHA). Azantzari loturiko bi: *orzantz ari* (DVEF); *orzantzu* (DVEF); *inusturia jo* (Labayru Hiztegia); *ihaurtzuriak ari* (Darricarrere *apud DRALV*).

Trumoi hitza oinarri: *trumoiak arrondu* (gipuzkera: Mokoroa, 1990): “Trumoi gogorrek arrondu ziran gau artan...”. *Arrondu* aditza bitxi samarra gertatzen da; *trumoiak jo* (gipuzkera: Mokoroa, 1990).

Deabrua bera aipagai: *Txerren / Txarren eragon* (bizkaiera: Mokoroa, 1990); *Txerren bolan ibili* (gipuzkera: Mokoroa, 1990). *Txerren* edo *Txarren* deabrua izendatzeko izenatariko bat da; beraz, alde horretatik “moderno” dela esan liteke, batez ere, *bolan edo boloetan* ote dabilen kontu hori. Gaztelaniaz “los angelitos están jugando a los bolos” esaten da. Gogora dezagun deabruak hainbat izen dauzkala euskaraz: *Deabru*, *Demonino / Demonio*, *Txerren*, *Gaizkin*, *Etsai*, *Adu*, *Galtzagorri*, *Prakagorri*, *Buztangorri*, *Kapagorri*, *Bestemutil*, *Hiruadarreko*, *Matxingorri* eta *Sulezako / Suleizeko*, besteak beste.

Tximistargiari dagokionez, corpusean lokuzio bat eta aditz bat besterik ez da aurkitu: *inusturiketan egon* (Labayru Hiztegia): “*Inusturiketan* dagoenean onena autoan sartzea omen da”; *zimiztakatu* (Lhande, 1926); *-ka* atzizkiak behin eta berriz gertatzen dela ematen du aditzera. *Zimizta* elea Nafarroako Etxalar herrian bildua da tximistari irizteko (EHHA).

4.2.4. Denbora

Ekaitz garaia	Trumoi garaia
Ekaizte	Trumoi denbora (trugoi denpora)
15. taula. Ekaitza: Denbora	

15. taulan denbora nozioari egiten zaio tokia. Bi kontzeptu baizik ez dira aurkitu, bata ekaitzen garaiaren ingurukoa eta bestea trumoiarena. Lehenengoa dela-eta, topatutako terminoak, *ekaitzek*, aldia adierazten duen atzizkia darama berekin, *-te* (bizkaiera: Euskalzale, 1987 *apud DRALV*). Bigarrenean, ostera, *trumoi* berbarekin batera beste izen bat dago, *denbora* (*trugoi denpora*, B-Jatabe: Gaminde, 2002). Bi izendapenok aditzera ematen digute adimen-begiak ekaitz eta trumoiaren garaia ere hautematen zituela, eta agian sasoi batean beste batean baino sarriago gertatzen direla.

4.2.5. Ondorioak

Hasteko eta behin, nabarmentzekoa da nozio orokorretan kantitatea eta espazioa ez direla azaltzen ekaitzaren eremuan. Nozio orokor oparoena izakiak da, eta haren barruan ekaitzaren, trumoiaren, tximistaren eta tximistargiaren izendapenak. Nozio espezifikoei dagokienez, mota guztietakoak daude: berba hutsak, hitz-elkarketak, onomatopeiak eta maileguak. Nahiz lexiko-eraikuntza horrelakoa izan, gaur egun hiztatz hartzen ditugu zenbait hitz-elkarketa edo eratorpen batetik etor litezke; adibidez, *ekaitz* hitza bera. Dena dela, adierazi behar da hitz-elkarketak eta onomatopeiak gailentzen direla, eta maileguak ere ez direla urriak. Horretaz gain, hitz-elkarketetan *ortzi* elearen ekoizpena handi samarra da ekaitzaren, trumoiaren, tximistaren eta tximistargiaren izendapenetan, *hodei* eta *oinatz* ere bazterrean utzi gabe. Antzina euskal hiztunaren adimen-begiak etengabe erabiltzen zuen *ortzi* berba ekaitzari buruzko lexikoa zabaltzeko. Hori dela-eta, nozio espezifikoko guztiak aintzat harturik, ekaitzaren inguruko lexikoa motibatua eta ikonikoa da, nahiz arbitrariotasun ukitu batzuk ere egon. Bestalde, maileguetan, *trumoi* eta haren inguruan eratutako lexiko guztia aipatzekoa da. Horrek ematen du aditzera antzina-antzinatik ondarezko hitzak eta maileguak elkarrekin bizi izan direla inongo arazorik gabe, baita herri berean ere.

Nozio espezifikoetan sumatzen da kultur sinkretismoa ekaitzaren gainean eraikitako lexikoan; izan ere, antropologiaren iritziz, eta zer esanik ez, etnolinguistikaren ustez, oso zaila da adieraztea ez dagoela kulturarik, gutxi gorabehera era lauso batean, osagaiak beste nonbaitetik hartzen ez dituenik, hain zuzen ere bere ingurune soziokulturala ez den beste

lekuren batetik aterata. Ideologia naturalistak jarraitzen du ekaitzaren terminoetan barrena ere, ostadarrarekin gertatzen den bezalaxe.

Azken ondorio gisa esan behar da euskarak ekaitzaren inguruan eraikitako lexiko guztia gauza dela egurats aldean suerta litezkeen egoera gehientsuenei aurre egiteko; mende luzeetan behatutako egoerek bide eman diote adimen-begiari lexiko zehatz eta oparoa eratu eta unibertso sinbolikoa osatzeko, eta zenbaitetan antzemandako hutsune semantikoak maileguen bitartez bete dira, nahiz eta maiz herri batzuetan bai ondarezko, bai maileguak elkarrekin bizi diren.

4.3. Haizeak

Mariano Medina meteorologo espainiarra zenak zioenez:

Zenbait tokitan haizeak jotzen duenean airea dabilela esan ohi da. Eta esaldi mamitsua da hori. Airea beti egoten da, baina haizeak jotzen duenean, hau da airea *higitzen denean bakarrik nabaritzen dugu. Haizea mugitzen den airea* dela eskolan ikasi genuen. Definizio hori osatzeko “horizontal mugitzen den airea” esan behar genuke. (Medina, 1990: 33)

Meteorologia hiztegiak ere antzeko definizioa ematen du: “Airearen lurrazalarekiko mugimendua. Bestelakorik zehazten ez denean, osagai horizontala bakarrik hartzen da kontutan (sic)” (*MetHizt*, 1988: 126). Beste definizio batzuek haizeen norabidea aipatzen dute: “Winds are always described by the direction from which they are blowing. Thus the dominant westerlies blow from west to east, and the trade winds (for example) are north-easterlies in the northern hemisphere, and southeasterlies in the southern” (Dunlop, 2015: 186).

Antzina-antzinatik gizakia haizeei erreparatu eta garrantziaz jabetu zen: “Antzinako gizakiak berehala konturatu ziren haizeak eguraldian duen eraginaz. Horregatik, jainko bat egokitu zitzaion mitologia grekoan: Eolo, haizeen jainkoa. Zorro batean gordeta omen zeuzkan haizeak, eta egoki iruditzen zitzaionean ateratzen omen zituen. Han haize guztiak zeuden, baina lau ziren garrantzitsuenak. Lau horiek, binaka elkartuta, gainerako guztiak osatzen zituzten. Laurak haize-arrosaren lau norabide primarioei zegozkien: “Boreas” edo Ipar-haizea; “Austro” edo “Noto” hegotik zetorrena; “Zefiro” mendebaldetik jotzen zuena; eta “Afeliote” edo ekialdeko haizea” (Medina, 1990: 37-38).

Aurreratxoago Medinak azaltzen du herri bakoitzak haizeak izendatzeko makina bat izen dauzkala:

Herri bakoitzean bertako klimatologian duten garrantzia dela-bide, badira antzinatik izena duten haizeak: *mistral* Frantzian, *helm* Eskozian, *föhn* Tirolen, *siroco* Sizilian, *etesia* Turkian, *pampero* Argentinan, *ziertzo*, *ábrego*, *llovedor*, *regañón*, *tramontana*, *leveche*, *levant*, *terral*, *solano*... Espainia aldean. ‘Haizeak ekarri, haizeak eraman’ diote nekazariak toki guztietan, haize-aldaketa egoki batek beharrezko euria ekar baitezake, edo desegoki batek urrundu. Horri buruzko esaera zahar mordoa dago edozein hizkuntzatan. Hona hemen euskarazko batzuk: *Eguerri gaberdian zer aize, hurrengo illabetian aize ure* (Arano); *Egoa errekararte ez gelditzen* (Oskotz); *Egoaize putzerre, berak busti ta berak leortu* (Basaburu); *Aize-otza, garizuma-aizea* (Lesaka); *Aize t’auri, axariaren eztaiek* (Ultzama); *Aize egoa, andren gogoa* (Esteribar). (Medina, 1990: 38-40 orr.)

Esan gabe doa, euskaraz hainbat izen ditugu haizeak izendatzeko, zenbat-gura. Gizakiak betidanik izan du ikusgura haizeei izenak emateko. Ziur asko, antzina, euskal hiztunaren adimen-begiak nondik zetorren hartuko zuen aintzakotzat, hau da, *goitik, behetik*... hori dela-eta, oraindik ere irauten dute *goiko haizea, beheko haizea* eta horien antzeko izendapenak.


Corpusari dagokionez, haizeen gaineko 935 nozio espezifiko aurkitu dira, eta ordenatzeko asmotan balizko sailkapena egin da gai zabal honi aurre egiteko.

- Haizearen izendapenak
- Haizea: garaia
- Haizearen ekintzak
- Haizearen nolakotasuna: izendapena
- Haizea nola dabilen eta nolakoa den
- Haizea beste fenomeno atmosferiko batekin batera
- Haize-bolada
- Haize-Erauntsia
- Haizearen Hotsa
- Haize Nagusiak
- Ipar-Haizea
- Ipar-Mendebaldeko Haizea
- Mendebaldeko Haizea
- Hego-Mendebaldeko Haizea
- Hego-Haizea
- Hego-Ekialdeko Haizea
- Ekialdeko Haizea
- Ipar-Ekialdeko Haizea
- Bestelako Haizeak
- Zirimola-Zurrumbiloa
- Haizea eta Lekuak

Bestalde, eta argigarri eta lagungarria izan daitekeelakoan, zientziak nola sailkatzen dituen haizeak jarri da taula batean. Horretarako *Beauforten eskala* erabiltzen da gehien (*MetHizt*, 1988: 57). Horrek lau zutabe ditu: *maila*, *haizeak m/h*, *deskripzioa* eta *pertzepzioa*. Ikusten denez, intentsitatearen arabera, hau da, nolako abiadura hartzen duen haizeak, sailkatzen dira. Francis Beaufort almirante ingelesak 1806an argitaratu zuen 12 mailaz osaturiko eskala ospetsua haizearen indar edo abiadura adierazteko. 1874. urtean Nazioarteko Meteorologia Batzordeak bere egin zuen. Haizearen indarra zehatz-mehatz neurtzeko itsas azalaren gainetik 10 metrora eta hamar minutuz hartu behar genuke batez besteko abiadura.

Beauforten mailak	Haizea, km/h	Deskripzioa	Pertzepzioa
0	1	Haize barea	Keak gorantz egiten du
1	1-5	Oso haize ahula	Haizeak keari eragiten dio, baina haize-orratzak gelditu daude
2	6-11	Haize ahula	Hostoak mugitzen dira, haizea aurpegian igartzen da
3	12-19	Haize leuna	Hostoa keta adar txikiak etengabe mugitzen dira
4	20-28	Haize lasaia	Haizeak hautsa harrotu eta hostoak mugiarazten ditu
5	29-38	Haize freskoa	Zuhaixkak kulunka egiten hasten dira
6	39-49	Haize zakarra	Adar handiak mugitzen dira. Euritakoak nekez ireki daitezke
7	50-61	Oso haize zakarra	Zuhaitzak mugitzen dira. Ez da haizealde ibiltzea erraza
8	62-74	Haize beltza	Zuhaitzen adar txikiak apurtzen dira. Neke handiz ibil daitezke
9	75-88	Haizetea	Zuhaitzen adar ertainak hausten dira
10	89-102	Haizete bortitza	Zuhaitzak errotik ateratzen dira. Teilatuek kalteak izan ditzakete
11	103-107	Oso haizete bortitza	Kalte handi samarrak
12	108-133	Haize erauntsia	Kalte handi-handiak

16. taula. Haizeen sailkapena, Meteorologiaren arabera



1. irudia

Antzina-antzinatik, haizeen norabideen berri emateko haize-arrosa erabili izan da. Honako honetan datza: ostertzeko itzulia banatzen diren 32 norabideak adierazita dauzkan zirkulua da. Nabigazio kartetan mutur batez lotutako 32 erronboz irudikatzen da eta beste muturrak ostertzeko zirkuluaren gaineko norabidea adierazten du. Beraren gainean ostargibelarra kokatzen da eta XVI. mendean geroztik iparraren irudia da.

Tesi honetan, orain arte ezarritako azterketa-bideari jarraituz, Wilkinsen nozio orokorrak (1976) aplikatuko zaizkie haizeei dagozkien kontzeptu guztiei. Beraien arabera honako sailkapena egin liteke:

1. Izakiak: haizearen izendapenak; haizea beste fenomeno atmosferikoekin batera; haize bolada; haizearen hotsa; zirimola eta itsasoko zirimola.
2. Kantitatea: haize erauntsia.

3. Kalitatea: haizearen nolakotasuna; haizea nola dabilen eta nolakoa den eta haize bolada beroa.
4. Jarduera: haizeari loturiko jarduerak.
5. Denbora: haizearen garaia.
6. Espazioa: zalantzarik gabe, oparoena. Ipar haizea; Ipar-mendebaldeko haizea; Mendebaldeko haizea; Hego-mendebaldeko haizea; Hego haizea; Hego-ekialdeko haizea; Ekialdeko haizea; Ipar ekialdeko haizea; Bestelako haizeak eta haizea eta lekuak.

Sailkapen etnosemantiko honek bere baitan biltzen ditu zientziak bere aldetik egiten dituen biak, bai intentsitatea, bai norabidea. Izan ere, lehenengoari dagokionez –intentsitatea, kantitatea eta kalitatea nozioen bitartez heltzen zaio eta bigarrena dela-eta –norabidea-, *espazioa* nozioaren bidez. Gainera, zientziak erabiltzen ez dituen beste hiru nozio gehiago jorratzen dira: izakiak, jarduera eta denbora. Beraz, beldurrik gabe ondoriozta daiteke herriaren ikuspegia taxuz sailkatu eta aztertuz gero, zientziaren sailkapenaz harantzxoago doala.

Corpusean aurkitutako kontzeptu guztiak nozioen arabera sailkaturik, honela geratuko lirateke taula batean:

1. Izakiak	2. Kantitatea	3. Kalitatea
Haizearen izendapenak Haizea beste fenomeno atmosferikoekin batera Euria iragartzen duen haizea Haizearen hotsa Zirimola Itsasoko zirimola	Haize-bolada Haize erauntsia	Haizearen nolakotasuna Haizea nola dabilen eta nolakoa den Haize bolada beroa
4. Jarduera	5. Denbora	6. Espazioa
Haizearen jarduerak	Haizearen garaia	Ipar-haizea Ipar-mendebaldeko haizea Mendebaldeko haizea Hego-mendebaldeko haizea Hego-haizea Hego-ekialdeko haizea Ekialdeko haizea Ipar ekialdeko haizea Bestelako haizeak Haizea eta lekuak
17. taula. Haizea: Sailkapen etnosemantikoa		

Goiko 17. taulan ikus daitekeenez, haizeak nozio guztiak biltzen ditu bere baitan. Izakiak, kalitatea eta espazio nozioak nagusi dira. Azken hau dela-eta, haizeen jatorria –ipar haizea...- izakiak dagokion nozioan sar liteke. Hala ere, zentzuzkoagoa delakoan, espazio nozioan txertatu dira, beharbada lotura handiagoa dutelako nozio honekin izakien nozioarekin

baino. Gainerako hirurek —kantitateak, jarduerak eta denborak— kontzeptu bana azaltzen dute.

Horrezaz gain, espazio nozioa aztertzeko beste azterbide bat erabiliko da, tesi honen zuzendariarena, Aurrekoetxearena, hain zuzen ere. Uste baino askoz garrantzitsuagoa den artikulu batean (Aurrekoetxea, 2000: 93-107) Euskararen Herri Hizkeren Atlaserako (*EHHA*) galdetzen ziren lau haize motei buruz herriaren ikuspegia xehetu zuen berak proposaturiko azterbide baten bidez. Era labur batean adierazita, *EHHA*ren haize guztien izendapenak honako honetara bildu du Aurrekoetxeak:

- Aroaren araberako izendapena
- Haizearen izareari buruzko izendapena
- Izendapen kardinala
- Izendapen orografikoa
- Ondoko herriak
 - Elementu geografikoa
 - Herrialdea
 - Izendapen toponimikoa
- Ostagiei lotutako izendapenak
- Pertsonifikazioa
- Sasoi izendapena
- Erreferentzia astronomikoa
- Bestelako izendapenak

Tipologia hori nozioen araberako taula bakoitzari ere aplikatuko diogu. Horrela eginda, bi ekarpenekin batera, askoz ere aberasgarriago geratuko da azterketa.

4.3.1. Izakiak

Haizearen izendapenak	Haizea beste fenomeno atmosferiko batzuekin batera	Euria iragartzen duen haizea	Haizearen hotsa	Zirimola
Aire Bufaka Haize Haize aire Haize bufada (buhada) Hego haize Ufako	Euriarekin batera	Euri-haize Meriendetako haize	Durunda (Haize)-firfira Marraka Ulu	Animaliei loturikoak Erdaratikoak Haizearekin batera Itzulinguruari loturikoak Mitologiari loturikoak Onomatopeikoak Bestelakoak
	Afrontu (afruntu) Aldagoi Bisuskara Nekaitz (Nekatx) Zurripita			
	Elurrarekin batera			
	Behe-bisuts Elur-haize (edurraxe) Elur lauso (eluaso) Haize bildu Lausoro Osín Ulu-haize (ulaize)			
	Ekaitzaren aurreko haizea			
	Hodei-haizea Ortzi-haizea			
18. taula. Haizea: Izakiak				

Izakien nozioari dagokion 18. taulan honako kontzeptu hauek jorratu dira: haizearen izendapenak, haizea beste fenomeno atmosferiko batzuekin batera, euria iragartzen duen haizea, haize bolada, haizearen hotsa eta zirimola. Azken honek beste taula bat osatzeko adinako garrantzia duenez gero, 19. taulan azalduta dago.

Haizearen izendapen orokorraz gain, haizea, badira beste batzuk han-hemenka erabiltzen direnak. Batzuek zerikusia daukate beraien artean, *bufaka* (L-Mugerre: *EHHA*); *haize-bufada* (*haize buhada*, Z-Eskiula: *EHHA*). Izan ere, hats edo kiratsarekin ere badaukate loturarik. Gaztelaniaz ere, baditugu antzeko terminoak; adibidez *bufa* hitza haize hotz, sarkor eta zakarrarekin lot dezakegu. Haize hotz eta leuna ibiltzen denean *bufina* terminoa erabiltzen da. Bestalde, *bufada* berbarekin airea edo haizea oro har identifikatzen da eta *bufar* aditzaren bidez haizea ibili adierazten da. Dirudienez euskarazko zein gaztelaniazko hitzek toki berean daukate jatorria: latinean? Hala ere, *DRAE*ren arabera *bufar* aditzaren jatorria onomatopeikoa da eta baliteke euskarazkoa molde berekoa izatea: “bufar. Soplar el viento. Etimológicamente viene del término en latín *buffare*, que es una voz con origen onomatopéyico” (Viñas, 2019). Bestalde, ohiko airea dugu, eta harrigarria den arren, hego haizea ere agertzen da *EHHA*n.

Bigarren kontzeptua dela-eta, haizea beste fenomeno batzuekin ere azaltzen da: euriarekin, elurrarekin eta ekaitzarekin batera. Euria eta haizea direla-eta, aipatzekoak dira zenbait berba. Adibidez, *afrontu* berba, latinetik bide dator *-ad frontu(m)-* eta bere baitan kontzeptu interesgarriak biltzen ditu, non erabiltzen den:

1. “Haizeak eta euriak astindutako tokia” (Andoni Llosak jasotakoa: UK, 2002: 35 zenb.).
2. “Leku ageria” (B-Lekeitio, Mundaka herrietan eta Txorierrri haranean: *DVEF*).
3. “Erauntsia, aro oso haizetsua” (*DRALV*).
4. “Haize zakar-zakarra eta euria batera” (B-Leioa herrian: Gaminde, 2001b).
5. “Haizeak sarri jotzen duen parajea” (B-Bakio: Gaminde, 1999).
6. “Haizeak dakarren euria, aurrealdean jotzen duena” (B-Abadiño: Gaminde & Salterain, 1991).

Beraz, badirudi haizea eta euria estu-estu loturik doazela termino horretan. Horixe da, hain zuzen ere, taula honetan agerrarazi dugun hitza.

Aldagoi berbak (*DRALV*) ere antzeko esanahia du. Izan ere, “haize indartsua euriarekin batera” ematen du aditzera (*DVEF*). Hitz beraren beste esanahi bat, “mendebal haizea” da (G-Legazpi / Urretxu: *EHHA*). Adiera hori aurrekoari oso loturik dago, mendebalak haize erauntsi eta eurite handi samarrak ekarri ohi ditu eta. Hitzaren jatorriari dagokionez, lehenengo osagaia, *alda-*, irudi du *alde*-tik datorrela eta bigarrena, *-goi*, *goi* berba edo *-koi* atzizkia.

Hurrengo hitza, *bisuskara* ematen du *afrontuaren* sail berekoa dela. Izan ere, aldi berean “euri eta haizearen kolpea” esan nahi bide du (G-Oñati: Izagirre, 1959). Hitzari konposizioari dagokionez, *bisuts* + *kara* dela ematen du, hau da, ikusgaitasunari loturiko terminoa *-bisuts-* eta *-kara* atzizkia, nahiko orokorra bide dena, “samar” edo “antzeko” moduko ñabardura eransten duena. Beraz, *bisuskara*, *bisutsaren* antzeko edo modukoa izango litzateke. *Bisuts* berbaren jatorria dela-eta, agian *bris(a)* + *hauts* elkarketatik etor liteke; *brisa* hitzaren jatorria ez dago batere garbi: Joan Corominasek (1961-1987) hauxe dio: “Viento del Nordeste o del Este, por lo general muy fuerte”, 1504; “viento suave”, s. XIX (y alguna vez en los ss. XVII-XVIII), voz común a todos los romances de Occidente (documentada en Cataluña desde el s. XV), de origen incierto”. Bestalde, gaztelaniaz haize hotz eta zakarrari *bris* ere esan ohi zaio. Beraz, baliteke horrekin loturaren bat izatea. Ez da baztertzekoa.

Hurrengo terminoak, *nekaitzek* (*nekatx*, Nafarroako Erronkari haranean jasotakoa: *DVEF*), *ekaitz* berbaren antz handia du. Corpusean *nekaitz* (*DVEF*) hitza ere badago, kideko esanahia duena, hau da, “euri erauntsia, eguraldi euritsu-euritsua”. Hitzen bilakaeran herriak egiten dituen analogiak sekulako indar eta garrantzia daukanez gero, baliteke *nekaitz neke* eta *ekaitz* eleen arteko nahasketa izatea. Bestalde, *EHHE*n ondoko hau azaltzen da:

Mitxelaren ustez, *ekaitz* eta *negu*-ren arteko gurutzatze batetik sortua da (FHV: 310). Ageri denez, *negu*-ren jatorrizko ‘elur’ esanahitik hurbil litzale –cf. orobat *negutu*-n dagoen *negu* ‘negu eguraldi’ adiera–, eta ez urte-sasoitik. Aintzat hartzekoa izan daiteke Agud-Tov-ek (s.v.) ontzat jotzen dute *negu* + *gaitz* osaera, nahiz eta *negu* maileguaren elkartu-eratorrietan bakarria (baina erregularra litzatekeen *neg-*

aldaerarekin (edo *net-*, cf. *begi / bet*); bestela ere, ohar bedi haplologiako gertakaria genukeela ia. (EHHE)

Azken terminoa, *zurrupita* (*xurrupita*, zuberera: *DRALV*) haizeen eremuan agertzen bada ere, beste adiera batzuekin, oso antzekoak direnak, bete-betea sartzan da euriaren eremuan. Itxura denez, onomatopeikoa da; izan ere, adimen-begiak *zurrupa* hitzaren inguruan zenbait termino eratu ditu, isurkarietan zerikusia badaukatenak. Corpusean honako adiera hauek aurkitu dira:

Xurrupita: 1. “Haizetea euriarekin batera”. 2. “Euri-erauntsia” (*DRALV*).

Zurrupika: “Gogotik euria egitea”; “Zurrupikan” (Bota ahalean euria egitea) (*DVEF*)

Zurrupita: “Euri zaparrada handia” (BN-Aldude/ Arnegi: *EHHA*).

Zurrupu-haize (*Surrupuaxe*): “Haize-zirimola” (B-Urbe-Etxebarri: *EHHA*).

Zurrupitan: “Euria barra-barra egitea” (L-Hazparne / BN-Isturitze: *EHHA*).

Zurrupitak aritu: “Euri-jasak izan” (BN-Gamarte: *EHHA*).

Hortaz, euriari dagokionez, adimen-begiak ugaritasun kontzeptuarekin estu-estu lotzen du, eta, bestalde, beste eremu batean ere sartzan da –haizeak– eta kontzeptu berari eusten diola ematen du, kasu honetan, haizetea euriarekin batera baita. *Zurrupu-haizea* ugaritasunarekin ere uztar liteke; izan ere, haize-zurrunbiloak nahiko zakarrak dira. Haizea elurrarekin batera bi kasutan gerta liteke: bata, *bisutsa* bera, haize nahiko zakarrak lurretik elur-zatiak altxatzen dituenetan eta bestea, elurra egitearekin batera, elurra egiten duenean. Hori dela-eta, kontzeptu hori bi eremutan agertzen da tesi honetan, haizearekin eta elurrarekin, hain zuzen ere. Corpusean bildutako terminoak bi definizioen artean banatzen dira.

Bisutsa dela-eta, honako hauek: *behe-bisutsa* (*MetHizt*, 1988) eta *osin* (N-Zaraitzu: *DVEF*). Haizea elurrarekin batera, hauexek: *elur-haize* (*edurraxe*, B-Zamudio: *EHHA*), *elur lauso* (*eluso*: Barandiaran, 1983), *haize bildu* (*aizebildu*, N-Altsasu: Izagirre, 1967) eta *ulu-haize* (*ulaize*, B-Lekeitio: *DVEF*). *Bisuts* eta *lauso* terminoek zerikusi handia daukate elkarrekin; izan ere, adimen-begiaren arabera, ikusgaiztasun kontzeptua dute komunean. Barandiaranek *eluso* ekaitz-jeinutzat hartzen du:

Probablemente es más reciente el empleo de ODAI para expresar el cielo, como también el de ODEI para el genio de la tormenta; son voces que no lograron extenderse a muchos temas, tan sólo capturaron algunas creencias que antes pertenecieron a los círculos de IN y de URTZ. Lo mismo se diga de EATE y ELUAUSO (sic; aurretik 73. orrialdean ELUASO idatzi du), genios de la tempestad. (Barandiaran 1983:136)

Azkenik, interesgarria da Azkuek bere herrian jaso zuen hitz elkarketa: *ulu-haize*, hau da, elurrarekin batera lehorretiko haizea. Jakiten denez, *ulu* txakurrek, otsoek eta hontzek egiten dute, baita, sarritan, haizeak ere. Adibidez: “Haizeak *ulu* zorrotza dakar”. Sail hau bukatutzat

emateko, ekaitzaren aurreko haizea aipatu beharra dago: *hodei-* eta *ortzi-haize (ostaize)*. Bistan denez, erreferentzia biek nolabaiteko eduki mitologikoa daukate. Biok, *hodei-haize (odei-aize)* eta *ostaize* Izagirrek (1959) jaso zituen Gipuzkoako Oñati herrian.

Hirugarren kontzeptuari dagokionez, “euria iragartzen duen haizea”, bi hitz-elkarketa bildu dira corpusean; bata, guztiz argia, gardena adimen-begiaren arabera, *huri-haizea (euriaize)*, G-Eibar: Etxebarria, 1965-66) eta bestea, harrigarri samarra Bizkaiko Bakio aldean jasotakoa, *meriendetako haizea* (Gaminde, 1999). Ziur asko, adimen-begiak sumatzen du ordu beretsuan gertatu ohi direla horrelako haizeak; horregatik horrelako izendapena: ordua zelako, izendapena halako.

Laugarrena, haizeak jotzen duenean, atera edo sortzen duen hotsaren ingurukoa da. Corpuseko lau terminoek izaera onomatopeikoa daukate: *durunda (dunduri)*, B-Durango eta Txoriherri haranean eta *durundu*, Bizkaieraz: *DVEF*), *fir-fir (DRALV)*, *marraka (DRALV)* eta *ulu (DRALV)*.

Sail honi amaiera emateko, *zirimola* edo *haize-zurrumbiloa* da aztergai: “oso azkar eta indar handiz biratzen duen aire-masa” (*MetHizt*, 1988); hau da, euskal hiztunaren adimen-begiak hainbat eratara ikusi duelako frogara dira han-hemenka ibiltzen diren hainbat izendapen. Hori dela-eta, beste taula batean bestelako sailkapena egitea erabaki da; azkartasun eta indar kontzeptuak bere baitan biltzen baditu ere, pentsatu da hobe dela haizearen izaerari dagokion sailean aztertzea.

Animaliak	Erdaratikoak	Haizearekin batera	Itzulingurua
Behor biltzaile Karakol haize	Erremolino Erremonio Erremuli Kanikol Kanikolariua Turbillon Uraikan Zerku	Haize basazar Haize bidasoi (axe bidasoi) Haize bihurtu (axe biortu) Haize bolada Haize oker Haize osina Haize tiritu, tirriti, tirritu Haize turupila Haize xirurika Haize zizku (axexixku) Haize zirimola Haize zurrumbilo	Ingurukeria Itzulikaka Kurubil Mai erroda Tronpa haize (tronpaixe)
Mitologikoak	Onomatopeikoak	Bestelakoak	Itsasoko zirimola
Akelarre Bahomet Debaruaren lana Iratxo haize Kaskarot Mahoma Mahomet Mari txiker Satarrabi Sorgin-haize Trabonarro	Burrumba Firindolaka Tiribiti Tirigitu Tiruritaka, firurika, zirurika Tiruri(te) Torromoto Txaramel Xiramilla Zirimili Zirimola Zirringilo Zurrumbilo (zurrumbillo) Zurrupe haize (zurrupeaxe)	Bortzaize / Bosaize Borroka (burruka) Jaso (yaso) Ziributzi (siributzi) Ziorbilo (ziorbillo)	Bangera / Mangera Ixkidu (Ixkiidu / Ixkuidu) Traganarro (Kabanarro / Trabañarro) Tragarroi Tronpa
19. taula. Haizea. Izakiak: zirimola			

Aipatu bezala, haize-zirimolak aparteko taulan aztertzea merezi du; izan ere, hiztunen adimen-begiak erabiltzen dituen irudiak askotarikoak dira; gehienetan zeozer berezi eta magikoa dagoela sumatzen da. Corpuseko datuen arabera, zazpi multzotan sailkatu dira zirimola adierazten duten izendapenak. Multzoak honako hauek dira: animaliak, erdaratiko maileguak, haizearekin batera, itzulingurua, mitologikoak, onomatopeikoak eta bestelakoak.

Animaliekin zerikusia dutenak direla-eta, bi elkarketa dira; bata behorraren eta bestea karakolaren ingurukoa. Azken kasu honetan, metafora garbia sortu da adimen-begiaren bitartez: haize-zirimola barraskiloaren oskolaren antzekoa da, baina, behor-biltzailea? Zurrumbiloak behorrak biltzera behartzen ote ditu? Litekeena da. *Behor-biltzaile* elkarketa Nafarroa Behereko Ezterenzubi herrian jasota dago (EHHA) eta *karakol-haize* Bizkaiko Otxandio herrian (EHHA).

Bigarren multzoan erdaretatik datozenak dira. Berez, ez dute irudi berezirik sortzen eta badirudi mailegu hutsak direla eremu semantikoak partekatzeko: *erremolino* (B-Getxo: EHHA), *erremonio* (DRALV), *erremuli* (zuberera: Lhande, 1926), *kanikol* (N-Suarbe, EHHA), *kanikolariua* (N-Alkotz: EHHA), *turbillon* (BN-Bastida: EHHA), *urakan* (N-Abaurregaina:

EHHA) eta *zerku* (B-Arratia: *DVEF*). Batak gaztelaniatik hartu izan dira, besteak frantsesetik. *Erremolino*, *erremonio*, *erremuli* berbek gaztelaniazko *remolino* hitzarekin dute zerikusia. Beharbada, *erremotion* hitz-gurutzaketa gertatzen da, hau da, *erremolino+demonio*; *turbillon* frantsesez berdin esaten da; *urakan* Ameriketatik gaztelaniaren bidez, euskarara heldu da; *zerku* hitza baliteke erdarazko *cerco*-rekin lotura izatea; beraz, itzulingurua adierazten dutenen artean sartuko litzateke. Azkenik, *kanikol*, *kanikolariua* direla-eta, esan beharra dago *kanikula* urteko sasoirik beroena dela. *Kanikura* hitza bera ere erabiltzen da zenbait herritan aro sargoritsua adierazteko (B-Zaratamo: *EHHA*). Beraz, zein lotura dauka beronek haize zurrunbiloa adierazteko baliatzen diren hitz horiekin? *Canicula* latinetikoko hitza da eta *txakurtxo*a esan nahi du eta *Or Nagusiaren* izartegiko *Sirio* edo *Txakurra* izarra aditzera emateko erabiltzen da. Izan ere, izar hori zeruan agertzeak urteko sasoi beroenarekin bat egiten du.

Hirugarren multzoan, *haizea* izenarekin egiten diren elkarketak ditugu. Haizea lehenengo osagaia da kasu guztietan. Guztietarik aipagarriena *haize bihurtu* da (*axe biortu*, B-Fika: *EHHA*) da. Izan ere “Gaueko izeneko gaueko-jeinua beraren itxurapean ageri izaten da eta Aizebiurrek Egoirekin bat egiten du sarritan” (Barandiaranen, 1997: 187). Gaur egun, izendapen horrek Euskal Herriko eremu zabala hartzen du. Beste elkarketa aipagarri bat *haize bidasoi* (*axe bidasoi*) da; Bizkaiko Bakio herrian bilduta dago, besteak beste (*EHHA*). Bigarren osagaia, *bidasoi*, haize eta itsasoari loturiko beste fenomeno askorekin gertatzen da: ipar-mendebaleko haizea, eta haizeak harrotzen duen olasta apartua. Corpuseko datuen arabera, euskal kostalde guztian erabiltzen den berba da, Bizkaitik Lapurdiraino. Itxuraz euskal hitza ematen badu ere, baliteke beraren jatorria gaztelaniazko *virazón* berban egotea. *DRAE*en *virazón* terminoak bost adiera dauzka:

(De virar). 1. f. Viento que en las costas sopla de la parte del mar durante el día, alternando con el terral, que sopla de noche, y sucediéndose ambos con bastante regularidad en todo el curso del año, mientras no hay temporal. 2. f. Cambio repentino de viento. 3. f. Viraje repentino en las ideas, en la conducta, etc. 4. f. Cantb. Sucesión repentina del viento huracanado del sur por el viento del noroeste. 5. f. El Salv. velocidad (ligereza en el movimiento). (*DRAE*)

Beste autore batzuek *DRAE*ren 2. eta 4. adierarekin bat egiten dute:

virazón. Nombre marinero que recibe el viento que sopla de mar a tierra durante las horas diurnas, conocido también como brisa marina, contrario a la brisa de tierra, que sopla por la noche y que ese conoce como terral. En ausencia de un viento sinóptico destacado, se establece un régimen costero de brisas, con una alternancia bastante regular –ligada al ciclo día-noche– entre ambas brisas. También se llama *virazón* al cambio repentino en la dirección del viento. Es común llamar así en el Cantábrico a la brusca transición entre una surada y la entrada de viento del noroeste, lo que en ocasiones lleva asociado la formación de una galerna. (Viñas, 2019)

Beraz, lehenengo lau adierak badaukate zerikusirik euskaraz erabiltzen direnekin. Ez litzateke harritzekoa izango euskal marinelek itsas aldean beste batzuegandik ikasi eta egokitzapen fonetikoa egin izana. Begi-bistan dago *Bidasoa* hitzaren antz handia duela eta

hiztunek berba arrotz bat mailegatu ohi dutenean, sarritan bere hizkuntzan ondoen jotzen duen beste berba batekin sasi-analogiak egiten dituela.

Bestalde, beste bigarren osagai batzuek jatorri onomatopeikoa bide daukate, hots, euskal hiztunak adimenaren begiaren bidez, ez belarrietara bakarrik, begietara jotzen duen ideia sorrarazten du; ikusmenak sortutakoak direla esateraino hel liteke. Jakinaenez, onomatopeiak entzumenak zein ikusmenak sortu ohi ditu. Horrelakoen artean, besteak beste, hauexek ditugu: *tiritu* (L-Makea: *EHHA*), *haize-tiritu* (Lhande, 1926), *haize-turupila* (G-Donostia / Oiartzun: *DVEF*), *haize-xirurika* (L-Beskoitze: *EHHA*), *haize-zirimola* (hainbat herritan erabiltzen da; adibidez, Lapurdiko Makean: *EHHA*), *zizku* (*axexixku*, B-Mungia: *EHHA*).

Laugarren multzoan, itzulinguruaren bitartez irudikatzen dira, euskalki guztietakoak; *ingurukeria* (Nafarroako Baztan haranean: Izeta, 1996), *itzulikaka* (Hazparne Lapurdi: *EHHA*), *kurubil*, *mai erroda* (zuberera: *DVEF*) eta *tronpa haize* (*tronpaixe*, B-Lekeitio: *EHHA*) terminoek sail bitxi samarra osatzen dute; guztiek haizearen jira-bira daukate komunean era batera edo bestera adierazita. Euskal hiztunaren adimenaren begiak jira-biratasunaren bitartez eratu ditu horrelako berbak.

Bosgarren multzoari dagokionez, nolabaiteko izaera mitologikoa daukaten berbek osatzen dute. Aipatzekoa da *Bahomet* (Z-Urdiñarbe: *EHHA*) / *Buhamet(a)* (Z-Sohüta: *EHHA*), *Mahoma* eta *Mahomet* (Zuberoa eta Nafarroa Behereko herri batzuetan: *EHHA*) terminoek bere baitan biltzen duten herri-konnotazioa. Hiru hitzak desberdintzat jo badira ere, baliteke jatorri berekoak izatea; hirurak Nafarroa Behere eta Zuberoan erabiltzen dira; beraz, zentzuzkoa da pentsatzea frantses edo biarnesarekin nolabaiteko lotura daukatela. Izan ere, *Mahoma* / *Muhammad* adierazteko *Mahomet* erabiltzen da frantsesez. Gaur egun, zubereraz *bahomet* / *bahumet(a)* berbak direla-eta, jatorri berekoak izan litezke edo-ta *Baphomet* hitzarekin egindako hitz-gurutzaketa. Hitz horren jatorriari buruz hainbat espekulazio egin izan dira: Tenple-Ordenaren zaldunek erabiltzen zuten *Baphomet* sinbologia. Elezahar horren jatorria eta beraren erlazioa tenplarioekin guztiz iluna da, baina Gizateria irudikatzeko erabili omen zen; beraz, beraren burua gizateriaren animalia atala irudikatzen zuen. Buruaren gainean zuen sugarrak gure animalia indarraren bitartez lortu behar dugun indarra irudikatzen omen du. Buru bizarduna zenez gero, batzuek uste dute Mahoma profeta irudikatzen zuela eta hori zela-eta, tenplarioak herexetat hartu bide zituzten:

Baphomet (Erdi Aroko latinez: *Baphometh*, *Baffometi*; okzitanieraz: *Bafometz*), Bafomet, Bafumet, Bafometo edo Baffometo ere deitua, Tenpluko Ordenarekin lotutako idoloa da, denboraz, Kristautasunaren aurkako ikur bihurtu dena. Satanismoak zein Satanen Elizak sinbolotzat hartzen dute.¹⁴

¹⁴ <https://eu.wikipedia.org/wiki/Baphomet>

Nolanahi ere, ez bairik gabe, haize-zirimola horrelako irudiekin estekatzeak horrelako haize moten izaera mitologikoa uzten du agerian, nolabait gai magikoak sorrarazten omen dituelako.

Bestalde, aztertu beharreko beste berba interesgarri bat *kaskarot* dugu. Corpusean bi aldaera dira; *askaot* (BN-Jutsi / Larzabale: *EHHA*) eta *kaxkabot* (Z-Pagola: *EHHA*). Hitzok bi jatorri izan litzakete: alde batetik, *Kaskarotak*, Lapurdiko kostaldean, bereziki Donibane-Lohizune, Ziburu eta Urruñan, bizi zen jatorri ezezaguneko giza talde bateko kidea. Teorien arabera, ijitoen azpialde batekoak, hots, mairu eta ijitoen nahasketatik sortuak edo agot eta ijitoen nahasketatik sortuak lirateke. Gizonezkoak arrantzaleak eta emakumezkoak arrain-saltzaileak izaten ziren. Beren lege eta ohitura bereziak zituzten: ezkontza, salerosketa eta harremanetan arau zehatzak zituzten, beren eliza zeukaten, hitz eta esamolde bereziak. Beraien ezaugarrien artean dantzarako zaletasuna eta kolore biziko jantziak dira aipagarri. Ez ziren nomadak, eta, gutxiengo taldea izan arren, integratuta bizi ziren lapurtarren artean. Gaur egun, ez dira besteengandik bereizten. Beste aldetik, *astarot*, debrua adierazteko izenatariko bat da. Horietaz gain, *satarra* (B-Orozko: *EHHA*) hitzak ere baliteke Atarrabirekin loturarik edukitzea. Jakina denez, Atarrabi edo Axular Mariren eta Majuren umea da (Barandiaran, 1983: 107). Zintzoen ahaide da. Etsairen (Txerren) ikasle izan da, Mikelats bezala. Itzalik gabe bizi omen zen, baina bizitzako azken unetan berreskuratzea lortu zuen.

Gainerako terminoek ere horrelako izaera islatzen dute, dudarik gabe: *akelarre* (N-Etxalar: *EHHA*), *deabruaren* (*deabruian*) *lana* (L-Mugerre: *EHHA*), *iratxo-haize* (*iretxoaxe*, B-Leioa: *EHHA*), *mari txiker* (B-Bolibar: *EHHA*), *sorgin-haize* (*sorgiñaxe*, besteak beste, B-Sondika: *EHHA*) eta *trabonarro* (B-Ondarroa: *EHHA*). Azken hau, agian, bitxienatarikoa da, zeren, gehienetan, aurreraxeago ikusiko denez, itsas aldean gertatzen diren haize-zurrunbiloak adierazteko erabiltzen baita. Bizkaiko kostaldeko biztanleen adimen-begiaren arabera, “jatun handia” ere esan nahi du; hortaz, haize-zirimolaren irudi honek badu nolabaiteko kutsu mitologikoa. Gainerako formek, egun guztiz bizirik, gogorarazten digute mota horretako haizea naturaz gaindiko izaki bati esker sorrarazten dela, dela deabrua, dela iratxoa, dela Mari, dela sorgina. Ildo beretik, ondoko kulturetan ere badirudi haize-zurrunbiloek eduki magikoa ere badaukatela eta sinesmen asko hedaturik daudela. Frantzia aldean hauxe topatu da herrialdez herrialde; *Tourbillonei* buruzko sinesmenak (Chassany, 1989: 365):

- Le démon s’efforce d’entraîner quelqu’un en faisant, sur son passage, de gros dégâts (Côtes-du Nord).
- Satan soulève le foin de prairies et ne disparaît qu’après avoir déraciné des arbres (Poitou).

- Lutin (iratxoa) (Haute Bretagne).
- Le tourbillon d'été est conduit par la reine des sorcières, Héroguias (Guernesey), il contient un sorcier (Haute Bretagne).
- Groupe de fées qui changent de demeure (Basse Bretagne).

Tourbillonen jatorriari buruz (Chassany, 1989: 365):

-Ils sont souvent attribués à des esprits, des follets, des lutins, à des dragons qui balayent avec leur queue ce qui leur fait obstacle.

Beraz, ikerlan honetan zehar usu adierazi eta adieraziko denez, euskararen lexiko kulturalak adierazleetan ez ezik, adierazietan ere antzematen da espazio kultur zabal samarra partekatzen dela beste hizkuntza eta kultura batzuekin. Hori dela-eta, ez da batere samurra gertatzen erabakitzea adierazi batzuen jatorria non datzan, edo ez ote diren antzinako zenbait herrik elkar-banatzen zituzten sinesmenak.

Seigarren multzoan, ustez, onomatopeietan oinarriturik dauden terminoak sailkatu dira. Lehenengoak *burrunba(da)* hitzarekin zerikusia dute; ezaguna denez, hitz horrek hotsari lotuago dauden beste adiera batzuk baditu. Izan ere, trumoiak ateratzen duen zaratotsari toki batzuetan *burrunba* esaten zaio. *Haize-burrunba* (*aize-burrunba*, lapurtera: *DVEF*) ere haize-bolada adierazteko erabiltzen da. Sail honetan dagoen hurrengo berba ere guztiz loturik dago soinuari, *firindolaka* (L-Hazparne: *EHHA*); adibidez, sokaren *firinda* edo *euliak firrindan*. Hurrengo sailean, badira zenbait termino *t, b, f, r, k...* kontsonanteak partekatzen dituztenak: *tiribiti* (*zuberera*: Harriet *apud OEH*), *tirigitu* (*DRALV*), *tirurika* (*DRALV*) *firurika*, *zirurika*, *tirurika* (*BN-Uharte-Garazi*: *EHHA*). Beste sail batean *t, x, m, l, z* kontsonanteak gailentzen dira: *txaramel* (N-Baztan: *EHHA*), *xiramilla* (G-Oiartzun: *EHHA*), *zirimola* (BN-Aldude-lapurtera, *DVEF*). Beste bi hitzek ere badute loturarik, *zurringilo* (G-Getaria: *EHHA*) eta *zurrunbilo* (*DRALV*). Beste berba batek ematen du gaztelaniarekin duela lotura, *torromoto* (N-Etxarri / Larraun: *EHHA*), eta azkenak *-zurru- haize* (*surrupuaxe*, B-Urbe-Etxebarri: *EHHA*)-, euriarekin erabiltzen direnak oroitarazten ditu: gorago aipatu bezala, *zurripita*, *zurripika* hitzak zaparrada handiak adierazteko erabiltzen dira. Antza denez, *zurru(t)* osagaidun berbek isurkiekin daukate lotura estua. Beraz, zer dela-eta, *zurru- haize*?

Azkenik, azterturiko sailetan sartzen ez diren zenbait terminoren azterketa egingo da: *bortzaize* (L-Urketa: *EHHA*), *borroka* (*burruka*, G-Oñati / Araotz: *EHHA*), *jaso* (*vaso*, B-Elantxobe: *EHHA*), *ziributzi* (*siributzi*, B-Zeberio : *EHHA*) eta *ziorbilo* (*ziorbillo*, G-Oiartzun: *EHHA*). *Bortzaize* edo *bosaize* dela-eta, baliteke *bortz* (edo *bost*) + *haize* elkarketa izatea. Hala ere, arraro samarra da *bostaize* ez izatea; izan ere, *-t* hori ez ohi da galdu. Euskal hiztunaren

adimenaren begiak, zirimolak gertatzen direnean, ikusten du nola gurutzatu eta zeharkatzen diren haizeak. *Bost* zenbakiak ugaritasuna adierazten du; beraz, haize ugarik talka egiten dutela esan nahi du horrelako elkarketak; *borroka* hitzak ere, haizeen artean horrelako zerbait jazotzen dela ematen du aditzera. Aurreko kasuan bezalaxe, talka egiten bide dute haizeek; *jaso* barbari buruz, esan beharra dago haizeak altxatu edo jaso egiten direla; beraz, izendapen horrek “haizea jasotzeari” egiten dio erreferentzia; *ziributzi* berba Bizkaiko Zeberio herrian erabiltzen dena, jatorri ezezagunekoa da. *Siributzi* (EHHA) idatzita agertzen delarik ere, uste da *ziributzi* dela. Izan ere, *ziri-* sarri azaltzen da hainbat berbatan: *zirimiri*, *zirimola*... Hala eta guztiz ere, bigarren osagaia *-butzi* zer den ez da jakiten. Azkenik, *ziorbilo* berba dela-eta, beharbada, bizpahiru berbak egin lezakete bat: ez litzateke baztertzekoa, *zior*-ek *bi(h)ur* edo *bi(h)or* hitzekin zerikusia izatea eta *zurrumbilo* terminoarekin nahastea. Goraxeago azaldu denez, *(h)aize bi(h)ur* edo *bi(h)or* ere hitzetik hortzera erabiltzen dira zirimola adierazteko. Maiz askotan, hiztunek hitzak nahasteko joera dute beste irudi batzuk baitauzkate gogoan. Adibidez, *trumoia* adierazteko *ihortziri* (DRALV) berba ere bada, hau da, badirudi hiztunek *ihortziri* eta *ithurri* hitzak nahasi egin dituztela. Beraz, hiztunaren irudimena ere izaten da erabakigarri hitzen bilakaeran.

Taula hau aztertzen bukatzeko, itsas aldean gertatu ohi diren haize-zirimolen izenen berri emango da. Horiek ekaitz-hodei batetik jaitsirik, itsas gainarekin bat egiten dute. Goitik beherakoak dira, eta ez dira oso handiak izaten. Corpusean bildutako datuen arabera, honako termino hauek ditugu: *bangera* (G-Hondarribia: DVEF) / *mangera* (G-Donostia: DVEF), *ixkidu* (*ixkiidu*, *ixkuidu*: DRALV), *traganarru* (B-Lekeitio: Lekeitioko lantaldea, 2001: 26) / *kabanarro* (G-Zarautz: Anjel Lertxundi berriemailea) / *trabañarro* (G-Getaria: Anjel Lertxundi berriemailea), *tragarroi* (DVEF) eta *tronpa* (DVEF). Horiek haize-zirimola ez ezik, haizeak zurgatzen duen ura eta bihurtzen den ur zutabea ere eman nahi bide du aditzera. Horrela dago jasota Lekeition: “Ur zirimolea da, ur zutabearen antzekoa. Itsasotik ura hartu edo xurgatu egiten da, eta gora igoten da biraka” (Lekeitioko lantaldea, 2001: 26).

Beraz, adimen begitik abiaturretik, bi fenomenok egiten dute bat: bata, haizea, eta bestea, beronen eraginez sortzen den ur zutabea. Adibidez, itxuraz gaztelaniatik hartutako *mangera* berbak, gaztelaniaz, *manguera*, DRAEren arabera hauxe esan nahi du: “Columna de agua que se forma en el mar en un torbellino atmosférico”. Berdin gertatzen da gainerako terminoekin; izan ere, haize-zurrumbiloen eraginez, itsas aldean eratzen diren ur-zutabe ikusgarriak dira; *tronpa* hitzak ere ematen du gaztelaniatik datorrela zeren, *mangueraz* gain, *tromba marina* ere erabiltzen baita; *ixkidu* edo *ixkuidu* terminoen jatorria ilun gertatzen da: gaur egun ez dauka inongo hitzen antzik; *traganarru* eta *tragarroi* berbak hasierako osagaia *traga-* elkarbanatzen

dute. Ziur asko gaztelaniazko *tragar* aditzarekin dute zerikusia, baina, gaztelaniaz, agidanez, horrelako hitzik ez da. Gorago esan bezala, hiztunen adimen-begiak nolabaiteko izaera mitologikoa eransten die horrelako hitzei. Aipatu bezala, Bizkaiko kostaldean, *traganarru* berbak jatun handia ere esan nahi duenez, irudi du, itsas aldean gertatzen denean, edozer irensteko modukoa dela, hain da beldurgarria.

4.3.2. Kantitatea

Haize-bolada						
Haize-biro	Haize-bolada	Haize-boluzio (aixe bolusidxa, bulusio)	Haize-borraskada (aixe borraskadie)	Haize-burrunba (aize burrunba)	Haize-marruma	bufaka/ufada
Haize-erauntsia						
Afrontu (afruntu)	Orroa	Rafala	Tirigitu	Tornada	Txirimli(o)	
Urakana	Zirimola	Zurrunbilo (zurrunbuillu)	Haize saila	Haize saila		
			Haize-buhako Haize-erauntsi Haize-mahoma	Haize-uhar Haize-ukaldi (aizeukhaldi) Haize-zirimola	Haizeketa (aizeketa) Haizetzar	
20. taula. Haizea: Kantitatea						

Bigarren nozia kantitateari dagokio. Hemen sartu dira bat-bateko haize-kolpea gertatzen delako, nahiz iraupen laburrekoa den. Kantitatearen inguruko bi kategoria bereiztu dira, Haize-bolada eta Haize-erauntsia. Lehenengoa dela-eta, “haize bolada, haize-erasoa da, haizetea, normalean ez oso luzea” (*MetHizt*, 1988). Beraz, adimen-begiak bi kontzeptu sortu arren, ugaritasuna eta iraupena, lehenengoari eman zaio garrantzia, *haize-bolada* zer den adierazteko. *Ufada* (Landa, 2003) terminoa izan ezik, gainerako guztiek *haize* hitza lagun dute elkarketan. Gogora dezagun, haizea bera izendatzeko berben artean, *bufaka* (L-Mugerre: EHHA) eta *ufako* (BN-Ezterenzubi: EHHA) bazirela; beraz, badirudi *ufada* familia berekoa dela, izaera onomatopeikoa duena. Horrelako izaerakoak dira *haize-burrunba* (BN-Aldude, zaraitzuera / lapurtera: DVEF) eta *haize-marruma* (BN-Hazparne: DVEF) ere, zarata, hain zuzen ere, adierazten dutenak; beste elkarketa bik, haize-boluziok (*aixe bolusidxa*, B-Bakio: Gaminde, 1999) / (*bulusio*, B-Gatika: Gaminde, 1997) eta *haize-borraskadak* (*aixe borraskadie*, B-Arrieta: Gaminde, 2001a), ematen du latinetik edo gaztelanitik datozela; agian, *eboluzio* eta *borrasca* eleekin zerikusia dute. Latinez, *evolvo* aditzak biratu edo jiratu esan nahi du, eta, jakina, haize-zirimola jira-biraka ibiltzen da. *Borrascada* berba galegoz ere erabiltzen da: “Así llaman en Galicia a la lluvia fuerte. El término hace alusión a las borrascas, que habitualmente

riegan con generosidad esa región abierta al Atlántico, situada en el noroeste de la península ibérica” (Viñas, 2019); *haize-biro* (B-Jatabe: Gaminde, 2002) elkarketan bigarren osagaiak, *birok*, biratu berbarekin zerikusia daukala ematen du. Eta kategoria honi izena ematen duena, *haize-bolada*, besteak beste, (B-Ispaster / erronkaria / G-Arrasate / gipuzkera / goi-nafarrera: *DVEF*) latinezko *bullā* (“burbuila” edo “bola”) hitzari loturik bide dago eta bigarren osagaitzat *-(k)ada* atzizkia.

Bigarren kategoria, Haize-erauntsiari dagokio. Aurrekoetan bezalaxe, bitan banatzen da hau: *haize* osagaia duten berbak eta ez dutenak. *Haizedunak* direla-eta, honako hitz-elkarketak daude corpusean: *haize-buhako* (BN-Arruta: *EHHA*), *haize-erauntsi*, besteak beste, (N-Luzaide: *EHHA*), *haize-mahoma* (*DRALV*), *haize-uhar* (BN-Armendaritze: *EHHA*), *haize-ukaldi* (*aizeukhaldi*), besteak beste, (BN-Uharte-Garazi: *EHHA*) eta *haize-zirimola*, besteak beste, (BN-Uharte-Garazi: *EHHA*); gainerako beste bi hitzek, berriz, bi atzizki erabiltzen dituzte: *haizeketa* (*aizeketa*, *OEH*) eta *haizetzar* (L-Bardoze: *EHHA*). Hitz horiek haizearen ugaritasuna agertzen dute. Bestalde, *erauntsi*, *mahoma* eta *zirimola* terminoak aurreko kategorian, *haize-zirimola* adierazteko erabiltzen dira; *buhako* berbak haizearen kolpe handia ematen du aditzera, baita *ukaldi* eleak ere; *uhar* hitza arrunta da beste eremu batean, *uholde* modukoa esan nahi du; beraz, ugaritasun kontzeptua darama bere baitan, narotasuna, alegia. Bestalde, haize gabeko hitzei dagokienez, honako hauek dira datutegian: *afrontu*, *orrora*, *rafala*, *tirigitu*, *tornada*, *txirimili(o)*, *urakana*, *zirimola* eta *zurrumbilo*. *Afrontu* (besteak beste, B-Leioa: Gaminde, 2001b) termino polisemikoa da eta haizearen izaera nozioan azalduta dago zenbat adiera dituen eta nondik datorren; *orrora* berba (*DRALV*) baliteke *orro* onomatopeiarekin zerikusia izatea. Izan ere, *haizearen orroa* ere erabiltzen da, haizeak jotzen duenean ateratzen duen zarata da, hain zuzen ere. Horretaz gain, zalantzarik gabe, *ekaitzaren orroa* adierazgarriena da; *rafala* hitza Nafarroa Behereko Arruta herrian erabiltzen da (*EHHA*); hori dela-eta, agian, frantsesezko *rafale*–*bolada*–berba mailegatu dute hiztunek haize erauntsia adierazteko; *tirigitu* hitzak (*DRALV*) zirimola adierazten dutenen antz handia du; adibidez, *tiribiti* (zuberera: *DVEF*), hortaz, beraren izaerak onomatopeikoa dirudi; *tornada* (Z-Pagola: *EHHA*) eta *urakana* hitzak (N-Abaurregaina: *EHHA*) ondoko erdaretatik hartutako maileguak bide dira; azkenik, *txirimili* (N-Lesaka: *DVEF*) / *txirimilio* (G-Orio: *DVEF*), *zirimola* (BN-Aldude / lapurtera: *DVEF*) eta *zurrumbilo* (*zurrumbillu*, N-Erronkari: *DVEF*) terminoak *haize-zirimola* adierazteko ere erabiltzen direla-eta, aurretixeago daude azalduta; izan ere, eremu bera partekatzen duten hitzak sarritan polisemikoak izaten dira.

4.3.3. Kalitatea

Haizearen nolakotasuna		Haizea nola dabilen eta nolakoa den		Haize bolada beroa
Aldakorra Birako haize Aldekoa Haizealde Aurkakoa Aurre-Haize Branka-Haize Haize-begi Luia Beroa Afoin Bafaña Haize erre (aise-erre) Haize larri (axe larri) Haize ustel zepel Bortitza Haize gose (aize gose) Aldaize Bidasoi Haize beltz Haize muthiri Krutxate Egokia (belarentzat) Bela-haize (belaize) Gogorra Haizetza (aixetzie)	Goibela Haize penatu (aize phenatü) (oso) Hotza Abra (gaizto) (gogor) Antsin Bagurrin Baionako haize Bisuts (bisots) Haize gorri (aizegorri), Haizemin (aizemin) Haizetto Horma-haize (Ormaize), Laino-haize (laiñaize), Lei-haize (Leiaize) Hozmin (ozmin) Intziar Oispel Leuna Brisa Enbat Firi-firi Haize-airu	Nola dabilen Ahul Apal Azkarki Bizi Boladaka bizi antzean Geldi Geldo Gogor Harro Indartsu Nora ezean Suabe Zakar	Nolakoa den Bortitza Erregarri Gordin Laroi (larhoi) Petral Sastar Trakets Zital Zorrotz	Haize-boluzio (aixe bolusidxoia) Haize fal-fala
21. taula. Haizea: Kalitatea				

Hirugarren nozioa kalitatea da. Horretan hiru kategoriatan sailkatu dira corpusean aurkituriko terminoak: Haizearen nolakotasuna, Haizea nolakoa den eta Nola dabilen eta haize bolada beroa.

Haizearen nolakotasunari dagokionez, honako azpi-kategoria hauetan banatu da: Aldakorra, Aldekoa, Aurkakoa, Beroa, Bortitza, Egokia (belarentzat), Haizerik eza, Gogorra, Goibela, (Oso) hotza, eta Leuna.

Lehenik eta behin, Aldakorrari dagokionez, *birako haize* (B-Lekeitio: *DVEF*) dugu; izan ere, horrelako haizea bira eta bira ibiltzen da; aldeko haizea denean, *haizealde* (*DRALV*) terminoa erabiltzen da, berezko izendapena ematen duena. Bestalde, aurkako haizea adierazteko, *aurre-haize* (*DRALV*), *branka-haize* (ezin aurkitu jatorria), *haize-begi* (Lhande,

1926) eta *luia* (Oihenarte *apud OEH*) dira. Haize kontuetan, itsasoak berebiziko garrantzi handia du, eta horren isla hemen azaltzen diren berbak; adibidez, *branka* eta *luia* marinelek erabilitako terminoak dira. Horien jatorria ez dago batere garbi. Manuel Agud eta Antonio Tovar (1989-1995) hizkuntzalariek honako azalpen hauek ematen dituzte:

Branka ‘proa de un buque’. Lhande compara erróneamente, según Corominas, el occit. *brancade*, pues hay que pensar en el esp. *branque* “roda”, de origen normando-escandinavo (norm. ant. *brant* “proa”), que Cano 1611 y el Voc. Marítimo de Sevilla de 1698 (cita de Corominas 1509) dan como “vizcaíno”; es decir, vasco. Sin embargo, su aspecto es románico. Cf. *brankorde*, *brankaburdiña*, “codaste”, coraza de hierro que tiene la lancha por delante, para afianzar la quilla”. Corominas 4, 946 sugiere con Mich. BAP 10,10, la posibilidad de que fuera el término vasco primero que el castellano. *Luie* “acción de bordear”. Para Lhande de ant. fr. *lover* “enroscarse”, danés, “id”. (?). (Agud-Tovar, 1989-1995: 172)

Beste bi elkarketak *haize-begi* (Lhande, 1926) eta *aurre-haize* (ezin jakin non jaso) dira. Haize-begi elkarketa itsas aldeko aurkako haizea ez ezik, oso toki haizetsua ere adierazteko ere erabiltzen da. *Begi* hitza, hain zuzen ere, nahiko arrunta termino etnometeorologikoetan: *eguzki-begi* (Estornes, 1997), *elur-begi* (*elhurbegi*: DRALV), *haize-begi* (besteak beste, *aisebegixak*, G-Oñati: Izagirre, 1959), *jainkoaren begi* (G-Berastegi: Barandiaran 1972).

Bigarrenik, Haize beroa dela-eta, honako berba hauek dira corpusean: *afoin* (DVEF), *bafaño* (G-Zumarraga: DRALV), *haize erre* (*aise-erre*, G-Oñati: Izagirre, 1959), *haize larri* (*axe larri*, B-Gatika: Gaminde, 1997) eta *haize ustel zepel* (Elhuyar Hiztegia). Lehenengo biek ez dute izenondorik behar berotasuna adierazteko; izan ere, adimen-begiak *afoin* haize bero-beroa ematen du aditzera, eta *bafaño bafada* edo *bufadari* loturik dago, hau da, haize beroko bolada. Gainerako hitzek izenondoa daukate bere ondoan berotasuna aditzera emateko: *erre*, *larri* eta *ustel zepel*.

Hirugarrenik, Haize bortitzari buruz ondoko hauek dira corpusean: *haize gose* (*aise gose* BN-Oztabarre: DVEF), *aldaize* (G-Ataun: DVEF), *bidasoi* (B-Errigoiti / G-Bedaio, Zumaia: DVEF), *haize beltz* (DRALV), *haize muthiri* (Lhande, 1926) eta *krutxate* (N-Uztarroze: DVEF). *Haize gose* elkarketa bitxia da; izan ere, adimen-begiaren arabera, badirudi haizea gose dela, eta, horregatik, gosearen gosez, antsietateak ziztaturik, bortitz bilakatzen dela; *aldaize* berba *mendebal haizea* adierazteaz gain, haize bortitz edo zakarra adierazteko ere erabiltzen da. Agian, hiztun batzuen adimenean bi kontzeptuak nahasten dira, hau da, “mendebaltasuna” eta “bortizkeria”. Hori dela-eta, herri baten kokapenak, azken batean, orografiak, zerikusi handia du izendapenetan. Herri batzuetan haizeak toki jakin batetik jotzen duen gehientsuenetan zakarra izaten da. *Aldaize* hitzaren jatorriari dagokionez, ematen du *alde* + *haize* dela; *bidasoi* hitza goraxeago ikertu dugu, *haize-bidasoi* elkarketan, hain zuzen ere, *haize-zirimola* adierazteko; *haize beltz* dela-eta, aipatu beharra dago haizeek sarritan koloreak lagun izaten

dutela, baina, zein tokitan erabiltzen den egundoko garrantzia dauka esanahi desberdina dauka eta. Kasu honetan *beltz* izenondoak bortitza adierazten du, baina beste zenbaitetan, hego, ipar edo mendebal haizea; haize bortitzak beste adjektibo bat ere hartzen du, *mutiri*; izan ere, berba hau *bortitz* izenondoaren sinonimoa da. Aurreratxoago aipatuko denez, aditz ere bilakatzen da, *mutiritu*, “haizea atera duela” azaltzeko; *krutxate* hitza baizik ez dugu falta sail honi amaiera emateko. Termino hori Erronkariko Uztarroze herrian erabiltzen zen eta itxura denez irudi polita osatzen du bere baitan biltzen dituen osagaien arabera, *k(g)urutze + ate*. Ezaguna denez, Erronkari aldean *ate* hitzak mendi arteko pasabidea adierazten zuen; adibidez, “otsate”: “otsoen pasabidea”. Beraz, haize bortitza horrelakoen artean sortuko bide zen.

Laugarrenik, Belarentzako haize egokia dela-eta, *bela-haize* (*belaize: DRALV*) hitz-elkarketa daukagu corpusean.

Bosgarrenik, Haize gogorra, haize bortitzetik bereiztu bada ere, beraren aldagarritzat har liteke nonbait. Corpusean hitz bakarra aurkitu da, *haizetza* (*aixetzie*, B-Arrieta, Jatabe: Gaminde, 2001a-2002).

Seigarrenik, Haize goibela edo tristea denean, hiztunek adimen-begiaren bitartez, *haize penatua* (*aize phenatü*, zuberera: Lhande, 1926) irudi polita erabilarazten du adimen-begiak iparraldeko euskalkietan, Bortetatik etortzen den haizea izendatzeko.

Zazpigarrenik, Haize hotza edo oso hotza irudikatzeko honako berba eta elkarketa hauek daude corpusean: *abra* (B-Arratia, Gernika, Markina: *DVEF*) *abra gaizto*, *abra gogor* (*abra gaistúa*, *abregogorra*, *abria*, G-Oñati: Izagirre, 1959), *antsin* (B-Markina, Ondarroa: *DVEF*), *bagurrin* (goi-nafarrera: Iribarren, 1952), *Baionako haize* (G-Oiartzun: *DRALV*), *bisuts* (*bisots*, B-Galdakao, Txorierra / G-Berastegi: *DVEF*) *haize gorri* (*aize-gorri*, G-Oñati: Izagirre, 1959) edo *haizemin* (*aizemin*, goi-nafarrera: *DRALV*), *haizetto* (*aizetto*, zuberera: Harriet *apud OEH*), *horma-haize* (*ormaize*, N-Baztan: Izeta, 1996), *laino-haize* (*laiñaize*, bizkaiera: *DVEF*) *lei haize* (*leiaize*, B-Arratia: *DVEF*), *hozmin* (*ozmin*, N-Erronkari: Estornes, 1997), *intziar* (B-Galdakao: *DVEF*) eta *oispel* (goi-nafarrera: Iribarren, 1952). Berba horiek guztiak bi multzotan bana litezke: batetik, haizedun elkarketak eta bestetik, gabeak. Lehenengoei dagokienez, *Baionako haizeak* azaltzen du haizearen jatorria; beraz, nolabait espazioaren nozioarekin ere zerikusia badu. Badira beste horrelako batzuk, sorburuan oinarriturikoak, haizearen nolakotasuna ez, baina, bai, haizearen norabidea adierazten dutenak, adibidez, *frantziparra* (G-Oñati / Araotz: Izagirre, 1959); *haize gorri* elkarketan kolore gorriak haizearen hoztasuna agertzen duela dirudi. Oro har, termino etnometeorologikoetan, gorriak zerbaiten gordintasuna ematen du aditzera; *haizetto* hitzak berekin *-tto* txikigarria badarama ere, ez du haize leuna edo brisara esan nahi, haize hotza baizik. Sarritan adimen-begiak txikigarritasunaren bitartez handitasuna

adierazi ohi du. Bukatzeko, azken haizedun elkarketak, *horma-haize*, *laino-haize* eta *lei-haize* dira, hirurak antzekoak; *lei* berbak berak agertzen du haizearen kalitatean, hotz-hotza, zalantzarik gabe. Berak ipar-ekialdeko haizea ere adieraz dezake, gehienetan oso hotza izaten dena; *laino-haize* elkarketak lainoaren batera dabilen haize hotza esan nahi du; *lei-haize* elkarketak haize hotza ez ezik, ipar-ekialdeko haizea ere adierazten du, *horma-haizeak* bezalaxe.

Haize hitz gabekoei dagokienez, lehenengo elkarketa *abra gaizto* edo *gogor* da. Badirudi ez dagoela zalantzarik *abra* berba latinetik datorrela. Manuel Agud eta Antonio Tovar hizkuntzalariek (1989-1995) honako azalpen hau eman dute:

ABRA, HABRE “estuario”. Es la forma románica. Es interesante la conservación de la aspirada del holandés *havene*, legada a través de fr. *havre*. Es quizá un sentido figurado el del V “lugar airoso, manifiesto, despejado”, “la misma intemperie”. Cf. *abraize* V “viento del abra, del Norte”. (Agud-Tovar: 1989-1995: 289)

Corpusean, *abra* berbaz gain, *abraize* eta *abrako haize* (*abarako aixie*) ere badira. Denak Bizkai aldean erabiltzen dira, eta ematen du kideko esangura daukatela; izan ere, *abraize* ipar-haizea da Mundaka aldean (*DVEF*), baina geroago jasotako datuen arabera, *abrako haize* ez da iparra, itsasertzeko haizea baizik: “haize jenerala ez dena, kasu baterako itsasadarretik behera datorren terrela. Bertoko kostako haizea, ez da norteko haizea” (Barrutia, 2000).

Bestalde, *antsin* berbak, haize oso hotza edo Azkueren hitzetan (*DVEF*), “cierzo, viento frío”, irudi du *antzigar* eta beronen saileko hitzei atxikita dagoela. Aurreratxoago aztertuko dugu sail osoa, goitik behera.

Bagurrin terminoa (goi-nafarrera: Iribarren, 1952) haize hotza, “cierzo” adierazten du; oso irudi interesgarri bat osatu du adimen-begiak: *bagoa* + *urrin*, hau da, “pagotiko usaina”. Horrelako haizeak jotzen duenean, pagoen usaina hedatzen omen da. Sainz Pezonaga ikertzailearen arabera, Nafarroako erdararen erabiltzen da gaur egun ere¹⁵. Horretaz gain, *bisuts* berba ere polisemikoa da. Goraxeago esplikatu denez, beharbada, **brisa+hauts* elkarketatik etor liteke. Corpusean jasotako berba *bisots* da (B-Galdakao, Txorierrri / G-Berastegi: *DVEF*); beraz, agian, *bisuts* berba *hotz* terminoarekin nahasi da. Izan ere, analogia motore ezin ahalmentsuago da hitzak bilakarazi eta berba berriak sorrarazteko; *hozmin* (*ozmin*: Estornes, 1997) berba, Erronkari haranean erabilitakoa, polisemikoa ere bada; haize oso hotza adierazteaz gain, honako adierak ere baditu: 1. Hotz sarkorra. 2. Hotzak atzamarretan eragindako hotza. 3. Trumoia. Horren arabera, badirudi, jatorri desberdinetako berbek bat egiten dutela adierazle bera emanez.

¹⁵ *Léxico euskérico en el habla de la Ribera de Navarra*. <http://www.nabarralde.com/dok/gaiak/ondarea>

Intziar berbak, bestalde, agian *antzigar* hitzarekin ere badu nolabaiteko antzekotasuna. Ezbairik gabe, hoztasunarekin lotura zuzena du. Izan ere, *intziar* terminoak (B-Galdakao: *DVEF*) honako adierak ditu: 1. “Haize oso hotza”. 2. “Izotz” edo “lei beltza”. 3. “Antzigarra”. Hortaz, baliteke *antz-* *intz-* bilakatu izana, beste hitz bat tarteko zegoela, agian *i(hi)ntz*.

Azkenik, haize hotzaren sailari amaiera emateko, *oispel* (goi-nafarrera: Iribarren, 1952) hitza dago aztergai. Horrek ipar haize, “cierzo” oso hotza esan nahi du, euria edo elurra egitekotan egoten denean. Ziur asko *ospel* berebarekin ere badauka zerikusia. Aroari dagokionez, honako esanahiak ditu: 1. Euria, hotza eta haizea egiten duen eguraldi kaskarra. 2. Eguraldi epela. 3. Eguraldi pisua, geldia. Jatorria **ortz(i)* + *bel (tz)* elkarketan izan liteke. Nolakotasunaren azken saila haize leunari buruzkoa da, kasik igartzen ez den haizetxoa. Bertan honako hitz hauek dira: *brisa* (Landa, 2003), *enbat* (G-Itziar, Zumaia, L-Senpere: *DVEF*), *firi-firi* (*DRALV*) eta *haize-airu* (*DVEF*). *Brisa* elea dela-eta, goraxeago egin da hitzaren azterketa *bisuts* terminoa xehatu denean. Hainbat hitz etnometeorologikoren antzera, polisemikoa da; honako adiera hauek dauzka, haize leunaz gain: 1. “Antzigarra”. 2. “Goizeko lanbroa”. 3. “Tximistargia”.

Bestalde, ez dago dudarik *enbat* berba ere polisemikoa dela. Bere jatorria erromanikoa da. Gaztelaniaz *DRAE*ren arabera hauxe esan nahi du *embate* hitzak:

(De *embatirse*). 1. m. Golpe impetuoso de mar. 2. m. Acometida impetuosa. U. t. en sent. fig. 3. m. *Mar*. Viento fresco y suave que reina en el verano a la orilla del mar. 4. m. pl. *Mar*. Vientos periódicos del Mediterráneo después de la canícula. (*DRAE*)

RAM (Revista del aficionado a la meteorología) aldizkarian argitaraturiko artikulu batean *enbat* hitzaren berri ere ematen da:

En Mallorca, a la brisa diurna (de mar a tierra) le llaman *embat*, un viento moderado y fresco de hasta 15 nudos que en verano hace su aparición en las costas del Mediterráneo, donde recibe otros nombres como *virazón* o *marinada* (Cataluña). El término *virazón* se usa también para expresar un cambio brusco en la dirección del viento. La palabra *embat* es un localismo que tiene el mismo origen que el término *embata*, que es la brisa del SW que sopla en Canarias como consecuencia del giro del alisio a sotavento de las islas. Por otro lado, *enbata* (o *galarrena*) es la forma común de llamar a la galerna en el País Vasco, mientras que en la costa cántabra se refieren a ella como un *rabazo* o un *rabo en tierra*. (Viñas, 2006: 31)

Euskaraz jasotako datu guztiak kontuan harturik, honako adiera hauek guztiak dauzka *enbat* hitzak:

1. Ekaitza. 2. Galarrena. 3. Lehorreko itsasoa. 4. Ipar-ekialdeko haizea. 5. Haize leuna. 6. Mendebaldeko haizea. 7. Hodeia. 8. Lainoa. 9. Behe-lainoa. 10. Laino iluna. Badirudi “galarrena” adiera nagusia dela; hori dela-eta, ordurako, galarrenak aztertzen direnerako, utziko dugu hitz interesgarri honen nondik-norakoa.

Firi-firi izenondoak onomatopeikoa ematen du. *Firi(n)-fara(n)* terminoarekin zerikusia du. Batak haize leuna adierazten du eta besteak haize leunaren mugimendu leun eta epela; sail honi amaiera emateko, *haize-airu* dago corpusean (*DVEF*); ez du beste informaziorik ematen haren jatorriaz jabetzeko.

Bigarren kategoria Haizea nola dabilen eta nolakoa den da. Izenburuaren arabera, bi multzotan banatu da. Lehenengoari dagokionez, hau da, nola dabilen haizea, honako termino hauek dira corpusean: *ahul* (Landa, 2003), *apal* (Landa, 2003), *azkarki* (Landa, 2003), *bizi* (Landa, 2003), *boladaka bizi antzean* (Landa, 2003), *geldi* (Landa, 2003), *geldo* (Landa, 2003), *gogor* (Landa, 2003), *harro* (Landa, 2003), *indartsu* (Landa, 2003), *nora ezean* (Landa, 2003), *suabe* (Landa, 2003) eta *zakar* (Landa, 2003). *Nora ezean* lokuzioa kenduta, gainerako guztiak abiadura kontzeptuaren arabera, beste bi multzotan sailka daitezke: batetik, geldotasuna adierazten dutenak: *ahul*, *apal*, *geldi*, *geldo* eta *suabe*; bestetik, bizitasuna adierazten dutenen artean ondoko hauek: *azkarki*, *bizi*, *boladaka bizi antzean*, *gogor*, *harro*, *indartsu* eta *zakar*.

Bigarren multzoa dela eta, hots, Nolako haizea dabilen, honako izenondo hauek daude corpusean: *bortitza* (Landa, 2003), *erregarri* (lapurtera: Mokoroa, 1990), *gordin* (gipuzkera: Mokoroa, 1990), *laroi* (zuberera: Lhande, 1926), *petral* (Landa, 2003), *sastar* (Landa, 2003), *trakets* (Landa, 2003), *zital* (Landa, 2003) eta *zorrotz* (G-Eibar: Mokoroa, 1990). Guztiek konnotazio negatibo samarra daukate; adibidez, haize bero-beroa, *erregarri*, baina hotz-hotza, *gordin*, *laroi* eta *zorrotza*; haize desatsegina, *petral*, *trakets* eta *zital*; haize zakarra, *bortitz*; haize zikina edo zatarra, *sastar*. *Gordin* izenondoak aro-kontuetan beti esanahi txarra izaten du; adibidez, *eguraldi gordina*; *lar(h)oi* izenondoa Zuberoan erabiltzen da, eta ematen du **lar + (k)oi* osagaiak dauzkala bere baitan. Gogora ditzagun **lar(d)-* osagaia dauzkaten beste aro-hitz batzuk: *lardaka* (G-Oñati: Izagirre, 1959) eta *lardats* (Landa, 2003) “eguraldi nahasia eta euritsua” adierazteko. *Petral*, *trakets* eta *zital* beste eremu batzuetan ere erabiltzen dira eguneroko elkarrizketetan, baina beti ñabardura negatiboari eutsirik. Azkenik, *sastar* hitza polisemikoa da. Batetik, izena izanda, *zaborra*, *zarama*, *hondakina* esan nahi du eta bestetik, adjektiboa izanda, *zikina* edo *zatarra*.

Amaitzeko, azken kategoria aurreko baten zehaztapen kalifikatiboa da, Haize-bolada beroa, alegia. Bi elkarketa dira corpusean: bata, *haize-boluzio* (*aixe bolusidxo*a, B-Bakio: Gaminde, 1999) eta bestea, *haize fal-fala* (N-Zaraitzu: *DVEF*). Ziur asko, *boluzio* terminoa latinetik etor liteke, *evolvo* aditzetik, hain zuzen ere. Beste elkarketaren *fal-fala* terminoak onomatopeikoa dirudi.

4.3.4. Jarduera

Haizea atera	Haizea baretu	Haizea biratu	Haize bitartean egon	Haizea harrotu
Berdetu Haizea atera Mutiritu	Baretu Gozatu Haize atertu Haizea geldian eduki Haizea gerizatu Haizea sartu Kalmatu Makaldu Moteldu Otzandu	Aldatu Biratiu Egin Haizeak –ra hartu Jarri -rantz egin Haizea iparrera biratu ipartu	Haize bitartean egon Haize gurutzean egon	Bizitu Bizkortu Harrotu
Haizea ibili	Haizea ibili ez	Haizeak min eman	Haizea zakartu	
Erauntsi (haizea) ibili (haizeak) jo (haizeak) putz egin Ufatu	Haize putzik egon ez	Ebaki	Haizeak erru eman Zakartu	

22. taula. Haizea: Jarduera

Haizeen eremuaren laugarren nozioa jarduera da. Aditzez beteriko nozio hau honela sailkatu da kategorietan alfabetoaren arabera: Haizea atera, Haizea baretu, Haizea biratu, Haize bitartean egon, Haizea harrotu, Haizea ibili edo ez, Haizeak min eman eta Haizea zakartu. Haize bitartean egon kategoria kenduta, beste guztiekin nolabaiteko harreman-sarea egin daiteke.

Lehenik eta behin, haizea *ibil daiteke ala ez*; haizea ibiltzearen beraren jarduera aditzera emateko, *erauntsi*, *ibili*, *jo*, *putz egin* eta *ufatu* aditzak ibili ohi dira. *Haizea ez badabil*, *haize putzik ez dago*. Bare dagoela, *berdetu* (B-Mundaka, Ondarroa, Bermeo, Lekeitio: Barrutia, 2000) egin dezake, hau da, eguraldi ona egoten denean, haizea ateratzea; *haizea atera du* (gipuzkera: Mokoroa, 1990) ere esaten da. Interesgarria da oso *ari izan* aditz-lokuzioaren erabilera fenomeno atmosferikoekin. Badirudi norbaitek egiten duela nolabaiteko jarduera, hau da, *haizea atera du*, *euria ari du*, *elurra ari du*... erabili izan dira eta erabiltzen dira gaur egun ere; bizirik dira. Bestalde, haizea ibili eta baretzen denerako honako hauek dira: *baretu* (Landa, 2003), *gozatu* (N-Urdazubi: Mokoroa, 1990), *haizea atertu* (gipuzkera: Mokoroa, 1990), *haizea geldian eduki* (G-Getaria: Mokoroa, 1990), *haizea gerizatu* (DVEF), *haizea sartu* (N-Urdazubi: Mokoroa, 1990), *kalmatu* (B-Bermeo, Mundaka, Lekeitio: Barrutia, 2000), *makaldu* (bizkaiera: Mokoroa, 1990), *moteldu* (gipuzkera: Mokoroa, 1990) eta *otzandu* (bizkaiera: Mokoroa, 1990). Aurreko lokuzioarekin gertatzen zen bezalaxe, hemen ere zenbaitekin haizea baretzen denean, *haizea atertu du*, *haizea sartu du* esaten da. Gainerakoekin *da* erabiltzen da. Aipatzekoa da *haizea atera / sartu du* bikotea. Irudi du *Norbaitek lurpetik*

haizea atera eta sartu egiten duela; corpusaren arabera, *bare(tu)* itsaso zein haize eremuetan agertzen da; *gozatu* haizeekin baino ez da bildu; *haizea geldian eduki* lokuzioa, haizea bare zein baretzen denean erabili ohi da; *geriza* hitzetik –itzala adierazteaz gain, haize-babesa ere esan nahi du–, *gerizatu* aditza eratoritzen da; *kalma* hitza latinezko *cauma* berbatik datorrena, eremu etnometeorologikoan polisemikoa da. Datuen arabera honako adiera hauek ditu: 1. “Hodeia”. 2. “Lainoa”. 3. “Itsasoa bare” (*kalma zuria*). *Kalmaldi* eratorriak haxe: 1. “Itsasoa bare”. 2. “Aterrunea”; *kalmaune* hitzak (B-Bermeo, Mundaka, Lekeitio, Ondarroa: Barrutia, 2000) haizea baretzen den unea adierazten du. Bestalde, *kalmatu* aditzak ondokoa: 1. “Zerua lainotu”. 2. “Haizea baretu”. Azkenik, hiru aditz, *makaldu*, *moteldu* eta *otzandu* (Mokoroa, 1990) giza jardueren beste eremu batzuetan erabiltzen direlarik, eremu etnometeorologikora ere igaro dira adiera bera dela-bide, hau da, *haizea baretu*. Horietaz gain, haizeak norabidea aldatzen duenerako aditz eta lokuzio batzuk erabiltzen dira: *aldatu* (Landa, 2003), *biratu* (Landa, 2003), *egin* (Landa, 2003), *haizeak –ra hartu* (B-Zeanuri: Mokoroa, 1990), *jarri* (Landa, 2003) eta *–rantz egin* (Landa, 2003). *Aldatu*, *biratu*, *egin* eta *jarri* aditzak ezpal berekoak dira. *Bira(tu)*, antza denez, hizkuntza zeltetatik edo latinetik igaro zatekeen euskarara; izan ere, latinez, **virare* aditza egiaztaturik dago, eta badirudi gaztelaniak frantseseko *viret* aditza ere mailegatu duela:

VIRAR, H. 1570. PROBTE. DEL CÉLTICO *VIRO ‘yo me desvío, me inclino’, comp el galés *gwvro* ‘desviarse, inclinarse a un lado’, ‘encorvarse’, bretón *goara* ‘encorvar’. En castellano no parece ser voz antigua, sino término náutico debido al influjo coincidente del fr. *viret*, h. 1100, y el port. *virar*, h. 1500, los cuales sí proceden directamente del celta. (Corominas, 1961-1987)

Bestalde, *jarri* aditz polisemikoa ere erabiltzen da haizeen eremuan. Gainerakoak aditz-lokuzioak dira: *haizeak –ra hartu*, *rantz –egin* da eta azkenik, haizeak iparrera hartzen duenean *ipartu* (*DVEF*) erabili ohi da. Era berean, **hegotu*, **mendebaldu* eta **ekialdetu* aditzez ere baliatzeko aukera egon liteke, baina ez dira inon ere aurkitu. Era berean, sarri askotan haizeak hain gogor jotzen du non, adimen-begiaran arabera, min ematen baitu. Kasu horretarako *ebaki* aditza (gipuzkera: Mokoroa, 1990) erabiltzen da. Hotza hizpide delarik, antzeko lokuzio batez baliatzen dira hiztunak: *hotzak ebakita egon*. Beraz, ematen du *ebaki* aditza adierazkorra dela oso etnometeorologiaren eremuan. Bestalde, haizea zakartzen denerako, *zakartu* aditza beraz gain (Landa, 2003), corpusean *haizea erru eman* lokuzioa (N-Aezkoa: Mokoroa, 1990) dugu. Haizeak gogor-gogor jotzearekin batera erabiltzen bide da. Horrietaz gain, beste kategoria bat, aurrekoaren antzeko eta ildo beretsukoa, *haizea harrotu* da. Hori aditzera emateko, hiru aditz aurkitu dira: *bizitu* (Landa, 2004), *bizkortu* (Landa, 2003) eta *harrotu* (Landa, 2003) bera. Azken hau, eremu gehiagotan erabili ohi da, itsasoari loturiko adieretan, bereziki. Azkenik, jardueri azkena ematekotan, haize batek baino gehiagok talka egin eta gu erdian egoten

garenerako bi lokuzio dira, zenbaitetan eguraldiari dagozkion egoera ez badira ere: *haize bitartean* (gipuzkera: Mokoroa, 1990) *edo haize gurutzean egon* (bizkaiera / G-Errezil: Mokoroa, 1990). Horrela adierazten bide da erraz-erraz egunero gertatu ohi den egoera bat.

4.3.5. Denbora

Haizerik eza	Haizearen garaia
Barealdi Kalmaune	Haizaro Haizete
23. taula. Haizea: Denbora	

23. taulan denbora nozioa aztertzen da. Begi-bistan denez, ez da batere joria. Bi kategoria baizik ez dira azaltzen: batetik, Haizerik eza eta bestetik, Haizearen garaia. Haizerik ezak bere ordezkariak dauzka, denborari atxikitako bi atzizki, *-aldi* eta *-une*, agertzen direlako. Hitzak *barealdi* (Landa, 2003) eta *kalmaune* (B-Bermeo, Mundaka, Lekeitio, Ondarroa: Barrutia, 2000) dira haizeak jotzen ez duen uneak aditzera emateko. Haizearen garairako ere denbora nozioetan arrunt samarrak diren bi atzizki *-aro* eta *-te* erabiltzen dira haizeari lotuak: *haizaro* (Lhande, 1926) eta *haizete* (Lhande, 1926).

4.3.6. Espazioa

<p>Ipar Haizea Abra haize Aire gorri Aitzin haize Aleman haize Amilana Antzigar Antziliar Arteko haize Ateko haize Azpiko haize Basa haize Behe(ko)haize Behor haize Bendunor Frantzia ipar Galerna haize Gatzal Gorako haize Haize berde Haize gorri Haize ipar Haize norte Haize peko Ipar Ipar beltz Ipar goi Ipar gorri Ipar haize,aire Ipar zuri Iparaldeko, -etik haize Itsaso haize Izar haize Kanpo haize Karroin aire Lapurdi haize Nafar Negu haize Norte aire, haize Peko aire, haize Txingor haize Urkiola haize Zaldibar haize Zehar haize</p> <p>Ipar-mendebaldeko haizea Beheko haize Gaztela haize Galgoi beltza Ipar beltz Ipar-mendebal(de) Noroesteko haize, Norusta Zehar haize</p> <p>Ipar ekialdeko haizea Ahuntz haize Enbat Errusierra Ezkel Frantzia haize, ipar</p>	<p>Ipar saila Ipar Ipar beltz Ipar fin Ipar sortaldeko Ipartza Iparpe Lei haize</p> <p>Mendebaldeko haizea Aldagoi Aldaize Amilen Atun haize Azpi haize Basa haize Baxoko haize Behe(re)ko haize Bidasoi Egutaize Enbata (haize) Euri haize Ezker haize Galerna Galgoi haize Goiko haize Haize basa Haize(go) beltz Haize gaizto Ipar beltz? Itsas aire, haize Itzaldeko haize Lantzer haize Leku izenak Ahüzki haize Baionako haize Cap Breton haize Galiziako, galego haize, hego Gaztela Gorbea haize Manex (haize) Orio haize Mandio haize Mendebal haize Mendebal berde Norte haize Pa(go)ffina haize San Migel haize Sartu alde, haize Tenpesta haize Zehar haize</p> <p>Hego-mendebaldeko haizea Amilana Arraize Barruko haize Beheko haize Galgoe Hego-mendebalde Hego sartaldeko Leku izenak Araba haize Ernio haize</p>	<p>Gaztela haize Jata haize Sudoesteko haize</p> <p>Hego haizea Ahuñia aire, haize Andre, enbra haize Aurreko haize Barruko haize Basa hego Beheko haize Behe(re)ko haize Bortu handitiko haize Egutaide Eguzki haize Erreka haize Goha Goiko haize Haize saila Haize, aire beltz Haize epel Haize erre Haize gorri Haize hego Haize herriko, aurreko? Haize, aire ihar Haize siku Hego(a) saila Hego(a) Hego aldi Hego erre Hego(ko) haize Hego putz Hego zuri Herriko haize Leku izenak + Haize Araba hego Espainiako haize Gaztela haize Gaztela hego Nabarniz haize Nafar hego Mahumet Mendi haize Sur(ko) haize Urri(ko), urrite Haize</p> <p>Hego-ekialdeko haizea Amilana Hego-ekialdeko haize Hego(a) zuri Jaka haize Sudesteko haize Trabesa haize Zutezta</p> <p>Ekialdeko haizea Ahuntza hiltzeko haize Aire gorri Aitzin(eko) aire, haize Antzigar Arraize Arraza zakur</p>	<p>Aste Santu haize Ataize Beheko (peko) haize Eguzki haize Eki jaikiko aire Ekialdeko haize Leku izenak + Haize Ahuñia aire, haize Elgeta haize Frantzia / frantses haize Ipiña aldeko (haize) Larrabetzu haize Nabarniz haize Nafar haize, hego Sollubeko haize Zuberoko haize Erdi ipar Erramu haize Erreka aire Eskuin haize Esteko, lesta, leste(ko) haize Gaineko haize Garizuma haize Haize gorri Haize saila Haize labeda Haize mehe Hego zuri Horma haize Idor Ipar saila Ipar Ipar beltz Ipar berde Ipar fresko Ipar gorri Ipar haize Izar haize Karroin haize Labeda Mendesta Norte Osots haize San migel haize Sortalde Suresta Urtaize Zehar haize</p> <p>Bestelako haizeak Itsasotiko haizea Abra haize Bullarta Enbat Galern(a) Trabeseko haize Zoperna Lehorretiko haizea Enbat Latsaize Terral</p>	<p>Mitologiaren ingurukoa Beldur-haize Haize bihur</p> <p>Haizea eta lekuak Haizeak jotzen duen leku ageria Afrontu Aireager Bisusleku Haize saila Haize begi Haizegune Haize leku Haize periza</p> <p>Haize babesa Ainube Arbolape Babes Beroki Ezkupe Ezkutu une(da) Ezkutu leku Geriza Gordeleku Haizalpe Haizeen lehor Haizeari enpha Haize babes Haizebe Haize beltzari eskapagi Haizebera Haize beroki Haize doble Haize estalki Haize ezkutu Haize gaiztoei eskapa Haize geriza Haize gerizu Haize gorde (Haize) itzal(gune) Haize kontra Haize eskapa Haize gordega Haize malda Haize oste Haizepe Haize porte Haizolbe(gune) Haizpe Hegoari eskapagi Jeizogune Kalmeta Lehorpe Leku ezkutu Pattar Sarobe Sokaire Urkubi Uspel Xoko</p>
<p>24. taula. Haizea: Espazioa</p>				

Azken nozioa, espazioa, ezberrik gabe oparoena da. Ezin konta ahal izendapen dituzte haizeek. Tokian tokiko ahazko berbak ugariak dira, herri bakoitzak bere izendapen bereziak dauzkala esaterainotsu hel daiteke. Batzuetan jatorria izakien nozioan sartzen den arren, oraingoan argiagoa delakoan espazioan sartzea nahiago izan da. Kategorietan, ohiko izendapenak erabili dira. Honako hauek dira, hurrenez hurren: ipar haizea, ipar-mendebaldeko haizea, ipar ekialdeko haizea, mendebaldeko haizea, hego-mendebaldeko haizea, hego haizea, hego-ekialdeko haizea, ekialdeko haizea eta bestelako haizeak. Nabari da puntu kardinal guztien araberrako banaketa aztertu behar dela.

Kategoriok sailkatzeko Aurrekoetxearen sailkapenaz (Aurrekoetxea, 2000: 93-107) baliatuko da. Oso tresna egokia iritzi zaio Espazio nozioaren haize motak sailkatzeko.

Ipar haizeari dagokionez, honako sailkapen hau egingo da:

- Haize edo airearen izaerari buruzko izendapena: *aire gorri, basa haize, haize berde (axe berde), haize gorri.*
- Izendapen kardinala: *ipar (haize); ipar beltz; ipar goi; ipar gorri; ipar zuri; iparralde -(ko), -(etik) haize; haize ipar; haize norte; norte aire, haize; bendunor.*
- Izendapen orografikoa: *aitzin haize; arteko haize; ateko haize; azpiko haize; behe(ko) haize; gorako haize; haize peko; kanpo haize; peko aire, haize; zehar haize.*
- Izendapen toponimikoa:
 - Ondoko herriak: *Gatzal, Zaldibar haize.*
 - Elementu geografikoa: *abra haize, itsas haize, Urkiola haize.*
 - Herrialdea: *aleman haize, frantzia ipar, Lapurdi haize, nafar.*
- Ostagiekin lotura duten izendapenak: *antzigar, antziliar, galerna haize, karroin aire, txingor haize.*
- Sasoi izendapena: *negu haize.*
- Erreferentzia astronomikoa: *izar haize.*
- Bestelako izendapenak: *amilana, behor haize.*

Haizearen izaerari buruzko izendapena dela-eta, kolore gorri eta berdeak dira nagusi. Kolore gorriak etnometeorologian kualitate latz eta garratza adierazten du. Bitxia da nola *aide gorri* izendapenak herrialde bereko hiru herritan (zuberera: *EHHA*) esanahi desberdina duen: Urdiñarbe eta Altzürükün, ipar haizea eta Pagolan ekialdeko haizea. Multzo honetan ez badaude ere –izendapen kardinala baitute- aipatzekoak dira *ipar beltz, ipar gorri* eta *ipar zuri*. Begibistan da dantza handi samarra dagoela koloreen artean. Hemen sar litezke azkenean multzo horretarako utzi ditugu beste izendapen *haizedun* batzuk, baina puntu kardinala daukatenez

gero, bertan aztertuko ditugu. Beste kolorea berdea da, *haize berde* (*axe berde*, B: Ondarroa: *EHHA* / B-Getxo, Uribe Kosta: Paia, 2011) erabiltzen omen da ipar haizeari irizteko. Beste datu batzuen arabera, *haize berde*, haize gogor samarra izango litzateke (B-Mundaka, Bermeo, Ondarroa: Barrutia, 2000). Azkenik, ipar haizearen beraren beste kualitate bat *basa* izatea da. Izenondo hori batez ere ekialdeko euskalkietan erabiltzen da “basatia” adierazteko (Z-Pagola: *EHHA*).

Izendapen kardinalari dagokionez, *ipar haize*, *haize ipar*, *iparraldeko*, *iparraldetik haize*, *haize ipar*, *norte aire*, *norte haize* eta *bendunor* izendapen kardinal hutsez gain, izenondo zenbaitek ere lagun egiten diote: *beltz*, *goi*, *gorri* eta *zuri*. Azpimarratzekoa da oso *ipar* eta *norte haize* izendapenak Euskal Herri osoan ez direla erabiltzen berezko haize mota hori izendatzeko, ekialdeko edo ipar-mendebaldeko haizea baizik. Zenbait herritan bi izendapenak ere erabiltzen dira; adibidez, Getarian, *norteko haize* iparraldetik datorrena da eta *iparra* ipar-mendebaldetikoa (*EHHA*); Mañaria, Dima eta Arrasaten neguan *nortea* da eta udan *iparra* (Aurrekoetxea, 2000: 100). Harritzekoa bada ere, beste herri batzuetan (*EHHA*) *norte haizea* mendebala da (B-Zeanuri) edo ekialdekoa (G-Ikaztegieta, N-Goizueta). *Norte* (haize) hitzaren askotariko esanahiak ondoko 25. taulan hobeto antzemango dira:

Hitza	Nongo haizea	Herria
Norde	Ipar haizea	L-Donibane Lohizune
Norde haize	Mendebaldeko haizea	B-Zeanuri
Norta	Ipar haizea	B-Lekeitio
Norte	Ekialdeko haizea	G-Ikaztegieta, N-Goizueta
Norte aide	Ipar haizea	L-Bardoze
Norte haize	Ipar haizea	B-Getxo, BN-Baigorri, Behorlegi
Norteko aire	Ipar haizea	BN-Garruze, Z-Domintxaine-Berroeta
Norteko haize	Ipar haizea	B-Getxo, BN-Arruta, L-Ahetze, Euskal Herriko hainbat herritan
25. taula. Haizea. Ipar-haizea: <i>nortea</i>		

Iparra eta *Nortea* bereizten direlako iritziak ere badira:

Sorterrian umetatik ikasi nuen beste gauza harrigarria, zera da, kastillanoz *Nortea* eta euskaraz *Ifarra* ez direla haize klase berdinak. *Nortea*, Norteko haizea, hotza eta lehorra den haize gordin minari deitzen zaio Basaburu aldean. *Ifarra*, aldiz, itsasaldetik lainoak harrotuaz euria ekartzen duen haize firfira hezeari, *Noroeste* delakoari. Horregatik, gure aitarentzako *Nortea* eta *Ifarra* ez dira gauza bera izandu. Mila aldiz aritua naiz berarekin disputan, baina alferrik: hark bereizi egiten ditu beti, nik ezin bereizi ditudanak. (Perurena, 2004:142)

Ipar hitzari dagokionez, *EHHE*n azaltzen da *ibar*-etik etor ote litekeen ustea:

Pentsa daiteke *ibar*-en osaera bera duela funtsean, *i(h)*- + *-bar*. Argudiatu beharko da hasperenak igurzkaritu duela ezpainetako herskari ahostuna, *-hb* > *-f*- bilakaerarekin, Mitxelenaren uste gorabehera,

b/f txandakatzea indartze adierazkorren baten bitartez azaltzen saiatzen baita hura (*FHV*: 267, 11. oh.). Gure [hβ] > [f] bilakaera hau Hualdek emaniko azalpena hurbiltzen da (1977a: 422-423), nahiz eta autore honek [wh] ~ [βh] < [f] proposatzen duen, auhari > afari / abari etimologia ezagunean oinarritzen baita. (*EHHE*: s.v. ibar)

Ohargarria da, halaber, zer-nolako doitasuna biltzen duen bere baitan adimen-begiak zenbait kontzeptutan. Adibidez, bestelako maileguen artean, Nafarroa Behereko Bastida herrian erabiltzen den terminoa ere aipatzekoa da: *bendunor* (*EHHA*). Herri hori oraintsu arte hirueleduna izan da, euskara, gaskoia eta frantsesa mintzatu izan dira —ni neu bertan gaskoia entzunda nago—, eta hori dela-eta, *bendunor* elea, gaskoi zein frantsesetik etor liteke, “vent du nord”, alegia. Ziurrenik, ahoskera dela-eta, gaskoitik etor liteke. Bestalde, izenondoen aldetik, hiru kolore erabiltzen dira, *beltz*, *gorri* eta *zuri* eta *goi* izena; kolore *beltzak*, oro har, nahiko adiera negatiboa biltzen du. Haizeen eremuan, jasotako datuen arabera, badirudi haize nagusi guztiak izendatzeko erabiltzen dela. Hau da, *ipar beltz* edo *haize beltz* (L-Arrangoitze: *EHHA*), ipar haize edo ipar-ekialdeko haizeari deitzeko, *haize(go) beltza* (L-Sara: *EHHA*), besteak beste, mendebaldeko haizea adierazteko eta *haize beltza* (Z-Urdiñarbe: *EHHA*) edo *hego beltza*, hego haizea adierazteko; *gorriren* esanahia etnometeorologian goraxeago eman da aditzera; izan ere, beti zentzu negatiboan erabiltzen da, gogortasun, laztasun edo gordintasuna adierazteko. Beste adibide bat: *negu gorri*. Etnometeorologiaz gain, erabiltzen den zentzua ezezkor samarra ere bada: *miseria gorrian*, *gose gorria*, *behar gorria*... *Haize gorri* (*axegorri*), besteak beste, Bizkaiko Arrazola herrian erabiltzen da (*EHHA*); *ipar gorri*, besteak beste, Bizkaiko Arratia, Orozko eta Txorierri haranetan, Nafarroako Zaraitzu haranean eta galdutako erronkarieran.

Azkenik, *ipar zuri* elkarketak (*DRALV*) ez du aurrekoek bezain konnotazio negatiborik. Jaso den testuinguruaren arabera, ipar haize leuna ematen du. Kolore horrek ere beste haize batzuk hartzen ditu bere gain, adibidez, *hego zuri* elkarketak bai hego haizea (BN-Bidarrai: *EHHA*), bai eguzki haizea adieraz dezake (BN-Uharte-Garazi / L-Azkaine: *EHHA*). Beste eremu batzuetan ere erabiltzen, esaterako, *izotz zuri* edo *lei zuri* gogorra ez den izoztea izendatzeko. Laburbilduz, antza denez, koloreak etnometeorologiaren esparrura lerratu dira bizitzaren beste arlo batzuetatik eta esanahi beretsuari eutsi diote.

Izendapen orografikoari buruz esan liteke, beharbada, zaharrena dela. Nola dagoen herria kokaturik, halako izendapena izango zatekeen hizkuntzen sorreran haizeak izendatzeko erarik eraginkorra. Erraz asko gertatuko zitzaien gure arbasoei hauxe adieraztea: haizea aurretik, atzetik, behetik, goitik, kanpotik, barrutik... at. Izan ere, orografian oinarritutako izendapena haize nagusi guztietara hedatzen da salbuespenik gabe. Hori adierazita, herri baten kokapenari dagokionez, haizeak toki hauetatik etortzea du: *aurretik* edo *aitzinetik* eta *atzetik*

edo *gibeletik*; *azpitik* edo *behetik* eta *gainetik* edo *goitik*; *kanpotik* edo *atetik* eta *barrutik* edo *barnetik*; *azkenik*, *artetik*, *erditik* edo *zeharretik* ere bai. Horrela, Zuberoako Domintxaine-Berroeta herrian ipar haizea *aitzinetik* dator (*aitzinaizia: EHHA*), baina ekialdekoa ere bai; Lhanderen hiztegiak (1926) *artekaize* dakar; adibidez, Bizkaiko Ea herriko Bedarona auzoan *ataize* edo *atekaize* erabiltzen da, baita *kanpaize* ere (*DVEF*). Nabarmentzekoa da *at-ek kanpo* adierazteko oraindik ere irautea horrelako berbetan; Dorrao herrian (Nafarroan) *azpikoaize* da ipar haizea (*azpikoeize: EHHA*). Batek baino gehiagok galde lezake zergatik ote datorren *azpitik* haizea. Dorrao herrixka Nafarroako Sakana haranean kokaturik dago, Beriain menditzarraren magalean. Herritarren ustez, itxura guztien arabera, *azpia* iparra eta *gaina* hegoa izan litezke. Zuberoan ere *peko haize* elkarketa (*Z-Urdiñarbe: EHHA*) ere zabalduea dago. Oñatin (*beeko aixe: EHHA*) eta Elorrion (*beaise: EHHA*) ere barra-barra erabiltzen omen dira. Ezbairik gabe, *behe*, *pe* eta *azpi* sinonimotzat jo daitezke. Kontu horrek lan sakonagoa mereziko luke; Hendaia aldean *gorako haize* (*gorakoize: EHHA*) erabiltzen omen da eta “viento de arriba” ere erabiltzen omen da Espainiako herri batzuetan¹⁶. Azkenik, *zehar-haize* (*ziarraize: Iribarren, 1952*) Baztan aldean ipar haizea izanik ere, beste herri batzuetan, mendebaldeko, ipar-mendebaldeko eta ekialdeko haizea ere izan daiteke. Beraz, izendapen orografikoan berebiziko garrantzia dauka herriaren kokapenak eta hori dela-eta, arau nagusirik ondorioztatzea gaitz samar gerta liteke. Guziarekin ere, haize guztien azterketa buruturik, nolabaiteko araua ateratzeko aukera egon liteke.

Izendapen toponimikoa hiru ataletan banatuta dago: batetik, ondoko herriren bat aipatzea, bestetik, elementu geografikoren bat aipatzea eta azkenik, herrialde edo lurralderen baten aipamena.

Ondoko herriren bat aipatzeari buruz, kasu honetan ipar haizeari dagokionez, besteak beste, *Gatzal-haize* (A-Urbina, Zigoitia: *DVEF*) eta *Zaldibar-haize* (*Saldibarraixe*, B-Arazola: *EHHA*). Lehenengoa, Arabako Urbina eta Zigoitia herrietan erabiltzen ziren (*DVEF*). *Gatzal* leku-izena Gipuzkoako Leintz-Gatzaga herriari egiten dio erreferentzia. Urbina Leintz-Gatzagarekiko ez bide dago guztiz lerrokaturik, hau da, ipar-haizea baino gehiago, ipar-ekialderanzko haizea izango litzateke. Zigoitia are hego-mendebalderago dago; beraz, ipar-ekialderagokoa izango litzateke haizea. Hala eta guztiz ere, bertako herritarrek ipar-haizea izango ote zen irudipena izango zuten nonbait. Bigarrena, *Zaldibar haize*, Bizkaiko Atxondo aldeko Arazola auzoan erabiltzen da. Kasu honetan bi herriok ia lerrokaturik agertzen dira mapan; beraz, ipar-haize peto-petotzat jo daiteke arazo barik.

¹⁶ <http://personales.com/espana/salamanca/Perena/Vocabu.htm>

Batzuetan *zenbait elementu geografiko* aipatzen da. Haize honen gainean hiru elkarketa dira corpusean, besteak beste: *abra-haize* (*abraize*, B-Mundaka: *DVEF*), *itsaso-haize* (*itxasoaxe*, B-Getxo: Andoni Llosa, 2002) eta *Urkiola-haize* (*Urkiolaxe*, A-Aramaio: *EHHA*). Lehenengoa, kalitatean nozioan aztertu da goitik behera. Lehen aipatu denaren arabera, haize oso hotza eta kostaldeko haizea da *abra-haize*, baita kasu honetan bezala, ipar haizea ere. Elementu geografikotzat hartu da *abra*; izan ere, itsas-golkoa edo badia izan daiteke; *itsas haize* izendapena dela-eta, esan behar da, orografikoetan bezalaxe, tokian tokikoaren araberakoa izaten dela. Barrualdeko herri askotan ez da ipar-haizea mendebala baizik –adibidez, Nafarroa Behereko Irisarri herrian (*EHHA*), zeharretik jotzen duelako halako haizeak, Nafarroa Behereko Ezterenzubi herrian izan ezik (*EHHA*), hor ere ipar haizea baita. Bizkaiko itsas aldeko herrietan ere ipar-haizea izan ohi da, baina Getxon *itsosoko axea* mendebala da (Fredri Paia, 2011); *Urkiola-haize* elkarketa Arabako Aramaio haranean erabiltzen da (*EHHA*). Hemen ere ez dira erabat lerrokaturik agertzen Urkiola eta Aramaio, baina aurreko kasuetan bezalaxe, herritarren irudipena izan liteke; izan ere, Urkiola Aramaikoentzat ipar-mendebaldean kokaturik dago.

Herrialde edo lurralderen baten aipamena egiten denerako, honako hauek bildu dira, besteak beste: Europako herrialdeak, *aleman-haize* (*alemanaixe*, G-Leintz-Gatzaga: *EHHA*) eta *Frantzia-ipar* (G-Oñati: *EHHA*) eta Euskal Herriko lurraldeak, *Lapurdi-haize* (*Lapurdigaize*, BN-Ezterenzubi: *EHHA*) eta *Nafar* (*Napar*, A-Aramaio: *EHHA*). *Aleman-haize* Gipuzkoako Leintz-Gatzagan erabiltzen da. Begi-bistan denez, *Alemaniatik* etortzen zaigun haizea ez da iparrekoa, ipar-ekialdekoa baizik. Ziur asko izendapen hori moderno samarra izango da halako herrialde urruna aipatzen baita. Hala ere, horixe da bertako biztanleen adimen-begiaren pertzepzioa. Badirudi haize hotz-hotza iparrarekin uztartzen dutela. Berdin antzeratsu gertatzen bide da Gipuzkoako Oñati eta Beizama herrietan. Izan ere, bertako *frantziparra* ez da berezko ipar haizea, ipar ekialdekoa baino. Baina, aurreraxeago aztertuko denez, *frantziparra* hainbat herritan eskuarki ipar-ekialdeko edo ekialdeko haizea da, hotza eta lehorra; izan ere, orientazio hori zuzenagoa da Frantzia gurekiko ipar-ekialdean kokaturik baitago. Euskal Herriko herrialdeei dagokienez, bi aipatzen dira: Lapurdi eta Nafarroa. *Lapurdi-haizea* Nafarroa Behereko Ezterenzubi herrian erabiltzen omen da. Lapurdi Ezterenzubirekiko ere ez dago ipar-iparreak kokaturik, ipar-mendebaldean baizik. Nolanahi ere, goratxoago agertu denez, horixe hautematen dute hiztunek. Azkenik, *nafar* berba Aramaion erabiltzen dute. Ezagun da Nafarroa Aramaioarekiko ez dagoela iparreak kokatuta, Bizkaia baizik; Bizkaia dute gainean arabarrek. Nafarroa ekialdean dago aramaiotarrak. Hala eta guztiz ere, horrexetaz baliatzen dira Aramaioko euskal hiztunak. Esanak esan, zehaztaperen garrantzitsua egin behar da: baliteke

aipatutako herrietako biztanleek ipar *nortetzat* hartu ez izana ekialdetzat baizik. Datu horiek *EHHA*ren bitartez harturik daude, eta beharbada hiztunei galdetzean *ipar* hitza erabilia bestelakoa ulertuko zuketena.

Ostagiakin lotura duten izendapenak direla-eta, lehenengo eta behin, *antzi(g)ar* (*antziar*: *DRALV*), *antziar* (*DRALV*) dira. Hitz hori eta haren aldaerak polisemikoa dira. Izan ere, izendapen etnometeorologikoetan hainbat eremuri heltzen dio. Ezagunena “gau hotzetan lurraren eta landareen gainean sortzen den izotz geruza mehe-mehea eta zuria izendatzeko” (Harluxet) da. Aurrerago, alor horretan azterketa sakonago egingo da. Haizeen eremua ipar-haizea ez ezik ekialdekoa ere izan daiteke. Bigarren terminoa, *galerna-haize* hitz elkarketa da. Galerna edo enbata berezko ipar haizea ez bada ere, Gipuzkoako Andoain herrian (*kallernaize*: *EHHA*) erabiltzen da halako izendapena, ziurrenik barrualdean egonda, horrelako pertzepzioa dute eta. Bestelako haizeak izeneko kategoria luze samarrean aztertuko da berba hori; hirugarren elkarketa *karroin-aire* (*kharrun-aide*, Z-Altzürükü: *EHHA*) da. Esan gabe doa, *karroin* berbak izotza esan nahi du; beraz, lotura garbia da, ipar-haizea izotzari atxikitzen zaio inondik ere. Halarik ere, lehengo izendapenetan bezalaxe, elkarketa horrek ipar haizea adierazi beharrean, baliteke ipar-ekialdea esan nahi izatea, berorrek are izotz handiagoak ekarri ohi baitu; azken elkarketa *txingor-haizea*, harrigarri samarra da. Gipuzkoako Legazpi eta Urretxu herrietan erabiltzen da (*EHHA*) eta antza denez, bertako hiztunek txingor egitea ipar-haizeari lotzen diote. Adimenaren begia, bistan denez, orotarikoa da. Hori horrela beti izaten ez izanagatik ere, egia da txitean-pitean ipar-haizeak eraginda gertatzen dela ostagi hori.

Sasoiz izendapenari buruz elkarketa bakarra dagoela nabarmendu behar da, *negu-haize* (*neguaxe*) Bizkaiko Dima herrian jasotakoa (*EHHA*). Neguari loturiko ipar-haizea izendatzeko erabiltzen da. Diman, goratxoago aditzera eman denez, *norte* eta *ipar* haize ere erabiltzen dira.

Erreferentzia astronomikoa dela-eta, elkarketa bakarra ere bada hemen, *izar-haiz* (*izarraize*), Nafarroa Behereko Aldude herrian erabiltzen omen dena (*EHHA*). Baliteke *izar* delako horrek *ipar izarrarekin* zerikusia izatea. Herri honetan, antza denez, hiztunak ez direla ados jarri; izan ere, beste batzuen ustez ez da ipar-haizea, ekialde-haizea baino.

Bestelako izendapenei dagokienez, multzo honetan aurrekoetan sartzen ez diren bi izendapen dira: *amilana* (*amillana*) eta *behor-haize*. Lehenengoa polisemikoa da, eta ipar-haizea ez ezik, mendebaldeko, hego-ekialdeko eta mendebaldeko haizea ere esan nahi du, eta gainerako eremuetan, lainoa eta lanbroa ere bai. Ilun samarra da berba honen eremu semantikoa; izan ere, Otxandion bertan bi esanahi bilduta daude: bata ipar-haizea (*DVEF*) eta bestea, *amillena* hego-ekialdekoa (*DVEF*). Handik kilometro gutxira, Barazar mendatean behera, Zeanurin, hego-mendebala da (*DRALV*) eta Aramaion, mendebala (*EHHA*); hortaz, are

ikerketa sakonagoa egin behar da haize horren nondik-norakoa zehaztekoan, baina **amil + lan(o)*-rekin zerikusia izan lezake. Azkenik, *behor-haize* elkarketa bitxia dago, Zuberoako Urdiñarbe herrian erabiltzen dena (*EHHA*). Zein lotura dago behorren eta ipar-haizearen artean? Nola eragiten die horrelako haize motak behorrei? Grekoen mitologian murgilduz gero, hoexekin egingo genuke topo: *Boreas* Ipar aldeko haize hotzaren jainko nagusia zen. Berak negua ekarri ohi zuen:

Tenemos que añadir que, junto a su larga lista de amores, Eos tenía un esposo, Astreo (Estrellado), hijo del titán Crío y de la oceánide Euribia. Los hijos de este matrimonio eran las estrellas de los cielos y los tres vientos principales, Bóreas (el viento del Norte), Céfiro (viento del Oeste) y Noto (viento del Sur). Bóreas, el violento viento del Norte, descendía hasta Grecia desde su morada septentrional en Tracia. Su historia más importante es la leyenda ateniense que cuenta que raptó a Oritía, una princesa del Ática, para desposarla (cf. infra p. 483). Ella le dio dos hijos: Zetes y Calais, los Boréadas (Boreadaí), que participaban de algún modo de la naturaleza de su padre como seres alados que podían volar veloces a través del aire, y se hicieron célebres por su persecución de las Harpías (cf. p. 506). Como consecuencia de este matrimonio que le relacionaba con Atenas, Bóreas brindó una ayuda especial a los atenienses en más de una ocasión (cf. p. 485). (Hard, 2004-2008: 88)

Boreas sendo eta indartsua zen, baina, suminkor eta odol-gaiztoa. Sarritan gizon zahar bizardun eta sapazto gisa irudikatzen zuten, hegalez ere baliatzen zena. Itsas-kurkuilua eramane ohi zuen aldean eta hodeiz osaturiko tunika bakar bat janzten zuen. Oinak eduki beharrean, sugeak omen zeuzkan, artearen eremuan giza oinak koturnoz jantzita irudikatzen bazizkioten ere. Gainerako haize-jainkoen antzera (Zefiro, Euro eta Noto) Astreo eta Eosen semea zen. *Boreas* estu-estu *zaldiei* uztarturik zegoen. Hazitarako zaldia iren itxura bereganatu ondoren hamabi moxal sorrarazi omen zituen Dardanoen Erictonio erregearen *behorrek*in. Moxal horiek euren aita bezain azkarrak omen ziren; izan ere, elezaharren arabera galsoro batetik zehar garia bera zapaldu gabe lasterka egiteko gauza ziren. Pliniok uste zuen *behorrek* zaldikumeak sor zitzaizketela atzealdean Ipar Haizeari begira ipinita eta hazitarako zaldirik gabe. (Dieguez: etnomet.eus).

Beraz, ukazina da grekoen mitologian *Boreasen* –ipar-haizea– eta *behorren* arteko harremana. Zuberoako herri bateko biztanleek zer-nolako lotura eduki lezakete Grezia aldeko mitologiarekin? Ziur asko, Hego Europako antzinako mitologiaren eta sinesmen aztarna da. Ziurrenik, Grezian ez ezik, beste hainbat herrialdetan ere egongo zen hedaturik horrelako elezaharra.

Ipar-mendebaldeko haizeari dagokionez, honako sailkapen hau egingo da:

- Haize edo airearen izakiei buruzko izendapena: *galgoe beltz*.
- Izendapen kardinala: *ipar beltz*, *ipar-mendebal(de)*; *noroesteko haize*; *norusta*.
- Izendapen orografikoa: *beheko haize*; *zehar haize*.
- Izendapen toponimikoa:
 - Herrialdea: *gatzal*, *Gatzela-haize*.

Haize edo airearen izaerari buruzko izendapenari dagokionez, *galgoe beltz* (*galgoi baltz*, B-Ondarroa: *DRALV*) baizik ez dago. *Galgoe* hutsak beste esanahi batzuk ditu: Ondarroan bertan (Barrutia, 2000), Bizkaian oro har, eta Zumaian, hego-mendebala da (*DVEF*) eta Zestoan, mendebala (*EHHA*). Hitzaren jatorria dela-eta, ez da ezer aurkitu, baina, eraketa

fonetiko delata bitarte, baliteke nonbaiteko mailegua izatea. Ikerkizun geratu behar du. Agian, *-goe(i) gaur egungo “goi” berba izan liteke, baina, *gal-?

Izendapen kardinalari buruz adierazi behar da, bi generiko badirela, *ipar beltz* eta *ipar-mendebal(de)* eta *noroesteko haize* eta *norusta* maileguak. Batetik *ipar beltz* (Estornes, 1997) Erronkarin jasota dago. Kolore beltzak haizearen izaera goibela, euria ekarri ohi duena adierazten du; bestetik, maileguei dagokienez, lehenengoa, badirudi gaztelaniatik harturik dagoela eta bigarrena frantses edo gaskoitik. Biak Lekeitio aldean: “Ipar-mendebala be deitzen jago, eta Otoio aldetik etorten da” (Lekeitioko lantaldea, 2001: 25), besteak beste, erabiltzen direnez, baliteke arrantzaleek berek atzeman izana. *Noroesteko haize (norusteko haize)* elkarketa, ziur asko, Espainia aldeko arrantzaleekiko harremanetatik sortua da. Bizkaiko Mundaka eta Bermeo herrietan bildutakoa da: “beheko haizea da” (Barrutia, 2000).

Izendapen orografikoari gagozkiolarik, *beheko haize* eta *zehir haize* dira corpusean. Ipar-haizearen azterketan sail honen berri ematen zen eta izendapena herriaren kokapenaren baitan zegoela ematen zen aditzera. Kasu honetan, *beheko haize*, Bizkaiko kostaldean erabiltzen da ipar-mendebala adierazteko (Barrutia, 2000) eta *zehir haize*, eskuarki mendebala den arren, Baztan aldean (Izeta, 1996) aztertzen ari garen haizea da. Ez da harritzekoa horrelako izendapena erabiltzea, haranaren luze-zabala ikusita ipar-mendebalak Baztan harana zehir-zeharretik ere jotzen du eta.

Izendapen toponimikoaz bezainbatean, herrialde bati dagokion hitz elkarketa bakarra aurkitu da: *Gaztela haize* (goi nafarreraz: *DVEF*). Hala ere, herriaren kokapenak berebiziko garrantzia du izendapenetan eta, hori dela-eta, *Gaztela* herrialdea daraman haizearen esanahia aldatzen da herriz herri, ipar-mendebaletik hego-mendebalera. Hauxe dago corpusean:

Hitza	Nongo haizea	Herria
Gaztala	Mendebala	N-Urdiain
Gaztal	Mendebala	N-Leitza
Gaztelaize	Ipar-mendebala	Goi Nafarrera
Gaztelaize	Hego-mendebala	N-Baztan
Gaztelaize, Gaztelegoi	Hegoa	G-Oñati
Gaztelegoi	Hegoa	bizkaiera
26. taula. Hego-haizea: <i>Gaztela (-haize) / (hegoe)</i>		

Ipar ekialdeko haizeari dagokionez, honako sailkapen hau egin liteke:

- Izendapen kardinala: *ipar, ipar beltz, ipar fin, ipar sortaldeko, ipartza, iparpe*.
- Izendapen orografikoa: *ezkel*.
- Izendapen toponimikoa:

- Herrialdea: *errusiarra, Frantzia haize, Frantzia ipar*.
- Ostagiekin lotura duten izendapenak: *enbat, lei haize*.
- Bestelako izendapenak: *ahuntz haize*.

Izendapen kardinalari dagokionez, berezko ipar haizeari dagokion azterketan aipatu da Euskal Herriko bazter guztietan, ipar ez dela norte. Herri askotan iparretik ekialdera arteko mailakatzea dago, batzuetan, ipar ekialdea, besteetan, ekialdea. Kasu honetan Bizkaiko kostaldeko herrietan erabiltzen da gehien bat ipar-ekialdeko / ekialdeko haizea adierazteko. Herritarrek tarte hori adierazten dute egindako inkestetan. Bestalde, *ipar* berak bi izenondo daramatza berekin, *beltz* eta *fin*. *Ipar beltz* Joxe Landa meteorologoak (Gara, 2003) bere iragarpenetan erabili ohi du; hala ere, izendapen hori Erronkarin, ipar-mendebala zen (Estornes, 1999) eta bertan horixe adierazteko *ipar fin* (Estornes, 1997) erabiltzen zen. Forma generikoa, ipar sortaldeko haizea ere bilduta dago, ahoz ez bada ere, testu idatzietan bai. Azkenik, *ipartza*, ekialdeko haize gogorra da Mundakan (Barrutia, 2000) eta *iparpe* Lhanderen hiztegian (1926) agertzen da, bestelako zehaztasunik gabe.

Izendapen orografikoa dela-eta, bakarra sartu da multzo honetan: *ezkel*. Lapurdin jasota dago (*DRALV*). Nago ez ote litekeen izan *ezker* berbaren bilakaera. Aurrekoetxeak (2000: 100) adierazten du ezen *exker haize* mendebaldeko haizea izendatzeko erabiltzen dela, baina ez du izendapen orografikoetan sartzen bestelakoetan baizik. Gure corpusean *exker haizia* jasota dago Zuberoako Santa Grazi herrian (*EHHA*) aipatutako mendebaldeko haizea izendatzeko. Nolanahi ere, Lapurdin ezkerretatik datorren haizea itsasotik dator, mendebala, alegia. Bestalde, *ezkel* berbaren beste adiera bat, *betokerra* da. Hori dela-eta, zaila da antzematen adiera horren eta haizearen arteko lotura.

Izendapen toponimikoari buruz bi herrialde aipatzen direla azpimarratu beharra dago: Frantzia eta Errusia. Lehenengoari dagokionez, Euskal Herriko mendebaldean arrunt samarra da eta iparretik ekialdera joaten da haizearen norabidea. Bi izendapen erabiltzen dira *Frantziaize* eta *Frantzipar*. Corpusean honela jasota dago:

Hitza	Nongo haizea	Herria / Idazlea
Frantzia haize (frantziaxe)	Ekialdekoa	B-Sondika (Azkue)
Frantzia haize (frantzi-aize)	Ipar ekialdekoa	G-Oñati (Izagirre)
Frantzia ipar (frantzi-ipar)	Ipar ekialdekoa	G-Oñati (Izagirre)
Frantzia ipar (frantzipar)	Ipar ekialdekoa	Joxe Landa
Frantzia ipar (frantzipar)	Ipar haizea	G-Oñati (Araotz) (Izagirre)
Frantzia ipar (frantziipar)	Ipar haizea	G-Beizama (Izagirre)
27. taula. Ipar-ekialdeko haizea: <i>Frantzia (-haize) / (-ipar)</i>		

27. taulan nabari denez, Oñati herria hirutan agertzen da. Izagirrek (1959) egindako hiztegian bi aldiz agertzen da aipaturik: “viento muy frío de la cruz de Aloña hacia Zelaizabal”. Aloña mendia Oñatirekiko hego-ekialdean kokatzen da, baina Oñatiko auzo batzuk ez; adibidez, Araotz. Azken honek, hain zuzen ere, Aloña mendia ipar ekialdean du. Euskaltzaindiak egindako *EHHaren* arabera (2008), ipar haizea dela adierazten da, baina, baliteke ipar hori *nortea* ez izatea eta bai, ekialdeko haizea. Horretaz gain, Bizkaiko Sondika herrian ekialdekoa da (*EHHA*) eta Gipuzkoako Beizaman ipar haizea (*EHHA*). Nolanahi ere, haize hotz askoa adierazteko erabiltzen bide da. Bestalde, bigarren herrialdea Errusia da eta Oñatin ere erabiltzen omen da (Izagirre, 1959). Zehatz-mehatz azaltzekotan bilduriko berba *ruso* da eta esan gabe doa, ezin garbiago adierazten du adimen-begiak haizearen hoztasuna: ziurrenik, Euskal Herriari erasan diezaiokeen haizerik hotzena.

Ostategiekin lotura duten izendapenak direla-eta, bi direla azpimarratu behar da: *enbat* (B-Bermeo / gipuzkera: *DVEF*) eta *lei-haize* (B-Getxo: Llosa, 2002). Lehenengoari buruz ginetiko azterketa egin da Haize leunari dagokion kategorian eta lehen aipatu bezala, bestelako haizeak aztertzen direnerako utzi da, beraren adiera nagusia *galerna* baita. Azkuek (*DVEF*) jaso zuen hemen agertzen den adieran eta hauxe eman zuen aditzera: “viento entre nordeste y norte, aparece al mediodia en pos del viento norte”. Bizkaiko Bermeo herrian eta Gipuzkoan erabiltzen zela agertu zuen.

Bestelako izendapenetan *ahuntz-haize* dago corpusean. Bizkaiko Arrieta eta Bakio herrietan bilduta dago eta ematen du eskualde horretan arrunt samarra dela. Zehatz-mehatz *euntzaixie* da elkarketa (Gaminde, 1999). Beste aldaera *bat ahuntza hileko haize* da (*euntze illeko aixie*, B-Arrieta: Gaminde: 2001a), baina, ekialdeko haizea adierazteko jasota dago ia eskualde berean. Gogora dezagun gaztelaniaz Espainiako toki askotan erabiltzen omen dela *matacabras* izenekoa:

El viento fuerte y frío del norte, llamado también **nortada** [nortiada] recibe curiosos nombres como **carbeso** (Ancares leoneses), **zurrusco** (Murcia), **pelacañas**, **matacabras**, **descuernacabras** o **descuernavacas**. El uso del término matacabras está bastante extendido por España, si bien lo más común es emplearlo para identificar al viento molesto, con independencia de cuál sea su procedencia. (Viñas, 2006: 33)

Mendebaldeko haizeari dagokionez, honako sailkapen hau egingo da jarraian:

- Haize edo airearen izakiei buruzko izendapena: *basa haize*, *haize basa*, *haize(go) beltz*, *haize gaizto*.
- Izendapen kardinala: *ipar beltz*, *luezteko haize*, *mendebal haize*, *mendebal berde*, *norte haize*, *oesteko haize*.

- Izendapen orografikoa: *aldagoi, aldaize, azpi haize, baxuko haize, beheko haize, behereko haize, ezker haize, goiko haize, zehar haize.*
- Izendapen toponimikoa:
 - Ondoko herriak: *Baionako haize, Capbreton haize, Orio haize.*
 - Elementu geografikoa: *itsas aire, itsas haize, Ahüski haize, Gorbea haize; manex haize, Pagofin-haize (pafinaxe), San Migel haize.*
 - Herrialdea: *Galiziako haize, galego haize, galego hego, Gaztela.*
- Ostagiekin lotura duten izendapenak: *enbata (haize), euri haize, galerna, lantzer haize, tenpesta haize.*
- Erreferentzia astronomikoa: *egutaize, itzaldeko haize, sartaize, sartalde haize.*
- Bestelako izendapenak: *amilan, atun haize, bidasoi, galgoe haize, mandio haize.*

Haize edo airearen izaerari buruzko izendapena dela-eta, *basa* izenondoa bi eratara agertzen da; izenaren aurretik eta atzetik: *basa haize* eta *haize basa*. *Basa* adjektiboa aski erabiltzen da etnometeorologian, eta, nola ez, haizeen eremuan. Lehen aipatu denez, *basa haizeak* ipar haizea adierazten du Zuberoako Pagola herrian (*EHHA*); herrialde bereko Lorraine herrian, ostera, *basa hego* hego haizea da, aurkakoa, hain zuzen ere (*EHHA*); herrialde bereko Urdiñarbe herrian eta ondoko herrialdean, Nafarroa Behereko Jutsi eta Larzabale herrietan, aldiz, mendebaldeko haizea da (*EHHA*); Nafarroa Behereko Bastida herrian alderantziz *haize basa* erabiltzen da (*EHHA*) norabide bereko haizeari izena emateko. Beraz, *basa* kontzeptuak oso sentimendu desberdinak sorrarazten ditu hiztunen adimen-begien artean. Bestalde, gogora dezagun *eguraldi basa*, Nafarroa Garaian oso eguraldi ona dela (*DVEF*); hurrengo elkarketa *haize(go) beltz* da. Bai *haizego* zein *haize beltz* erabiltzen dira. Lehenengoa Nafarroako Aniz herrian (*EHHA*) eta bigarrena Zuberoako Altzürükü herrian (*EHHA*). Anizen hego haizeari eransten zaio *beltz* izenondoa mendebala adierazteko. Aipatuak aipatu, Espazio nozioaren haizeen eremuan honako erabilera hau dauka kolore beltzak:

Hitza	Nongo haizea	Herria / Euskalkia / Iturria
Haize beltz	Hego haizea	Z-Lorraine
Hego beltz	Hego haizea	----
Aire beltz	Hegoa haizea	BN-Ezterenzubi
Ipar beltz	Ipar ekialdeko haizea	----
Haize beltz	Ipar haizea	B-Jatabe, L-Arrangoitze
Ipar beltz	Ipar haizea	B-Gizaburuaga
Ipar beltz	Mendebaldeko haizea?	N-Erronkari, Zaraitzu
Haize beltz	Mendebaldeko haizea	BN-Arboti-Zohota, Larzabale / L-Sara / Z-Altzürükü, Sohüta
Haizego beltz	Mendebaldeko haizea	N-Aniz

28. taula. Mendebaldeko haizea: kolore beltza

Azkenik, *haize gaizto* izendapena geratzen da. Nafarroa Behereko Arboti-Zohotan herrian erabiltzen da (*EHHA*). Bertako hiztunen adimen-begiaren arabera mendebaldeko haizea ez da batera ona *gaixtua* da. Herri berean *haize beltz* ere erabiltzen da norabide bereko haizeari irizteko. Eta horrelako fenomenoak hainbat herritan gertatzen bide da. Izan ere, toki batzuetan haize bera izendatzeko sei hitz desberdin erabiltzen dira:

Badira haize-mota bera izendatzeko 6 erantzun desberdin jaso diren herriak. Eta asko dira 3 eta 4 hitz desberdin jaso direnak. Adibide gisa baino ez bada ere, hona hemen Monturin mendebaldeko haizea izendatzeko jaso diren izenak: *itxasaidia*, *ebi aizia*, *pekaizia*, *bajuna haize*, *aizebeltza* eta *manex haize*. (Aurrekoketxea, 2000: 105)

Izendapen kardinalaz bezainbatean berba gehienak maileguak direla ematen du, *luezteko haize*, *mendebal haize*, *mendebal berde*, *norte haize* eta, *oesteko haize*, alegia, eta berezkoa denak, *ipar beltz*, Azkuek (*DVEF*) jaso zuen ohar hau erantsita: “Iparrak iru dra Erronkarin: ipar beltza, ipar fina eta ipar gorria. (vendabal, nordeste y norte)”. *Vendabal* delakoa mendebaldeko haizea ote da? Antza denez, bai. Euskal hiztunek ez ote zuten izango berezko hitzik *mendebaldea* adierazteko? Beharbada, bai, *sartalde sortalde* berbaren aurkakoa, eguzkiaren ustezko norabidean oinarritua. Eguzkiari erreferentzia egiten dioenez, *eguzkia sortu / sartu* dagokion sailean aztertuko da. Ziurrenik, Euskal Herriko arrantzaleek beste herrietakoekin harremanetan jarririk, berba asko ekarri izan dituzte; adibidez, *oesteko haize* arrunta da Bizkaiko kostaldean (B-Bermeo, Elantxobe: *EHHA*); beste batzuk, ordea, barrualdean ere orokorrak dira; adibidez, *luezteko haize (lueztekhaize)* Zuberoako Domintxaine-Berroeta herrian erabiltzen da (*EHHA*). Nondik etor liteke, frantsesetik, bernesetik? Azken hizkuntza honetan, mendebala –*ouest*– honela esaten da: *oest*, *cap-arrèr*, *cap-darrèr*, *au só darrèr*. Eta frantsesez, *l'ouest*. Hortaz, itxuraz, ematen du frantsesetik harturik dagoela; mendebal terminoaren gainean, nahiko orokorra, badirudi frantsesetik edo gaztelaniatik pasatu dela euskarara. Frantsesez *vent d'aval* elkarketak behe(re) edo azpiko haizea esan nahi du: “*Vent d'aval*, se dit, sur les côtes, de Tout vent qui souffle de l'un des points compris entre le nord-ouest et le sud-ouest, passant par l'ouest, surtout lorsque la terre est au levant. Le *vent d'aval* amène presque toujours de la pluie”¹⁷. Izendapen hori ere hedatuxe dago Euskal Herri osoan. Orografikoa denez gero, horretantxe aztertuko da. Aldaera bitxi bat Bizkaiko Mundaka herrian erabiltzen da, *mendebal berde* (Barrutia, 2000). Ez dago oso argi zergatik eransten zaion kolore *berdea*, baina ematen du zakartasunari edo abiadurari loturik dagoela. Izan ere, *eguraldi berdeak* eguraldi txarra adierazi nahi du. Horretaz gain, *norte haize (nordeaxe)* Bizkaiko Zeanuri herrian erabiltzen da (*EHHA*) eta harrigarri samarra da horrelako

¹⁷ <https://dictionnaire.lerobert.com/>

izendapena ematea. Nekez jakin liteke zer dela-eta dagoen lotura hori. Beraz, izendapen kardinaletan ez dago berezkorik, *ipar beltz* izan ezik, eta horrek adierazten du euskal hiztunek berbak eta terminoak beste mintzaira batzuetatik hartu izan dituztela, euskarak bestelako baliabide batzuk eskaini ditu eta.

Izendapen orografikoa dela-eta, eztabaidagai diren *aldagoi*, *aldaize* eta *zehir haize* sartu dira nolabaiteko izaera geografikoa dute eta: *alde*, *goi* eta *zehir* hitzek, hain zuzen ere, horixe oroitarazten dute. *Aldagoi* berba lehen aztertu da haize zakar-zakarra euriarekin batera esan nahi duela aditzera emateko, eta Gipuzkoako hainbat herritan, adibidez, Legazpin eta Urretxun mendebaldeko haizeari irizten diote (*EHHA*); *aldaize* terminoarekin antzerakoa gertatzen da; Gipuzkoa aldeko herri batzuetan oso haize zakarra da, adibidez, Ataunen (*DVEF*) eta beste batzuetan, mendebala, adibidez, Urretxun. Nolanahi ere, baliteke haize mota bera izanda, hiztunek sentsazio desberdina izatea, hots, oso zakarra eta mendebala izatea; azkenik, *zehir-haize* elkarketa, besteak beste, mendebala ere adierazteko erabiltzen da hainbat herritan (*EHHA*). Izendapen hori dela-eta, bestalde, Baztan haranean hiru esanahi jaso dira: ipar haizea (Iribarren, 1952), ipar-mendebala (Izeta, 1996) eta mendebala (*DVEF*). Bailararen kokapena mapan aztertzen badugu, Baztan aldea, ipar ekialdera so dagoela antzemango da. Hori dela eta, hiztunen pertzepzio eta adimen-begia askotarikoa izan daiteke; izan ere, zeharretik jotzen dituen oro mendebalde, ipar-mendebalde edo iparretik etor lekieke. Hala eta guztiz ere, Izetak (1996), bertakoa izanda, uste da agerrarazten duen ipar-mendebaldetasuna haranaren kokapenari hobeto egokitzen dela. Kontuak kontu, hauxe da, oro ohar, *zehir haizeari* dagokion taula:

Hitza	Nongo haizea	Herria / Euskalkia
Zehir haize	Ekialdekoa	N-Berute
Zehir haize	Ipar-mendebala	N-Baztan
Zehir haize	Iparra	N-Baztan
Zehir haize	Mendebala	N-Alkotz, Baztan; G-Amezketeta, Andoain
Zeiar	Mendebala	BN-Uharte Garazi
Zeihar	Mendebala	Z-Altzurükü, Larraine
Zeihar haize	Mendebala	Z-Altzai
Zeihar	Mendebala	BN-Arnegi
29. taula. Ipar-mendebaldeko haizea: zehir (-haize)		

Horretaz gain, bestalde, izendapen orografikoagoi dagokienez, honako hauek dira: *azpi haize*, *baxuko haize*, *beheko haize*, *behereko haize*, *ezker haize*, *goiko haize*. Aurrekoan izendapen kardinalean, aipatu denez, *azpi*, *baxuko*, *beheko* eta *behereko haize*, batetik eta *mendebala*, bestetik, ezpal berekoak dira; esanahi bera biltzen dute beren baitan. Ez da erraza

jakitea zein sortuko ote zen lehenago: baliteke berezko zein itzulpena izatea eta mailegua geroxeago heldu izana. *Beheko haize*, gehienbat, Bizkai aldean erabiltzen da (Barrutia, 2000) eta gainerakoak Gipuzkoa, Nafarroa eta Lapurdi aldean (*EHHA*; *OHE*). Lehen aditzera eman denez, izendapen orografikoak herrien kokapenean baitan daude. Berebiziko garrantzia du herrian non dagoen jakiteak. *Beheko haize* eta antzekoak honako 30. taula honetan ipiniko dira garbiago ikustekotan:

Hitza	Nongo haizea	Herria / Euskalkia
Peko aide	Ekialdeko haizea	Z-Barkoxe, Domintxaine-Berroeta
Beheko haize	Hego haizea	B-Zollo; BN-Bidarrai
Beheko haize	Hego-mendebaldeko haizea	B-Bermeo
Peko aire	Ipar haizea	L-Makea; BN-Armendaritze
Peko (Norte)	Ipar haizea	BN-Aldude
Peko haize	Ipar haizea	Z-Urdiñarbe
Beheko haize	Ipar haizea	G-Ataun, Oñati (Araotz); N-Goizueta
Behe haize	Ipar haizea	B-Elorrio
Beheko haize	Ipar-mendebaldeko haizea	B-Bermeo, Mundaka
Baxoko haize	Mendebaldeko haizea	L-Donibane
Baxoko haize	Mendebaldeko haizea	G-Pasaia
Beheko haize	Mendebaldeko haizea	B-Bermeo, Elantxobe, Mundaka
Behereko haize	Mendebaldeko haizea	Harriet
Pekaize	Mendebaldeko haizea	Z-Montori
30. taula. Ipar-mendebaldeko haizea: <i>Beheko haize</i>		

30. taula honetan ikus daitekeenez, *beheko* edo *peko haize* zazpi haize mota izan daiteke: ekialdeko haizea, hego haizea, hego-mendebaldeko haizea, ipar haizea, ipar-mendebaldeko haizea eta mendebaldeko haizea. Beraz, lau haize nagusiak eta bigarren mailako hiru haize. Herriaren orografiaren baitan dago esanahia, zalantzarik gabe. Gainera, ez dago mendebaldeko eta ekialdeko euskalkien arteko bereizketarik egiterik. *Peko* ekialdean erabiltzen izanagatik ere, Montorin (Zuberoa) *pekaize* mendebala da, *baxoko* edo *beheko* haize mendebaldeko euskalkietan bezalaxe. Guztiarekin ere, datu bat deigarri gertatzen da: Bizkaiko Bermeo herrian *beheko haize* mendebala, ipar-mendebala eta hego-mendebala adierazteko erabiltzen da. Izan ere, jasotako datuen arabera, halako haizea, “suroesta, noroesta eta oesta da Bermeon” (Barrutia, 2000: 32).

Beste bi izendapena orografikoez bezainbatean, Zuberoako Santa Graziko *exker haize* elkarketak (*EHHA*) ezin garbiago adierazten du haizearen norabidea, hau da, bertan ezkerretatik eskuinetara jo ohi duen haizea mendebala da, eta Bizkaiko Zollo herriko *goiko haize* mendebala ere bada (*EHHA*), baina, beste herri batzuetan, adibidez, Lapurdiko Arrangoitzen hego haizea

da (*EHHA*). Datu hori bitxi samarra suertatzen da; izan ere, Zollo herria euskararen eremuko mendebalde-mendebaldean kokaturik dago eta Arrangoitze ipar-iparrean.

Izendapen toponimikoari buruz, hiru azpimultzoak azaltzen dira: ondoko herriak, elementu geografikoa eta herrialdea.

Lehenengoari dagokionez, hiru herri dira mendebal haizeari izena emateko: *Baiona*, *Capbreton* eta *Orio*. *Baiona* Zuberoako Montori herriko izendapenetan agertzen da nola edo hala, euskaraz eta bearnesez; *Baiuna haize*, *Baiunakaize* eta *Baiunakua* euskaraz eta *Baiunes* biarnesez (*EHHA*). Euskal Herriko mapari zehatz-mehatz erreparatuz gero, erraz ikusiko da *Baiona* Montorirekiko mendebaldean ez dagoela, ipar-mendebaldean baizik. Hala ere, kontu bat da bene-benetan dagoen orientazio geografikoa eta beste bat hiztunen adimen-begiak bere egiten duen sentimendua. Hori dela-eta, Montoriko hiztunen ustez, *Baiona* Montoriko mendebaldean da. Bigarren leku-izena, *Capbreton*, Euskal Herrikan kanpo dago, Frantziako Landak departamenduan, hain zuzen ere, baina Baiona aldetik hurbil-hurbil. *Kabretonaize* Lapurdiko Makea herrian erabiltzen dute mendebal haizeari irizteko (*EHHA*). Montoriko kasuan bezalaxe, *Capbreton* Makearekiko ipar-mendebaldean dago eta ez, mendebaldean. Hala ere, izendapen horrexetaz baliatzen dira. Zergatik Capbreton eta ez itsasertzeko euskal herriren bat? Ez da hain harrigarri eta estrañoa; zenbaitetan, ziurrenik, hiztunek izen arrotzak indar edo enfasi handiagoa emateko asmoz erabiltzen dituzte. Hirugarrena *Orio* herria da. *Orioaize* (*EHHA*) Nafarroako Goizuetara herrian erabiltzen dute mendebaldeko haizea izendatzeko. Oriotik Goizuetara zuzen-zuzenean ez dago kilometro askorik, eta mendebaldeko haize hutsa ez bada ere, ia ia ipar-mendebala da, aipaturiko hiru herrion artean hurbilen dago sartaldeko haizearen kontzeptutik.

Bigarren azpimultzoa, elementu geografikoren bat aipatzea da. Haize mota hau dela-eta, honako hauek jaso dira: *itsas aire*, *itsas haize*, *Ahüzki aide*, *Gorbea haize*, *manex haize*, *Pagofin-haize* (*pafinaxe*) eta *San Migel haize*. *Itsas* haizeak, Gipuzkoan, Lapurdin eta Nafarroa Beherean mendebaldekoak dira, baina Bizkaian iparrekoak. Nafarroa aldean, aldiz, ez da horrelakorik jaso. Behin eta berriz aditzera eman izan denez, herriaren kokapenak berebiziko garrantzia du; *Ahüzki* mendia Zuberoan dago, Arbailletako Oihanean. *Ahüzki aide* elkarketa Zuberoako Altxaiko hiztunek erabiltzen dute (*EHHA*) eta oraingoan, bai, guztiz lerrokaturik daude *Ahüzki* eta *Altxai*, ezkerraldetik eskuinaldera, hortaz, mendebaldeko haize peto-petoa; *manex haize* eta *aldaerak* Zuberoan ere erabiltzen dira (*EHHA*). Zuberotarren ustez, *manexak* iparraldeko gainerako herrialdekoak dira, behe-nafarrak eta lapurtarrak. Hori dela-eta, sartu da azpimultzo honetan horrelako izendapena; *Gorbea haize* Oñati herriko Araotz auzoan erabiltzen dute (Izagirre, 1959). Oraingoan ere guztiz lerrokaturik daude *Gorbea* eta *Araotz*,

ezkerretatik eskuinetara; beraz, mendebaldeko haize garbi-garbia; Dima aldean erabiltzen omen da *Pagofin-haize* (*pafinaxe*). *Pagofin* herriaren mendebaldean kokaturiko mendixka omen da, eta “andi datorren axea dana les esaten yeutxuk pafinaxea” (*EHHA*); azken izendapena, *Samielaize* da, Nafarroako Etxaleku herrian erabiltzen dutena (*EHHA*). San Migel, jakina, Aralarren dagoen santutegiaren izena da. Kasu honetan ere zeharo lerrokaturik azaltzen dira San Migel eta Etxaleku, ezkerretatik eskuinetara; beraz, egiazko mendebaldeko haizea. Etxalekun ez ezik, Urdiainen ere baliatzen dira izendapen horretaz bertako biztanleak (*EHHA*), baina, Urdiainen San Migeletik jotzen duen haizea ez da mendebaldekoa ekialdekoa baizik. Izan ere, eskuinaldetik ezkerraldera lerrokaturik daude.

Hirugarren azpimultzoa, herrialde edo jentilizioen batez baliatzea da. Mendebaldeko haizea izanda, *Galizia* herrialdea azaltzen da gehien (*EHHA*) eta kasu batean *Gaztela*. Bizkaia eta Gipuzkoan egiten zaio Galizia herrialdeari aipamen gehien eta Nafarroan *Gaztela* aldeko haizeari (*EHHA*). Azken honek beste esanahi asko ditu, ipar-mendebaldeko haizearen azterketan azaldu denaren arabera. *Gaztelaniaz viento gallego* izendapena arrunt samarra da herri askotan. Batzuetan mendebala da eta beste batzuetan ipar-mendebala.

Ostagiakin lotura duten izendapenez bezainbatean, ohikoa izaten da haize eta bestelako ostagi motak uztartzea. Horiek horrela, honako hauek bildu dira: *enbata* (*haize*), *huri haize*, *galerna*, *lantzer haize*, eta *tenpesta haize*. *Enbataize* elkarketari buruz (L-Itsasu, Sara / Z-Ürrustoi-Larrabile: *EHHA*), adierazi behar da haize mota horrek ekarri ohi duela *enbata*, baina, *enbata* bera, berez, beste haize mota bat da. Hortaz, sail honetan egon liteke edo bestelako izendapenetan; *huri haize* terminoa Euskal Herriko muturretan erabiltzen bide da, Bizkaian zein Zuberoan (*EHHA*). Usu, euskal hiztunaren iruditerian haize jakin batek euria ekarri ohi duelako sentipen eta irudipena egon ohi da: “Haize honek euria dakar”. Hori dela-eta, ez da harritzekoa mendebal haizeak horrelako izendapena jasotzea; *galerna* dela-eta, azpimarratu behar da bere baitara biltzen dituen adierak antzeratsukoak direla, baina, ñabardura batzuekin. Kasu honetan, barrualdeko bi herrietan, Oiartzun eta Mugerre, mendebaldeko haizeari izena emateko erabiltzen da (*EHHA*) Ziurrenik, galernaren ingurukoak desberdin samarrak izango dira kostaldeko edo barrualdeko hiztun baten adimenaren begietan, hau da, pertzepzioa era desberdinean sumatuko dute; *lantzer haize* elkarketa bitxia dela-eta, *lantzer* berbak euri xehea esan nahi du. Zuberoako Zalgize herrian jasota dago hitz hori (Lhande, 1926). Badirudi aldaera ugari daudela hitz horren inguruan: *lantxer*, *lantzar*, *lantzera*... terminoek hainbat esanahi dituzte, batez ere lainoei buruzkoak. Horiek aztertzen direnean horien berri emango da. Beraz, antza denez, mendebalak *lantzerra* ekarri ohi du, euri xehea, alegia; azkenik, *tenpesta-haize* elkarketan (*tenpestaiazia*, BN-Larزابale: *EHHA*) nabaritzen da hiztunen adimen-begiak

tenpesta eta mendebaldeko haizea lotzen dituela. Lehenago adibidearen erabat aurkakoa da, *lantzer haize* euri xehearekin uztartzen da eta *tenpesta haize* ekaitzarekin, hortaz, haize beraren bi muturreko ikuspegi, hiztunen adimen-begiaren arabera.

Erreferentzia astronomikoa duten terminoak direla-eta, *egutaize*, *itzaldeko haize*, *sartaize* eta *sartalde haize* dira mendebaldeko haizeari izena ematen diotenak. Lehenengo terminoari buruz, *egutaize*, baliteke Azkuek (1909-1910) asmatu izana. Beste inon ere ez da aurkitu, Ortzuri¹⁸ izeneko operan baizik. Honako itzulpen hau ematen du: “Céfiro, viento celeste suave y apacible”. Zefi-ro, hain zuzen ere, grekoen mendebaldeko haizearen jainkoa da; *itzaldeko haize* Harrietek jaso zuen (OEH); izan ere, Zuberoa aldean *itzalde* mendebaldea da, hau da, “eguzkia itzaltzen den aldea”. Bestalde, azken bi elkarketak, *sartaize* (DRALV) eta *sartalde haizea* (G-Aia: EHHA), eguzkiaren sartzeari buruzkoak ere badira, “eguzkia mendebaldetik sartu egiten da eta”.

Bestelako izendapenei buruz, multzo honetan jatorri ezezagunekoak eta bitxikeriak sartzen dira: *amilana*, *atun haize*, *bidasoi*, *galgoe-haize* eta *mandio-haize*. *Amilana* dela-eta, gorago ipar haizearen azterketa egin denean eman da beraren berri. Askotariko adierak ditu eta itxura denez, kokapen geografiko zehatza du hitz honek: Mañaria-Otxandio-Zeanuri-Aramaio-Leintz-Gatzaga-Eibar herriek osatzen duten eremua (EHHA). Horren arabera mendebaldeko hizkeraren sartaldean erabiltzen bide da. Lehen esan bezala, ez dago batere garbi berba horren jatorria, beste termino batekin uztartzea gaitza baita. Bigarren elkarketa, *atun-haize*, interesgarria da adimen-begiak giza jarduera eta haize mota bat uztartzen ditu eta; izan ere, “atunetarako ona den haizea, mendebal suabea” (Barrutiak, 2000). Era berean, hegaluzeak ere badu protagonismoa beste konposizio etnometeorologiko batean: *atun-adur*. Kasu honetan euri xehe-xehea esan nahi du (Barrutia, 2000). Badirudi euri mota hori atunari darion adurra bezain mehea dela. Irudi polita adimen-begiak sortutakoa; hurrengo berba, *beaxoi*, Orion eta *biaxoi* Pasaian (EHHA), *bidasoi* hitza delakoan nago. Izan ere, lehenago aztertu da hitz hori, *haize-bidasoi* elkarketan haize-zirimola adierazteko, eta itxura denez erdarazko *virazon* eletik etor liteke. Gorago aipatu bezala euskal kostalde guztian ezagutzen bide den hitza da; *galgoe* (*haize*) ere lehen aztertu izan da. Oraingoan Zestoan jasotako aldaerak mendebaldeko haizea ematen du aditzera (EHHA); beste herri batzuetan, ordea, adibidez, Ondarroan, *hego-mendebala* da eta *galgoe beltz* (*galgoi baltz*) ipar-mendebala (Barrutia, 2000). Bukatzeko, *mandio-haize* dugu, *mandioaize*, Nafarroako Goizueta herrian baliatzen dute hiztunek (EHHA). Agian,

¹⁸ R.M. Azkue. *Ortzuri*. Paris, 1909-1910.

mendebaldeko haizeak jotzen duenetan, herriaren kokapena dela-eta, mandio, lastategi edo aletegietan zehar igarotzen da eta bertako usain sarkorra hedatzen da herrian barrena.

Hego-mendebaldeko haizeari dagokionez, honako sailkapen hau egingo da:

- Izendapen kardinala: *hego-mendebaldeko haize*; *hego-mendebal*; *sudoesteko haize*.
- Izendapen orografikoa: *barruko haize*; *beheko haize*.
- Izendapen toponimikoa:
 - Elementu geografikoa: *arraize*; *Ernio haize* eta *Jata haize*.
 - Herrialdea: *Araba haize*; *Gaztela haize*.
- Erreferentzia astronomikoa: *hego sartaldeko haize*.
- Bestelako izendapenak: *amilena* eta *galgoe*.

Izendapen kardinalaz bezainbatean hiru elkarketa dira corpusean, *hego-mendebaldeko haizea* (Landa, 2003), *hego-mendebal* (Elhuyar Hiztegia) eta *sudoesteko haize*. Lehenengo bieie dagokienez, irudi du nolabaiteko “bertsio kultuak” direla; agian, itzulpenak, idatziak eta ahozkoak. Hirugarrena, bai, ahozkoa da, Bizkaiko Bermeoko arrantzaleek erabilia (Barrutia, 2000). Beraz, ez dirudi horrelako haizeari irizteko euskarak berezko izendapen kardenalik daukanik: itzulpenak edo maileguak.

Izendapen orografikoa dela-eta, bi dira: *barruko haize* eta *beheko haize*. Lehendabiziko elkarketa Bizkaiko kostaldean erabiltzen da; Bermeon, Mundakan eta Ondarroan hego-mendebala adierazteko erabiltzen da, baina, Elantxoben hego haizea esan nahi du (Barrutia, 2000). Itxura denez, *barruko haizea* lehorretik itsasora joaten da, barrutik atera edo kanpora. Azpimarratu behar da kontrajartze bat dagoela “barruko” eta “kanpoko” haizeen artean; *barrukoa* hegotik eta *ateko* edo *kanpokoa* iparretik: barru vs at, kanpo. Ziur asko horixe izan liteke jatorrizko euskal izendapena.

Izendapen toponimikoari dagokionez, ondoko herririk ez dagoela adierazi behar da, baina, bai, elementu geografikoak eta herrialdea. Aurrenekoen artean, menditik datozen hiru elkarketa: *Arraize*, *Hernio-haize* eta *Jata-haize*. *Arraize* Gipuzkoako Zegama herrian erabiltzen omen da Aizkorri aldetik etortzen zaien haizeari izena emateko (Pello Zabala, EtnoMet). Aizkorri Zegamarekiko hego-mendebaldean da; *Hernio-haize* Erreterian erabiltzen da, eta geografikoki guztiz egokia da hego-mendebalari izena emateko (Barandiaran, 1983). Izan ere, Hernio, Gipuzkoako mendirik ospetsuenetarikoa, Erreteriarekiko hego-mendebaldean kokaturik dago; hirugarren haizea, *Jata-haize* (*Dxataixe*), Bizkaiko Bakio herrian erabiltzen da eta kasu honetan ere, Jata mendia, Bakiorekiko hego-mendebaldean dago (Gaminde, 1999). Bestalde, izendapen geografikoetan bi herrialde bakarrik aipatzen dira, bata, barrukoa, Araba

eta bestea, kanpokoa, Gaztela. *Araba haize* Errenteria herrian ere erabiltzen da eta jakina, Araba hego-mendebaldean dago Errenteriarekiko (Barandiaran, 1999); *Gaztela haize* Nafarroako Baztan bailarako hiztunek erabiltzen dute (Izeta, 1996). Ipar-mendebaldeko haizea aztertu denean eman da beraren berri eta bertan adierazi denez, jatorri askotako haizea izendatzeko baliatzen da Gaztela herrialdeaz.

Erreferentzia astronomikoaren gainean izendapen bakarra dago: *hego sartaldeko haize* (Landa, 2003). Eguzkia, jakina, sartu egiten da mendebaldetik, hortik datorkio izendapen kardinal-astronomikoa. Kardinala, sartaldegatik beragatik eta astronomikoa eguzkia mendebaldetik sartzan delako. Baliteke hori ere “bertsio kultura” izatea, itzulpena, alegia.

Bestelako izendapenetan lehen jorraturiko bi termino dira corpusean: *amilena* (*amillana*: DRALV) eta *galgoe* (DVEF). *Amilena* dela-eta, ipar haizea aztertu denean aipaturiko **amil* + *lan(o)* izan liteke hitz horren jatorria. *Lanotik*, *laino* sortu zatekeen palatalizazioa dela bitarte. Agidanez, *amilenen* lehenengo adiera “lainoa” denez, bertan xehatu egingo den arren (ikus 97. taula), beste taula batean ere izango da (ikus 32. taula); bigarrenaren jatorria are ilunagoa da, *galgoe* hitza. Gorago eman da beraren berri, ipar-mendebaldeko eta mendebaldeko haizeen izendapenak aztertzean.

Hego-haizeari dagokionez, honako sailkapen hau egin liteke:

- Haize edo airearen izakiei buruzko izendapena: *aire*, *haize beltz*; *haize epel*; *haize erre*; *haize gorri*; *aire*, *haize ihar* eta *haize siku*.
- Izendapen kardinala (edo hibridoak, izaerarekin): *basa hego*; *haize hego*; *hego(a)*; *hego erre*; *hego(ko) haize*; *hego putz*; *hego zuri* eta *sur(ko) haize*.
- Izendapen orografikoa: *aurreko haize*; *barruko haize*; *beheko haize*; *behereko haize*; *goiko haize* eta *haize herriko (aurreko?)*.
- Izendapen toponimikoa:
 - Ondoko herriak: *Nabarniz haize*.
 - Elementu geografikoa: *Ahuña aire*, *haize*; *erreka haize*; *herriko haize* eta *mendi haize*.
 - Herrialdea: Araba-hego; *Espainiako haize*; *Gaztela-haize*; *Gaztela-hego* eta Nafar-hego.
- Ostagiekin lotura duten izendapenak: *goha*.
- Sasoi izendapena: *urri(ko)*, *urrite haize*.
- Erreferentzia astronomikoa: *egutaide* eta *eguzki haize*.
- Bestelako izendapenak: *andre*, *enbra haize* eta *mahumet*.

Haize edo airearen izaerari buruzko izendapenari dagokionez, honako elkarketa hauek: *aire beltz* (BN-Ezterenzubi: *EHHA*), *haize beltz* (zuberera: *DRALV*); *haize epel* (*axepel*, B-Ondarroa, Uribe-Etxebarri: *EHHA*); *haize erre* (*aixerre*, B-Abadiño: Gaminde & Salterain, 1991); *haize gorri* (*aizegorri*, L-Arrangoitze: *EHHA*); *aire ihar* eta *haize ihar* (L-Bardoze: *EHHA*). Alde batetik, adimen-begiak haizearen kalitateak nabarmentzen ditu: *epel*, *erre*, *ihar* eta *siku*; bestetik, koloreak, *beltz* eta *gorri*. Kalitateak haizearen berotasunari, *epel* eta *erre*, edo lehortasunari, *ihar* eta *siku*, loturikoak dira. *Epel* adjektiboak hizkera batzuetan bero ere esan nahi du (B-Ondarroa, Uribe-Etxebarri: *EHHA*); *erre* adjektiboa, ostera, are adierazgarriagoa da, haizearen nolakotasun ezin beroagoa aditzera ematen baitu, *erre* egiten du, alegia. Hori ere Bizkai aldean gailentzen bide da; bestalde, *ihar* eta *siku* adjektiboek, antzeko esangura daukate, *lehor*, *idor* edo *agor* esan nahi baitute, hau da, *lehortzen* duen haizea. Ezaguna da hego haizeak oso hezetasun gutxi daramala bere baitan; hori dela-eta, ziurrenik, horrelako izendapena. Horiek ere Bizkai aldean erruz erabiltzen dira. Izendapen kardinalarekin batera ere izaten dira zenbait izakiei buruzko izendapen; beraz, hibridoak dira, segidan sumatuko ahal izango denez. Koloreak direla-eta, batetik, *gorriak* hego haizearen *goritasuna* edo *sutasuna* biltzen du bere baitan, hau da, *suaren irudia* agertzen bide du eta bestetik, kolore beltzak *gordintasuna* adierazten du. Hor dira aipatutako, *haize beltza* (zakarra edo ipar haizea) edo *ipar beltza* bera. Goratxoago, mendebaldeko haizearen azterketan eman da kolore beltzaren berri haizeen eremuan.

Izendapen kardinalaz bezainbatean (edo hibridoak, izaerarekin) ondoko elkarketa hauek dira corpusean: *basa hego*; *haize hego*; *hego(a)*; *hego erre*; *hego(ko) haize*; *hego putz*; *hego zuri* eta *sur(ko) haize*. Lehenengoa dela-eta, *basa hego*, Zuberoako Larraine herrian erabiltzen da (*EHHA*). Gorago aipatu denez, *basa haize* ere erabiltzen da, baina mendebaldeko edo ipar haizea izendatzeko (*EHHA*). Kasu horretan izaerari eranstean zaio *basa*, baina oraingoan hegoa da *basa*; *haize hego* / *hego haize* bikotea dela-eta, ematen du bigarrena nagusitu dela euskara batuan, baina ez bide dago oso argi zein den jatorrizkoa. Lehenengoa ematen du adjektibo funtzioa betetzen duela, Euskal Herriko ekialdean erabilitakoa (*EHHA*) eta bigarrenean izenarena, Euskal Herriko mendebaldean (*EHHA*). Zenbait tokitan, adibidez, Bizkaiko Bermeon nongotasuna adierazten da, *eguko axe* (*hegoko haize*: Barrutia, 2008) eta beste batzuetan erdaretatik datorren *sur* (edo *surreko*) berbaz baliatzen dira; adibidez, Bizkaiko Zaratamon, *sur* (*EHHA*), eta Gipuzkoako Zestean, *surrekoaize* (*EHHA*). Gerta liteke zenbait eskualdetan, *hego* / *sur* bikotearen artean zelanbaiteko desberdintasuna izatea, baina, bildutako corpusean ez da horrelako emaitzarik aurkitu; *hego(a)* berbak, bestalde, hainbat aldaera ditu, *ego*, *egoa*, *egoi*, *egu*... Nolabaiteko pertsonifikazioa ere biltzen du bere baitan:

Hego Haizea irudikatzen duen pertsonaia da. Herriak kontatzen duenez, *Egoi Ipar-mendebaldeko* alaba batekin ezkontuta dago. Era berean, *Ipar Haizea* beraren beste alaba batekin ere ezkontuta dago. Alaba hori oso arduratsua omen da eta senarrari baratxuri-zopa egiten omen dionez, senarra beti lasai asko egoten da. Bestalde, *Egoiren* emaztea alfer samarra omen da eta ez dio baratxuri-zoparik egiten. Hori dela-eta, *Egoi* haserretu eta aitagarrebaren bila joaten omen da emaztearen ezkonsaria eman diezaion, lehenago ere agindu omen baitzion. Aitagarrebak negar zotinka esaten omen dio ez daukala eta geroago emango diola. Orduan, *Egoi* baretzen omen da. Kontakizun hau D. Lazaro Ormart Elizondon jaso zuen eta Zugarramurdin eta Garazin aldaera batzuk ditu. (Barandiaran, 1983: 181)

Aipaturiko datuen arabera, beharbada, honako bilakaera izan du toki batzuetan *hego* berbak: **hegoa* → *hegoe* → *hegoi* → *hego*; horrek ere, bakar-bakarrik erabilita, adierazten du hego aldetik etortzen den haizea; aurrekoan sailean bezalaxe, *erre* adjektiboak *hegori* ere laguntzen dio —*Eguarria* dator— Oñati aldean jasotakoa, hain zuzen ere (Izagirre, 1959). Hego-haize bero-beroa esan nahi du; azkenik, hurrengo bikotea, *hego putz*, barre eragitea helburu duela osaturik bide dago; izan ere, ez da herri-berba, Onintze¹⁹ deritzon idazleak sorturikoa baizik; lehenago sailean, koloreetan beltz eta gorri nagusitzen baziren ere, oraingoan, arraro samarra izanik, *zuri*, *hegoxuri*, Nafarroa Behereko Bidarra herrian bildutakoa, hain zuzen ere (*EHHA*). Testuingururik gabe dagoenez gero, baliteke nolabaiteko hego-haizearen “bero eta eztitasuna” aldi berean adierazi nahi izatea. Osterantzean, lehen aipaturiko moduan arraro samarra da haize mota horren kalitate negatiboa azaltzea. Beste herri batzuetan, aldiz, hego-haizea aditzera eman beharrean, *eguzki-haizea* esan nahi du (BN-Uharte-Garazi / L-Azkaine: *EHHA*).

Izendapen orografikoari buruz, honako hauek: *aurreko haize*; *barruko haize*; *baxuko haize*; *beheko haize*; *behereko haize*; *goiko haize* eta *haize herriko* (*aurreko* berbarekin egon liteke nahasita). *Aurreko haizea* dela-eta, horretaz gain, badira beste bi izendapen fonetikoki antzekoak direnak: *herriko haize* eta *erreka-haize*. Baserri gehienak hegoalde edo hegoekialdera begira egon ohi direla aintzat harturik, zentzuzkoa da pentsatzea *aurreko haize* izendapena jatorri-jatorrizkoa dela. Gainera, herri batzuetan, adibidez, Getxon, bai *aurreko*, bai *herriko haize* (*irrikoaxe*) erabiltzen omen dira (Llosa, 2002). Herri-etimologiaren arabera egindako hitz-gurutzaketarik izan liteke? Aidanez horrelaxe da. Bestalde, *erreka haize* Lekeitio aldean erabiltzen da:

Herriko haizea / Errekaizea / Andraizea: ikusten danez, haize klase hau hiru modutara izendatzen da. Haize hau, dakigunez, hegoaldetik dator, (barrutik edo lehorretik, arrantzaleen esanetan) eta natural-naturala ez danez, herri jakinduriak dino nahastu egiten dabezela buruz pertsonak, onetik urteneragin, batez be, andrak. (Lekeitioko lantaldea, 2001:17)

¹⁹ *Euzkerea*, I, 203.

Ezaguna denez, Lea ibaia Lekeitio hegotik iparrera isurtzen da; beraz, izendapenaren jatorria fonetika aldetik zuzena izan liteke; *barruko haize* (B-Elantxobe: *EHHA*) eta *kanpo haize* (*ateko haize*) izendapenak elkarren aurkakoak dira. Bigarrena ipar-haizeari esateko erabiltzen da eta lehenengoa, hego-haizeari dagokio. Hortaz, “kanpoa” itsasoa da eta “barrua” lehorra; horrelaxe sumatzen du adimen-begiak. Hurrengo multzotxoa, *beheko* eta *behereko haize* ildo berekoak dira. Nolako kokapena duen herriak halako esanahia dauka. Kasu honetan, adibidez, Bizkaiko Zollo eta Nafarroa Behereko Bidarra herrietan hego-haizea ematen du aditzera *beheko haizeak* eta *be(h)ereko haizeak* Hendaian (*EHHA*); *goiko haize* izendapenaren gainean beste hainbeste adieraz liteke, hau da, non dagoen herria halako esangura. Berau, Lapurdiko Arrangoitze herrian hego-haizea delarik ere (*EHHA*), gorago aipaturiko Zollo herrian, mendebala da. Herriaren orografiak baldintzatzen bide du haizeen irudipena.

Izendapen toponimikoari dagokionez, hego-haizeak hiru azpisailak betetzen ditu bere baitan: alde batetik, ondoko herrietan, *Nabarniz haize* dugu; bestetik, elementu geografikoren bat, *Ahuña aire / haize*, *erreka haize*, *herriko haize* eta *mendi-haize*; eta azkenik, herrialdearen aipamena, *Araba hego*, *Espainiako haize*, *Gaztela haize*, *Gaztela hego* eta *Nafar hego*.

Ondoko herriaren aipamena dela-eta, azaldu behar da kontu aipagarri bat gertatzen dela *Nabarniz haize* izendapenarekin Bizkaiko Errigoiti herrian (*EHHA*); Nabarniz Errigoitirekiko ez dago hegoaldean kokaturik, ekialdean baizik. Horretaz, hain zuzen ere, Gotzon Aurrekoetxeak (2000) honako ohar hau egiten du:

Gerta liteke, halaber, herriaren kokapena eta haize-mota bat ez etortzea. Hori gertatzen da, gure ustez, *Nabarniz aize* haize-izenarekin. Errigoitin hegoaldeko haizea izendatzeko jaso da (*ego aize* eta *goiko aize* izenekin batera), baina Mendatan ekialdekoa izendatzeko. Hala ere, Nabarniz ez dago ez Errigoitiko hegoaldean, ez Mendatako ekialdean. (Aurrekoetxea, 2000: 98)

Elementu geografikoei buruz, *Ahuña aire*, *haize* izendapena nahiko orokorra da iparraldeko euskalkietan. Zalantzarik gabe, orografikoki ondo eraturikoa da; izan ere, *Ahuña* edo Pirinioak hegoaldean kokaturik daude; erreka-haize (*errekaize*) elkarketa Lekeitio aldean erabiltzen da, eta bertan urak isurtzen dituen Lea ibaiak iparraldetik hegoaldera egiten du bide; hortaz, erreka-haizea hego haize “peto-petoa” da (Lekeitio lantaldea, 2001: 17). Berdin antzera gertatzen da Ondarroan baliatzen duten erreka-haize *epel* izendapenarekin (*errekaxepel: EHHA*), zeren Artibai ibaiak hegoaldetik iparraldera egiten baitu ibilbidea; *herriko haizea* elkarketaren gainean lehengo izendapen orografikoetan aipatu da, agian, *aurrekorekin* zerikusia izan lezakeela (besteak beste, G-Orio: *EHHA*). Beste hipotesi bat izan liteke haizea *herritik*, *lehorretik*, datorrela eta ez itsaso aldetik; *mendi-haize* (*mendiazia: EHHA*) elkarketa dela-eta, *Ahuñadunen* antzekoa dela (oro har, Zuberoan: *EHHA*), ezen Lapurdi aldeko Urketa herrian

erabiltzen denez gero, ematen du mendi aldetik, Pirinio aldetik etortzen den haize motari egiten diola aipamen. Pirinioetatik Urketara jotzen duen haizea, ez bairik gabe, hegoaldekoa da.

Herrialdearen aipamenari dagokionez, banaketa zehatza egin liteke: alde batetik, Euskal Herrikoak eta beste aldetik Euskal Herriko kanpokoak. Bertokoak direla-eta, *Araba-hego* (*Arabaegoi*, G-Ataun: *EHHA*) eta *Nafar-hego* (*Napar ego(i)a*, G-Oñati: Izagirre, 1959) erabiltzen dira. Jakina, biak hegoaldean kokaturiko lurraldeak dira. Kanpokoei buruz *Espainiako haize* (*Españako haize*, Bearnoko Eskiula: *EHHA*) eta *Gaztela haize / hego* elkarketak azpimarratu behar dira (G-Oñati: Izagirre, 1959). Hitzunaren adimen-begiak haizea bertatik ote datorren irudipena izaten du. Euskal Herriko ekialdean bizi den biztanleak, kasu honetan bertatik kanpo, Bearnoko Eskiula herrian, haizea Espainiatikotzat jotzen du eta mendebaldekoak uste du Gaztela aldetik etortzen dela, ez Espainiatik.

Ostagiekin lotura duten izendapenak direla-eta, bakarra dela aipatu behar da: *goha*. Beronek *sargoria* edo “bero gogaikarria” eta “larria” esan nahi duenez gero, aldi berean adimen-begiak hego haizearen nolakotasunari uztartzen bide dio. Nafarroa Behereko Uhartehirian erabiltzen omen da (*EHHA*).

Sasoi izendapenei buruz, udazkena eta hilabetea izendatzeko *urri* terminoak badu bere isla hego-haizearen kontuan. Horrela bada, *urri(ko) haize* (*urriko aixie*: B-Arrieta: Gaminde, 2001a) *urrieta-haize* elkarketak arruntak dira Bizkai aldean (*urritaxe*, B-Leioa: Gaminde, 2001b). Itxura denez, euskaldunaren adimen-begiak urria oso hilabete *hego haizetsua* dela sumatzen du, eta hori dela-eta, horrelako izena ezartzen diote hego-haizeari; izan ere, Euskal Herriko biztanle gehientsuenen ustez, hego-haizea udazkeneko haizea da. Egia esan, ez dago nola edo hala jotzen ez duen hilabeterik. Frantziako Meteorologiaren ikerketa batek, Biarritzeko Behatokiko Raoult-ek egindakoak, 1957tik 1969ra bitartean eginda, milakoetan ematen du hilabatez hilabeteko banapena: “Un estudio de la Meteorología Nacional francesa realizado por RAOULT, del observatorio de Biarritz, basado en los resultados de 549 sondeos de altura durante el período 1957-1969 da la siguiente repartición mensual en tantos por mil” (Uriarte, 1985: 71):

Urt.	Ots.	Mar.	Api.	Mai.	Eka.	Uzt.	Abu.	Ira.	Urr.	Az.	Ab.
95	111	113	82	78	54	31	22	71	137	131	75

Datu horiek ikusita, udazkenari dagokion berezitasuna egiaztatzen da; urria eta azaroa bat eginik milako 268 kasu izaten dira eta uztaile-abuztuetan milako 53 baizik ez. Bestalde, Raoult-en azterketak bigarren aro *hego haizetsua* nabarmentzen du, otsaila-martxoa, milako

224 kasu dituen, ziurrenik, neguaren amaierako antizikloi kontinentalaren eraginez. Beraz, hilabeteetan urrian jotzen du gehienetan hego-haizeak.

Erreferentzia astronomikoari dagokionez, *egu(zki)* izena elkarketa bitan agertzen da: *egutaide* eta eguzki-haize. Batak hego aldetiko haize atsegina adierazi nahi du (G-Oñati: Izagirre, 1959) eta besteak hego-haize hutsa (*DVEF*). Izan ere, eguzkia hegoaldean egoten da goren, hortik datorke horrelako izendapena. Eguzki-haizeak ere ekialdetik datorren haizeari irizteko erabiltzen da han-hemenka. Espainia aldean ere *viento solano* terminoa erabiltzen da eki-haizeari izena emateko.

Bestelako izendapenak direla-eta, jite bereko bi dira, *andre-*, *enbra-haize*, eta bestea *mahumet* da. *Andre-haize* (*andraize*, B-Lekeitio: Lekeitioko lantaldea, 2001: 17) zein *enbra-haize* elkarketak (*enbraixie*, B-Bakio, Errigoti; *enbraxe*, B-Zeberio: *EHHA*; *enbraxe*, B-Getxo, Paia: 2011) Bizkai aldean jasota daude, baina, horrek ez du esan nahi beste eskualde batzuetan erabiltzen ez direnik. Zer dela-eta lotzen dira emakumeak eta hego-haizea? Dirudenez, hego-haizeak gehiago eragiten die emozionalki haiei gizonei baino. Baina, nola eragiten die andreei? Elezahar eta tradizio askok aipatzen dute nola eragiten dien hego-haizeak pertsonen nerbio sistemari eta umore aldaketari. Izan ere, badirudi burmuinari ikaragarri erasaten diola, eta berezitasun hori antzinako euskal legegileek kontuan hartzen omen zuten hegoa-haizea ibili ohi zen garaian egindako zenbait delitutan zirkunstantzia leungarritzat joaz. Ziur asko emakumearen beraren izaera dela-eta, areago eragiten dio berari gizonari baino. Amaitzeko, azken terminoa, *mahumet* da (Z-Larraine: *EHHA*). Esanahi askotarikoa da. Berba hori *haize-zirimolaren* sailean aztertutik ere, oraingoan beraren esanahiak laburtzen dituen taula bat ezarriko dugu.

Hitza	Esanahia	Herria / Euskalkia / Iturria
Bahometa / Bahumeta	Haize zirimola	zuberera / Z-Sohüta
Bahumet	Haize zirimola	Z-Urdiñarbe
Mahamet / Mahumet	Eguzkiaren ezizena	L-Bardoze
Mahoma	Haize zirimola	<i>DRALV</i>
Mahumet	Haize zirimola	BN-Arruta
Mahumet	Hego haizea	Z-Larraine
Maomet	Haize zirimola	Saint Jayme
Maumet	Haize zirimola	BN-Garruze
31. taula. Hego-haizea: bahomet / mahomet		

Ikus daitekeenez, ele guztiak iparraldeko euskalkietan erabiltzen dira eta esanahi nagusia haize-zirimola da. Hala ere, hego haizearekin batera haize zurrunbiloak sortzen direnez gero, hortik etor liteke *Larrainen* erabiltzen den *mahumet* hitza.

Hego-ekialdeko haizeari dagokionez, honako sailkapen hau egingo da segidan:

- Izendapen kardinala (edo hibridoak, izakiakrekin): *hego-ekialdeko haize*; *hego(a) zuri*; *sudesteko haize* eta *zütezta*.
- Izendapen orografikoa: *trabesa-haize*.
- Izendapen toponimikoa:
 - Ondoko herriak: *Jaka-haize*.
- Ostagiekin lotura duten izendapenak: *amilana*.

Izendapen kardinala dela-eta, jatorrizko berbak zein maileguak daude. Lehenengoetan, izendapen kardinal hutsa dago, *hego-ekialdeko haize* (Landa, 2003) eta hibridoak, izena eta adjektiboa *hego(a) zuri* (Lhande, 1924). Gaur egun, aldiz, *hegoxuri* ekialdeko edo hego-haizea adierazteko erabiltzen bide da ekialdeko euskalkietan (*EHHA*). Maileguetan, batetik, Bizkaiko kostaldean baliatzen duten *sudesteko haize* dago, Kantauri aldeko arrantzaleei ikasi dutena nonbait (*suesteko aixie*, *axi*, B-Bermeo, Mundaka, Ondarroa: Barrutia, 2000), eta bestetik, Zuberoako Montori herrian, *zütezta* terminoa, frantsesetik edo biarnesetik hartua (*EHHA*).

Izendapen orografikoari gagozkiolarik, bakarra dago, *trabesa-haize* (*tribisaixe*), hau da, *zehir-haize* elkarketaren modukoa (Bakio: Gaminde, 1999).

Izendapen toponimikoari buruz, bakarra ere badago, ondoko herri bat aipatzen duena, *Jaka-haize*. Zentzuzkoa izango litzateke Nafarroa aldean erabiltzen dela pentsatzea, baina, ez, bertan ez da zantzurik aurkitu. Erreferentzia bakarra Gipuzkoako Zegama herrikoa da eta zalantzarik gabe, Huesca aldeko Jaka herria Zegamarekiko hego-ekialdean kokaturik dago (*EHHA*). Badaezpada Izagirrek (1959) *Jakaizeren* itzulpena honela ematen du: “viento sureste (?)”, adierazi nahian hori esan nahi bide duela. Zer dela-eta gorde dute Zegamako hiztunek *Jaka* izena beren oroimenean? Jaka aldean Erdi Aroan euskaraz mintzatzen omen zen; beraz, baliteke Zegamako biztanleen adimen-begiak euren iruditerian Jakaren euskalduntasuna gordetzea.

Ostagiekin lotura duten izendapenak direla-eta, hemen ere bakarra dago, *amilana* (*amillena*, B-Iurreta, Otxandio: *DVEF* / G-Eibar: Etxebarria, 1965-66). Berba hori etnometeorologiaren esparruan esanahi askotarikoa denez gero, beheargoko taulan adiera guztien berri ematen da:

Hitza	Esanahia	Herria / Euskalkia / Iturria
Amillan lañu	Goizeko lanbroa	G-Leintz Gatzaga
Amillana	Goizeko lanbroa	Anboto aldeko hizkerak
Amillena	Lainoa	B-Abadiño
Amillena	Hego-ekialdeko haizea	B-Iurreta, Otxandio / G-Eibar
Amillana	Hego-mendebaldeko haizea	B-Zeanuri
Amilana	Ipar haizea	Azkue
Amillana	Ipar haizea	B-Otxandio
Amillen	Laino hotza, haizearekin	B-Gernika, Mañaria
Amillen	Mendebaldeko haizea	A-Aramaio
32. taula. Hego-ekialdeko haizea: <i>amilana</i>		

Ikus daitekeenez, alde batetik, lanbroa eta lainoak dira, eta bestetik haizeak. Azken hauei dagokienez, sail honetan aipatzen den hego-ekialdeko haizeaz gain, hego-mendebaldekoa, mendebaldekoa eta iparra ere badira. Ez dago dudarik haize mota asko direla. Aintzat hartu behar da *aimilan(a)* hitzaren erabileraren eremu geografikoa zehaztu samarturik dagoela. Izan ere, kilometro gutxi daude 32. taulan azaltzen diren herri guztien artean; denak mendebaldeko euskalkiari dagozkio. Zer dela-eta, hainbeste aldaera? Gakoa egon liteke Mariren bizitokian, bada, Bizkaian, Mariren bizilekurik gogokoena Marienkobia da, Anboto mendiaren ekialdeko horma bertikal ikaragarrian. Sarritan laino itxuran agertzen da, horren gailurrean. Laino horien izena *amillana* da, mendi mitiko horren inguruko eskualde osoan. Beraz, haizeak edonondik jotzen duelarik ere, baliteke Anboto gainean horrelako lainoa agertu eta hiltunen adimen-begiak fenomeno biak lotzea.

Ekialdeko haizea dela-eta, ondoko sailkapen hau egingo da jarraian:

- Haize edo airearen izaerari buruzko izendapena: *aire gorri; haize gorri; haize mehe eta idor.*
- Izendapen kardinala (edo hibridoak, izaerarekin): *ekialdeko haize; erdi ipar; esteko; lesta; leste(ko) haize; hego zuri; ipar; ipar beltz; ipar berde; ipar fresko; ipar fresko; ipar gorri; ipar haize; mendesta; norte eta suresta.*
- Izendapen orografikoa: *aitzin(eko) aire / haize; at(era) haize; beheko haize; eskuin haize; gaineko haize eta zehar haize.*
- Izendapen toponimikoa:
 - Ondoko herriak: *Elgeta haize; Larrabetzu haize eta Nabarniz haize.*
 - Elementu geografikoa: *Ahuña aire / haize; Erdi Ahuña aire; erreka aire; Ipiña aldeko (haize); (haize) labeda; Sollubeko haize eta San Migel haize.*
 - Herrialdea: *Frantzia / frantses haize; Nafar haize / hego eta Zubero haize.*
- Ostagiekin lotura duten izendapenak: *antzigar; horma-haize; karroin-haize eta osots haize.*

- Sasoi izendapena: *Aste Santu haize*; *Erramu haize* eta *Garizuma haize*.
- Erreferentzia astronomikoa: *eguzki haize*; *eki jaikiko haize*; *izar haize* eta *sortalde*.
- Bestelako izendapenak: *ahuntza hiltzeko haize*; *arraize*; *arraza zakur* eta *urtaize*.

Haize edo airearen izaerari buruzko izendapenari dagokionez, honako hauek dira jasotakoak: *aire gorri*, *haize gorri*, *haize mehe* eta *idor*. Ekialdeko haizeak kontinenteko aire lehorra ekarri ohi du; beraz, oskarbi egon ohi da neguan eta horren ondorioz, hotza. Aurkituriko lau izendapenok haizearen nolakotasunari egiten diote erreferentzia, inondik ere: *gorri*, *mehe* eta *idor*; beraz, ekialdeko haizea, batetik, *gorria* da, hotza eta samina, alegia. Adibidez, horrelako irudipena dute hiztunek Gipuzkoako Asteasu eta Nafarroako Leitza herrietan (EHHA). Bestetik, *mehea* da, garbia da, Bearno aldeko Eskiulako hiztunek adierazten dutenez (EHHA). *Mehe* adjektiboaren kontrakoa *lodi* da. Hondarribia aldean *aroa lodi dago* esaten da, lainotsu eta hodeitsu, alegia. Mokoroaren arabera (1990) zerua hodeiz beterik dagoela aditzera emateko: “Eguraldia *lodi* zegon egun oketan; *meetu* du”. Eta *mehetu* hori? Ezin interesgarriagoa, zerua garbitu edo oskarbitu duela agertzeko. Euskal hiztunen adimen-begiak jorraturiko kontzeptuak dira *lodi(tu)* eta *mehe(tu)*. Eguneroko bizitzako *lodi(tu)* / *mehe(tu)* bikotea ere islatzen da etnometeorologian inongo zalantzarik gabe. Adibidez, “euria edo elurra *lodi* da edota *lodi* ari du”, euria barra-barra edo elurra mara-mara ari duela adierazteko erabiltzen da (Mokoroa, 1990). Gainera, hodeiak sare-sare egonez gero, *loditu* ere egiten dira (Landa, 2003). Eta, jakina, behe-lainoa sarri-sarria denean ere, *lodia* izan daiteke (Landa, 2003). Hori aipaturik, azpimarratu behar da adiera horien hutsunea sumatzen dela gure hiztegieta; sartu egin behar lirateke, ezbairik gabe. Bestalde, *mehe(tu)* ere erruz erabiltzen da arlo honetan. Adibidez, haizea *mehea* izan daiteke, leuna edo adierazteko (Bearno-Eskiula: EHHA); elur *mehe* ari du ere erabiltzen da (Mokoroa, 1991), *lodi* egiten ez duenerako. Bizkaiko Abadiño herrian *edurme* berbaz baliatzen dira bertako hiztunak (EHHA); euria *mehea* ere izan daiteke, zirimiria modukoari irizteko (Landa, 2004); alor berean euriak hanka *mehea* izan dezake, “euri *ankame*”, hau da, euri xehea (besteak beste, G-Urretxu: EHHA). Bukatzeko, azkenik, gorago aipatu bezala, ekialdeko haizea lehorra da; beraz, *idorra*, Eskiulan ere (Bearno) esaten den moduan (EHHA).

Izendapen kardinala (edo hibridoak, izaerarekin) dela-eta, honako hauek dira corpusean: *ekialdeko haize*, *erdi ipar*, *esteko*, *lesta*, *leste(ko) haize*, *hego zuri*, *ipar*, *ipar beltz*, *ipar berde*, *ipar fresko*, *ipar gorri*, *ipar haize*, *mendesta*, *norte* eta *suresta*. Sail honetan, begi-bistan da, bateko, jatorrizkoak eta besteko, maileguak ditugu.

Jatorrizkoei dagokienez, *mendebalde* izan ezik, gainerako *ekialde*, *ipar* eta *hego* izenak nagusitzen dira; *ekialdeko haize* izendapena berri samarra bide da, ondoko erdaren izenen harira

sortua, nonbait, “viento del este”, “vent d’est”, hain justu ere (Elhuyar Hiztegia); *ipar* ele soila eta beronen ingurukoak ere maiz azaltzen dira corpusean. Sarritan aipatu eta gailurtu izan da Euskal Herriko kostaldean *ipar haizea* ekialdeko haizea dela, eta horrela bide da herri askotan (Barrutia, 2000). Hala ere, Euskal Herriko kostaldean ez ezik barrualdeko zenbait herritan ere bide da ekialdeko haizea. Adibidez, Bizkaiko Arrieta herrian, *ifer* esaten zaio haize honi (Gaminde, 2001a). Beste toki batzuetan, adibidez, Zuberoako Larraine herrian, iparra ez da “osoa” *erdia* baizik, hau da, *iparra* osoa da eta *erdi iparra* ekialdeko haizea (EHHA). Gainera, iparrak ere adjektiboak –hiru kolore- hartzen ditu beste ñabardura bat emateko: *beltz*, *berde*, *fresko* eta *gorri*; Gizaburuagan eta Arrietan (Bizkaia) *baltza* da iparra, ekialdekoari irizteko (EHHA). Kolore gorri eta beltzak ez ohi dute oso esanahi baiezkorrik euskaran eta hori ere islatzen da etnometeorologiaren lexikoan. Badira beste hiru *ipar beltz* ere: lehenengoak ipar-ekialdeko haizea ematen du aditzera (Landa, 2003); bigarrenak (*DVEF*) mendebaldeko haize zakarra esan gura du, eta hirugarrenak ipar-mendebaldeko haizea (Estornes, 1997); *ipar berdea* Mundakako hiztunek erabiltzen dute. Barrutiaren arabera (2000), Bizkaiko kostaldean kolore berdea erabiltzen da, haizearen nahikotasuna adierazteko, hots, haizea igarri egiten da eta gero eta *berdeagoa* izan liteke. Beste berba batzuekin ere erabiltzen da kolore hau: “*Egualdi berdie gu dau esan e, aixi naikua dauela...*”; “*Aixe berdie, hamabost-hogei nudokoa...*”; “*Mendebal berdie...*” (Barrutia, 2000: 31, 67).

Ipar gorria dela-eta, Bizkaiko Zeanuri herrian ekialdeko haizea da (EHHA), baina Erronkarin, ipar haize hotza adierazteko erabiltzen zen (Estornes, 1997); iparra ere *freskoa* izan daiteke eta horrelaxe, ekialdeko haizea adierazteko erabiltzen da Hondarribian (EHHA). *Ipar* berbaz gain, *hegoaz* ere baliatzen dira hizkera batzuetan; esaterako, Lapurdiko Azkaine eta Nafarroa Behereko Uharte-Garazi herrietan *hegoxuri* erabiltzen dute (EHHA). Nabarmentzekoa da kolore zuria hego izendapen kardinalari eranstea haizearen nolabaiteko ñabardura faltsua agertzeko, hots, ez da benetako *haizegoa*, *hegoxuria* baizik. Horretaz gain, Uharte-Garazin, *eguzki haize* (*iguzkiaize*) elkarketaz ere baliatzen dira bertako hiztunak (EHHA).

Maileguei dagokienez, jatorrizkoetan bezalaxe, izendapen kardinal ugari dira: batetik, *esteko haize* (*estekoaize*, G-Zestoa: EHHA), *lesta* (B-Lekeitio: Lekeitio lantaldea, 2001: 18) edo *lesteko haize* (*lesteko axe*, B-Bermeo, Elantxobe: Barrutia, 2000) eta *mendesta* (B-Ondarroa: DRALV) ditugu, bestetik, *norte* (G-Ikaztegieta / N-Goizueta: EHHA) eta azkenik, *suresta* bitxia (N-Zugarramurdi: EHHA). (*L*)*este* berbari loturikoak gaztelania zein frantsesetik etor litezke; izan ere, Euskal Herriko arrantzaleek itsaso aldean beste herrialde askotakoekin eduki dituzte harreman franko historian eta hori dela-eta, mailegu ugari egin dituzte bere. Multzo berean sar liteke *mendesta* berba. Ziur asko *vent d’est* frantseseko elkarketatik datorke.

Ebaristo Bustintza idazleak horrelaxe ere eman zuen aditzera: “Mendesta? Laster egualdi txarra. Este edo ekialdeko aizeari diñotsoe mendesta” (Aramaioren oarra). Itz auxe, nire ustez, dator frantzeratik: *vent d'est*” (*DRALV*).

Ipar berbak ekialdeko haizea esan nahi duen bezalaxe, erdaratiko *norte* hitzak ere haize bera izendatzeko erabiltzen da Nafarroako Goizueta eta Gipuzkoako Ikaztegieta herrietan; azkenik, lehen aipatu bezala, bitxia da, *suresta* terminoaz baliatzen dira Zugarramurdiko bizilagunak (Nafarroan) beraiek ere esaten duten legez *iruzki haizeari* irizteko.

Izendapen orografikoari dagokionez, ondoko hauek dira corpusean: *aitzin(eko) aire / haize, ataize, beheko haize, eskuin haize, gaineko haize eta zehar haize*. Aurreko haizeekin gertatzen den bezalaxe, nolako kokapena duen herriak, halako izendapen orografikoa ohi dauka. *Aitzin(eko) aire / haize* izendapena dela-eta, ekialdeko euskalkietan erabiltzen da, Donibane Lohizunetik Zuberoaraino (*EHHA*). Azken herrialde honetako Domintxaine-Berroeta herrian horrelako izendapena esangura bikoa da: *ipar* eta *eguzki haizea*. Urtaroen kasuan bezalaxe –antzinan bi besterik ez bide zegoen, *uda* eta *negua*– puntu kardinalen eta ondorioz, haizeen eremuan, baliteke behinola, bi baizik ez izatea, *iparra* eta *hegoa*, alegia: iparrak bere baitan mendebaldetik ekialderaino hartuko zukeen eta hegoak hego-mendebaldetik hego-ekialderaino. Horrek, beharbada, azal lezake zenbaitetan herritik herrira, eskualdetik eskualdera haizeen izendapenetan izaten diren gorabeherak. Kanpotiko kulturen eta agian, barrutiko beste herri batzuen eraginez, euskara “esparru indoeuroparrera” egokituz joan da mendeak joan, mendeak etorri. Horrek ere esplikatu lezake izendapen kardinaletan aztertutako *ipar haizea* izendapenaren izaera polisemikoa. Izan ere, herri batzuetan antzinako pertzepzioaren ikuspegi bat geratuko zen eta beste herri batzuetan bestelakoa. *Iparrak* eta *hegoak* izendapen kardinal peto-petoak dirudite, gainerako haizeek era askotariko izenak badauzkate ere, *mendebal* mailegu garbia da, *ekialdeko haizeak*, gure garaian sorrarazikoa ematen du. Bestalde, *sortalde* eta *sartaldeko haizeak* terminoek ere mendebaldeko esparrura moldatzearen euskarak gauzaturiko terminologia egokitzapena ematen du; antzeko kontua gertatzen da hurrengo elkarketarekin *ataize*. Badirudi Zaratamon (Bizkaia: *EHHA*) erabiltzen duten berba –*ataxe*– *at(e) haize* dela, ekialdeko haizea adierazteko, hain zuzen ere. *Ipar haizeari* zegokion sailean aipatu denez, Bizkaiko Bedarona herrian, *ateko aize* elkarketa jaso zen *ipar haizeari* irizteko (DVEF). Berriz ere, *ipar* eta ekialdeko haizeen arteko dantza gertatzen da; *beheko haize* eta beronen aldaerak gorago, mendebaldeko sailean aztertu dira. Kasu honetan *peko aide* Zuberoako Barkoxe eta Domintxaine-Berroeta herrietan ekialdeko haizea izendatzeko erabiltzen da (*EHHA*). Azken herri honetan, lehen aipatu bezala, *aitzin haize*-z ere baliatzen dira; Santa Grazin (Zuberoa) *ezker (exker)* eta *eskuin (exküin)* haizeak kontrajartzen

dira, bata mendebala da eta bestea eguzki haizea. Bertako hiztunak *Ahuñari* bizkar eginda dauka horrelako irudipena: ezker aldean, mendebaldean eta eskuin aldean ekialdea (*EHHA*); Donibane Lohizunen *gaineko haize* eta *baxoko haize* —edo *mendelaize*— kontrajarrita ere badaude: Aurreko kasuan bezalaxe, bata ekialdeko haizea da eta bestea mendebala. Oraingoz herri horretan baino ez da aurkitu *gaineko haize* izendapena (*EHHA*). Horrezaz gain, Harrietek ere badakar (*OEH*). Azkenik, sail hau amaitzeko, *zehir haize* elkarketa dago. Gehienbat mendebala adierazi nahi badu ere —29. taula— Berueten (Nafarroa: *EHHA*) ekialdeko haizeari irizteko erabiltzen da. Hori horrela izateko azalpena honako hau izan liteke: Beruete Nafarroako Basaburua bailaran dago eta berau Aralar mendilerroak babesten du; beraz, ematen du mendebalak inoiz gutxitan jotzen duela. Hori dela-eta, beharbada, zeharka etortzen zaien haize mota bakarria ekialdetikoa izan liteke. Nolanahi ere, *zehir (haize)* izendapena euskalki guztietan dago, bizkaieran izan ezik. Hortaz,, nabari da beraien artean izendapenen aldetiko batasuna.

Izendapen toponimikoaz denaz bezainbatean, hiru azpisailak osatzen dira: ondoko herriak, elementu geografikoa eta herrialdea:

Ondoko herriei buruz, honako hauek daude corpusean: *Elgeta haize*, *Larrabetzu haize* eta *Nabarniz haize*. *Elgeta haize (Elgetaixe)* dela-eta, Arrasaten (Gipuzkoa) erabiltzen da (*EHHA*). Baina, Elgeta ez dago Arrasaterekiko ekialdean, iparraldean baino. Beraz, hiztunen adimen-begia eta pertzepzioa ez datoz bat aditzera eman nahi duten haize motarekin; *Larrabetzu haize (Larrabetzuaxe)* Bilbo ondoko Etxebarri herrian jasota dago (*EHHA*). Kasu honetan Larrabetzu Etxebarri herriarekiko ekialdean ia-ia ipar ekialdean dago; beraz badagokio haize mota horri. Bi herri horien artean ez dago beste herririk, Ganguren mendilerro txikia baino ez. Azken elkarketa *Nabarniz haize (Nabarrisaxe)* bertatik hur samar dagoen Mendata herrian erabiltzen da (*EHHA*). Nabarniz Mendatarekiko ipar-ekialde garbian kokaturik dago; beraz, hemen ere ez datoz bat pertzepzioa eta haize mota. Hala ere, aurreko azpisailean egindako hipotesiaren arabera —antzina iparrak mendebaldetik ekialderainokoa hartuko luke bere gain— bai, biak bateratsu etor litezke. Horrelako izendapena Gernika ondoko Errigoiti herrian ere erabiltzen da hego-haizeari irizteko. Hala eta guztiz ere, hego-haizearen sailean aztertu bezala, Nabarniz ez dago Errigoitirekiko hegoaldean kokaturik, (ipar) ekialdean baizik (*EHHA*).

Elementu geografikoak direla-eta, ondoko hauek ditugu: *Ahuña aire / haize*, *Erdi Ahuña aire*, *erreka aire*, *Ipiña aldeko (haize)*, *(haize) labeda*, *Sollubeko haize* eta *San Migel haize*. Leku-izen horiek honela ere sailka litezke:

-Mendiak: *Ahuña aire / haize*, *Erdi Ahuña aire*, *Sollubeko haize* eta *San Migel haize*. *Ahuña* izena oso ezaguna da ekialdeko euskalkietan Pirinioak izendatzeko. Hego-haizearen sailean aztertu denez, Zuberoako herrietan *Ahuña haizea* berorri deitzeko erabiltzen da, baina

herrialde bereko Pagola herrian ekialdeko haizea adierazteko erabiltzen omen dute bertako hiztunek (*EHHA*). Zuberoan bertan ere, Larraine herrian, *Ahüñaide* hego haizea da, baina *Erdi Ahüña aire* ekialdetikoa (*EHHA*). Era berean, *erdi ipharra* ekialdeko haizea ere bada. Beraz, Larrainen *erdik* doitu egiten du haizearen norabidea (*EHHA*); Bakion (Bizkaia) erabiltzen dute *Sollubeko haize* (*sollubekoaixe*: Gaminde, 1999) eta ez dago zalantzarik mendi hori herriarekiko ekialdean kokaturik dagoela. Azkenik, *San Migel haize* (*Samigel aizia*: *EHHA*) dugu. Izendapen hori Nafarroako Urdiain herrian baliatzen dute bertako hiztunek, eta kasu honetan ere Aralarko San Migel Urdianekiko ekialdean dago. Gogora dezagun izendapen bera Etxalekun erabiltzen dela, baina mendebaldeko haizeari deitzeko (*EHHA*); izan ere, Aralar mendilerroa bitarte dago herri bien artean.

-Errekak: *erreka-aire*. Izendapen hori Bizkaiko Zollo herri txikian erabiltzen da (*EHHA*). Ziur asko euskara Euskal Herrian mendebalderen mintzatzen den herria dugu. Herriaren ekialderantz *Larunberrekea* erreka bertako urtegitik behera jaisten da eta hortixek rtor liteke halako izendapena.

-Eskualdea: (*Haize*)-*labeda*. Berau Zuberoako hainbat herritan erabiltzen da. Arruntagoa da *labeda* izena soilik erabiltzea (*EHHA*). Hitz horren jatorria aztertu eta gero, honako ondorio honetara heldu da: *Lavedan* eskualde edo harana da, Lourdes hiri ospetsuaren ondoan, hain zuzen ere. Haran hori Zuberoako herriekiko ekialdean kokaturik dago. Nahiz eta frantsesez *Lavedan* esaten den, bearnesez *Labeda* da, hau da, “izeidia” edo “izei-basoa”.

-Ezezaguna: Getxo aldean ekialdeko haizeari *Ipiña aldeko haize* deitzen omen zaio (*EHHA*). Herriaren ekialdean diren auzoak, mendixkak, errekastoak eta abar aztertutik, oraindik ez da aurkitu zeri dagokion *Ipiña* delako hori. Beraz, ikertzen jarraitu beharreko kontua da argia ematekotan.

Herrialdeei dagokienez honako hauek dagozkio ekialdeko haizeari: *Frantzia / frantses haize*, *Nafar haize / hego* eta *Zubero haize*. *Frantzia / frantses haize* denaz bezanbatean elkarretatik urrun samar dauden bi herritan erabiltzen dela aurkitu da corpusean, Sondikan (Bizkaia) eta Leitzan (Nafarroa) (*EHHA*). *Frantzia herrialdea* haizeen eremuan Araba, Bizkai, Gipuzkoa eta Nafarroako euskal hiztunek erabiltzen dutenean, eskuarki ipar edo ipar ekialdeko haizea izendatzeko izan ohi da. Oro har, oso hotza delako sentipena izaten dute hiztunek. Nafarroa Behere, Lapurdi eta Zuberoako euskaldunek ez dute *Frantzia* herrialdea erabiltzen meteorologia kontuetan, ezta Espainiaren administrazioaren mendeko euskaldunek *Espainia* ere, baina azken hau bai Frantziaren administrazioaren mendekoek; adibidez, Bearno aldeko Eskiula herriko euskaldunek *Espainiako haize* irizten diote hego-haizeari (*EHHA*): Euskal

Herriko mendebaldean, Bizkai eta Gipuzkoako herri batzuetan ekialdeko haizea Nafarroarekin lotzen da. Horrela, *Nafar haize* eta *Nafar hego* elkarketak ditugu:

napárraizia: este viento hace estragos en verano derribando los maíces y secando los campos. Es más suave y templado “napárregoia”. *napárregue*, *napárregoia*, *napárraize*: viene de hacia Urbía y es bastante frío. “napárregoia”: el que viene de hacia Urbía. (Izagirre, 1959: 184)

Amaitzeko, *Zubero haize* (*xuberoaize*) dugu (*EHHA*). Lapurdiko Itsasu herrian erabiltzen da, eta zuzen-zuzena da, Zuberoa Lapurdirekiko ekialdean kokaturik dago eta.

Ostagiakin lotura duten izendapenei buruz hauexek dira corpusean: *antzigar*, *horma haize*, *karroin haize* eta *osots haize*. *Antzigar* (*antziar*) dela-eta, Leintz-Gatzagan (Gipuzkoa) eta Aramaion (Araba) erabiltzen da (*DVEF*). Gainera, Leintzen “izotzak sorrarazten dituen ekialdeko haizea dela” ematen dute aditzera; beraz, beste ñabardura bat dauka. *Antzigar* berba esanahi askotarikoa da eta hotzari edo izotzari uztarturik egoten da beti. Bestalde, *antsin*, *antziliar* eta *intzigar* aldaerek berarekin zerikusia izan lezakete. Aurkitu diren adieren arabera honako sailkapen hau egin da:

Hitza	Esanahia	Herria / Euskalkia / Iturria
Antsin	Ipar haizea (hotz-hotza)	B-Markina, Ondarroa (Azkue)
Antzigar (antziar)	Ipar haizea (hotz-hotza)	Bonaparte-Euskalzalde aldizkaria
Antziliar	Ipar haizea (hotz-hotza)	Darricarrere (<i>DRALV</i>)
Intzigar(intziar)	Ipar haizea (hotz-hotza)	B-Galdakao (<i>EHHA</i>)
Antzigar (antzier)	Ekialdeko haizea	A-Aramaio (<i>EHHA</i>)
Antzigar (antziar)	Ekialdeko haizea (izotza sorrarazten duena)	G-Leintz Gatzaga. Azkue
Antsigar	Izotz zuria	bizkaiera / gipuzkera. Azkue
Antzigar	Izotz zuria	G-Oñati-Zestoa (<i>EHHA</i>)
Intzigar (intziar)	Izotz zuria	J.B. Uriarte
Intzigar	Antzigarra	Olabide (<i>DRALV</i>)
Antziliar	Izotz zuria	Darricarrere
Antzigar (antziar)	Izotz beltza	B-Ispaster, Nabarniz / G-Beizama (<i>EHHA</i>)
Intzigar (intziar)	Izotz beltza	B-Orozko (<i>EHHA</i>)
Antzigar (antzier)	Izotz burruntzia	G-Azpeitia (<i>EHHA</i>)
33. taula. Ekialdeko haizea: antzigar		

Aipatu bezala, hemen agertutako berba guztiek hotzarekin dute lotura handia. *Antzigar* ez ezik, *antsin* (*DVEF*), *antziliar* (*DRALV*) eta *intzigar* hitzek (*DRALV*) adiera bertsuak dituzte. Ziurrenik, hiztunek beren lexikoko beste hitz batzuekin nahasi dituzte. Adibidez, *antz-* *intz-* bihurtzea *ihintz* berbaren eraginez izan liteke; *horma-haize*, *antzigar* terminoaren ildotik doa; izan ere, ekialdeko haize hotz-hotza adierazi nahi du. (lapurtera: *DVEF*). *Horma* berbak, bestalde, ekialdeko euskalkietan izotza edo jela esan gura du; *karroin-haize* (*kharruaize*: *EHHA*) elkarketa aurrekoekin zerikusi garbia du; Urdiñarben (Zuberoa) jasota dago. zubereraz,

kharru hitza, *karroin* edo *izotza* adierazteko baliatzen dute. Ez da harritzekoa ekialdetiko haizea izotzari uztartzea. Izan ere, negu aldean bertatik etortzen den haizeak ortzia garbitu eta oskarbi uzten du gauez. Horrelakoetan izotza sorrarazten du oskarbiak. Azpisail honi amaiera emateko, *osots-haize* dugu. Kasu honetan Bidarrain (Nafarroa Beherea) hiztunek lotzen dituzte *osotsa* (ekaitza) eta ekialdeko haizea (*EHHA*). Bitxi samarra da lehen aipaturiko ekialdeko haizearen izakiak kontuan harturik. Bidarrai Pirinioak mendilerrotik hurbil-hurbil dagoenez gero, baliteke bertan mendialdearen eraginez, nolabaiteko fenomeno meteorologiko berezia sortzea. Hori, jakina, hipotesia besterik ez da.

Sasoi izendapena denaz bezainbatean hiru elkarketa daude corpusean: *Aste Santu haize*, *Erramu-haize* eta *Garizuma-haize* (*gaizemaize* edo *garaizumaize*). Lehenengoa Gipuzkoako Amezketan herrian erabiltzen da (*EHHA*), eta, aidanez, bertako hiztunen adimen-begiak ekialdeko haizea Aste Santuarekin lotzen duela. *Garizuma-haize* bertan ez ezik, Tolosan ere erabiltzen da (*EHHA*) eta haize mota hori lotzen bide da Garizumaren garaiarekin. Bigarrena, berriz, *Erramu-haize*, Goizuetan (Nafarroa) erabiltzen dute (*EHHA*) eta Aste Santu haize elkarketaren antza hartzen zaio. Izan ere, Aste Santuaren aurreko igandean izaten da *Erramu-Eguna*. Sasoi artean sarritan gertatu ohi da eguraldian txarralditxoak, eta ez da harritzekoa izaten elurra ikustea.

Erreferentzia astronomikoak direla-eta, honako hauek ditugu: *eguzki-haize*, *eki jaikiko aire*, *izar-haize* eta *sortalde*. *Izar haize* izan ezik, gainerako guztiak eguzkiaren ingurukoak dira. *Eguzki haize* izendapena nahiko orokorra bide da Euskal Herrian. Adibidez, Gipuzkoan Aian jasota dago (*EHHA*), eta Izagirrek (1959) bildu zuen Oñatin ere. Nafarroako Arbizu herrian, *irruuzki-haize* erabiltzen da, Sakanako Dorraon, *iruzkieize* eta Baztanen *iruzki-haize* ere bai (*EHHA*). Lapurdiko Donibane Lohizunen *iuuzki-haize* (*EHHA*). Beraz, nahiko hedaturik dagoela ematen du *eguzki-haizea* elkarketa, ziur asko *ekialdeko haizea* terminoa baino lehenagokoa; *eki jaikiko aire* (*ekhijeikiko aide*) termino luzea Zuberoako Ürrustoi-Larrabile herrian jasota dago (*EHHA*). Zuberoan mendebaldea eta ekialdea adierazteko, *ekhitzalgia* eta *ekhijaikhigia* berbak erabiltzen dituzte, hurrenez hurren (*EHHA*). Hortaz, ez da harritzekoa *ekhijeikiko aide* elkarketaz baliatzea bertako hiztunek; halaber, *sortalde* berbak, *haize* barik, hau da, *sortaldea dabil*, lotura zuzen-zuzena du eguzkiarekin. Antza denez, gaur egun, Aia herrian erabiltzen da (*EHHA*). Azkenik, aurrekoekin zerikusia ez duen *izar-haize* elkarketa dugu. Nafarroa Behereko Aldude herrian ekialdeko haizea zein ipar haizea adierazteko erabiltzen da (*EHHA*). Hori ere antzinako ipar-haizearen eremuaren hedapenaren beste froga bat izan liteke. Ipar-haizea adierazteko *izar-haizea* erabiltzea zuzena izan liteke *iparrizarra* izan badela kontuan harturik, baina ez dago argi zergatik ekialdeko haizea ere esan gura duen.

Bestelako izendapenak direla-eta, aurreko sailetan ezin sar daitezkeenak aztertzen dira. Ondoko lokuzio eta elkarketa hauek ditugu corpusean: *ahuntza hiltzeko haize*, *arraize*, *arraza zakur* eta *urtaize*. Bi animaliekin daukate zerikusia, *ahuntza hiltzeko haize* (*euntze illeko aixie*) eta *arraza zakur*. Lehenengoak ekialdeko haizearen izakien nozioari egiten dio erreferentzia, hain da hotza, *ahuntzak* hiltzeraino heltzen baita. Arrieta eta Meñakan (Bizkaia) erabiltzen dira. Animalia berari lotutako beste termino batzuk ere badira: *ahuntz-haize* (*euntzaixe*: Gaminde, 2001) Bakio eta Arrietan (Bizkaia) ipar ekialdeko haizea da. Hortaz, Arrietan *ahuntza hiltzeko haize* eta *ahuntz haize* bereizten dira. Behe Nafaroako Baigorri herrian, aldiz, *ahuntz-hiltzaille* (*ahuntzilzale*) txingorra da (EHHA). Gaztelaniaz ahuntzari loturiko zenbait termino ere badago:

El viento fuerte y frío del norte, llamado también **nortada** [nortiada] recibe curiosos nombres como **carbeso** (Ancares leoneses), **zurrusco** (Murcia), **pelacañas**, **matacabras**, **descuernacabras** o **descuernavacas**. El uso del término matacabras está bastante extendido por España, si bien lo más común es emplearlo para identificar al viento molesto, con independencia de cuál sea su procedencia. Así llaman, por ejemplo, al **levante** (viento del E) en Cádiz, mientras que en algunas zonas de Aragón se habla indistintamente de cierzo o matacabras. Incluso hay lugares donde el matacabras se identifica con la ventisca. Tampoco hay que confundir matacabras con **escañacabras**, ya que este último término no se refiere al viento sino a un chubasco frío de primavera. (Viñas, 2006: 33)

Animaliei buruzko bigarren elkarketa *arraza-zakur* dugu (EHHA). Zegaman (Gipuzkoa) erabiltzen da, eta ez da aise ulertzekoa haren eta ekialdeko haizearen arteko lotura. Beste hizkuntza batzuetan horrelakorik ere ez da aurkitu; beraz, ikerkizun dago. Animaliei buruzkoez gain, badira beste bi elkarketa: *arraize* eta *urtaize*. *Arraize* Beasainen (Gipuzkoa: EHHA) jasota dago eta elkarketaren bigarren izena ondo garbia izanagatik ere *-haize-*, lehenengoa ez da batere garbia: *(h)ar-* edo *(h)arri-* izan liteke edo leku-izenen bat. *(H)arri-* baldin bada, Aralar mendilerroa izan lezake gogoan bertako hiztunak. Izan ere, elkarketa berak beste esanahi bat ere badauka Zegamako euskaran, hego-mendebaldeko haizea, Zabalak dioenez “Zegaman fama asko du *harraizeak*, eta parean daukan Aizkorriko harri latzetatik piko-piko sartzen den hego haize harroari dagokiona da” (Zabala, 2000); azkenik, *urtaize* dugu (DVEF). Kasu honetan ere ez lehenengo osagaia ez da oso argia: *ur-* edo *urte-* izan litezke.

Aurreko azpisailetan bestelako izendapen txertagaitzei dagokienez, honako sailkapena eramango da aurrera; itsasotiko haizea, lehorretiko haizea, mitologiari loturiko berbak eta itsas aldeko zeharkako haizea.

Itsasotiko haizea dela-eta, honako hauek dira corpusean: *abra-haize*; *enbat*; *galern(a)*; *trabeseko haize* eta *zoperna*. *Abra-haize* elkarketa haizeen kualitateen eremuan aztertu da. Bertan adiera guztien berri eman da. Azpisail honetan, Mundakan jasotakoaren berri emango dugu. Oraingoan “kostako haizea” adierazi nahi du: “Haize jenerala ez dena, kasu baterako itsasadarretik behera datorren terrela. Bertoko kostako haizea, ez da norteko haizea” (Barrutia, 2000). *Enbat* berba esanahi askotarikoa da. Hori ere kualitate nozioan aztertu da kostaldeko

“haize leuna” ere adierazten baitu. Azpisail honetan itsasaldean gertatzen den fenomeno bortitz baten inguruko esanahia dauka; izan ere, *enbata* edo *galerna* hauxe da: “Bizkaiko Golkoko itsasaldean, mendebaldetik edo ipar-mendebaldetik bat-batean jotzen duen haize-bolada zakar-zakarra” (*MetHizt*: 113). Oro har, honako sailkapen hau egin liteke *enbat* terminoarekin:

Hitza	Esanahia	Herria / Euskalkia / Iturria
Enbat	Goizeko lanbroa	B-Getxo, Erandio: <i>EHHA</i>
Enbat	Bero ikaragarriaren ondoko haize leuna	G-Itziar, Zumaia / L-Senpere; Azkue
Enbat	Ekaitza	G-Aia, Oiartzun; L-Hendaia
Enbat	Enbata / Galerna	R. Inzagaray
Enbat(a)	Galerna eta itsasaldeko lainoa	B-Gatika: <i>EHHA</i>
Enbat	Hodeia	B-Mungia: <i>EHHA</i>
Enbat	Ipar haizea / Ipar ekialdeko haizea	B-Bermeo / gipuzkera; Azkue
Enbat	Itsasotiko ekaitza	bizkaiera / gipuzkera / L-Bidarte, Senpere: Azkue
Enbat	Laino iluna	B-Arratia, Orozko: Azkue
Enbat	Lainoa	B-Sondika: <i>EHHA</i>
Enbat	Lehorretiko haizea	B-Txorierrri; Azkue
Enbataize	Mendebaldeko haizea	L-Itsasu / Sara; Z-Ürrustoi-Larrabile: <i>EHHA</i>
34. taula. Ipar-haizea: <i>enbat(a)</i>		

34. taulan azaltzen diren adierak direla-eta honako multzo hauek egingo dira:

- Lainoa
 - Lainoa bera
 - Behe-lainoa
 - Laino iluna
- Lanbroa
 - Goizeko lanbroa
- Hodeia
- Haizea
 - Itsasaldeko galerna-fenomenoa
 - Itsasotiko ekaitza
 - Haize leuna
 - Ipar / Ipar ekialdeko haizea
 - Mendebaldeko haizea
 - Lehorretiko haizea
- Ekaitza

Itxuraz, bestelako ostagiak badirudite ere, askok funtsean antzeko kontzeptuak gordetzen dituzte: iluntasuna, aldaketa, haizea... Azken hau nagusi da, batez ere itsasaldean gertatzen diren fenomeno bortitz hauek izendatzeko. Gorago aipatu bezala, “Kantauri itsasoko kostaldean, mendebaldetik edo ipar-mendebaldetik bat-batean jotzen duen haize-bolada ekaiztsua” (*Met-Hizt*, 1988: 113) izanda, jasotako adieretan, mendebalde edo ipar-mendebaldetiko haizea badugu eta haize ekaiztsua ere bai, beste adiera batzuetan. Meteorologoen arabera, beti ez da haize bortitza izaten, baizik eta, hego-mendebaldeko haizea mendebal edo ipar-mendebal bilakatzen da eta aldaketa hori ez da oso gogora izaten, nolabait sumatzen den arren. Ohiko enbat zakarrenek 80 km/h-ko abiadura atzeman dezakete. Hala ere, enbat gehienek ez dute horrenbesteko abiadurarik hartzen eta usu orduko 15 km-koak izaten dira; adibidez, Itziar eta Zumaian (Gipuzkoa) eta Senperen (Lapurdi) “bero ikaragarriaren ondoko haize leuna da” (*DVEF*). Hortaz, hiztunen pertzepzioa desberdina da eta horrelakoa da adimen-begia; izan ere, beraien ustez, atsegina da sortzen den haize hori, zenbaitetan zakar-zakarra delarik ere, hoztu egiten du eta. Enbataren eragina zenbat eta barrura aldeago izan, orduan eta txikiagoa denez gero, Bizkaiko barrualdeko herri batzuetan, Getxon izan ezik, enbataren esanahia laino edo hodeiaren ildotik doa, berez, zerua ilundu egiten baitu. Izan ere, barruko aldera sarritan hodei, laino edo haize leunagoak heldu ohi dira. Kasu batean, ostera, *lehorretiko haizea*, baliteke galerna fenomeno baina lehentxoagokoa izatea, hau da, hego-mendebaldeko haizea. Horren guztiaren ondorioz, enbataren prozesua kostaldetik barrualdera honela azaltzen da: Lehorretiko haizea (Hego-mendebala)→Itsasaldeko haizetea / ekaitza (mendebala edo ipar-mendebala / haize leuna) → Hodeia, Lainoa (behe-lainoa, laino iluna). Era berean, *galerna* berba ostera, batez ere, Meteorologia Hiztegiak (*MetHizt*) dakarren adieran erabiltzen da herrietan, baita erdaraz ere. Dirudenez, bretoierazko *gwalern* berbatik dator *galerna* terminoa (Chassany, 1989: 141). Hizkuntza horretan ipar-mendebaldeko haizea esan nahi du. Bizkai golkoko herrialde guztietan ezagun-ezaguna da hitz hau; beraz, bertako arrantzaleek ziurrenik mailegatuko zieten Britainia aldeko ei itsas zabalean; agian, espainiar arrantzaleek ere bai. Itsasoan bat egiten dute hainbat herrik eta nahitaez elkarri hartzen dizkiote makina bat berba eguneroko harremanetan. Antza denez, bertoko arrantzaleei, *enbat* terminoaz baliatu arren, oso egokia begitanduko zitzaaien horrelako hitza kostaldean gertatzen den fenomenoari irizteko. Bestalde, beste termino bat ere bada, *bullarta*, Donibane Lohizunen erabiltzen dena (*EHHA*). Bertan, horretaz gain, *enbata* eta *galerna* hitzez ere baliatzen dira: “*Bullarta* denominan a la galerna. Surge en los días de mucho calor, generalmente al atardecer y en verano, y suele durar de dos a tres horas” (Garmendia; Peña, 2007: 103). Hitzaren jatorriari

dagokionez, baliteke frantsesezko *brouillard* berbari uztarturik egotea zeren, frantsesez, *brouillard* lainoa edo lanbroa baita.

Lehorretiko haizeari dagokionez, ondoko ele hauek bildu dira: *enbat*; *latsaize* eta *terral*. *Enbat* terminoa goratxoago azterturik badago ere, kasu honetan Bizkai aldeko Txorierrri eskualdean (*DVEF*) lehorretik etortzen den haizeari esaten zaio; hego-mendebaldetik, esan nahi baita, lehorretik etortzen den haizeak geroago ipar-mendebaldera bira egingo du. Beraz, nolabaiteko “aurre enbat ortodoxoa” izango litzateke adiera hau. *Lats-haize latsaize* terminoa Azkuek *Ortzuri* izeneko operan erabili zuen (*OEH*). Hauxe da esaldia: “*Latsaize* atsegiña poparean degula, belak bete-betea goazen kalara”. Lauaxetak ere erabiltzen du *lats-axia* (*OEH*); *errekaize* elkarketaren parekoa izan liteke; izan ere, *lats* berbak erreka esan nahi du. *Terral* hitza gaur egun Lekeitio aldean erabiltzen da. Azalpen interesgarri hau dugu:

Lei antzekoa da. Lehorretik dator, edo, arrantzaleak dinoen moduan, barrutik. Barrutik kanpora (itsasora) dator errekan zehar eta desagertu egiten da amaieran, itsaso hasikeran. Gabaz baino ez dabil, hotz-hotza da eta goizaldean igarten da. Hemen, kostaldean, errekek dagozan lekuetan bakarrik igarten da. Baina beste leku batzuetan, lakuetan-eta be sortzen da. Terrala dagoelako sortzen da gangarabia (lurruna). Pertsoneri be aplikatzen jake: “Orain be terralagaz zagoz?” (Diru barik). (Lekeitioko Lantaldea 2001: 26)

Beraz, lehorretikoa izan arren, ez da batere epela, hotz-hotza baizik. Zestoan (Gipuzkoa) *terrala*, hotz handia da, “beldurgarria”: “Katiako buelta hartuta hantzeon *terrala*! Iraetako zuluaz zeon *terrala*!” (Azpeitia, 2003: 26); Deban (Gipuzkoa), ostera, “goizeko behe-lainoa” (*EHHA*). Hortaz, Gipuzkoako bi herri horietako berbek ere badaukate nolabaiteko zerikusia Lekeitiokoarekin, hots, batetik, hotz handia eta bestetik, *gangarabia*, behe-lainoa.

Mitologiaren inguruko izendapenak azterbide, honako hauek dira corpusean: *beldur-haize* eta *haize-bihur*. Azken hau azpimarratu behar da Barandiaranek jaso zuela Ataunen:

Haize-bolada edo zurrunbiloa. Gaueko izeneko gaueko-jeinua beraren itxurapean ageri izaten da. Aizebiurrek Egoirekin bat egiten du sarritan. Era horretara eman zuen bere burua ezagutzera Ataun aldeko Lauzbeltzeko gazte baten bahitzaileak Baita Arbilletako (Ataun ere bai) alaba baten arimaren bahitzailea ere. Hark gurasoen altxorra lapurtu omen zuen. (Barandiaran, 1997: 181)

Era berean, *beldur-haize* elkarketa Barandiaranek (1997) ere aipatzen du:

Es nombre que significa aire tremebundo. Se cree que es un genio que hace soñar y a veces oprime el pecho a las personas que duermen. Para liberarse de él, en Goierri (Guipúzcoa) van algunos a las iglesias de Olaberria, de Arriarán y de Mutiloa a fin de que allí los curas les hagan una oración. También consideran útil hacer tres veces, antes de acostarse, esta oración: "Señora madre Santa Inés / anoche he soñado, / por fortuna o por desgracia. ! Si 10 he hecho por desventura, / vuélvamelo en ventura. (*idem*)

Azkenik, itsas aldeko zeharkako haizeari dagokionez, *trabese*ko *haize* terminoa dugu; Mundakan eta Bermeon erabiltzen da, eta lekuko arabera, “trabesetik datorren haizea, kostadutik jotzen duena (Mundaka) edota estriborretik nahiz baborretik jotzen duenean haizeak

(Bermeo)” (Barrutia, 2000). Beraz, itsas zabalean egonda zeharka jotzen duen edozein haize mota izan liteke.

Haizeak jotzen duen leku ageria	Haize-babesa			
Afrontu Aireager Bisusleku Haize saila Haizebegi Haizegune Haizeleku Haize periza	Ainube Arbolape Babesa Beroki Ezkutu une(da) Ezkutu leku Geriza Gordeleku Haizalpe Haizeen lehor Haizeari enpha Haize babes Haizebe	Haize beltzari eskapagi Haizebera Haize beroki Haize doble Haize estalki Haize ezkutu Haize gaiztoei eskapa Haize geriza, gerizu Haize gorde (haize) itzal(gune)	Haize kontra Haize eskapa Haize gordega Haize malda Haize oste Haizepe Haize porte Haizolbe(gune) Haizpe Hegoari eskapagi	Jeizogune Kalmeta Lehorpe Leku ezkutu Pattar Sarobe Sokaire Urkubi Uspel Xoko
35. taula. Espazioa: Haizea eta lekuak				

Haizearen eremu oparoari amaiera emateko, espazio nozioaren barruan, Haizea eta lekuak harremanetan ipintzen dituen kategoria aztergai dugu. Harreman horretatik, beste azpi-kategoria bitan banatuko da: batetik, Haize-babesa. Beraz, leku babesgabea eta babestua dira aztertu beharrekoak.

Haizeak jotzen duen tokiari dagokionez, honako berba hauek dira corpusean: *afrontu*, *aireager*, *bisusleku*, *haizebegi*, *haizegune*, *haize leku* eta *haize periza*. Guztietan, nola edo hala, tokiaren babesgabetasuna ematen da aditzera. Lehenengoa, *afrontu*, lehenago aztertu da — haizea beste fenomeno atmosferiko batzuekin batera izeneko azpi-kategorian—. Bertan *haize zakar-zakarra* eta *euria batera*, besteak beste, adierazteko erabiltzen zela azpimarratzen zen eta latinetik zetorrela, ziur asko *ad fronte(m)*etik. Bizkai aldean oso termino ezaguna da, baina lehenengoan aipatzen zenez, adierak ez datoz bat toki guztietan. Gogora ditzagun adierok: haizeak eta euriak astindutako tokia; leku ageria; erauntsia, aro oso haizetsua; haize zakar-zakarra eta euria batera eta haizeak sarri jotzen duen parajea. Begien bistan denez, “haizea” nagusi bide da adiera guztietan eta gehienetan, “euria” ere bai. Argigarria da oso zenbait lekukok ematen duten definizioa: “*Afrontu* da kasu beterako ba, au etze norteko alderditxi yoten dau axek? ortiko axe dator ta orti oten da, afrontuan gaus, orti paraten bada afrontun gaus, klaro! axek yoten dauen lekun dau” (Gaminde, 2002: 112-113). Kasu honetan euria ere gehitzen zaio Leioan: “*Afrontu* ba datorrenen kasureko, ori euries ta axe sarratu te itzelezko saparradak eta sera, ordun, afrontu ordun, se paraten da itxoso baltza baltza baltzen eta etorten da itzelezko, e, golpegas etorten da. Afrontu, alderdi gustiteti datorren axe, da afrontu, euries batera” (Gaminde, 2001b: 78).

Horrezaz gain, *aireager* berba dugu. Oso hitz gardena da; izan ere, *aire* eta *ager* osagaiek garbi uzten dute haizeak astindutako tokia dela. Uztarrozen (Nafarroa) erabiltzen zen berba hori Azkuek (*DVEF*) jasotzen du. *Bisusleku* elkarketa Arrasaterako bildu zuen Azkuek (*DVEF*). *Bisuts* hitzak gehienbat haize biziak altxatzen duen elurra adierazteko erabiltzen den arren, kasu honetan badu bere esparrua ere azpi-kategoria honetan. Adiera honetan ez dauka elurrarekin zerikusirik, besterik gabe, haizeak jotzen du tokia da eta. Arabako euskaran, ostera, bai, *bisusleku* terminoak “elurra metatzen den sakana” esan nahi du (*DVEF*). *Haizebegi* elkarketa, badirudi Euskal Herri osoan nahiko orokorra dela (bizkaiera / behe-nafarrera / lapurtera / zuberera: *DVEF*). *Begi* hitza nahiko zabaldua dago elkarketetan, adibidez, *eguzkibegi*, *lorebegi*, *urbegi*...; beraz, *haizebegi* berbak haizeak jotzen duen oso toki zehatza adierazi nahi du, antza. *Haizegune* terminoa aspaldi honetan arrakastatsu dabil, bada, horixe irakurtzen da Euskalmeten iragarpenetan. Jatorriz, zubereraz erabiltzen zen, *aixegüne* (*OEH*), baina, *gune* hitz edo atzizkiaren emankortasun eta hedatzeari esker, elkarketa hau gailenduz doala ematen du. *Haizeleku* elkarketa, bestalde, nahiko gardena da; izan ere, berez, *haizeak jotzen duen lekua* da. *Leku* hitza atzizki gisa oso emankorra da euskal hiztegian (G-Eibar: Etxebarria, 1965-66). Azkenik, *haize-periza* (*DVEF*) dugu. Ez dago argi zer ote den *periza* berba, baina litekeena da *gerizarekin* zerikusia izatea; hala ere, ezagun denez, *geriza* berbak kontrakoa adierazi nahi du, *babesa*, alegia, eta adiera horretan azaltzen da Lhanderen hiztegian (Lhande, 1926). Beraz, elkarketak berak aurkako bi esanahi dauzka.

Haize-babesari dagokionez, lehenik eta behin ugaria dela esan behar da. Adierazleari begira, batetik, hitz hutsak, bestetik hitz elkarketak, eta, azkenik, eratorriak bereizi litezke, eta elkarketak eta eratorriak direla-eta, haizedun terminoak eta haize gabeak; beraz, oso oparoa da.

Berba hutsak honako hauek dira: *ainube*, *babes*, *geriza*, *kalmeta*, *pattar*, *sarobe*, *sokaire*, *urkubi*, *uspel* eta *xoko*. *Ainube* (*añube*) hitza izena ez ezik, izenondoa ere bada, “laiotza edo toki itzaltsua” izendatzeko (G-Mendaro; *EHHA*); *babes* oso hitz arrunta da euskaraz, eta horren eremu semantikoa oso naroa da. Elkarketetan *haize-babes* ere badago. Sail honetarako Azpeitia aldean (Gipuzkoa) eta Etxarri-Larraun (Nafarroa) erabiltzen den *barex* eta *baresa* aldaera ditugu, hurrenez, hurren (*EHHA*). Uste da aldaera hori *babesetik* etor daitekeela. *Geriza* ere nahiko arrunta da, eta mendebaldeko euskaran *itzala* adierazteaz gain, Urdiñarben (Zuberoa) *haize babes* esan nahi du (*EHHA*). Elkarketetan ere agertzen da, *haize geriza*; *kalmeta* terminoa Pasaian (Gipuzkoa) jasota dago, eta badirudi jatorri erromanikoa duela (*EHHA*): egun *calma* hitzak gaztelaniaz haizerik gabeko eguratsaren egoera esan nahi du; beraz, *kalmetak* haizerik gabeko gunea adierazten du. *Pattar* berbak substantzia alkoholikoa izateaz gain, aldapa edo toki malkartsua ere esan nahi du. Nafarroa Behereko Arboti-Zohota herrian erabiltzen da

(EHHA). *Sarobe* terminoa oso ezaguna da artzantzan, ardiak eta artzainak gauez biltzen diren leku egokia baita. Oso leku gordean egoten denez gero, agian hortxetik etor liteke Orioko hiztunek (Gipuzkoa) *haizebegia* esateko baliatzen duten *sarobe* berba (EHHA). Sokaire hitza Sondikan (Bizkaia) erabiltzen da (EHHA), eta, antza denez, zuzenean hartuta dago gaztelaniatik: “abrigo o defensa que ofrece algo en su lado opuesto a aquel de donde sopla el viento” (DRAE). *Urkubi* berbari buruz ez da beste erreferentziarik aurkitu, Nafarroa Behereko Irisarri herrian erabiltzen dela baizik (EHHA). Jatorria ere ezezaguna zaigu. *Uspel* hitzak, ostera, ohiko *ospelekin* izan lezake zerikusia, esan nahi baita, “eguzkiak sekula jotzen ez duen lekua”. Hortik ere etor liteke esanahiaren zabalteza eta eguzkiak ez ezik, “haizeak astintzen ez duen tokia” adieraztera pasa zitekeen. Arnegin (Nafarroa Behere) erabiltzen bide da (EHHA). Azken hitza, *xoko*, euskara iraungitzeaz dagoen Mezkiritzen (Nafarroa) erabiltzen da edo zen, bertako hizkera galzorian da eta. *Erreka-xokoa* erabiltzen denaren antzera, *xokoak* ere *haizebegia* ere esan nahi du aipatutako herrian (EHHA).

Hitz elkarketei buruz, haizedunak nagusi dira, oro har, azpi-kategoria honetan, *haize-zkutu* elkarketa izan ezik. Izan ere, haizerik gabekoak eratorrietan sartuko dira, *-leku* eta *-(g)une* atzizkitzat hartzen direlako. Elkarketak ondoko hauek dira: *haizeen lehor*, *haizeari enpha*, *haize babes*, *haize beltzari eskapagi*, *haize beroki*, *haize doble*, *haize estalki*, *haize zzkutu*, *haize gaztoei eskapa*, *haize geriza / gerizu*, *haize gorde(ga)*, *haize itzalgune*, *haize kontra*, *haize eskapa*, *haize malda*, *haize oste eta haize porte*. Azterketa heldurik, lehenengo eta behin aipatu behar da *eskapa(gi)* berba bigarren osagaian duten elkarketa guztiak Altzürükün (Zuberoa) jasota daudela (EHHA): *haize beltzari eskapagi (aize beltzai ezkapagi)*, *haize gaztoei eskapa (aize gaxtuer ezkapaga)* eta *haize eskapa (aize ezkapaga)*. Azkenengo honetan ez, baina lehenengo bietan nabarmentzekoa da herri iruditeriaren adimen-begia, kolore *beltza* eta *gaizto* adjektiboa, alegia. Herri bereko beste elkarketa batean, *hegoari eskapagi (heguai ezkapagi)* ere badago. *Haize beltza* mendebaldetikoa da Altzürükün; beraz, badirudi bai horrek, bai hego haizeak gogor samar jotzen dutela bertan. Hiztunek erabiltzen duten beste hitz bat *haizolbe* da. *Eskapa* ez, beste elkarketa batzuek babesaren kontzeptua daukate bere barnean. Adibidez, *haize babes* (G-Urretxu), *haize beroki* (N-Erronkari-Zaraitzu), *haize estalki* (BN-Aldude), *haize zzkutu* (B-Urribarri-Etxebarri, Zaratamo), *haize geriza* (N-Lesaka), *haize gerizu* (N-Igoa, Sunbilla), *haize gorde(ga)* (G-Oñati, Urretxu / N-Ezkurra) eta *haize itzalgune* (BN-Ezterenzubi). Guztiak *EHHAk* jasotakoak. Ezagun du euskalki askoren berbak direla, baina, funtsean gauza bertsua adierazten dute, babestu edo gordetzea. Gainerakoei dagokienez, *haize kontra (aizekontre)*, (BN-Garruze) eta *haize oste (axeoste)*, (B-Bolibar, Markina-Etxebarri) sar litezke zaku berean biek haizearen aurkakotasuna adierazten baitute. Garruzen ere *aizoble*

erabiltzen da, eta horrek pentsarazten digu herrialde bereko Gamarte herrian baliatzen duten *haize doble* elkarketak badaukala zerikusirik. Beraz, erro berekoak izan litezke, *haize doble*, (*h*)*aizoble*, (*h*)*aizolbe*, (*h*)*axolbe* eta (*h*)*axolbegune* terminoak, guzti-guztiak Nafarroa Beherean eta Zuberoan arruntak direla kontuan harturik (*EHHA*). Baliteke *haize doble*-tik beste guztiak eratorri izana. Horietaz gain, geratzen diren beste haizedun elkarketak hauexek dira: *haizeen lehor*, *haizeari enpha*, *haize malda* eta *haize porte*. Lehenengoa, *haizeen lehor* (*haizen leior*) Lapurdiko Itsasun erabiltzen dute, baita *haizen geriza* ere (*EHHA*). Polita da sortutako irudia, *lehor* izenondoaren bitartez, hau da, haizetik babesten gaituena *lehorra* delako kontua. Hori dela-eta, bigarren bikote bat edukiko genuke lehorren bidez; bata, *itsasoa* vs *lehorra* eta bestea *haizebegia* vs *haizeen lehorra*. *Haizeari enpha* (*haiziai enpha*) Urdiñarben (Zuberoa) erabiltzen da eta corpusean dagoen adibide bakarra da (*EHHA*). Ez da aurkitu zer esan nahi duen bigarren terminoak, *enphak*, baina lehenengoa —*haizeari*—, hots, nori kasua, litekeena da aurre egin, jarki edo tankerako zerbait esan nahi izatea. *Haize malda* edo *malda* soilik gehienbat Lapurdin eta Nafarroa Behereko zenbait herritan erabiltzen da (*EHHA* / *DRALV*). Haizearekin ez ezik, beste testuinguru batzuetan ere baliatzen dute usu hiztunek; adibidez, *eguzki ala euritik maldan*. Amaitzeko, *haize porte* elkarketa dugu Lapurdiko Bardoze herri hirueledunean (euskara, gaskoia eta frantsesa) erabiltzen dena (*EHHA*). *Porte* hori gaskoitik etor litekeen berba da, atea adierazteko, hortaz, elkarketa hibridoa izan liteke. Amaitzeko, lehen aipatu bezala, *leku ezkutu* (*leku eskutu*) elkarketa haizerik gabeko bakarra da eta Bizkaiko Larrabetzu herrian erabiltzen da (*EHHA*). Aipatzekoa da *ezkutu* aditza mendebaldeko hizkera batean topatu izana; izan ere, arruntagoak izaten dira *ostendu* edo *ostondu* aditzak.

Azpi-kategoria honi amaiera emateko hitz-eratorriak aztertuko dira. Honako hauek dira: *arbolape*, *beroki*, *ezkutu une(da)*, *ezkutuleku*, *gordeleku*, *haizebe*, *haizebera*, *haizepe* eta *jeizogune*. *Arbolape* (*arbola+pe*) Zornotzan (Bizkaia) erabiltzen da (*EHHA*). Ez da jakiten, bene-benetan arbolari dagokion edo edozein babesi; *beroki* (*bero+ki*) euskara galtzear dagoen Mezkitz herrian (Nafarroa) erabiltzen da (*EHHA*). Lacombek ere jaso zuen *aterpea* adierazteko (*DRALV*). Azpimarratzekoa da *-ki* atzizkiaren erabilera tokia adierazteko. Bestalde, *ezkutuna* /*ezkutuune* / *ezkutuuneda* (*ezkutu+une*) aldaerak Bizkaiko Bakio (Gaminde, 1999), Arrieta (Gaminde, 2001), Errigoiti (*EHHA*) herrietan, hurrenez hurren, jasota daude; *-(g)une* hitz eta atzizkiaren erabilera zuzena da, kasu honetan espazioaren eremuan. *Ezkutuleku* (*ezkutu+leku*) aurrekoaren antzekoa da; izan ere, *-une*-ren ordez *-leku* atzizkia erabiltzen da. Bizkaian ere erabiltzen da, Leioan, hain zuzen ere (*EHHA*). *Gordeleku* terminoan (*gorde+leku*) atzizki bera erabiltzen da, *-leku*. Berrizen (Bizkaia) bilduta dago (*EHHA*). Jakina denez, *gordeleku* ere “nor bait edo zerbait gordetzen den lekua” (Harluxet) da. *Haizebe* eta *haizepe*

berdin samarrak dira (*haize+be, pe*). Izan ere, *-be* eta *-pe* atzizkiek esanahi bera dute, hau da, *azpian*. Aurreko kasu baten (*arbolape*) antzekoa da. Aldaera guztiak Bizkaian ere jasota daude (EHHA). *Haizebera* dela-eta, *haizebede* eta *haizebere* aldaerak daude baturik, Bizkaiko Elantxobe eta Kortezubi herrietan (EHHA). Ez dago argi zer den bigarren terminoa, atzizkia ala hitza. Hemen sartuta dago *behera*-tik etor litekeelakoan. Horrela izango balitz *-be / -pe* eratorriekin izango luke zerikusia. Amaitzeko, beste *-gunedun* berba bat dugu: *jeizogune* (*jeizo+gune*). Nafarroako Erratzun bilduta dago (EHHA). Ez dago garbi nondik datorren eta zer esan nahi duen *jeizo* eleak.

4.3.7. Ondorioak

Aurrenik azaldu behar da espazio nozio orokorra gailentzen dela beste guztien gainetik: zerrenda, atalean zehar adierazi bezala, oso luzea da, nondik jotzen duen haizeak garrantzitsuena delako euskal hiztunarentzat. Izendapen kardinala nagusitzen zaie besteei gainerako haize motekin alderatuz gero. Horien artean, ipar-haizearen, hego-haizearen eta mendebaldeko haizearen narokak dira, antzeratsu kopuru aldetik; ekialdeko haizearen ingurukoak, ordea, gutxiago dira. Leku-izenez baliatzea oso tresna eraginkorra du adimen-begiak: deigarria da baliabide hori mendebaldeko eta ekialdeko haizea izendatzeko.

Hurrengo nozio orokor oparoa izakiena da, zenbait haizeren izendapenak eta beste kategoria batzuk azpimarragarriak baitira; adibidez, Zirimola kategoria izendapen kardinalen pare ipin daiteke hainbat termino baititu. Gainera, izaera berezia duenez, adimen-begiaren arabera, zortzi kategoriatan banatzen dira jasotako hitz guztiak.

Eraketari dagokionez, agerian utzi behar da haizeen eremuan denetarik dagoela: hitz soilak, hitz-elkarketak, onomatopeiak eta maileguak; aditzak eta lokuzioak ere bai. Hitz-elkarketak direla-eta, azpimarratzekoa da gehienetan *haize* dela lehenengo edo bigarren osagaia, batik bat espazio nozio orokorraren barruan. Hitz soilak gutxi dira, eta zenbait maileguak dira; adibidez, *afrontu* eta *enbat*. Aparteko aipamena egin behar da arrantzaleek itsasoan beste herrialdeetako arrantzaleekin harremanak egin eta mailegatu dituzten hitzekin: bestelako unibertso berezia osatzen dute, baita itsasertzeko herrien lexikoa, biek ala biek itsasoaren hodeiertza baitute muga. Onomatopeien aldetik, azpimarratu behar da kategoria hauetan nagusitzen direla: Haizearen hotsa, Zirimola, Haize-bolada eta Haize-erauntsia. Goratxoago aipaturiko maileguez gain, haizearen eremuan asko dira, eta batzuetan hutsune lexikoak betetzen dituzte, baina beste batzuetan ondarezko terminoekin batera bizi dira:

lehenengoen artean, besteak beste, *afrontu*, *enbat* eta *urakana*; bigarrenen artean, adibidez, *erremolino* eta *norte haize*.

Espazio kategorian azpimarratzekoa da izendapen kardinala gailentzen dela beste guztien gainetik, eta urtaroen eremuan legez, jatorriz bi haize nagusi zirela: iparra eta hegoa. Handik aurrera, mendeak joan, mendeak etorri, adimen-begiak berez bilakatuz edo ondoko kulturen eraginez, apurka-apurka bestelako zehaztapen eta kontzeptuak gehituz joan da sistema sendo eta oparoa erdiesteraino.

Ekaitzaren eremuan gertatzen den bezalaxe, haizeak ere badu izaera magikoa, gehienbat zirimola edo haize-zurrunbiloa izendatzeko erabiltzen diren berbetan: euskal hiztunaren adimen-begiak zerbait magikoa ikusten zuen horrelakoetan. Ezagun denez, haizea ikusi egiten ez den fenomeno meteorologiko bakarra da, eta horrek bide ematen dio hiztunari irudimenari eragin eta irudiak sortzeko. Batzuetan, horrenbesteraingo heltzen da hiztunak haizeari dion beldurra, ezen *beldur-haize* hitz elkarketa ere jasota baitago.

Nozio espezifikoko guztiak aintzakotzat harturik, nabarmendu behar da haizearen gaineko lexikoa motibatua dela, adimen-begiak beren-beregi zenbat-gura metafora eta hitz-elkarketa eratu dituelako.

Azkenik, adierazi behar da euskal hiztunaren adimen-begiak eraiki duela haizeen inguruko oso sistema osatu eta naroa, eta baliabide ugari erakutsi dituela egunero suertatzen zitzaizkion haize-egoera guztiei aurre egiteko.

4.4. Hodeiak

Lehenengo eta behin esan behar da *hodei* hitza aukeratu dela euskara batuan zabalduena delakoan, nahiz eta *lainoa* ostagi bera adierazteko sarritan erabiltzen den. *Lainoa* hurrengo eremu bati izena emateko baliatu da, lurretik hurbilago gertatzen den fenomenoaren berri emateko.

Bigarrenik, hitzaren bilakaera dela-eta, jatorrizkoa **hedoe* bide da Mitxelenak *FHVn* azaltzen duenaren arabera (Mitxelena, 1961/1985); gero, amaierako *-e -i* bihurtu zen, *hedoi* eta, zenbait hizkeratan metatesia gertatu zen, gaur egun *hodei* ezagun bihurturik:

Parece seguro que la última vocal de *odēi* (Leiz. *hodey*, en otros dialectos (*h*)*edoi*) no era primitivamente i, sino e: er. a.-nav. Irún, Fuenterrabía *orea* “la nube” < *odea*, Pouv. “*hodea*, nuée, *hedoia*, hodeia”). En guip. de Cegama el art. se convierte en -e tras i antigua (ogie de ogi, beie de bei, cf. sul. béhi, etc.), pero no tras -i < -e: *galbaia* “la criba” de *galbai*. ant. *galbae*. *oia* 'la cama' de *oi*, ant. *oe*, cf. sul. *óhe*: el nom. sing. *odoia* “la nube” supone pues que *odoi* viene de **odoe*. (Múgica, 1907: 57)

Euskal Herriko euskal hiztunei *nube* / *nuage* nola esaten duten galdetuta, adiera askoren berri eman dute²⁰.

Bestalde, zientziaren arabera, hodeia “ur likidoz, izotzez edo bietaz eraturiko zatiki ñimiñoen multzo ikuskorra, atmosferan suspentsioan dagoena. Multzo honek eduki ditzake gainera ur likidozko edo izotzezko partikula handiagoak eta bestelako zenbait partikula, adib. gas industrialak, keak edo hautsak ekarriak” (*MetHizt*, 1988: 140). Hodeiak begiratu hutsez ikusten dira, eta kondentsazio-prozesu baten ondorio dira. Meteorologiak, zientzia gisa, oro har, honako izendapen hauek erabiltzen ditu, hodeiak sortzen diren altueraren arabera, goitik behera: kumuloninboak, zirruak, zirrokumuluak, zirrostratuak, kumuluak, estratokumuluak, estratuak eta behe-lainoa.



2. irudia [Iturria: <http://eguraldi-iragarpena.blogspot.com>]

²⁰https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_ehha&view=frontpage&Itemid=466&lang=eu&testua=&gaia=Eguraldia&mapa=231&lekua=

Hodei horiek denetariko *koloreak*, *aspektuak* eta *tamainak* dauzkate. Koloreak, aspektuak eta tamainak eta bestelako ezaugarriek isla nabaria daukate euskal hiztunaren adimen-begiak eraturako hainbat berbatan; izan ere, euskaldunen buru-iruditeriak metafora eta irudi harrigarrien bitartez hitz eta izen-elkarketa ezin adierazgarriagoak eman izan ditu.

Azkenik, ikusgarriak badira ere, mitoetan hodeiek ez daukate leku handirik; gehienbat ipuin eta atsotitz batzuetan aurki ditzakegu. Hala ere, *hodei*, eta horren aldagarriak eguraldiaren eremu askotan agertzen dira eta ekaitzekin badute lotura nabaria:

Hodei izenak, batzuetan, “trumoiak” esan nahi du; beste batzuetan, “ekaitz-hodei” gisa ulertu behar da edo “trumoiaren egile moduan”. Trumoiak jotzen duenean, “Hodeiak jo du” esaten da; sendo entzuten denean, “Hodei hasarrea”; hodei lodi samarrak ikusten direnean, “Hodeia dator” eta ekaitz giroa sortzen denean, “Hodei dago”. (Barandiaran, 1983: 149)

Beraz, *Hodei* jeinua, Mariren aginduetara dagoen ekaitz eta trumoiaren eran agertzen da gehientsuenetan.

Jarraian sumatuko denez, meteorologiaren eta euskal hiztunaren ikuspegiak guztiz desberdinak dira. Euskal hiztunaren ikuspegia azaleratzekotan, hasteko, hitz guztiak aztertzeko corpus behar bezain oparoa jaso da, hodeiekin zerikusia duten ahalik eta berba gehien; oraingoan, 390 nozio espezifikoa, zenbait aldaera barne. Bigarrenik, nozio orokorrak edo etnosemantikoen arabera sailkatuko dira: izakiak, kantitatea, kalitatea, jarduera, denbora eta espazioa. Hirugarrenik, erabakitzeko berba bat non sartu, nozio orokor bakoitzari dagozkion kontzeptuak hartu dira aintzat. Gogora ditzagun kontzeptuok (ikus 3. taula: 93 or.).

Izakiak	Kantitatea	Kalitatea	Jarduera	Denbora	Espazioa
Existentzia Jabetasuna Identitatea Izaki eta fenomeno zehatzak eta materialak	Kopuru absolutua Kopuru erlatiboa	Kalitate zehatzak Dimentsioak Pisua Koloreak Tenperatura Kalitate fisikoak Egokitasuna eta garrantzia	Prozesua Parte hartzea Jarduera zehatzak Funtzioa Modua	Unea Iraupena Maiztasuna Sekuentzia	Kokamendua Mugimendua Jatorria
3. taula. Nozio orokorrak eta kontzeptuak (§93. or.)					

Kontzeptuen arabera kategorietan banatu dira hitzak; adibidez, berba bat kantitatea kategorian sailkatu behar den erabakitzeko 3. taulan adierazitako kontzeptuak hartu dira oinarritzat: kopuru absolutua eta kopuru erlatiboa. Hodeiak direla-eta, bost kategoria sortu dira kontzeptuen arabera: Zerua guztiz lainoturik egotetik, Zerua guztiz garbi egotera: Hodeitza; Zerua hodeiz beteta egotea; Hodeirik gabeko zerua eta Ostarteak. Azkenik, kategorian arabera, txertatu dira nozio espezifikokoak edo berbak; han-hemenka, ahozko eta idatzizko corpus eta

liburuak arakatu eta miatu ondoren, batzuetan berriemaileek emandako definizio eta deskripzioetan oinarriturik, beste batzuetan hiztegiak eta bildumek dakarten itzulpena kontuan harturik, corpusean honako kategoria hauek guztiak bildu dira ordena alfabetikoz azterlana aurrera eramateko:

- Hodei handiak.
- Hodei txikiak.
- Hodeia izendatzeko.
- Hodeiak loditu.
- Hodeien koloreak.
- Hodeirik gabeko zerua.
- Hodeitza.
- Itsasaldeko hodeiak.
- Nola dauden hodeiak.
- Nolako hodeiak.
- Ostarteak (hodei tartek).
- Puntu kardinalekin zerikusia duten hodeiak
- Zenbait hodei mota.
- Zeru gorria.
- Zerua garbitzea.
- Zerua hodeitsu egotea.
- Zerua hodeiz beteta egotea.
- Zerua hodeiz betetzea.
- Zerua lainotzeko antza izan.
- Zerua, aldizka ostarteak, aldizka goibel.
- Zeruan hodeiak saretzea.

Ikusten denez, orotara 20 kategoria. Hodeien eremua aztertzeko Wilkinsek (1976) azaldutako sei nozio orokor edo etnosemantikoetan banatu dira kategoriok. Horiek horrela, emandako azalpenaren arabera, honela geratzen da sailkapen etnosemantikoa:

1. Izakiak: izendapenak eta hodei motak.
2. Kantitatea: hodeitza; zerua hodeiz betea egotea; zerua hodeitsu egotea; hodeirik gabeko zerua eta ostarteak.
3. Kalitatea: nolako hodeiak; nola dauden hodeiak; hodei handiak eta hodei txikiak.
4. Jarduera: zerua hodeiz betetzea, zeruan hodeiak bakantzea, zerua garbitzea, hodeiak loditzea eta zerua lainotzeko antza izatea.
5. Denbora: aldizka ostarteak, aldizka goibel.
6. Espazioa: puntu kardinalekin zerikusia duten hodeiak eta itsasaldeko hodeiak.

Hona hemen adierazitako guztia taula batera bilduta:

1. Izakiak	2. Kantitatea	3. Kalitatea
Izendapenak Hodei motak	Hodeitza Zerua hodeiz beteta egotea Zerua hodeitsu egotea Hodeirik gabeko zerua Ostarteak Argiuneak	Nolako hodeiak Nola dauden hodeiak Hodei handiak Hodei txikiak Hodeien koloreak Zeru gorria
4. Jarduera	5. Denbora	6. Espazioa
Zerua hodeiz betetzea Zeruan hodeiak bakantzea Zerua garbitzea Hodeiak loditzea Zerua lainotzeko antza izan	Aldizka ostartea, aldizka goibel	Puntu kardinalekin zerikusia duten hodeiak Itsasaldeko hodeiak
36. taula. Hodeiak: Sailkapen etnosemantikoa		

Jarraian, nozio orokor edo etnosemantikoetan ezarritako 20 kategorien berba edo nozio espezifiko guztien azterketa kulturala egingo da. Horretarako nozio orokor bakoitzak bere taula izango du.

4.4.1. Izakiak

Beheragoko 37. taula lehenengo nozioari dagokio: Izakiak. Wilkinsek dioenez honelako ezaugarriak dauzkaten hitzak lotu behar zaizkio nozio honi: existentzia, jabetasuna, identitatea, izaki eta fenomeno zehatzak eta materialak (1976). Hodeien eremuan jasotako datu guztien arabera, bi kategoriatara ekar daiteke, izendapenak eta hodei-motak, hau da, existentzia eta identitatea. Izendapenei dagokienez, 36 nozio espezifiko eta hodei-moten kasuan, 74.

Izendapenak				
Enbat		Gandu (kandu)		
Goibel (goibel, hoibel)		Hodei (edoi, edoi, hedoi, hodoi, odai, odei, odoi, orai, ore, orei, ori, oroi)		
Hodei-laino (odeilañu, odoileño)		Horibel		
Hortz (hortz, ortz, orz)		Ilungi (ilhungi)		
Kalma		Laino (laiño, lano, laño, lañu, leiño, leño)		
Lanbro (lanbo)		Morroka		
Nube		Ortantz-aire (ortantzaire)		
Serro		Ugoi		
Hodei-motak				
Hodei herrestak Baldar (haizeteak ekarria) Hodei baldar Hodei herresta (odei herresta) Hodei erori (odei erori)	Euri-hodeiak (Ninbo-estratuak) 1. <i>Euria iragartzen dutenak</i> Ahari-buruak (aari buruak) Hodei-montor (odei / edoi montor) Laban Montor beltz (montor baltz) 2. <i>Euria dakartenak</i> Adar gaizto Aire gaizto (aire gaixto) Euri-laino (euri laiño)	Euri-sarta Gorgera Hodei-adar (odoi-adar) Hodei-erro (odai-erru) Hodei-malta (odoi-malta) Hodei-mataza (odeimataza) Hodei-montor (edoi montor) Hodei-tontor (edoi tontor) Hodeiatu (edoyatu) Ilamalta Ilemamo Ioso	Jaso Kain Kozkor Laino-hanka (laiño-anka) Laino-mordo (laiño-mordo) Laino-dorre (laiño-torre) Laino buruhandi (laño buru andi) Ostots-laino (ostots-laiño) Txaramel Zakota Zaldi gaineko (saldi ganekoa) Zerro	Hodei “ebakia” Laino ziplei Txingor-hodeiak Harriabar (arriabar) Harri-adar (harri adar) Harri-laino (Harri-lanho) Enbata-hodeiak Enbata-laino (enbata laino)
Haizete-hodeiak 1. <i>Haizetea iragartzen duten hodeiak</i> Laiatu Tripaki 2. <i>Haizeteak ekartzen dituen hodeiak</i> Galerna-buru (galarren buru / galerna buru) Hodei-laino (odai-laiño) Trunbil	Hodei-xaflak Hodei-xafla Laino-xafla Trumoi-hodeiak (kumuloninboak) Eate Juztulodei (juztulodai, juztulodei) Laino-dorre (laiño-torre) Ortots-goibel Ortzi	Trumoi-adar (trumonadar) Trumoi-buru (trumoburu) Trumoi-laino /trugoi laiñoa, trumoi-laiño) Estratuak Balen-hodei (balen-odeiak) Burruntzi (burduntzi) Burruntzi-laino (burduntzi-laiñuak)	Kumulua Goibel-murru (goibelmurru) Hodei-muru (hedoimuru) Hodei-dorre (odei torre) Hodei-moilo (odei-moillo) Txanbolin-hodei (txanbolin-odai)	Oskarbiko hodei bakana Lapar Zardai
37. taula. Hodeiak: Izakiak				

Izendapenei dagokienez, honako berba hauek daude datutegian hodeiei irizteko: *enbat*, *gandu (kandu)*, *goibel (goibel, hoibel)*, *hodei (edoi, edoi, hedoi, hodoi, odai, odei, odoi, orai, ore, orei, ori, oroi)*, *hodei-laino (odeilañu, odoileño)*, *horibel*, *hortz (ortz, orz)*, *ilungi (ilhungi)*, *kalma*, *laino (laiño, lano, laño, lañu, leiño, leño)*, *lanbro (lanbo)*, *morroka*, *nube*, *ortantz-aire (ortantzaire)*, *serro* eta, azkenik, *ugoi*. Banan-banan aztertu ditugu eleok.

Enbat berba aski ezaguna da lexiko etnometeorologikoan zenbait eremutan erabiltzen baita. Hemengo terminoa Bizkaiko Mungia herrian jasota dago (EHHA). Handik hurbil,

Mungian, “lainoa” izendatzeko bildurik dago (EHHA). Bertan ezarritako taula berriz ere gogoraraziko dugu aurrerago:

Hitza	Esanahia	Herria / Iturria
Enbat	Goizeko lanbroa	B-Getxo, Erandio: EHHA
Enbat	Laino iluna	B-Arratia, Orozko: Azkue
Enbat	Lainoa	B-Sondika: EHHA
Enbat(a)	Galerna eta itsasaldeko lainoa	B-Gatika: EHHA
Enbat	Hodeia	B-Mungia: EHHA
Enbat	Bero ikaragarriaren ondoko haize leuna	G-Itziar, Zumaia / L-Senpere; Azkue
Enbat	Ekaitza	G-Aia, Oiartzun; L-Hendaia
Enbat	Enbata / Galerna	R. Inzagaray
Enbat	Ipar haizea / Ipar ekialdeko haizea	B-Bermeo / gipuzkera; Azkue
Enbat	Itsasotiko ekaitza	bizkaiera / gipuzkera / L-Bidarte, Senpere: Azkue
Enbat	Lehorretiko haizea	B-Txorierrri; Azkue
Enbataize	Mendebaldeko haizea	L-Itsasu / Sara; Z-Úrrustoi-Larrabile: EHHA
38. taula. Hodeiak: enbat(a) (§34. taula)		

Gandu hitza “gandua bera” eta zenbait tokitan “lainoa” edo “lanbroa” adierazteaz gain, “aldaketa dakarren hodeia edo lainoa” izan liteke (*MetHizt*, 1988). Haren esanahia oso garbi ez badago ere, kategoria honetan sartu da; izan ere, aipu hau jasorik dago: “*Kandu* ondorengo aize garbitzeak, edo egoia edo euria” (Arantzazu Egutegia, 1965-09-18 *apud DRALV*).

Goibel berba ere polisemikoa da; gehienbat zerua lainoturik dagoela adierazteko erabiliatik ere, zenbait tokitan adiera honek “hodeia” esan nahi du. Nafarroako Aezkoa eta Baztan haranetan, *goibel* erabiltzen da (*DVEF*); Izetak (1996) ere geroago bildu zuen Baztanen: “Badire *goibelak*”. Azkuek ere jasotzen du (*DVEF*) beste aldaera bat: *hoibel*. Haren arabera, Nafarroa Behereko Aldude haranean erabiltzen da. Baztan eta Aldude haranak elkarren ondoan dira, mugakideak; beraz, ez da harritzekoa termino bera erabiltzea.

Sarreran adierazi bezala, *hodei* hitzak izena ematen dio eremu etnometeorologiko honi. Mitxelenak frogatu zuen bezala jatorrizko hitza **hedoe* da (*FHV*). Zenbait aldaera honako hauek dira: *edoi*, *hedoi*, *hodoi*, *odai*, *odei*, *odoi*, *orai*, *ore*, *orei*, *ori* eta *oroi*.

Edoi berba erabilera oso barreiatu dago zenbait hizkeratan; adibidez, Bizkaiko Mundaka herrian eta Txorierrri haranean erabiltzen da; Nafarroako Baztan haranean eta lapurtera euskalkian ere bai (*DVEF*). Nafarroa Behereko Uharte-Garazi aldean ere bildurik dago (*EHHA*) eta Izetak (1996) ondoko hau aipatzen du: “Edoiek zeruen. Baztanen gehiago erabiltzen da *goibel edoi* baino, halere entzuten da, guti bai”. *Hedoi* aldaera, batetik Azkuek dio Nafarroa Behereko Aldude herrian erabiltzen dela (*DVEF*); bestetik, Lapurdiko Mugerre herrian jaso da (*EHHA*). Berriz ere, agertzen dira Baztan eta Aldude haran mugakideak. *Hodei* bera Euskal Herriko zenbait bazterretan erabiltzen dute hiztunek: Nafarroa Behereko Amikuze

eskualde eta Donibane Garazi herrian eta zubereraz (*DVEF*). *Hodoi* elea Nafarroa Behereko Larzabale herrian bilduta dago (*EHHA*). *Odoi* aldaera bizkaiera eta gipuzkera euskalkietan erabiltzen bide da (*DVEF*). Azkuek berak ere azaldu zuen *odei* aldaera zenbait toki eta euskalkitan erabiltzen zela: bizkaiera, erronkaria, gipuzkera eta goi-nafarrera euskalkietan, baita Nafarroako Zaraitzu haranean ere; Gipuzkoako Oñati herrian ere bildurik dago (Izagirre, 1959). *Odei* hitza Euskal Herriko zenbait euskalkitan jaso zuen Azkuek (*DVEF*): bizkaieraz, gipuzkeraz, goi-nafarreraz, erronkarieraz eta Nafarroako Zaraitzu haranean; Erronkarin entzundako atsotitz baten berri ere ematen du: “*Odeiak* Jakara tenprak kakara”; Oñatin ere bilduta dago *odei* berba (Izagirre, 1959). *Odoi* aldaera Añibarro idazleak erabiltzen du (*DRALV*); jakina, bizkaiera euskalkiaz baliatzen zen. *Orai* hitzaren berri Azkuek (*DVEF*) ere ematen du. Gipuzkoako zenbait herritan erabiltzen da; Bidania, Donostia, Tolosa eta Nafarroako herri batean, Etxarri-Aranatz. *Ore* aldaera, sarreran adierazi bezala, Gipuzkoako Hondarribia herrian erabiltzen da (*EHHA*). Horretaz baliatzen da Mitxelena (*FHV*) adierazteko jatorrizko berba **hedoe* dela. Bertan ere Azkuek *ori* aldaera jasotzen du (*DVEF*). Ezaguna da Gipuzkoako hizkeretan *-d-* bokal artekoak sarri *-r-* bihurtzen direla; adibidez, *edan eran*. Beraz, Azkuek lehenago *ori* eta *EHHA*k geroago *ore*. *Orei* aldaerarekin gauza bera gertatzen da *-d-* *-r-* bihurturik; J. Elizondo idazleak erabiltzen du (*DRALV*). Azkenik, Azkuek ere (*DVEF*) dakar *oroi* berba; bi marka ipintzen ditu; bata, Bizkaiko Ondarroa herria eta bestea, gipuzkera euskalkia.

Hodei-laino (*odeilañu*, *odoileño*) izen-elkarketa zenbait herritan jasota dago, tartean Bizkaiko Orozko eta Nafarroako Dorrao herrietan. “Hodeia” izendatzeko euskararen hizkeretan hedatuen dauden bi berben batuketa da: *hodei* eta *laino*. Orozkon, *odeilañu* eta Dorraon, *odoileño* (*EHHA*). Ziurrenik, hiztunek hitz batekin nahikorik ez, eta beste batekin elkartezko beharra sumatu dute. Ez da ezohiko fenomeno izaten.

Horibel elea Behe-Nafarroako Behorlegi herrian bildua da (*EHHA*). Oso bitxia da; izan ere, badirudi *hortz* eta *goibel* terminoek bat egin dutela. Herri berean *odei* aldaera ere erabiltzen dute hiztunek; beraz, baliteke *horibel* nahasketa bat izatea. Hitz bera Azkuek ere (*DVEF*) jasotzen du zerua “goibel” edo “lainoturik” dagoela azaltzeko.

Hortz (*hortz*, *ortz*, *orz*) hitzak hiru aldaera ditu; *h-* gabeko biak Azkuek Nafarroako Zaraitzu haranean jaso zituen (*DVEF*); ihartutzat ematen ditu, hots, hiztegian agertu ziren garairako ez bide ziren erabiltzen. *h-*dunaren berri, ordea, Lhandek ematen du bere hiztegian (1926). Ukaezina da ele honek zeruarekin daukan zerikusia; izan ere, (*h*)*ortziak* lur gaineko ostagi frankorekin erlazio nabaria dauka.

Ilungi (ilhungi) elea Nafarroa Behereko Amikuze eskualdean bildua da (*DVEF*). Hitzunen buru-iruditeriaren arabera, iluntasunak adierazten du ondoen zeruaren egoera. *-ki* atzizkiaren bitartez osatzen da hitz eratorri hau: *ilun* + *-ki* = *ilungi*.

Kalma hitza, berez ez dago esaterik zehatz-mehatz “hodeia” esan nahi duenik; izan ere, Nafarroako Leitza herriko lekuko batek dioenaren arabera, “*kalma* da, dena odaie, odai zarratue... euskie dago, ta gero lañotu o kalmatu ittenda, odaie yartzen do dena, ure da *kalma*” (*EHHA*). Beraz, azalpenaren arabera, gehiago ematen du “lainotua” “hodeia” baino. Hala ere, *EHHA*n Hodeien kategoria sarturik dagoenez, hemen hortxe ere sartzea erabaki da. Nafarroako beste herri batzuetan ere jasorik dago: Alkotz, Igoa, Etxaleku, Ezkurra eta Suarben, besteak beste. Herrialde bereko Arbizu herrian lainoari irizteko baliatzen dute bertako hiztunek.

Laino (laiño, lano, laño, lañu, leiño, leño) hitza Euskal Herriko hizkeretan *hodeiarekin* batera zabalduena da. Hemen aldaera batzuen berri emango da. *Laño* aldaera sarriago erabiltzen den arren, *laiño* ere bildua da; adibidez, Bizkaiko Elorrio herrian, Gipuzkoako Ikaztegieta eta Orio herrietan eta Nafarroako Urdiain herrian (*EHHA*); *laño*, berriz, hedatu samartuago dago; Bizkaiko Arrieta, Bakio, Dima, Otxandio eta Zornotza herrietan; Gipuzkoako Aia, Arrasate, Azpeitia, Bergara, Hernani eta Zegama herrietan eta Nafarroako Goizueta, Sunbilla eta Urdiain herrietan, besteak beste (*EHHA*); *lano* aldaera, Lapurdi aldeko hizkeretan entzuten da; adibidez, Ahetze, Arrangoitze, Hazparne, Itsasu, Senpere eta Uztaritze herrietan, besteak beste (*EHHA*); *lañu* aldaera, besteak beste, Gipuzkoako Elgoibar herrian bildua da (*EHHA*); *leiño* berba, berriz, Bizkaiko Zeberio herrian (*EHHA*) eta, azkenik, *leño* elea, Nafarroako Arbizon (*EHHA*). Mitxelenaren arabera (*FHV*) aldaera horiek guztiak balizko **lanno*-tik etor litezke. Horrela, aldaera guztien bilakaera fonetikoa azal liteke. *EHHE*n haxe ematen da aditzera:

Ez du etimologia garbirik. Mitxelenaren ustez, baliteke jatorrian *-N-* bortitza egotea; hala balitz, *-ñ-* duten formak sabaikaritzez azaldu beharko lirateke, eta *-in(h)-* dutenak despalatizazioz (*FHV* 306-307, cf. *muño / muino / munho*); ustezko saikaritze horren motibazio semantikoa zein den ez dakiela aitortzen du (VII 659). (*EHHE*, 448)

Lanbro (lanbo) aldaera dela-eta, Azkuek aurkitu zuen Oihenarteren eskuizkribu batean (*DVEF*). Honela adierazten du: “oscuridad, nube: obscurit, nuage. (Oih. ms.)”. Harrietek (*OEH*) ere ematen du *lanbo* aldaeraren berri, baina “lanbroa” izendatzeko. *Lanbro* hitza aztertu ere egin da Lainoaren, Lanbroaren eta Ganduaren eremuan. Han aipatzen zen oso orokorra dela hizkera gehienetan, baina adiera desberdinak dituela; arruntena, “lanbroa” bera, baina, baita “euri mehe edo xehea” esateko ere.

Morroka elea bakarra da eta Behe-Nafarroako Landibarre herrian jaso da (*EHHA*). Ez da erraza antzematen zerekin izan lezakeen zerikusia termino honek.

Nube hitza gaztelaniatik hartutako mailegua da eta Nafarroako Jaurrieta herrian jaso zen (EHHA). Herri hori Zaraitzu haranean dago eta bertan euskalki berezia erabiltzen zen, zaraitzuera. Gaur egun, galdutzat eman daiteke herriko hizkera. *Nube* terminoa biltzeak orduko hizkera galzorian zegoela adierazten du, antza.

Ortzantz-aire (*ortzantzaire*) hitz-elkarketa Nafarroa Behereko Larzabale herriko hiztunek erabiltzen dute (EHHA). Oso bitxia da hau erabiltzea “hodeia” izendatzeko; izan ere, elkarketa berak herri berean ekaitzari irizteko ere jasota dago eta, oro har, *ortzantz* terminoa oso lotuta dago ekaitz eta trumoiari; adibidez, herrialde bereko Ezterenzubi herrian ere bilduta dago (EHHA). Gogoratu behar da *ortz(i)* + *azantz* etor litekeela, esan nahi baita, “ortziak ateratzen duen zarata”. Beraz, harrigarri samarra da *ortzantzairek* hodeia ere esan nahi izatea.

Serro berba Bizkaiko mendebaldeko Zollo herrixkan jasota dago (EHHA). Hitz hau ez dago beste inon ere dokumentaturik. Baliteke gaztelaniazko *cirro* hitzarekin zerikusia izatea. Izan ere, latinezko *cirrus* hitzak gaztelaniaz “cirro” eman du, “Nube blanca y ligera, en forma de barbas de pluma o filamentos de lana cardada, que se presenta en las regiones superiores de la atmósfera” (DRAE).

Ugoi elea ere bakarra da. Hiribarrenek jasotzen du (*apud OEH*). Antzeko hitz bat dakar Azkuek (DVEF) –*ugoibe*– itsasoaren gorabeherak adierazteko. Badirudi *ur+goi+behe*-tik etor litekeela; beraz, era berean, *ugoi* terminoa *ur+goi* ere izan liteke.

Bestalde, hodei motez bezainbatean, honako azpi-kategoria hauek jaso dira: hodei herrestak; euri-hodeiak (ninboak); hodei “ebakia”; txingor-hodeiak; Enbata-hodeia; Haizete-hodeiak; Hodei-xaflak; Trumoi-hodeiak (kumuloninboak); Estratuak; Kumuluak eta Oskarbiko hodei bakana. Hodeiaren oina, hau da, behe-beheko muturra zein altueratan dagoen kontuan hartuta, bi multzo handitan banatu ohi dira hodeiak: bateko, behe-hodeiak, eta, besteko, erdi-mailako hodeiak eta goi-hodeiak. Sailkapena garrantzitsua da, behe-hodeiek zerua ilundu egiten baitute eta prezipitazioa eragin baitezakete; eta erdi mailako hodeiek eta goi-hodeiek, aldiz, gehienetan, eguzki-izpiak igarotzen uzten dituzte eta ez dute prezipitaziorik eragiten.

Hodei herresten azpi-kategoriari dagokionez, honako nozio espezifikokoak bildu dira: *baldar*, *hodei baldar*, *hodei-herresta* (*odei herresta*) eta *hodei erori*. Hiztunek sarritan ez dituzte bereizten mendi kaskoetatik herrestan igarotzen diren hodeiak eta lainoak. Izan ere, “lainoa” eremu gisa aztertu denean, “laino narras” terminoa ere azaldu da. Hiztegiaren sarreran “niebla arrastradora de los montes que trae lluvia” (DVEF) dakarrenez gero, horrelaxe uztea erabaki da.

Baldar terminoa, izen gisa, *baldar*, edo izenondo gisa, *hodei baldar* jasota dago mendien gainak jotzen dituzten hodeiak izendatzeko. Izen gisa, Azkuek dakar bere hiztegian

(DVEF): “Nubes bajas que pasan lamiendo los montes, los trae el vendabal”. Haren arabera, bizkaieraz eta gipuzkeraz erabiltzen dira; izenondo gisa, berriz, *Euskalzale* aldizkarian (OEH) irakur daiteke.

Hodei herrestak (*odei herresta*) ederto adierazten du nolakoak diren horrelako hodeiak: mendi tontorretatik herrestan pasatzen dira; hori dela-eta, gorago azaldu bezala, ez da erraz jakiten hodeia edo lainoa ote den. Azkueri hartutako terminoa da (DVEF).

Hodei erori (*odei erori*), *hodei baldarren* moduan, haizeteak ekarri ohi ditu. Azkuek ere ematen du horren berri bere hiztegian (DVEF) eta Erronkari eta Zaraitzu haranetan erabiltzen omen zen. *Errorik* adjektibo gisa etnometeorologiaren eremuan goibeltasunarekin izaten du zerikusia; adibidez, eguraldi eroria.

Hurrengo azpi-kategoria, *huri-hodeiak* dira. Meteorologiak *ninbo-estratuak* izendapena erabiltzen du, laino oso mardul eta ilunak izan ohi dira, eguzki-izpiei igarotzen uzten ez dieten adinakoak. Udaberriko eta udako euri eta neguko elur hodeiak dira. Sailkapen honetan bereizgaitzak badira ere, euskal hiztunaren adimen-begiak dituen bi ikuspegi ematen dira aditzera: bata, “euria iragartzen duten hodeiak”; eta, bestea, “euria dakartenak”. Euskal Herriko eguraldia nolako den kontuan hartuta, berba gehien dauzkan azpi-kategoria da; guztira, 33 nozio espezifikoko.

Lehenengoari dagokionez, lau nozio espezifikoko jaso dira: *ahari-buruak* (*aari buruak*); *Hodei-montor* (*odei / edoi montor*); *laban* eta *montor beltz* (*montor baltz*). Lehenengoak animaliekin zerikusia du, *ahari-buruak* (*aari buruak*), bigarrena tamaina edo altuera hartzen du kontuan, *hodei-montor* (*odei / edoi montor*), hirugarrena metaforikoa da, *laban* eta azkena, tamaina eta kolorea aipatzen ditu, *montor beltz* (*montor baltz*). Euskal hiztuna zerua behin eta berriro begiratzearen begiratzeaz, zeinu edo lorratz ugariren jabe egin da etor litezkeen egurats-aldaketak ezagutzeko.

Ahari-buruak (*aari buruak*) elkarketa Gipuzkoako Oñati herrian bildurik dago (Izagirre, 1959). Honela azaltzen du: “nubarrones que aparecen a la salida del sol y presagian lluvia”. Beraz, ez dakarte euririk, baina horixe iragartzen dute, gainera, egunsentiarekin batera. Euskal hiztunaren adimen-begia dela-eta, oso metafora ederra da ahariaren burua hodei mota hauetan antzematea. Izan ere, honelako zenbait hodeik ahariaren adar bildu eta bihurrien itxura hartzen dute. Beste hizkuntza batzuetan ez da aurkitu honelakorik, baina, jakina, baliteke ahariak arruntak diren beste nonbait antzekoa erabiltzea.

Hodei-montor (*odei / edoi montor*) elkarketa Bizkaiko bi herritan bilduta daude, elkarretatik hurbil samar daudenak; *odei montor*, Zamudion (Gaminde, 2000) eta *edoi montor*

Leioan (Gaminde, 2001b). Gorago aipatu bezala, *montor* berbak hodeien tamaina edo altuera adieraz lezake euskal hiztunaren adimen-begiaren arabera.

Laban berbak berez ez die hodeiei erreferentziarik egiten, eguraldiaren egoerari baizik. Gipuzkoako Elgeta herrian erabiltzen da. Haren ustez, “euria adierazten duten hodeiak” diren arren, *eguraldi labana* edo *eguraldia laban dago* esaten da Elgetan (Enrike Gorrotxategi).

Montor beltz (*montor baltz*) terminoa Bizkaiko Jatabe (Gaminde, 2000) eta Zamudio herrietan (Gaminde, 2002) bildurik daude. Gorago aipatu bezala, Zamudion bertan ere *odei montor* berba ere erabiltzen da. Lekukoek hauxe esaten dute: “Montor baltzak: hodei beltzak, euria iragartzen dutenak” (Gaminde, 2000). Hiztegieta horrela azaltzen ez bada ere, jasotako hitzen arabera —*edoi / odei montor, edurmontor, montor baltz*— irudipena dago hitz honek ez ote duen gehiago esan nahi “ugaritasuna” “altuera” edo “tamaina” baino.

Bigarren ikuspegiari dagokionez, euriz beteta sumatzen diren hodeiak direla-eta, hauexek dira hitzak: *adar gaizto; aire gaizto (aire gaixto); euri-laino (euri laino, laño); euri-sarta; gorgera; hodei-adar (odai-adar); hodei-erro (odai-erru); hodei-malta (odoi-malta); hodei-mataza (odeimataza); hodei-tontor (edoi tontor); hodeiatu (edoyatu); ilamalta; Ilemamo; ios; jaso; kain; kozkor; laino-hanka (laño-anka); laino-mordo (laino-mordo); laino-dorre (laino-torre); laino buruhandi (laño buru andi); ostots-laino (ostots-laño); txaramel; zakota; zaldi gaineko (saldi ganekoa)* eta *zerro*. Segidan aztertuko dira terminok.

Adar gaizto terminoa gipuzkera euskalkian erabiltzen da (Mokoroa, 1990). Buru-iruditeriari dagokionez, *adar* berbak ostagi batzuen edo naturaren beraren luzapena edo euskarria dirudi: *adar gaiztoa dator*.

Aire gaizto (aire gaixto) elkarketa (*DRALV*) beste eremu batzuetan ere ezaguna da; adibidez, “tximista”, “ekaitza” edo “txingorra” adierazteko. *Gaizto* izenondoak ñabardura berezia ematen dio elkarketari. Izan ere, ona ez den zerbait adierazten du eta euskal hiztunaren buru-iruditerian, tximistak, ekaitzak edo euria ekartzen duten hodeiak ez dira batere onak.

Euri-laino (euri laino, laño) elkarketa guztiz deskriptiboa da; euskal hiztunaren adimen-begiaren arabera, batetik, “euria dakarten lainoak” izan litezke, eta bestetik, “euriz betetako hodeiak”, baina, funtsean, irudi du gauza bera ematen dutela aditzera, hau da, ikusitako hodei horiek berandu baino lehen euria botako dutela. *Euri-laino (DVEF)* Bizkaiko Bermeo herrian jasota dago eta bestea, *euri laño*, handik oso hurbil, Mundakan (Barrutia, 2000).

Euri-sarta elkarketa Mundakan ere bildurik dago (Barrutia, 2000). Euskal hiztunak hodeiei “sarta” gisa antzematen die eta, gainera, euria dakarte.

Gorgera berba Azkuek jaso zuen bere hiztegian (*DVEF*). Ez du adierazten non erabiltzen den. Galdera-ikurra, besterik ez eta hauxe dio: “nubarrones muy lluviosos”. Kasu bitxia, baina aipatzeko modukoa da.

Hodei-adar (*odai-adar*) elkarketa Nafarroako Uztarroze herrian erabiltzen zen (*DVEF*). Berriz ere azaltzen da *adar* elea. Oso deskripzio zehatza ematen du: “*Odoi-adar* bat erkitan denean gorri ta dundu, euria eragutan du. Kan-kebenka erkitan dren odoi me kurak *odoi-adarrak* dra”. Herri berean *hodei-malta* (*odoi-malta*) elkarketa ere jaso zen; beheratxoago aztertuko da.

Hodei-erro (*odai erru*) hitz elkarketa Azkuek bere herrian jaso zuen, Bizkaiko Lekeitio herrian (*DVEF*). Oso elkarketa deskriptiboa da; izan ere, hiztunak begien aurrean zer ikusten duen deskribatzen du, sarritan “hodeien erroak” ikusten baitira euria egiten duenean. Adimen-begiak sortutako metafora ederra da.

Hodei-mataza (*odeimataza*) elkarketa gipuzkera euskalkian erabiltzen da (Mokoroa, 1990). *Mataza* berbak berez “Euskarririk gabe bira handietan bildurik dagoen haria” esan nahi du, baina beste adiera batzuk badauzka “multzo sendo eta trinkoei lotutakoak” (Harluxet). Adibidez, *ile-mataza*. Elurraren eremuan *elur-mataza* eta *mataza* ere aztertu dira.

Hodei-tontor (*edoi tontor*) hitz-elkarketa Bizkaiko Gatika herrian erabiltzen da (Gaminde, 1997). Egileak jaso duenez, “hodei beltz handiak” dira; *tontor* berbak handitasunaren berri ematen du mendi tontorrarekin alderatuta. Fonetikoki *montor* eta *tontor* berbak hurbil daude; baliteke zerikusirik izatea. Adimenaren begiak mendi eta hodei tontorrak aise erkatzen ditu.

Hodeiatu (*edoyatu*) terminoa Bizkaiko Leioan jasorik dago. Lekuko batek hauxe dio: “Ordun esaten da, ukusten danen baltza baltza, aik *edoyatu* pilok” (Gaminde, 2001b: 81). *OEhk* ez dakar, baina badirudi *-tu* bukaerak nolabaiteko aditzaren zantzua adierazten duela.

Il(a)malta eta *ilemamo* eleak Azkuek bildu zituen bere hiztegian (*DVEF*). Ele biak Nafarroa aldekoak, lehenengoa Erronkari haranekoa eta bigarrena Zaraitzukoa. Erronkariko Uztarroze herrian ere jaso zuen *odoi-malta* elkarketa hodei beltzari irizteko. Toki berean ere *ilemalta* hitza erabiltzen zuten euskal hiztunek “ile-mataza” edo “ilemanoa” adierazteko. Berdin gertatzen zen Zaraitzuko *ilemamo* elearekin, baliokideak baitira; *mamo* nahiz *mano*, nahiz *malta* nahiz *mataza* sinonimoak dira. Beraz, metafora ederra euskal hiztunek sortutakoa, buru-iruditeriaren bitartez, *ilemanoak* eta *hodei euritsuak* erkaturik.

Ioso berba Azkuek ere dakar bere hiztegian (*DVEF*). Bi adierari ematen die sarrera: bata, Bizkaiko Bermeo herrian jasotakoa, eta bestea, handik hurbil, Gernikan, “borrado, fuerza del viento que levanta agua del mar convirtiéndola en espuma”. Beharbada, hurrengo

hitzarekin, *jasorekin*, badu zerikusirik; izan ere, Bizkaiko Lekeitio herrian “hodei euritsua” aditzera emateko erabiltzen da eta Lekeitio ez ezik, Bizkaiko Mundaka herrian eta Gipuzkoako kostaldean, oro har, “itsasoko itsaskia” esan nahi du, hau da, itsaso harro-harroa. *Jaso* Azkuek ere badakar hiztegian (*DVEF*). Bestalde, Bizkaiko Elantxobe herrian, *jaso* ere bilduta dago “haize-zurrumbiloa” esateko (*EHHA*). Beraz, Bizkaiko kostaldeko herri horietan hiru adiera ditu *jaso* termino etnometeorologikoak: “hodei euritsua”, “itsaskia” eta “haize-zurrumbiloa”.

Kain berba bizkaieraz erabiltzen da (*DVEF*). Atsotitz hau ere badakar: “*Kain* baltzak, euri-mandatarari”. Beraz, horrelako hodeia azaltzeak euria azalarazten bide du. Adiera horretaz gain, etnometeorologian “lainoa” (*DVEF*) ere izan liteke. *Gain* elearekin zerikusia izan lezake.

Kozkor hitzak “euri-hodeien azpian arin mugitzen diren hodei-zati baxuak” adierazteko balio du (Harluxet). *Kozkor* terminoaren zabalpena da; izan ere, beste testuinguru batzuetan erabiltzen da “zattia” edo “puska txikia” aditzera emateko.

Laino-hanka (*laño-anka*) elkarketa Mokoroak egindako lan erraldoian bildurik dago (1990). Euskal hiztunaren adimen-begiak sortutako irudi polit askoa agertzen du; izan ere, dakarren esaldian, hots, “Agur eginda etxe aldera / biurtu ziradenian, / *laño-anka* bat itxas aldeti / ikusi zuten airian”; lainoak edo hodeiak hankak ditu, antza, hain da handia, adimenaren begiak horrelaxe sumatzen du eta.

Laino-mordo (*laiño-mordo*) hitza Gipuzkoako Aia eta Bidania herrietan jasota dago (*DVEF*); *mordo* berbak “multzoa” edo “pilo handia” adierazi nahi du beste testuinguru batzuetan (*EH*).

Laino-dorre (*laiño-torre*) hitz elkarketa dela-eta, Azkuek bi adiera ematen ditu non begiratzen den hiztegian: *laiño* sarreran begiratuta, *laiño-torre* “nubarrón, nuée” dakar, baina *torre* sarrerara joz gero, *laiño-torreak* “nubarrones sueltos como de tronada, lit.: torres de niebla: gros nuages isolés et orageux, lit: tours de brouillard”. Kasu bietan herri berak agertzen dira: batetik, Bizkaiko Arratia harana eta Markina eta Ondarroa herriak eta, bestetik Gipuzkoako Oñati. Elkarketa oso deskriptiboa izanda eta kumuloninboen izakiak kontuan harturik, *laino-dorreak* “trumoi-hodeiak” izan litezke; izan ere, euskal hiztunaren adimen-begiak goitik beherako dorre erraldoi moduko bat ikusten du. Hala eta guztiz ere, Azkuek esandakoari jarraikiz, hemen kumulutzat hartuko da. Aipatu bezala, *dorre* berbak lainoen handitasuna ematen du aditzera.

Laino buruhandi (*laño buru andi*) terminoak ere handitasuna du aipagai; izan ere, euskaldunaren adimen-begiak “lainoak buru handia” duela ikusten du. Bizkaiko Bermeo herrian erabiltzen da (Mokoroa, 1990).

Ostots-laino (*ostots-laño*) hitz-elkarketa Azkuek dakar beste inongo azalpenik gabe (*DVEF*). Ostots eleak ekialdeko euskalkietan “trumoia”ri irizteko; adibidez, Nafarroako Arbizu herrian (*EHHA*). Gogora dezagun *ostots* “ortzi + (h)ots”etik etor litekeelako hipotesia, hau da “ortzik ateratzen duen soinua”, Ortzi “ez jainko gisa”, baizik eta “lur gainean dagoen zero guztia moduan”. Lehenago aipatu da Nafarroako Baztan haranean *ortots* elea baliatzen dutela bertako euskaldunek (§4.2). *Ostots-laino*, ostera, Azkuek dioenez, euriari lotutako hodeia da, ez besterik.

Txaramel elea Bizkaiko Ondarroa eta Gipuzkoako Hondarribia herrietan jasorik dago (*DVEF*). Termino beraz baliatzen dira hiztunak Nafarroako Baztan haranean “haize-zurrumbiloa” adierazteko (*DVEF*) eta Bizkaiko Lekeitio herrian *txaramelo* erabiltzen dute (*DVEF*). *Txaramelek* hainbat adiera daukan arren, iluna da hodei euritsuekin izan lezakeen erlazioa. Esanahi zabalduen et arruntena “maratila” da.

Zakota berbari buruz hauxe baino ez dago: “Nubes muy lluviosas?” (*DVEF*). Ez dago beste inongo erreferentziarik.

Zaldi gaineko (*saldi ganekoa*) terminoa animaliei buruzko bigarrena da. Bizkaiko kostaldeko Bakio herrian jasota dago (Gaminde, 1999). Hodei hauek ere iragarleak dira: “euria dakarten hedoiak”. *Zaldi* hitza ez da arrotza izaten euskal etnometeorologiaren lexikoan; izan ere, *zaldizko* “norberarengandik ez oso urrun ikusten diren euri-zutabeak izan ohi dira”; *uria zaldiz ari* aditz-lokuzioak euriaren intentsitatea adierazten du, *barra-barra* ari duela, alegia. Beste hizkuntza batzuetan ere, *zaldi* edo *zaldizko* terminoak agertzen dira eremu etnometeorologikoan:

Pero aún fuera de la esfera mitológica los germanos propendían a concebir como animadas las cosas inanimadas de la naturaleza. Así llamaban «caballos» o «jinetes» a las nubes que corren rápidamente empujadas por el huracán y a las olas azotadas por la marea hacia la playa, cuyas crestas blancas y espumosas se les antojaban las crines de los caballos. Esta metáfora se conserva durante muchos siglos como giro poético en las canciones tanto anglosajonas como escandinavas y alemanas. No puede menos de acordarse de esto el que ve que en vascuence se llama comúnmente en todos los dialectos *zaldizko*, es decir «jinete» a la columna de lluvia. En la Guipúzcoa meridional se usa además en el mismo sentido *mandako*, lit. «muleto». (Bähr, 1931: 119-122)

Zerro berba Bizkaiko Ondarroa herrian bildua da (*DVEF*). Ziurrenik hizkuntza erromantzeen *cirro* berbarekin du zerikusia. Zirruak (latinetik: *cirrus*, “ile xerloa”) izotz kristal txikiz osaturik dauden goi mailako hodeiak dira, troposferaren goiko aldean (5.500 eta 15.000 metro artean) eratzen direnak. Harizpi txurien antza izaten dute, eta gehienetan ez dira trinkoak izaten. Dena dela “los cirros son la avanzadilla del anuncio de mal tiempo” (Olcina, 2013).

Hurrengo azpi-kategoriari hodei ebakia deitu zaio datutegian aurkitutako izendapen bakarraren arabera: *laino ziplei*. Termino hori Gipuzkoako Getaria herrian bildua da (*EHHA*).

Ez dago inola ere jakiterik zer esan nahi ote duen *ziplei* hitzak; baliteke *-pl-* kontsonante elkarketak jatorri arrotza izatea edo onomatopeiaren batetik etortzea; izan ere, *zipla* erabiltzen da “norbaiti zuen guztia irabazi edo ziplatu diotela adierazteko” edo elkarrizketa batean norbaiti zeharka esaten zaion esaldi mingarria, eztenkada” (Harluxet).

Ondorengo azpi-kategoria txingorra omen dakarten hodeiei dagokie, hots, *txingor-hodeiak*. Euskal hiztunak sumatzen omen du zein hodeik dakarren txingorra. Hori mende luzeetako behaketak ahalbideratu du, zalantzarik gabe. Hiru izen-elkarketa lortu da biltzea datutegian: *harriabar* (*arriabar*); *harri-adar* (*harri adar*) eta *harri-laino* (*harri-lanho*).

Harriabar (*arriabar*) berbaren berri eta azterketa txingorraren eremuan egin da; izan ere, topatutako adiera guztiak horri dagozkio, hau izan ezik. Txingor-hodeia adierazteko Bizkaiko zenbait herritan erabiltzen da —Durango, Mundaka eta Urduliz— eta Txorierrri eskualdean, Gipuzkoako Andoain herrian eta Nafarroako Erronkari bailaran, azken honetan euskalkia galduta dagoelarik. *Harri-adar* (*harri adar*) aldaerarekin berdintsu gertatzen da; txingorraren ale handiari izena emateko zabaldua zegoen Nafarroako ipar-ekialdeko euskalkietan, Zaraitzu eta Erronkariko haranetan (*DVEF*). Harriet hiztegiak, ostera, hitz honen beste adiera baten berri ematen du: “nuage qui se décharge, gréle qui tombe par endroits, tranches déterminés” (Harriet *apud* *OEH*). Era berean, Larrasquetek dio zubereraz erabiltzen dela (*DRALV*). Gorago aipatu bezala, buru-iruditeriari dagokionez, *adar* berbak ostagi batzuen luzapena dirudi.

Harri-laino (*harri-lanho*) elkarketa deskribatzaile samarra Herria aldizkarian aurkitu da (*DRALV* / Herria, 1963): “*Harri-lanhoak* ingurikatzen duelarik zerua...”. So egilea ezizeneko idazle batek erabiltzen du eta *OEHn* ere ez da agertzen.

Enbata-hodeiak azpi-kategoriari buruz ordezkari bakarra ere aurkitu da datutegian: *enbata-laino* (*enbata laino*); Landak erabiltzen du Gara egunkarian eguraldia iragarri eta aurreikusten duenean: “Goiz partean hego ukituarekin eta arratsaldean mendebal ukituarekin. Horrek *enbata laino* arin batzuk sorraraziko ditu kostaldean baina euririk gabe” (Landa, 2003-12-09).

Ondorengo azpi-kategoria *haizete-hodeiak* bitan banaturik dago: batetik, haizetea iragartzen duten hodeiak eta bestetik, haizeteak berak ekartzen dituen hodeiak. Lehenengoei dagokienez, *laiatu* eta *tripaki* hitzak dira eta bigarreniei dagokienez, *galerna-buru* (*galarren buru* / *galerna buru*) eta *hodei-laino* (*odai-laiño*) elkarketak eta *trunbil* berba.

Laiatu partizipioa bizkaiera eta gipuzkera euskalkietan erabiltzen omen da (*DVEF*). Berez, aditza da eta “lurra laiaz landu” esan nahi du (Harluxet). Hortaz, zeruan hodei laiatuak

azaltzeak haizetea edo haize beltza sortuko dela adierazi nahi du. Euskal hiztunaren adimen-begiak irudikatzen du zerua “lur laiatua” izango balitz bezala.

Tripaki berbaren gainean ideia berbera agertzen du Azkuek: “nubes precursoras de vendaval; su forma es de terreno layado” (*DVEF*). Bizkaiko Ispaster eta Markina herritan bildu zuen hitz hau. Tripakiak dira, bestalde, “behi, txahal edo ahariaren urdaila eta sabeleko erraiak, egosita jaten direnak” (Harluxet). Horrenbestez, euskal hiztunek zeruan ikusten dituzten tankera horretariko hodeiak horrelako jakiekin erkatzen dituzte.

Galerna-buru (*galarren buru / galerna buru*) elkarketak bi aldaera horiek ditu: Biak jaso zituen Azkuek (*DVEF*): lehenengoa, *galarren buru* Lekeitioan, bere herrian eta bigarrena, *galerna buru*, gipuzkeraz erabiltzen zela azaldu zuen. *Galerna* berba *enbataren* forma baliokidea da, “itsasbazterreko haize bortitza edo ekaitza” (*EH*). Haizearen eremuan aztertu denaren arabera, *galerna* berba erruz erabiltzen da haize mota horri irizteko (§4.3). Aldaera bietan Azkuek *Nimbus* izendapena eranstean du, hots, “hodei iluna” latinez.

Hodei-laino (*odai-laiño*) elkarketa Azkuek ere jaso zuen Gipuzkoako Arrasate herrian (*DVEF*). Gorago aipatu bezala, *Hodei-laino* (*odeilañu, odoileño*) izen-elkarketa Bizkaiko Orozko eta Nafarroako Dorrao herrietan “hodeia” izendatzeko. Euskararen hizkeretan hedatuena dauden bi berben batuketa da: *hodei* eta *laino*. Ziur asko, hiztunek hitz batekin nahikorik ez, esanahia galdukea delakoan, eta beste batekin elkartu beharra sumatu dute. Ez dirudi oso arrunta denik.

Trunbil berba Azkuek ere bildu zuen Lekeitio alboko Ispaster herrian (*DVEF*). *OEHN* “M” hizkia (Markina) dakar orduko azpi-euskalkia adierazteko. Gernikan, oster, hitz hau erabiltzen dute “prominencias toscas de las cortezas de los árboles” esateko; beraz, euskal hiztunaren adimenaren begiak zuhaitzen azal horiek ikusten bide ditu zeruan horrelako hodeiak agertzen direnean. Aztertutakoaren arabera, nabari da metaforak ugari direla nekazaritzaren, naturaren eta eguraldiaren lexikoaren artean. Euskaldunak bere alor eta munduko lexikoaren jakintza aplikatzen du eguraldiaren eremuan.

Hurrengo azpi-kategoriari hodei-xaflak deitu zaio. Bi elkarketa dira: bata, *hodei-xafla* bera eta bestea, *laino-xafla*. Bi terminoak Landak erabiltzen ditu egunero Gara egunkarian egiten dituen aro-iragarpenetan (Landa, 2003). Elkarketa biak ez dira inongo hiztegi edo corpusetan agertzen; beraz, baliteke Landak hodei mota zehatz bati erreferentzia egitea, hau da, “xafla” modukoa dena; beraz, Landak adimen-begiaz “xaflak” ikusten ditu ortzian. Bestalde, beharbada, gorago aipatutako *laino ziplei* hitzak “hodei-xafla”rekin zerikusia izan lezake; ondorioz, azpi-kategoria berekoak izan litezke.

Trumoi-hodeiak izendapenak adierazten duenaren arabera, hodeiekin batera trumoiak suertatu ohi dira. Meteorologia zientzian *kumuloninbo* hitza erabiltzen da: “Hodei trinko eta astunak, hedadura bertikal dezentekoak, mendi edo dorre erraldoien gisakoak” (*MetHizt*, 1988). Guztira 8 termino aurkitu dira datutegian: *eate*; *justulodei* (*juztulodai*, *juztulodei*); *ortots-goibel*; *ortzi*; *laino-dorre* (*laiño-torre*); *trumoi-adar* (*trumonadar*); *trumoi-buru* (*trumoburu*) eta *trumoi-laino* (*trugoi lañoa*, *trumoi-laiño*).

Eate berbak konnotazio mitologikoa du. Hodei motarik adierazten ez badu ere:

Haranez haran eta mendiz mendi trumoi-hodeiak zuzentzen dituen jeinua da. Izen horrekin esaten zaio Gipuzkoako Goierrin ekaitz, su, uholde eta haize-erauntsien jeinuari. *Eateots* entzuten da harria, sute ikaragarria, uholdea edo basoan burrunba ateratzen duen haizea hurbiltzen direnean. Beste izen batzuk honako hauek dira: *Egata* (Zegama), *Orots* edo *Erots* (Arakil), *Ereeta* (Azpeitia). *Ereeta'n bizarrak* erretzen ari den baso baten edo eraikin baten sugarrak dira, goraka egiten dutenak. Badira pertsona batzuk indar magikoak dauzkatela uste dutenak eta *Eateri* ustezko agindu egokiak ematen dizkiote; batzuetan eskuaz seinalatuz esaten omen diote non bota behar duen euria eta non harriabarra. Esate baterako, Zeanuriko Ipiñizar auzoko bizilagun batek, trumoi-hodeia hurbiltzen ari zela ikustean, *uztai-bedar* (*Rumex crispus*) izeneko belarra biltzen omen zuen bere ezkerreko eskumuturrean eta beste eskuaz ekaitzari edo *Eateri* adierazten omen zion nondik nora joan behar zuen. (Barandiaran, 1997: 182)

Justulodei (*juztulodai*, *juztulodei*) berbak badirudi *justuri* + (*h*)*odeitik* datorrela, hau da, “trumoi-hodeia”; izan ere, *justuri* edo *inusturi* terminoa oso zabalduta dago Bizkai aldeko hizkeretan “trumoi”, “tximista” edo “tximistargia” adierazteko. Hitz hau Azkuek jaso zuen Bizkaiko Mundaka eta Otxandio herrietan (*DVEF*). Ekaitzaren eremuan luze eta zabal aztertu da *justuri* berbaren gainekoa. Bertan ondorioztatzen da *justuri*, *inusturi*, *iurtzuri*, *ortziri* eta kideko terminoek jatorri bera izan lezaketela eta *ortzirekin* zerikusia izan. *Ortzi* bera, hain zuzen ere, erabili zen Egunaria aldizkarian “trumoi-hodeia”ri irizteko: “Anhitzetan bero handien ondotik *ortziak* eta zenbeit lekhitan harria” (*DRALV*).

Laino-dorre (*laiño-torre*) hitz-elkarketa gorago aztertu da. Aipatu bezala, Azkuek bi adiera ematen ditu, non begiratzen den hiztegian: *laiño* sarreran begirata, *laiño-torre* “nubarrón, nuée” dakar, baina *torre* sarrerara joz gero, *laiño-torreak* “nubarrones sueltos como de tronada, lit.: torres de niebla: gros nuages isolés et orageux, lit: tours de brouillard” (*DVEF*). Kasu bietan herri berak agertzen dira: batetik, Bizkaiko Arratia harana eta Markina eta Ondarroa herriak eta, bestetik Gipuzkoako Oñati. Elkarketa oso deskriptiboa izanda eta kumuloninboen izakiak kontuan harturik, ematen du *laino-dorreak* “trumoi-hodeiak” izan litezkeela; izan ere, euskal hiztunaren adimen-begiak goitik beherako dorre erraldoi moduko bat ikusten du.

Ortots-goibel elkarketa Nafarroako Baztan haranean erabiltzen da (Izeta, 1996). Batetik, *ortots* hitza dakar berekin, hots, “trumoi” eta bestetik, *goibel*, “hodeiz beteta” edo “lainotuta” esan nahi duena. *Ortots* hitza ekaitzaren eremuan aztertu da (§4.2); ziurrenik, “ortziren hotsa” eman nahi du aditzera.

Azpi-kategoriari amaiera emateko *trumoi*-berba daukaten hiru elkarketa dira: *trumoi-adar* (*trumonadar*); *trumoi-buru* (*trumoburu*) eta *trumoi-laino* (*trugoi lañoa*, *trumoi-laiño*). *Trumoi-adar* hitza Gipuzkoako Andoain herrian jasorik dago (*DVEF*); bertan *trumoi-laiño* berbaz ere baliatzen dira bertako euskaldunak. *Trumonadar* aldaera Bizkaiko Markina eta Gipuzkoako Aia eta Orio herrietan erabiltzen da (*DVEF*). Gorago aipatu bezala, euskal hiztunaren buru-iruditerian *adar* hitza sarritan azaltzen da termino etnometeorologikoak sortzeko; antza denez, zenbait ostagi eta fenomenoren luzapena da, lokailua; *trumoi-buru* (*trumoburu*) elkarketa Eusebio Erkiaga idazleak erabiltzen du *Arranegi* eleberrian (*OEH*) eta *trugoi lañoa* aldaera Bizkaiko Bakio herrian bilduta dago (Gaminde, 1999).

Ondorengo azpi-kategoriari *estratuak* deitu zaio; izan ere, Azkuek eta Izagirrek erdarazko horrelako itzulpena ematen dute: “estrato”. Estratuak (latinez: *stratus*, “hedatua, zabaldua”) hodei geruza grisaxka eta uniformeak dira, oso muga lausoak dituztenak. Lurretik hurbilen agertzen diren hodeiak dira: “hodei-geruza, jeneralean grisa, azpialde nahikoa uniforme duena, zirimiia, izotz-prismak (antzigar-ziria) edo elur-birrina sor dezakeena” (*MetHizt*: 231). Lurraren mailan daudenean *laino* (*behe-laino*, *erlaino*) edo *lanbro* esaten zaie. Prezipitazio txikiak ekar ditzakete: langarra, elurbustia edo elur xehea. Horren inguruko berbak honako hauek dira: *balen-hodei* (*balen-odeiak*); *burruntzi* (*burduntzi*) eta *burruntzi-laino* (*burduntzi-laiñuak*).

Balen-hodei (*balen-odeiak*) elkarketa Azkuek jasotzen du bere hiztegian eta bizkaiera eta gipuzkera euskalkietan erabiltzen dela dakar. Gaztelaniaz, “stratus, nubes en forma de pez” ematen du eta frantsesez, “nuages de forme allongée” (*DVEF*). Bitxia da gaztelaniaz “pez” eta ez “ballena” ematea eta frantsesez, “de forme allongée”; izan ere, Azkueri euskarak mailegaturiko hitzak ez zituen batere atsegin; sarritan, saihesti egiten zituen, baztertu.

Bestalde, euskal hiztunaren adimen-begiak buru-iruditerian gorde ditu horrelako hodeiak baleekin alderaturik. Balea euskal kostaldetik aspaldi samarrean galdu zenez gero, aski zahartzat jo behar da elkarketa hau.

Burruntzi (*burduntzi*) berba euria dakarten hodeien azpi-kategorian sar zitekeen; izan ere, Azkuek dio “estrato, nubes de forma de cintas largas negras que traen lluvias” (*DVEF*), baina *estrato* hitza aipatzen duenez gero, azpi-kategoria honetan sartzea erabaki da. Bizkaiko Ondarroa herrian erabiltzen da *burduntzi* aldaera eta *burruntzi* Donostian. Hemen ere adimen-begiak metafora ederra sortzen du: “Okela erretzeko tresna” (*EH*) horrelako hodiekin erkatzen da. Beraz, euskaldunaren adimen-begiak *burruntzi* lanabesaren antza hartzen die horretariko hodeiei. Izagirrek Gipuzkoako Oñati herrian *burduntzi-laiñuak* elkarketa jaso zuen (Izagirre, 1959). Gaztelaniaz “estratos” soilik ematen du.

Ondorengo azpi-kategoria *kumuluak* dira:

kumuluak (latinez: *cumulus*, “pila”, “mordoa”) garapen bertikal nabarmena eta ertzak ongi definituak dituzten hodei bakartuak dira: “hodei kotoikarak dira eta gainaldeak, askotan, azalorearen antza izaten du. Zuri distiratsuak dira eguzkiaren argia islatzen dutenean. Azpialdea ilun eta horizontal samarra izaten dute. Bakarrik, lerrotan edo taldeetan ager daitezke. (*MetHizt*, 67-68)

Meteorologiak berak horretariko hodeiak definitzeko erabiltzen dituen kontzeptuak baliagarriak dira herri-ikuspegia azaltzeko: batetik, “kumulu” hitzaren beraren esanahia, bestetik, “kotoikarak”, azkenik, “azalorearen antza”. Datutegia osatzeko ondoko berba hauek jaso dira: *goibel-murru* (*goibelmurru*); *hodei-muru* (*hedoimuru*); *hodei-dorre* (*odei torre*); *hodei-moilo* (*odei-moillo*) eta *txanbolin-hodei* (*txanbolin-odai*).

Goibel-murru (*goibelmurru*) elea Nafarroako Baztan haranean bildua da (Izeta, 1996). Deskripzioa ere badakar: “hodei trinkoa, mendi erakoa, denbora ona denean agertu ohi dena”. Beraz, nolakotasuna eta noizkotasuna aipatzen ditu: “mendi erakoa” eta “denbora ona denekoa”.

Hodei-muru (*hedoimuru*) elea Nafarroa Behereko Baigorri eta Lapurdiko Senpere herrietan bildua da (*DVEF*). Azkuek definizioan berriz ere aipatzen du “cumulus, nubes en forma de montañas”; beraz, hiztunak mendien tankera hartzen die horrelakoei.

Hodei-dorre (*odei torre*) eta *hodei-moilo* (*odei-moillo*) hitz-elkarketak Gipuzkoako Oñati herrian jasota daude (Izagirre, 1959). Izagirrek egindako hitz-bilduman elkarren ondoan dira. *Dorre* berbaren irudiak mendi erakotasunarekin du zerikusia, tamainarekin eta *moillo* hitza ez dago lexikoi berean, baina, bai *mollo*, “porción de hierba suelta” edo “boillo aundixak”: terrones grandes. Ostera ere ematen du handitasuna dela ererferentzia, adimen-begiaren arabera.

Txanbolin-hodei (*txanbolin-odai*) kumuluetan azken hitz-elkarketa da. Bizkaiko Lekeitio herrian erabiltzen da (*DVEF*). *Txanbolin* berba musika-tresna izan liteke, Bizkai aldeko hizkeretan *tanbolin* esan ohi dena. Beharbada, euskaldunaren adimen-begiak horrelako hodeiak *danbolin* batekin erkatzen ditu; hortaz, kasu honetan tamaina ez, baizik eta aspektua biltzen da hiztunen buru-irudimenean.

Hodeien eremua lehenengo nozioa, izakiak, amaitzeko azken azpi-kategoria dugu: oskarbiko hodei bakana. Bi ordezkari dira: *lapar* eta *zardai*. *Lapar* Nafarroako Aezkoa haranean erabiltzen da (Iribarren, 1952). *Edur-lapar* elkarketa ere bada datutegian: “la nieve que escasamente cubre el suelo” (Izagirre, 1959). *Lapar* eleak zenbait adiera ditu; besteak beste:

(V-ple-oro), cerón, residuo, escoria o heces de los panales de la cera” A. edo “*Lapar* (Sc), legaña. *Begi-lapar* (R-uzt), legñoso” A. “/l'áphar/, chassie” Lrq. v. bekar. * *Gazte horiek ez dizie begian llapharik, eta zütien partidak goitü dititzie* (S). Eskual 2-4-1909 (ap. *DRA*, s.v. *llapa*). (*OEH*)

Beraz, hodeien nahiz elurraren eremuetan nolabaiteko “hondar” edo “hondakin”tzat har liteke. Horrelaxe ikusten bide du hiztunaren adimen-begiak.

Zardai hitza Nafarroako Leitza herrian jasota dago (*OEH*). Aipamenaren arabera, “zeru oskarbiko hodei luzatua” da. Gaztelaniaz hauxe: “Nube alargada que aparece en el cielo limpio”. *Zardai* berba, bestalde, izen gisa “haga edo makila luzea” adierazteko erabiltzen da edo izenondo gisa “liraina” aditzera emateko (*EH*). Garbia ematen du hiztunen adimen-begiaren nondik norakoak: hagatik hodei luzera. Izan ere, horrelako hodeiek makil luzeen tankera hartzen dute ortzian.

4.4.2. Kantitatea

Behin lehenengo nozio orokor etnosemantikoa azterturik, bigarren nozio orokorra aztertzeari, kantitateari, ekingo zaio. Wilkinsen hitzetan (1976), hizkuntzaren ezaugarri unibertsala izenak zatigarri / zatiezin edota zenbakarri / zenbatezin bikoteen arabera sailka daitezkeela. Hori horrela izanik, oro har, gauza guztiak kuantifikagarri / kuantifikaezintzat jo litezke. Wilkinsek dioenez, honelako ezaugarriak dauzkaten hitzak lotu behar zaizkio nozio honi: kopuru absolutua eta kopuru erlatiboa. Azterlan hau kontuan harturik, nolabait kantitatea adierazten duten etnometeoro guztien hitzak sailkatu behar lirateke nozio orokor honetan. Hodeien eremuan, Kantitateak bost kategoria bilduko lituzke bere baitan ortzian antzeman daitekeenaren arabera: Hodeitza —hodei ugari—; Zerua hodeiz beteta —hodeiak besterik ez da ikusten—; Zerua hodeitsu —zenbait hodei antzematen dira—; Hodeirik gabeko zerua —ez dago hodei bat ere— eta Ostartea —zeru tarteak edo zirrikituak hodeien artean—. Horrelako kategoriak kopuruari dagozkiola erabakirik, horrelaxe aztertuko da. Izakien nozioan ez bezala, Kantitate nozio orokorrean ez dago azpi-kategoriarik; zuzenean igaroko da kategoriatik nozio espezifikokoak aztertzerara. Beherago dago ikerkizun 39. taula. Guztira 50 nozio espezifikoko dira.

Hodeitza	Zerua hodeiz beteta		Zerua hodeitsu	Hodeirik gabeko zerua	Ostartea
Hodei-koska	Dundu (düdü)	Hodeite (odeite)	Gandutsu	Arraso	Argiune
Hodeitza	Estali(ta)	Hodeiturik	(kandutsu)	Eguargi	(argiuna)
Laino-koska	Goi estari	(odeizatruk)	Hodeitsu	Garbi	Bi(r)targi
Lainotzar	Goibel (gobel,	Hori (hoi)	(hedoitsu,	Gaurdin	Eguzkiarte
Mokor	goiber hobiél,	Horibel	odaitsu)	Goi garbi	Hodeiarte
Mataza	obiél), goibelaldi,	Ilun (ilhun,	Hodeizu	Goi argi	(odeiarte)
	goibeltsu	ülhün),	(odeizu, odeizü)	(goiargi, goye	Kortxintxa
	(gobeltsu),	ilunxka (ülünxka)	Lainopetsu	argi)	Lortxinga
	goibeltasun	Itzal	(lanopetsu)	Hodei gabe	(lortxinge)
	(gobeltasun)	Kabes (kaes)	Lainotsu (lanotsu,	(odei bage)	Oskarbi-une
	Goi goibel (goi	Kuku	lañotsu	Oskarbi	(ozkarbi-
	gibel)	Lainotu (laiñatu)		(osgarbi, ots-	une)
	Gris(ila),	Muku		garbi, ozgarbi,	Ostarte
	grisilüntxka	Mututs (muthuts)		ozkarbi)	(oztarte)
	Hits	Ñabar		Oskargi	
	Hodeiatu	Urdin(xka)		Ostri	
	(odeaiatu,	Zunbre.		Ostargi (oztargi)	
	oroiatu)			Urdin	
	Hodeitza			Zeru argi	
	(odeitza) Hodei-				
	java (odei java)				

39. taula. Hodeiak: Kantitatea

Hodeitzak, lehenengo kategoriak, sei nozio espezifiko biltzen ditu: *hodei-koska*; *hodeitza*; *laino-koska*; *lainotzar*; *laino-mokor* eta *laino-mataza*. Lau hitz-elkarketa, *hodei-koska*, *laino-koska*, *laino-mataza* eta *laino-mokor*; bi hitz-eratorri, *hodeitza* eta *lainotzar*.

Hitz-elkarketei dagokienez, *hodei-koska*, *laino-koska* eta *laino-mataza* elkarketak Landak erabiltzen ditu egunero Gara egunkarian egiten dituen eguraldi iragarpenetan (Landa, 2003). *Koska* hitzaz baliatzen da “masa” edo “hodei trinko ugari” aditzera emateko. Berdintsu gertatzen da lexiko etnometeorologikoan oso arrunta den *mataza* berbarekin. Gogoratu besterik ez dira egin behar *elur-mataza* eta *hodei-mataza*. Euskal hiztunaren adimen-begiak bere iruditeriaz baliaturik nolabaiteko “masa trinko ugaria” antzematen du. Adierak honako hauek dira (EH):

1 iz. Euskarririk gabe bira handietan bildurik dagoen haria. Ik. **haril**. *Mataza askatu. Ezin harildu den mataza. Artilezko mataza. Mataza guztiak baino nahasiagoa.*

2 iz. *Irud. Hodei mataza beltzak. Ke mataza lodi zikin bat.*

3 iz. (Gauza nahasia adierazteko). *Alferrik ariko dira sofismak eta matazak sailean asmatzen. Euren kontzientzia mataza bat eginda dutenak. Hori matazaren hasiera besterik ez da. Has gaitezen, bada, zenbaitek nahasi baino nahasiago nahi luketen mataza askatzen eta biltzen. Ederki harildu digu Labaienek gure teatroaren mataza nahasia.*

4 iz. (Elur) maluta. *Mara-mara ziharduen; txapela lako matazak, baserriko aitonak esan ohi zuen moduan. Gero eta mardulago ari zuen elurra, matazak lodi eta bide zuzen-zuzena eginez goitik behera. Elur matazak atertu gabe kanpoaldean.*

ile mataza, ile-mataza Ile multzoa, adatsa. Ik. **kalpar**. *Ezti koloreko ile mataza. Atzerantz orraztu du ile mataza. (EH)*

Laino-mokor hitz-elkarketari *mokor* eleak ematen dio bizia: “Hegoak aitzina zeramatzan *lanho mokorrak* oro” (Lhande, 1926). *Mokor* berba hau gehienbat Euskal Herriko ekialdeko hizkeretan erabiltzen da, “lur zati trinkoa” edo “koskorra, puska” adierazteko (EH). Beraz, badirudi bigarren adiera hau gailentzen dela *lanho mokorrak* elkarketan.

Hitz-eratorriari dagokienez, *hodeitza* terminoak kategoria honi ematen dio izena, besteak beste, Azkuek jasotzen du bere hiztegian (DVEF). *Hodei* + *-tza* atzizkiaz osaturik dago. Izan ere, atzizki honek ugaritasuna adierazi ohi du; *lainotzar* berba Joxe Landak ere erabiltzen du (Landa, 2003); honek *-tzar* atzizkia du erantsita, handigarri gisa erabiltzen dena. “Laino lodi” edo “potoloak” esan nahi du *-tzar* atzizkiak.

Bigarren kategoria Zerua hodeiz beteta egotea da. Hauek dira nozio espezifikoak: *düündü*; *estali(ta)*; *goi estari*; *goibel* (*gobel*, *goiber*, *hobiel*, *obiel*), *goibelaldi*, *goibeltsu* (*gobeltsu*), *goibeltasun* (*gobeltasun*); *goi goibel* (*goi gibel*); *gris(ila)*, *grisilüntxka*; *hits*; *hodeiatu* (*odeaiatu*, *oroiatu*); *hodeitza* (*odeitza*); *hodeitsu* (*odeizu*, *odeizü*); *hodei-jasa* (*odei jasa*); *hodeite*; *hodeitruk*; *hori* (*hoi*); *horibel*; *ilun* (*ilhun*, *ülhün*); *ilunxka* (*ülhüntxka*); *itzal*; *kabes* (*kaes*); *kuku*; *lainotu* (*laiñatu*); *muku*; *mututs* (*muthuts*); *ñabar*; *urdin(xka)* eta *zunbre*.

Dundu (*düündü*) elea ez da arrotzat izaten ekialdeko euskalkietan kolore urdina esateko; adibidez, Nafarroako erronkarieraz. Oraingoan *düündü* aldaera jasoa da Zuberoako Atharratze eta Larraine herrietan zerua goibel dagoela adierazteko; Atharratzen *düündü*, besterik ez (DVEF) eta Larrainen *urdinxka* eta *düündü*, baliokide gisa (EHHA). Beraz, *düündü* hitza hurbilagozten da gaur egungo “zeru grisa” esanahira “zeru urdin”era baino.

Estali(ta) izenondo eta aditzondoa, nola eta nolakoa, *estali* aditzean oinarritua. Biak Joxe Landak erabiltzen ditu “zerua hodeiz beterik” dagoela adierazteko (Landa, 2003). Antza denez, forma hau erabiltzea berrikuntza da; izan ere, horrelako adierarik duenik ez dago Orotariko Euskara Hiztegian (OEH). Komunikabideetan ere zeru *estalia* entzuten da; beraz, berrikuntzatzat har daiteke. *Goi estari* elkarketa ere jasota dago Bizkaiko Markina herrian (DVEF). *Goi* hitzak *zeru* ordezkatzen du kasu honetan, eta *estari* izenondo gisa azaltzea ez da arrotza izaten.

Goibel barbari lotutako zenbait termino dira: *goibel* (*gobel*, *goiber*, *hobiel*, *obiel*), *goibelaldi*, *goibeltsu* (*gobeltsu*), *goibeltasun* (*gobeltasun*) eta elkarketa bat, *goi goibel* (*goi gibel*). *Goibel* ziurrenik *goi+bel(tz)* da. Elurraren eremuan *lurbel* (*lurmen*) hitza aztertu denean adierazi da *bel*-ek *bel(tz)*ekin izan lezakeen lotura: “beltz geratzen den lur zatia, elurra urtu baita” (Harluxet). Hodeien eremuan, zerua hodeiz betetzen denean, euskaldunaren adimen-begiak horrelako irudipena du, “zerua beltz” dagoela, alegia. Lehen aipatu da *goibel* hodeia ere badela, izen moduan; orain, aditzondo edo izenondo gisa azaltzen da. Azkuek adierazi zuen

behe-nafarrera, gipuzkera eta lapurtera euskalkietan erabiltzen dela (*DVEF*); *gobel* aldaera Azkuek ere bildu zuen (*DVEF*); *goiber* Nafarroako Baztan haranean erabiltzen da (Izeta, 1996); *hobiel* Nafarroako Zaraitzu haranean, non galdu baita euskara (*DVEF*); *obiel* Nafarroa Behereko Gamarte herrian jaso da (*EHHA*); *goi goibel* (*goi gibel*) elkarketan, ostera, beharbada, hiztunak *goibel* berbaren barruan *goi* hitza dagoelako ziurtasuna galdu du; horregatik, berriz aurretik *goi* izena esaten du. Bizkaiko Arratia eta Txorierri haranetan eta Durango eta Orozko herrietan baliatzen dute hiztunek (*DVEF*). Antzeman daitekeenez, *goibel* elea orokorra da euskalki gehienetan; bizkaiera, behe-nafarrera, gipuzkera, lapurtera eta suntsitutako zaraitzueran; *goibelaldi* izena Txillardegik erabiltzen du *Leturiaren egunkari ezkutua* izeneko eleberrian (*DRALV*); *-aldi* atzizkia du erantsita, tartea edo denbora adierazteko.

Gris, *grisila* eta *grisiliuntxka* izenondoak Zuberoako Larraine herrian bilduak dira (*EHHA*). Hirurak erabiltzen dira “zerua lainoturik” dagoela adierazteko. Itxura denez, frantsesezko *gris* koloretik datoz, mailegu gisa; *-ilak* atzizki txikigarria izan liteke eta *iluntxka*, *ilün* izenondoa gehi *-xka* atzizki txikigarria.

Hits berba tristeziari lotutakoa da (*DRALV*). Harluxet hiztegiak dakarrenez, “izond. (batez ere Ipar.) 1. Zurbila; bizitasunik ez duena edo agertzen ez duena. *Kolore hitsak. Aurpegia hits dute, elea bakan.* 2. Goibela, tristea. *Gu bizi garen denbora hits honetan*” (Harluxet). Beraz, euskaldunak, zerua lainoturik eta goibel sumatzen duenean, uste du ez duela bizitasunik, triste dagoela: horixe ikusten du bere adimen-begiak.

Jarraian *hodei* berbarekin zerikusia zenbait termino dira: *hodeiatu* (*odeaiatu*, *oroiatu*); *hodeitza* (*odeitza*); *hodei-jasa* (*odei jasa*); *hodeite* (*odeite*) eta *hodeitruk* (*odeitruk*). *Hodeiatu* (*odaiatu*, *oroiatu*) terminoa gorago aztertu da Bizkaiko Leioa herrian “euria dakarren hodei multzoa” ere adierazten baitu (Gaminde, 2001b). Kasu honetan *odaiatu* Bizkaiko Lekeition (*DVEF*) bildua da eta *oroiatu* Donostian (*DVEF*). Lehen aipatu bezala, *-tu* bukaerak aditz zantzua ematen dio. *Hodeitza* (*odeitza*) berbari buruz Añibarro idazleak erabili zuela baino ez da jaso (*DVEF*). *-Tza* atzizkiak ugaritasuna aditzera ematen badu ere, hemen zeruaren goibeltasuna esan nahi du; *hodei-jasa* (*odei jasa*) hitza Gipuzkoako Aia eta Bidania herrietan jaso da (*DVEF*). *Jasa* terminoa arrunta da etnometeorologian ugaritasuna adierazteko; adibidez, *huri-jasa*. *Hodeite* (*odeite*) berba Añibarrori ere jaso zion Azkuek (*DVEF*). *-Te* atzizkia eskuarki denbora edo garaia eta batzuetan eremu etnometeorologikoan ugaritasuna ere adierazteko ere erabiltzen da; adibidez, *elurte*, *harrite* edo *haizete*. Amaitzeko, *hodeiztaturik* (*odeiztaturik*) elea da. Nafarroako Erronkari haranean erabiltzen zen (Estornes, 1997); *-ztatu+rik* atzizkiez baliatzen ziren “zerua hodeiz beteta” zegoela azaltzeko. Gaur egun *-ztatu* atzizkia nahiko emankorra izaten da aditzei lotuta; adibidez, *ureztatu*.

Hori (hoi) bi aldaera dira; lehenengoa, *hori*, Azkuek dioenez, zuberera euskalkian erabiltzen da (*DVEF*). Gaztelaniaz honako itzulpen hau ematen du: “tiempo ni soleado ni lluvioso”. Lhandek, aldiz, hau dakar frantsesez: “Temps sans soleil en été” (*OEH*). Hortaz, adiera hau are zehatzago da, “udako eguzkirik gabeko eguraldia”. *Hoi* aldaera berrikiago jasorik dago Zuberoako Sohüta herrian (*EHHA*). Ez du zehaztapen berezirik, “eguraldi goibela” baizik ez. Goratxoago euskaldunaren adimen-begiak zerua *dundu* edo *urdinxka* ikusi du, eta oraingoan *hori* ikusten du. Zerua lainotzea zenbait koloreren bitartez sumatzen bide da. Seguru asko zeruak tonu desberdinak hartzen ditu hodeitzaren arabera. Agian Lhanderen definizioak kolore horiaren kontua ulertzeko giltza ematen du; izan ere, udan lainotuta egonda, hodeien gainetik eguzkiaren jotze sendoak nolabaiteko horitasuna ematen dio zeruari.

Horibel elea (*OEH*) ildo berekoa da, baina *bel(tz)* kolorea gehituta. Goragoko *goibel* termino ezagunarekin batera azter zitekeen; izan ere, *hobiel*, *hoibel* eta *obiél* aldaerak badira, baina beharbada kasu honetan hasierako *hori* hitzak ez dauka goirekin inongo zerikusirik; baliteke euskal hiztunak zeruan beste tonu bat sumatzea, horiaren eta beltzaren artean edo bien arteko nahasketa, hain zuzen ere.

Ilun (ilhun, ülhün) eta *ilunxka (ülhüntxka)* izenondoek kantitateari bainoago zeruaren aspektuari egiten diote erreferentzia. Hala ere, hemen uztea erabaki da lainotzeari buruzko hitz guztiak toki berean egotearren. *Ilhun* aldaera Lhandek dakar bere hiztegian (Lhande, 1926); *ülhün* elea Zuberoako Urdiñarbe herrian bildurik da (*EHHA*) eta *ülhüntxka* herrialde bereko Larraine herrian (*EHHA*).

Itzal izena *egon* aditzarekin batera dakar Mokoroak (Mokoroa, 1990); beraz, aditz-lokuzioaren tankera harturik, jarduera nozio orokorrean sar liteke. Hala ere, hemen erabaki da beraren berri ematea. Herririk ez, baina euskalkia bai, gipuzkera aipatzen du Mokoroak. Adimen-begiak aroaren aspektua hartzen du kontuan.

Kabes (kaes) terminoa Zuberoako Larraine herrian jasorik da (*EHHA*). *OEHn karesa* elearekin zerikusia duela aipatzen da; izan ere, multzo berean sartzen dira “*karesa* (L, B, BN, S; *VocBN*, Gèze, H), *kareza*, *karexa*, *kaesa*, *kabesa*. Ref.: Lh; Izeta *BHizt2*” (*OEH*). Azken honek honela ematen du aditzera: “*karesa* (fr. *Caresse*); maitasuna; harrera ona. «Simpatía; buena acogida» Etxe ortan *karesa* maitagarrie in zakuten. *Karesa* orrek aunitz balio du” (Izeta, 1996). Nekez erabaki liteke zer-nolako lotura daukan zeru lainotuarekin.

Kuku hitza Nafarroako Baztan haraneko Lekaroz herrian bildua da (*EHHA*). Hau ere aditz-lokuziotzat jo liteke, hango euskaldunek *Kuku dago* esaten baitute. Bestalde, arrunt samarra da ekialdeko euskalkietan *kuku(tu)* aditzarekin topo egitea. Horrela dakar: “*kukutu*, *kuku(tu)*, *kukutzen*. *Ipar. da/du* ad. 1 'estali'. 2 'ezkutatu, gorde” (*EH*). Jarduera nozio orokorra

aztertzen denean, *kuku(tu)* aditzaren berri ere emango da. Larrainen zerua lainotuta dagoela azaltzeko, *EHHAk* hitz hauek bildu ditu: *diündü*, *gris*, *grisila*, *grisilüntxka*, *ilunxka* (*ülhüntxka*), *kabes* (*kaes*) *ñabar*, *urdin* eta *urdinxka*. Bi ondorio atera litezke honetatik guztitik: batetik, biziki oparoa da bertako biztanleek erabiltzen duten lexikoa, eta, bestetik, nor den hiztuna, halako adimen-begia eta buru-iruditeria.

Lainotu (*laiñatu*) berba ere erabiltzen da Bizkaiko Arratia haranean eta Gipuzkoako Eskoriatza herrian zeruaren goibeltasuna aditzera emateko (*DVEF*). Aditz arrunta izanagatik ere, kasu honetan aditzondo gisa ere erabiltzen bide da.

Muku elea Nafarroako Baztan herrian jaso da. “Gaur *muku* dugu”; “Iruzkirik gabe *muku*” (Izeta, 1996). Baliteke goragoko *kuku* eta *muku* hitzek jatorri bera izatea.

Mututs (*muthuts*) terminoa Lhandek jasotzen du hiztegian. Honela ematen du aditzera frantsesez: “Temps couvert, brouillard” (Lhande, 1926).

Ñabar hitza Zuberoako Lorraine herrian (*EHHA*) jaso da. Ziurrenik termino honek badu zerikusirik kolorearekin; *ñabar* adjektiboaren adieretariko batzuk gaztelaniazko *pardo*, *grisáceo* koloreen baliokideak dira (Labayru Hiztegia). Beraz, euskaldunaren adimen-begiaren arabera, zeruari ezartzeko beste kolore bat.

Urdin(xka) eleak Zuberoako herri batzuetan jatorri daude; *urdin*, Lorraine eta Urdiñarben eta *urdinxka*, Larrainen. Gaur egun sarri entzun eta irakurtzen da “zerua *urdin* dago”, hodeirik gabe dagoela adierazteko. Beharbada, gaztelaniaren eta frantsesaren eragina izan liteke, zeren oraindik orain Zuberoako zenbait herritan kolore urdinaren jatorrizko adieraz baliatzen baitira bertako euskaldunak, iluntasun kontzeptutik hurbil dagoena, alegia.

Zunbre berba ez da inongo hiztegi edo lexikoitan agertzen; goratxoagoko Urdiñarbe herrian bildurik da (*EHHA*). Baliteke frantsesezko *sombre* etetik etortzea, hau da, “iluna”. Zuberoako euskalkian sarritan kontsonante arteko *o* bokal asko *u* bihurtzen dira; adibidez, *gizon*, *gizun*.

Hirugarren kategoria Zerua hodeitsu da, hau da, zenbait hodei ikusten direnean, baina goia erabat estaltzen ez dutenean. Jasotako nozio espezifiko guztiak izenondoak dira, *-tsu* / *-zu* atzizkiaren bidez eratutakoak: *gandutsu* (*kandutsu*); *hodeitsu* (*hedoitsu*, *odaitsu*); *hodeizu* (*odeizu*, *odeizü*); *lainopetsu* (*lanopetsu*) eta *lainotsu* (*lanotsu*, *lañotsu*). Kasu guztietan hiztunek erabiltzen dituzten hitzei *-tsu* / *-zu* atzizki emankorra erantsi diete.

Gandutsu (*kandutsu*) aldaera Arantzazu Egutegiak dakar (*DRALV*): “Udaran egoaldea, *kandutsu*; gutxitan, euritsu”. *Gandu* berbaren esanahia “Behe laino mehea, eguratsa zerbait lausotzen duena” (*EH*) izanik ere, zenbait bazterretan “laino” edo “lanbro” moduko zerbait esan nahi du. Ikerlan honetan *gandua*, *lainoa* eta *lanbro*arekin batera jorratu da definizio honen

arabera: “atmosfera, partikula guztiz txiki eta lehorren suspentsioa da; ezin dira ikusi begi hutsez baina nahikoa ugariak dira aireari opaleszentzia (atmosfera kolore zuriska) itxura emateko (*MetHizt*, 1988: 119).

Hodeitsu (*hedoitsu*, *odaisu*) izenondoa erabiltzea erabaki da kategoria honi izena emateko. Hodeia eremua izanda, zentzuzkoa da *hodeitsu* adjektiboaz baliatzea; *hedoitsu* aldaera Lhandek dakar (Lhande, 1926) eta *odaisu* berba Euskalzalde aldizkarian (*DRALV*).

Hodeizu (*odeizu*, *odeizü*) elea aurrekoaren aldaeratzat jo daiteke; izan ere, *-zu* atzizkia Euskal Herriko ekialdean erabiltzen bide da; *odeizu* Nafarroako Erronkari haranean aditzen zen (Estornes, 1997), eta gaur egun, oraindik, *odeizü* Zuberoako Sohüta herrian (*EHHA*).

Lainopetsu (*lanopetsu*) aldaera bi atzizkiz osaturik dago: aipatutako *-tsu* eta *-pe*, azpian esan nahi duena. *Lanopetsu* aldaera Harriet hiztegiaren eskuizkribuan azaltzen da: “Qui se couvre souvent de brouillard. *Ahunxkiko mendi lanhopetsua*, la montagne brumeuse d’Ahunxki” (*OEH*). Adibide horren arabera, pentsa liteke gehiago dela “gandutsu”, “lainotsu” baino, baina *DRALV*en gaztelaniaz “nuboso”, “brumoso” itzulpenak azaltzen dira.

Azkenik, *lainotsu* (*lanotsu*, *lañotsu*) berba dago datutegian; *lanotsu* elea gorago aipatutako Harriet hiztegiarek ere hartuta dago (*OEH*) eta *lañotsu* aldaera J. J. Mogelek darabil (*DRALV*).

Laugarren kategoria Hodeirik gabeko zerua da, ortzian hodei bat bera ere ikusten ez denean, alegia. Bildu diren nozio espezifiko guztiak honako hauek dira: *arraso*; *eguari*; *garbi*; *gaurdin*; *goi garbi*; *goi argi* (*goiargi*, *goye argi*); *hodei gabe* (*odei bage*); *oskarbi* (*osgarbi*, *otsgarbi*, *ozgarbi*, *ozkarbi*); *oskargi*; *ostri*; *ostargi* (*oztargi*); *urdin* eta *zeru argi*.

Haien artean nolabaiteko sailkapena egin liteke osaturik dauden elementuen arabera. Hitzunen adimen-begiak, gehienbat, bi kontzeptu darabiltza: batetik *-argidun* hitzak; bestetik, *-garbidunak*. Hala ere, azkenik, badira beste termino batzuk ez *argidunak*, ez *garbidunak*. Banan-banan aztertuko da.

Bigarren osagai gisa *-argi* erabiltzen duten terminoei dagokienez, zenbait hitzetan azaltzen da bera: *eguari*, *goi argi* (*goiargi*, *goye argi*), *oskargi*, *ostargi* eta *zeru argi*. Beste batzuetan, ostera, aipatu bezala, *garbi* berba erabiltzen da.

Eguargi berba baliatzen zuten Nafarroako Erronkari haraneko hitzunek (Estornes, 1997). Bi hitzez osaturik bide dago; batetik, *egu(n)* eta bestetik, *argi*. *Egu(n)* terminoa ez da arrotza izaten lexiko etnometeorologikoan. Gogora ekar ditzagun *egunabar*, *egungiro*, *egunsenti*, *eguraldi*, *eguario*, *eguen*, *eguerdi*, *egurats*, *egutera*, *eguzki...*; *goi argi* (*goiargi*, *goye argi*) dela-eta, *goiargi* hitza Gipuzkoako Eibar herrian jasoa da (Etxebarria, 1965-1966); *goye argi* aldaera Bizkaiko Jatabe herrian jasota dago (Gaminde, 2002). Badirudi bi aldaerak

aditzondo gisa erabiltzen direla; *oskargi* berba Bizkaiko Abadiño herrian baliatzen dute bertako hiztunek (Gaminde & Salterain, 1991). Eurek entzundako hitza lexikoi horretan baizik ez da agertzen; Orotariko Euskal Hiztegiari ez dago haren aztarrenik (*OEH*). Aidanez, jatorrizko terminoa *ortz(i) + garbitik* dator; beraz, baliteke hiztunek *argi* berbarekin nahastea edo jatorrizkoa huraxe izatea. Izan ere, *oskarbi* eta *oskargi* berdintsuak dira fonetika aldetik, bigarren terminoa desberdina badaukate ere; *ostargi (oztargi)* berba honela azalduta dago:

Ostargi 1.(V-gip, G-azp, AN-larr, L-ain; Lecl, H (V, G)), **oztargi** (V-gip, G, AN-larr; Lar→H). Ref.: A (*ostargi, oztargi*); Iz *ArOñ*. Claridad del cielo. “Crepúsculo” Lar. “Vislumbre” Ib. “*Ostargixa badator, comienza ya a amanecer*” Iz *ArOñ*. *Nere ost eder onek, nundikoak ote ditu beronen ostargia illundu dieten odei beltz-beltz malkotsu oiek?* A *Ortzuri* 122 (v. tbn. 118). *Sor bekio buruan zeruko argitasuna, Jaunaren ostargi ederra.* A *Ardi* 109. *Zidarra ur-gañaak dirudi... / Ur-gaña ikutuz, geldigeldiro, / Lau egazi luma-zuri... / Dana oztargi itsaso-gaña / Nola ez maite eder ori?* EG 1952 (9-10), 2. “*Oztargi* (V-m), rayo del sol” A. (*OEH*)

Irakur daitekeenez bi adiera baino ez ditu jasotzen *OEH*k: “claridad del cielo”, “crepúsculo”, “vislumbre” eta “rayo de sol”. “Dana *oztargi* itsaso-gaña...” aipamena dela-eta, beste bat dago: “cielo raso” (*DRALV*). Horren ondorioz, hementxe aipatzen da. Gorago aztertutakoaren arabera, *ortz(i) + argitik* etor liteke. Ekaitzaren eremua aztertu denean (§4.2), *ortz(i)* berbaren gainean aipatu da datutegian jasotako datu guztien arabera, “lur gainean dagoen zerua” izan daitekeela; *zeru argi* Bizkaiko Getxo herrian jaso zuen Llosak esaldi esanguratsu batean kokatuta: “Alde batetik, sekula mobitzen ez den zerua daukagu, eta garbi-garbi dagoenean *oskarbi* esan beharrean *zeru argi* esaten zaio” (Llosa, 2002).

Bigarren osagai gisa -*garbi* azaltzen den terminoei dagokienez, *garbi* aditzondoa Euskal Herriko hainbat bazterretan erabiltzen da; adibidez, goi-nafarrera euskalkian: “Zerua *garbi* da” (Mokoroa, 1990); *goi garbi* Gipuzkoako Eibar herrian entzuten da: “*Goi garbi* ederragaz eguna zabaldu dau” (Etxebarria, 1965-66). Gogoratu behar da herri berean *goi garbi* ere erabiltzen dela (Etxebarria, 1965-66); *Oskarbi* (*osgarbi, ots-garbi, ozgarbi, ozkarbi*) elea Euskal Herriko hainbat bazterretan erabili izan da: *osgarbi* aldaera F. Arrese idazleak erabiltzen du (*DRALV*); *ots-garbi*, Larramendiri jaso zaio (*DRALV*); *oskarbi* berba are zabalduago dago; adibidez, Gipuzkoako Oñati herrian bildua da (Izagirre, 1959); *ozgarbi* hitza Etxeita idazleak erabiltzen du (*DRALV*) eta *ozkarbi* aldaera Udalaizpe kazetariak (*DRALV*). Gorago aipatu bezala, baliteke jatorrizko terminoa *ortz(i) + garbitik* etortzea.

Bestelako hitzak direla-eta, *arraso* elea Nafarroako Sakanako haraneko Etxarri-Aranatz herrian bildua da (Maiz & Mundiñano, 1998). Duvoisinek eta Harrietek ere erabiltzen dute delako terminoa: (*OEH*): “*Denbora arraso, &c., le temps serein*” (Ht *VocGr apud OEH*). “Serein, en parlant du ciel” (Dv *apud OEH*). Badirudi gaztelaniazko “raso” hitzarekin duela zerikusia. Kolore urdina bi berbatan azaltzen da: *gaurdin* eta *urdin*. *Gaurdin* terminoa

Arabako herri euskaldunetan, Bizkaiko Durango herrian eta Gipuzkoako Itziar herrian jasorik dago (*DVEF*). Hitzunen Adimen-begiak bestelako ñabardura gehitzen du: “gaueko zero garbi eta izarratua”; *urdin* bakarrik ere, aditzondo moduan sarritan azaltzen da gaur egungo ahozko eta euskara idatzian: “Zerua lainorik gabe eta *urdin* egongo da” (Landa, 2003). Kalitate nozioaren bigarren kategoriaren berri eman denean, zerua hodeiz beteta egotea, kolore urdina ere aztertu eta adierazi da oraindik Zuberoako zenbait herritan antzinako adierarekin erabiltzen dela. Euskal hitzunaren adimen-begiaren iduriko, kontrako zentzuan erabili izan da, zerua lainoturik dagoela azaltzeko, alegia. Zalantza dago ez ote den gaztelaniaren eta frantsesaren eragina izango. Nolanahi ere, gaur egin oso hedaturik dagoela azpimarratu behar da; *hodei gabe* (*odei bage*) terminoa Añibarro idazleari hartuta dago (*OEH*). Guztiz deskriptiboa da; amaitzeko, *ostri* hitz enigmatikoa dago. Barandianek dio “Ozkarbiari toki batzuetan, *ostri* deitzen diote” (Barandiaran, 1972). Baliteke *ostri ortzitik* etortzea; izan ere, Euskal Herri ekialdeko euskalkietan *-rtz* kontsonante-multzoa, mendebaldekoetan *-st* izaten da; adibidez, *bortz / bost* edo *bertze / beste*. Horren arabera, *osti* espero behar litzatekeen arren, eta ez *ostri*, beharbada, *-r-* tarteko hori *ortziren* aztarna zaharra izan liteke. Bestalde, *ostrik* Gipuzkoako Ormaiztegi herrian “Ilargiaren larraina” esan nahi du (Bähr, 1931). Datutegian *Ostriz* hasten diren eleak honako 40. taula honetan ikus daitezke:

Hitza	Esanahia	Euskalkia / Herria	Iturria
Ostri	Larraina	G-Ormaiztegi	G. Bähr
Ostri	Oskarbi		J.M. Barandiaran
Ostriku	Ostadarra	B-Arratia, Durango eta Zornotza	RM. Azkue
Ostrilako	Ostadarra		<i>DRALV</i>
Ostrilika	Ostadarra	G-Gabiria	G. Bähr
Ostrillaja	Ostadarra	G-Zerain, Segura, Gabiria, Ormaiztegi eta Ursuaran	G. Bähr
Ostrillaka	Izar-bidea	G-Lasarte	G. Bähr
Ostrillaka	Ostadarra	G-Ataun eta Hernani	G. Bähr
Ostrillera	Ostadarra	N-Etxarri-Aranatz	Eneka Maiz / Iñaki Mundiñano
40. taula. Hodeiak. Kantitatea: <i>ostri</i>			

Ostartea, bosgarren kategoria dela-eta, nabarmendu behar da ortzia lainotuta badago ere, zirrikitu batzuen bitartez zerua ikusi eta puska bat azaltzen dela eta beste zenbaitetan argia eta eguzkia ere iragazten direla. Beraz, zero zatiak ikusi ez ezik, argia eta eguzkia ere sumatzen dira zenbaitetan. Horrelako da hitzunen begi-adimena. Ostartea kategorian jasotako nozio espezifiko guztiak honako hauek dira: *argiune* (*argiuna*); *bi(r)targi*; *eguzkiarte*; *hodeiarte* (*odeiarte*); *kortxintxa*; *lortxinga* (*lortxinge*); *hodeiarte*; *oskarbi-une* (*ozkarbi-une*) eta *ostarte* (*oztarte*).

Argiune (argiuna) berba Gipuzkoako Eibar herrian erabiltzen da (Etxebarria, 1965-66). Kasu honetan hiztunek argitasuna lehenesten dute, eta ez ikus litekeen ortziaren zatia.

Bi(r)targi berba, besteak beste, Bizkaiko Markina herrian bildua da. Antza denez, bi kontzepturen artean mugitzen da: batetik, “aterraldia” esan nahi du eta, bestetik, berriz, “hodeien arteko argiunea”. Itxuraz *bi+argi* hitzez osaturik dago. Hona Orotariko Euskal Hiztegian hitz honek daukan sarrera: “Bitargi (V-oro ap. A), *birtargi* (V-m ap. A). “Ratos más o menos duraderos de serenidad en días lluviosos” A. “*Birtargi* (V-m), espacio de luz entre nubarrones” (OEH).

Eguzkiarte elea Nafarroako Erronkari haranean erabiltzen zuten hiztunek (DVEF). Berak gaztelaniaz “momentos de despejo del cielo” dakarren arren, *-arte* espaziotzat ere jo liteke; beraz, *eguzkiarte* denbora zein espazioa izan liteke.

Hodeiarte (odeiarte) elea Nafarroako Zaraitzu haranean erabiltzen zen (DVEF). Erabat deskriptiboa, *hodei+arte* (espazioa). Hiztunaren begi-adimenak hodeien arteko une horiek ikusten ditu.

Kortxintxa hitzari dagokionez, ondoko hau dugu:

kortxinta (Aq 832 (AN) → A), **kortxintxa** (AN-ulz ap. Iz *Utz*; A *Apend*). "Tiempo abochornado" Aq 832. "El sol entre las nubes" A *Apend*. "*Kortxintxe, kurtxille*, el calor que despide el sol entre nube y nube. *Au kurtxille iduzkiéna!*" Iz *Utz*. v. **kurtxinbero, gortxinga, l kurtxila**. (OEH)

Beraz, adieretariko bat kategoriatan honetan koka liteke, Azkueren Eranskinean “el sol entre las nubes” agertzen baita (DVEF). Beste adiera dela-eta, badirudi hodeien artean jotzen duen eguzkiak oso eguraldi beroa sorrarazten duela.

Lortxinga (lortxinge) elea Nafarroako Baztango haranean jasoa da (Izeta, 1996). Haren arabera, “hodeien arteko argiunea” esan nahi du. Aditza ere bada: *lortxingatu (lortxingetu)*. Antza denez, zenbait hiztunen adimen-begiak erlazionatzen ditu zeruko ostarteak eta eguzkiak jotzen dueneko beroa. Izan ere, beste bazter batzuetan, *gortxinga, gortzinga, eta ortxinga* berbek “calor fuerte sofocante” edo “rayos intermitentes del sol”. Hauxe dakar OEHk:

gortxinga (AN-larr), **gortzinga** (AN-gip), **ortxinga** (G-azp, AN-gip-larr, B), **bortxinga** (AN-5vill, B). Ref.: A (*ortxinga*); Asp *ANaf (gortxinga)*; Gte *Erd* 87. “Rayos intermitentes del sol” A. “Calor fuerte, sofocante. *Gortxinga dago*” SMuj *EEs* 1921, 29. “*Gortzinga*, resol (panza de burra)” (AN-gip). “*Gortxinga*, var. de *ortxinga*. Rayos intermitentes de sol A. (OEH)

Hitz horien arabera, baliteke jatorrizko terminoak *ortzi* eta *t(x)inga* izatea, *ortxinga*, eta enparauak analogiaren eraginez sortu izana. (*T*)*xinga(r)* eleak hauxe ematen du aditzera: 1. “Garrik gabe, baina gori-gori dagoen ikatz- edo egur-zatia. 2. Txinparta” (Harluxet). Horrenbestez, ostarteen berotasun handia adieraz lezake.

Oskarbi-une (*ozkarbi-une*) hitza, besteak beste, Gipuzkoako Arrasate herrian bildurik dago (*DVEF*). Berak gaztelaniaz “momentos de despejo del cielo” ematen du, baina *-arte* terminoarekin geratzen den bezala, *-une* espazioa zein denbora izan liteke. Gorago aipatu denez, *oskarbi* berba zeruan inongo hodeirik egoten denean erabiltzen da, hau da, ortzia garbi izaten denerako.

Ostarte (*oztarte*) berbaz baliaturik, eman zaio izena kategoria honi adierazgarriena delakoan, “ortziaren artea”, alegia. Euskal Herriko hainbat bazterretan erabiltzen da hitz hau, baina bat aipatzekotan, Bizkaiko Bakio herrian jasotakoan aipatu beharrekoa da (Gaminde, 1999). Nor den hiztuna halako adiera izaten du termino honek, adimenaren begiaren arabera: zenbaitetan “euria egin eta atertzen dueneko hodeien arteko eguzkia” ematen du aditzera Gipuzkoako Oñati herrian (Izagirre, 1959). Orixe idazleak, adibidez, zeruaren sinonimo gisa erabiltzen zuen (*DRALV*): “*Ostartetikan* (zerutik) begia kliska dabil Eguzki Amandrea”; beste batzuetan *bero* adjektiboaren laguntzaz, “eguzkiak sendo eta gogor jotzen duenean” erabiltzen da gipuzkera euskalkian (Mokoroa, 1990).

4.4.3. Kalitatea

Bigarren nozio orokor etnosemantikoa azterturik, hirugarren nozio orokorra aztertuko da: kalitatea. Wilkinsen esanetan (Wilkins, 1976) mintzatzen garenean askotan gauzen edo pertsonen kalitateak aipazten ditugu. Haren arabera, honelako kontzeptuak daude loturik kalitatearekin: kalitateen neurketa, lexikoa eta egiturak; kalitate zehatzak, jatorria, dimentsioak, pisua, koloreak, tenperatura, kalitate fisikoak, pertsona ezaugarriak, fisikoa egokitasuna eta garrantzia. Hortaz, hodeien kalitateak sartu behar genituzke nozio orokor honetan: nolakoa den, zein kolore daukan, nola zehazten den... Azterlan hau aintzat harturik, kalitatea adierazten duten etnometeoro guztien hitzak sailkatu behar lirateke nozio orokor honetan. Jaso diren nozio espezifiko guztien arabera, Hodeien eremuan, kalitateak sei kategoria bilduko lituzke bere baitan hiztunen adimen-begiak sumatzen dutenaren arabera: Nolako hodeiak; Nola dauden hodeiak; Hodei handiak; Hodei txikiak; Hodeien koloreak eta Zeru gorria. Guztira, 23 nozio espezifiko biltzen dira kategoria horietara. Banan-banan aztertuko dira, 41. taula honetan sailkaturik dagoena.

Nolako hodeiak	Nola dauden hodeiak	Hodei handiak	Hodei txikiak	Hodeien koloreak	Zeru gorria
Busti Lodi Maskal Sare	Leihokaturik (leokaturik) Opilduak Sare	Hodei-saka (odei-saka) Morroilo (morroillo)	Hodei-adar (odoi-adar) Hodei bilima (odoi-bilima) Zamar zardai	Dundu (yunyu) Dunduxka (yunyuxka) gorri gorrizta hodargi (odargi)	Arrats gorri (arraskorri) Azkorri Gau-oskorri Goibel-argi Goigorri Goiz gorri (goizkorri) Oskorri (orzgorri, osgorri, ozkorri) Zeru gorri
41. taula. Hodeiak: Kalitatea					

Nolako hodeiak diren kategorian lau nozio espezifiko hauek jaso dira: *busti*; *lodi*; *maskal* eta *sare*. Laurak Joxe Landak erabiltzen ditu Gara egunkarian egunero egiten dituen eguraldi-iragarpenetan (Landa, 2003). Deskripzio zehatz askoak egin ohi ditu.

Busti berba goitik behera hedaturik dago euskararen lexikoan. Joxe Landak *laino bustiak* terminoa erabiltzen du, urez betetako hodeiak, alegia.

Lodi izenondoa ere zeharo zabaldua dago. Lexiko etnometeorologikoan eremu askotan erabiltzen da: *elur-jasa lodi ari*, *euria lodi hasi*, *eguraldi lodia*, eta, kategoria honetan *hodei lodia*. Adiera honetaz Landa ere baliatzen da (Landa, 2003).

Maskal berbak badirudi *makal* izenondoarekin daukala zerikusirik; izan ere, Joxe Landak *laino maskalak* idazten du. Itxuraz *laino lodiak* eta *laino maskalak* kontrajarritan daude: *lodi / maskal*.

Sare izenak adjektiboaren eginkizuna hartzen du eremu honetan; *laino sareak* erabiltzen du maiz Landak, hots, hodeiak oso meheak izanik, apurka-apurka desegin egingo dira: “Goiz partean lainoak sareagoak izango dira eta arratsaldean euri mehea” (Landa, 2004-01-09). Hitzunen buru-iruditerian horrelako hodeiak benetako sareak izango balira bezala tinkaturik dago, berrietan barrena zirrikituak daude eta. *Sare* hitza ere aditzondo gisa erabiltzen da; hurrengo kategorian horrela aztertuko da.

Bigarren kategorian Nola dauden hodeiak da. Hiru nozio espezifiko bildu dira datutegian: *leihokaturik*; *opilduak* eta *sare*.

Leihokaturik (*leokaturik*) aditzondoak ematen du *leiho* izena + *ka* atzizkia, ekintza errepikakorrek adierazteko erabiltzen dena, + *-tu* aditz bukaeratik datorrela. Ele hau Nafarroako Erro haranean jasota dago: “Odei oiek leokaturik daude ta ez da euririk” (Mokoroa, 1990). Hitzunen adimen-begiak leiho moduan hartzen ditu sakabanaturik samaturik dauden hodeiak.

D. Inzak ere horrela ematen du aditzera honako esaldi honen bitartez: “Odeiak berex samar daude, *le(i)okaturik*, tartean leio antzeko utsuneak dituzte. Inza NaEsZarr 2239” (OEH).

Opilduak terminoa Erkiaga idazleak erabiltzen du: “Ozkarbi egoan; odei zuri-illun *opilduak*, borobilduak, bakanka, soil soilik. Erkiag Arran 161” (OEH). *Opildu* aditzak “pilatu, multzotu” esan nahi du (EH); beraz, hodei *opilduak*, “hodei pilatuak edo multzokatuak” izaten dira. Horrezaz gain, atsotitz batek hauxe ere badio: “Errautsa *opiltzen* denean, euria laster” (DVEF). Hitzunen adimen-begiaren arabera, opilak dira “irinezko orea labean erraz egiten diren ogi moduko biribila eta txikia” (EH).

Sare izena izenlagun gisa gorago aztertu da *hodei sareak* hizpide. Aditzondo moduan ere erabiltzen du Landak: “Goizean *sare* samar egongo den arren, lainotsu eta goibel egongo da” (Landa, 2004-01-08).

Hodei handiak kategorian bi nozio espezifiko besterik ez dira jaso datutegian: *hodei-saka* (*odei-saka*) eta *morroilo*.

Hodei-saka (*odei-saka*) elea Nafarroak Erronkari haranean bildurik dago (DVEF / Estornes, 1997). Hitz-elkarketaren ondoan ondoko itzulpen hau: “nubes gruesas”, besterik ez. Beraz, hodei lodiak edo direla baizik ez dago jakiterik. Hitz-elkarketatzat hartuta dagoenez gero, *saka* izena “zaku handia” edo izan liteke; hortaz, buru-iruditerian zaku handi baten irudia hodeiei loturik egon liteke.

Morroilo (*morroillo*) berba Bizkaiko Mundaka herrian jaso da (DVEF). Hodei lodia izateaz gain, hauxe ere izan daiteke *morroilo* hitza: “1. Bi euskarritan ezker-eskuinetara higituz eta gehienetan ate handiak ixteko edo irekitzeko erabiltzen den mekanismoa, burdinazko barraz eta atxikirik duen eskulekuaz osatua. 2. ARMAG. Su-armetan, atzeko irekigunea ixten duen altzairuzko pieza” (Harluxet). Horrenbestez, hemen aipatutako mekanismo eta piezen sendotasuna izan liteke hitzunen adimen-begiek ikusten dutena, horrelako hodeiak ikusiz gero.

Laugarren kategoria Hodei txikiei dagokie. Lau berba jasota daude datutegian: *hodei-adar* (*odoi-adar*); *hodei bilima*; *zamar* eta *zardai*.

Hodei-adar (*odoi-adar*) hitz-elkarketari buruz ez dago inongo jakingarririk; “nubecilla” baizik ez dakar Azkuek (DVEF).

Hodei bilima (*odoi-bilima*) Zuberoako Ligi herrian bildurik dago (DVEF). Hiztegi berean, Azkuek hauxe dakar: “*bilima*. (Sc), brizna, bedija”. Honenbestez, badirudi *bilima* elea arrunta dela zubereraz txikitasuna adierazteko. Beharbada hizkuntza erromanikoen *minima* berbarekin zerikusia izan lezake; izan ere, ez ohi dira oso arrotzak izaten $m > b$ eta $n > l$ kontsonante-bilakaerak. Adibidez, *lurmen* / *lurbel* pareak.

Zamar elearen berri Lhandek ematen du bere hiztegian (Lhande, 1926). Definizio hau ere bada: “nube ligera que cubre el cielo” (*DRALV*). Ez da beste inolako aipamenik aurkitu. Bestalde, Azkuek “lluvia menuda” itzulpena ematen du gaztelaniaz (*DVEF*). Beraz, badirudi *zamar* terminoa txikitasunari ere badagokiola. Gogoratu behar da fonetikoki oso antzekoa den *samar* graduatzailearen eginkizuna izenondo eta aditzondoekin.

Zardai kategoria honen azken berba da *zardai*. Lexiko etnometeorologikoari dagokionez, bi adiera desberdin bide daude: bata, “zeru oskarbiko hodei luzea” –gorago aztertu dena–, eta, bestea Orixe idazleak “hodeitxoa” esateko erabiltzen duena. Hona hemen aipamena:

(AN-gip-larr). Ref.: Asp *Leiz*2; Gte *Erd* 108. “Nube alargada que aparece en el cielo limpio” Asp *Leiz*2. “*Laiño zardai batzuk badaude (AN-gip)*” Gte *Erd* 108 (junto a *lañotsue egon, goibar egon, lanbro egon*, etc., de otras zonas). **Guratz-aldetik zardaia*. “Nubecilla”. Or *Eus* 326. *Orobat Eguzkiak ez du gaur makarrik, / ortzi guzian ez da nabari zardairik*. Or *Poem* 533. (*OEH*)

Lehenengo adieran adjektiboa da, “laino *zardai* batzuk” eta, bigarreanean izena, “ez da nabari *zardairik*”. Lehen aipatu bezala, ezagun da hiztunen adimen-begiak erlazionatzen dituela *zardaiak*, hots, “hagak edo makila luzeak” (Harluxet) hodei mota hauekin. Bestalde, *zardai* izenondoak “lerdena” ere esan nahi du. Adibidez, “inguruko zuhaitz *zardaiak*” (Harluxet).

Bosgarren kategorian Hodeien koloreak aztertuko dira. Zenbaitetan ez da samurra izaten hodeien eta zeruaren koloreak bereiztea, sarritan nahasten baitira. Hori dela-eta, bi kategoria hauek jarraian aztertuko dira, bata bestearen osagarri.

Bi dira datutegira bildu diren koloreak eta guztira, hiru termino: *dundu* (*yunyu*) / *dunduxka* (*yunyuxka*) eta *gorri* / *gorrizta* eta *hodargi* (*odargi*), hau da, kolore nagusiak eta txikigarriak. Hiztunen adimen-begiak ez du bestelako kolorerik sumatzen hodeietan.

Dundu (*yunyu*) / *dunduxka* (*yunyuxka*) eta *gorri* eleak Nafarroako Erronkari haranean erabiltzen ziren. Esaldi berean *dundu* eta *gorri* daude: “cuando sale un nubarrón rojo y azul, trae lluvia, odoi-adar bat erkitan denean *gorri* ta *dundu*, euria eragutan du” (Estornes, 1997). *Dundu* terminoari buruz hauxe zer dakar *OEH*k:

dundu (R). Ref.: A; Iz *R* 295; *EDEL* 221. Azul. "Odoi-adar bat erkitan denean gorri ta *dundu*, euria eragutan du, cuando sale un nubarrón rojo y azul" A. "Zéuria *dundu* diozu, el cielo está azul" Iz *R* 295. Cf. Mdg 123: "Se dice ahí *dundu* por color azul? --Sí, señor" (la pregunta es de Azkue). **Liñozko ari dundu, ubel ta gorriz*. Ol Ex 26, 1. *Zerualdea soiñeko panpiñez atondu zan, oso oztin, dundu oro*. Erkiag *Arran* 155. *Parmenideren itsaso izoztua lurmendu ta urtuta ikusi zuen, urdin, musker, dundu* (índigo), ta irakiten, alegia. Zait *Plat* 51. (*OEH*)

Antza denez, Euskal Herriko zenbait bazterretan *dundu* elea erabiltzen da kolore urdina adierazteko. Aurreko adiera batean, “zerua goibel” dagoela esateko jasota dagoela aipatu da: “*Dundu duzu*, locution souletine, 'il fait un temps sans soleil ni pluie, obscur, nuageux'. Syn. *goibel, ilhun*" H. "*Dündü*, oscuro. *Denbora dündü düzü*, el tiempo está oscuro” (*OEH*).

Gorri adjektiboaren *gorrizta* txikigarria Landak erabiltzen du: “Laino *gorriztak* eta hego haize txikia” (Landa, 2003).

Hodargi (*odargi*) elea zuberera euskalkian erabiltzen da (Lhande, 1926). Nahiz *hodei* + *argi* hitzetatik datorrela dirudien, OEHn “arrebol” eta *DRALV*en “nube rojiza” itzulpenak azaltzen dira.

Azken kategoria zero gorriari buruzkoa da. Ondoko termino hauek jaso dira: *arraskorri*; *azkorri*; *gau-oskorri*; *goibel argi*; *goigorri*; *goizkorri*; *oskorri* (*orzgorri*, *osgorri*, *ozkorri*) eta *zeru gorri*. Guztiek, batek izan ezik, daramate barnean kolore gorria.

Arrats gorri (*arraskorri*) terminoa Bizkaiko Txoriherri haranean eta gipuzkera euskalkian erabiltzen da eta badirudi Nafarroako Lesaka eta Gipuzkoako Oiartzun herrietan ere bai; izan ere, Azkuek “arraskorri eguraldi, goizkorri laster euri (AN-lez-oy)” ematen du aditzera (*DVEF*). Atsotitz horretan erraz suma daitekeenez, *arraskorri* eta *goizkorri* hitzak kontrajarrita daude; goizez, zero gorriak euria iragartzen du, baina arratsaldekoak eguraldi ona. *Goiz gorri* (*goizkorri*) hitza, Azkueren arabera, Nafarroako Lesaka eta Gipuzkoako Oiartzun herrietan erabiltzen da.

Azkorri berba Bizkaiko Arratia haranen eta Orozko herrian erabiltzen da (*DVEF*). Gaztelaniaz, “arrebol” ematen du Azkuek, baina frantsesez “teinte rougâtre des nuages au lever eta au coucher du soleil” eta bigarren adiera batean “aurora” zuberera euskalkian. Beharbada hitz hau (*h*)*atz* + *gorritik* dator.

Gau-oskorri hitz-elkarketa Gipuzkoako Oñati herrian bildurik dago (Izagirre, 1959). Hiztunen adimen-begiaren arabera, “iluntzen ortziak hartzen duen kolore gorria” esan nahi du.

Goibel-argi Nafarroako Sakana haraneko Arakil herrian jasota dago (*DVEF*). Datutegiko hitzen artean, *gorri* terminoa ez daukan bakarra da, eta badirudi lehenengo begiratuan kolore gorriarekin zerikusirik ez duena, baina Azkuek gaztelaniaz “arrebol” itzulpena ematen du. Bi berben artean marratxoa dagoenez gero, hitz-elkarketatzat jo behar da.

Goigorri hitza Arrese idazleak erabiltzen du (*DRALV*). Horrelako eremuetan, *Goi* berbak “zerua” adierazten du; beraz “zeru gorri”ren baliokidetzat jo behar da.

Oskorri (*orzgorri*, *osgorri*, *ozkorri*) eleak zenbait aldaera ditu, denak *ortz(i)* terminoa jatorritzat bide dutenak; *orzgorri* zaharra Leizarragak erabiltzen du (*DRALV*); *osgorri* aldaera Harrietek dakar bere hiztegian (*DRALV*): “*Osgorri*, eguraldi”, hots, *oskorri* izanez gero, eguraldi ona; *oskorri* berba, segur aski, nagusitu da euskara batuan. Gipuzkoako Oñati herrian erabiltzen da, besteak beste (Izagirre, 1959) eta, amaitzeko, *ozkorri* aldaera zuberera euskalkian jasota dago (*DVEF*). Bildutako hitzen arabera, ematen du *ortzi* hitzak zerua esan nahi duela, hau da, bi hitz daudela euskaraz antzeko kontzeptua adierazteko; bata, *zerua*, zalantzarik gabe,

erlijioaren eraginez sartua eta bultzatua, erlijio-kontzeptuak dauzkana bere baitan, eta bestea, *ortzia*, lurgainaren gainetiko guztia adierazi nahi duena, naturari lotua, ziur aski.

Amaitzeko, *zeru gorri* terminoa jasota dago. Bizkaiko Getxo herrian, besteak beste, erabiltzen omen da (Llosa, 2002). Ikerlan honetarako interesgarri askoa da lekuko batek ematen duen informazioa: “Alde batetik, sekula mobitzen ez den zerua daukagu, eta garbi-garbi dagoenean oskarbi esan beharrean *zeru argi* esaten zaio. Ordea, oskorri geratzen denean *zeru gorri* deitzen da” (Llosa, 2002).

4.4.4. Jarduera

Laugarren nozio orokor etnosemantikoa Jarduera da. Jarduera hitzak ekintza adierazten du; beraz, berba egiten dugunean, nolabait, zerbait edo norbaiten ekintzen berri ematen dugu. Hizkuntza batzuek berezko aditz edo aditz-lokuzioekin egiten dute eta beste batzuek subjektuari hainbat marka ezarriz. Wilkinsen esanetan (1976) nozio orokor honetan honetariko kontzeptuak jorratu ohi dira: prozesua, parte hartzea, modua, jarduera zehatzak eta funtzioa. Honenbestez, hodeiez hitz egiten denean, haien inguruko jarduerak izan behar lirateke aipagai nozio orokor honetan. Bildutako nozio espezifiko guztiak aintzat harturik, Hodeien eremuan, jarduerak lau kategoria hartuko lituzke bere gain, hiztunen adimen-begiak sumatu eta buru-iruditerian gordetakoaren arabera: Zerua hodeiz bete; Zeruan hodeiak saretu; Zerua garbitu; Hodeiak loditu eta Zerua lainotzeko antza izan. Orotara, 53 nozio espezifiko biltzen dira nozio honetara, zenbait aldaera barne. Jarraian, banan-banan aztertuko dira beheragoko 42. taula honetan.

Zerua hodeiz bete		Zeruan hodeiak saretu	Zerua garbitu	Hodeiak loditu	Lainotzeko antza izan
Belundu Beltzatu (beltzatü) Beltzatzen ari (bezten ari) Belztu (beztu) Estali Gandutu Goia haserre jarri Goibeldu (hobiieldu, hobeldu, hoibeldu, obiieldu) Haserre itxura hartu Hodeikatu Hodeitu (edoitu, odeatu, odeiatu, odeitu, oriaatu, oroiatu) Hodeiztatu (hedoiztatu) Hodeizutu (odeizutu) Hodeiak atera (hodeiak atheatu) Ilundu (ilhundu) Iluntzen ari (ülhüntzen ari)	Itzal egon Itzaldu Jakalat, kakalat ari Kalmatu Kanbiatu (khanbiatu, khanbiatü) Kukutu (kükütü) Kukutzen ari Laino arte egon (lañoarte egon) Lainopetu (lanopetu) Lainotu (laiñatu, laiñaatu, lañaatu, laiñotu, lañatu, lanhatu, lanotu, llañotu) Lanbrotu (lanbotu) Lausotu Mamotu Mindu Mukutu Ortzia heldu Ubeldu Zerua beltzez jantzi	Bakandu Sakabanatu Saretu	Argitu Argiunea egin Garbiketa eragin Garbitu Giroa arindu Goratu Jaiki (jagi) Lainoak desagertu Lortxingatu (lortxingetu) Mehetu Oskarbitu Txukundu Urratu Zohartu	Loditu	Estaltzeko taxua ekarri
42. taula. Hodeiak: Jarduera					

Lehenengo kategoria Zerua hodeiz bete da, eta honako nozio espezifikoko hauek jaso dira datutegian: *belundu*; *beltzatu (beltzatü)*; *beltzatzen ari (bezten ari)*; *belztu (beztu)*; *estali*; *gandutu*; *goia haserre jarri*; *goibeldu (hobiieldu, hobeldu, hoibeldu, obiieldu)*; *haserre itxura hartu*; *hodeikatu (hedoikatu)*, *hodeitu (edoitu, odeatu, odeitu, oriaatu, oroiatu)*; *hodeiztatu (hedoiztatu)*; *hodeizutu (odeizutu)*; *hodeiak atera (hodeiak atheatu)*; *ilundu (ilhundu)*, *iluntzen ari (ülhüntzen ari)*; *itzal egon*; *itzaldu*; *jakalat, kakalat ari*; *kalmatu*; *kanbiatu (khanbiatu, khanbiatü)*; *kukutu (kükütü)*; *kukutzen ari*; *laino arte egon (lañoarte egon)*; *lainopetu (lanopetu)*; *lainotu (laiñatu, laiñaatu, lañaatu, laiñotu, lañatu, lanhatu, lanotu, llañotu)*; *lanbrotu (lanbotu)*; *lausotu*; *mamotu*; *mindu*; *mukutu*; *ortzia heldu*; *tapatu (thapatu, thapatü)*; *tapatzen ari (taphatzen a(r)i)*; *ubeldu* eta *zerua beltzez jantzi*.

Lau kategorien artean honek dauka nozio espezifikoko gehien. Horrek adierazten du, nolabait, nolakoa den Euskal Herriko eguraldia: askoz hitz gehiago daude lainotzeaz, oskarbitzeaz baino. Nozio espezifikoko hauen artean bi multzo handi egin daitezke: bata, “zeruaren egoeraren berri ematen duena”, eta, bestea, “hodei, laino eta antzeko hitzen oinarri duten aditz eta lokuzioak”. Bateko hiztunen adimen-begiak sumatuko luke zeruaren egoera,

argi, garbi edo huts egotetik ilun ego goibel egotera; ortzi edo zeruaren egoera ikusten du hiztunen adimen-begiak. Besteko, hiztunen buru-iruditerian gordetakoak adieraziko luke hodei edo lainoen ekintza, hots, ortzia pasiboa da eta hodeia aktiboa.

Zeruaren egoera	Hodei, laino eta antzeko hitzen oinarri duten aditz eta lokuzioak
belundu; beltzatu (beltzatü); beltzatzen ari (bezten ari); belztu (beztu); estali; goia haserre jarri; goibeldu (hobiieldu, hobeldu, hoibeldu, obiieldu); haserre itxura hartu; ilundu (ilhundu), iluntzen ari (ülhüntzen ari); itzal egon; itzaldü; jakalat, kakalat ari; kanbiatu (khanbiatu, khanbiatü); kukutu (kükütü); kukutzen ari; mamotu; mindu; mukutu; tapatu (thapatu, thapatü); tapatzen ari (taphatzen a(r)i); ubeldu eta zerua beltzez jantzi.	gandutu; hodeikatu (hedoikatu); hodeitu (edoitu, odeatu, odeiatu, odeitu, oriaatu, oroiatu); hodeiztatu (hedoiztatu); hodeizutu (odeizutu); hodeiak atera (hodeiak atheatu); kalmatu; laino arte gon (lañoarte egon); lainopetu (lanopetu); lainotu (laiñatu, laiñaatu, lañaatu, laiñotu, lañatu, lanhatu, lanotu, llañotu); lanbrotu (lanbotu); lausotu eta ortzia heldu.

Zeruaren egoeraren inguruan, honako nozio espezifiko hauek aztertuko dira: *belundu*; *beltzatu (beltzatü)*; *beltzatzen ari (bezten ari)*; *belztu (beztu)*; *estali*; *goia haserre jarri*; *goibeldu (hobiieldu, hobeldu, hoibeldu, obiieldu)*; *haserre itxura hartu*; *ilundu (ilhundu)*, *iluntzen ari (ülhüntzen ari)*; *itzal egon*; *itzaldü*; *jakalat, kakalat ari*; *kanbiatu (khanbiatu, khanbiatü)*; *kukutu (kükütü)*; *kukutzen ari*; *mamotu*; *mindu*; *mukutu*; *tapatu (thapatu, thapatü)*; *tapatzen ari (taphatzen a(r)i)*; *ubeldu* eta *zerua beltzez jantzi*.

Belundu, *beltzatu (beltzatü)*, *beltzatzen ari (bezten ari)*, *belztu (beztu)*, *goibeldu*, *ubeldu* eta *zerua beltzez jantzi* aditzek eta lokuzioek bere barnean kolore beltza daukate, nola edo hala. *Belundu* aditza, besteak beste, Bizkaiko Uribe-Etxebarri (EHHA) eta Gipuzkoako Antzuola herrietan jasorik dago (DVEF). “Goia *belundu* dau”. Baliteke *bel(tz)* + *ilun* + *tu*-tik etortzea; *beltzatu* aditza Lapurdiko Donibane Lohizunen jasorik dago (EHHA) eta *beltzatü* aldaera Nafarroa Behereko Arruta herrian (EHHA). Handik hurbil, Gamarten, *beltzatzen ari* jaso da (EHHA), baina beharbada berehalakotasuna aditzera emateko izango zen; gauza bera gertatzen da bertako beste herri baten, Landibarren, hain zuzen ere, baina *bezten ari* erabiltzen dute hiztunek (EHHA) eta ondoko herrialdean, Zuberoako Sohüta herrian *bezten ai* bildua da (EHHA); *belztu (beztu)* aditza, oster, Gipuzkoako Zestoa herrian erabiltzen dute hiztunek (EHHA); *goibeldu* aditzak zenbait aldaera dauzka; *goibeldu* bera Azkuek dio euskalki batzuetan entzuten dela, goi-nafarrera, behe-nafarrera, gipuzkera eta lapurteran, hain zuzen ere, eta euskara galdutako Nafarroako Uztarroze herrian; *hobiieldu* aldaera behe-nafarreraz ere bai (DVEF) eta honako aldaera hauek ere Nafarroa Beherean: *hobeldu* Isturitze herrian, *hoibeldu* Arnegi herrian eta *obiieldu* Jatsun (EHHA). Ziurrenik, guztiak *goi* + *bel(tz)* + *tu*-tik datoz; *ubeldu* aditzak *goibeldurekin* izan lezake zerikusia edo *ubel* eletik etor liteke. Analogia sekulako sortzeko makina da hiztunentzat. Nafarroa Behereko Garruze herrian bildua da *ubeldu*

(EHHA), eta hori dela-eta, inguruko herrietan erabiltzen diren *goibeldu* aditzaren aldaerak direla-eta, aditz beraren bilakaeratzat jo liteke, bestela, *ubel* berbarekin izango luke erlazioa. Mirande idazleak ere erabiltzen du *ubeldu* aditza: “Zerua ubeldu zan ekaitzaren ariaz, euriak zafratu zuen” (DRALV). Horren harrira, hiztunek goibeltzen duenean, zerua *ubel* ikusiko lukete; izan ere, *ubel* hitzak hau esan nahi du: “1. Larruazalean kolpe baten, hotz handiaren, etab.en ondorioz sortzen den kolore iluneko gunea; delako kolorea. 2. izond. Delako kolorea duena” (Harluxet). Kolore beltzaren ingurukoa amaiera emateko, aditz-lokuzio bat dago, *zerua beltzez jantzi*, gipuzkeraz erabiltzen bide dena (Mokoroa, 1990).

Honako bi aditz-lokuzio hauen bitartez, hiztunen adimen-begiak “goia haserre” antzean sumatzen du: *goia haserre jarri* eta *haserre itxura hartu* aditz-lokuzioak gipuzkera euskalkian erabiltzen dira (Mokoroa, 1990).

Beste aditz eta lokuzio batzuek ortzia iluntzearekin daukate zerikusia. Adibidez, ondoko hauek: *ilundu* (*ilhundu*), *iluntzen ari* (*ülhüntzen ari*); *itzal egon* eta *itzaldu*. *Ilundu* aditza “lainotu” esateko Euskal Herriko zenbait bazterretan erabiltzen da; adibidez, Gipuzkoako Zestoa herrian (EHHA). Beraz, bi adiera ditu: bata, gaua heltzen denerako, eta bestea zerua lainotzen duenerako; ekialdeko beste euskalki batzuetan *ilhundu* aldaera erabiltzen da (Lhande, 1926); *iluntzen ari* (*ülhüntzen ari*) aditz-lokuzioa ere hainbat bazterretan erabiltzen da; adibidez, Nafarroa Behereko Behorlegi herrian (EHHA); *ülhüntzen ari* aldaera Zuberoako Larraine herrian jasota dago (EHHA); *itzal egon* lokuzioa eta *itzaldu* aditza ildo berekoak dira (Mokoroa, 1990). Badirudi zerua pizturik dagoela eta une jakin batean, hiztunen adimen-begiak sumaturik, itzali egiten dela. *Itzal egon* aditz-lokuzioaren berri eman da Kalitate nozio orokorrean (Mokoroa, 1990). Gipuzkeraz erabiltzen dira biak.

Beste zenbaitetan euskal hiztunaren adimen-begiak antzematen du agerian edo oskarbi dagoen zerua “tapatu” egiten dela. Aditz eta lokuzioen artean, hauek dira datutegian: *estali*; *kukutu* (*kükütü*); *kukutzen ari*; *mamotu*; *mukutu*; *tapatu* (*thapatu*, *thapatü*) eta *tapatzen ari* (*taphatzen a(r)i*).

Estali aditza aditzondo eginkizunetan jasota dago: “Cubierto, tapado. “*Goi estalia* (G), cielo cubierto” (DVEF). “*Goi estari* (V-m), cielo nublado” Ib. s.v. *goi estari*” (OEH). Hemen ere aztertu da kantitate nozio orokorrean Zerua hodeiz beteta deritzon kategorian. Hala eta guztiz ere, aditza bera erabiltzea “lainotu” edo “goibeldu” esanahiarekin berrikuntza da, nonbait. Honako hau Nafarroa Behereko Arruta eta Ezterenzubi, eta Zuberoako Larraine herrietan bildurik dago (EHHA).

Kukutu (*kükütü*) aditza Nafarroa Behereko Ezterenzubi herrian jasoa da eta *kükütü* aldaera Zuberoako Urdiñarbe herrian (EHHA); *Kukutzen ari* aditz-lokuzioa Nafarroa Behereko

Arruta eta Gamarte herrietan (*EHHA*). Azpimarratzekoa da Baztango Lekaroz herrian *Kuku dago* esaten dela, zerua lainotuta egoten denean (*EHHA*). Nafarroako Baztan haraneko beste zenbait bazterretan *mukutu* aditza erabiltzen da esanahi berarekin: “*mukutu* du” (Izeta, 1996). Haran berean ere “Gaur *muku* dugu. Iruzkirik gabe *muku*” entzuten da (Izeta, 1996).

Mamotu aditza Bizkaiko Ondarroako hiztunek erabiltzen dute (*EHHA*). Nabarmendu beharrekoa da mamutu aditzaren gainean *OEHEk* zer dakarren:

mamutu (AN, L-ain, BN ap. Azkue; *VocBN*, Dv (BN), H). 1. “Se couvrir, se masquer d'une manière hideuse” *VocBN*. “Enmascararse” A. 2. **mamotu** (V ap. A; Añ), **mamaotu** (Añ). “Embobar [...], la mujer” Añ. “Embobarse una mujer, así como *kokotu* es embobarse un hombre”. (*OEH*)

Horren arabera *kukutu* (*mukutu*) eta *mamutu* aditzak ezpal berekoak dira, Azkueren arabera bata, gizonezkoentzat eta bestea emakumezkoentzat (*DVEF*).

Tapatu (*thapatu*, *thapatü*) eta *tapatzen ari* (*taphatzen a(r)i*) direla-eta, *thapatu* aldaera estali aditzarekin batera Nafarroa Behereko Arruta eta Ezterenzubi herrietan entzuten da (*EHHA*) eta *thapatü* aldaera *estali* aditzarekin ere Zuberoako Larrainen (*EHHA*). Lokuzioei dagokienez, *taphatzen ari* Zuberoako Urdiñarbe eta *tapatzen a(r)i* Sohüta herrietan jasorik daude (*EHHA*). Ziurrenik aldaera horiek guztiak hizkuntza erromanikoren batek eraginda daude. Hala ere, aipatu behar da herri batzuetan bi aditzak elkarrekin bizi direla: *estali* eta *tapatu*; adibidez, Zuberoako Larraine herrian (*EHHA*).

Jakalat, *kakalat ari* aditz-lokuzioak Zuberoako Domintxaine-Berroetan herrian jasorik daude (*EHHA*). Ez dago batere argi zein den esanahia, *-alat* adlatibo kasua bietan azaltzen den arren, *Jaka-* eta *kaka-* geratzen baitira; lehenengoak ba ote du Jaka herriarekin zerikusirik? Ez dirudi horrela denik. *Jaka haize* (*jakaize*) Gipuzkoako Zegaman bildurik bada ere, ez du ematen harekin erlazio zuzenik daukanik (*EHHA*). Nolanahi ere, azpimarratu behar da Nafarroako Erronkari haranean *Odeiak Jakara*, *tenprak kakara* deritzon aro-atsotitza bilduta dagoela (Estornes, 1997). Domintxaineko bi berbak agertzen dira: *Jaka* eta *kaka*.

Kanbiatu (*khanbiatu*, *khanbiatü*) aditza beste arlo batzuetan oso ezaguna den arren, eremu honetan “goibeldu” adierazteko erabiltzen da. Lehenengo aldaera, *khanbiatu* Nafarroa Behereko Isturitze herrian jaso da (*EHHA*) eta bigarrena, *khanbiatü*, Zuberoak Alzain (*EHHA*). Isturitzen lekuko bati entzundako esaldian fenomeno atmosferikoetan oraindik gordetzen den aditzaren aktibotasuna azaltzen da: “Denbora hunek *khanbiatu*”; euskara batuan “Eguraldi honek *kanbiatu* (aldatu) du”, alegia.

Mindu aditzaren bidez, oso metafora ederra sortzen da “goia lainotu duela” adierazteko, Gipuzkoako Zestoa herrian bilduta dago (*EHHA*). *OEHn* adiera hori ez, baina bai “empearar el

tiempo” zentzuan dakar: Garatek jasotakoa da Gipuzkoako Goierri eskualdean (OEH): “Eguraldia *mindu* du”.

Hodei, laino eta antzeko hitzen oinarri duten aditz eta lokuzioei dagokienez, ondoko hauek aztertuko dira: *gandutu*; *hodeikatu* (*hedoikatu*); *hodeitu* (*edoitu*, *odeatu*, *odeiatu*, *odeitu*, *oriaatu*, *oroiatu*); *hodeiztatu* (*hedoiztatu*); *hodeizutu* (*odeizutu*); *hodeiak atera* (*hodeiak atheatu*); *kalmatu*; *lainopetu* (*lanopetu*); *lainotu* (*laiñatu*, *laiñaatu*, *lañaatu*, *laiñotu*, *lañatu*, *lanhatu*, *lanotu*, *llañotu*); *lanbrotu* (*lanbotu*); *lausotu* eta *ortzia heldu*. Lehenengo begiratuan sumatzen da *hodei* eta *laino* berbei loturiko aditzak nagusi direla. Banaka aztertuko dira:

Gandutu aditzak bi adiera dauzka: bata, “cerrarse el horizonte, ponerse brumoso” (DVEF) eta bestea, “lainotu” (DVEF). Azken honen arabera, goi-nafarrera euskalkian erabiltzen da.

Hodei elea dela-eta honako aditz eta lokuzioak dira datutegian: *hodeikatu* (*hedoikatu*); *hodeitu* (*edoitu*, *odeatu*, *odeiatu*, *odeitu*, *oriaatu*, *oroiatu*); *hodeiztatu* (*hedoiztatu*); *hodeizutu* (*odeizutu*) eta *hodeiak atera* (*hodeiak atheatu*). *Hodeikatu* (*hedoikatu*) aditzak *-ka* atzizkia dauka bere barnean, ekintza errepikakorrek aditzera emateko erabilia. Badirudi hedoiak behin eta berriz etortzen direla zerua guztiz *hodeitu* arte. Aditz hau behin agertzen da Herria aldizkarian (DRALV); *hodeitu* aditzak hainbat aldaera ditu: *edoitu*, *odeatu*, *odeitu*, *oriaatu* eta *oroiatu*. *Hodeitu* aditza bera Lhanderen hiztegian azaltzen da (Lhande, 1926); *edoitu* bizkaieraz erabiltzen du J. B. Uriarte idazleak (DRALV); *odeatu* Larramendik erabiltzen du (OEH); *odeiatu* bizkaiera euskalkian bildua du Azkuek; oso adibide ederra agertzen du: “Lehen *odeiatuak* gengoan, orain eguzkitu gara” (Azkue, 1935-1947/1989 III: 330). Gizakiok zeruaren egoerarekin bat eginda gaude; *h* gabeko *odeitu* aditza, adibidez, Lardizabal idazleak erabiltzen du (DRALV); *oriaatu* aldaera Gipuzkoako Oñati herrian jasorik dago (Izagirre, 1959) eta, azkenik, *oroiatu* Donostiako Bilintx bertsolariak erabiltzen du (DRALV); *hodeikatu* (*hedoikatu*) aditzak bezalaxe, *hodeiztatu* (*hedoiztatu*) aditzak beste atzizki bat ere badauka: *-ztatu*. Atzizki hori gaur egun oso emankorra da, eta hainbat aditzetan erabiltzen da; adibidez, *aireztatu*, *argiztatu*, *balioztatu* edo *ureztatu*. “Betetzea” edo antzeko esangura du delako atzizki horrek; beraz, *hodeiztatu* aditzak “hodeiz bete” esan nahi luke; esate baterako, *odeiztatu* aldaera Nafarroako Erronkari haranean jasorik dago (Estornes, 1997); *hodeizutu* (*odeizutu*) aditza zuberera euskalkian erabiltzen bide da (DRALV). Bertan *hodeizu* “hodeitsu” esateko erabiltzen denez gero, aditza *hodeizu-tu-tik* sortzen da, antza; *hodeiak atera* (*hodeiak atheatu*) aditz-lokuzioa Nafarroa Behereko Ezterenzubi herrian bildua da (EHHA). Nabarmentzekoa da *atera* aditza erabiltzea; izan ere, beste eremu batzuetan baliatzen da euskal hiztuna aditz horretaz;

adibidez, “egun ona atera du” edo “haizea atera du”. Badirudi euskal hiztunaren adimen-begiak gordeta ikusi eta kanporatzen duela; hortik bide dator “atera du” delako hori.

Kalmatu aditza Nafarroako Zenbait herritan erabiltzen da; adibidez, Alkotzen eta Leitzan: “*Kalmatzen* ai du” jasota dago lehenengo herrian (EHHA). Gorago aipatu bezala, inguru berean *kalma* “hodei”-ari irizten zaio.

Laino berba oinarri duten eleen artean honako hauek dira: *laino arte egon* (*lañoarte egon*); *lainopetu* (*lanopetu*) eta *lainotu* (*laiñatu*, *laiñaatu*, *lañaatu*, *laiñotu*, *lañatu*, *lanhatu*, *lanotu*, *llañotu*). *Laino arte egon* (*lañoarte egon*) aditz-lokuzioa Bizkaiko Abadiño herrian entzunda dago: “Serue *lañoarte* dau” (Gaminde & Salterain, 1991). Esaldi horren arabera, badirudi zeua *lainoak* harturik dagoela; *lainopetu* (*lanopetu*) aditzak *-pe* atzizkia darama bere baitan, *lainoaren* azpian gaudela adierazteko. Aditz hau Harrietek jasotakoa da (OEH); *lainotu* aditzak hainbat aldaera ditu euskalkiz euskalki: adibidez, *laiñatu* Azkuek dakar bere hiztegian (DVEF); *laiñaatu* eta *lañaatu* aldaerak Gipuzkoako Oñatin bildu zituen Izagirrek (Izagirre, 1959); *laiñotu* aditza Gipuzkeraz eta bizkaieraz erabiltzen de Azkueren arabera (DVEF); *lañatu* Barrenso idazleak erabiltzen zuen (DRALV); *lanhatu*, Azkuek ere badakar bere hiztegian eta Iparraldeko euskalkietan erabiltzen dela adierazi zuen (DVEF); *lanotu* Harrietek ere badakar (OEH); *llañotu* aldaera Gipuzkoako Hondarribian erabiltzen da (EHHA). Guztien artean zaharragoak omen dira *-atu* bukaeradunak; izan ere, antzinako eratorpenean *-o -a* bihurtzeko joera omen zegoen; adibidez, *astotik astakilo*.

Lanbrotu (*lanbotu*) aditza dela-eta, *lanbrotu*, adibidez, Nafarroa Behereko Landibarre herrian bildua da (EHHA); *lanbotu* aldaera Harrietek dakar (OEH).

Lausotu aditza Bizkaiko Gernika herrian erabiltzen da (DVEF) eta berrikiago Gara egunkarian: “... eta zerua pixka bat *lausotu* egingo da” (Landa, 2003-02-08).

Ortzia heldu aditz-lokuzioa Nafarroa Behereko Isturitze herrian jasorik dago (EHHA). Ez da erraza ulertzea nola interpretatu behar den *Ortzia heldu* hau: badirudi zerua onduta edo umotuta dagoela, ez garbi. Horrelako ortzia ikusiko zuten antzinako euskal hiztunek.

Bigarren kategoriari dagokionez, Zeruan hodeiak saretu, honako nozio espezifiko hauek jaso dira datutegian: *bakandu*; *sakabanatu* eta *saretu*. Katgoria honetan euskal hiztunak hodeiak nola desegiten diren ikusten du. Hiru aditzok Landak erabiltzen ditu (Landa, 2003). *Bakandu* eta *sakabanatu* beste eremu semantiko batzuetan erabiltzen dira eta Joxe Landa horietaz baliatzen da “hodeiak deseginez joango direla” edota “gero eta gutxiago izango direla” aditzera emateko: “Laino maskal horiek *bakantzen* hasiko dira eta arratsaldean ostarteak zabaldu eta itxura ona hartuko du” (Landa, 2003-12-14). *Saretu* aditzarekin, ordea, euskal hiztunaren adimen-begiak irudi ederra sortzen du hodeiak “sare” bilakatzen direla sumatzen

baitu. Gogorarazi behar da Landak *sare* berba izenondo gisa ere erabiltzen duela: “Hodei *sareak* egongo dira” (Landa, 2003-11-20).

Ortzia apurka-apurka hodei gabetze horretan, zerua garbitzen hasten duelakoa adierazten duen Zerua garbitu hirugarren kategoria aztertuko da. Batzuek zeru argitzen hasten duela esan nahi dute eta batzuek, berriz guztiz oskarbi dagoela. Nozio espezifikoko hauek bildu dira: *argitu*; *argiunea egin*; *garbiketa eragin*; *garbitu*; *giroa arindu*; *goratu*; *jaiki (jagi)*; *lainoak desagertu*; *lortxingatu (lortxingetu)*; *mehetu*; *oskarbitu*; *txukundu*; *urratu* eta *zohartu*.

Argitu aditza bazter askotan erabiltzen omen da; datutegikoa bizkaiera euskalkian erabiltzen da: “*Argitu* egin dau” (Labayru Hiztegia). Azpimarratzeko nor-nork erregimenaren erabilera. Dena dela, gau egun “*Argitu* egin da” ere entzuten da.

Argiunea egin aditz-lokuzioa Gipuzkoako Zizurkil herrian bildua da (Mokoroa, 1990). Aurrekoan bezalaxe, nor-nok aditza erabiltzen da kontrako ideia aditzera emateko, *itxi*, alegia: “*Argiunea* egin du, baña berriro *itxi* du”.

Garbiketa eragin aditz-lokuzioa Landak erabiltzen du Gara egunkarian: “Haizea ipar-mendebaldetik hego-ekialdera aldatuko da eta *garbiketa eragingo* du” (Landa, 2003-12-31). Testuinguru berezian aipatzen du, baina ulertzen da nola zerua hodei barik geratuko den haizearen eraginez.

Garbitu aditza, *argitu* bezala oso hedaturik dago: “Lainotuta egon dan zerua *garbitu* dau” (Labayru Hiztegia). Adibidea bizkaieraz ere ipinita dago eta nor-nork eran erabiltzen da toki gehienetan.

Giroa arindu aditz-lokuzioa gipuzkera euskalkian jasorik dago (Mokoroa, 1990). Nozio espezifikoko hau eremu honetan kokaturik badago ere, Eguraldiaren eremuan ere egon liteke inolako arazorik gabe; izan ere, “*Giroa arindu* du” esaldia baino ez dago datutegian eta aipatu bezala, bi eremuetan azter liteke.

Goratu aditzarekin beste hainbeste gertatzen da. Mokoroak hauxe dakar: “*eztu goratuko...* (Egualdia)” (Mokoroa, 1990). Ez du beste inongo azalpenik adierazten.

Jaiki (jagi) aditzaren berri Mokoroak ere ematen du (Mokoroa, 1990). Aipatzen duen adibidearen arabera, badirudi bizkaieraz erabiltzen dela: “Eguraldia *jagi* danean nik ezin eutsi basora urteteko naiari”. Kasu honetan aditza ez dago nor-nork eran jarrita, nor eran baizik.

Lainoak desagertu aditz-lokuzioa Joxe Landak erabiltzen du: “*Lainoak desagertzean* giro dotorea izango da aspaldiko partez” (Landa, 2003).

Lortxingatu (lortxingetu) aditzak *lortxinga* hitza du oinarri: “Hodeien artean argiuneak sortu” esan nahi du Nafarroako Baztan haranean (Izeta, 1996). Gorago aztertu bezala, *lortxinga* eleak “hodeien arteko argiunea” ematen du aditzera.

Mehetu aditza Gipuzkoako Hondarribian jasota dago: “eguraldia *mehetu* du” (Mokoroa, 1990). Horrek eguraldiak hobera egiten duela, edo gero eta hodei gutxiago daudela adierazten du. Bestalde, Landak idatzi ohi duen “euri *mehea*” ere arrunta da: “Goiz partean lainoak sareagoak izango dira eta arratsaldean euri *mehea*” (Landa, 2004-01-09); badirudi *lodi* izenondoaren eta *loditu* aditzaren kontrakoa dela: lexiko etnometeorologikoan *mehe(tu)* / *lodi(tu)* aditzek antonimo-bikotea osatzen dute.

Oskarbitu aditza, besteak beste, Gipuzkoako Andoain herrian jasota dago (*EHHA*). *Oskarbi* aditzondoaren bidez sorturiko aditza da; hori aztertu denean, *oskarbi ortz(i)* + *garbi-* tik zetorrela azaldu da.

Txukundu aditza Landak erabiltzen du sarri askotan nor-nork eran ere: “Lainotsu egongo da egunaren hasieran, eta gero *txukunduko* du” (Landa, 2003-02-07). Pentsa liteke euskal hiztunaren adimen-begiak ortzia zikin edo narras ikusten duela lainoturik egoten denean, eta oskarbitzen hasten duenean *txukuntzen* duela.

Urratu aditza Gipuzkoako Aia herrian entzunik dago: “Aia aldetik urratu du (argitu du)” (Mokoroa, 1990). Eguna zabaltzen duela adierazteko ere erabiltzen da aditz hau: “(argia) urratu du”; beraz, badirudi nolabaiteko metafora eratzen duela adimen-begiak, zeren jantzi edo gorputz-atalekin erabiltzen da gehienbat aditz hau. Adibidez, “Jantzia *urratuta* ekarri eban etxera” edo “Sasitza ondotik pasaukeran, besoa *urratu* eban” (Labayru Hiztegia).

Zohartu aditza Azkueren arabera zuberera euskalkian erabiltzen da (*DVEF*). Ekialdeko euskalkietan erabiltzen da *zohar* terminoari lotutako eleak; izan ere, “*Zohar* da” jasota dago eguraldia ona dela adierazteko (Harriet *apud OEH*); *zoharbi* Zuberoako Larraine herrian bildua da euria atertzen duenerako (*EHHA*); *zohargi* zubereraz ere erabiltzen da zeruko argitasuna aipatzeko (*DVEF*). Beharbada *zohar* hitzak *ortzirekin* badu zerikusirik. Horren inguruko berba hauek bildu dira:

HITZA	ESANAHIA	Herria / Euskalkia	Biltzailea	Iturria
Zohar	Oskarbi	behe nafarrera / zuberera	Harriet	<i>OEH</i>
Zoharbi	Izar-bidea	Z-Santa Grazi	Euskaltzaindia	<i>EHHA</i>
Zoharbi	Euria atertu	Z-Larraine	Euskaltzaindia	<i>EHHA</i>
Zohardi	Oskarbi	Z-Barkoxe	Azkue	Hiztegia
Zohardi	Euria atertzea	Z-Pagola / Urdiñarbe...	Euskaltzaindia	<i>EHHA</i>
Zohardi tipil	Oskarbi (gaua)	zuberera	Azkue	Hiztegia
Zohargi	Oskarbi (gaua)	zuberera	Azkue	Hiztegia
Zohart-ihitz	Ihintza	Z-Barkoxe	Azkue	Hiztegia
Zohartihits	Ihintza	Z-Larraine	Euskaltzaindia	<i>EHHA</i>
Zohartihitz	Ihintza	Z-Altzai	Euskaltzaindia	<i>EHHA</i>
Zohartu	Oskarbitu	zuberera	Azkue	Hiztegia
Zohartzen ari	Euria atertu	Z-Montori / Santa Grazi	Euskaltzaindia	<i>EHHA</i>

43. taula. Hodeiak. Zerua garbitu: *zohar*

Ele horiek guztiek zerbait dute komunean: garbitasuna. Zerua garbi dago eta hori dela-eta, gauez Izar-bidea ikusten da; euria atertu eta argitzen du; ihintza sortzen da gauez oskarbi egoten baita. Beraz, kontzeptu hori da nagusi berba guztiotan: garbitasuna, txukuntasuna, gardentasuna... horixe sumatzen du euskal hiztunaren adimen-begiak.

Laugarren kategoria dela-eta, Hodeiak loditu, aipatu behar da euskal hiztunaren adimen-begiak hodeiak gero eta lodiago ikusten dituela. Ordezkari bakarra dago kategoria honetan: *Hodeiak loditu*. Landak eguraldi-iragarpenean erabiltzen du: “Hodei sareak egongo dira, eta zerua lausotuko dute. Arratsaldean *loditu* egingo dira, baina ez dute euri arriskurik jarriko” (Landa, 2003-11-20). Bestalde, *lodi* izenondoa ez da arrotza izaten lexiko etnometeorologikoan. Adibidez, Gipuzkoako Tolosa herrian “ebia *lodi* egin du gau goizean” jasota dago (Mokoroa, 1991). Antonimoak *mehe(tu)* dela ematen du, gorago aipatu bezala.

Azken kategoriari Lainotzeko antza izan deitu zaio. Ordezkari bakarra dago datutegian, *estaltzeko taxua ekarri* aditz-lokuzioa: “zeru guztia *estaltzeko taiua dakar*”. Bizkaieraz erabiltzen omen da (Mokoroa, 1990).

4.4.5. Denbora

Bosgarren nozio orokor etnosemantikoa denbora da. Mintzaira gehientsuenetan, denetan ez esatearren, nekez egin liteke denborarik gabeko perpausik. Wilkinsen hitzetan (1976) Denborak ondoko kontzeptu hauek jorratu ohi ditu: unea, iraupena, maiztasuna eta sekuentzia. Horrenbestez, horrelako kontzepturen bat bere baitan biltzen duen edozein termino sartzen da. Hodeien eremuan, kategoria bakarra ezartzea erabaki da: *aldizka ostartea*, *aldizka goibel*. Hitztunen adimen-begiak sumatu eta buru-iruditerian gordetakoaren arabera, 2 nozio espezifiko bildu dira nozio orokor honetara: *eguzki-bortxazta* (*iguzki-bortxazta*) eta *Eguzki burtzinga* (*iduzki-burtzinga*). Segidan biak aztertuko dira beheko 44. taula honetan.

Aldizka ostartea, aldizka goibel
Eguzki-bortxazta (<i>iguzki-bortxazta</i>) Eguzki-burtzinga (<i>iduzki-burtzinga</i>)
44. taula. Hodeiak: Denbora

Aipatu bezala, kategoria bakarra Aldizka ostartea, aldizka goibel da; bi hitz-elkarketa dira, *eguzki-bortxazta* (*iguzki-bortxazta*) eta *eguzki-burtzinga* (*iduzki-burtzinga*).

Eguzki-bortxazta (*iguzki-bortxazta*) elea Nafarroako Zaraitzu haranean erabiltzen zen. Azkuek bildu zuen bere hiztegiaren eranskinean (*DRALV*). *Iguzki-bortxaxta* aldaera, aldiz, “aldi berean eguzkia eta euria izaten direnerako” erabiltzen da behe-nafarreraz (*DVEF*).

Eguzki-burtzinga (iduzki-burtzinga) hitz-elkarketa Nafarroako Aezkoa haranean entzuten da. Aurrekoaren zentzu berean erabiltzen dute bertako hiztunek: “batzuetan ostarteetako eguzkia eta beste batzuetan lainoturik” (*DVEF*).

4.4.6. Espazioa

Seigarren nozio orokor etnosemantikoa espazioa da. Hodeiei dagokienez, izendapenak gehienbat bat datoz puntu kardinalekin. Wilkinsen arabera, espazioak kokamendu, mugimendu eta jatorriaren inguruko kontzeptuak hartzen ditu bere baitan; beraz, horrelako kontzepturen bat barnean daukan termino oro sartzen da. Gauzak horrela, hodeien eremuan, bi kategoria ezartzea erabaki da kontzeptuen arabera: Puntu kardinalekin zerikusia duten hodeiak eta Itsasaldeko hodeiak. Beheko 45. taulan aztertuko dira bi kategoria hauek.

Puntu kardinalekin zerikusia duten hodeiak		
Ipar-hodeiak Hodei (hedoi) Kaiman	Ipar ekialdeko haizea iragartzen duten hodeiak (zirrua) Ipar-arraka Ipar-hodei (ipar-odai) Ipar-laino (ipharlanho, ipar-laiño, ipar-lanho) Ipar-lauso (ipar lauso, ifar lauso) Ipar-zelai Ipar-zeroi Zirrinatu (zirriñatu)	Eki-hodeiak Ipar-laino (iparlanho, ipar-laño)
Hego-hodeiak Balen-hodei (balen-odei) Hego-laino (hego-lanho) Itsuki-laino (itxuki-laño)	Mendebaldeko hodeiak Mendebal-laino (mendebal-laño) Zehar-laino (zeihar-lano)	
Itsasaldeko hodeiak		
Hodei-murru (hedoi-muru, odei-murru) Itsasao (itxasao)		
45. taula. Hodeiak: Espazioa		

Puntu kardinalekin zerikusia duten hodeiak direla-eta, bost azpi-kategoria aztertuko dira: Ipar-hodeiak; Ipar ekialdeko haizea iragartzen duten hodeiak; Eki-hodeiak; Hego-hodeiak eta Mendebaldeko hodeiak.

Ipar-hodeien azpi-kategorian bi ele besterik ez dira datutegian, *hodei (hedoi)* eta *kaiman*. *Hodei (hedoi)* eleari dagokionez, Azkuek bere hiztegian dio behe-nafarreraz erabiltzen dela. “Nubarrones del norte” ematen du aditzera gaztelaniaz, besterik ez (*DVEF*).

Kaiman berba bitxia bizkaiera eta gipuzkera euskalkietan erabiltzen da Azkueren arabera (*DVEF*). Zalantza sortzen da nongo hodeia den erabakitzerakoan, gaztelaniazko eta

frantsesezko itzulpenak desberdinak dira eta. Gaztelaniaz hauxe ematen du Azkuek: “Nubes que van poco a poco de noreste al norte, anunciando mares alborotados, aparecen en otoño”. Frantsesez hauxe: “nuages qui viennent peu à peu du nord-ouest au nord, et qui annoncent une mer agitée; ils apparaissent en automne” (*DVEF*). Definizioa dela-bide, badirudi frantsesezkoa gehiago hurbiltzen dela errealitatera; izan ere, halako itsaso zakarra haizeak ipar-mendebalde edo iparretik jotzen duenean suertatzen da. Bestalde, azpimarratzeko da bi nozio orokorren jabe dela hitz hau: espazioa eta denbora, “iparra” eta “udazkena”, alegia. Fonetika dela-eta, ematen du nonbaitetik hartutako mailegua dela, ez baitu beste inolako euskal hitzen ordainik.

Hurrengo azpi-kategoria ipar ekialdeko haizea iragartzen duten hodeiei dagokie, sarritan zirruak deritzenak izaten direnak. Ondoko hitz hauek aztertuko dira: *ipar-arraka*; *ipar-hodei* (*ipar-odai*); *ipar-laino* (*ipharlanho*, *ipar-laiño*, *ipar-lanho*); *ipar-lauso* (*ipar lauso*, *ifar lauso*); *ipar-zelai*; *ipar-zeroi* eta *zirrinatu*.

Ipar-arraka hitz-elkarketa Bizkaiko Lekeitio herrian entzuten da (*DVEF*). Azkuek dioenaren arabera, “Cirrus, nubes precursoras del viento Nordeste; tienen forma de barras blancas”. Orotarikoa, arraka berbaren seigarren adiera hauxe da: “arraka. (V, G, AN-gip), raza (Santu.), palitroque como de un codo de largo, que se fija a la verga de una lancha, para que la vela no sea llevada del viento” A. (*OEH*). Beraz, baliteke euskal hiztunaren adimen-begiak horrelako irudia sumatzea horretariko hodeietan; izan ere, Azkueren hitzetan, “barra zurien antzekoak dira”.

Ipar-hodei (*ipar-odai*) hitz-elkarketa aurrekoaren antzekoa da. Azkuek definizio bera ematen du eta gipuzkera euskalkian erabiltzen bide da. Gogoratu behar da Euskal Herriko kostaldeko herri askotan iparra ez del “norte / nord”, “este / est” baizik: “(V, G, AN, L ap. A), *ifar* (A). Viento del este. «En la costa *ipar* no es norte sino este» A (s.v. *iparraize*). «*Ifarra bebil*, *bendebala bego*, *egoa gero* [...] (FSeg) » Ib. «Viento del Noreste» Elexp *Berg*.” (*OEH*).

Ipar-laino (*ipharlanho*, *ipar-laiño*, *ipar-lanho*) elkarketak zenbait aldaera ditu barreiatuak Euskal Herrian barrena. Aurrekoaren elkarketa, *ipar-hodei*, bezalakoxea da, hodei eta laino baliokidetzat hartzen dira eta; *ipharlanho* ipar-ekialdeko euskalkietan ere bai (Lhande, 1926); *ipar-laiño* Azkuek jasotzen du (*DVEF*) eta, azkenik, *ipar-lanho* Lhandek ere bai (Lhande, 1926). Beherago aztertuko da beste adiera bat: “ekialdean ikusten diren hodeiak”.

Ipar-lauso (*ipar lauso*, *ifar lauso*) elkarketa dela-eta, *ipar lauso* Gipuzkoako Bergara herrian erabiltzen da (*DVEF*) eta *ifar lauso* aldaera handik hurbil dagoen Eibar herrian (Etxebarria, 1965-66).

Ipar-zelai hitz-elkarketa Bizkaiko Ondarroa herrian entzuten da (*DVEF*). Mota honetako hodeien ezaugarriak jabeturik, *zelai* berba oso egokitzen jotzen du euskal hiztunaren adimen-begiak; izan ere, oso zelaiak dira horrelakoak, lau askoak.

Ipar-zeroi berba Donostian bildu zuen Azkuek (*DVEF*). Oso polita da euskaldunaren adimen-begiak horretariko hodeiak zeroiekin erkatzea: zeroi sorta bat hautematen du ipar-lainoak begiztatzen dituen bakoitzean. Aurrerago baleari lotutako beste elkarketa bat ere aztertuko da “hegoko hodeia” esan nahi duena: *balen-hodeia*. Ezagun da kostaldeko herrietako hiztunek joera handia dutela metaforak itsasoko kontuekin uztartzeko; eguneroko bizimoduak baldintzatzen du lexikoa.

Zirrinatu (*zirriñatu*) da ipar berbarekin zerikusia ez daukan bakarra. Bizkaiko Lekeitio herrian erabiltzen da (*DVEF*). Baliteke *zirrimarratu* aditzarekin erlazioa izatea; izan ere, “zirriborratu” edo ematen du aditzera eta zenbaitetan horrelako hodeiak zirriborratuak sumatzen dira ortzian.

Haizeen norabideen jarraikiz, hurrengo azpi-kategoria eki-hodeiak dira, hots, ekialdean ikusi ohi diren hodeiak. Datutegian jasotakoaren arabera, *ipar-laino* (*iparlanho*, *ipar-laño*) hitz elkarketa baizik ez da aztertuko.

Ipar-laino (*iparlanho*, *ipar-laño*) dela-eta, *iparlanho* aldaera behe-nafarreraz erabiltzen da (Lhande, 1926) eta *ipar-laño* Bizkaiko Bermeo, Lekeitio eta Mundaka herrietan: “Lestetik ikusten diren laño sueltu eta altuak” (Barrutia, 2000). Gorago, aipatu bezala “Lestetik” ikusi arren, *ipar* berbaz baliatzen dira.

Aurrera eginez, hurrengo azpi-kategoria hego-hodeiak dira; hego-haizea ekarri ohi duten hodeiei esaten zaie. Hiru berba-elkarketaren berri emango da: *balen-hodei* (*balen-odei*), *hego-laino* eta *itsuki-laino*.

Balen-hodei (*balen-odei*) hitza bizkaiera eta gipuzkera euskalkietan erabiltzen da (*DVEF*). Eder askoa da irudia euskal hiztunaren adimen-begiak sortutakoa: ortzira so egin, eta balearen moduko hodeiak hautematen ditu hego-haizearekin zerikusia dutenak.

Hego-laino (*hego-lanho*) hitz-elkarketa behe-nafarrera euskalkian entzuten da (*DVEF*). Guztiz deskriptiboa da; izan ere, *hego* puntu kardinala da elkarketaren lehenengo osagaia.

Itsuki-laino (*itxuki-laño*) berba elkarketaz Bizkaiko kostaldeko Bermeo herrian baliatzen dira hiztunak: “Haizerrikoa dakarten lainoak” (Barrutia, 2000). Hemen ere oso egoki funtzionatzen du adimen-begiak, *itxuki* berba arrantzaleek harrapatzen duten arrain mota bati baitagokio. Barrutiak bildutako lekukoen esanen arabera, “Pitxarroa baino finagoa eta gozoagoa”; Azkueren hitzetan, “colario, un pez sin escamas, con piel, que se enrosca al aparejo

como una culebra” (*DVEF*). Beraz, horrelako arraina hautematen du inguru horretako euskal hiztunaren adimen-begiak horretariko lainoak ikusten dituenen.

Puntu kardinalekin zerikusia duten azpi-kategoriak amaitzeko, mendebaldeko hodeiak izendatzeko bi elkarketa aztertuko dira: *mendebal-laino* (*mendebal-laño*) eta *zehir-laino*.

Mendebal-laino (*mendebal-laño*) hitz-elkarketa Bizkaiko Mundaka herrian bildurik dago (Barrutia, 2000). Bertako lekuko batek dio “ipar-lainoak baino euritsuagoak”.

Zehir-laino elari buruz ez dago informazio handirik. Azkuek jasotzen du bere hiztegian (*DVEF*). Gipuzkoa eta Nafarroako herri batzuetan *zehir-haize* esaten da mendebaldeko haizeari irizteko; adibidez, *zerrai* Gipuzkoako Amezketan herrian (*EHHA*).

Espazio eremua bukatzeko, bigarren kategoria aztertuko da jarraian: Itsasaldeko hodeiak. Bi nozio espezifikoren berri emango da: *hodei-murru* (*odei-murru*, *odei-muru*) eta *itsasao* (*itxasao*).

Hodei-murru (*odei-murru*) hitz-elkarketa Nafarroako Zaraitzu haranean eta Lapurdiko Getaria herrian jasota dago (*DVEF*). Azkueren berbetan “nubes gruesas como peñascos que van de Noroeste a Norte y anuncian mares alborotados en otoño”. Hemen zenbait kontzeptuk egiten dute topo: handitasuna (kalitatea); nondik nora (espazioa); non (espazioa) eta noiztasuna (denbora). Ez da ohikoa izaten euskal hiztunaren adimen-begiak nozio espezifiko bat sortzea, bere baitan hainbeste nozio orokor bilduta. Gorago aztertutako *kaiman* berbarekin du zerikusia, baina, haiek “nubes que van poco a poco de noreste al norte, anunciando mares alborotados, aparecen en otoño” dira (*DVEF*); hodeien handitasunaz Azkuek ez du deus ere aipatzen.

Itsasao (*itxasao*) berba Bizkaiko Bermeo herrian bildua da (*DVEF*) eta aurrekoaren antzeko esangura dauka: “Nubarrones precursores de mares alborotados. *Itsaso* eta *a(h)o* berbek hodeiak “Itsasoaren ahoa” direla pentsatzeraino eraman gintzakete. Euskal hiztunek horixe eduki lezakete buru-iruditerian, itsasoa izaki biziduna dela eta ahoa daukala.

4.4.7. Ondorioak

Lehenik eta behin aipatu behar da hodeiek nozio orokor guztiak dauzkatela: izakiak nozio orokorra ugarixeagoa da besteak baino, Izendapenak eta Hodei-motak tarteko; kantitatea, kalitatea eta jardura antzekoak dira, gero espazioa, eta nozio espezifiko gutxien denborak dauka. Hodei-moten artean nozio espezifiko asko daude, euskal hiztunaren adimen-begiak ortzian begizatzen dituen hodeiak bereizteko joera du eta. Kantitate nozio orokorrak ere nozio espezifiko ugari ere biltzen ditu bere baitan. Nozio espezifikoetan azpimarratzekoa da *enbat*

berbari buruz egindako azterketa, etnometeorologiaren eremu guztiak aintzat harturik, hamaika adiera dauzka eta.

Adimen-begiak ortzian agertzen den oro desberdindu nahi izate horren bitartez, orotariko baliabideak utzi dira agerian lexikoaren sorkuntzan: hitz-elkarketak, hitz soilak, maileguak, eta neurri txikiagoan eratorriak; jarduera nozio orokorra dela-eta, aditzak eta lokuzioak ere badira. Onomatopeietan, hodeia ikusizko fenomenoaren denez gero, ez bide dago baliabide horren bidez sorturiko terminorik.

Hitz-elkarketez bezainbatean, logikoa denez, hodei eta laino eleak nagusi dira, lehenengoari zein bigarren osagaiari dagokienez, batik bat hodei-motak izendatzean; adibidez, *hodei-adar*, *hodei-mataza* eta *trumoi-laino*. Hitz-elkarketetan irudiak ere ez dira baztertzekoak: euskal hiztunaren adimen-begiak ortzira so makina bat irudi sortu baititu: *ahari-buruak*, *laino buruhandi* eta *balen-hodei*. Hitz soilak ere badira ugari, hitz-elkarketekin gertatzen den bezalaxe adimen-begiak irudi franko eratu ditu eta; esaterako, *burruntzi*, *kain* eta *lapar*. Maileguak ere ez dira nolana hikoak: adibidez, *enbat*, *dorre* eta *serro*. Bestalde, jarduera nozio orokorreko kontzeptu guztiak ekintzari buruzkoak dira; beraz, hainbat aditz eta aditz-lokuzioak badira; esaterako, *belundu*, *oskarbitu* eta *laino arte egon*. Eratorpena ere bada baliabide aski erabilia hodeien eremuan; esaterako, *goibeltasun*, *hodeitza* eta *lainotsu*.

Aipatu bezala, euskal hiztunaren adimen-begiak ortzian hautematen zuen orori izena jarri nahi izan zion: ohartzen zen, ondo ohartu ere, zenbat-gura hodei desberdin ikusten zituela zeruan. Alde horretatik, aipatzekoa da zenbaitetan zerbait magikoa sumatzen zuela, eta hori zela-eta metaforez baliatzen zen begiak ikusten zuena taxutzeko. Horrela, *ahari-buruak*, *laino-hankak*, *hodei-dorre*, *hodei-mataza* eta *zaldi gaineko*. Magia horren barruan, mitologiak ere badu tokitxo bat, batik bat trumoiari edo ekaitzari loturiko izendapenetan; *Eate* jeinua eta *ortzi* berba enigmatikoa agertzen dira. Bestalde, haizearen inguruko nozio espezifiko guztiak azterturik, bat aukeratzekotan *kaiman* berba nabarmentzekoa da: mailegua dirudi, ziurrenik Bizkaiko eta Gipuzkoako arrantzaleek itsas zabalean beste herrialde bateko arrantzaleei entzun eta bereganatua.

Lexikoa eraikitzeko nozio espezifiko guztiak aintzat harturik, azpimarratu beharrekoa da hodeien eremuan eraturiko lexikoa, gehienbat, motibatua dela, adimen-begiak propio makina bat irudi eta hitz-elkarketa osatu ditu eta.

Azkenik, aurreko eremuetan aipatu legez, eman behar da aditzera euskal hiztunaren begiak haizeen jiran eraikitako sistema sendoa eta oparoa dela, eta baliabide franko erabili dituela mendeetan ortzian hautemandako hodei-mota guztiak izendatzeko.

4.5. Ur-meteoroak

Ur-meteoroa edo hidrometeoroa “Ur-zatiki edo solidoen multzo batek eraturiko meteoroa da: atmosferatik eroriak nahiz bertan suspentsioan garatuak izan daitezke, edo lurrazaletik haizeak altxatu eta zenbait objekturen gainean edo atmosfera askean utziak” (*MetHizt*, 1988: 138). Beraz, definizio horren arabera, ur-lurrun edo suspentsioan dauden ur-tanta likidoen eran, hodeiak, lainoak eta lanbroa ditugu; prezipitazio gisa jausten direnak, euria, elurra eta txingorra dira eta lurrazalaren gainean dagoen eguratseko ur kondentsatua, ihintza eta izotz zuria dira. Hurrengo ataletan honako ur-meteoro hauek aztertuko dira: elurra, euria, hezetasuna, ihintza, izotza, lainoa, lanbroa, gandua eta txingorra. Hasteko eta behin, elur arloa aztertzeari ekingo zaio.

4.5.1. Elurra

Elurra temperatura 0°C-tik hurbil egoten denean gertatzen da, batez ere neguan. Temperatura horren inguruan maluta modukoak nagusi badira ere, tenperaturak apalagoak izaten direnean, ez dira malutak izaten, kristalen antzekoak baizik. Lurraren gaineko elurra gogortu egin ohi da, hondoratze eta likidotzearen eraginez. Babesturik dauden bazterretan elur-metak sortzen dira, handi samarrak izateraino hel daitezkeenak. Mendietan batik-bat, haizeak toki jakinetan pilatzen du elurra; elur-jausiak eragin ditzaketen elur-meta arriskutsuak sortu ohi dira. Euskaraz hainbat hitz dauzkagu askotariko fenomenoak izendatzeko. Nabarmenezkoa da zenbat berba dauden elur-jausiak adierazteko. Horrek, agian, aurreko sasoi bateko eguraldiaren bestelako egoeraren berri eman liezaguke. Gauzak horrela, eraturiko datu-basearen arabera, hauexek dira aztertu beharreko kategorია guztiak:

- Izendapenak
- Garaia
- Elur-maluta
 - Elur-maluta txikia
 - Elur-maluta handia
- Elur pikorta
- Elurra: ekintzak
- Nola egiten duen elurra
 - Elurra ari dueneko onomatopeia
- Elurtza
- Elur-pilota
- Elur apurra
- Elur-bisutsa
- Elur-erauntsia
- Ia urtuta dagoen elurra
- Zapalduta dagoen elurra
- Elur izoztua
- Elur landarra
- Oinetakoari itsatsitako elurra
- Elur bustia
- Elurroldea

- Glaziarra
- Elurzuloa
- Elur-meta
- Bisuts-lekua
- Elur bildua
- Lurmena

Bestalde, azpimarratu behar da, meteorologiak, zientzia gisa, elurra sailkatzeko tamaina, intentsitatea eta abiadura kontzeptuak erabiltzen dituela. Horretaz gain, metaketaren arabera, eroritako elurra arina, moderatua edo bizia izan daiteke.

Nolanahi ere, bestelako sailkapenak ere egin litezke, ez bairik gabe. Alor honetarako oso apropostzat jotzen da elurraren sormena bere baitan biltzen duen prozesu guztia azaltzea. Hori horrela izanik, taxuzko sailkapen izan liteke elurra sortzen denez geroztik, lurra elurrik gabe, guztiz garbi geratzen den arte. Beraz, prozesua hauxe izan liteke: elurra, lurrera erori aurretik, elurra, lurrera erori eta gero, eta, azkenik, elurra, urtu ondoren. Hortaz, aldi bakoitzean honako kontzeptu hauek aztertzeak izango lirateke:

- Lurrera erori aurretik
 - Elur maluta. Tamaina: txikia, handia
 - Elur motak: elur pikorta, elurbustia
 - Elurra: ekintzak
 - Nola egiten duen elurra
 - Elur erauntsia
 - Elur-bisutsa
- Lurrera erori eta gero
 - Zurituz gero
 - Elur apurra
 - Elurtza
 - Elur-pilota
 - Zapalduta dagoen elurra
 - Urtu ondoren
 - Elur izoztua
 - Elur landarra
 - Oinetakoari itsatsitako elurra
 - Elurroldea
 - Glaziarra
 - Elur-zuloa
 - Elur-meta
 - Bisuts-lekua
 - Elur bildua
 - Ia urtuta dagoen elurra
 - Lurmena

Datutegiak bildutako nozio espezifikoak, aldaerak eta guzti, 475 dira. Era berean, aipatuak aipatu, eremu etnometeorologiko guztietan bezalaxe, nozioetan oinarritutako sailkapen etnometeorologikoa erabiliko da elurrari atxikitako termino guztien berri eman eta

aztertzeko, hau da, eremu guztietan erabiltzen direnak; izakiak, kantitatea, kalitatea, jarduera, denbora eta espazioa.

1. Izakiak	2. Kantitatea	3. Kalitatea
Izendapenak Elur-maluta Elur-pikorta Elur-pilota Elur-bisutsa Elur-geruza Elur-landarra Elur bustia	Elurtza Elur apurra Elur-erauntsia Elur-jausia Elur-meta	Elur-maluta txikia Elur-maluta handia Elur-geruza mehea Elur izoztua Ia urtuta dagoen elurra Zapalduta dagoen elurra Oinetakoei itsatsitako elurra
4. Jarduera	5. Denbora	6. Espazioa
Elurrari lotutako ekintzak Nola egiten duen elurra	Garaia	Bisuts-lekua Elur bildua Elur-zuloa Glaziarra Lurmena
46. taula. Elurra: Sailkapen etnosemantikoa		

Lehenengo 46. taula orokor honetan nabari denez, elurraren eremuak nozio guztiak hartzen ditu bere baitan. Oparoena izakien nozioari dagokiona da, zortzi kategoria, bigarrena kalitateari, zazpi kategoria, eta txikiena, denboraren ingurukoa, bakar bat. Ezagun da ñabardura ugari bereizten dituela euskarak. Ondorioetan aipatuko bada ere, elurra ez zaio batere arrotz egiten euskal gizakiari. Hainbat eta hainbat xehetasun berri ematen digute berbok. Mendeak joan, mendeak etorri, klimaren historia idatz liteke lexikoan oinarriturik; izan ere, berba ugari kulturaz blai daude, zalantzarik gabe.

4.5.1.1. Izakiak

Izendapenak	Elur-maluta			
Edur Elhur Elhür Elor Elur Erur Eur	Alpar Andana Bikor (Bikhor) Elur-amukela Elur-atal (Edurratal) Elur-bola (Edur bola) Elur-fits/ Elorpits /Elur-pits Elur-garafa (Edur garafa) Elur-gatz	Elhurilhain (Elur/Elhur)-kana / k(h)anu Elur-konpitt (Edur)-kopa, -kopo Elur-lapats (Edur- lapatx) Elur-larrosa (Edur- larrosa) Elur-lore (Edur-lora) Elur-luma (Edur- / El(h)ur-luma) Elur-lum Elur- (Edur-) lumatxa(kari) (Elur)-madol(o)	Elur (Edur)-makal Elur (Edur)-mako / Elur-malko (Elur)-malo Elur-maleta (Edur- / Elur-) maluta /malota / maro / marota Elur-mami (Edur- mamiñ) Elur- (Edur-) mata Elur-matatx Elur- (Edur-) mataza Elur mehe (Edur me) Elur-(Edur) metxa Elur- (Elhur) mulu	(Elur)-osto Elur- (Elhur-) pikor (Elur-) pikorta Elur-pikota Elur-pillota Edur- / Elur- pinport(a) Elur-pinter Elur-potoko Elur-puske / pusket(a) Elur- (Elhur-) tanpat Elur- (Edur-) tanta Elur-txapel
Elur-maluta (jarraipena)			Elur-pikorta	Elur-pilota
Elur- (Edur-) txingor Elur- (Edur-) txistil Elur- (Edur-) txotor Elur-ulain Elur xehe (Edur sei) (El(h)ur)-xafla / zafla / xaplada /zapla(da) / zapaltza Elur xehe / Elhur zehe Edur- / Elur-zati	Elur (Edur) zopa Eluso Fala Filu(t)sa Flakuin / Flokoin Kanhü Kopo	Murduske Oia Oilo-luma (Ollollume) Papilun Pil-pil Porka Tantakada Tela Ulain (Ülaña)	Elur- (Edur-) gazur Elur- (Elhur-) irin Elur- (Edur-) kaskara Elur- (Edur-) pikor / Elur- pikorta Elur-pirrin Elur (Edur) siku Elur xehe (Elurxe) Lantzurda Lapats (Euri-) txinb(g)o Txotor	Elur- (Elhur-) begi Elur- (Edur-) ma(i)llo Elur-pilota (Edur- pelota) Mukil Pilota
Elur-bisutsa	Elur-geruza	Elur-landarra	Elur bustia	
Auso Bisuts Elur-auso Elur-bisuts (Edur bizutz) Elur-bisuts Elurroso Lausaro Usin	Garapa Manta	Elur- (Edur-) landar	Elur (Edur / El(h)ur busti) Elur- (Edur-) euri Elur- (Edur-) / Elur-ur Euri-edur Gazur Lanbera	

47. taula. Elurra: Izakiak

Izakiak lehenengo nozioak honako kategoria hauek biltzen ditu bere barnean: Izendapenak, Elur-maluta, Elur-pikorta, Elur-pilota, Elur-bisutsa, Elur-geruza, Elur-landarra eta Elur bustia. Lehenengo begiratuan antzematen denaren arabera, *elur-malutak* adiera franko dauzka. Izendapenei dagokienez, aldaerak badira ere, ematen du erro beretik datozela guztiak, *el(h)ur-edur*.

Elur-malutetan, ostera, gizaki aitzin euskaldunaren buru-iruditeria askotarikoa eta ugaria da. Guztira, 53 aldaera dira, eta batzuen jatorria igartzea zail samarra izanagatik ere, beste batzuen argiagoa da. Iruditeriaren beraren arabeko sailkapena egingo da jarraian.

Lehenik eta behin sumatzen da *elur* osagaia duten elkarketak nagusi direla. *Elur* generikotzat hartzen da eta gero, bigarren osagaiak ñabardura eta xehetasuna ematen dizkio hitz elkarketari, elur “masa” zatitzeko beste hitz bat lagun egiten da. *Elurdun* elkarketak honako hauek dira: *elur-amukela*, *elur-atal*, *elur-bola*, *elur-fits*, *elur-garafa*, *elur-hosto*, *elur-kana*, *kanu*, *elur-kopa*, *kopo*, *elur-lapats*, *elur-larrosa*, *elur-lore*, *elur-luma*, *elur-lumatxa(kari)*, *elur-madol(o)*, *elur makal*, *elur-mako*, *malko*, *elur-malo*, *elur-maluta*, *elur-mami*, *elur-mata*, *matatz*, *mataza*, *elur mehe*, *elur-mulu*, *elur-pikorta*, *elur-pilota*, *elur-pinpor*, *elur-pinter*, *elur-potoko*, *elur-puska*, *pusketa*, *elur siku*, *elur-tanpat*, *elur-tanta*, *elur-txapel*, *elur-txingor*, *elur-txistil*, *elur-txotor*, *elur-ulain*, *elur xehe*, *elur-zafla*, *zaplada*, *elur-zati*, *elur-zopa* eta *eluso*. Kasu batzuetan ez dago garbi jakiterik zein ote den bigarren osagaia. Horien artean hauexek sailkatu ditugu: *amukela* eta *madol(o)*.

Hitz bakunei buruz, honako hauek dira: *alpar*, *andana*, *bikor*, *fala*, *filusa*, *flokon*, *kanhü*, *kopo*, *lumatxa(kari)*, *madol*, *malo*, *metxa*, *murduska*, *oia*, *oilo luma*, *papilun*, *porka*, *tantakada*, *ulain*, *tela*, *zafla(da)* eta *zapaltza*. Nabari denez, zenbait termino bi eratara agertzen dira, elkarketetan edo hitz bakunetan.

Oro har, hitz guztiak kontuan harturik, honelako iruditeria eta sailkapen etnosemantikoa egin liteke:

Elurraren zatia: *elur atal* (*edurratal*, B-Mendata: *EHHA*), *elur-mami* (*edurmamiña*, B-Lekeitio: *EHHA*), *elur-puska* (*elur puske*, N-Suarbe: *EHHA*) / *pusketa*, (*elur-*) *xafla(da)* (*elur-zafla*, N-Baztan-Luzaide: *EHHA* / N-Erronkari: Estornes, 1997; *elurzaplada*, N-Donamaria *EHHA*) eta *elur-zati* (*edursati*, B-Fika, Mendata: *EHHA* / *elur zati*: N-Aniz: *EHHA*). Hitzok elurraren “zatigarritasuna” agertzen dute. Beraz, *elurretan*, *elurretara*, *elurretatik*, kasu mugagabeen, alegia, esaten badira ere, badirudi *elurra* zatitu daitekeela, zati bat masaren lagina izan daitekeela. Hemen ere *elur mehe* (*edurme*, B-Berriz: *EHHA*) eta *elur xehe* (*edursei*, B-Bolibar: *EHHA* / *elur xehe*, BN-Aldude: *EHHA*) sar litezke. Horiek berez adjektiboak badira ere, elur masaren zatia ere adierazten bide dute. Aurrerago aztertuko diren *euri mehe* eta *euri xehe* terminoen parekoak dira.

Elur + irudi metaforikoa. Horrek aldaketa semantikoak sorrarazi ohi ditu: (*elur-*) *hosto* (*elur ostoa*: *DRALV*), *elur-kana* (N-Erronkari: *DVEF*), *kanu* (*khanü*, Z-Larraine: *EHHA*), *elur-lapats* (*edur lapatx*, B-Zeberio: *EHHA*), *elur-larrosa* (*edur larrosa*, B-Bermeo: *EHHA*), *elur-lore* (*edurlora*, B-Elantxobe: *EHHA*), *elur-luma* (besteak beste, *edur luma*, B-Arratia, Markina,

Arrasate, Orozko: *DVEF* / *elhur-luma*, BN-Isturitze: *EHHA* / *elur luma*, G-Lasarte, N-Luzaide / L-Arrangoitze, Azkaine, Sara: *EHHA*, (*elur*) *lumatxa(kari)* (*lümatxa* / *lümatxakari*, Z-Domintxaine-Berroeta: *EHHA*), *elur-malko* (G-Aia: *EHHA* / G-Andoain: *DVEF*), (*elur*)-*malo* (gipuzkera: *DVEF*), *elur-maluta*, (besteak beste, *edur maluta* B-Abadiño: Gaminde & Salterain, 1991 / G-Oñati: Izagirre, 1959 / *DRALV*), *elur-mata* (*edur mata*, B-Busturia, Uribe-Etxebarri: *EHHA*), *elur-matatz* (G-Tolosa: *EHHA*), (*elur*-) *mataza* (besteak beste, *edur mataasa*, G-Oñati: Izagirre, 1959 / *edur mataza*, B-Arrieta: Gaminde, 2001 / B-Leioa, Orozko: *EHHA*), *elur-mulu* (*elhur mulu*, *mulu*: *DRALV*), *elur-pikorta* (*elhur pikor*, BN-Arboti-Zohota, Z-Sohüta: *EHHA* / *elur pikor*, G-Oiartzun: *EHHA* / *pikorta*, G-Pasaia: *EHHA*), *elur-pinporta* (*edur pinporta*, G-Deba: *EHHA* / *elurpinport*, G-Zestoa: *EHHA*), *elur-txapel* (G-Errezil: *EHHA*), *elur-txingor* (*edur txingor*, B-Zaratamo: *EHHA*), *elur-ulain* (*elhürrillhain*, Z-Altzai: *EHHA*) *elur-xafla* (*elur xafla*, BN-Irisarri: *EHHA* / *elur zafla*, N-Baztan: Izeta, 1999 / N-Erronkari: Estornes, 1997 / N-Luzaide: *EHHA*), *elur-xaflada* (*elur zaplada*, N-Donamaria: *EHHA*) *eta elauso* (*eluso*: *DRALV*). Irudion artean beste sailkapen bat egin liteke:

Elurraren eitea: elurra eta natura; elurra eta pikorrak; elur-maluten bestelako itxura.

Elurra eta natura: *elur hosto*, *elur lapatz*, *elur larrosa*, *elur lore*, *elur mulu* eta *papilun*. Azken hau, *mulu* “zuhaitz txikia, oinaldean bakarrik zurtua” da (Harluxet) eta *lapatz* edo *lapatz*, lore mota da, *lapa-belarra* ere esaten zaio. Bestalde “lapats” zera ere izan liteke: “mindu den esnean gertatzen diren pikorretako bakoitza” (*EH*). Beraz, batoren zein bestearen irudiek balio lezakete. Azkenik, naturaren inguruko sortari amaiera emateko Lapurdiko Itsasu herrian erabiltzen den *papilun* mailegu ezin bitxiagoari arreta jarriko zaio. Ezin uka daiteke *elur-malutak* erortzen ikusten direnean, milaka pinpilinpauxa hegaldaka diruditela. Beraz, metafora atsegin askoa Itsasun erabiltzen dutena. Hala ere, izenaren jatorriari buruz, duda txiki bat geratzen da: *papilun* frantsesetik etorri barik, gaskoitik etor litekeelakoa. Izan ere, erkaketa egitearren, bearnesez, *papilun* gabe, *moscas blancas*, besteak beste, esaten zaie elur-malutei.

Elurra eta pikorrak: (*elur*-) *biko* / *pikorta*, *elur-pinporta* eta *elur-txingor*. *Pikorra* “alea edo isurkari edo nahasketa batean bilduta edo gogorturik geratzen den zatia” denez (Harluxet), hiru irudi ditugu horri loturik: batetik, *pikort*, “gatzatutako esne edo odol puska”, *pikorta* “azalean sortzen den garau modukoa da”; bestetik, *pinporta*, “landaren begia edo kimua da” edota “zenbait pikor edo irtengune biribili, eta ale-formako zenbait objekturi ematen zaion izena” (Harluxet); azkenik, *txingor* berba, *kazkabarra* izateaz gain, jatorriz, “azaleko pikorra” ere bide bada. Beraz, kategoria horien bidez ikusten da nola euskaldun gizakiaren adimen-begiaren bitartez zabaldutako den eremu semantikoa iruditerian oinarriturik. Aurrerago aztertuko

denez, *elur-maluta* zehatz bati badagokio ere, hitzok elur-maluta oro har izendatzeko ere balio dute zenbait euskalkitan.

Elur-maluten bestelako itxura: *elur-txapel*. Elkarketa bitxia da, *elur-txapel*. Malutak txapelarekin erkatzen dira eta egia esan, batzuetan txapel txikitxoak dirudite.

Elurraren guritasuna. *Elur-luma*, *elur-lumatxa(kari)*, *elur-malo*, *elur-maluta*, *elur-mata*, *elur-mataza*, *(elur)-metxa* (*edur metxa*, B-Bakio: Gaminde, 1999 / *metxa*, B-Laukiz: EHHA / *edur-lumetxa*, B-Meñaka: Gaminde, 2001c) eta *oilo-luma* (*ollollume*, B-Dima: EHHA). Ezagun dugu guztiok nolako irudipena sorrarazten digun elurrak erortzen denean. Izan ere, denetariko irudiak etortzen zaizkigu gogora. Guritasuna horietariko bat da. Berari loturik, aipaturiko hitz elkarketak topatu dira. *Luma* berbaren esanahia oso ezaguna; *lumatxarena*, ez hainbeste. Hauxe da: “lumaz beteriko koltxoi, burko, lozaku edo beste hainbat jantzi”; *malo* aditzondoak “gizen, mardul edo guri” kontzeptuak adierazten ditu; *maluta*, ostera, “iruteko prest dagoen kotoi, artile, eta abarren multzoa” da (Harluxet), eta, bestalde, “artaburua biltzen duen orria” (Harluxet); adibidez, Abadiñon (Bizkaia) *artomaluta* bizi-bizirik dago gaur egun; *mata* eta *mataza* hitzak jatorri berekoak izan litezke, hau da, “artilez egindako multzoa”. *Mataza* berba adiera askotarikoa da herri-meteorologian. *Elur-maluta* izateaz gain, *hodei-matazak* ere badira, baita *elur-erauntsia* ere. Ondoko erdaretan iruditeria antzekoa da. Horrela, gaztelaniaz, *copo* hitzak hiru adiera nagusi ditu: “mechón o porción de cáñamo, lana, lino, algodón u otra materia que está en disposición de hilarse”; “cada una de las porciones de nieve trabada que caen cuando nieva” eta “grumo o coágulo” (DRAE). Frantsesez *flocon* hitza hauxe da: “petite touffe de laine, de soie, de cotton...”²¹; *metxa* hitza ildo berekotzat ere har liteke. Izan ere, hiru adiera hauek dauzka: “mukia, kandeletan edo antzekoetan argi egiteko ezartzen den hari erregarria, kotoizkoa eskuarki”, “lehergailuei su eman eta leherrarazteko hari erregarria” eta “tundek edo bestelako pizgailuek, mutur bata barruan sarturik eta bestea bildurik zutela, edukitzen zuten erraz su hartzen duen gai az giniko soka” (Harluxet). Azkenik, *oilo-luma* (*ollollume*) elkarketa dugu, Bizkaiko Dima herrian erabilia eta guritsun kontzeptuari berari datxekiona, baina animalia zehaztuta, *oiloa*.

Elurraren jarriotasuna. *Andana* eta *elur malko / mako / makal?* Hiru elkarketok herri desberdinetan erabiltzen dira, baina multzo berean sartu badira ere, agian ez daukate elkarren arteko zerikusirik. *Elur-malko* metafora ezin ederragoa da, “elurrari darion malkoa”, alegia. Gipuzkoako Aia herrian erabiltzen da eta emandako azalpenak balio lezakeen arren, baliteke *elur malorekin* ere loturik egotea. Handik kilometro gutxira, Orion, hain zuzen ere, *elur-malo*

²¹ (<https://dictionnaire.lerobert.com/>)

esaten baita; *edur-mako* elkarketa ildo berekoa izan liteke. *Mako* barbari erreparatuz gero, hiru adiera dauzkala esan behar da: “gakoa, metalezko pieza okertua eta askotan punta-zorrotza, zerbaiti heltzeko edo eusteko erabiltzen dena”, “arkua, uztaia” eta “sardearen hortza, sardea” (Harluxet). Beraz, ez dirudi haiekin zerikusi metaforiko handirik daukanik. Ziur asko, *malo* edo *malko* berbei lotuago egongo da. Bestalde, *andana* hitz soila dugu (EHHA). Bardozen (Lapurdi) jasota dagoelarik, *talde* edo *aldra* esan nahi du, hortaz, jariotasunari lot lekiok.

Elurraren neurgarritasuna. *Elhur kana / (elhür) kanhu*. Bi elkarketa horiek Erronkarin eta Zuberoan erabili direlarik, baliteke jatorri berekoak izatea; izan ere, *kana* hitzak hiru adiera dauzka: batetik, “luzera-neurria, metroa baino zerbait laburragoa, gaur egun batez ere enborrak neurtzeko erabiltzen dena”, bestetik, batez ere iparraldean “kanaberaren zurtoina”, eta azkenik, “makila edo haga” (Harluxet). Beraz, iruditeria ildo horretarikoa izan liteke.

Elur-tanta. *Elur-tanta* (*edur tanta*, G-Gizaburuaga: EHHA), *elur-txistil* (*edur txistil*, B-Mungia: EHHA) eta *tantakada* (B-Orozko: EHHA). Euri tanten antzera, elurrak ere bere “tantak” izan ditzake. Badirudi euri tanta elkarketaren eraginez sorturik dagoela. Ezagun da analogia ikaragarritzko motorra dela hizkuntza baten lexikoa zabaldu eta bilakatzeko. Hori dela-eta, ez da harrizkoa, horrelako elkarketak sortu izana. Horretaz gai, beste elkarketa, *elur-txistil* da. *Txistil* berba, mendebaldeko euskaran “tanta apurtxo bat da” eta *tantakada* ere aski ezaguna da Bizkaiko mendebaldean.

Bestelakoak. *El(a)uso*, *elhür ilhain / ulhain*, *elur-pilota*, *elur-pinter*, *elur-potoko*, *elur siku*, *elur-txotor* eta *elur-zopa*. Lehenengo berba dela-eta, *el(a)usok*, elurroldea adierazteaz gain, elur-maluta ere esan nahi du. Jakina denez, *lausok* hitza, ikusgaiztasunari loturik dago, hortaz, elurra egiten duenean, ondo ikusi ez ohi denez gero, baliteke kontzeptu hori funtsean izatea; *elhür ilhain / ulhain* elkarketa ostera, ilun samarra da. Biak Zuberoan erabiltzen dira (EHHA), baina ematen du balizko esanahiek ez daukatela elurrarekin zerikusirik; batetik, *ulhain* “unai” izan liteke, hau da, “behiez arduratzen den artzaina, behizaina” (EH), eta bestetik, “mirua” (Harluxet), hortaz, ziur asko, nekez aurki litekeen bestelako esanahia izan lezake. Horretaz gain, herrialde bereko Montori herrian ere *ulaña* soilik erabiltzen da (EHHA); *elur-pilota* elkarketa (*elur pillota*, N-Etxarri: EHHA) “elur-maluta” izateaz gain, “elurrez egindako bola, jolasteko erabiltzen dena” ere bada. Bitxia da oso elur-maluta pilota batekin irudikatzea; izan ere, elkarren artean ez daukate antz handirik. Elkarketa honen nolabaiteko “zatigarritasuna” dela-eta, lehenengo kategorian ere sar liteke; *elur pinter* Erratzun erabiltzen den terminoa da (EHHA) eta ahoz jasota dagoenez, *pinter* berba *pindar* izan liteke. *Pindar txinparta* da iparraldeko euskalkietan eta Erratzu Baztanen dagoela kontuan harturik ez litzateke zentzugabekoa pentsatzea horrekin lotura daukala. Horrela izango balitz, metafora

ezin ederragoa izango litzateke *elur-pindar*, adimen-begiak hoztasuna eta berotasuna aldi berean lotzen ditu eta; *elur-potoko* dela-eta, ez da erraza jakiten zer ote den *potoko* hitza. Oderitzen (Nafarroan) erabiltzen da (*EHHA*): *elur siku* dela-eta (*edur siku*, B-Mañaria: *EHHA*), batetik, *elur-maluta* da, baina, bestetik, “bustitzen ez duen elur maluta txikia da” (G-Eibar: *EHHA*); beraz, azken honetatik hurbilago dago *elur siku*. Hala ere, beste adierarako ere erabiltzen da Mañarian; beste hainbeste gertatzen da *elur-txotor* (*edur txotor*) elkarketarekin, *txotor* Bizkaiko hainbat herritan *elur-pikorra* adierazteko erabiltzen dute, hau da, “elur maluta txikia eta lehorra txingor alearen antzekoa, baina ez izotza” (B-Getxo, Leioa, Sondika, Sopela, Urduliz: *DVEF*). Elkarketa hau Lemoizen (Bizkaia) jasota dagoela kontuan harturik (*EHHA*), hots, kostaldean, elurrarekiko hiztunen esperientzia urri samarra izan liteke eta elurrik egitekotan era horretara egin lezake, “txotor” erara, alegia. Jakina denez, itsasertzeko klima barrualdekoa baino askoz ere samurragoa da. Hortaz, hiztunen esperientziak guztiz baldintza lezake komunitatearen lexikoa; *elur-zopa* (*edur sopa*, B-Zeanuri: *EHHA*) ere bitxi samarra da. Badirudi hiztunek irudimenean “jausten den elurra ez, egun batzuk igarota urtu ohi dena” daukatela. Horretarako *elur-salda* elkarketa ere jasorik dago Bizkai aldean (*edur salda*: *DVEF*).

Maileguak. *Elur-kopa* / *kopo* eta *flokoin*. Etnometeorologiaren eremu guztietan izaten dira maileguak eta *elur-maluta* adierazteko, bata mailegu garbia da, (*elur-*)*kopo* (*edur kopo*, B-Leioa: Gaminde, 2001b / *kopo*, B-Getxo: *EHHA*), eta bestea ere baliteke izatea, *elur-kopa* (N-Dorrao: *EHHA*). Bestalde, ziurrenik, Nafarroa Behereko Arnegi herrian erabiltzen den *flokoin* terminoa (*EHHA*) zuzenean frantseseko *flocon* berbatik dator. Gogora dezagun hitz hori elur-maluta izateaz gain, “petite touffe (de laine, de soie, de cotton)” izan daitekeela. Beraz, iruditeria euskararenaren antzekoa da kasu honetan. Hiztunen adimen-begiak berdintsu jokatzeko bide du.

Jatorri ezezaguna. *Alpar* (B-Leioa: *EHHA*), *elur amukela* (N-Urdiain: *EHHA*), *elur tanpat* (*elhür tanpat*, BN-Arruta: *EHHA*), *fala* (N-Sunbilla: *EHHA*), *filu(t)sa* (N-Mezkiritz, Zilbeti: *EHHA*, 2008), (*elur-*)*madol(o)* (N-Leitza: *EHHA*), *murduska* (*murduske*: N-Igoa: *EHHA*), *oia* (B-Sondika: *EHHA*), eta *porka* (N-Zugarramurdi: *EHHA*). Azken honek ba ote leukake loturarik gaztelaniazko “emporcar” aditzarekin? Fonetika aldetik oso hurbil daude.

Elur-pikorta dela-eta, txingor-alearen moduko elur-maluta mota da, baina, sikua eta biguna. Euskal Herrian, han-hemenka, honako izendapen hauek dauzkagu: *elur-gazur*, *elur-irin*, *elur-kaskara*, *elur-pikor*, *pikorta*, *elur-pirrin*, *elur-zintzar*, *elur xehe* (*elurxe*), *lantxurda*, *lapats*, *txinbo* / *txingo* eta *txot*. Multzo berean sartu dira berba guztiak, baina agian haien arteko desberdintasunen bat egon liteke. Izan ere, haietariko baten bat “elur-maluta txikitzat” ere har

liteke. Nolanahi ere, elur-malutarekin egin bezala, sailkapen etnosemantiko batez baliatuko da azalpena emateko.

Elurra eta pikorrak. Goratxoago azaldu da zertan den irudi hau. Hauexek dira datu-baseko berbak: *elur-kaskara*, *elur-pikor* eta *pikorta*. Antza denez, Adimen-begiak sorturiko irudi hau hurbiltzen da gehien irudikatu nahi duen formara. Izan ere, elur-maluta mota hori pikorrak bezalatsukoak da, hots, “alea edota likido edo nahaste batean bilduta edo gogortuta geratzen den zatia” (Harluxet). Bestalde, Bizkaiko Meñaka herrian *kaskara* maileguaz baliatzen dira, eskola edo azala adierazteko (*edur kaskara*: Gaminde, 2001c).

Elurra eta natura. *Lapats / lapatx*. Elur-maluta orokorrean aztertu denean hitz horren berri eman da. Naturarekin daukan lotura garbi asko dago eta areago elur-pikorra adierazteko. Izan ere, lehen aipatu bezala, adieretariko batek *-lapats-* “mindu den esnean gertatzen diren pikorretako bakoitza” esan nahi du (*EH*) eta besteak *-lapatx-* “lapa-belarra”. Beraz, bata zein bestea adierazgarriak dira oso elurraren *pikortasuna* nabarmentzeko, horrela ikusten baitu euskaldunaren adimen-begiak.

Elur malutaren txikitasuna. Elurra eta irina: *elur-irina* (*elhur irina*: *DRALV*). Badirudi elur maluta mota hau airera eskutada bat irin botatzen denekoarekin erkatzen dela. Ziur asko, efektua antzekoa da. Ez da harritzekoa elur-maluta irinarekin alderatzea, “zuritasuna” eta “xehetasuna” dela-bide. *Elur xehe* (*Elurxe*) Baztan aldean erabiltzen omen den hitz honen bigarren osagaiak garbi asko adierazten du elur-malutaren tamaina, baina ez, nolakoa den. Izan ere, Azkuek “copo pequeño de nieve” itzultzen du eta hori dela-eta, nozio honetan egon gabe, kalitatean egon liteke (*DVEF*).

Bestelakoak. Elurra eta gazura: *elur-gazur* (*edur gazur*). Kasu honetan elur mota honek *gazuran* du oinarri. *Gazura*, “esnea gatzatzean eratzen den ur gazia da” (Harluxet). Itxuraz, ez dauka zerikusi handirik, baina, Bolibarko hiztunen adimen-begiak (Bizkaia: *DVEF*) horrela ikusten du. *Elur-pirrin* Uztarrozen (Nafarroa: *DVEF*) erabiltzen zen termino hau dela-eta, zalantza sortu da; batetik, Erratzun erabiltzen den *elur pinter* (*pindar?*) berebarekin zerikusia izan lezake. Izan ere, *inkatz-zapart*, *pinda*, *pirrin*, *sista*, *txatar*, *txintar*, *txipistada* ‘chispa’; *zirpitaka* ‘despedir haces de luz’; *zirrinta* ‘rayo de luz’ *pirrin* / *pirrinta* dira, hurrenez hurren; bestetik, elurra jaustearen onomatopeiarekin ere lot liteke, *piri-piri*, hain zuzen ere. *Lantzurda*. Herri askotan erabiltzen da hitz hau, batez ere fenomeno hauek adierazteko: *antzigarra*, *elur-pikorra*, *huri mehea*, *ihintza*, *laino beltza* eta *lainotiko huri ttikia*. Berbaren osagaiei erreparatuz, ematen du *lan(o) + zurda* dela, hau da, lehenengoa *lainoari* lotuta dago eta bigarrena *zurdari*. Hitz hori, zentzu meteorologikoan, *antzigarra*, *lainoa* edo *lei zuria* aditzera emateko erabiltzen da. Beraz, *lainoaren zurda*, kasu honetan, *elur-pikorra* da. Aldaera hau Gipuzkoako Bidania

eta Nafarroako Etxarri-Aranatz herrietan baturik dago (*DVEF*). *Txinbo / Txingo*. Bi aldaerok fonetikoki *txingor* berbatik hurbil-hurbil daude, zalantzarik gabe. Berba biak Bizkaiko mendebaldean jasota daude. Azkueren arabera, “granillo seco de nieve” dira (*DVEF*). *Txotor* berba hau bizi-bizirik dago Bizkaiko mendebalde osoan, batez ere, Uribe Kosta eskualdean eta aztergai den elur mota honi dagokio bete-betean. *EHHAn* jasota dagoenaren arabera “*txotorra* da edur mea. Da lodi daunean botaten mamitzu dau. Txotorra igual urtu iten da. Selan in, urtu” (B-Sondika: *EHHA*).

Izakien nozioari dagokion beste kategoria bat eskuz egin ohi den Elur-pilota da. Lau termino topatu dira corpusean: *elur-begi*, *elur-mailo*, (*elur-*) *pilota* eta *mukil*. Hiru elkarketak dira eta bat, ez, *mukil*. Azken hau Bizkaiko Otxandio eta Ubidea herrietan bildu zuen Azkuek (*DVEF*). Horrez gain, *edur-mukilka* esapidea ere bai. Gainerakoan artean, *elur-begi* elkarketa (*elhurbegi*: *DRALV*) bitxia dago. Arrunta da *eguzki-begi* edo *haize-begi* motako elkarketekin topo egitea, baina, *elur-begi* terminoak bestelako iruditeria dauka. Izan ere, antza denez, ez du zerikusirik handirik *begiak* elurrarekin; *elur-mailo* (*edurmallo*) Oñatin jasota dago eta elur pilota ere adierazi nahi du (Izagirre, 1959). Bigarren osagaiak, *mailok*, Mendebaldeko euskaran, *muinoa* esan nahi duenez gero, baliteke hiztunen adimen-begiak horrekiko iruditeria asmatu izana, hau da, eskuz egiten den *elur-muinoa* edo *mendixka*.

Bestalde, *elur-bisutsa* dela-eta, esan behar da “haizearekin batera sortzen den elur-ekaitza dela” (Harluxet). Aldaerak aldaera, honako hauek ditugu ohikoenak: *auso*, *elur bisuts*, *elurroso*, *lausaro* eta *usin*. *Elur ausori* dagokionez, *auso* berbak (N-Aezkoa, Zaraitzu / zuberera: *DVEF*) *lausorekin* nolabaiteko loturarik izan lezake, zeren, *lausok* “gandua; hautsa, edo ikustea eragotzen duen edozein gauza” baita (Harluxet). Beraz, haizeak eta elurrak bat egiten dutenean ikusgaitasuna oso urria denez gero, iruditeria horretan oinarri liteke; *elur bisuts* da fenomeno honi irizteko gehien erabiltzen den elkarketa (*edur-bizutz*, G-Oñati: Izagirre, 1959 / *elur bisuts*, G-Zestoa: Azpeitia, 2003 / *DRALV*). Zestoaan lekukotasun hau dugu: “Haizearekin batera elur ekitza. Eguraldi haizetsuarekin egiten duen elurra” (Azpeitia, 2003: 14). Haizearen eremuan 39. taula aztertu denean (§4.3), azaldu den *bisuts* hitzaren balizko jatorria. Izan ere, lehenengo osagaia oso argia ez bada ere, bigarrena baliteke hauts izatea eta horrek lotura garbia du ikusgaitasunarekin. Zer ote den edo nondik ote datorren *bis-* bertan ematen dira zenbait hipotesi; *elurroso* terminoa, erabateko ziurtasunik ez badago ere, dirudenez, *elur ausoren* aldaera fonetikoa da: *elur lauso* > *elurrauso* > *elurroso*. Horixe izan liteke bilakaera (N-Lesaka / zuberera: *DVEF*); *lausaro* elea Patxi Perurena idazleak erabiltzen du (Perurena, 1985). Itxura denez, *lauso* + *aro* izan liteke, hau da, “iluntasun aroa” edo antzeko zerbait. Azkenik, *usin* edo *uxin* berba ezin irudimentsuagoa dugu. Zoritxarrez, Erronkarin (Estornes, 1997) bildu zenez, ez

dugu gaur egun entzuterik. Izatez, *usin* “aho- eta sudur-zuloetatik, sudurreko muki-mintzaren narritadurak eraginda, biriketako airea bortizki botatzea, doministikua” da (Harluxet). Beraz, metaforak garbia ematen du: doministikuak eragindakoa *elur bisutsarekin* parekatzen da; ezagun da doministiku egiten denean ez dela batere ondo ikusten.

Elur-geruza dela-eta, batetik, izendapen hutsak sartu dira izakien nozioan, eta, bestetik, *geruza mehea* adierazten dutenak kalitate nozioan. Izakien nozioari dagokionez, corpusak bi ordezkari dauzka, *garapa* eta *manta*. Bi berbok Bizkai aldean bildurik daude, lehenengoa Orozkon (*DVEF*), eta bigarrena Arrietan (*mantie*: Gaminde, 2001a). Fenomeno meteorologikoei gagozkiolarik, *garapa* berbak bi esanahi ditu, bata, euri mehea Bizkaiko Markina herrian (*DVEF*) eta bestea, hemen aztertzen ari dena. Horretaz gain, *garapa* Bizkaiko euskarari “bilketaren ondoren bildu gabe geratzen den mahats-mordoa”, “zuhaitzean bildu gabe geratzen den gaztaina-multzoa” eta “txirbila” edo “txirlora” da (Harluxet). Adiera guztien arteko iruditeria-lotura “geratzen den hondarra” izan liteke. Izan ere, elurra zuritzen duenean, “lurraren gainean geratzen den elurra” *elur-geruza* da. Bestalde, *mantari* dagokionez, itxuraz gaztelaniatik etor liteke. Izan ere, “burusia” edo “tapakia” babesteko diren neurrian, mantak ere babesten du lurra. Horrelakoa izan liteke kasu honetan adimen-begia.

Elur landarra (edurlandarra) hizpide hartuta, corpusean adiera hori baino ez dagoela aipatu behar da. Hauxe da esanahia Izagirreraren arabera: “polvo de nieve que pasa los cristales” (Izagirre, 1959); Oñatin jaso zuen. Ez da beste barbarik aurkitu orain arte. *Landar* hitza, kafearen hondarrak, besteak beste, izan daiteke. Hortaz, adimen-begiaren iruditeriak horrekin izan lezake zerikusia. Bata zein bestea hautsak edo hondakinak dira.

Azkenik, izakien nozioa bukatutzat emateko, elurraren eta euriaren arteko kategoria baten berri eman beharrean dago: Elur bustia. Aldaera hori euskara batuan dago zabalduen. Aldaerak aldaera, honako terminoak dauzkagu corpusean: *elur busti* (besteak beste, *edur busti*, B-Lekeitio: *DVEF*) / *elur busti*, behe-nafarrera, lapurtera, erronkaria: *DVEF* / *elurbusti*, N-Baztan: Izeta, 1996) *elur-euri* (besteak beste, *edur-euri*, B-Gernika: *DVEF* / *edurrauri*, B-Lemoiz, Orozko: *EHHA* / *edurrauri*, B-Mendata: *EHHA*) *elur-ur* (besteak beste, *edur ur*, B-Abadiño: Gaminde & Salterain, 1991 / bizkaiera: *DVEF* / *elur ur*, N-Lesaka: *DVEF*, *euri-elur (euriedur*, A-Aramaio: *EHHA*), *gazur* (B-Markina: *DVEF*) eta *lanbera* (B-Otxandio / G-Arrasate: *DVEF*). Hiztunaren lehen pertzepzioan elurra “bustita” dagoela edo isurkari batekin nahasten dela dirudi. Horrela, *elur bustia* terminoa dago, berez, elurra bustita ez balego bezala, hortaz, elurra “busti” egiten da; isurkariarekin, euria edo ura nahastean elkarketa hauek sortzen dira: *elur-euri*, *euri-elur* eta *elur-ur*. Kasu horietan ez dago beste objektu edo gauza batzuekin inolako konparaziorik, ez dago metaforarik. Hiztunak elurra eta euria edo ura ikusten ditu

nahasirik. *Gazur* berekin, oster, metafora oso polita gertatzen da: Bizkaiko Markinako hitzuneke elur bustia erortzen ikusten dutenean “esnea gatzatzean eratzen den ur gazia”-rekin alderatzen dute (Harluxet). Izan ere, hori da *gazur* hitzaren jatorrizko esangura. Azkenik, *lanbera* berba dugu. *La(i)no* hitza eta *bera* atzizkiak osatuta badirudi ere, ez bide dauka lainoarekin zer ikusirik. *Lanbera(tu)* aditza ere badago eta esanahi bikoitza du: alde batetik, “elurra bigundu” esan nahi du –horrek badauka loturarik–, eta, bestetik, “hotz handia egiten duenean, aroa epeltzea”.

4.5.1.2. Kantitatea

<p>Elurtza Elur-aldi Elur-jauste Elurketa Elurte Elurtza, elurtze</p> <p>Elur-meta Bilkura Elur-egotzi Elurmeta</p> <p>Elur-erauntsia Elur-eraso Elur-erauntsi (elhür e(r)auñtsi, elhur erauntsi, elur erauntsi) Elur inotsi Elurketa Mataza</p> <p>Elur apurra Elur matxar, Txamar</p>	<p>Elur-jausia Abalantx(a) / (Avalantxa) Ausa Axka Elur-amil (Edurramil) Elur-balantxa (Edurbalantxa) Elur-batu (Edurbatu) Elur-bildu (Elorbildo, Elurbildu) Elur-bola (Edurbola) Elur-egotzi (Edur-egotzi) Elur-eten (Elurreten) Elur-ikara (Edurrikara) Elur-gerriratu (Elugerriyetu Elurgerrietuba) Elur-irristu(Elurreirrixtu) Elur-jaitsi (Elurjetxi) Elur-jausi (Edur-jausi, Elurjauzi) Elur-kolpe (Edurgolpe) Elur-laprastara (Edurlaprastara) Elur-lausaro (Elurrasaro, Elursaro) Elur-lauso (Elauso, Elhauso, Elhur-auso, Elhur-oso, Elhürrauso, Elhurroso, Elhürroso, Elhürroso, Eluoso, Elurrauso, Eluso) Elur-lurta (Elhür lurta, Elhur-lurta, Elhürlürta, Elhürta, Elurta) Elur-luizi (Edurlubesi, Edurluetzi, Edurluizi)</p>	<p>Elur-lurbehera (Edurluperixe) Elur-mendi (Edurmendi) Elur-meta Elur-monton (Elurmonton, Elurmontu) Elur-montor (Edurmontor) Elur-mukuru Elur-narkada (Edurnarkada) Elur-narra(da) (Edur-narra, Edurnarrada) Elur-narras (Edurnarras) Elur-narratu (Edurnarratu) Elur-lehertze Elur-olde (Elurrolde) Elur-pilota (Elur-pelota) Elur-pila (Edurpilla, Elurpilla) Euri-jausi (Euriausi) Korrikune Korrituba Lauso Litatu Lurbehera (Luperixe) Lurte Lurtatu (Lurthatü) Montor Narkada Satarabi</p>
48. taula. Elurra: Kantitatea		

48. taulako elur-jausi kategoriari buruzko termino gehienak *EHH*atik jasota daude.

Kantitate nozioari erreparatuz, bere baitan honako kategoria hauek biltzen dituela aipatu behar da: Elurtza, Elur-erauntsia, Elur-jausia, Elur-meta eta Elur apurra. Guztiok, nola edo hala, zenbatekotasuna daukate bere barnean.

“Elur larria egiten duenean” (Harluxet) gertatzen da elurtza (*edurtza*, G-Eibar: Etxebarria, 1965-66); izan ere, *-tza* atzikiak eskuarki ugaritasuna adierazten du beste eremu batzuetan; adibidez, “basatza”, “harritza”, “hareatza”...; *elur-aldi* (*edur-aldi*) elkarketa itxuraz

denbora nazioari dagokiola badirudi ere, jasotako lekukotasunak bestelakoa pentsatzera. Izan ere, honela jasota dago Eibar aldean: “Oiñgo *edur-aldixa* lakorik ez da izan urte askuan” (Etxebarriak, 1965-66); *elur-jauste* (*edur-jauste*) elkarketan nolabaiteko jarduera egonik ere, aurreko kasuan bezalaxe, Errose Bustintza (*DRALV*) idazlearen esaldiak argi apur bat ematen du: “Une aretan, gau aretako *edur-jauste* ugaria atertu egin zan”. Hortaz, *elur-jauste* elurra egin eta egin duela erabiltzen bide da; *elurketa* dela-eta, *elur-aldi* kasuaren antzera, ematen du denbora eta kantitatea nahasten direla batzuetan, batez ere, egurats-hitzei lotutakoetan: *ekaizte*, *elurte*, *eurite*, *haizete*, *harrite*, *izozte*, *sikate*... Nafarroako zenbait tokitan *-keta* atzizkia (*DVEF*) erabiltzen da adiera horretan: *haizeketa*, *elurketa*, *izozketa*..., garaia adierazteko, alegia. Hala ere, une eta toki batean zehatz eroritako elur-kantitateari ere legokioke; *elurte* hitza oraintsu aipatu da. Denborazko atzizkiak *-te* badauka ere, ugaritasuna ere ematen du aditzera. Horregatik, *elurte* batzuetan “elur-denboraldia” da eta beste batzuetan, “elurtza”.

Beste kategoria bat Elur-erauntsia da, hau da, “atmosfera-gertakariez —kasu honetan, elurra— eraso, ekaitza” (Harluxet). Honako termino hauek jaso dira corpusean: *elur-eraso*, *elur-erauntsi*, *elur-inotsi*, *elurketa*, eta *mataza*. Lehenengo hitz elkarketan (*OEH*) izen bihurturiko *eraso* aditza hemendik etor liteke: **ea-ra-so*. **Easo* aditza *jaso* bihurtuko zen, nonbait, eta *-ra-* aditz faktitiboak sortzeko antzinako artizkia da. Beraz, gaur egungo sistemaren arabera, “jasoarazi” edo izango litzateke. *Eraso* aditza fenomeno atmosferikoetan, “euria, elurra, txingorra, haizea, etab. gogor aritu” (Harluxet); *elur-erauntsi* (*elhür e(r)auuntsi*, Z-Altzai: *EHHA*), elhur-erauntsi (*DRALV*), elur-erauntsi (goi-nafarrera: Mokoroa, 1990), eta *elur-inotsi* elkarri loturik daude: izan ere, *inotsi* **enautsi*-tik etor liteke, mendebaldeko euskaran “jario” edo “isuri” esan nahi duena; Azkuek adibide bat ematen du bere hiztegian (*DVEF*): “Euriari badiñotso edo biñotso (Llueve fuerte)”. *Erauntsi* aditza **e-ra-nautsi*-tik etor liteke. Aditz hori ostagiekin, fenomeno atmosferikoekin, ere erabiltzen da; adibidez, *Euriari erauntsi dio* edo *Elurrari darauntso*. Bestalde, *elurketa* berba, aurreko kategorian aztertutik, honetan ere sar liteke ezberrik gabe. Azkenik, *mataza* dugu. Berba horrek latinezko *mataxa(m)*-etik datorrelarik (Segura & Etxebarria, 1996: 179), bizitasun handia hartu du herri-iruditeriaren adimen-begiari esker. Dirudenez, jatorrizko esanahia “harila, artilezko mataza” izatetik “hari-matazaren itxura hartzen duenaz esaten dena” (Harluxet) izatera pasatu da, mendeak joan, mendeak etorri. Horrela “hodei-mataza beltzak” “ke-mataza lodi zikin bat”, “nahastea, korapiloa” eta elur-malutak ere adierazteraino ere heldu da. Kasu honetan nabarmena da iruditeria *elur-erauntsia* esangurarekin (B-Lekeitio, G-Tolosa: *DVEF*): horrelakoa hamaika mataza airean bezalakoa izan liteke, jakina; ikuskizun paregabea, inondik ere; izan ere, adimen-begiak era horretara irudikatzen du elur-erauntsia.

Hurrengo kategoria, ugaria eta interesgarri askoa, Elur-jausia da. Berba hori aukeratu da azken urteotan euskara batuan gailurtu eta nagusitu baita, baina beste hitz asko erabil litezke. Corpusean diren 84 aldaerak oparotasun eta aniztasunaren isla baizik ez dira. Gehientsuenak ahozko terminoak dira, *EHHAtik* ateratakoak²².

Bestalde, haietariko asko ez dira ohiko hiztegi eta corpusetan aurkitzen. Jarraian corpuseko item guztiak adimen-begiak eraturiko herri-iruditeriaren arabera sailkatu eta aztertuko dira.

a. Hasteko, bere barnean *narra* adierazia duten terminoak aztertuko dira, hau da, “gurpilik gabeko gurdi-modukoa, bere gainean jartzen diren gauzak herrestan eramateko erabiltzen dena”-ren ingurukoa edo “oholen edo adarren multzoa, goldatu den lurreko mokorrak apurtzearen gainean gauza pisuak jartzen zaizkiona eta arrastaka eramaten dena”-ri buruzkoa (Harluxet). *Narras* ere “herrestan, arrastaka doana” da eta *laino narras* “lurrazaletik hurbil dagoena eta higitzen dena”. Berbak honako hauek dira: *elur-narra* (*edur-narra*, G-Oñati: *EHHA*), *elur-narkada* (*edurnarkada*, B-Larrabetzu: *EHHA*), *elur-narrada* (*edur-narrada*, B-Zornotza: *EHHA*), *elur-narras* (*edurnarras*, B-Errigoiti: *EHHA*) eta *elur-narratu* (*edurnarratu*, B-Orozko: *EHHA*). Berba guztiok Euskal Herriko mendebaldean, bizkaieraz, erabiltzen dira; hortaz, hiztunen adimen-begiak “herrestan, arrastaka doan elurra” (Harluxet) aditzera ematen du. *Elur-laprastada* (*edurlaprastara*, A-Aramaio: *EHHA*) aurrekoaren antzeko adierazia da, baina beste ñabardura xehe batekin: “erraz labaintzen dena, hau da, irristakorra”, *laprast* barbari loturikoa, alegia. Corpusean dagoen elkarketa bakarra *elur-laprastada* da (*edurlaprastara*), Arabako Aramaio herrian erabiltzen dena. *Elur-irristu* elkarketa (*elurreirristu*, N-Sunbilla: *EHHA*) sail honetan ere sartzekoa da; izan ere, *irristu* irrist eta irristaturi loturik dago, “gainazal leun batean oztopotik gabe mugitu; gainazal leun, busti, izoztu baten gainean ibiltzean oina zoruan finkatu gabe, haren gainean mugitu, oreka galtzeko arriskuan” da (Harluxet). Sail honetan ere *korrikune* eta *korritua* (*korrituba*) sar litezke (*EHHA*); biok, antza, “korritu” aditzarekin zerikusia daukate. Lehenengoa, Getxon (Bizkaia) erabiltzen da eta bigarrena, Urdiainen (Nafarroa).

b. *Elur-luiziren* inguruko terminoak, hau da, “jausi, erori edo amiltzen den elurra”-ren inguruan ugari dira (Harluxet). *Luizi lur* + *bizi*-tik bide dator; beraz, bizirik dagoen edo mugitzen den lurra. Honako hitzek hauek dute zerikusia: *elur-amil* (*edurramil*), *elur-jausi* (*eduriasu*, *edur-jausi*), *elur-luizi* (*edurlubesi*, *edurluetzi*, *edurluizi*, (*elur-*) *lur behera* (*edurluperixe*), *elur-jausi* eta *elur jaitsi* (*elurjetxi*). Horietaz gain, Zuberoa eta Erronkari aldean

²²https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_ehha&view=frontpage&Itemid=466&lang=eu&testua=&gaia=Elurra%2Beta%2Bhotza&mapa=264&lekua=

elur-lurtaren ingurukoak. *Lurta* hitza *luiziren* kidekoa da: *elhür-lurta*, *elhur-lurta*, *elhürlürta*, *elhürta*, *elurta*, eta *lurthatü*; Gipuzkoa aldeko *elur-eten* (*elurreten*) terminoa; Nafarroako Sakana aldeko *elur-gerriratu* elkarketa (*elugerriyetu*, *elurgerrietuba*) eta *litatu* berba, ekialdeko euskalkietan erabiltzen dena.

Edurramil terminoa Oñatin (Gipuzkoa) jasota dago (*EHHA*). Azpimarratzekoa da *elur* eta *amil* berben arteko elkarketa. *Amildu* aditza arrunta izanik ere, *amil*, izen gisa erabiltzeak ez dirudi sarritan gertatzen denik; bai, ordea, *amildegi* terminoa; *edur-jausi* elkarketa Bizkai aldean erabiltzen da gehienbat (Labayru Hiztegia). Esanahia argi dago: “jausi edo erortzen den elurra da”; beraz, nahiko deskriptiboa da; *elur-jauzi* eta *elur-jaitsi* elkarketak horretatik ere hurbil daude, nahiz forma desberdinak izan; *edurluizi*, aipatu bezala, *elur + lur + bizi*-tik bide dat Zegama aldean (Gipuzkoa) erabiltzen da (*EHHA*). Ziur asko *luiziren* analogiaz sortua da. Bi aldaera, *edurlubesi* eta *edurluetzi*, Mendaron eta Bergaran (Gipuzkoa) erabiliak (*EHHA*), hurrenez hurren, bitxi samarrak dira, non eta *elur + lur + bizi*-tik etorriko baitira. Izan ere, baliteke *lubesi* eta *luetzi lur+bizi*-tik etortzea. Hala eta guztiz ere, hiru herriok elkarretatik hurbil samar daudenez gero, ez litzateke harritzekoa izango termino bera erabiltzea. Azkenik, *elur-lurbehera* (*edurluperixe*) hitz elkarketa norabidea adierazi arren, aurrekoen tankerakoa da, inondik ere. *Luperixe* Bolibarren (Bizkaia) baino ez da erabiltzen, eta *eduluperixe* alboko Markinan (*EHHA*). Ziur asko, analogiaz sortuak, zeren *luperixe* (*luperia*) luizia aditzera emateko erabiltzen baita; beraz, **eduluperixe* itxura guztien arabera, logikoagoa izan arren, ez da halako terminorik jaso, *eduluperixe* baino. Horrelakoa da hiztunen adimen-begia. Agidanez, *luperixe* berba iharturik dago, eta horrexetatik sortu da *eduluperixe*. Hiztunak ez du *lur*-hasierako osagaia gogoan hartu. Denbora aurrera doan heinean, hiztunak hitz batzuen kontzientzia galtzen du.

Bestalde, Zuberoa eta Erronkari aldeko berben sailean, besteak beste, *-elhür-lurta* (Z-Sohüta: *EHHA*), *elhur-lurta* (zuberera: *DVEF*), *elhürlürta* (Z-Larraine: *EHHA*), *elhürta* (Z-Pagola: *EHHA*), *elurta* (Erronkari: Estornes, 1997), eta *lurthatü* (Z-Barkoxe: *EHHA*)–, jatorria *lurta* hitzean bertan dagoela ematen du. Horrek berez *luizia* adierazten du, eta hortik *elur* berbarekin zenbait elkarketa sortu ditu. *DRAEk*, “alud” hitza dela-eta, hauxe dakar: “*alud*. (De prerromano; cf. vasco *lurte*, derrumbamiento de tierra)” (*DRAE*). Ez da aurkitu delako *lurte* aldaera hori, baina bai, gaur egungo aragoieraz eta esanahi horixe dauka. Erronkari ondoko Aragoiko haran batzuetan gaur egun oraindik ere erabiltzen dira aragoieraren hizkerak. Beraz, ez da zentzugabea pentsatzea euskal substratua nolabait bizirik dagoela aragoieraren lexikoaren eremu batzuetan. Zilegi bekit interneteko aragoierazko aipu hau *lurte* eleari buruz: “Un **lurte** u **lit**, ye o esplazamiento entabaxo d'una ladera d'una importán cantidá de nieu, que puede

encorporar parti d'o sustrato y d'a cubridura bechetal d'a montaña. Pueden estar naturals u prebocatos por l'ombre”²³.

Era berean, *elur-eten* (*elurreten*) hitza gure datu basean Gipuzkoa aldeko Urretxu eta Errezil herrietan daukagu jasota (*EHHA*). *Lurtarekin* gertazen den bezalaxe, *lurreten* hitz soilak *luizia* ere esan nahi du, hortaz, *lurretenik*, *elurretenera* igarotzea erraza da oso. Adimen-begiak sorturiko irudia garden askoa da: elurra “eten” egiten da.

Litatu terminoa Lapurdiko Makea eta Nafarroa Behereko Bidarra herrietan bildu da eta berezko esanahia “lurrez eta etxez mintzatuz, erori” esan nahi du (*EHHA*). Azaldu bezala, maiz errepikatu ohi den fenomeno da; badira hitzak luiziak nahiz elur-jausiak izendatzeko balio dutenak.

Elur-gerriratu elkarketa Nafarroako Sakana aldeko Arbizu eta Dorrao herrietan jasota dago. Berez, *gerriratu* aditzak “lurra mugitu maldan behera” esan nahi du, Sakanako hizkeren araberrako idazkera batua (Erdozia, 2007). Beraz, beste lerratze bat, “*lurretik elurrera*”.

c. *Elur-meta* edo elurra biltzearen ingurukoak. Bertara hainbat aldaera eta adierazteko modu biltzen dira. Guzti-guztiak elurraren metatze eta “pilatasuna” adierazten dute. Adierazle desberdinak badira ere, sakonean adierazi bertsua daukate. Gauzak horrela, honelako sailkapena egingo da:

c.1. *Batu* eta *bildu* aditzaren ingurukoak: *elur-batu* (*edurbatu*) eta *elur-bildu* (*elurbildu elurbildo*). Lehenengoa Arrietan (Bizkaia) bildurik dago (*EHHA*). Izan ere, mendebaldeko euskaran arrunta da *batu* aditza beste euskalki batzuetan *bildu* edo *jaso* aditzen esanahiarekin erabiltzea. Horrela, *elurbildu* eta *elurbildo*, Gipuzkoan (Andoain: *EHHA*) eta Nafarroan jasota daude (Beruete: *EHHA*), hurrenez hurren. Bestalde, *elur-bildu* “mendietako leku garai eta laiotzetan hilabete askoan irauten duen elurra” (Harluxet) ere izan daiteke

c.2. *Bola* eta *pilota* izenei buruzkoak: *elur-bola* (*edurbola*) eta *elur-pilota* (*elur pelota*). Nabari denez, lehenengoa, *edur* berba dela-eta, Bizkai aldean bildu da, Lemoan (*EHHA*) eta bigarrena Uztarrozen (Erronkari-Nafarroa: *DVEF*).

c.3. *Meta* berbadunak: *elur-meta*. Meta “lurrean gauzak elkarren gainean jarriz egiten den pila” da (Harluxet). Elkarketarik ezagunena, “belar-meta” da eta baliteke adimen-begiak analogiaz beste hori sortzea: *elur-meta*. Gipuzkoan (G-Elduain: *EHHA*) eta Lapurdin (lapurtera: *DVEF*) erabiltzen dira.

c.4. *Montor* eta tankerako berben gainekoak: (*elur*)-*montor* (*edurmontor*, *elurmonton* eta *elurmontu*). (*Edur*)-*montor* Bizkaiko Gernika (*DVEF*) eta Mungia (*EHHA*) herrietan

²³<http://an.wikipedia.org/wiki/Lurte>

erabiltzen da. Izan ere, bertako hizkeran *montor* berba “mendixka edo muinoa” da. Beraz, “menditasun”-aren ideiarri jarraitzen dio adimen-begiak. Kontzeptu horretatik oso hurbil dira *elurmonton* eta *elurmontu* terminoak, Berueten (Nafarroa: *EHHA*) eta Hernanin (Gipuzkoa: *EHHA*) erabiliak.

c.5. *Mendidun* elkarketa: *elur-mendi*. Berau aurrekoekin batera sar baliteke ere, Nafarroako Erratzun (*EHHA*) eta Bizkaiko Uribe-Etxebarrin (*edurmendi*: *EHHA*) baliatzen duten elkarketa honek are handiagoa ematen du. Badirudi adimen-begiak bestelako mailakatzea egiten duela eta *mendi-montor* eta enparauak baino handixeagoa dela.

c.6. *Mukuru* aditzondoaren ingurukoak: *elur-mukuru*. Aditzondo honek “zerbait gainezka dagoela” adierazten du (Harluxet) eta gehienbat ekialdeko euskalkietan erabiltzen dute. Elkarketa hau Leitzan (Nafarroa: *DVEF*) bildurik dago.

c.7. *Pila* izena daukatenak: *elur-pila* (*edurpilla* eta *elurpilla*). Azken hau *mukuru*, *meta* eta *montor* hitzen ildotik doa. “Metatasun”-aren ideia ematen du aditzera, hau da, pilatzen den elurra. *Edurpilla* Oñatin (Gipuzkoa: *EHHA*) jasota dago eta *elurpilla* Donostian (*EHHA*).

Horiokin guztiokin batera nolabaiteko mailakatze bat egin daiteke txikienetik handienera. Honela geratzen da: *elur-bildua* => *elur-bola* / *elur-pilota* => *elur-meta* / *elur-pila* => *elur-mukuru* / *elur-montorra* => *elur-mendia*. Adierazgarria da oso euskalkietako aldaera desberdinak egin arren, sakonean eta adierazian eduki bertsua daukatela, hots, elurraren metatzea. Dirudenez, era bateratsuan jokatu du hainbat hiztunen adimen-begiak.

d. *Elur lausoa* eta kideko aldaerak, hots, elurrak lausotzen dueneko. Kasu honetan elurraren jausteak berak eragiten duen ikusgaitasuna. Ez da ugaritasuna edo elur-metatzea, elurroldea bera oztopo bihurtzen da ikusi ahal izateko. Gauzak horrela, makina bat aldaera dira euskara batuan nagusitu den *elurrauso* berbaren antzekoak.

Elauso: Aldude / Uharte-Garazi (Nafarroa Beherea): *EHHA*.

Elhauso: Herria aldizkaria: Zuberoa. *DRALV*.

Elhur-auso: Zuberoa. *DVEF*.

Elhur-oso: Zalgize (Zuberoa). Lhande, 1926.

Elhürrauso: Larraine (Zuberoa). *EHHA*.

Elhurroso: Gamarte (Nafarroa Behere). *EHHA*.

Elhürroso: Altzai eta Urdiñarbe (Zuberoa). *EHHA*.

Eluoso: R. Intzaurreta; Herriak aldizkaria. *DRALV*.

Elur lauso: Arnegi (Nafarroa Beherea) / Eugi (Nafarroa). *EHHA*.

Elurlausaro: Goizueta (Nafarroa). *EHHA*.

Elurlauso: Aniz (Nafarroa). *EHHA*.

Elur-lauso: Ainhoa (Lapurdi). *EHHA*.

Elurrasaro: Ezkurra (Nafarroa). *EHHA*.

Elurrauso: *DVEF*.

Elursaro: Irisarri (Nafarroa Behere). *EHHA*.

Eluso: Ezterenzubi (Nafarroa Behere). *EHHA*.

Lauso: Alkots (Nafarroa). *EHHA*.

Aldaera horietan antzeman daitekeenez, Nafarroa eta Nafarroa Behereko zenbaitek *lauso* barik, *lausaro* daukate elkarketan. Berba hori hizkera batzuetan “lore hautsa” izan daiteke. Horrek nolabaiteko hautsa harrotzen duenez gero, bertatik etor liteke, zeren elur-jausiak sekulako elur-hautsa harrotzen baitu. Horixe izan liteke adimen-begiak hautematen duena. Bestalde, eta kontu honixe loturik, irinaren hautsak askotariko izendapenak biltzen ditu Azkueren arabera: ““Polvillo de la harina”, *lauso* (vizcaino, guipuzcoano-t-us, alto navarro-b, Añibarro), *lausaro* (guipuzcoano, alto navarro), *irin-errauts* (bajo navarro-ald-s, roncalés)” (*DVEF*). Beraz, sakonean nolabaiteko batasuna igartzen da *lausaro* berba daukaten hitzen artean: *elur-lausaro* = elur-jausia; *lausaro* = lore hautsa eta irinaren hutsa.

e. *Abalantxa* maileguaren ingurukoak. Frantsetik gaztelaniara, eta hortik euskarara pasatu bide da. Frantsesez *avalanche* da. *Abalantx* berba Beskoitzen (Nafarroa Beherea: *EHHA*) jasota dago; *abalantxa* Bizkaiko Elantxobe eta Nafarroa Behereko Armendaritze herrietan (*EHHA*); *avalantxa*, -v- eta guzti (agian, horrela ahoskaturik), Lapurdiko Bardoze herrian (*EHHA*) eta azkenik, elkarketa bat, *elur-balantxa* (*edurbalantxa*) Gipuzkoako Leintz-Gatzaga herrian (*EHHA*).

f. Adimen-begiak sorturiko beste sailtxo bat *elur-ikara* (*edurrikara*) eta *elur-kolpe* (*edurgolpe*) elkarketek osatzen dute. Biok Bizkaian jasota daude, Elorrio (*EHHA*) eta Bakio herrietan (*EHHA*), hurrenez hurren. Biek ala biek sakonean kontu bertsua adierazten bide dute, “elurraren ikara eta kolpea”, alegia. Elkarketa honetan ikara eta kolpea kontzeptuak gorago adierazitakoei nagusitzen zaizkie, hots, elurra herrestan, jaustea, metatzea edo lausotzea. Hori ez da garrantzitsuena, “elurrak ematen duen kolpea edo egiten duen ikara” baizik. Horrelaxe ikusten du hitzunen adimen-begiak.

g. Bestelako izendapenak: *ausa*, *axka*, *elur-lehertze*, *elur-olde* (*elurrolde*), *huri-jausi* (*euriausi*) eta *satarabi*. *Ausa* Zuberoa aldean erabiltzen da elur-jausia adierazteko (Lhande, 1926). Gaitza da esaten *lausorekin* zerikusia daukan ala ez. Izan ere, gorago aipatu denez, Zuberoan *lausori* uztartutako beste elkarketa batzuk aurkitu dira. Nolanahi ere, *ausa* hiztegietan

aparteko eletzat hartuta dago. *Axka* berba Azkueren hiztegian (*DVEF*) agertzen da, eta haren arabera goi-nafarreraz erabiltzen da. *Elur-lehertze* elkarketa Arrangoitzen (Lapurdi: *EHHA*) bildurik dago eta zer adierazi nahi duen nabari da. Ekialdeko euskalki batean erabiltzen den aldetik, baliteke “elurak eztanda egin” esan nahi ez izatea, “elurak zanpatu edo zapaldu” baizik. Bestalde, inguru berean *lur-lehertze* elkarketaz baliatzen dira *luiziari* irizteko. *Elurrolde* hitza azken aldi honetan sarri ikusten da hedabideetan *elur-jausirekin* batera. Nahiz eta harrigarria izan, ez dugu ahoz jaso inongo inkestatan edo herri-hiztegitan, Elhuyar Hiztegian baizik. Beraz, ikerkizun geratzen da. *Uholde* berbaren eraginez sortu eta zabalduko zen? Kontuak kontu, gaur egun ikaragarri hedatu da hitz hori baina *OEHN* ez dago inongo aztarnarik. *Euri-jausi* (*euriausi*) terminoa Bizkaiko Kortezubi herrian erabiltzen dute bertako hiztunek (*EHHA*). Bitxia da oso, *edur* agertu barik *euri* berba agertzen baita. Handik hurbil, Arrietan, elur-maluta txikiari irizteko *euri txingo* elkarketaz baliatzen dira. Beraz, antzeko fenomeno da. Segur asko hiztunak ez dauka gogoan elkarketa hitzez hitz, oso-osorik baizik. Hortik etor liteke horrelako bilakaera. Inguru hartan, Gernikan, hain zuzen ere, ez aspaldi *kafeko(n)letxe esne(g)az* erabili ohi zen barra-barra “kafesnea” eskatzeko. Horixe entzun izan dut behin baino gehiagotan. Hortaz, nolabaiteko lexikalizazioa eratu dela ematen du. Azkenik, *satarabi* berba dugu. Azkuek jaso zuen bere hiztegian (*DVEF*) eta bizkaieraz erabiltzen zela baizik ez zuen adierazi, inongo herri edo euskalkirik aipatu gabe. Eguraldi kontuetan, esanahi askotarikoa dugu termino hau. Izan ere, Ondarroan (Bizkaia) eta behe-nafarrera euskalkian, euri-zaparrada izendatzeko baliatzen dute eta *satarabi* Orozkon (Bizkaia) haize-zurrunbiloa da.

Horretaz gain, kantitate nozioari dagokionez, beste bi kategoria geratzen dira: Elur-meta eta Elur-apurra. *Elur-meta* haizeak pilatutako elurra da. Datu-basean hiru hitz bildu dira hori izendatzeko. Lehenengoa *bilkura* da eta “bilera” edo “elkartea” adierazteaz gain, “pilaketa” ere esan nahi du. Lhandek jasotzen du bere hiztegian (Lhande, 1926); bigarrena, kategoria honi izena ematen diona da, *elur-meta* (*elhurmeta: DRALV*) elkarketa da. Gorago aipatu bezala, *elur-jausia* aditzera emateko ere erabiltzen da. Azkena, *elur-egotzi* (*erurregotzi*) Azkuek ere jasotzen du bere hiztegian (*DVEF*) eta Orozkon (Bizkaia) erabiltzen dela agertzen du: izan ere, *egotzi* aditza erabiltzen da Arratian (Bizkaia) “elurra egin” esateko, *edurra egotzi* (*DVEF*), alegia. Beraz, adimen-begiak norbaitek elurra egotzen duela ikusten bide du.

Azkenik, geratzen den beste kategoria Elur-apurra da. Herri bakar batean, Oñatin (Gipuzkoa) bildu dira bi termino: *elur-matxar* (*edur matxar*) eta *txamar* (Izagirre, 1959). Itxuraz, *txamar samar*-etik etor liteke, eta hortik bokal-aldaketaren bidez *txamar*.

4.5.1.3. Kalitatea

Elur-maluta txikia	Elur- maluta handia	Elur-geruza mehea	Elur izoztua
Bolisa Elur geldo (Edur geldo) Elur xehe (Edur seye) Elur-gilo (Elur gillo) Elur-lapatsa (Edur lapatxa) Elur-metxa (Edur metxa) Elur-pikor Elur-pikorta Elur-pinporta Elur-txingo (Edur txingo) Elur-xintxar Elur xehe (Elurtxe) Eluts(a) Kizkori Pirrina Txaparrada Txirkora	Elur-gixi (Edur gixi) Elur-mataza(Elur matasa) Elur-xafla (Elur zafla)	Elur-gezal (Edur-gesal, Edur-k(r)ezal) Elur-lahina (Elhur-lahiña) Elur-telada Gezal Kresal	Elur-lakatz Kaparra
Ia urtuta dagoen elurra	Zapalduta dagoen elurra	Lurra guztiz zuritzen ez duen elurra	Oinetakoei itsatsitako elurra
Baltsa (Baltza, Batz) Elur-baltsa (Elur balsa, Elur-baltza) Elur-basa Elur-gezal Gezal(e) Salara Txarpaleta	Elur-salda (Edur sald(r)a)	Elur-lapar (Edur lapar) Elur nabar (Edur nabar)	Kalotxa Txurlo
49. taula. Elurra: Kalitatea			

Hirugarren nozioari dagokionez, kalitatea, honako kategoria hauetan banatu da corpusaren arabera: Elur-maluta txikia, Elur-maluta handia, Elur-geruza mehea, Elur izoztua, Ia urtuta dagoen elurra, Zapalduta dagoen elurra, Lurra guztiz zuritzen ez duen elurra eta Oinetakoei itsasten zaien elurra.

Lehenengo biak elur-malutaren tamainari buruzkoak dira; txikia dela-eta, zalantza handi samarra gertatu da horrelakoak sailkatzerakoan. Izan ere, batzuk aurreko kategoria batean sartu dira, adibidez, *pikorta*, nolabaiteko “garautasuna” adierazten baita: “garau edo pikorta moduko elur-maluta sikuak” (Harluxet). Ohartaraziko dugu termino batzuk biotan direla, nolakoa den emandako deskripzioa. Elur-maluta generikoaren kasuan bezalaxe, sailkapen etnosemantikoa eramango da aurrera. Kontuak kontu, hauxek dira elur-maluta txikiari irizteko berbak: *bolisa*, *elur geldo*, *elur-gilo*, *elur-lapats*, *elur-metxa*, *elur-pikor*, *pikorta*, *elur-pinporta*, *elur-txingo*, *elur xehe (elurtxe)*, *elutsa*, *kizkori*, *pirrina*, *txirkora* eta *zaparrada*. Segidan, adieraziaren araberako ikerketa eta sailkapena egingo da:

a. Beste hitz batzuekin harreman handi samarra dutenak, nolabaiteko irudi metaforikoa adierazten dutenak:

a.1. Lehenengo terminoaren berri, *bolisa*, J.M Iribarrenek (1952) eman zuen. Elur-maluta txikia izateaz gain, Zangotzan (Nafarroa) “polvo de ceniza aventado” zela aipatu zuen. Beraz, errautsek eta elur-maluta txikiek elkarren antz handia badute adimen-begiaren arabera. Era berean, hitzaren jatorrian arakaturaz gero, aurkitu da DRAEk ere badakarrela sarrera bat:

bolisa. (Del lat. *pulvice(us, de pulvis, polvo). 1. f. Ar., Nav. y Sev. pavesa. Eta hitz horretara joz gero, honako hau: *pavesa*. (Del lat. *pulvisi(a, de pulvis, -e(ris, polvo). 1. f. Partecilla ligera que salta de una materia inflamada y acaba por convertirse en ceniza. estar alguien hecho una ~. 1. loc. verb. coloq. Estar muy extenuado y débil. ser alguien una ~. 1. loc. verb. coloq. Ser muy débil y apacible. (DRAE)

Universitat de Barcelonak aurrera daraman “Paremio Rom” izeneko proiektuan (Paremiología romance: refranes meteorológicos y territorio) hauxe azaltzen da: “*Bolismas* son pequeños cristales de hielo (romboedros) *toscón*, bien distintos de los esponjosos *copos*. Esa nieve, dura, como sal, que hiere el rostro si hay ventisca (mata crabas...), suele durar muchos días sin licuarse”²⁴; *Enciclopedia aragonesa*, bertako aragoieraren hiztegi batek hauxe dakar: “*bolismas* en Bielsa (Huesca), cada una de las partículas de nieve arrastrada por el viento”²⁵. Entziklopedia horretan ere Zaragozako Daroca herriko hizkeraren berri ematen da: “*bolisa* - Se usa con la nieve, para decir que caen bolisas cuando llueve y nieva alternativamente, es decir que es medio agua y medio nieve”. Bestalde, Zaragozako Sause (Sos del Rey Católico) herriko hizkera azaltzen da. Bertan *bolisa* ere agertzen da: “*bolisa*. n.m. pavesa; copo de nieve menudo y claro”²⁶. Berrikiago Viñasek ere hitz horren definizioa eman du: “Minúsculo copo de nieve que suele caer al principio de una nevada, de tamaño y aspecto similar a la caspa. Término de uso común en la cuenca minera turolense” (Viñas, 2019). Beraz, horretatik guztitik ondoriozta liteke hitz hori latinetik etorria dela, eta Nafarroako euskaran “elur-maluta txikia” adieraztea ez dela kasualitatea. Izan ere, *bolisaren* bitarteko *pavesa* berbaren bigarren adiera “errauts bihurtzen den txatala da” (Harluxet); Bielsa herrian (Huesca) dagoeneko elurrari egiten zaio aipamena, “haizeak herrestan eramandako elur zatiak”; Darocan “elurra eta euria aldi berean izaten direnean” esaten omen da eta azkenik, Sausen (Sos del Rey Católico) Nafarroako adiera berbera du: “elur-maluta txikia”. Elkarren alboko hizkeretan hitz berberak agertzeak aragoieraren eta Nafarroako euskalkien artean badagoela nolabaiteko harremana ematen du aditzera.

²⁴ <http://stel.ub.edu/paremio-rom/es/refranes/si-nieva-en-bolismas-p-d%C3%ADas-tiens-caldo>

²⁵ <http://www.enciclopedia-aragonesa.com>

²⁶ http://usuarios.lycos.es/sos_del_rey_catolico

a.2. *elur-lapats* (*elur lapats* eta *edur lapatxa*). Azken hau Oñatin (Gipuzkoa: Izagirre, 1959) jasota dago eta bestea bertatik ez urrun, Ormaztegin (*DVEF*). Lehen aipatu bezala, *lapatx* edo *lapatz*, lore mota da eta *lapa-belarra* ere esaten zaio. Bestalde, *lapats* “mindu den esnean gertatzen diren pikorretako bakoitza” (Harluxet) ere izan liteke. Kategoria honetan, adimen-begiaren arabera, badirudi egokiagoa izan litekeela lorearen irudia gogoan edukitzea elur-malutaren txikitasuna hortik hurbilago dago eta.

a.3. *elur-metxa* (*edur metxa*). *Metxa* berba aztertu da aurretik Elur maluta kategoriari dagokion azterketa etnosemantikoan. Bertan elurraren guritasuna ematen duela aditzera aipatzen da dauzkan hiru adieren arabera. Elkarketa hau Bizkaiko Meñaka herrian jaso zuen Gamindek (2001c). Lekuko batek hauxe esan zion: “*Elur bola baino meheagoa da*”. Beraz, Bakio aldean (Gaminde, 1999) “elur-maluta hutsa” bada ere, handik kilometro gutxira “elur-maluta txikia” da.

a.4. *elur-bikor* (*edur pikor*, G-Eibar: Etxebarria, 1965-66), *elur-pikorta* (gipuzkera / goi nafarrera: *DVEF*) eta *elur-pinporta*: “Elur-mataza txikiak; izotz-pikor txikiz osatutako elurra” (G-Zestoa: Azpeitia, 2003: 16). Hiru elkarketok, nolabait aleekin daukate zerikusia elur-malutaren azterketa etnosemantikoan adierazi den bezalaxe. Elur-malutaren inguruko pertzepzioa dela-eta, zenbait hiztunen adimen-begiak elurra egiten ikusten duenean, hautematen duen elur-malutaren tamaina txikia izan ohi da. Horregatik, beharbada, herri batetik bestera gertatzen den nozio aldaketa, hots, herri batzuetan elurra izaten deneko maluta txikia izaten da eta txikitasun hori horrelako terminoen bitartez hezurmamiturik geratu dira. Izan ere, *bikor*, *pikorta* zein *pinporta* berbak tamainaren arabera “txiki”-tzat jo daitezke.

a.5. *kizkori*. Azkuek (*DVEF*) Leintz-Gatzagan (Gipuzkoa) topaturiko berba honek izan lezake *kizkorekin* lotura. Izan ere, *kizkor* “txirbila” edo “txirlora” da, hau da, “Ebaketa-erreminta baten eraginez harrotzen den material-zati fin eta kizkurra” (Harluxet). Adibidez, “egur hondakin txikitxoak”. Beraz, *kizkori* eta *kizkor* berbek elkarren arteko antzekotasun nabaria dute: adimen-begiaren arabera, “elur maluta txikiak” *kizkorak* bezalakoak dira.

b. Bestelako terminoak:

b.1. *elur geldo*. *Edur geldo* aldaera Markinan eskuratu zuen Azkuek (*DVEF*). Forma aldetik adimen-begiak elurraren “mehetasuna” hartzen du kontuan. Izan ere, *geldo* izenondoaren bi adierek adierazten dute “bizitasun indarrrik gabea edo argala” eta bestalde, “gauzak egiteko gogorik edo gaitasunik ez duena, motela” (Harluxet). Beraz, indarrrik gabe edo gogorik gabe jausten den elurra *geldoa* bide da.

b.2. *elur-gilo*. Andoainen (Gipuzkoa) jaso da *elurgillo* aldaera (*DVEF*). Badirudi bigarren osagaiak antzinako *-gilo / -kilo* txikigarriarekin duela zerikusia. Adibidez, “petrikilo” eta “astakilo”. Beraz, elurraren txikitasuna hartuko luke kontuak adimen-begiak.

b.3. *elur-txingo*. Azkueren hiztegian (*DVEF*) kategoria honekin zerikusia duten Gernikako hiru aldaera aurkitu dira: *edur-txingo*, *txinbo* eta *txingo*. Lehenengoa “elur-maluta txikia” den arren, beste biek “elur-maluta txiki eta lehorra” adierazten dute. Gorago aipatu bezala, nekez jakin liteke non ote dagoen muga. Aldi berean elurra ari duela ikusten duten herri bereko bi hiztunek pertzepzio desberdin samarra izan lezake adimen-begi bertsua badaukate ere. Izan ere, kasu honetan, batzuen ustez “elur-maluta txikia” dena beste batzuenek, “txikia eta lehorra” edo agian, uste dute beti ikusten dute elur-maluta txikia lehorra dela. Horretaz gain, *txingor* berbak (*txingo + (go)gor?*) hizkera batzuetan “kazkabar ale txikia” ematen du aditzera. Kontuak kontu, baliteke kointzidentzia hutsa izatea, baina Kolonbiako gaztelanian (*DRAE*), *chingo* adjektiboak “excesivamente pequeño” esan nahi du. Euskaldunek hara eramandako mailegua ala bertako hizkuntza indigenen eragina? Ikerkizun dago.

b.4. *elur xehe*. Bizkaiko Arrieta herrian erabiltzen da *edur seye* aldaera (Gaminde, 2001a). Ez ohi da arrotza izan “xehe” izenondoa ostagietan. Izan ere, “tamaina, bolumen edo neurri txikikoa” ematen du aditzera. Adibidez, Nafarroa Behereko Arboti-Zohota herrian *euri xehe* terminoa bilduta dago (*EHHA*) izendapen bera daukan kategoria horrixe irizteko. Ildo horretatik, Urretxu eta Legazpin (Gipuzkoa) “goizeko behe-laino”-ari *euri xehe-xehe* esaten diote (*EHHA*). Bestalde, *xehe* izenondoarekin zerikusia ere izan lezake *elurtxe* terminoak. *Elurtxek* “elur-maluta txikia” adierazi nahi du.

b.5. *elur-zintzar*. *Elur xintzar*, Andoainen (Gipuzkoa: *DVEF*) erabiltzen den elkarketa honek badu bere ordaina euri eta laino kontuetan ere. Kasu guztietan *zintzar* hitzaren bitartez, txikitasuna adierazten da horrelaxe hautematen baitu adimen-begiak. Adibidez, Pasaian, Andoainetik urrun ez dela, *eudi xintzar* erabiltzen dute euri mehea adierazteko. Harrieten hiztegian (*OEH*), ordea, *xintzar* berba ere bada behe-lainoa aditzera emateko. Nolanahi ere, ez dago batere garbi *zintzar* hitza berez zeri lot lekiokoen.

b.6. *eluts(a)*. Azkueren arabera (*DVEF*) Baztan aldean (Nafarroa) “elur-maluta txikia” bada ere, Izetaren arabera (1996), “toki hotza, horma edo izotza egiten duena; ospela”. Eta Oiartzunen (Gipuzkoa) antzeko esanahia bide dauka, “eguzkiak jotzen ez duen tokia” da eta (*DRALV*).

b.7. *pirrina*. Azkuek (*DVEF*) Uztarrozen (Nafarroa) bilduriko berba honek *birrinekin* izan lezake zerikusia. Izan ere, *birrin* berbak “zati txikia” edo “apurra” esan nahi du eta *birrindu*

aditzak “erabat desegin edo apurtu”. Horrenbestez, adimen-begiak horretara jo du elur-maluta txikia izendatzeko.

b.8. *txirkora*. Azkueren arabera (*DVEF*), “elur-maluta txikia” izanagatik ere, berriki egindako *Bergara aldeko hiztegian* aurkitu da berba hori herri horretan “elur pikor gogor eta hotza” dela (Elexpuru, 2004). Bada, gainera, hiztegi berean agertzen den beste aldaera bat, *txiskora*, Oñatin (Gipuzkoa) erabiltzen dena. Ba ote dauka berba horrek lehen aipaturiko *txirlorarekin* zerikusirik? Horrela izango balitz, *kizkori* hitzaren kasu bertsua izango litzateke, hau da, “egur hondakin txikitxoak”. Beraz, irudi bertsua izango litzateke adimen-begiak sorturikoa.

b.9. *zaparrada*. *Txaparrada* aldaera dauka jasota Azkuek (*DVEF*) Uztarrozen (Nafarroa). Beste inon ez da aurkitu horrelakorik. Esan gabe doa, askoz arruntagoa da *zaparrada* berba euriari lotua, “euri zakar eta sarritan laburra” (Harluxet). Beraz, herri berean bi berba erabiltzen ziren Azkuek zioenez, *txaparrada* eta *pirrina*.

Elur-maluta txikiaren ondoren, elur-maluta handia aztertuko da. Honi dagokionez, hiru elkarketa aurkitu dira corpusean: *elur-gixi* (*edur gixi*), *elur-mataza* (*edur mataza*) eta *elur xafla* (*elur zafla?*). Azken hau ez da jakiten *zafla* edo *xafla* ote den. Izan ere, *EHHAn* *zafla* eta *zaplada* jasota daude, baina sortutako irudiagatik zentzuzkoa da *xafla* dela pentsatzea. Lehenengo bi terminoak Oñatin (Gipuzkoa) batu ziren (Izagirre, 1959). Lehenengoa, *edur gixi*, badirudi tamainari berari dagokiola, *gixi* edo *kizi* eskualde bereko beste hizkera batzuetan kontrakoa adierazteko erabiltzen den arren, “apur bat”, alegia (Zuazo, 2002). Herri bereko bigarrena, *elur-mataza*, argi eta garbi adimen-begiak sortutako irudia da. Izan ere, berez mataza “harilkatzeko prest dagoen oihal zatia” da (Harluxet). Etnometeorologiaren arloan zabalduxe dago berba hau, bada honako erabilerak aurkitu dira: elur- maluta, hodeitza eta txingor-erauntsia. Azkenik, beste irudi bat dugu: *elur-xafla*. Baztan aldean (Izeta, 1996), elur maluta hutsa bada ere, Ainhoan (Lapurdi) eta Uztarrozen (Nafarroa) elur-maluta handia da (*DVEF*). Berez, xafla “luzera eta zabalera lodiera baino askoz ere neurri handiagokoak dituen objektua, bereziki metal, zur, plastiko, etab. da” (Harluxet). Hortaz, aidanez, esanahiaren hedatzea gertatu da, beste hainbat berbarekin jazo den bezalaxe. Horrenbestez ez da harritzekoa hiztunek eremu semantikoen hizkuntza beharrianak beste eremu batzuetakoen bitartez betetzea.

Hurrengo kategoria Elur-geruza mehea da. Aurrekoan bezalaxe, hiru elkarketa daude corpusean, denak Azkuek eskuratutakoak (*DVEF*): (*elur-*)*gesal*, *elur-lahina* eta *elur-telada*. Lehenengoa dela-eta, zenbait aldaera ditugu: *edur gesal* Arrasate (Gipuzkoa), *edur kesal*, *edur kresal*, *gezal*, Arratian eta Otxandion (Bizkaia) eta Baztanen (Nafarroa) eta *kresal*, Markinan (Bizkaia). *Gesal* berba esanahi askotarikoa da. Honako adierak ditu: lehenengoa, agian

ezagunean, “itsasoko ura” da; bigarrena, “itsas ura lurrintzean gelditzen den gatz-hondarra, nitroa”; hirugarrena, “gatzuna, janariak kontserbatzeko ur gatzez ase”; laugarrena, “urtzen ari den elurra” eta azkena, “haragiari, zauri bati, etab. i darion ur- edo gazur-modukoa” (Harluxet). Guztiotatik, hurbilena, eremu berari baitagokio, “urtzen ari den elurra” da. Hala ere, biok “elurra” badira ere, ez dira guztiz berdinak edo, behintzat hiltunen pertzepzioa edo adimen-begia ez da bertsua, bata “elur-geruza mehea” delako eta bestea, “urtzen ari dena”. Guztiarekin ere, adiera guztiek zerbait daukate komunean: “isurkari edo ore zurixka”. Beraz, argi samar hautematen da aitzin euskal hiltunaren adimen-begiak nolako zabaltze semantikoa egin duen sortu izan zaizkion hiltuntza-behar guztiak asetzekotan. Bigarren elkarketa, *elur-lahina* (*elhur lahiña*) Lhanderen hiltzegtik (1926) harturik dago. Beste argibiderik ez dago. Ez da batere garbi zer ote den *lahiña* elea. Horretaz gain, azkenik, Lhandek hiltzegtian (1926) batutako elkarketa, *elur-telada*. Itxuraz jatorri erromanikoko *telada* berba zenbait elkarketatan erabiltzen da. Haietarik *telada* berbak nolabaiteko geruza esan nahi duela ondorioztatzen da: adibidez, *ongarri telada* Nafarroako Erronkari haranean eta *telada* Zuberoan hau da, “satsaren gaineko geruza”; haran berean *eznetelada* erabiltzen da, hots, “esnegaina” (*DVEF*). Bestalde, *tela* eleak beste hiru adiera dauzka: “harizko ehun sarria, “zenbait likidoren gainean sortu ohi den geruzatxo”, esne-tela, esnegaina, alegia eta “arrautza-oskolaren barneko mintza” (Harluxet). Argi asko antzematen denez, adiera guztiek esanahi komuna daukate: “sortzen den edo barruan dagoen geruza”. Bestalde, gaztelaniazko *tela* hitzak badauka “esnegaina” esangura ere: “nata que crían algunos líquidos” (*DRAE*).

Elur izoztu kategoriari dagokionez, bi hitz sartu dira, *elur lakatz* (*edur lakatz*) eta *kaparra*. Lehenengoa, Izagirrek bildu zuen Oñati aldean eta “la barra de nieve helada que queda sin derretirse” zela adierazi zuen (Izagirre, 1959). Berez, *lakatz* izenondoak “latza” edo “zakarra” esan nahi du, eta, itxura denez, elur izoztuak horrelako sententzia sorrarazten du; *kaparra*, *telada* berbarekin gertatzen den bezalaxe esanahi askotarikoa da. Bestalde, Gamindek bildu zuen Bakion, eta hauxe esan zion lekuko batek: “Edurre apurtxu bet eta gero leitxu, ori de kaparrie esaten dana” (Gaminde, 1999). Horretaz gain, *kaparra*, “lur gainean sortzen den euri geruza da” (*DVEF*), eta ildo beretik Bizkai aldean “esnegaina” ere bada (Labayru Hiltzegtia). Beraz, kasu guztiotan adimen-begiak geruzaren kontzeptua nabarmentzen du; hedadura semantikoa gertatu da, eta nekez esan liteke nondik nora jazo den, hots, esnegainetik elurretara eta lur gaineko geruzara edo alderantziz.

Ia urtuta dagoen elurra dela-eta, bost termino batu dira corpusean: (*elur-*) *balsa-baltza*, *elur basa*, *elur-gesal*, *salara* eta *txarpaleta*. Lehenengo bi elkarketetarako honako aldaerak ditugu: Azkueren arabera (*DVEF*) *elur balsa* (G-Ataun), *baltza* (hainbat hiltzegtian), *batz*,

herririk gabe, *elur baltza* (G-Berastegi, Donostia), *elur basa* (L-Ainhoa) eta *baltza* (G-Oñati: Izagirre, 1959). Antzeko lau berba dira: *balsa*, *baltsa*, *baltza* eta *basa*. Bestalde, *baltsa* berba “lohia, lokatza edota elurra urtzean eratzen den ur- edo lohi-putzua” esateko erabiltzen da eta gaztelaniaz *balsa*: “(Voz prerromana). Hueco del terreno que se llena de agua, natural o artificialmente” eta “En los molinos de aceite, estanque donde van a parar las heces, agua y demás desperdicios de aquel líquido” (*DRAE*). Beraz, ildo beretiko adierak dira eta gainera, erromatarren aurreko hitza da *balsa*. Nondik ote datorren ezin jakin daiteke. Baliteke *baltzarekin* zerikusirik izatea, Berastegin eta Donostian erabiltzen den aldaerarekin (*DVEF*), hau da, horrelako kolorea hartzen baitu elurrak, egunak joan, egunak etorri. Baina arazo bat suertatzen da *baltz* ez da erabiltzen kolorea adierazteko *beltz* baizik. Hortaz, esanahi gurutzaketa gertatu dela ematen du. Berdintsu esan liteke aipaturiko *elur basarekin*. Basa berbak basatiarekin zerikusia izateaz gain, “lohia” edo “lokatza” ere bada. Beraz, urtuxe egoten den elurrak nolabait lokatzaren itxura ere hartzen du adimen-begiaren arabera.

Zapalduta dagoen elurrari buruz, Azkueren hiztegitik (*DVEF*) eskuratutako bi aldaera daude aztergai: *edur-salda* eta *edur-saldra*. Lehenengoa bizkaieraz erabiltzen dela baizik ez dakigu eta bigarrenari buruz ez dago osterantzeko informaziorik. Euskal hiztunaren adimenaren begiak buru-iruditerian sortutako irudia guztiz garbia era gardena da: zapaltzearen ondorioz, bilakatzen den elurra saldaren modukoa da, horrelako irudipena hartzen da, behintzat.

Lurra guztiz zuritzen ez duen elurrak ere badauka izendapenik euskaraz: *edur lapar* eta *edur nabar*. Biak Izagirrek (Izagirre, 1959) bildu zituen eta bi elkarketa desberdin diruditen arren, esanahi berdintsua dute, nonbait: lehenengoa, “lurra guztiz estaltzen ez duen elurra da” eta bigarrena “guztiz zuritu ez duen elurra da”. *Lapar* berbak, “laharra” edo “sasia” izateaz gain, badu beste esanahi meteorologiko bat: “zeru garbi-garbian azaltzen diren lainoak edo hodeiak”. Esanahi hori Iribarrenek (Iribarren, 1952) bildu, eta Aezkoan erabiltzen zela adierazi zuen. Ba ote daukate zerikusirik irudikatzen diren bi adierek? Badirudi baietz. Horrelaxe ikusten du adimen-begiak; izan ere, bietan, nolabait hutsunea ematen da aditzera; badago hutsunerik *edur laparren* bitartez, elurrak hutsunea uzten duelako, eta badago hutsunerik zeruan ere, hodeiak hutsunean azaltzen dira eta. Gainera, *lapar* hitzaren lehenengo osagaiak *lainorekin* (**lanno*) izan lezake zerikusia (ikus 263-264 or.). Beste elkarketa, *edur nabar*, tankera bertsukoa den arren, ematen du koloreari dagokiola, “guztiz zuritu ez duen elurra” baita; beraz, kolore nabarra hartzen du elurrak, hots, “kolore argi eta ilunen nahasteaz osatua, kolore askotakoa” (Harluxet).

Azkenik, kalitate nozio honi amaiera emateko, oinetakoei itsasten zaien elurra izango da aztergai. Bi hitz eskuratu dira: *kalotx(a)* eta *txurlo* (*DVEF*). *Kalotx(a)* berbak L/BN/Z markak dauzka; beraz, behe-nafarreraz, lapurteraz eta zubereraz erabiltzen omen da. Berari

buruz argibide asko dira, bai euskaraz, bai gazteleraz, *galocha* hitzaren bitartez. Horretatik guztitik ondorioztatzen da jatorri erromanikoko berba dela: “*Galocha*: Calzado de madera o de hierro, para andar por el lodo, kalotxa (G, NG, L, BN), galotxa (H.), eskalaproi (G, NG, L) (*DVEF*); “*Galochas*: Voz alavesa recogida por Gerardo López de Guereñu. Artilugio rústico de madera para caminar sobre la nieve” (*OEH*). “Zapato grande de goma, en que entra el pie calzado, *kalotx*, *kalotxa*, *gatotxa*” (*OEH*). Eta *DRAEn*: “*Galocha* (Del prov. galocha o del fr. galoché). 1. f. Calzado de madera con refuerzos de hierro, usado en algunas provincias para andar por la nieve, por el lodo o por suelo muy mojado” (*DRAE*).

Hori guztia dela-eta hausnarketa egin daiteke hitz horren inguruan: Segur aski jatorrizko esanguratik abiatuta, lokatzaren edo elurraren gainean ibiltzeko oinetakoa, alegia, berorietan itsasten den elurra adieraztera igaroko zen metonimia dela-bide. Horrelaxe jokutzen du zenbaitetan hiztunen adimen-begiak.

Kategoria honen bigarren berba, *txurlo*, Nafarroako Baztan haranean jasoa (*Azkue*, *DVEF*). Urte batzuk geroago, *Izetak* (1996) ez zuen batu Baztango Hiztegian. Beraz, ordurako ez ote zen erabiliko? Izan ere, *Izetak* Azkueren berbak ere sartu zituen hiztegian. Dena dela, beste inon ere ez da aurkitu berba honen gaineko iruzkinik.

4.5.1.4. Jarduera

Elurrari lotutako ekintzak				
Elurra egiteko itxura Elurretara (Edurretara) egon Elurra hasi Elurrari (Edurrari) ekin Elurrari eraso Elurrari erauntsi Elurru (Elhurtu) Elurra ari Elurra (Edurra) bota Elurra (Edurra) egin Elurra (Edurra) egotzi Elurra (Edurra) erakutsi	Elurra (Edurra) izan Elurrak (Edurrak) jardun Elurrari (Edurrari) eragon Elurrari (Edurrari) inotsi Elhurtu Elurra ari izan Elurra atarian izan Elurra eratxi Elurra erori Elurrari erauntsi Ezarri Elurra erruz egin Elurra (Edurra) alazo egin	Elurra (Edurra) garratz egin Elurrak (Edurrak) farra-farra jardun Elur-jasa lodi ari Elurra bala-bala erori Elurra gogotik ari Elurra jasa bizi-bizian erori Elurra mala-mala Elurra mara-mara ari Elurra mardul ari Elurra oparo ezarri Elurrak goitik ari Hodeiak egotzi-ahala edur jausi Mad(o)la ari Negutu, Neguketan Zara-zara jausi	Elur maluta txikiak egin Edur gazur(a) egin Edur lapatxa egin Elurrak ia zuritu Nabartu Zurinabartu Elurrak zuritu Erazarki Ezarri Gatzatu Gogortu Zuritu Elurra bigundu Lanberatu	Elurra urtu (elurra) gezaldu Galdatu Hurtu Lurmendu Mendealdu Urmeldu Elur eta izotzaren eraginez, lurra gogortu Gozakatu Elur-jausia izan Elurramila (Edurramilla) egin (Elurra) lerratu Ehusua lehertu
Nola egiten duen elurra Gilboka eta matazaka Mara-mara(i) Paupaka Zapa-zapa				
Elurra ari dueneko onomatopeia Piri-piri				
50. taula. Elurra: Jarduera				

Laugarren nozioa jarduera da. Bi kategoriatan sailka daiteke: bata, Elurrari lotutako ekintzak eta bestea, Nola egiten duen elurra. Ekintzak direla-eta, jarduerak bere baitarekin prozesua dakarrenez gero, elurra hasten duenez geroztik, elurra urtu artekoaren berri eman daiteke. Hori dela-eta, honako azpi-kategoria hauek izan litezke:

- Elurra egiteko itxura
- Elurra hasi
- Elurra ari
 - Elurra erruz egin
 - Elur maluta txikiak egin
- Elurrak ozta-ozta zuritu
- Elurrak zuritu
- Elur-jausia izan
- Elurra bigundu
- Elurra urtu
- Elur eta izotzaren eraginez, lurra gogortu

Kronologiarik egitekotan, hauxe izango litzateke jardunbidea, hasi eta buka:

Elurra egiteko itxura => elurra hasi => elurra egin (elurra erruz egin-elur maluta txikiak egin) => elurrak ozta-ozta zuritu => elurrak zuritu => elur-jausia izan => elurra bigundu => elurra urtu => elur eta izotzaren eraginez, lurra gogortu.

Segidan azaleratutako azpi-kategoria guztiak aztertuko dira. Hasteko, lehenengoa dela-eta, elurra egiteko itxura, lokuzio bakarra aurkitu da: *elurretara (edurretara) egon*. Mañarian eskuratu zuen Mokoroak (1990). Egitura bera erabiltzen da euriarekin Mundakan, *euritara egon* (Mokoroak, 1990).

Behin arriskua gauzaturik, elurra hasiko du. Azpi-kategoria hori adierazteko hiru aditz-lokuzio dira, *elurrari ekin (edurrari ekin*, B-Otxandio: Mokoroa, 1990 / G-Oñati: Izagirre, 1959), *elurrari eraso* (gipuzkera: Mokoroa, 1990) eta *elurrari erauntsi* (gipuzkera / goinafarrera: *DVEF*) eta aditz bakarra, *elurtu (elhurtu*, N-Zaraitzu, zuberera: *DVEF*). *Elurrari erauntsi* hurrengo kategorian ere sar liteke, elurra egin, alegia. Aditz-lokuzio guztien aditzak arrunt samarrak dira fenomeno atmosferikoen artean. Bestalde, *elhurtu* aditza, elurra hasi ez ezik, *elurrez estali* eta *elurra egin* ere bada.

Elurra hasi ondoren *elurra ari duela* sumatzen bada, azpi-kategoria horretarako euskarak hainbat lokuzio dauzka, honako hauek, besteak beste: *elurra ari izan* (gipuzkera: *DVEF*), *elurra bota (edurra bota*, bizkaiera: Labayru Hiztegia), *elurra egin (edurra egin*, G-Eibar: Etxebarria, 1965-66), *elurra egotzi (edurra egotzi*, B-Arratia: *DRALV*), *elurra eraitsi (elurra eraitsi*, gipuzkera: *DRALV*), *elurra erakutsi (edurra erakutsi*, B-Markina: *DRALV*), *elurra erori* (behe-Nafarrera, gipuzkera: *DVEF*), *elurrari eragon (edurrari eragon*, bizkaiera: Labayru Hiztegia), *elurrari erauntsi (elurra erauntsi*, gipuzkera: *DVEF*), *elurra izan (edurra izan*, bizkaiera: *DVEF*), *elurrari inotsi (edurra iñotsi*, bizkaiera: *DVEF*), *elurrak jardun*, besteak beste, (*edurrak jardun*, G-Eibar: Etxebarria, 1965-66) eta *elurtu (elhurtu: DRALV)*. Azpimarragarria da kasu bakar batean izan ezik —*edurrak jardun*— eta hirutan *elurrari eragon*, *erauntsi* eta *inotsi*- gainerako lokuzio guztietan *elurra* agertzen dela. Beraz, antza denez, “norbaitek” elurra bota, *egin*, *egotzi*, *eraitsi*, *erakutsi* eta abar egiten duela eta “norbaitek” *elurrari eragon*, *erauntsi* eta *inotsi* egiten diola. Horrelaxe antzematen dio adimen-begiak jarduera horri.

Behin *elurra egiten duelarik*, bi jarduera adieraz daitezke corpusean bildutako ekintzen arabera: *elurra erruz egin*, eta *elur maluta txikiak egin*. Lehenengoa ugariena da, agian hiztunaren begietarako harrigarriena izan litekeelako. Adierazleari dagokionez, lokuzio guztiek dute euren osaeran *elur* berba, bik izan ezik, *zara-zara jausi* eta *negutu*. Azken hau Izagirrek (1959) jaso zuen Oñati aldean. Aditz hori “negua heldu edo bihurtu” ere esateko erabiltzen da. Bestea, *zara-zara jausi*, jarraian aipatuko ditugun lokuzio onomatopeikoen artean sailkatzeko

modukoa da. Izan ere, Mundakan (Bizkaia) eskuratutako esaldia ondoko hau da: “Eguerdira artean eki eutsan edurrari *zara-zara jausten*” (Mokoroa, 1990). Bestalde, gainerako aditz-lokuzioak bi sailetan bana daitezke: osagai onomatopeikoak eta elurraren ugaritasuna adierazteko beste osagai mota bat erabiltzen dutenak. Gauzak horrela, batetik, onomatopeikoen artean bildutako hauexek ditugu: *elurra bala-bala erori* (gipuzkera), *elurrak farra-farra jardun* (G-Eibar), *elurra mala-mala jaitsi* (goi-nafarrera) eta *elurra mara-mara ari* (gipuzkera) (Mokoroa, 1990). Nabarmentzekoa da onomatopeia guztiek (Kontsonantea + a + Kontsonantea + a) formulari eusten diotela: bAlA, fArrA, mAIA eta mArA; izan ere, adimen-begiak K-A-K-A sekuentzia hartzen du aintzakotzat. Bestetik, Mokoroak ere batutakoak, ugaritasuna adierazten dutenen artean lokuzio hauexek dira: *elurra (edurra) alazo egin* (bizkaiera), *elurra (edurra) garratz egin* (bizkaiera), *elurra gogotik ari* (gipuzkera), *elurra jasa bizi-bizian erori* (gipuzkera), *elur jasa lodi ari* (gipuzkera), *elurra mardul ari* (gipuzkera), *elurra oparo ezarri* (gipuzkera), *elurrak goitik ari* (gipuzkera) eta *hodeiak egotzi ahala elur (edur) jausi* (bizkaiera). Horiek jaso baditugu ere, ziurrenik askoz gehiago izango dira han-hemenka Euskal Herriko herrietan. Hemen azaldutakoa, lagina besterik ez bada ere, adierazgarria da oso euskaldunen adimen-begiak nolako pertzepzioa daukan errealitatearekiko. Horretaz gain, hurrengo azpi-kategorian, elur *maluta txikiak egin*, bi lokuzio aurkitu dira: *bata, elur (edur) gazur(a) egin* eta bestea, *elur (edur) lapats egin*. Biok euskararen mendebaldekoak dira, Bolibarkoa (Bizkaia: DVEF) eta Oñatikoa (Gipuzkoa: Izagirre, 1959), hurrenez hurren. Jarduerak adierazten badituzte ere, biek malutaren tamaina dute hizpide, *gazur(a)* eta *lapats*. Gorago aztertu denaren arabera, *gazur* “esnea gatzatzean eratzen den ur gazia” (Harluxet) izateaz gain, elurbustia ere bada. Berba hori Azkuek batu zuen esaldi eder batean, elurraren prozesua adierazten duena: “Arañegun egin eban *edur-gazurea*, atzo *edur-malutea*, gaur *edur-matasea*, biar izango da *edur-kresala*” (DVEF). Beste terminoari buruz, *lapats*, aurretik sakon aztertu da, elur-maluten kategorian, hain zuzen ere. Aipatu bezala (*elur*)-*lapats*, Gipuzkoako toki askotan *elur-maluta txikia* da; beraz, oso ohikoa da aditza sortzea ere.

Elurrak jardun ondoren, batzuetan zuritu egiten du, beste batzuetan ozta-ozta zuritzen du eta beste batzuetan ez du zuritzen. Zurituz gero, hau da, lurra elurrez estalita geratuz gero, adimen-begiak honako aditz hauek sortu ditu, besteak beste: *erazarki*, *ezarri*, *gatzatu*, *gogortu* eta *zuritu*. Azken hau da, ziur asko, ezagunena eta elurraren kolorea du adierazle; *erazarki* aditza Azkuek bere hiztegian bildu, eta aezkeran erabiltzen zela adierazi zuen. Geroago Caminok Aezkoan *edazarki* bildu zuen eta hauxe agertu zuen: “sua *edazarki* esaten da gaueko su txindiak errautsez estaltzen direnean, biharamunean hor bizturik kontserba daitezen” (Camino, 1997). Garbi asko ikusten da metafora su txindiak estaltzen dituen errauts eta behea

estaltzen duen elurraren artean. Nolanahi ere, ez da beste inon aurkitu aditz interesgarri hau; *ezarri* aditza elurrarekin ere erabiltzen da, hiztegieta adiera hori agertzen ez den arren; izan ere, eskuraturiko corpusean hiru bider agertzen da. Aurrekoan azaldu da elurra erruz egiten duela adierazteko -elurra oparo ezarri-, eta beste bitan zuritu egin duela agertzeko, *elurra ezarri*: Mokoroak (1990) Ibarren (Gipuzkoa) “Bigarko *elurra ezarri*ko dala uste det” jaso zuen eta Ubidean “Bart egin dau irugarren elurraldia lenaz-ganera *ezarri* dau kana-erdi inguru”. Horretaz gain, *gatzatu* aditzaren jatorrizko esanahia (B-Orozko / N-Uztarroze / zuberera: *DVEF*) badirudi beste eremu batzuetan bilatu behar dela. Honako adiera hauek ditu: “isurki organikoak bere osagaien arteko prozesu baten eraginez solidotu” edo “mamitu, zerbaiti forma eta edukia eman” eta *elurra gatzatu* “elurra urtu gabe lurrean gelditu, zuritu” (Harluxet). Bestalde, gogora dezagun mendebaldeko euskaran *gatzatu* izena, “mamia” edo “gaztanbera” dela. Beraz, seguru asko adiera horietatik elurraren eremura pasatu da eta oso irudi ederra sortu du adimen-begiak elurrak lurraren gainean forma eta edukia hartu duela adierazteko. Beste bat *gogortu* aditza da (bizkaiera: *DVEF*). Esangura, oster, ez da hain irudimentsua, adiera zuzenagoa baitu. Izan ere, “gogortu” hainbat eremutan aplikatzekoa da eta jakina, herri-meteorologiaren arloan ere bai. Ezin uka daiteke elurrak zuritzen duenean gogortasuna hartzen duela. Aztertutakoon artean, nabarmentzekoa da ezen *gatzatu*, *gogortu* eta *zuritu* aditzek *du* adizkia eta ez *da* hartzen dutela. Horrela, *elurra gatzatu*, *gatzatu* eta *zuritu du* esaten da, norbaitek jarduera hori egingo balu bezala.

Batzuetan elurrak ez du guztiz zuritzen, makal-makal egin eta *ozta-ozta zuritu* egiten du. Horrelakoetarako Oñati (Izagirre, 1959) eta Bergara aldean (Gipuzkoa) erabiltzen den aditz bakar bat aurkitu da: *nabartu* edo *zurinabartu*. Bergarako aldeko Hiztegian definizio bikaina ematen dute: “Edurra sendotzeke egon, apur bat zurituta bakarrik. Dana *nabartuta* dao, ta Bitorixara jun in bi za?” (Elexpuru, 2004). Eskualde berean aditz horren beste adiera batekin egiten dugu topo: “Ile zuriak ateratzen direlako ilea kolore askotarikoa izan. Aspaldian majo nabartu jako illia”. Horretaz gain, oro har, euskaraz nabartu aditzak haxe esan nahi du: “orban ilunak edo arreak dituen; kolore argi eta ilunen nahasteaz osatua, kolore askotakoa”. Beraz, itxuraz, esangura-lerratze bat egon da adimen-begiak eragindakoa, analogiaren bitartez elurraren eremura. Begi-bistan da elurra *ozta-ozta zuritzen* duenean, hau da, *nabartu* egiten duenean lurgaina kolore askoz osatuagorik geratzen dela. Bergara aldean ere beste aditz bat sortu da horren bidetik: *zurinabartu*. Nabari denez, bi aditzez osaturik dago, *zuritu* eta *nabartu*.

Behin erruz zurituz gero, mendiak eta basoak elurrez gainezka lotu ohi dira, eta sarritan elur-jausiak gertatzeko arriskurik ere izaten da. Gauzak horrela, beste azpi-kategoria bat aztertzeari ekin behar zaio: elur-jausia izan. Berau adierazteko izenak aztertzean azaldu delarik

ere, harrigarri samarra iritzi liezaioke jende askok horrelako terminoak izateari. Behinolako eguraldiaren berri ematen digute horrelakoek, ezbairik gabe; adimen-begiak antzina horrela atzeman zuen. Aditzei dagokienez, hiru aurkitu dira: (*elurra*) *lerratu*, *ehusua lehertu*, eta *elurramila egin*. Lehenengoa, Nafarroa Behereko Arboti-Zohota herrian bildurik dago; bertako hizkeran, *elhürra lerratü* (EHHA). Lokuzio oso garbia da; izan ere, *lerratu* aditzak “irrist edo labain egin” esan nahi du (Harluxet). Era berean, *lerratu* aditz soila Nafarroa Behereko Ezterenzubi herrian jasota dago (EHHA). Horrezaz gain, bertan ere beste aditz-lokuzio batez baliatzen dira euskal hiztunak: **ehusua lehertu* (EHHA). Izarñoa ipini zaio jakiten ez delako zer ote den **ehusu* berba. Hitz guztiok EHHAn bilduta daude, eta Ezterenzubin elur-jausia *elus* esaten da; beraz, baliteke transkripzioa txarto egin izana, *elusua*, *ehusua*, alegia. Ildo beretik, badugu Izagirrek (1959) Oñatin (Gipuzkoa) bildutako beste aditz bat: *elurramila egin* (*edurramilla egin*). Osaerari dagokionez, batetik *edur* eta bestetik, **amil* izenak ditugu. Azken honek ez dirudi gaur egun erabiltzen denik; izan ere, izen eratorriak baino ez dira Euskal Hiztegian: *amilbide*, *amilburu*, *amildegi*... Hala ere, garbi samar dago **amil* berbaren esanahia, goitik-beherakoa, alegia.

Aurrera eginez, ordu edo egun batzuk igarorik, gehienetan elurra biguntzen hasten da. Egoera hori euskarak, besteak beste, *lanberatu* aditzaren bitartez azaltzen du. Osagaiei buruz, itxuraz lehenengoa **lanno*, eta bigarrena **bera* dira. Gogora dezagun Otxandion (Bizkaia) eta Arrasaten (Gipuzkoa) Azkuek (DVEF) *lanbera* eskuratu zuela elurbustiari irizteko. Bestalde, *lanberatu* aditzak beste adiera bat ere badauka: aroa epeldu edo hotz handi-handitik epelagora igarotzea. Azkenik, Bergara aldeko hiztegian honako hau jaso zuen Elexpuruk (2004): “Egindako elurra gorpuztu, apur bat trinkotu (Otxandio). Edurre batu eitten da, edurre puxkat *lanberatuten* asten danien, *lanberatu*. Edurre eñ barritten ezileike bolaik eñ”. Horrela definiturik ez du ematen elurra biguntzen denik, baizik eta behin lurraren gainean egonda, jausi berritan, gogortu edo trinkotu egiten dela.

Kontuak kontu, bizi garen latitudean, salbuespenak salbuespen, elurrak ez ohi du luzaro irauten, denboraren poderioz, *urtu egiten da*, alegia. Egori hori adierazteko asmoz, euskal hiztunaren adimen-begiak honako aditz hauek eraiki ditu: (*elurra*) *gesaldu*, *galdatu*, *lurmendu*, *mendealdu*, *urmeldu* eta *urtu*. Lehenengo terminoa, *gesaldu*, EHHAn bilduta dagoenaren arabera (2008), Nafarroa Behereko Arnegi eta Behorlegi herrietan erabiltzen da, besteak beste. *Gesal* berba elur-geruza mehearen berri eman denean aztertu da. Aipatu bezala, “itsas ura izateaz gain, itsas ura lurrintzean gelditzen den gatz-hondarra eta janariak kontserbatzeko ur gatzaz ase” ere bada (Harluxet). Beraz, irudiak garbi samarra ematen du, urtzen den elurra gatz-hondarrarekin erkatzen baita. Zaila da esaten zein izan zitekeen lehenengo adiera, urtzen

ari den elurra ala itsas ura edo gatz-hondarra. Beste era batera esanda, nondik etorriko ote zen eraikuntza, itsasotik lehorrera edo lehorretik itsasora ala aldi berean zehaztea nekez eraiki litekeen teoria da. Bestalde, bigarren aditza, *galdata* Orozkon jasota dago (EHHA). Termino hori ziur asko latinezko *calda* hitzarekin zerikusia du. Izan ere, euskaraz, *galda* berba “gar edo izpi oso beroa; bero kiskalgarria, labetik moldea betetzeko ateratzen den metal urtua”. Eta “erabat bero, gori egon” (Harluxet). Bestalde, *galdata* aditza, elurrarekin erabiltzeaz gain, “asko berotu; goritu” eta “metala urtu” ere izan daiteke. Hortaz, elurra *galdata* egiten da, hau da, berotu egiten da. Lexiko etnometeorologikoari dagokionez, *galda* “eguzkiak sortutako berotasun handia” edo “bero itogarria” esateko erabiltzen da. Ukaezina da hitz guztien arteko erlazioa, funtsean adimen-begia “bero” kontzeptuaz baliatzen baita. Hirugarren aditza, *lurmendu* da. Aditz hori *lurmen* hitzetik dator eta ondo ulertzekotan, jatorrira jotzea komeni da; *lurmen* berbarekin batera, badira beste aldaera batzuk zaharragoak ematen dutenak. Hartara, Estornesek (1997) Erronkarin (Nafarroa) *lurbel* eta *lurbeltu* berbak bildu zituen. Elurra urtuz joaten denean, zenbait bazter “beltz” agertzen denez gero, zentzuzkoa da pentsatzea *-men* osagaia- *bel(tz)* hitzetik etor daitekeela. Mitxelenaaren arabera (FHV: 39) “...Baztán *norbel* “lugar libre de nieve” < (ronc.) *lurbel* (lit. “tierra negra”, cf. Sal. *lurbeltz* id.), guip. vizc. *lurmen* < **lurben*”. Hortaz, badirudi elurra desagertzean lurra beltz bihurtzen dela edo horrela ikusten duela adimen-begiak. Hortik *lurmendu* aditza eratorri da. Ildo horretatik ikertzekoa da ea *elur* hitza **ez+lur* elkarketatik etor litekeen. Eztabidagarria bada ere, horrela izango balitz oso dikotomia polita sortuko litzateke, eta, zalantzarik gabe, behinolako eguraldiaren berri emango liguke: *lur* vs **ez lur*. Bestalde, horretaz gain, *mendealdu* aditza Nafarroako Ezkurra herrian (EHHA) erabiltzen dute eta itxuraz *mendebaldutik* dator; beraz, herri hartan mendebaldeko haizea elurra urtzearekin lotzen dutela ematen du. Izan ere, ez da harritzekoa izaten ipar haizeak jo eta elurra egin ondoren, haizeak mendebaldera biratu eta nabarmen asko epeltzea. Horrexek ekarri ohi du elurra urtzea, zalantzarik gabe. Beste aldetik, *urmeldu* terminoa *urmael*, *umel*, *umeldu* eta *mela* berbei loturik bide dago. *Urmael* hitzaren bigarren osagaia iluna bada ere, **mael*, *mel* eta *mela* hitzek badirudi era onomatopeikoaren bitartez bustitasuna adierazten dutela mendebaldeko euskaran. *Urmeldu* aditza Izagirrek (Izagirre, 1959) eskuratu zuen Oñatin eta haren ustez “quitar la nieve” esan nahi zuen. Ba ote dira gaur egun *urmeldu* eta *umeldu* aditz berdinak? Baliteke. Ziurrenik, *umel* **ur+mel* izan liteke eta *mela-mela* berba onomatopeikoak blai eginda esan nahi du. *Umel* izenondoa bero sargoriarekin ere badu zerikusirik. Esaterako, Markina aldean, *eguraldi umela* sargoritsua da eta Euskal Herriko beste zenbait bazterretan aro bustia. Azkenik, agian aditz zuzen bat geratzen da, urarekin lotura handiena daukana, *urtu*, hain

zuzen ere. Bi aldaera dira, *hurtu* eta *urtu*. Biok *EHHAn* (2008) baturik daude, lehenengoa, Nafarroa Behereko Jatsu herrian eta bigarrena Orozkon (Bizkaia).

Azkenik, azpi-kategoria honi amaiera emateko, elur eta izotzaren eraginez, lurra gogortzen denekoa sailkatu behar da. Horretarako aditz bakar bat bildu da corpusean: *gozakatu*. Azkuek batu, eta adierazi zuen Bizkai aldeko Ispaster eta Markinan eta Gipuzkoako Arrasate herrietan erabiltzen zela (*DVEF*). Egiturari dagokionez, antza, **gozo+gabe+tu*-tik dator, hau da, gogortu egiten da, gozoaren kontrakoa.

Jarduera nozioaren beste kategoria Nola egiten duen elurra da. Horri dagokionez, lau lokuzio aurkitu dira corpusean: *gilboka eta matazaka*, *mara-mara(i)*, *paupaka* eta *zapa-zapa*.

Lehenengoa dela-eta, *gilboka eta matazaka*, Justo M. Mokoroak (1990) bildu zuen, elurra egiten duenetan, ugaritasuna adierazteko (gipuzkera). *Gilbo* berbaren esanahia argituko dugu:

“Alakoxe nazka ematen dit *gilbo* orrek!” aipatutako esaldian azaltzen da itzulpen hau ondoan dagoelarik: “Qué asco me da esa espuma flotante...! Eta liburu berean Josefa Martina Mujikak esanda: “Arrikatzaren kearra dator, illauna bezela (-Illauna zeri esaten zaio?- Ontzi-gaiñetan gelditzen dan *gilbo* orri” eta hau ere bai: Illauna izan (euki)-ezkero eztu balio trapaak kristal-garbitzeko (N.B. Usada la palabra para designar la pelusa o espuma sucia de las fábricas de la post-guerra en Tolosa: Manuela Ormaetxeak. (Mokoroa, 1990)

Bestalde, *gilbo* gabe, *gelbo* berbak beste esanahi bat dauka: “iz. Hauts mataza; oihalei ateratzen zaien zuntz edo izpi modukoa. *Gelboz bete zait soinekora*” (*EH*). Horrenbestez, esplikaturiko guztiaren ondorioz, *gilboa* ilauna edo oihalei ateratzen zaien zuntza bezalakoa da, eta elur kontuetan goitik behera egiten duen elurra *gilboka* dator, *matazaka*. Gogora dezagun *mataza* berba elur-maluta adierazteko ere erabiltzen dela eta haren erabilera metaforikoa dela, ezen, berez, harila baita. Horretaz gain, *mara-mara* edo *mara-marai*, seguru asko esapiderik zabalduena da gaur egun. Ugaritasunaz gain, mugimenduaren moteltasuna ere adierazten bide du: “Elur, izerdi, odol, etab.i buruz mintzatuz, poliki-poliki eta, gehienetan, ugari. *Elurra mara-mara ari zuela*” (Harluxet). Beraz, euskal hiztunaren adimen-begiak isurkariak ez ezik, elurra ere ikusten du *mara-mara*. Bestalde, euriarekin, ostera, isurkaria izanik ere, *barra-barra* edo *parra-parra* erabiltzen da, ugaritasuna ere adierazten duena. Nafarroako Gaintza herrian (*EHHA*) *mara-marai* aldaera jasota dago. Bestalde, *paupaka* izenondoa Azkuek baizik ez dakar bere hiztegian (*DVEF*). Beraren arabera, Nafarroako Bidankoze herrian erabiltzen zen, Erronkarin, hain zuzen ere: “Orai beran dago elurra *paupaka*”. Azkenik, *zapa-zapa* esapidea dugu, Nafarroa Behereko Jutsi herrian bildua (*EHHA*). Baliteke euriarekin erabiltzen den *zapar* berba onomatopeikoarekin zerikusia izatea. Hortik *zaparrada* eta beste aldaera batzuk.

Bukatzeko, *piri-piri* lokuzio onomatopeikoa da aipagai. Azkuek (*DVEF*) dio elurra egitearen onomatopeia dela, baina ez du ezer adierazten ugaritasun edo jaustearen abiadurari buruz, horregatik aurreko azpi-kategoriatik at utzi da. Beraren arabera, Nafarroako Zaraitzu ibarrean erabiltzen zen.

4.5.1.5. Denbora

Garaia
Elurte (Elhurte) Elur-talde Kuku-elur (edur)
51. taula. Elurra: Denbora

Bosgarren nozioa denbora da. Garai kategoria adierazten duten hiru hitz baizik ez dira bildu: *elurte*, *elur-talde* eta *kuku-elur* (*kuku-edur*). Lehenengoa elurtza adierazteko ezaguna da, hau da, une jakin batean egindako elur-kopuru handia. Oraingoan *-te* atzizkiaren ohiko esanahia, garaia, aintzat harturik, elur-garaia adierazi nahi du Zuberoako *elhurte* aldaerak. Lhanderen hiztegian (1926) bildurik dago. Azkuerenak ere (*DVEF*) erronkarieraz, gipuzkeraz eta goi-nafarreraz bigarren adieran “grandes temporadas de nieves” esan nahi duela dakar. Bigarrena *elur-talde* bitxia da, eskuarki (*t*)alde zertarako erabiltzen den gogoan harturik. Nafarroako Etxarri Aranatz herrian erabiltzen bide da: “zenbait egunez elurretan aritzea” (Maiz & Mundiñanok, 1998). Baliteke “aldi”-ren aldaera izatea. Azkena, *kuku-edur* elkarketa dela-eta, honako azalpen hau aurkitu da Bergara aldean: “Udaberriaren hasieran, kukua kantuan hasi eta gero, egiten duen elurra. Aurtengo Aste Santuan larri ibilli kuku-edurra egittia!” (Elexpuru, 2004).

4.5.1.6. Espazioa

Bisuts-lekua	Elurra egiteko joera duen aldea	Elur bildua	Elur-zuloa	Glaziarra	Lurmena
Aireagerre Ausadoki Auso-herri (erri) Bisusleku Elurti (Edurti) Elur-osin (Elhur-osin) Elurroso (Elhurroso) Elurtegi (Elhurtegi) Elurbildu Elur-muilo (muillo) Elur-osin Haize-leku (aize leku)	Elurti (Edurti)	Elur-zopita (Edur-zopita) Elur-bildu	Elur-zulo (Edurzulo, Elurzilo) Elur-hobi Elurtegi	Elurtza (Edurtza) Elurtegi (Elhurtegi)	Lurbel(tz) Lurmen(du) lurmeneta Lurmen-une Norbel

52. taula. Elurra: Espazioa

Seigarren eta azken nozioa, espazioa da. Corpusean bilduriko datuen arabera, espazio nozioa aintzat hartu beharrekoa sei kategoriatan sailka daiteke: Bisuts-lekua, Elurra egiteko joera duen aldea, Elur bildua, Elur-zuloa, Glaziarra eta Lurmena.

Lehenengo kategoria dela-eta, Bisuts-lekua, azaldu behar da haizearen eraginez metatzen den elur sakon-gune handi samarra dela. Ezaugarri horiek edukita, batetik, haizearen eragina, eta, bestetik, sakon-gunea, batera edo bestera lerratzen diren izendapenak jasotzen ditu euskarak adimen-begia bitarteko. Ordena alfabetikoz, hauexek dira: *aireagerre*, *ausadoki*, *auso-herri*, *bisusleku*, *elurroso (elhurroso)*, *elurtegi (elhurtegi)*, *elurbildu*, *elur muillo*, *elur-osin* eta *haize-leku (aize-leku)*. Izendapen horietatik guztietatik agerian zenbait kontzeptu daudela aipatu behar da.

Lehenengo kontzeptua, nolabait, elur-jausi ideiarri loturikoa, *ausadoki*, *auso-erri* eta *elhurroso*. *Ausadoki* berba Aezkoan eskuratu zuen Azkuek (*DVEF*) eta baliteke bigarren osagaiak ekialdean erabiltzen den *idoki* aditzarekin zerikusia izatea; *idoki* aditzak atera edo erauzi esan nahi du. *Auso-erri* elkarketa Azkuek (*DVEF*) ere jaso, eta behe-nafarraren marka ipini zion. Antzina (*h*)erri hitzak tokia adieraz zezakeen. *Elhurroso* elkarketa Landerretchek (*apud DRALV*) batu, eta zuberera marka ezarri zion; *-oso* osagaiak *auso*, *lauso* eta *elauso* hitzekin dauka zerikusia. Antza denez, *lauso* > *auso* > *oso* bilakaera izan da. Guztiek elur-jausia adierazten dute; beraz, horrelako tokietan nolabaiteko elur-jausiak gertatzen dira hiztunen iruditeriaren arabera.

Bigarrena, haizearen ingurukoa, *aireagerre*, *bisusleku* eta *haize-leku*. *Aireagerre* Azkuek (*DVEF*) bildu zuen erronkarian, Uztarroze herrian, hain zuzen ere, eta bertan ere *aireager* berba, haizeak jotzen duen tokia esan nahi duena. Kasu horretan garbiagoa da esanahia, baina elurraren kasuan ilun samar geratzen da, ez baita elurrari buruzko berbarik agertzen. *Bisusleku* nabari denez, *bisuts* + *leku* da, eta argiena delakoan, kategoria hau izendatzeko aukeratu da. Azkuek (*DVEF*) ere jaso, eta Arabako marka ipini zion herria zehaztu gabe. Handik ez oso urrun, Gipuzkoako Arrasate herrian hitz eratorri berak haizeak jotzen duen tokia zela adierazi zuen Azkuek. Beraz, bi esanahi kilometro gutxitan eta bietan osagai komun bi, haizea eta lekua. *Haize-leku* ere harrigarri samarra da. Azkuek (*DVEF*) bildu zuen, eta bizkaiera, gipuzkera eta lapurtera markak ezarri zizkion. *Aireagerreren* kasuan bezalaxe, adierazitako euskalkietan haizeak jotzen duen toki ageria ere esan nahi du *haize-lekuk*.

Hirugarrena elurraren metaketari buruzkoa da, *elur bildu*, *elur muillo* eta *elurtegi*. *Elur bildu* elkarketa Iztuetak (*DRALV*) erabili zuen, eta elurra metatzen den tokia adierazteaz gain, elur-jausia ere esan nahi du Nafarroako Beruete herrian. *Elurbildo* aldaera dela-bide eta elurtuta dagoen lursaila goi-nafarreraz Mokoroaren arabera (1990); *elur muillo* Estonbaren Izartxo eleberrian (*DRALV*) agertzen da. *Muilo* berba tontorra edo koxka aditzera emateko erabiltzen da, eta hiztegietan beti *ipar.* marka darama, hau da, Iparraldeko hizkera; *elhurtegi* hitz eratorrian, *-tegi* atzizkiak ematen du aditzera tokia dela eta bisuts-lekua adierazteaz gain, glaziarra eta elur-zuloa ere esateko erabiltzen da. Adiera horiek elur-pilaketa dute komunean adimen-begiaren arabera, eta esangurak herri batetik bestera aldatzen dira beraien arteko muga kontzeptuala oso lausotuta dago eta.

Laugarrenak, sakontasunari dagokion kontzeptua du bere baitan, *elur-osin*; Harrieten hiztegian dago (*DRALV*). *Osin* elkarketaren bigarren osagaiak “urak sakontasun handia duen tokia” eta “leizea, amildegia edo tulunbioa” esan nahi du (Harluxet). Hortaz, kasu honetan elurrak hartzen duen sakonera duela oinarri ikusten du adimen-begiak.

Bestalde, hiru hitzek garbi adierazten dute tokia bigarren osagaiaren bitartez: *bisusleku*, *elhurtegi* eta *haize-leku*.

Bigarren kategoria Elurra egiteko joera duen aldea edo lekua da. Ez da erraza izan kategoria hau sortzea. Izan ere, hori aditzera eman dezakeen hitz bakarra aurkitu da corpusean: *edurti*: “Gure aldixa *edurtixa* da, itxasotik aldenduta dalako” (Eibar: Etxebarria, 1965-66).

Hirugarren kategoria Elur bildua da. Bisuts-lekua ez bezalakoa da, ezen horrek elurturik dagoen lekua esan nahi du. Mokoroak (1990) bildu zuen elkarketa hori esaldi honen bitartez: “Oraindik *elur-bildu* bat-beste ageri da Basakaitzen”. Beste hitz ere badago kategoria honetan,

edur-zopita. *Zopita* berba Mokoroak bildutako testu batzuetan baizik ez da agertzen. Ez dago argi zer esan nahi duen. *OEHk* hauxe dakar:

Gure mendi jagietan *zopita* zarra dariola artzai ibillitako mutilla... (Calzado con abarcas que se iban en pedazos.) *Bergaretxe Jon / Zargazte*. EUZKADI (diario). (B)”; “Or zabiltz beti bideetan pipa motxa aotzean, txapela okerrik, zeure zopita zarrak arrastau ezinik. Con tu gorra torcida...*Moguel J. Antonio*. Revista Internacional de Estudios Vascos. 1909 (B)”; “*Elur-zopitak* agiri dira mendi-gaillurretan... Trechos nevados. *Lazturrita*. ARGIA (semanario)”: “Remiendo de abarca, zopita, sopita, *abarkadabu* (B), *konpeda* (B), *zazarki* (G), *zazarkin* (G), *abarkazugi* (AN), *ezarkin*, *ezarki*, *zarkin*. Pieza de cuero con que se refuerza el calzado por la parte del talón, *gogorgarri* (B, G, L, R), *ezarki*, *ezarkin* (B), *zazarki*, *zazarkin* (G·), *zopita*, *sopita*, *supita*, *konpeda* (B). (*OEH*)

Beraz, baliteke adimen-begiak abarketan erabiltzen zen txatala edo ezarkia elur-zati batekin erkatzea. Horrelako irudia eduki zezakeen euskal gizakiak antzina.

Laugarren kategoria Elur-zuloa da. Horrelakoak aspaldi samar erabiltzen ziren, eta elurra gordetzeko edo kontserbatzeko prestatu ohi ziren tokiak ziren; hasieran, dirudienez, zulo hutsak, gerora, apurka-apurka bestelako eraikin bihurtu ziren. Gaur egun, jakina, beraien eginkizuna galdutzat ematen da. Euskara batuan erabiltzen den eratorriak bi aldaera ditu; bata bizkaieraz, *edurzulo* eta bestea behe-nafarreraz eta erronkarieraz, *elurzilo*. Bi aldaerok Azkuek (*DVEF*) bildu zituen. Bestalde, *elur-(h)obi* hitz elkarketa Estonba idazleak (*DRALV*) erabili zuen; dirudienez (*h)obi* berba latinezko *fovea(m)*-etik dator, eta zuloa ere esan nahi du. Beste elkarketa batzuk: *harrobi*, *hilobi* eta *karobi* dira. *Elurtegi* hitz eratorriak bi aldaera ditu: *edurtegi*, Etxebarriak (1965-66) bilduta Gipuzkoako Eibar herrian, eta *elhurtegi* Larramendik jaso (*OEH*); *-tegi* atzizkia oso emankorra da euskaraz tokia adierazteko.

Bosgarren kategoria Glaziarra da. Euskal Herriko mendietan gaur egun horrelakorik ez badaukagu ere, antza denez, antzina bazirelako irudipena zegoen. Ziur asko ez ziren izango zientziak glaziartzat jotzen dituenak, “Lehorreko izotz-masa higikorra” (Harluxet), baina, bai, nolabaiteko elur- edo izotz-pilaketak. Noski, bere izakiak bisuts-lekua edo elur bildua kategorietatik oso hurbil dago. Bi berba ditugu corpusean, *edurtza* eta *elhurtegi*; lehenengoa Etxebarriak (1965-66) erabili zuen “Mendiarte aretan batzen dan *edurtzia*, izotz biurturik bere astuntasunan bultziagaz, etortzen da ibai bat bezela” eta bigarrena *elhurtegi*, Harrietek bildu zuen (*apud OEH*).

Seigarren kategoria, eta azkena, Lurmena da. Lurmena “elurra urtu den lurzattia da” (*EH*), baita belarra galdu duen lurra ere; beraz *lurmena* lur berezia da, egoera batetik beste batera igaro dena. Kasu honetan garrantzitsua da nondik etor litekeen hitza jakitea: lehenengo osagaia garbi asko dago *lur-* izena dela, eta bigarrena *-men bel-*ekin zerikusia izan dezakeela. Izan ere, *lurbel* eta *lurbeltz* hitzak ere badira copusean; beraz, zentzuzkoa da hitz horietatik datorrela ondorioztatzea. Balizko bilakaera bat hauxe izan liteke: *lurbel* > *lurmel* > *lurmen*. Nolanahi ere, Mitxelenak hauxe aipatzen du: “Baztán *norbel* “lugar libre de nieve” < (ronc.)

lurbel (lit. ‘tierra negra’, cf. sal. *lurbeltz* id.), guip. vizc. *lurmen* < **lurben*” (FHV: 339). Aidanez, *lurra* elurturik egon eta zati batzuk urtzen direnean gabekoak ez dira *lurra*, *lur beltza* baizik; oso kontraste ederra adimen-begiak sorturikoa. Adibidez, *lurmen* terminoa Izagirrek (1959) batu zuen Oñatin (Gipuzkoa), baita *lurmen-une* aldaera ere. Elurraren eremuan ez ezik, euriarenean ere erabiltzen da *lurmen* berba. Horren erakusgarri Bizkaiko Mendata herriko adiera:

1. Esate baterako lursail baten artoa, garia zein beste edozer erein ondoren dana bete betean ernetzen denean, oso-osorik. 2. Adibidez norbait euri zaparrada batek bete-bete harrapatu duenean, *lurmenik* gabe etorri dela esateko erabiltzen da, guztiz bustita. “Orrek umiorrek ez dau lurmenik be ekarri gero!”. (Mallea, 2002)

Bestalde, *lurmendu* aldaera era bada, izena edo aditza izan daitekeena. *Lurbel* ustezko jatorrizko berba, Estornesek (1997) bildu zuen galdutako Erronkariko euskalkian, eta *lurbeltzi* buruz OEHko azken adiera: “(Sal, S), paraje del cual ha desaparecido la nieve A. v. **lurbel**” (OEH). Azkenik, Mitxelenak goraxeago aipaturiko *norbel* aldaera dugu, Baztan aldean jasoa (DVEF). Balizko bilakaera hauxe izan liteke: *lurbel* > *nurbel* > *norbel*. Baztanen fonetikoki lotuta egon litezkeen *mospel* eta *nospel* hitzak (Izeta, 1996) ere erabiltzen dira “ospela” edo “laiotza” adierazteko, hots, beti itzalpean egoten den tokia. Hiztunen artean analogia oso motore indartsua denez gero, hasierako -*n* horrek eragin zezakeen *lurbel* *norbel* bihurtarazteko. Azken batean bi eleon eremu semantikoak oso hurbil daude.

4.5.1.7. Ondorioak

Aurrenik adierazi behar da elur eremuak nozio orokor guztiak biltzen dituela: izakiak nozio orokorra gailentzen zaiei beste guztiei, Izendapenak kategoriak elur-malutari irizteko hamaika nozio espezifikoa dauzka eta; kantitate nozio orokorrak ere makina bat hitz eta hitz-elkarketa biltzen ditu Elur-jausi kategorian oso oparoa baita. Hori horrela izatea ez da harriztekoa, elur ostagi ikusgarriak euskal hiztunaren adimen-begiari bide eman baitio zeinahi irudi sortzeko. Denbora eta espazio nozioek dauzkate nozio espezifikoa gutxien. Aipatu bezala, nozio espezifikorik azpimarratzekotan *oilo-luma* irudi ederra azpimarratu behar litzateke, eta kategorietan Elur-maluta eta Elur-jausia.

Hain da ikusgarria elurra —batzuetan, gogaikarria—, mendeak aurrera joan diren heinean, adimen-begia ahalegindu baita elurrak sorturiko agertoki guztiei izendapena ematen, sarreran adierazi bezala: lurrera erori aurretik, lurrera erori eta gero eta elurra urtu ondoren. Sekuentzia horretan agertu ohi diren egoera orok isla du lexikoan, egun estrainioa begitandu arren. Lexikoa sortzeko trena guztiez baliatzen da adimen-begia: hitz-elkarketak, hitz soilak,

maileguak, onomatopeiak, eratorriak eta, jarduera nozio orokorra tarteko, aditzak eta lokuzioak ere agertzen dira.

Hitz-elkarketak hizpide, *elur* berba nagusi da guztietan: gutxi dira *elur* hitza ez daukatenak; izan ere, makina bat hitz-elkarketatan azaltzen da *elur* edo aldaerak; zenbait aipatzekotan hortxe ditugu *elur-mataza*, *elur-begi* eta *elur-mendi*. Azterketan azaldu legez, irudi ugari eraturik daude: adibidez, *elur-lapats*, *oilo-luma* —*elur* elea ez daukana— eta *elur-pilota*; berba soilak ere ez dira gutxi, zeren adimen-begiak irudi anitzez baliatu baita begien aurrena zeukanari izena emateko: esate baterako, *oia*, *gazur* eta *kaparra*; maileguak ere azaltzen dira elur eremuan; adibidez, *kopo*, *abalantx* eta *pilota*; zenbait onomatopeia ere badira, batez ere adimen-begiak elurra ari duenean antzematen den hotsari buruzkoa: *piri-piri*; edota ugaritasunari loturikoak: *mara-mara* edo *zara-zara*; eratorriak, ordea, ez dira ugari; esaterako, *elurtza*, *elurketa* eta *elurte*; jarduera nozio orokorrean, aditz eta aditz-lokuzio asko ere badira; esate baterako, *elurrari eragon*, *lurmendu* eta *elurra oparo ezarri*.

Aipatu beharra dago, Izakiak nozio orokorreko Elur-maluta kategoria aztertu denean (§4.5.1), ikusarazi dela euskal hiztunaren adimen-begiak zenbat baliabide erabili dituen hura izendatzeko: ez dago ukatzerik zerutik behera erortzen den puska horrek eragiten dituen sentazioak eta irudiak asko dira, eta helburuetan azaldu bezala, euskal hiztuna inguratzen duen errealitateak sustatzen ditu horrelako izendapenak. Terminorik hautatzekotan, denbora nozio orokorreko Garai kategoriako *kuku-elur* hitz elkarketak merezi du aipatzea: horrek adierazten du zernolako ingurunean sortu izan diren horrelako berbak.

Horrenbestez, elurraren eremuan agerian utzi behar da nozio espezifikoko guztien nondik norakoa aztertutik, lexikoa, batik bat, aski motibatua dela, azaldu legez, adimen-begia berenberegiz hamaika irudiz profitatu izan baita.

Bukatzeko, aurreko eremuetan adierazi bezala, azpimarratu behar da elurraren eremuan euskal hiztunaren adimen begiak oso sistema sendoa eraiki duela, zirrikiturik gabea, elurra hasi baino lehen, bitartean eta ondoren suertatzen diren egoera kontzeptual gehienei irtenbidea ematen die eta.

4.5.2. Euria

Euria ur-tantaz osaturiko prezipitazio mota da. Hainbat intentsitatetako euriak ikus daitezke. Eskala tanta xehez eratutakoaren bitartez hasten da; gehienetan lanbro eta lainoarekin daukate zerikusia. Gero euri mehea dator, diametro txikiko tantak direnak. Tanten abiadura ere ez da oso handia izaten. Ondoren zirimiria dira, gogorrakoak. Ekaitzik izaten denean, zaparradak edota euri-jasak azaltzen dira. Kasu horretan, ur-tantak oso handiak dira eta euria gogotik egin ohi du. Euri-zaparradak emankorrak izaten dira oso eta denbora laburrean ur handia ekartzen dute.

Dagokigun eremuan, Euskal Herrian, urtarorik euritsuenak udazkena eta udaberria izaten dira, hau da, uda eta neguaren bitarteko aroak. Beharbada, euri-maparen ezaugarriak nabariena, Euskal Herriko ipar eta hegoaldearen arteko alde ikaragarria: Nafarroako Bortziriak eskualdea Europako ingurune euritsuenetarikoa da eta, Nafarroako Erriberako hego-ekialdeko muturra lehorrenetarikoa. Kilometro gutxiko tartea badago ere, guztiz klima-egoera desberdinak dauzkaten bi eskualde dira. Bestalde, Hiztegiari dagokionez, euriak bere baitan biltzen du termino gehien. Ezin uka daiteke ugariena dela. Askotariko kontzeptu, ñabardura eta xehetasun bildu dira. Esan gabe doa, eremurik oparoena da: 1104 nozio espezifiko dauzka datu-baseak, aldaera eta guzti, eta ziur aski geroan, ikertzearen ikertzeaz gora egingo du kopuruak. Horrela izan behar zen halabeharrez. Jarraian, datutegian bildutako datuak aintzat harturik, euriaren inguruko azpi-kategorien berri emango da: 49 dira, hurrenez, hurren:

- Euri-aterpea
- Euri-burbuila
- Euri dirdira
- Euri-eguna
- Euri-erauntsia
- Euri-giroa
- Euri-jasa txingorarekin
- Euri-kolpea
- Euri-kopurua
- Euri-lainoa
- Euri motela
- Euri onuragarria
- Euri-tanta
- Euri ugari eta ona
- Euri ugaria
- Euri uherra
- Euri xehea
- Euri xehe-xehea
- Euri-zaparrada
- Euri-, elur-, haize- erauntsia
- Euria eta eguzkia aldi berean
- Euria eta haizea
- Euria eta hotza
- Euria eta lehortea
- Euria etengabe
- Euria: aterrunea

- Euria: ekintzak
- Euria: garaia
- Euria: nola egiten duen
- Euria: nolakoa
- Euriak norbera guztiz bustita utzi
- Euriak sortutako lokatza
- Euriaren hotsa
- Euriaren ondoren
- Euri -asera
- Euri, elurra kopuru txikia adierazteko hitza
- Goizeko euria
- Hostoetako euria
- Ipar-euria
- Izendapena: euria
- Lur gaineko euri geruza
- Lur gaineko putzu euritsuak
- Oñatiko euria, bertakoa
- Toki euritsua
- Trumoi-euria
- Uholdea
- Zaldizkoak
- Zozomikoteak

Zailtasun handirik gabe ikus daitekeenez gero, askotariko kategoriak eta ugari batu dira. Hurrengo pausoa kategoriok sailkatu, xehetu eta aztertzea izango da. Hori aurrera eramateko, euriaren inguruko eremuak sailkapen etnosemantikoak egiteko bide ematen du; izan ere, oso zabala da eta nozio orokor guztiei heltzen die, hots, izaera, kalitatea, kantitatea, jarduerak, denbora eta espazioa. Eguraldiaren gaineko beste eremu batzuetan nozio zirrikituak izan daitezke, baina, ez euriaren eremuan; guztiak bete eginda daude. Adimen-begia ahalmentsua da oso eremu oparo honetan.

Beraz, proposatzen diren maila guztiak nekez bete badaitezke ere, oraingoan bai, euriari dagokion eremua luzea eta oparoa baita. Lehen aipatu izan denez, etnosemantikaren nozio orokorrez baliatuko da kategoriak sailkatzeko.

1. Izaera. Nozio orokor honetan honelako kontzeptuak jorratu ohi dira: existentzia, jabetasuna, identitatea, izaki eta fenomeno zehatzak eta materialak. Hori dela-eta, egoki iritzi zaio corpusetik lortutako euri kategoria hauek sartzeari. Hala ere, beste nozio batzuetan ere gehitu litezke; izan ere, nolako ikuspegia hartzen den, azpiko kategoria bat beste nozio bati ere lot lekiok:

- Euria.
- Euri antza.
- Euri asera.
- Euria eta eguzkia aldi berean.
- Euria eta haizea.
- Euria eta hotza.

- Euria eta lehortea.
- Euriak sortutako lokatza.
- Euriaren hotsa.
- Euri-burbuila.
- Euri dirdira.
- Euri-jasa txingorrarekin.
- Euri-lainoa.
- Euri-tanta.
- Trumoi-euria.
- Zaldizkoak.

2. Kantitatea. Nozio orokor honetan honelako kontzeptuak jorratu ohi dira: kopuru absolutua eta kopuru erlatiboa. Horregatik, euriaren kantitate eta ugaritasuna kontuan hartu eta behin corpusa azterturik honako kategoria hauek eratu dira:

- Euri ugari eta ona.
- Euri ugaria.
- Euri xehea.
- Euri xehe-xehea.
- Euri-zaparrada (baita denbora nozioan ere) Euri-, Elur- Haize-erauntsia.
- Euri eta elurraren kopuru txikia adierazteko. Euri-erauntsia.
- Euri-kolpea.
- Euri kopurua.
- Uholdea.

Euri-zaparradaren barnean, bi noziok egiten dute topo: kantitatea eta denbora. Beraz, biei atxikita badago ere, kantitatean baino ez da jorratuko beraren berezitasuna. Denbora nozioan aipatu besterik ez da egingo.

3. Kalitatea. Nozio orokor honetan honelako kontzeptuak jorratu ohi dira: kalitateen neurketa, lexikoa eta egiturak; kalitate zehatzak, jatorria, dimentsioak, pisua, koloreak, tenperatura, kalitate fisikoak, pertsona ezaugarriak; fisikoa; egokitasuna eta garrantzia. Hori dela-eta, aurkitutako kategorien artean ondoko hauek sailkatu ditugu nozio orokor honetan.

- Nolako euria: izenondoak eta izenak: motela, onuragarria, ugaria, ugari eta ona, uherra, xehea, euri xehearen hotsa, euri xehea eta hotza, xehe-xehea.

4. Jarduera. Nozio orokor honetan honelako kontzeptuak jorratu ohi dira: prozesua, parte hartzea, modua (nola) eta jarduera zehatzak eta funtzioa. Hori dela-eta, aurkitutako kontzeptuen artean ondoko hauek sailkatu ditugu nozio orokor honetan:

- Nola egiten duen euria, Norbera guztiz bustita utzi eta jarduerak, oro har.

5. Denbora. Nozio orokor honetan honelako kontzeptuak jorratu ohi dira: unea, iraupena, maiztasuna eta sekuentzia. Hori dela-eta, egoki iritzi zaio corpusetik lortutako euri-kategoria hauek sartzeari:

- | | |
|---------------------|-------------------------|
| • Aterrunea. | • Euri-zaparrada (baita |
| • Euria etengabe. | kantitatean ere). |
| • Euriaren ondoren. | • Garaia. |
| • Euri-eguna. | • Goizeko euria. |
| • Euri-giroa. | • Zozomikoteak. |

6. Espazioa. Nozio orokor honetan honelako kontzeptuak jorratu ohi dira: kokamendua eta mugimendua. Hori dela-eta, aurkitutako kategorien artean ondoko hauek sailkatu ditugu nozio orokor honetan:

- | | |
|--------------------------------|-------------------------------------|
| • Euri-aterpea. | • Oñatiko euria |
| • Hostoetako euria. | • Toki euritsua. |
| • Ipar-euria. | • Euriaren jatorria: ipar-euria eta |
| • Lur gaineko euri-geruza. | Oñatiko euria |
| • Lur gaineko putzu euritsuak. | |

Batzuetan zalantzak ez dira nolanhikoak izan kategoriaren bat nozio orokor batean edo bestean txertatzeko orduan; izan ere, mugak estu samarrak izaten dira, eta ez da batere erraz gertatzen ildo jakin eta zehatzari ekitea. Horietako bat Euri-zaparrada kategoria izan da; badirudi *euri-zaparrada* berba erabiltzen dugunean bi kontzeptuk bat egiten dutela: bata, prezipitazio zakarra, gogorra (kantitatea) eta bestea, denbora laburrean gertatzen dela (denbora). Hortaz, horren arabera ez du ematen bataren edo bestearen alde egin daitekeenik. Aurreko sailkapenean, bai kantitatean, bai denboran txertatu denez gero, hurrengo sailkapen eta azterketan horrelaxe egin dugu, nahiz eta, jakina, azterketa bakarra den. Ildo horretatik hauxe adierazten du Azkuek (*DVEF*): “*zapar* (B, G, E), voz onomat. que denota el ruido de una lluvia muy fuerte”. Bestalde, beste batzuetan ez da garbi asko izan, beste kontzepturen bat nozio semantiko bati edo beste bati buruzkoa ote den. Maiz askotan ematen du nahasi egiten direla

edo azpi-nozioak izaten direla. Adibidez, Euria xehea kategoria kalitateari dagokiola ematen badu ere, “euri xehearen hotsa” izaerari dagokio, hala ere, bertan, kalitatean, utzi da sailkapena ez lardaskatze aldera. Euriaren sailkapen etnosemantikoaren handitasun eta konplexutasunari hobeto erreparatzekotan, azpian 54. taula erantsi dugu, nolabait, zientzia meteorologiakoan erabiltzen dena. Horretan, erraz suma daitekeenez, euri-motak dauka garrantzi handien, eta hortik abiatuta bakoitzaren ezaugarriak ematen dira aditzera; tantaren diametroa eta abiadura. Begi-bistan da zientziak beti *zehaztasuna* bilatzen duela. Segidan, bilduriko kategoria guztiak tauletan sailkatzen ahalegindu da hain zabala eta handia den euriaren eremua argitzeko asmotan. Zalantzarik gabe, era kuantitatibo eta kualitatiboan esparrurik handi, ugari eta bereziena da. Euskal Herrian euria erruz eta maiz egiten du, inondik ere.

1. Izakiak	2. Kantitatea	3. Kalitatea
Euriaren izendapenak Euri antza Euri-asera Euriaren hotsa Euri-burbuila Euri-dirdira Euri-lainoa Euri-tanta Trumoi-euria Zaldizkoak Euria beste ostagi batekin batera Euria eta hotza Euria eta lehorrea Euria eta haizea Euria eta eguzkia aldi berean Euri-jasa txingorarekin	Euri eta elurraren kopuru txikia Euri-kolpea Euri-kopurua Euri-erauntsia: nola eta nolakoa; usaina Euri-, Elur-, Haize-erauntsia Euri-zaparrada: bat-bateko euri-zaparrada laburra haizearekin Euriaren ondorioak Euriak sortutako lokatza Uholdea.	Nolako euria. Izenondoak Izenak Motela Onuragarria Ugaria Ugari eta ona. Uherra Xehea Euri xehearen hotsa Euri xehea eta hotza Xehe-xehea
4. Jarduera	5. Denbora	6. Espazioa
Nola egiten duen euria Berezko jarduerak Euriak norbera guztiz bustita utzi	Euria etengabe Euri-eguna Euri-giroa Euri-zaparrada Aterrunea Garaia Euria Euri xehea Goizeko euria Euriaren ondoren Zozomikoteak	Euri-aterpea Hostoetako euria. Lur gaineko euri-geruza. Lur gaineko putzu euritsuak. Toki euritsua. Euriaren jatorria Ipar-euria. Oñatiko euria.
53. taula. Euria: Sailkapen etnosemantikoa		

Bestalde, meteorologiak zenbat euri-mota bereizten dituen, zein den tantaren diametroa eta erortzeko abiadura ipiniko da hurrengo 54. taula honetan. Horrela, hiztunen adimen-begiarekin alderatzeko baliagarria izan daiteke. Hiru kontzeptu adierazten dira: kalitatea, tamaina eta abiadura.

Euri-mota	Tantaren diametroa	Erortzeko abiadura
Lainotiko tanta txikiak	0,006-0,06 mm.	0,10-20 cm/sg
Euri xehe-xeheak	0,06-0,6 mm.	20-100 cm/sg
Zirimiriak	1-3 mm.	150-400 cm/sg
Zaparradak	4-6 mm.	500-800 cm/sg
54. taula. Euria: Meteorologia zientziaren sailkapena		

Sailkapen etnosemantikoari erreparatuz gero, nozio orokorren sei zutabeak bete samarturik daudela ohartzekoa da. Jardueraren zutabeen hiru kategoria baino ez badira ere, bertan zerrendatzen diren aditz eta esapideak ugari dira eta aldi berean, azpi-kategoria ugari sortu dira. Jarraian aztertu egingo dira nozio eta kategoria guztiak.

Izaerari dagokionez, euria bera izateaz gain, berarekin zerikusirik askotariko kategoriak dauzka euskarak: Euriaren antza duena, Euriaren hotsa (onomatopeikoa), Euri-burbuila (lurra jotzarekin batera batzuetan sortzen den burbuila), Euri-dirdira (zenbait euri motak daukaten dirdira), Euri-tanta (hainbat aldaera daukana), Trumoi-eguria (trumoiak sorturiko euri mota), Zaldizkoak (urrunean goitik beherako euri-zutabeak ikusten direnean). Bestalde, beste zenbaitetan euria beste fenomeno batzuekin batera agertu ohi da. Arruntenak ondoko hauek dira: Euria eta hotza, Euria eta lehortea (hau da, aldizka euriteak eta lehortek), Euria eta eguzkia aldi berean (sarri euri egiten duenean eguzkia ere irteten da. Hori dela-eta, izen bitxiak hartzen ditu bere gain fenomeno honek). Eta azkenik, Euri-jasa txingorrarekin.

Bigarren nozioari buruz, Kantitatea, hitz gehienek kopuruarekin lotura garbia daukate. Hori dela-eta, kategoria honetan ondoko azpi-kategoria hauek erantsi dira: euri-elurra kopuru txikia denean, euri-kolpea, euri-kopurua, euri-erauntsia (denborari baino gehiago kantitateari dagokio, antza). Beronen azpi-kontzeptuak ere gehitu dira sailkapena ez zailtzearren. Hauexek dira: nolakoa den euri-erauntsia (kalitatea), euri-erauntsiaren jarduerak (jarduera), euri-erauntsiaren usaina (izaera) eta euri-erauntsiaren adarra (izaera). Beraz, nozio baten kategoria batek beste azpi-sailkapen bat eduki dezake bere baitan.

Hirugarren nozioak, kalitateak ere makina bat hitz dauzka bere baitan. Bildutako datuen arabera, honako sailkapen hau jo da egokitzat: nolako euria den. Sail horretan, alde batetik, izenondoak eta bestetik, izenak sartu dira. Horien artean, honako hauek: Euri motela, Onuragarria, Ugaria, Ugaria eta ona (ugaria ez da beti ona izaten), Uherra, Xehea (kalitateari buruzkoa dela uste da, hiztun gehienek adimen-begiak horrelako pertzepzioa daukalako). Aurreko nozioan bezalaxe, euri xeheak beste sailkapen txiki bat sortzeko gaitasuna dauka: Euri xehearen hotsa eta Euri xehea eta hotza (izaera). Euria xehea ez ezik, xehe-xehea ere izan daiteke. Sail horretan hiztunek hautematen dituzten ezin konta ahal berba erantsi dira. Nolanahi ere, baliteke beste ikerketa sakonago bat egin behar izatea; izan ere, batzuetan ematen du beste

mailakatze bat egin litekeela, hots, multzo horretan gehitutako hitz askok itzurtzen zaigun beste ñabardura mota bat daukatela.

Laugarren nozioa, jarduera dugu; hiru kategoriaz baino osaturik ez badago ere, beraien barnean, hainbat esapide eta aditz islatuak, lau azpi-kategoriatan banatzen da. Honako hauek dira: nola egiten duen euria, aditzondoak, batik bat, jarduerak, oraintsu aipaturiko aditz eta lokuzioak eta euriak norbera guztiz bustitzen duenekoak. Aldi berean, berezko jarduerak beste hainbat azpi-kategoria ugari dauzkate.

Denboraz den bezainbatean, bosgarren nozioa, azaldu behar da, beste ñabardura batzuk egon arren, bera dela nozioa nagusia euriari buruzko kontzeptu batzuetan. Horiek horrela, ondoko hauek gehitu dira: Euria etengabe egiten duenean, Euri-eguna, Euri-giroa, Euri-zaparrada (goraxeago esan denez, bi kontzeptu gailentzen dira, kantitatea eta denbora), Aterruna (hau da, euria atertzen dueneko unea), Garaia (bi azpi-kategoria bereizten dira, euriari eta euri-xehari dagozkionak), Goizeko euria, Euriaren ondorengoa eta Zozomikoteak (apirilaren hasieraren aldean gertatu ohi diren euritxoak).

Azken nozioa Espazioa da, hots, euria espazio edo toki jakin bati loturik egoten da. Ondoko kategoriaz hauek bereiz daitezke: Euri-aterpea (euria denean, non sartu ez bustitzeko), Hostoetako euria, Lur gainean geratzen den euri-geruza, Lur-gaineko putzu euritsuak eta nola ez, Toki euritsua. Azkenik, Euriaren jatorria espazioari ere badagokio. Kasu honetan, Ipar-euria, eta bitxikeria bat, Oñatiko euria erantsi dira.

Egindako sailkapen etnosemantikoaz gain (izaera-kualitatea-kantitatea-jarduerak-denbora-espazioa), zientzia meteorologikoak bestela hautematen du euria. Izan ere, bi kontzeptu hartzen ditu aintzakotzat: tanten diametroa eta erortzeko abiadura. Meteorologiaren esanetan, garrantzitsuena tanten diametroa da eta beraz, horri lotuta, erortzean tantak bere gain hartzen duen abiadura. Horrela, tamainaren eta abiaduraren arabera, desberdin ohi diren euri-motak lau izaten dira: lainotik datozen tanta txikiak, euri xehe-xeheak, zirimiria eta zaparradak.

4.5.2.1. Izakiak

<p>Euria Euri (Auri, Eauri, Ebi, Ebri, Eguri, Eubri, Eudi, Euri, Eüri, Hebi, Iguri, Iure, Iuri Iüri Uri, Üri)</p> <p>Beste Erasate Erhauts</p> <p>Izenondo gisa Eurikor (Urikor) Euritsu (Ebitsu, Ebrizu, Eurilari, Euritsu, Eurixi Eürizu)</p>	<p>Euri antza Eulantz</p> <p>Euriaren hotsa Txir-txir Zapar Zir(i)-</p> <p>Euri-burbuila Pustila</p> <p>Euri-dirdira Zirrinta</p>	<p>Euri-tanta Euri-inhar Euri-kixkak Euri-tanga Euri-tanta, (Euri)-tantan, Euri-tanto (Euri)-txistil Euri-txiztil Euri-xorta (Uri xorta, Uri zorta)</p>	<p>Trumoi-euria Justuleuri Juztuleuri Hodei-euri (Orei-euri) Ostaleuri (Ostelebi, Osteleuri, Ostraebi)</p> <p>Zaldizkoak Zaldizko</p>	
Euria beste ostagi batekin batera				
Euria eta hotza: Bustiutz	Euria eta lehortea: Busti-lehor (legor) Busti-idor	Euria eta haizea: Afoinu (Apoiñu) Euri-bisuts	Euria eta eguzkia aldi berean: 75. taula	Euri-jasa txingorreakin: Irazarri Zizar
55. taula. Euria: Izakiak				

Lehenengo nozioari dagokionez, Izaera, bederatzi kategoriatan banatu da: Euria bera, Euri antza, Euriaren hotsa, Euri-burbuila, Euri-dirdira, Euri-tanta, Trumoi-euria, Zaldizkoak eta Euria beste ostagi batekin batera. Eztabaidatzekoa da baten bat kendu eta beste leku batean sartu behar ez ote den; adibidez, euri antza, baina uste da euriaren izaerari ondo egokitu dakiokela horrelako kategoria.

Hasteko, Euria bera dela-eta, 56. taulan ikus daitekeenez, euskalkian euskalkiko (ikus aurrerago hitzen jatorria) hainbat aldaera dira. Honako taula honetan adierazten da hitz bakoitzaren jatorria ordena alfabetikoz. Ziurrenik ez dira denak, baina, daudenek agertzen dute aniztasuna.

Aldaera	Nork jasoa	Herria edo euskalkia
Auri	<i>EHHA</i>	B-Zollo, Jatabe
Auri	Azkue	goi-nafarrera
Eauri	<i>EHHA</i>	N-Urdiain
Ebi	Azkue	Besteak beste, G-Tolosa, Berastegi; zuberera
Ebri	Azkue	zuberera
Eguri	<i>EHHA</i>	N-Eugi
Eubri	Azkue	zuberera
Eudi	Azkue	G-Hondarribia
Eudi	<i>EHHA</i>	G-Getaria
Euri	Azkue	bizkaiera / gipuzkera
Eüri	<i>EHHA</i>	BN-Arruta
Hebi	Harriet-Lhande	zuberera
Iguri	<i>EHHA</i>	N-Suarbe
Iure	<i>EHHA</i>	N-Beruete
Iuri	<i>EHHA</i>	N-Gaintza
Iüri	<i>EHHA</i>	Z-Domintxaine-Berroeta
Uri	Izeta	N-Baztan / lapurtera
Üri	<i>EHHA</i>	Z-Domintxaine-Berroeta

56. taula. Izakiak: euri hitzaren aldaerak

*EHHA*n jasotako emaitzak askotarikoak ere badira²⁷. Horietaz gain, badira beste bi hitz *euri* terminoarekin lotura zuzenik ez daukatenak: bata, *erasate*, Azkuek (*DVEF*) bilduta Nafarroako Baztan haranean eta, bestea, *erhauts*, Eskualduna agerkarian idatzita (*DRALV*) “lluvias, mal tiempo” adierazten omen duena. Kategoria honetan erantsita badago ere, eguraldiaren eremuan ere ager liteke; izan ere, euria baino gehiago badirudi *eguraldi txarra* ematen duela aditzera. *Erasate* terminoa dela-eta, azpimarratu behar da Baztango Hiztegian (Izeta, 1996) ez duela jasotzen, baina, bai *erasan* aditza: “Erasan, euria, elurra, e.a. hasi, «Acción de comenzar a llover, nevar, etc.»” (Izeta, 1996). Beraz, *erasate* hitza *erasan* + *-te* da, nonbait; batetik, aditzaren nominalizazioa izan liteke, beste aldetik *-te* atzizkiak garaia adierazi ohi duenez gero, baliteke *euritea* esan nahi izatea eta ez, *euria*. Hala ere, gaur egun ez da horrela erabiltzen Baztan aldean. *Euri* berba izenondo gisa erabiltzeak honako aldaera hauek ditu: *ebitsu*, *ebrizu*, *eurilari*, *euritsu*, *eurixi*, *eürizu* eta *urikor*. Azken baten, euskalkien aldaerak dira egoera batzuen nolakotasuna adierazteko.

Hurrengo kategoria, Euriaren antza, zalantzakoa da. Izan ere, baturiko *eulantz* berbak bi kategoria sor litzake, euriaren antza bera (bizkaiera, *DVEF*) eta euri xehe-xehea (G-Bergara: Elexpuru, 2004). *Euri* berba antzinako elkarketetan *eul-* bihurtzen zen. Berdintsu gertatzen bide zen *-ri-z* amaitutako hitz batzuekin, adibidez, *afari* > *afal-*, *ugari* > *ugal-*...

²⁷https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_ehha&view=frontpage&Itemid=466&lang=eu&testua=&gaia=Eguraldia&mapa=235&lekua=

Hirugarren kategoria Euriaren hotsari dagokio. Hotsa den aldetik, berba onomatopeikoak erabiltzen dira: euria sendo ari duenean, *zapar* eskuratu da (bizkaiera / gipuzkera / erronkaria: *DVEF*). Hortik dator, zalantzarik gabe, *zaparrada* hitz ezaguna, hau da, seguru asko, *zapar* + (*k*)*ada*. Beraz, badirudi, *zaparrada* berbaren baitan adimen-begiak hotsaren intentsitatea hautematen duela eta ez euriaren sendotasuna. Bestalde, bildutako beste hirurak fonetikoki elkarretatik oso hurbil daude eta adimen-begiak euriaren jauste leun eta hots arina agertzen du: *txir-txir* (gipuzkera: Mokoroa, 1990), *zir-zir* (*DVEF*) eta *ziri-ziri* (G-Oñati: Izagirre, 1959). Ziri-tik ere *ziri-miri* berba onomatopeikoa sortzen da errepikatzearen bitartez. Sarritan, hitza errepikatzen denean, bigarrenaren hasierako letra *-m* izan ohi da; adibidez, *duda-muda* edo *txutxu-mutxu*. Lexikoa sortzeko baliabideetariko bat da. Beraz, bai hots ozen, bai hots motelerako bi berba dauzka euskarak.

Euriaren izaeraren laugarren kategoria Euri tantek lurra jotzearekin batera sortzen dituzten burbuilak dira, *pustilak*, alegia (B-Meñaka: Gaminde, 2001c). Hitz horrek, bestalde, “astoaren gorotza” ere esan nahi du; hortaz, gorotzak eta burbuilak elkarren antza dute adimen-begiaren arabera; metafora ezin adierazgarriagoa. Ezin jakin daiteke, ordea, zein izan den lehenengo hitza. Baina, baliteke, natura nagusi izatea.

Bosgarren kategorian Euriaren dirdira azaltzen da. Corpusean dagoen hitz bakarra *zirrinta* da, eta ekialdeko euskalkietan (*DRALV*) gehienbat argi edo eguzkiaren izpiak adierazteko erabiltzen da, *argi* / *eguzki zirrinta*. Beraz, baliteke adimen-begiak metafora batez sortu izana.

Seigarren kategoria Euriaren tantei dagokie: *euri-inhar*, *euri-kixkak*, *euri-tanga*, *euri-tanta*, (*euri*)-*tantan*, *euri-tanto*, (*euri*)-*txistil*, *euri-txiztil* eta *euri-xorta* (*uri xorta*, *uri zorta*). Ikus daitekeenez, *euri* berbak beste batzuk daramatza lagun euri ale hori adierazteko. Badira bi, nolabait, euri tantaren nolakotasuna adierazten dutenak: *uri xorta* eta *uri zorta*, lehenengoak tantaren mehetasuna adierazten du eta bigarrenak loditasuna: Berba biak behe-nafarreran jasoak (*DVEF*). Horrezaz gain, Eibarren (Gipuzkoa) bilduriko *tantan* hitzak (Etxebarria, 1965-1966) euriaren lehenengo tantak ematen omen du aditzera. Bestalde, bi hitz dira nabarmentzekoak: lehenengoa, *euri-inhar* (behe-nafarrera, *DVEF*); *inhar* hitzak “izpia” eta “apur bat” ere esan nahi du iparraldeko euskalkietan eta bigarrena, *euri-kixkak* (*DRALV*); *kixkak* haur-hizkuntzan “hortz txikia” esan nahi du; beraz, ematen du bi adieren arteko lotura semantikoa badela adimen-begiaren arabera, hau da, euri tantaren eta hortz txikiaren txikitasuna; bigarrena, *tanga* hitza Bizkai aldean erabiltzen da (B-Abadiño: Gaminde & Salterain, 1991) eta “urontzia” eta “apur bat” ere esan nahi du. Hortaz, txikitasun kontzeptua azaltzen da berriro euri tantari dagozkion nozioetan. Horrelaxe ikusten du adimen-begiak.

Zazpigarren kategoria Ekaitzaren euriari buruzkoa da. Itxura denez, jatorri bereko berbak dira: *justuleuri* (G-Oñati: Izagirre, 1959), *jztuleuri* (B-Otxandio: DVEF) *hodei-euri* (*orei-euri*, G-Oñati: Izagirre, 1959), *ostaleuri* (G-Zerain: Bähr, 1931), *ostelebi* (G-Idiazabal, Mutiloa: Bähr, 1931), *osteleuri* (G-Legazpia, Mutiloa, Segura, Zerain: Bähr, 1931) eta *ostraebi* (G-Urrestilla: Bähr, 1931). Hitz horietan guztietan bi osagai azaltzen dira: batetik, ekaitza adierazten dutenak, eta bestetik, euria. Salbuespen bakarra *orei* berba da, *hodeitik* baitator. Zuhur jokatzuz, beste guztiak jatorri beretsukoak izan litezke. Honako bilakaera hauek izan zitezkeen:

<p>*<i>enaurzi</i> => <i>ihurzi</i> > <i>jurzi</i> > <i>fusti</i> + <i>euri</i> → <i>fusturi</i> → <i>fustul</i> + <i>euri</i> → <i>fustuleuri</i> *<i>enaurzi</i> => <i>ihurzi</i> > <i>jurzi</i> > <i>justi</i> + <i>euri</i> → <i>justuri</i> → <i>justul</i> + <i>euri</i> → <i>justuleuri</i> *<i>enaurzi</i> => <i>ihurzi</i> > <i>jurzi</i> > <i>juzti</i> + <i>euri</i> → <i>jzturi</i> → <i>jztul</i> + <i>euri</i> → <i>jztuleuri</i> <i>ortzi</i>+ <i>euri</i> → <i>osteuri</i> → <i>ostal</i> + <i>euri</i> → <i>ostaleuri</i> <i>ortzi</i>+ <i>euri</i> → <i>osteuri</i> → <i>ostel</i> + <i>ebi</i> (<i>euri</i>) → <i>ostelebi</i> <i>ortzi</i>+ <i>euri</i> → <i>osteuri</i> → <i>ostel</i> + <i>euri</i> → <i>osteleuri</i> <i>ortzi</i>+ <i>euri</i> → ?? + <i>euri</i> → <i>ostraebi</i></p>
--

57. taula. Euria: Ekaitzaren euriari buruzko hitzak

Beraz, badirudi, lehenengo osagaian *ortzi*-k parte hartzen duela, baina hitz batzuetan ezezaguna den beste elementu bat dago *f-z* edo *j-z* hasten dena. Hala, *fusturi*, *justul* edo *jztul*. Bestalde, antza denez, bi aldiz errepikatzen den osagai bat dago: *euri*; hasieran, *trumoi* kontzeptua sortzeko eta gero “trumoi-euria” adierazteko. Nahiz eta hitz horiek guztiak kategoria berean sartu, beraien arteko zenbait ñabardura bada, antza. Horrela, *jztuleuri*, *orei-euri*, *osteleuri* eta *ostraebi* berbek *trumoi*- edo ekaitz-euria adierazten dute, besterik gabe. *Justuleuri* hitzak, ostera, Gipuzkoako Oñati herrian (Izagirre, 1959) “trumoi euri laburra” da, hau da, iraupen gutxikoa. Herri berekoa ere bada lehenengo *orei-euri*; beraz, kontu desberdin samarra ematen dute aditzera. Horrezaz gain, *ostaleuri* eleak (Bähr, 1931) Gipuzkoako Zerain herrian “eguzkiaren osteko trumoi euria” esan nahi du; beraz, xehetasun garrantzitsua da “eguzkiaren ostekoa” izan beharra. Azkenik, *ostelebi* berbak, Gipuzkoako Idiazabal eta Mutiloa herrietan bildurikoa (Bähr, 1931), “ekaitz- edo trumoi-euri epela” adierazten du, hortaz, nolakotasuna eransten zaio izaerari.

Azken aurreko kategorian, Zaldizkoak, izendapen bereko hitza dago; izan ere, *zaldizko* berbak, antza denez, bi esanahi ditu: bata, “euri-jasa; urrutitik ikusita euri-jasak hartzen duen itxura” (Harluxet) eta bestea, “Haizeak trabeska jotzen duelarik egiten duen euri-zaparrada” (Elxpuru, 2004). Kasu honetan, lehenengo adiera baizik ez da aintzat hartuko, izatez izaerari baitagokio. Adiera horrekin jaso zen Oñatin (Izagirre, 1959), “Saldíakuakiñ da eurixa: barras

de agua en la lluvia”. Adimen-begiak euri-zutabe horiek zaldizkotzat hartzen ditu, antza eta beste hizkuntza batzuetan *zaldizkoak* ere azaltzen dira. Horrela, Bähr-ek adierazten du artikuluan batean germaniarrek ere *zaldizko* hitza ere erabiltzen dutela:

Pero aún fuera de la esfera mitológica los germanos propendían a concebir como animadas las cosas inanimadas de la naturaleza. Así llamaban “caballos” o “jinetes” a las nubes que corren rápidamente empujadas por el huracán y a la solas azotadas por la marea hacia la playa, cuyas crestas blancas y espumosas se les antojaban los crines de los caballos. Esta metáfora se conserva durante muchos siglos como giro poético en las canciones tanto anglosajonas como escandinavas y alemanas. No puede menos de acordarse de esto el que en vascuence se llame comúnmente en todos los dialectos *zaldizko*, es decir, “jinete” a la columna de lluvia. (Bähr, 1931: 119-122)

Azken kategorian, Euria beste ostagi batekin nahasten denean dugu. Kasu honetan euria da nagusi eta beste fenomeno batzuetan bigarren mailakoa, zeren, beste zenbaitetan euria bera bigarren mailakoa izan daiteke eta orduan dagokion beste kategoria horretan sartu da. Adibidez, *afrontu* berba haizeen eremuan sartu da —“haizea eta euria batera baita”—, baina osagairik garrantzitsuena haizea dela ematen du. Lehenengo azpi-kategorian, euria eta hotza, hitz bakarra dago: *bustiotza*. Horrelaxe eskuratu zen Oñatin (Izagirre, 1959); bigarren azpi-kategoria, nahiz kontraesana dirudien, “euria eta lehortea” batera da. Bi berba topatu dira corpusean *busti-lehor* (*busti legor*) eta *busti-idor*. Lehenengo elkarketa, Bizkaiko Gernika eta Markina herrietan (*DVEF*) eta bigarrena Nafarroako Baztan eta Zaraitzu haranetan (*DVEF*). Bi testutxo emango dira adibidetzat fenomeno hori ulertze aldera: “Busti-legorrean edozer galdu oi da” (Markina); “Busti idorrean edozer usteltzen da” (Baztan). Hirugarren azpi-kategoria “Euria eta haizea” da eta ez, “Haizea eta euria”, hori beste azpi-kategoria bat baita. Bien arteko bereizketa egitea zaila izanagatik ere, hemen hiztunen pertzepzioa errespetatu egiten da. Gauzak horrela, hitz bat eta elkarketa bat dira: *afoinu* (*apoiñu*) eta *euri-bisuts*. Lehenengoa Gernikan jasota dago (*DVEF*). Euskara batuan, *afoinu* berba bada eta gehienbat adiera hauekin erabiltzen da: “hezetasuna”, “kiratsa” eta “haize beroa eta borraska”. Gure corpusean *afoinu* ez, baina *afoin*, bai, Azkuek berak bilduta (*DVEF*), nongotasunik gabe, eta “haize sargoritsua” dela adierazten du. Aipatutako aldaera guztiak latinezko *favoniu(m)* berbatik etor litezke, Greziako mitologian Zefiroa, mendebaldeko haizea, oso haize leuna eta udaberriaren iragarlea. Bestalde, bigarrena, *euri-bisuts* Zestoan bildurik dago eta bertako hiztun baten arabera “Euri garbi-garbiya ezta, guardasola aurrian jarrita re, hankak busti-busti einda gelditzen dira” (Azpeitia, 2003: 13). Gogorarazi behar da *bisuts* elea beste eremu batzuetan ere erabiltzen da, batik bat elurraekin eta lainoarekin. Hurrengo azpi-kategorian, euria beste osagai batekin dela-eta, nabarmentzekoa da euria eguzkiarekin batera azaltzen denean. Horregatik ipini da beste taula bat, 58. taula, hain zuzen ere:

Azeria +	Deabrua +	Eguzkia +
Azeri-Bataio Azeri-besta (Azeribesta, Azeri besta, Axeri-Pesta, Azeribesta) Azeri-erauntsi Azeri-espos (Axeria espos, Azeri espos) Azeri-ezkontza (Azari-ezkontza, Azeri-ezkontza) Azeriaren ezteiak (Axariaren ezteiak, Axarien ezteiak, Axarien ezteiak, Axeien ezteiak, Axeieztei Axeri eztei, Axeriain eztei, Axerien eztei, Azeri eztei, Azeri-ezteiak)	Deabruaren ezkontza (Deabrian ezkontza) Lu diable ke ze maride (Azeri-Ezkontza) (gaskoiz)	Eguzki- (Iguzki) Bortxaxta Eguzki- Txangot Eki eta euri (Ekhi(e)tebi)
Jauna +	Martxoa +	Ortzi +
Jaunaren ezteiak (Jaunan ezteiak)	Martiko Egualdi Martxo Egualdi	Ostebi Osteleuri
58. taula. Euria: Euria eta eguzkia aldi berean		

Lehenengo eta behin esan behar da hitz eta elkarketa gehientsuenak *EHH*Atik datozela. Azaldutako hitz-elkarketen artean azpimarratzekoak dira *azeri* eta *deabru* berbak dauzkatena. Bestalde, euskalkiei dagokienez, euskalki nagusi guztiak daudela nabarmendu behar da, bizkaieratik zubereraraino, eta guztietan azpi-kategoria bera da, aldi berean eguzkia eta euria. Harrigarri samarra izanik ere, *azeri-ezkontza*, adimen-begiak sortutako *ezteiak* irudia, japonieraz dokumentaturik dago: Zilegi bekit interneteko aipu hau egitea: *Kitsune no yomeiri* esaten da, hain zuzen ere²⁸. Ez daukat beste daturik, baina baliteke ekialdeko beste hizkuntza batzuetan ere erabiltzea. Japonian, *Kitsune no yomeiriak* ospatu egiten omen dituzte herri zenbaitetan euria eskatzeko; zorte ona ematen du, eta, beraz, euria erakarri ohi du horrelako jaiak ospatzeak. Gainera, egiaztatu dudanaren arabera, *Kitsune no yomeiri* bat ospatzen den gehienetan euria izaten da gogotik. Hori zorionaren adierazle omen da Japonian! Beraz, horrek guztiak zer pentsatu ematen du. Hizkuntzaz haraindi, hizkuntza kulturaren ispilua baldin bada, nola edo hala, kulturak elkarri loturik daudela ematen du; hots, zantzu guztien arabera, —beste arlo batzuetan ere ikerketa ugari egin baitira— zentzuzkoa dela pentsatzea euskal kultura ez dela bakarturik egon, beste kultura batzuen eragina izan duela eta, zergatik ez, euskal kulturak besteei ere eragin izan diela. Bestela, nola uler liteke elkarretarik hain urrun dauden bi hizkuntzek kontzeptu berbera erabiltzea? Adimen-begi bera dute euskal eta japoniera hiztunek kontu honetan? Beste alde batetik, horretaz gain, gaskoi hizkuntzaz baliatzen den Bastida herrian (hirueleduna) *Lu diable ke ze maride* esapidea ere erabiltzen da (*EHHA*). Kasu honetan, *azeria* ez da ezkontzen, *deabrua* baizik. Hala ere, bertatik ez os urrun, Bardozen, *Deabruaren ezkontza* erabiltzen da; hortaz, gaur egun hizkuntza batetik besterako maileguak etengabe

²⁸ https://en.wikipedia.org/wiki/Kitsune_no_yomeiri

gertatzen badira ere, segur aski antzina, harremanak hain sendoak ez baziren ere, hizkuntzek elkarri makina bat berba pasatu ohi zioten elkarri, eta ziur asko, eleak ez ezik, kontzeptuen harat-honata itzuri-ezina zen. Anjel Lertxundik idatzitako *Letrak kalekantoitik* izeneko liburuan (1996) *Azeriak galdu zuena* deritzon sarreran honako hau dakar:

Sirimiriari deitzen zaio horrela, oilo-lapurretan egin eta gero sirimiri hasi zen batean arrastoak utzi zituelako lurrean. Azeri bat hiltzen zuenak oilasko bana jasotzeko eskubidea zuen inguruko baserrietan. *Azeriaren ezteia* edo *azeriaren bataioa* deitzen zaio, berriz, eguraldi euri-eguzkitsuari. Azeriak ezkutatzeko abilezian, anbiguotasunean alegia, oinarritzen du bere maltzurkeria. Muga-mugako egoera horretan, eguraldi eguzki-eguzkitsuan, sortzen da ortzadarra ere. Gure tradizioak dienez, ortzadarraren beste aldera pasatzen den neska mutil bihurtzen da, hara pasatzen den mutila, berriz, neska. Hortik dator, nik uste, ortzadarrari edo eguraldi euri-eguzkitsuari azeriaren ezteia deitzeko ohitura, eta oinarri bera duelakoan nago Kurosawaren ametsak filmeko lehen atala ere. Gaskoinek ere badute anbiguitate beretsuko uste bat: eguraldi euri-eguzkitsua denean, deabruak bere emaztea jipoitzen omen du eta bere alaba esposatzen. (Lertxundi, 1996: 50)

Ildo bertukoa Zuberoa aldeko *Jaunaren ezteiak* (*Jaunan ezteiak*) dela esan liteke (EHHA). Kasu honetan *azeri* edo *deabruaren* ordez *jaun* erabiltzen da zentzu berarekin. Bestalde, badira *eguzkia* edo antzekoa azaltzen den terminorik; adibidez, *iguzki bortxaxta*, *eguzki txangot* eta *ekhi(e)tebi*. Kasu honetan elkarketak gardenagoak dira *eguzki*, *eki* eta *euri (ebi)* berbak daude eta. Nabarmentzekoak dira Zuberoa aldeko *ekhi(e)tebi* aldaerak (EHHA), “eguzkia eta euria”, alegia. Bestalde, Mendebaldeko euskaran “oso bero handia” adierazteko erabiltzen den *txangot* berbak hemen beste zentzu bat hartzen du: “Eguzki *txangot* esakunea bi zentzutan erabiltzen da: alde batetik, egun euritsuetako aterruneetan irteten den eguzkia horrela izendatzen da, eta, bestetik, haize gutxiko egun baten, eguzkiak gogor berotzen duenean modu berbera erabiliko da” (Llosa, 2002). Gainera, martxoari loturiko esaerak ere baditugu; adibidez, *martiko* edo *martxoko eguraldia*. Dirudienez, sarritan suertatzen da martxo aldean horrelako aroa; eguzkia eta euria aldi berean, alegia. Horrela ikusten du adimen-begiak eta honela, behintzat, horrela adierazten du hiztun batek: “Euzkixa ta eurixa martiko egualdixa. Esaera” (Elexpuru, 2004). Amaitzeko, *ostebi* eta *osteleuri* elkarketak ere aro mota hori izendatzeko ere erabiltzen dira. Biek ala biek daukate bere baitan *ortz(i)+euri* konposizioa. Bi berba horiek, *ortzik* eta *eurik*, topo egiten dutenean honako elkarketa eta esanahi hauek sortzen dira:

Hitza	Esanahia	Herria	Biltzailea
Ostaleuri	Eguzkiaren ondorengo trumoi euria	G-Zerain	G. Bähr
Ostebi	Euria eta eguzkia aldi berean	G-Idiazabal, Zaldibia	G. Bähr
Ostelebi	Ekaitzaren euri epela	G-Idiazabal, Mutiloa	G. Bähr
Osteleuri	Euria eta eguzkia aldi berean	G-Legazpia, Mutiloa, Segura, Zerain	G. Bähr
Osteleuri	Trumoi euria		Azkue
Ostraebi	Trumoi euria	G-Urrestilla	G. Bähr
59. taula. Euria: <i>Ortzi</i> + <i>Euri</i>			

59. taulan ikus daitekeenez gero, bost esanahi dituzte elkarketek. Bat izan ezik, beste guztiak Bähr-ek bildu zituen 1931n (Bähr, 1931). Taulan dagoen konturen bat harrigarritzat jo daiteke, ez baita batere ohikoa herri berean hitz baten bi aldaera erabiltzea gauza desberdinak adierazteko. Izan ere, Idiazabalen *ostebi* eta *ostelebi* erabiltzen dira; Mutiloan, *ostelebi* eta *osteleuri*. Bestalde, Zerainen *ostaleuri* berbak bi esanahi dauzka, “eguzkiaren ondorengo trumoi euria” eta “euria eta eguzkia aldi berean”.

Azken azpi-kategorian, euri-jasa txingorrarekin, bi berba dira corpusean: *irazarri* eta *zizar*. Hitz horrek txingorra baizik adierazten duten aldaerak ditu. *Zizar* Isturitzen erabiltzen da (EHHA) “euria eta txingorra aldi berean” adierazteko, baina Aezkoan (Nafarroa) *tzitzar* txingor soila da (DVEF); zubereran (DVEF) *tzitzer* txingor xehea da eta *zitzer* txingor hutsa; Zaraitzun (Nafarroa) *tzitzor* (Camino, 1997) txingorra ere bai; azkenik, Bardozen (Lapurdi), *zitzar larria*, txingor handia eta *zitzer (t)xehea* txingor hutsa (EHHA). Beraz, badirudi eremu edo eskualde beretsuko hitzak eta aldaerak direla. Bukatzeko, *irazarri* “euri-jasa txingorrarekin batera” Lhanderen Hiztegian (Lhande, 1926 / OEH). Hala ere, hitz horrek badu beste esanahi ere zubereran: erauntsia (DRALV). Horrezaz gain, *erazarri* aditzak “gogotik euria elurra egin” esanahi du (Harriet / apud OEH) eta *erazarri* izenak “zaparrada” Zaraitzun (DVEF) eta Behe-Nafarroako Gamarte herrian (EHHA) eta “erauntsia” Alduden (DRALV) eta Donibane Garazin (DVEF).

4.5.2.2. Kantitatea

Euri-elurra: kopuru txikia	Euri-kolpea	Euri kopurua	Euri-erauntsia
Liprits	Euri-toketada (Euritoketaia)	Euritza	Ikus 61. taula
Euri-zaparrada			Izaera Usaina: Sapore Adarra: Erauntsi-adarra
Ikus 62. taula			Kalitatea Adarraitsu Pesiatsu Truxutsu
Euriaren ondorioak			
Euriak sortutako lokatza	Uholdea		
Euri-lirdiska (Eurilirdiska) Euri-lardiska Eurilardaska)	Hurte Hurte Iholde Maienko Pesi Tulubia Turebio Udalde Udalde Ufala Ufalaldi Ugalde	Ugarre Ugolde Uhalde Uhaste Ühate Uhazte Uheldo Uholde Uial Uiol Uiolte Ujal	Ujol(a) Ur Handi Uralde Uraldi Ur-amil (uramil) Ur-arangel (urarangel) Urasti Euri-elementa (Uri-elementa) Uriol Euri-zaparta (Uri-zaparta) Urolde Usal
60. taula. Euria: Kantitatea			

60. taulan, bigarren nozio nagusiari buruz, kantitatea, xehetasun batzuk egitea merezi du. Alde batetik, aparteko beste bi taula sortu direla aipatu behar da; Euri-erauntsiari buruzkoa, 61. taula, eta Euri-zaparradaren gainekoa, 62. taula. Lehengoetan bezala, berauek beste kategoria batzuk ere badituzte, errazago ulertzearren taula honetan utzi ditugunak, Euri-erauntsiaren izaera eta kalitatea, hain zuzen ere. Esanak esan, hauexek dira kategoria guztiak: Euri-elurraren kopuru txikia, Euri-kolpea, Euri-kopurua, Euri-erauntsia, Euri-zaparrada eta Euriaren ondorioak.

Lehenengo kategoria dela-eta, Euri-elurraren kopuru txikia, Oñatin (Izagirre, 1959) bildu zen *liprits* berba eta badirudi badituela beste aldaera batzuk –*lipits*, *lipitz*, *lipritz*– “kopuru txikia” edo “pixka bat” adierazten dutenak (OEH). Beraz, adimen-begiak eremu honetara ere lerratu du “pixkatasuna”.

Bigarren kategoria, Euriaren kolpea da; oraingoan ere, hitz bakarra topatu da corpusean, *euritoketaia*, eta gainera, aurreko biltzaile berak jasota (Izagirre, 1959). Itxura denez, bi elementuz osatutako elkarketa da, *huri* eta *toketaia*. Dirudenez, azken berba honek *toketadarekin* zerikusia du; izan ere, autore berak *edur-toketaa* biltzen du “elur kolpea”

adierazteko; beraz *toketada* “kolpea” izango litzateke. Añibarrok delako *toketada* horren berri ematen du: “Tope, el golpe de una cosa con otra” (OEH).

Hirugarren kategoria Euri-kopurua da; kasu honetan hitz bakarra ere bai, *euritza*. Eskuratutako adibide guztiak Bizkai aldekoak dira; beraz, bertako berba bide da: “Nai dan *euritzak* eginda emengo errekea ganez eginda euki dogu” (Mokoroa, 1990). Ziurrenik *-tza* atzizkiak ugaritasuna adierazten du.

Gorago aipatu bezala, laugarren kategoriaren inguruan –Euri erauntsia– beste taula bat egin behar izan da: 61. taula. Izan ere, zenbat-gura termino, hitz eta elkarketa aurkitu dira corpusean eta azaltzekotan taxuzko sailkapena egin behar izan da. Euri-erauntsiaren inguruko kontzeptuak taula bakarra osatzeko adinako garrantzia dauka adimen-begiaren arabera. Euskalkietan askotariko hitzez baliatzen dira. Batzuk solte erabiltzen badira ere, beste batzuk, oster, hitz-elkarketetan erabiltzen dira, *huri* eta *ortzi*, edo izenondoekin; adibidez, *denbora* eta *eguraldi*. Pentsatzekoa denez gero, *Euriari* loturiko hitz-elkarketak gailentzen dira. Izan ere, bertan kontzeptu honi berari izena ematen dion hitz-elkarketa dugu: *huri-erauntsia*. Hona hemen, bada, 61. taula:

Abazera Adar-aire (Adarraira) Adarraitsu Aldaboi Aldagoi Azorri Basaka Beltzuri Bendabal Bisuts (Bisuntxa, Bisuspe, Bixutz, Bizuntza) Borraska Burrada Burruskada E(r)aso Ekaitzaldi Ekaizte (Ekaiste)	Elemen Bat Gaxto Elementa Elementaa Elementak Elementak Eurintik? Elementu Entsarri, Ephesi Eramaittu Eranso Eraso Erasoketa Erason Erazarri (iazarri, irazarri, jazar, jazarteka) Jasa Tenpesta Idol(a) Ikaitz Intsharri	Iñuntzi Isola Jeutsahala (Yeutsahal) Kalerna Kaskabur Kolpe (aurigolpe, eurigolpe) Mendabal Murruska Negu Negutze Nekaitz Nekhaitz, Nekhaiztu P(h)esiatsu Tanpeta Tanpeta Tarrapata Tenpesta (Tenpest, Tenpesta, Tenpesta Aide Tenpestate, Thenpesta)	Truxu (Truixu, Truizu, Truju, Trujutsu, Truxo, Truxu, Truxutsu) Txurrubila Uherraka (Uberraka, Ugerraka) Uharri Uhart Urketa Zapar Zaparrara, Zarrapata Zimoleria (siimoleria) Zoperna (Soberna, Soperna, Zoberna, Zoferna, Zoperna, Zuferna) Zurrunbilo (Zurrumillo) Zurrupita (Xurrupita)
Aro+	Eguraldi+	Euri+	Ortzi+
Arogaitz / Arotzar / Aroxar (Aogaitz, Arotzar, Aroxar, Augaitz)	Eguraldi (Egualdi) txar Eguraldi beltz Trumoi-eguraldi (Turmoi egoaldi)	Euri (Uri) pesia Euri (Uri) uhar Euri uhar Euri- (Uri) zarrapata Euri-borraska (Euri Borrask) Euri-burrada (Euri burrada) Euri-burrusta Euri-elementa (Euri element Euri-erauntsi (Ebi e(r)aurantsi, Euri ehaurantsi) Euri-kolpe (aurigolpe, eurigolpe) Euri-kuelak Euri-tarrapata Euri-tenpesta Euri-txapasta (Ebi txapasta) Euria zaldiz ari Euriak euriari (Uriak uriari) Euriketa (Auriketa, Eudiketa, Iuriketa)	Ortzi-erauntsi (Ortzieauntsi) Ortzi-euri (Ortzi-uri)
Denbora+	Erauntsi+		
Denbora bihurri Denbora bihurritu (Denbora bihurritia) Denbora borthitiz Denbora txar (Denpora txar) Denborale (Denporal, Denporala, Denporale) Denboraren trabala (Denboain trabala) Denboratzar (Denboatzar)	Eraunsi (Eraontsi,, Eraunsi, Erauntzi Eraunsi) Erauntsi fier Erauntsiketa Erauntsi-zuperna (eraunsi zuperna)		
61. taula. Kantitatea: Euri-erauntsia			

Edukiari dagokionez, kategoria honen barruan ildo bereko hitzak sartu badira ere, azpimarratu behar da oso multzo zabala erabili izan dela, eta baliteke askoz azterketa sakon eta zehatzago eginez osterantzeko emaitzak ematea; hots, euri-erauntsizat jotzen direnak beste sailkapen batzuk edukitzea. Hain da zabala tesi honen eremua hartzen duena gaitza baita horrelako azterketa aurrera eramatea. Segur aski, horrelakoak geroago, banan-banan eta xeheago egin behar lirateke.

Hitz solteen artean, jatorriaren araberako honelako sailkapena egin liteke: ondarezko hitzak (onomatopeiak eta bestelakoak) eta maileguak. Azterlan honen asmoa eta helburua etimologian asko sakontzea ez bada ere –hori beste ikerketa mota bat izango bailitzateke– azpi-kategoria honetan argi samar sumatzen da euskarak bere baitan daukan aspektu integratzaile eta dinamizatzailea. Maileguak bereganatu eta egokitu egiten ditu bere beharretara egokituz. Adibidez: *abazera*, *borraska*, *kolpe*, *tenpesta*, *zoberna*... Hori dela-eta, beharbada, goraxeago aipatu den legez, maileguen eta ustezko ondarezko hitzen arteko ikerketa zehatzagoa egin beharko da, ea esparru bertsuren jabe ote diren. Euskaldunaren adimen-begiak agian ikusten du xehetasun edo kontzeptu desberdinen bat. Mintzaira ugaritan gertatzen den bezala, Euri-erauntsia kantitate oparoari dagokion arren, beharbada, hiztunak beste zerbaiti antzematen dio.

Maiz esplikatu izan den legez, gauzak izendatzeko jolasean, hizkuntzaren eta pentsamenduaren arteko erlazioak ematen du, azkenik, prozesu kognitiboen eta kulturaren arteko erlazio bilakatu dela. Aipatuak aipatu, bildutako berba guztien nolabaiteko azterketa eramango da aurrera ordena alfabetikoari eta ustezko hitz soilei jarraituz. Gauzak horrela, taulako lehenengo berba *abazera* da; Van Eysek bildu zuen (*OEH*) eta lapurteraz erabiltzen da, antza. Jatorriari dagokionez, itxura guztien arabera, latin edo hizkuntza erromaniko batetik etor liteke: gaztelaniazko *aguacero* eta *abazerak* antz handi samarra dute, zalantzarik gabe. Horrez gain, 62. taulako *aguaxer* hitzak (*EHHA*) jatorri berekoa ematen du. Bestalde, jarraian *adar* ardatz duten hiru berba dira: *adar-aire*, *adarraira* eta *adarrailsu*. *Adar* terminoak, besteak beste, “euri erauntsia haize zakarrarekin, bat-batean sortu eta denbora laburra irauten duela” (Harluxet) esan nahi badu ere, aurkitutako esanahien arabera, *adar-aire* eta *adarraira* eleek gehienbat *euri-erauntsia* adierazi nahi dute eta badirudi “haize” aztarnarik ez dagoela. Ipar aldeko euskalkien hitzak dirudite; izan ere, Lhandek eta Dasconaguerrek dakartzate euren hiztegieta (*DRALV*). Lhanderen hiztegi berean (1926) kalitate ere azaltzen da, *adarrailsu*, alegia. Horrez gain, *adar* hitza oso emankorra da etnometeorologian. Elkarketa askotan azaltzen da. Hori dela-eta, corpusean aurkitutako guztien berri emango dugu. Horrela igar daiteke *adar* hitzaren hedadura semantikoa “Zenbait animaliak bekoki-aldean dituzten hezurrezko luzakinetako bakoitza; zenbait animaliaen buru aldeko luzakinak. eta zuhaitzaren enborretik ateratzen diren besoetako bakoitza” (Harluxet)”, hau da, nola euskaldun gizakiak, mendeak joan, mendeak etorri, zabaldu duen *adarraren* irudia bestelako beharrian lexikoetara:

- Ostadarra bera adierazteko:
 - *auriadar*: goi-nafarrera / N-Aezkoa (*DVEF*).
 - *itxasoadar*: (Barandiaran, 1983b).

- *zibiadar*: N-Erronkari. (Estornes, 1997).
- *zubiadar*: N-Uztarroze. “*Zubiadarraren petik igareta neskatxak mitil eta mitilak neskatxa egitan drala erraiten daioei aurrer*” (DVEF).
- Ekaitza edo erauntsia adierazteko:
 - *adar*: L-Bardoze. (Duvoisin *apud DRALV*).
 - *adarraire*: L-Bardoze. (EHHA).
 - *adar aire*: (Dasconaguerre *apud DRALV*).
 - *adarraira*: behe-nafarrera. (Lhande, 1926).
- Laino eta hodeiekin batera, trumoi:
 - *trumoi adar*: gipuzkera. *Turmoi-adarra degu*. (Mokoroa, 1990).
- Erauntsi baten adarra, hau da, goitik behera ikusten den euri zutabea, edo:
 - *erauntsi adar*: behe-nafarrera / zuberera (DVEF).
- Euria bota ahalean egin:
 - *euria adarrez etorri*: gipuzkera. *Adarrez dator euria*. (Mokoroa, 1990).
- Han-hemenka txingorra botatzen duen hodeia:
 - *harri adar*: N-Erronkari / Zaraitzu (DVEF).
- Euriz beterik datorren hodeia:
 - *adar gaizto*: gipuzkera. *Adar gaiztoa dator*. (Mokoroa, 1990).
- Hodeitxoa:
 - *odoi adar*: (DVEF).

Hurrengo berba *aldagoi* da eta haren aldaera, *aldaboi*. Azken hau Gipuzkoako Amezketan herrian erabiltzen da (EHHA). Zegaman ere erabiltzen bide da *aldagoi* hitza, *jasa*, *zaparrara* eta *eraso* hirukotearekin batera, “euri-erauntsia” adierazteko (EHHA). Hala eta guztiz ere, *aldagoi* haizeari lotuago dagoela: “haize indartsu eta euritsua” (Harluxet) edo “(G-goi ap. A). huracán, viento fuerte con lluvia” A. Erauntzia. Jasa. Euria” (OEH); *aldaize* hitzaren sinonimoa ere izan liteke Gipuzkoako Urretxu eta Legazpi herrietan mendebaldeko haizea aditzera emateko (EHHA). Adimen-begiak “goitasuna” edo sumatzen du hitzaren bigarren osagaian, hots, goi-goian edo goi-goitik etortzen den ostagia.

Corpuseko hurrengoa *azorri* da. Bildutako datuen arabera, hitz hau esanahi bakarrekoa da, euri-erauntsia, eta Lapurdiko Ainhoa herrian erabiltzen da (DVEF). Berdina den arren, ez dugu uste “azaren orriarekin” (*azorri*) zerikusia duenik. Hala eta guztiz ere, adimen-egiak hauteman lezake euri-erauntsia aza-orria izango balitz bezala.

Azorriaren ondotik, *basaka* dator. Berba hau Baztan aldean (Nafarroa) erabiltzen da (Izeta, 1996) eta euri-erauntsia ez ezik beste ñabardura ere ba omen dauka Izetaren hitzetan: “Euria ari duen eta haize bortitza dabilen unea”. Hortaz, agian *euria haizearekin batera* azpi-kategorian —*huri-bisutsa*— ere sartu behar litzateke edo alderantziz “haizea euriarekin batera”-n —*afrontua*—. Dena dela, Baztango Aniz herriko beste datu batek (*EHHA*) *huri-erauntsia* besterik ez du adierazten.

Baztangoa bertakoa ere bada hurrengo hitza, *beltzuri*. Errazun bilduta dago (*EHHA*), eta adimen-begiak *beltz* + (*e*)*huri* elkarketa sortu du, antza. Bestalde, gogoratu behar da hitz honek “amorrua, haserrea edo sumina” ere adierazi nahi duela. Hortaz, baliteke gurutzatze fonetiko-semanticoa gertatu izana.

Jasotako hurrengo hitza *bendabal* da. Mendebaldeko haizearen inguruko kontu guztiak jorratzean aztertu zen arren, orduan aipatutakoa oroitarazi behar da. Izan ere, frantsesez *vent d’aval* elkarketak beheko edo azpiko haizea esan nahi du eta haize-kontuetan ipar-mendebaldetik hego-mendebaldera bitarteko haize mota guztiak izendatzeko erabiltzen omen da. Mendebaldeko haizeak gehienetan euria ekarri ohi du berekin eta hori dela-eta, seguru asko, Bizkaiko Elorrio herrian (*EHHA*) *huri-erauntsia* izendatzera igaro da. Beraz, ohiko dikotomia sortzen da hemen ere, “euria + haizea” ala “haizea + euria”? Agiri denez, hiztunen adimen-begiekin biak batera sumatzen dituzte.

Hurrengo berba sorta, *bisuntxa* (*DRALV*), *bisuspe* (Etxaide: *DRALV*), *bixutz* eta *bizuntza* (*DRALV*) beste eremu batzuetan ere erabiltzen da, badirudi, gehienbat, adimen-begiak ikusgaiztasunarekin zerikusia daukan kontzeptua eratu duela. Aipatzekoa da *bisuts* berba elurraren eremuan, “haizearekin batera elur ekaitza” dela (Harluxet). Kasu honetan “euri ekaitza edo erauntsia” ere esan gura duela ematen du. *Bixutz* (*EHHA*), adibidez, Bizkaiko Ibarruri herrian “euri-erauntsia” izanagatik ere, Orozko aldean “lainoa” baizik ez da (*EHHA*).

Ondorengo hitz-zerrendan *borraskaren* ingurukoak bildu behar dira, *borraska*, *burrada*, *burraskada* eta *murruska*, hain zuzen ere. Jatorri berekoak direlakoan, lau hitzok multzo berean sartu dira. Antza denez, grekoan bilatu behar da berbaren sorburua: grekoaren dialekto atikoan *Borrās* erabiltzen zen, greko estandarraren *Boréas*-en aldaera “ipar haizea” zena (§4.3.6). Handik latinera igaro eta “ekaitza edo erauntsia” adierazten hasi zen, horrelakoak iparretik etortzen direlakoan (Corominas, 1983). Nolanahi ere, atzizkiren baten eraginez edo beste arrazoiren batengatik aldaera ugari ditu: *borraska*, Getxon baturik dago (*EHHA*), *burrada* —agian, aldaera zaharragoa—, Zuberoako Domintxaine-Berroeta herrian —batzuetan elkarketan *eüri burrada*— (*EHHA*), *burruskada*, Bizkaiko Leioa herrian (*EHHA*) eta *murruska* —ziur asko *b- m-* bihurtu da— Gipuzkoako Bergara herrian (*EHHA*). Azken kasu honetan, litekeena da beste

berba-gurutzaketa bat jazo izana; izan ere, Bergaran ere, *murruskara* berbak *purrustada* esan nahi du, baita “breve chaparrón tormentoso” ere (Elexpuru, 2004). Jakina, *borraska* baten *murruskada* ez da nolana hiko. Azkenik, aurrerago aztertuko bada ere, elkarketan ere azaltzen da, *huri-borrask*. Horrelakoa Hendaian batuta dago (*EHHA*).

Hurrengo hitz-saila *eraso* hitzaren ingurukoa da: *easo*, *eranso*, *eraso*, *erasoketa* eta *erason*. Guztiak “huri-erauntsia” edo “huri-jasa bortitza” adierazteko erabiltzen dira. *Easo* eta *erason* Gipuzkoako Andoain herrian jasota daude (*DVEF*); *eranso*, Oñatin (Izagirre, 1959) eta *eraso* ere bai (*EHHA*); *eraso*, Nafarroako Lesaka herrian eta Gipuzkoako Arrasate eta Oiartzun herrietan (*DVEF*). Horren arabera, *eraso* berbak esparru etnometeorologikoan “tempestad de lluvia, granizo o nieve” adierazi gura du. Horrenbestez, hiru eremutako hitz adierazkorra da, euria, txingorra eta elurra, alegia. Azkenik, *erasoketa* Gipuzkoako Hondarribia herrian bildurik dago (*EHHA*). *Eraso* eta *erauntsi* hitzak fonetikoki hurbil-hurbil daude —*erauntsi* bera eta berarekiko elkarketak aurrerago aztertuko dira— eta beharbada beraien artean gurutzaketak ere gertatzen dira. Gainera, zenbaitetan bi hitzok gauza bera ematen dute aditzera etnometeorologian: “egurats-gertakariez, eraso, ekaitza”.

Azken hitz hau, *ekaitz*, izango da hizpide orain. Badirudi bere baitan biltzen duen eremu etnosemantikoa nahiko zabala dela. Berezko ekaitzaren eremuaren azterketa egin denean (§4.2), beraren hedaduraren berri eman da: ekaitzak, tximistak eta trumoiak izaten diren unean ez ezik, oso eguraldi kaxkarrak —adibidez, euria eta haizea— jotzen duenean ere izaten dira. Gauzak horrela, Euri-erauntsiaren eremuan, ekaitzarekin zerikusia duten hiru berba aurkitu dira corpusean, *ekaitzaldi*, *ekaizte* eta *ikaitz*. Lehenengoa, Nafarroako Oderiz herrian bildurik dago (*EHHA*) eta bigarrena, Gipuzkoako Mendaro eta Nafarroako Gaintza eta Etxarri-Aranatz herrietan (*EHHA*); beraz lau herriak elkarretatik hurbil samar. Hirugarrena, *ikaitz*, Gipuzkoako Deba herrian erabiltzen da (*EHHA*). Ohartarazi behar da lehenengo bi hitzek berekin bi atzizki daramatzatela, *-aldi* eta *-te*, oro har, denbora edo garaia adierazten dutenak.

Ondorengo sortan latinetik bide datorren *elementa-elementu* bikotearen ingurukoak dira aztergai. Gaur egun, ondoko erdaretan *Les elements*, *Los elementos* terminoak erabiltzen dira naturaren osagai eta meteorobotitzak adierazteko. Hala ere, euskaraz, “huri-jasa edo zaparradei” izena emateko erabiltzen dira gehienbat. Hori dela-eta, zenbaitetan nekez jar daiteke muga “zaparrada” eta “erauntsi”-aren artean; ez da batere erraza zedarritzea; adimenaren-begiak aiko-maiko jarduten du. Horrezaz gain, zenbait herritan berba bat baino gehiagoz baliatzen dira fenomeno bertsuari irizteko eta beste zenbaitetan elkarketan ere erabiltzen da, *huri-elementak*. Lehenengo terminoa konposatua da, izena+bat+izenondoa, *elemen bat gaxto*. Zuberoako Altzai herrian jasota dago (*EHHA*); *elementa*, herrialde bereko

Santa Grazin erabiltzen dute (*EHHA*) eta Urdiñarben ere bai, *isola* elearekin batera (*EHHA*). Lapurdiko Makea herrian, *euri-burrusta* elkarketarekin batera, *elementa* hitzaz (*EHHA*) ere baliatzen dira hiztunak; *elementaak*, bi *a* eta guzti, Nafarroako Luzaide herrian baturik dago (*EHHA*); Duvoisin idazleak hitz honekin esamolde baten berri eman zuen: “*Elementak elementari* ethorri da, il est venu par une pluie battante” (*OEH*); Nafarroa Behereko Isturitz herrian ere erabiltzen da (*EHHA*) *elementak* eta bigarren osagai bat argi ez dagoena, **eurintik*. Azkenik, ekialdean ez ezik, mendebaldean ere berba hori erabiltzen bide da. Adibidez, Gipuzkoako Hernani herrian (*EHHA*), *elementu*, euri erauntsiari izen emateko. Hitz sorta hau azalduta, eta jakina, beste hainbat, ohartzen gara nolako joera izan duen euskarak beste hizkuntza batzuetatik datozen berbak bere egiteko. Bereganatu ez ezik, makina berba bati euskal moldean ere eman die, eta euskaldun gizakiaren buru-iruditerian tokitxo hartu dute adimen-begiaren tarteko.

Hurrengo berba dela-eta, herri berean, Zuberoako Sohütan, bi aldaera erabiltzen bide dira, *entsarri* eta *intsharri* (*EHHA*). Bertan *tenpesta* ere erabiltzen da, baliokidetzat harturik. Hitz hori Zalgizen ere, Sohütatik kilometro gutxira, bilduta dago eta “*prison, séquestration*” adierazi nahi du (Lhande, 1926). Horrezaz gain, badira beste ele bi *entsarria*, euskalki berekoak “elur-ekaitza” izendatzeko: “*Entsarria, nekhaitz elhurrezko dirauena*” (Alth in Lander RIEV 1911, 598 *apud DRALV*). “*Entsarre (Alth), période de tombée de neige Lh*” (*OEH*).

Jarraian dagoen berba ere bakarra da, *ephesi* (*DVEF*). Azkuek baizik ez dakar eta Lapurdiko itsasertzean erabili eta “*tempestad, tempête*” dela adierazten du. Datu horrekin, berba sailkagaitza da eta eremu gehiagotan ager liteke; adibidez, ekaitzaren eremuan. Hala ere, corpusean itxura bereko beste zenbait hitz ere badira, ziurrenik berarekin zerikusia dutenak: *pesi(ak)*, *phesiaka*, *phesiatsu* eta *euri-pesia*. Guztiok “euriaren indarra” eta “bizitasuna” kontzeptuak dauzkate bere baitan; “*Uria heldu zen, phesiaka*, Noeren denboran bezala” agertzen da *Piarres Adame* liburuan (Barbier, 1926 *apud DRALV*). Beraz, huts egiteko beldurrik gabe, *ephesi-p(h)esia* bikotea elkarri loturik dagoela pentsatzeraino hel liteke. Nolanahi ere, azpi-kategoria erabakitzeak lanak ematen ditu, zeren dauden testu eta aipamenekin gaitza gertatzen baita euri-erauntsiaren eta euri-zaparradaren arteko muga zehaztea. Bestalde hitz honen jatorriari dagokionez, beharbada. Latinezko *spissus*, *-a*, *-um*, izenondoarekin zerikusia izan dezake. “*Lodia, trinkoa, bildua estu-estua*” esan nahi du eta horrelako euria mota horretarikoa izaten da ezbairik gabe.

Hurrengo hitza *eramaittu* da, eta azpi-kategoria honetan bakarrik egon arren, hitz-multzo zabalago baten kidea da. Hitz-multzo hori *eramai*, *eramaitu* eta *eramaitza* hitzez osaturik dago. Termino gehienak Izagirrek jasotakoak dira Oñati aldean (Izagirre, 1959). Kasu

honetan ez dago ukatzerik *eramaittu* euri-erauntsi luzea dela, gaur egun; Zabalaren arabera; horrelaxe erabiltzen delako: "...euri-jasa eta erauntsien tankeran erabili ohi da, gaur bertan ere, gehienbat: *eramaittu* bat, egun batzuetako erauntsi-aldia, edo *eramaittu gogorra*, ekaitzaldi gaiztoa izan denean..." (Zabala, etnomet.eus: 2006-06-19): Azpimarratzekoa da Oñati bertan *eramaitu* aditz gisa "agiraka egin" edo "eraso egin" adierazteko erabiltzen dela: "*Erámaittu* xaot, le he reñido, reprendido" "Goixan zana beian *erámaittu (erámaiketia)* nitxaan, atacar" (Izagirre, 1959). Beraz, horra hor adimen-begiak eremu etnosemantiko bertsua hartzen duen zenbait hitz eta aditz: *eraso-erasan-erauntsi-eramaitu*. Laurok *-ra-* artizkia dute, seguru asko, antzinako aditz arazleek zeukaten artizki bera. Adibidez, *eman* => *eRAman* edo *ekarri* => *eRAkarri*, hain zuzen ere.

Ondorengoak, *erazarri* berbak, aditza izateaz gain, —gogotik euria edo elurra egin— euri- erauntsia ere esan nahi du Nafarroa Behereko hiriburuan, Donibane Garazin (*DVEF*). Aldaera batzuk ere badira, *irazarri (DRALV)*, *iazarri (Z-Montori, Pagola: EHHA)*, *irazarri (DRALV)*, *jazar (Lhande, 1926)* eta *jazarteka (DRALV)*. Gorago aipaturiko berben ildotik doaz; izan ere, "eraso egin" ere adierazteko erabiltzen da eta goraxeago aipaturiko *-ra-* artizkia ere daraman berekin:

1 **erazarri, erezarri** (SP, Dv, H, A). *I. Atacar. "Heurter, donner contre" Silvain Pouvreau Duvoisin v. erauntsi, 1 eraso. Flubioak erezarri ukhan drauka etxe hari, eta ezin higitu du: ezen arroka gainean fundatua zen. Leizarraga Lc 6, 48 (He jazarri, Dv, Arriand, Ker e IBe jo, Leon zafratu, IBk eraso). (OEH)*

Aurretik azaldutakoari loturik, badirudi euskal hiztunaren adimen-begiak "eraso egin" eta "euri-erauntsia" bere buru-iruditerian uztartzen dituela eta ez da harritzekoa sakon-sakonean munduaren ikuskeran kontu bertsua izan daiteke eta.

Hurrengo elea, *jasa*, gehiagotan aurkitzen da hitz-elkarteetan soilik baino. Ostagiei dagokienez, gehienetan euriari lotuta joaten da, *euri-jasa*, eta gogotik eta indarrez egitea esan nahi du. Hala ere, behin baino gehiagotan adierazi izan denez, ez da erraza izaten azpi-kategoria baten muga zehaztea. Izan ere, hiztun batzuen adimen-begiak "zaparrada" gisa ikusten du *jasa* eta beste batzuenak "erauntsi" gisa. Adibidez, Nafarroako Leitza herrian (*EHHA*) *jasa* "euri-zaparrada" den arren, Gipuzkoako Zegama herrian (*EHHA*) "euri erauntsia"-ri izen emateko lau hitz erabiltzen dituzte, *jasa, zaparrara, eraso* eta *aldagoi* eta, "zaparrada"-ri berari irizteko *zaparrara* baizik ez dute erabiltzen. Beraz, itxuraz, zenbait hiztunek nozio bat ez dutela aintzat hartzen, zaparrada laburra izatea, alegia; prezipitazio bortitza da, baina denbora laburrekoa, eta "euri-erauntsia" iraunkorra izaten da.

Ondorengo berba, *idola*, horrela soilik edo *-z atzizkia* erantsita, *idolaz*, erabiltzen da, antza. Azken forma honen bitartez "asko" adierazi nahi da. Adibidez, Gipuzkoako Oñatin:

“*Ídolas* botaten dau: llueve fuerte. [...]; *ídolas* da edurra, euríxa: fuerte”. “*Ídolas* significa mucho (Arrikruz). Pero sólo se emplea hablando de la lluvia (Ladislaos). Claudio de Beillotsa dice que *ídolia* es golpe de agua o de cualquier otra cosa. La hija (Juana) sólo parece conocer la forma adverbial *ídolaz* que indica una lluvia recia, en forma de golpes de agua. Lo mismo me han dicho otros del barrio”. (Izagirre, 1959)

Bestalde –z gabe ere agertzen da, izan gisa “aguacero” edo “diluvio” adierazteko, hau da, “euri-erauntsia” (Larramendi, Lhande *apud OEH*).

Hurrengo berba *iñuntzi* da. Bizkaiko Orozko herrian erabiltzen da (*EHHA*). Kasu honetan “euri-erauntsia” esan nahi badu ere, gehienetan beste eremu bateko berbei lotuago egoten da, “ihintza” adierazteko erabiltzen direnak, alegia: adibidez, *iñontz*, Orozkon ere bai (*EHHA*) *iñuntz*, Oñatin (Izagirre, 1959) eta *iruntz*, Lekeition (Lekeitioko lantaldea, 200: 19). Moguel ere berba horretaz baliatzen da eta esanahia ilun samarra den arren, badirudi Orozkoko esanahira hurreratzen dela: “Odeijak botaten deuskubez *iñuntz*, edur ta euri ugarijak” (*DRALV*).

Euri-erauntsia aditzera emateko corpuseko hurrengo hitza *isola* da. Ele hori hiru eratara erabiltzen da Iparraldeko euskalkietan: *isola*, *isolaka* eta *euri-isola*. Bi kategoriatan egon liteke, oraingoan, Euri-erauntsia edo Euri-zaparradan ere bai. Kasu honetan, *isola* Zuberoako Urdiñarbe herrian erabiltzen da *elementak* elearekin batera (*EHHA*). Adimen-begiak bat egiten ditu *izerdiak isola* (izerdi patsetan) eta *euriaren isola*. Funtsean kontzeptu bera daukate: ugaritasuna.

Hurrengo ez da izena aditzondoa baizik: *jeutsahala* (*yeutsahala*: BN-Jutsi: *EHHA*). *ahal* edo *ahalean* erabili ohi dira eremu etnometeorologikoan “ahalik eta gehiena” adierazteko. Adibidez, Bizkai aldean arrunta da *botalan* (*bota ahalean*) entzutea.

Kalerna elea –segur aski, *galernatik* datorrena- Ortzi-euri elkarketarekin dago bilduta esaldi berean: “*Kalerna* edo ortzi-uri” (*DRALV*). Azpimarratzekoa da adimen-begiak ortzi-euriari *galerna* gisa antzematea. Etxalar eta Lapurdi aldean *kalerna* ekaitza adierazteko ere erabiltzen da (*EHHA*). Bestalde, oroitarazi behar da *galerna* edo *galarrenaren* esanahirik zabalduena “enbata” dela mendebaldeko hizkeretan (*EHHA*).

Ondorengo berba, *kaskabur*, anitzez ere lotuago dago txingorrari euri-erauntsiari baino. Izan ere, Zuberoako berako hainbat herritan “kaskabarra” esan nahi du (*EHHA*). Hemengo aldaera hau Zuberoako Sohüta herrian bildua da (*EHHA*). Agian, adimen-begiak kaskabarra eta euri-erauntsia maila berean ipintzen ditu.

Hurrengo hitza mailegu garbia izan arren, adimen-begiak bere erara moldatu du: *kolpe*. Horrela Gipuzkoako Hondarribia herrian baliatzen dute hiztunek eta Bizkaiko Zollo eta Larrabetzu herrietan elkarketaren bidez *euri-kolpe*, *aurigolpe* eta *eurigolpe*, hurrenez hurren (*EHHA*).

Mendabal berba, *mendebalen* aldaera da eta Bizkaiko Zaratamo herrian bildua da euri-erauntsiari irizteko (EHHA). Antza denez, bertako hiztunen adimen-begiak mendebal-haizea jotzen du euri-erauntsiaren ekarletzat: “*mendábal*:... dauen orduen axé ta... naste bat, dénpora txárra íten dauen orduen mendábala esaten du orduen, dauen orduen aixie eta... orriek gustiek altzeu... sugatzak be bóta...” (EHHA).

Hurrengo berba, *murruska* da, Gipuzkoako Bergara herrian bildutakoa (EHHA). Bada bertan eskuratutako beste hitz bat, *murruskara* (Elexpuru, 2004) adierazteko “euri-zaparrada labur eta ekaiztua”. Baliteke berezko onomatopeia izatea, agian euriak ateratzen duen zaratari buruzkoa, edota *borraska* maileguarekin gurutzatzea. Bestalde *murruskada* berba “purrustada” edo “erremuskada”-rekin dauka zerikusia; beraz euriaren haserrea ere eman lezake aditzera adimen-begiaren arabera.

Negua dela-eta, bi ele aipatuko dira: bata, *negu* bera, Lhandek eskuratutakoa (1926), inongo erreferentziarik gabe, eta bestea, *negutze*, Bizkaiko Lemoiz herrian bildua (EHHA). *Negu* berbaren etimologia interesgarria da; izan ere *egu*-rekin erlazioa izan lezake. Esan gabe doa, adimen-begiak urtaroa eta euri-erauntsia lotzen ditu.

Hurrengo hitz-zerrendak badirudi *ekaitz* edo *negurekin* zerikusia izan lezake: *nekaitz*, *nekhaitz* eta *nekhaitzu*; izan ere, *negu*+*gaitz*etik etor liteke, edota gurutzaketaren baten bidez *ekaitzi* -*n* eranstea, *nekatu*rekiko hurbilketa fonetikoa dela-eta. Nolanahi ere, ziurrenik haxe izango zen bilakaera: *negu*+*gaitz* => *nek* + *gaitz* => *nekaitz*. Gogorarazi behar da, *egu*-*ek*-bihurtzen dela elkarketetan; esate baterako *egu* + *gain* => *ekain*. Hitzak direla-eta, *nekaitz* Azkuek bildua da (Azkue, 1935-1947/1989), *nekhaitz* eta *nekhaitzu* Nafarroa Behereko Ezterenzubi herrian (EHHA).

Antza denez, ondoko aldaera hauek latinetik *tempestas* ,*-atis* edo gaskoizko *tempèsta* edo frantsesezko *têmpete* edo gaztelaniazko *tempestad* berbatik datoz: *tanpeta*, *tenpest*, *tenpesta*, *tenpesta aide*, *tenpestade* eta *thenpesta*. *Tempestad* hitza honela definitzen da: “Tormenta grande, especialmente marina, con vientos de extraordinaria fuerza” (DRAE).

Nahiz eta gaztelaniazko definizioa den, balio du, gutxi gorabehera, hitz hau kokatzeko. Gauzak horrela, zalantza sortzen da Ekaitza edo Euri-erauntsia kategoriekin batera kokatu behar ote den. Izan ere, beste aldaera batzuk ekaitzarekin batera aztertu dira.

Aldaerei dagokienez, *tanpeta* Lapurdiko Azkaine eta Mugerre herrietan bildua da (EHHA); *tenpest*, *galernarekin* batera, Nafarroa Behereko Uharte Garazin (EHHA); *tenpesta* hainbat herritan, besteak beste, Nafarroa Behereko Ezterenzubi eta Landibarre herrietan eta herrialde bereko Gamarte herrian *euri-tenpesta* (EHHA); Lapurdiko Arrangoitze herrian, *galernarekin* batera ere bai (EHHA), eta Zuberoak Sohüta herrian entsarri elearekin batera ere

bai (EHHA); *tenpesta aide* Zuberoako Ürrustoi-Larrabile herrian jaso da (EHHA). Elkarketa bera, ordea, herrialde bereko Altzai herrian, “sargoria” da. Hortaz, adimen-begiak lehenengo ikusten bide du euri-erauntsiaren aurretikoa herri batean eta beste herri batean sargoriaren ondorioa. *Tenpestade* hitza Gipuzkoako Ataun herrian erabiltzen dute hiztunek (EHHA) eta amaitzeko, *thenpesta* aldaera Zuberoako Domintxaine-Berroeta herrian bildurik dago (EHHA).

Hurrengo hitza, *tarrapata*, bi azpi-kategoriaren artean ere bide dabil: Euri-zaparrada eta Euri-erauntsia. “Euri-zaparrada” esanahia duela, Nafarroa Behereko Bidarra eta Ezterenzubi, besteak beste, bildutakoa da, eta “euri-erauntsia”-rekin, Zuberoako Domintxaine-Berroetan (EHHA). Bestalde, Isturitzen (Nafarroa Beherea) *uri-tarrapata* eta *zarrapata* batera erabiltzen dira, antza (EHHA). Itxura denez, jatorri onomatopeikoa du; izan ere, *tarrapata* eleak “zalaparta” ere esan nahi du (OEH). Hortaz, adimen-begiak euriak ateratzen duen zalapartarekin uztartzen du.

Jarraian, hitz-sail bat azaltzen da, *truxu* berbaren inguruan: *truixu* (bizkaiera: DVEF), *truizu* (DRALV), *truju* (DRALV), *trujutsu* (DRALV), *truxo* (B-Ondarroa: EHHA) *truxu* (B-Errigoiti: EHHA / B-Mendata: Mallea, 2002) eta *truxutsu* (DRALV). Hauxe da definizioa: “*truxu* iz. Euri jasa, erauntsia. Haizearen atzetik etorri den truxuak sarrarazi ditu zalapartaka bebarruetan. Truxuaren zaparrada entzunez gero (...); (...) Batez ere Bizk. (...)” (EH). Malleak (2002) honela ematen du aditzera: “Denbora luzez eta ia etengabe euria ari duenean”, “Geur egun gustiyen *truxuek* bota deus, gero! “Gauza bera botalan da”. Elkarketetan ere agertzen da: *euri-truixu* (DRALV), *euri-trusko?* (B-Bermeo: Barrutia, 2000), *euri-truxal* (G-Eibar: Etxebarria, 1965-66), *truxalak egin* (G-Eibar: Etxebarria, 1965-66), *euri-truxalak hartu* (G-Eibar: Etxebarria, 1965-66) eta *euri-truxo* (B-Mudaka, Ondarroa: Barrutia, 2000). Esanahiari dagokionez, hitz iluna da; nekez jakin liteke adimen-begiak zer ikusten duen berba honen bidez.

Txurrubila da ondorengo elea. Lhandek jasotzen du (1926). Berrikiago *txürrübilaka euria ari* aditz-lokuzioa bildua da: “Txürrübilka ebia ai züzün” (Z-Altzai: EHHA). Bestalde hau dakar OEHk: “zurrubila (zürrü- S ap. A y Lh). Zürrübilka (S; Chaho ms.), lluvia sostenida y fina que produce cierto ruido poco perceptible” A. “Averse, pluie torrentielle” Lh. v. tzurrubila” (OEH). Itxura denez, hitz honek jatorri onomatopeikoa dauka. Izan ere, *txurr-*, *xurru-*, *zurru-* hasierak ur eta likidoekin daukate zerikusia; adibidez, *zurripita* (L-Hazparne: EHHA). Badirudi adimen-begiak “ur-parrastada handi samarra” ikusten duela onomatopeia honen bidez.

Hurrengo hitz-sortak urarekin bide dauka zerikusia: *uberraka*, *ugerraka*, *uharri*, *uhart* eta *urketa*. *Uhar* terminoari loturiko berbak direla-eta, bi azpi-kategoriaren artean egoten da adimen-begia: euri-zaparrada eta euri-erauntsia, hiztunen ikuspegiaren arabera. Kasu honetan, batean zein bestean txertatu dira *uharri* buruzkoak. *Uberraka* edo *ugerraka* aditz-lokuzioa da.

Izan ere, bildutako lekukotza “*uberraka / ugerraka* ari du” da (Intza, 1974). *Uharri*, batetik Euri-erauntsia da (zuberera: *DRALV*) eta, bestetik, Zuberoako herri batean, Montory, euri-zaparrada da (*üharri*: *EHHA*). Iparraldean ere, baina Lapurdiko Itsasu herrian, *uhart* jaso da (*EHHA*). Gainera, azpimarratu behar da *uhar* hitzak “uholdea” ere esan nahi duela eta bestalde, *uher* terminoak “ur lohi edo arrea” adierazten duela. *Urketa* hitzean, berriz, *ur-* argi eta garbi azaltzen da; Azkuek biltzen du (*DVEF*).

Xirinbola hitzari buruz, tankera horretako bakarra da: “*Xirinboletan*, amak itsasoz duen haurraz du bere bihotzmin guzia” (Hiribarren *apud DRALV*). Orotarikoan *zirimola* eta antzeko eleekin batera agertzen da:

txirimolia (Lar, H (V, G)), **xirinbola**. Ref.: A (sirimili, txirimol, xiramilla, xirimola, zirimol); Lh (xirimola, zirimilu, zirimola). Tr. Zirimola es la var. más extendida; hay zirimol en Iratzeder y en un artículo de Egan, xirimola en Haraneder, Mihura, Larreguy, Duvoisin y Arbelbide, txirimola en Uriarte, Zaitegi y Erkiaga, txirimol en D. Aguirre y **xirinbola** en Hiribarren. 1. Torbellino, remolino; tempestad. (*OEH*)

Hurrengo berba onomatopeikoa ere bada; *zappar*. Euria gogotik egiten dueneko hotsaren izena izateaz gain (*DVEF*), Euri-erauntsia ere bada (*DRALV*), nahiz Euri-zaparradarekin lotura nabaria eduki.

Zarrapata elea ere bada onomatopeikoa. Gorago aipatu bezala, euriari loturiko zenbait hitzek *txurr-*, *xurru-*, *zurru-* eta kasu honetan, *zarra-* hasiera daukate. Aldaera hau Nafarroa Behereko Isturitz herrian jaso da (*EHHA*). Bestalde, *euri-tarrapata* ere erabiltzen da hantxe bertan (*EHHA*).

Ondorengo berba *zimoleria* (*siimoleria*) Nafarroa Behereko Larzabale herrian bildua da (*EHHA*). *Zirimola* elearen antz handia du, baina horrek “zurrunbiloa” edo “haize-erauntsia” adierazi nahi du.

Hurrengo hitz-saila, *soberna* (J. Leizarraga / *DRALV*), *sop(h)erna* (*DRALV*), *zoberna* (Harriet *apud DRALV*), *zoferna* (Harriet / *DRALV*) *zoperna* (*DVEF*) eta *zuferna* (N-Luzaide: *EHHA*). Aidanez, latinetik dator; izan ere, *superna(m)* berban egon liteke jatorria, zeren *supernus*, *-a*, *-um* terminoak “gainean kokatuta” edo “goi-goikoa” adierazten baitu (Segura eta Etxebarria, 1996). Beraz, adimen-begiak aparte eta ezohiko ostagitzat jotzen bide du *zoperna*. Luzaiden eskuratutako *zuferna* elea “euri-erauntsia” barik, “ekaitza” edo “tenpestatea” ere eman lezake aditzera, eta aurrerago aztertuko den *erauntsi-zoperna* elkarketa (*eraunsi zuperna*) Nafarroako Baztan haranean erabiltzen da esanahi berarekin. (*DVEF*); beste esangura batekin, “*zopherna* edo *galerna*” ere bildua da (*DRALV*).

Zurrunbilo (*zurrunillo*) berba elkarretarik urruntxo dauden bi herritan bildua da: batetik Bizkaiko Markina herrian (“Ur-zurrunillua ebillen”), eta bestetik, Nafarroa Behereko Aldude

haranean (*DVEF*). Nabarmendu behar da, gehienetan zurrumiloa haize mota bat izendatzeko erabiltzen dela, hau da, *zirimola*. Beraz, badirudi haizeari loturiko terminoak zenbait herritan Euri-erauntsia kategoria aditzera emateko ere baliatzen dutela hiztunek eta horrela ikusten duela adimen-begiak.

Amaitzeko, *zurrupita* berbaren esanguraren jiran ere badira zalantzak: batetik, “euri-zaparrada” da eta bestetik, “euri-erauntsia”. Hemengo aldaera, *xurrupita*, Nafarroako Zaraitzu haranean jasota dago (*DVEF*). zubereran ere bildua da, baina beste esanahi batekin: “haizetea euriarekin” (*DRALV*). Itxuraz hitz hau onomatopeikoa ere bada.

Bestalde, hitz-elkarketetatik, sei osagai gailentzen dira: *aro*, *denbora*, *erauntsi*, *euri*, *eguraldi* eta *ortzi*. Bitxia izanagatik ere, elkarketotan osagaiak ustezko ondarezkoak zein mailegu garbiak daude. *Denbora* eta *euri* hitzek daukate elkarketa gehien, baina oroz gainetik, euriari loturikoak.

Aro eleari dagokionez, Iparraldeko herri askotan erabiltzen dira *arogaitz* edo *arotzar* /*aroxar* elkarketak; adibidez, Zuberoako Sohütan, *aogaitz*; Lapurdiko Mugerren, *arotzar*; Nafarroa Behereko Landibarren, *aroxar*; Zuberoako Zalgizen, *arogaitz*; Pagolan eta Urdiñarben, *augaitz* (*EHHA*). Horiek guztiak jaso dira *EHHA*n “borrasca / bourrasque” egindako galderari erantzunda. Kasu honetan, hemen ez da ulertzen ekaitz gisa, euri-erauntsi gisa baino. Horretaz gain, elkarketaren bigarren osagaia, *gaitz*, garbia da, “latza”, “gogorra” esan nahi du; baina, bestea, ez dago argi *txar*, *xar* edo *tzar* ote den. Nolanahi ere, ez dauka zentzu positiborik, kontrakoa baizik. Elkarketa hau oso egokia izan liteke, azkenaldi honetan, eguraldiari loturiko argitalpenetan hain zabaldua den “severe weather”, “temps severe” edo “tiempo severo”-ren berri emateko.

Denbora hitza dela-eta, “euri-erauntsia” aditzera eman nahi duten zenbait hitz eta elkarketa bilduak dira gehienbat Iparraldeko euskalkietan; esate baterako, *denbora bihurri* eta *denbora bihurritia* Nafarroa Behereko Isturitze eta Larzabale herrietan erabiltzen dira (*EHHA*). Adimen-begiak *denbora* eleari *bihurri* izenondo edo *bihurritu* partizipioa eransten zaizkio. *Bihurria* pertsonekin erabiltzen denean, “txarra”, “okerra” edo “gaiztoa” adierazi nahi du; beraz, eguraldiaren nolabaiteko pertsonifikazioa gertatzen da kasu honetan, adimen-begiaren arabera. Gainera, *bihurria* ez ezik, *denbora bortitz* eta *txarra* izan liteke. *Denbora borthitz* Zuberoako Domintxaine-Berroetan buldurik dago, eta *denbora txarra* herrialde bereko Sohüta herrian, *arogaitzekin* batera (*ao gaitz*) eta Nafarroa Behereko Ezterenzubin (*EHHA*); *denpora txarra*, salbuespen gisa, Bizkaiko Zeberio herrian erabiltzen da (*EHHA*). *Denboraleri* buruz hiru aldaera dira: *denporal* Bizkaiko Leioa herrian bildua (*EHHA*), *denporala* herrialde bereko Bakio (Gaminde, 1999) eta Gatika (Gaminde, 1997) herrietan eta azkenik, *denporale*

Zaratamon, Bizkaian ere bai, jasoia (EHHA). Arrunta izan ohi da *denborale* berba itsasoaren egoera adierazteko: “*Denporalea* dagoenean itsaso zantarra dago” (Lekeitioko lantaldea, 2001: 10). Gaztelaniaz esanahi bera dauka *temporal* hitzak; frantsesez, berriz, “*tempête*” erabiltzen da. Bestalde, Zuberoako Larraine herrian *denboaren trabala* (*denboaintrabala*) eleaz baliatzen dira hiztunak (EHHA). Ez dago garbi zer esan nahi duen *trabalak*. Azkenik, *denboratzar* terminoa zenbait herritan bilduta dago; adibidez, Lapurdiko kostaldeko Donibane Lohizunen, *denboatzar* (EHHA); herrialde bereko Mugerre herrian, *denboratzar*, baita Nafarroa Behereko eta Zuberoako Ezterenzubi eta Domintxaine-Berroeta herrietan, hurrenez hurren (EHHA).

Erauntsiari buruz, *erauntsi* beraz gain, *erauntsi fier*, *erauntsiketa* eta *erauntsi-zuperna* (*eraunsi zuperna*) dira. Eraunsi izena ez ezik aditza ere bada. Zenbait adiera ditu: “eraso, oldartu; jardun, ari izan edo ibili”; etnometoroekin, “gogotik euria edo elurra egin” (Labayru, 2019). Izenari dagokionez, zenbait aldaera ditu: *eraunsi*, zubereraz (DRALV); *eraunsi* Nafarroako Baztan haranean bildua (DVEF); *eraunsi* Nafarroako Elkano herrian era gipuzkeraz (DVEF) eta *eraunsi* Duvoisenek erabilia (DRALV); *eraunsi fier* Nafarroako Mezkiritz herrian baturik dago (EHHA). Oraingoan, bertako hiztunek *fier* izenondoa gehitzen dute: “1. adj, Ipar eta Naf, Harrokeriaz betea. Ik, harro. 2 adj, Sendoa, adoretsua, Gizon fierra” (EH). Hiztunen adimen-begiak *fier* ikusten ditu eraunsiak, harroak; *erauntsiketa* elea Azkuek jasotzen du *Morfologian* (1905-1969). Goi-Nafarreraz erabiltzen da. Kasu honetan badirudi hiztunek *eraunsi* aditz gisa ikusten dutelarik, *-keta* atzizkia eransten dutela; *eraunsi-zuperna* (*eraunsi zuperna*) Azkuek (DVEF) bildu, eta Nafarroako Baztan harana marka gehitzen dio. Azaldu bezala, *zuperna* hitza latinetik dator “gainean kokatuta” edo “goi-goikoa” adierazteko (Segura & Etxebarria, 1996).

Euri barbari loturiko elkarketei dagokienez, honako hauek aztertuko dira: *euri* (*uri*) *pesia*; *euri* (*uri*) *uhar*; *euri-* (*uri*) *zarrapata*; *euri-borraska* (*euri borrask*); *euri-burrada* (*eüri burrada*); *euri-burrusta*; *euri-elementa* (*euri element*); *eurizu* (*ebrizu*); *euri-eraunsi* (*ebi e(r)auunsi*, *euri ehaunsi*); *euri-kolpe* (*aurigolpe*, *eurigolpe*); *euri-kuelak*; *euri-tarrapata*; *euri-tenpesta*; *euri-txapasta* (*ebi txapasta*) eta *euriketa* (*auriketa*, *eudiketa*, *iuriketa*).

Euri (*uri*) *pesia* dela-eta, gorago aztertu da *ephesi* / *pesi* bikotea. Adierazi bezala, “euriaren indarra” eta “bizitasuna” esan nahi bide du. Jatorriari dagokionez, agian, latinezko *spissus*, *-a*, *-um*, izenondoarekin zerikusia izan dezake: “lodia, trinkoa, bildua estu-estua” esan nahi du, eta horrelako euria horretarikoa izaten da, hain zuzen ere.. “*Uri / euri-pesia*, torrent de pluie” dakar Harrietek (OEH); *euri* (*uri*) *uhar* terminoaz bezainbatean, *uhar* ere gorago aztertu da, eta besteak beste, “uholdea” esan nahi duela azaldu da. Adimenaren begiak “ugaritasuna”

hautematen du elkarketa honetan. “Erauntsia”ri irizteko ele hau Nafarroa Behereko Armendaritz herrian jasoa da (EHHA).

Euri-(uri) zarrapata elkarketa, agian, lapurteraz eta behe nafarreraz erabiltzen dela adierazi zuen Azkuek (DVEF). Itxura denez, onomatopeikoa da, eta adimenaren begiak uraren indarra eta ugaritasuna antzematen ditu. Ildo berekoa (*euri*)-*tarrapata* da, Isturitzen bildua (EHHA). Izan ere, herri horretan bi aldaerak baliatzen dira, bai *tarrapata*, bai *zarrapata*.

Euri-borraska (*euri borrask*) elkarketari buruz, Lapurdiko Hazparne herrian erabiltzen dela adierazi behar da (EHHA). *Borraska* berba hutsa azaldua da Bizkaiko Getxon bildua dela (EHHA). Kasu honetan, elkarketa sortzeko mailegu batez baliatzen dira hiztunak; *eñri burradari* dagokionez, *burrada* elea ere soilki aztertu da gorago eta Zuberoako Domintxaine-Berroeta herrian bildua dela. Aipatu bezala, batzuetan, bakarrik *burrada* erabiltzen da herri berean (EHHA).

Euri-burrusta elkarketak ere onomatopeikoa dirudi. *Burrusta* hitzak ugaritasuna adieraz lezake. Lapurdiko Makea herrian bildua da (EHHA). Bertan *elementa* eleaz ere baliatzen dira. Elkarketarik gabe ere agertzen da beste testuinguru batean “euri-zaparrada” aditzera emateko (OEH). Azaldu den legez, hiztun batzuen aburuz, euri-zaparradaren eta euri-erauntsiaren arteko muga oso lausoa da. Itxuraz, euri-erauntsiak denbora luzeagoan irauten du, eta aldi berean zaparrada baino gogorragoa da.

Euri-elementa (*euri element*), besteak beste, Nafarroa Behereko Arnegi eta Lapurdiko Make herrietan entzuten da (EHHA). Goragoa aztertu bezala, itxura guztien arabera latinetik bide dator *element* elea. Egun, *Les elements*, *Los elementos* terminoak erabiltzen dira frantsesez eta gaztelaniaz, hurrenez hurren, Naturari loturiko osagai eta meteoroto bortitzak aditzera emateko. Gauzak horrela, euskaraz, antza denez euri-jasa edo zaparradei izena emateko gehienbat erabiltzen direla.

Euri-erauntsi (*ebi e(r)auñtsi*, *euri ehauntsi*, besteak beste) elkarketak ematen dio izena kategoria honi. Usu azaldu izan denaren arabera, zaparradaren eta erauntsiaren arteko muga lauso-lausoa da. Horrexegatik erabaki da bi kategorietan utzi eta aztertzea. Adibidez, *euri ehauntsi* Lapurdiko Hazparne herrian eskuratua da eta *ebi erauntsi* Zuberoako Altzai eta Sohüta herrietan (EHHA).

Euri-kolpe (*aurigolpe*, *eurigolpe*) elkarketa Bizkaiko Zollo eta Larrabetzu herrietan entzun daiteke gaur egun, hurrenez hurren (EHHA). Kasu honetan adimen-begiak indarraren irudipena *kolpe* maileguaren bitartez gauzatzen du.

Euri-kuelak elkarketa ezohikoa F. Ayerbek erabiltzen du (OEH). Hiztegi horretan begiratuta honako adiera hauek dakartza *kuelari* buruz:

kuela (G ap. A; Aq 1475 (AN)), **kubela** (G-to, L-ain ap. A (-el); Lar, H), **guela** (Aq 1475 (AN)).
 1. “Coladero” Lar. “Vasija en que se hace la lejía, *kuela*, *guela*, *aratzá*” Aq 1475. “Tinaja, vasija en que se hace la lejía”, “tina para colada” A. “Garai artan baziran *kuela* izeneko ontzi aundi batzuk; zurezkoak ziran da gaña irikia zuten. Antigualeko amonak zapi zuriak egosteko ziran” *PEBiz* 36s. Cf. *VocNav*: “*Cuela*, recipiente donde se pone la ropa en lejía (Oroz-Betelu)”. **Etxeko olloak kuelan sartu, gaña tapatu, ta errota-pera eramaten zuten*. *PEBiz* 37. *Lixua egin bear zanean, kuela berrogei bat zentimetroko altuko asto baten gaiñean jartzen zan*. *JAzpiroz* 114. *Kuela batean ura jarri ta ara letxera mamia bota*. *Ib.* 203. (*Penitentzia egin gabe heriotzeraiño luzatu duenari*) *Hik bethi uste ubela / konbertitu hiltzean, / pairatzen duk su-kubela / tulunbio beltzean*. *Gç* 167 (en la ed. orig. 361 <-coueta>).
 2. **kubela** (G-to ap. A (-el)). “Cesta grande con que se miden las manzanas” A. “En la *kuela*, *sagar neurria* o medida para la manzana, tenemos al recipiente de madera reforzado con llantas de hierro, [...] es de tronco de cono y su capacidad la podemos fijar en cincuenta y cinco kilos” *Garm EtnV* 30 (ap. *DRA*).
 3. Cuba. **Han kuela batzuetan leherturik mahatsa botatzen barrika batetarat, gorritzeko*. *GH* 1933, 82. (*OEH*)

Beraz, “tina”, “ontzi” edo “otzara”-tzat har liteke *kuela* berba. Adimen-begiak horrelako ontziaren handitasuna hartzen du kontuan euri-erauntsiak jotzen duenean.

Euri-tenpesta elkarketa berriki bildurik dago Nafarroa Behereko Gamarte herrian (*EHHA*). Adimen-begia *tenpesta*z baliatzen da erauntsia izendatzeko.

Euri-txapasta (ebi txapasta) Zuberoako Altzürükü herrian bildua da (*EHHA*). *Txapasta* eleak onomatopeikoa ematen du; izan ere *OEHk* hauxe dakar:

tzapasta (tzapasta S; H (S), Foix ap. Lh), tzapast (Sal, S, R), **txapasta** (S; Chaho, H (S), Foix ap. Lh), zapasta (Sal, S, R), xapasta (H (BN)). Ref.: A (tzapast, **txapasta**, zapasta); Lh (**txapasta** (...), (...), tzapasta); Lrq (**txapasta**, tzapasta). 1. “Éclaboussure” H. “Salpicadura” A. v. zipriztin. “Tu-tzapast (S), babas que arroján algunos al hablar” A. 2. zapasta (Sal ap. A (...)). (*OEH*)

Horren arabera “busti” edo “zipriztintze”-arekin zerikusia bide du.

Euriketa (auriketa, eudiketa, iuriketa) dela-eta Azkuek *euriketa* “tempestad de lluvias” itzultzen du (1969): *-keta* atzizkiaren eginkizuna “ugaritasuna” adieraztea da. Tesi honetan erderen “tempestad / tempête” azaltzen den bakoitzean, eraunsi hitza erabili izan da; *auriketa* aldaera Nafarroako Arbizu herrian erabiltzen da, *eudiketa* Gipuzkoako Hondarribian eta *iuriketa* Nafarroako Igoan (*EHHA*).

Euri-eraunsi kategoriaren barnean jariatzen zaion usaina aditzera emateko ele bat ere bada: *sapore*. Termino hori Azkuek dakar honako itzulpen baten bitartez: “Olor que se percibe en momento de una lluvia tempestuosa”. Nafarroako Behereko Isturitze herrian bildutakoa da. Izan ere, euri-jasa galanta jardun aurretik, nolabaiteko usain berezia sumatzen da eta horixe hautematen du adimen-begiak ere. Ziur aski latinetik datorren hitza da.

Bestalde, euri-eraunsiak kualitateak ere sorrarazten ditu. Gauzak horrela, *adarraitsu*, *pesiatsu (phesiatsu)* edo *truxutsua* izan liteke: *adarraitsu* hitza behe-nafarreraz erabiltzen da (Lhande, 1926). Izan ere, *adar* elea oso oparoa da eguraldiaren eremuan. Euriari dagokionez, *adarraira* goraxeago aztertu da euri-eraunsiari irizteko. Bestalde, *adarrek* euria gogotik ari duela esan nahi du: “adarka da euria” (*DVEF*); *eraunsi-adar* hitz elkarketa “euri-zaparrada

laburra haizearekin batera” adierazteko erabiltzen da behe-nafarreraz eta zubereraz (*DVEF*); *pesiatsu* (*phesiatsu*) elea dela-eta, azpimarratu behar da *ephesi-phesi* aurretik aztertu izan direla. Esplikatu bezala, euri-erauntsia ematen du aditzera eta “euriaren indarra” eta “bizitasuna” kontzeptuak biltzen dituela bere baitan. *Phesiatsu* Duvoisin kapitainaren eskuizkribu batetik bildua da (*apud OEH*). Azkenik, *truxutsu* izenondoa aztergai dago: *truxu* berbak euri-zaparrada esan nahi du (B-Errigoiti: *EHHA*), jarraian azalduko denaren arabera, baina Txomin Agirrek badirudi *truxutsu* erabili duela “oso euritsua” adierazteko (*OEH*).

Aguaxer Artzaintxoarenak (Artzaitxuanak) Barrasta Borrusta Burrusta Elur-lapats (Edurlapatx) Elementu Elurrurtu Eraso Erauntsi (Eauntsi) Erazarri Erazarrixka Hodei (Orai) Hodei-euri (Odeieuri) Idolaz (Idolas) Indriska (Indriskatsu, Indriske)	Inetazi-apar (Inetasisapar) Isol(a) (Ixola) Itsusi Isuri (Ixuri) Jasa (Yasa) Jasara Jauntsi, Txarraka Jazarri, Isola Jazarte Labasi (Labaxi) Manga Pesi(ak) Phikorna Satarabi Tarrapata Trumoi-zaparrada (Truboasaparrada, Trumosaparrada)	Trumoi-euri (Truboeuri) Truxu (Truxo, Truxu Truxu) Txarraka Txartxaka Txirristako Tzurubila Tzürübila Tzürübila Ubelde Ugalde Uhalde (Ualde) Uhar Ühar U(h)ar Uharre Üharri	Uhaska Ur-kolpe (Ur kholpe) Xarraket, Xarraka Zaldizko (Saldisko) Zaldizkoak (Saldizkok) Zaparrada (Txaparrada, Txaparroi) Zaparrada handi (Aundi), Zaparraldi, Zarraparrada Zarrapata) Zaraza Zarraka Zarrasta Zarrastada Zarrazta Zartzaka Zerrada Zurripita
Euri+			Ortzi+
Elur-euri (Eurreuri) Eurasta Euri (Ebi) E(r)auñtsi (Uri- Erauntsi) Euri (Ebi) isola Euri (Ebi) txarraka Euri (Uri) lanbro Euri (Uri) Parrasta Euri (Uri) Pesi Euri (Uri) Usu Euri (Uri) Zafrada, Euri / Elur Busti Euri brusta Euri gogor Euri uhar (Uriuar, Uri- Uhar)	Euri uharre Euri-aldi (Aurialdi) Euri-ase Euri-borroskada Euri-Elementa(k) (Uri Elementak, Urielementa) Euri-eraso (Urieaso) Euri-Erauntsi (Eurieauntsi, Urieauntsi) Euri-erazarri (Eurieazarri) Euri-etxakada Euri-irutxin Euri-jasa (Ebijasa, Ebi- jasa, Eudijasa, Eudisaja, Euriyasat)	Euri-kolpe (Ebigolpe) Euri-tarrapata Euri-truixu Euri-trusko Euri-truxo Euri-txarraka (Ebitxarraka, Ebixarraka) Euri-zapar Euri-zaparra (Ebizaparra) Euri-zaparrada Euri-zarrastada Euri-zigorrada Euri-zurripita	Osti-Zaparrada Ostots-erauntsi (Ostoseauntsi)
62. taula. Euria. Kantitate: Euri-zaparrada			

Kantitate nozioaren aldetik, beste kontzeptu nagusietariko bat *euri-zaparrada* dugu. Goratxoago aipatutako moduan, euri-zaparradan bi noziok egiten dute bat: kantitate ugaria denbora laburrean. Hori dela-eta, termino asko erauntsiaren sailkapenean eta hemen agertzen dira. Batzuk dagoeneko aztertutik daude, beste batzuk, aldiz, aztertzeke; izan ere, behin baino

gehiagotan azaldu izan denez, zenbaitetan lekukoek eta bestelako iturriek ez dute batere garbi zein den zaparradaren eta erauntsiaren arteko muga. Hala ere, eskuratutako datuen arabera irudi du zaparradak laburragoak eta erauntsiak ugari eta luzexkagoak direla.

Horrenbestez, euri-erauntsi kontzepturako aipatutakoak honetarako ere balio du. Izan ere, antzeko fenomenoak gertatzen dira: ustezko ondarezko hitzak (jatorrizkoak eta onomatopeiak) eta maileguak. Lehen bezala, maileguak hitz solte nahiz hitz elkarketetan topa ditzakegu. Hala nola, *aguazer*, *elementu*, *manga* eta abar; eta elkarketetan, euri *borraskada*, euri *etxakada* eta abar.

Hitz solteei dagokienez, euri hitzarekin egiten diren elkarketetan bezalaxe, azpimarratzekoa da ustezko onomatopeien kopurua. Seguru asko mintzaira gehienetan onomatopeien bitartez sortuko ziratekeen lehendabiziko hitz edo elkarketak fenomeno jakin batzuk izendatzeko. Horiek honako hauek izan litezkeelako ustea dago: *barrasta*, *indriska*, *txirristako*, *tzurubila*, *zaraza*, *zarraka*, *zarrapata*, *zerrada* eta abar.

Jarraian Euri-erauntsia kategorian aztertu gabeko terminoen berri emango da. Hainbat hitz kategoria bietan azaltzen dira, bai Euri-erauntsian, bai Euri-zaparradan.

Hasteko, aipatutako mailegu bat, *aguaxer*; Bizkaiko Ondarroan bildutako berba da (*EHHA*). Ez dago zalantzarik gaztelaniazko *aguacero* hitzarekin daukala zerikusirik. Corpuseko bitxikerien artean, besteak beste, Gipuzkoako Andoain herrian *artzaintxoarenak* (*artzaitxuanak*) nabarmentzen da guztien gainetik (*EHHA*). Zergatik ote? Badirudi adimen-begiak *Zozomikoteak* delako gertaerarekin lotura egin lezakeela. Izan ere, artzain batek martxoari eskatu omen zion hilabetea luzatzeko, eta ematen du *Zozomikoteak* gertakizunak horrekin izan lezakeela zerikusia (ikus aurrerago denbora nozioa). Kontu honetan denbora bitarte dagoenez, martxoa eta apirila, hain zuzen ere goraxeago azalduta dago.

Elur-lapats (*edurlapatx*) elkarketa, berez, harrigarria ere bada, zeren “elur-maluta txikia” adierazi ohi baitu. Baliteke lekuko bat okertu izana. Hitz hori Gipuzkoako Deba herrian bildua da (*EHHA*).

Elurrurtu eleak ere badauka zerikusirik elurrarekin. Debatik ez urrun, Aian jaso da (*EHHA*). Adimen-begiak nolabaiteko elur urtua hautematen du euria horrela jarduten duenean.

Erazarri euri-erauntsi kategorian azalduta dago. Euri-zaparrada aditzera emateko, Nafarroako Zaraitzu haranean erabiltzen omen da (zen?) (*DVEF*). Beste bat Nafarroa Behereko Ezterenzubi herrian entzun daiteke gaur egun elkarketa gisa, *eurieazarri*, (*EHHA*) eta txikigarri bat, *erazarrixka* (*eazarrixka*), herrialde bereko Gamarte herrian (*EHHA*).

Hodei (*orai*) berbak esanahi ugari ditu. Aurretik aztertu da, ekaitz eta hodeien eremua. Kasu honetan Bizkaiko Otxandion bildutako aldaerak “zaparrada” adierazi nahi du (*EHHA*);

euri hitzarekin ere sortzen du elkarketa: *hodei-euri* (*odeieuri*). Bizkaiko Zeanurri herrian bildua da (*EHHA*). Baliteke adimen-begiak Hodei izaki mitologikoak sorrarazten duen euria ikustea.

Idolaz (*Idolas*) aurretik azterturik dago. *Idolas* aldaera dela-eta, badirudi ez dagoela batere garbi zaparrada (*EHHA*) edo euri-erauntsia (Izagirre, 1959) ote den.

Indriska (*indriskatsu*, *indriske*) berbaz bezainbatean, gaur egun oraindik entzun daiteke (*indriske*) Bizkaiko Bolibar herrian (*EHHA*). Moglek ere erabiltzen du Peru Abarkan: “Jaitsiko dira meza entzutera jaiegunetan, *indriska* ta edurra bada bere” (*DVEF*); *-tsu* atzikizkiaren bidez izenondoa ere sor daitekeela ematen du: *indriskatsu* (*DRALV*).

Inetazi-apar (*Iñetasisapar*) elkarketa Bizkaiko Lemoa herrian jasorikoa da (*EHHA*). Harrigarri samarra da; izan ere *inetazi* berba Bizkaiko bazter batzuetan “txingorra”-ri irizteko erabiltzen da; *apar* hitza, aldiz:

apar iz. Mugitzen edo irakiten ari den isurkari baten gainaldean gertatzen den burbuila txikien multzoa Itsasoko uhinen aparretik sortu berria dirudi. Ontzi berrian esne bero-beroa, aparrez betea. **Apar** handia altzarazi bits iz. Ahotikoa Odolez betetako aparra zeriola ahotik. (*EH*)

Beraz, baliteke hiztunen adimen-begiak oso fenomeno ikusgarria atzematea euri-zaparrada galanta suertatzen denean, inetazia aparrarekin nahasiriko ikusizko efektua.

Itsusi izenondoa Landak (2003) erabiltzen du zaparradarekin batera: “Ufada bortitzak izango dira kostaldean, eta zaparrada *itsusiak* ekarriko ditu” (Landa, 2003-11-27). Zergatik ote *itsusi* eta ez polit edo *galant*?

Isuri (*ixuri*) aditza izateaz gain, izena izan daiteke zaparradari irizteko (*DRALV*).

Jasa (*yasa*) terminoa usu erabiltzen da euriaren eremuan, baita beste batzuetan ere; adibidez, elurrarenean: “Edur-*jasa* izugarri batek baserri-etxetik urten ezinik itxi gaitu” (Labayru Hiztegia). Oraingoan euri-zaparrada adierazteko bildua da Nafarroako Leitza herrian (*EHHA*). Euri-jasa aurreraxeago aztertuko da, baina ugaria ere bada. Bestalde, Gipuzkoako Andoain herrian *jasara* (*yasara*) aldaera ere bada. Adimen-begiaren arabera “ugaritasuna” adierazten du *jasa* berbak. Azaldu bezala, euri-zaparrada ez ezik, euri-erauntsia izendatzeko ere erabiltzen da. Muga lauso samarra da.

Jauntsi eta *txarraka* eleak Euskal Herritik kanpoko Eskiula herrian (Bearn) bilduak dira (*EHHA*). *Jauntsi* erauntsiren bilakaera izan liteke: *erauntsi* > *eauntsi* > *iauntsi*. *Txarraka* onomatopeikoa, ostera, Zuberoako zenbait herritan erabiltzen da, baina esangura desberdina izaten du: “euri ttikia” da Barkoxen, baina Sohütan, Pagolan eta Eskiulan, ordea, “euri-zaparrada” (*EHHA*).

Jazarri eta *isola* berbak aztertu badira ere, azpimarratu behar da biak batera Zuberoako Urdiñarbe herrian bilduak direla (*EHHA*). Baliteke *jazarri* eta *erazarri* hitzek jatorri bera izatea:

erazarri > *eazarri* > *iazarri*; *jazarte* aldaerak, berriz, *-te* atzizkia darama berekin ugaritasuna emateko aditzera. Sarritan erabiltzen du adimen-begiak da atzizki hau eguraldi kontuetan; izan ere, badira adibide franko: *eurite*, *haizete*, *elurte*... *Jazarte* terminoa Lhandek dakar bere hiztegian (1926).

Labasi elea (hápax legómenon) Euskal Herriko iparraldeko lau herritan “euri-zaparrada” esan nahi du eta batean “luizia”. “Euri-zaparrada” Lapurdiko Bardoze herrian eta Nafarroa Behereko Arboti, Garrüze eta Izturitze (*labaxi*) herrietan, eta “luizia” Zuberoako Domintxaine herrian. *Labasi* terminoaren nondik norakoa ez da erraza asmatzen. Baliteke mailegua izatea.

Manga berba, besteak beste, Bizkaiko Fika eta Kortezubi herrietan bildua da (*EHHA*). Ziurrenik adimen-begiak mailegatutako hitza da; izan ere, gaztelaniaz *manga de agua* “aguacero con viento fuerte da” (*DRAE*). Gaztelaniaz beste adiera bat ere badu *mangak*: “Columna de agua que ese eleva desde el mar con movimiento giratorio por efecto de un torbellino atmosférico”. Kasu honetan adiera honek eman bide dituen berbak *mangera* eta *bangera* dira, Donostia eta Hondarribian bilduak, hurrenez hurren (*DVEF*).

Phikorna elea herri bakarrean jaso da, Nafarroa Behereko Arruetan, hain zuzen ere (*EHHA*). Ez da beste inon ere aurkitu, ezta beste inongo hiztegitan ere. Gorago azaldutako *labasi* elearen antzera, oso bitxia da. Nondik etor ote litekeen edo zer ikusten duen adimen-begiak azterkizun geratzen da.

Satarabi berba beste bitxikeria bat da. Antza denez, Bizkaiko Orozko herrian baino ez da erabiltzen (*DVEF*) eta euri-zaparrada adierazteaz gain, elur-jausia ere esan nahi du. Zelan eratu du adimen-begiak *satarabi* berba? Ez dago batere garbi. Baliteke *sat-* *sagu*-tik etortzea: adibidez, *satabia*, “saguen habia” da edo *satanderea* “erbinudea”. Bestalde *arabi* berba bizkaieraz “ahabia” da. Ba ote dute harremanik saguen ahabiek euri-zaparradarekin? Zenbaitetan adimen-begiaren oharmena oso bihurria da, eta baliteke behinola gaur egun geuk hautematen ez dugun zerbaiti erreparatu izana; adibidez, ingelesez *it's raining cats and dogs* esaten da euria gogotik egiten duenean. Zer ikusten du kasu horretan adimen-begiak? Zer erlazio dago txakurren, katuen eta euri-zaparradaren artean? Azalgaitza.

Trumoi-zaparrada hitz-elkarketak *trumoi* osagai daukan arren, Bizkaiko Ibarri (*truboasaparrada*) eta Mendatako (*trumosaparrada*) hiztunek zaparrada hustzat hartzen dute; izan ere, beraien adimen-begiak *trumoiak* zaparradekin lotzen ditu. Herri berean *trumoi-euri* (*truboeuri*) elkarketaz ere baliatzen dira bertako hiztunak.

Txartxaka txarraka elearen aldaeratzat jo liteke. Onomatopeikoa ematen du. Kasu honetan “euri-zaparrada laburra” ikusten du Nafarroako Baztan haraneko hiztunen adimen-

begiak (Izeta, 1996); *txirristako* berba ildo berekoa izan liteke, onomatopeikoa. Gipuzkeraz erabiltzen omen da (Mokorua, 1990).

Tzurribila, *tzürrübila*, *tzürübila* ele-sortak onomatopeikoa ere bada, antza. Lehenengoa Lhandek dakar (*apud OEH*); bigarrena Zuberoako Altzai eta Altzürükü herrietan (*EHHA*) eta azkena herrialde bereko Montori herrian. Haizeari *zurrunbilo* euriari *tzurribila* izan liteke; izan ere, badirudi antzeko osagaiak direla. Sarritan baliatzen da adimen-begia onomatopeiez.

Ubelde (*DRALV*), *ugalde* (*DRALV*), *uhalde* (*ualde*, N-Erratzu: *EHHA*) hitz-sorta dela-eta, nabarmendu behar da hemen “zaparrada”-tzat hartuta dagoela, baina beste zenbait bazterretan “uholdea” esan nahi duela; izan ere, lehenengo osagaiak ur hitzarekin lotura badu ere, bigarrenean *-alde* eta *-olde* agertzen dira.

Uhaska hitza gorago aztertutako *uhar* terminoaren aldaera da. Berau euri-erauntsiekin, zaparradekin edo uholdeekin zerikusia duen elea da. Kasu honetan, *uhar* + *-ska* txikigarriaz osatutako hitz hau Nafarroa Behereko Baigorri herrian bildurik dago (*EHHA*). Baliteke adimen-begiak txikigarri baten bitartez ugaritasuna adierazi nahi izatea. Baliabide hori ez da arrotz izaten hizkuntzaren beste esparru batzuetan; adibidez, “handitxo duzu alkandora”. Izan ere, *handitxo* nahiko handia izaten da.

Xarraket, *xarraka* eleak Zuberoako Ürrüstoi herrian jasoak dira (*EHHA*). (*T*)*xarraka*-(*t*)*xarraka* elkarketa “apurka-apurka” edo “nekez” adierazteko erabiltzen da:

Txarraka-txarraka (V-gip ap. Elexp Berg), *xarraka-xarraka*. "(Andar, hacer...) poquito a poco, con cierta dificultad" Elexp Berg. *Xarraka-xarraka*, bere blusa motz ura jantzi ta, bi eskuak ipur gañean jarriarik, barrutiko bazter guziak aztertzen zizkin. (Ataño TxanKan, 42 *apud OEH*).

Hala ere, Ürrüstoiko eleak ematen du ugaritasunaren onomatopeiari lotuago dagoela; izan ere, bertan *zarrapata* terminoa ere erabiltzen da (*EHHA*), fonetikoki *zaparradatik* hurbil-hurbil dagoena. Euriaren ugaritasuna adierazten duten onomatopeiak franko dira euskaraz. Adimen-begiari ezinbesteko baliabide bihurtu zaio.

Zaparrada (*txaparrada*, *txaparroi*, *zaparrada handi* (*aundi*), *zaparraldi*, *zarraparrada*, *zarrapata*) hitzak ematen dio izenburua kategoria honi. *EHHA*n 85 aldiz azaltzen da *zaparrada*. Euskal Herriko bazter gehienetan erabiltzen den berba dugu. Gaztelaniazko itzulpenean, *chaparrón*, *chubasco* eta *borrasca* agertzen dira. Hau ere guztiz onomatopeikoa da, eta aldaera asko dauzka; adibidez, Gipuzkoako Getaria herrian jasotakoa, *txaparroi* (*EHHA*) gaztelaniazko *chaparrón* terminotik etor liteke, baina, aldi berean berau euskaratik ere etor liteke; gurpil-zorua. Corominasek hauxe dakar *chaparrón*-i buruz:

CHAPARRÓN, 1729 (Y chaparrada ya en 1605). De la raíz onomatopéyica chap-, que expresa el ruido del golpe aplastante de la lluvia al caer violentamente sobre las plantas y cosechas; una raíz semejante existe en vasco (zaparr, zaparrada “chaparrón”, zapart “estallido”, etc), pero es probable que allí sea también una onomatopeya. (Corominas, 1961/1987)

Zaraza, zarraka, zarrasta, zarrastada, zarrazta, zartzaka, zerrada eta *zurrupita* ele-sorta onomatopeikoa sail berean sar litezke. Izan ere, guztiek daukate komunean *z_r*-hasierako multzo kontsonantikoa; *zaraza* Gipuzkoako Oñatin jaso da, eta Azkuek “lluvia fuerte pero no violenta” dakar hiztegian (*DVEF*); Izagirrerren ikerlanean, ordea, ez dago berba horren aztarnarik (Izagirre, 1959); Azkuek berak *zarraka* hitza dakar, Xahori hartua (*DVEF*). Berba honek badu beste adiera bat: 2 *zarraka, zerraka*. “(G-to), llevar la piedra a arrancadas a derecha e izquierda, en vez de llevar por derecho y de una sola tirada” A. (...) (*OEH*). Hori irakurrita ez da sumatzen adiera bien arteko loturarik; *zarrasta zarrastada* eta *zarrazta* eleak antzekoak dira. Lehenengoa Nafarroako Baztan haranean jaso da (*DVEF*); bigarrena, berrikiago, Gipuzkoako Urretxu herrian (*EHHA*) eta hirugarrena, Lapurdiko Donibane Lohizunen (*DRALV*). *Zarrasta* berba “tarratada” edo “urratua” adierazteko ere erabiltzen da. Baliteke adimen-begiaren irudiko euri-zaparradak horrelako irudipena sorraraztea. Baztan aldean, *zarrasta* ez ezik, *zartzaka* elea eta *uri-zartzaka* elkarketa ere baliatzen dituzte bertako hiztunek (Izeta, 1996); *zerrada* eta *zurrupita* hitzak aurrekoak ez bezalakoak dira. *Zerrada* Bizkaiko Lekeitio herrian bilduta dago (*DVEF*), eta litekeena da gaztelaniaren *cerrada* berbarekin zerikusia izatea; izan ere, euri-zaparrada izaten denean, askotan dena itxi egiten dela ematen du, hau da, oso lauso ikusten dela; *zurrupita* elea, ordea, Nafarroa Behereko zenbait herritan erabiltzen da: Arnegi, Armendaritze, Gamarte, Hazparne eta Irisarrin. Hitz hau beste arlo batzuetan ere ikusten da; adibidez, *odol-zurrupita*. Ukaezina da adimen-begiak ugaritasunarekin lotura nabaria egiten duela. Horiezaz gain, Euri eremuari dagokionez, honako hitz hauek guztiek daukate *z_r*-hasieran: *zara-zara, zarama, zaraza, zarra-zarra, zarraka, zarraparrada, zarrapataka, zarrasta, zarrastada, zarrazta, zartzaka, zerrada, zerzera, zir-zir, ziri-miri, ziri-ziri, zirimiri, zirin, zirrinta, zirtzira, zirzil, zirzira, zirzirra, zürübila, zurrumillo, zurrupika, zurrupita, zurrustaka* eta *zurumilo*. Nabari denez, adimen-begia *z_r* multzoaz usu baliatzen da.

Beste aldetik, aipatu izan den bezala, *euri+izena* erabiltzen da gehien elkarketetan. Bigarren osagaia, bakar-bakarrik ere baliatzen dute hiztunek; adibidez, *elementa* edo *euri-elementa*. Hemen ere bereiztu litezke ondarezko hitzak eta maileguak. Berauen artean ondoko hauek: *borraskada, elementa(k), etxakada, kolpe* eta *usu*. Ondarezkoak direla-eta, aidanez, beren oinarrian onomatopeiadunak nagusitzen dira: *borrusta, parrasta, tarrapata*, “xarraka”, *xarxaka, zafrada, zaparrada, zarrasta(da), zartzaka*... Horiek beste esparru batzuetan ere erabiltzen direla oroitarazi behar da. Hiztunek sarritan metafora eta metonimien bitartez, eremu lexikoak beren erara bete ohi dituzte; adibidez *euri-tarrapata*. Jakina denez, *tarrapatak* “zarata, zalaparta, astrapalotsa”, baita presa edo lasterka ibiltzea ere, esan nahi du. Eta horixe eman nahi du aditzera euskaldunaren adimen-begiak, hain zuzen ere: “azkar eta denbora laburrean izaten

den euria”. Oraingoan ere, aztertu gabeko elkarketen berri emango da; kasuren batean edo bestean, lehendik xehaturiko eleren bat ostera ere aztertuko da, zerbait berria ekarriko bada. Honako hauek dira terminoak: *elur-euri (eurreuri)*; *eurasta*; *euri- (uri-) lanbro*; *euri- (uri-) parrasta*; *euri (uri) usu*; *euri- (uri-) zafrada*; *euri / elur busti*; *euri-brusta*; *euri gogor*; *euri-aldi (aurialdi)*; *euri-ase*; *euri-eraso (urieaso)*; *euri-etxakada*; *euri-irutxin*; *euri-zarrastada*; *euri-zigorrada*; *osti-zaparrada* eta *ostots-erauntsi (ostoseauntsi)*.

Elur-euri (eurreuri) hitz-elkarketa dela-eta, *euri* bigarren osagaia izanagatik ere, merezi du hemen aztertzea. Bizkaiko Kortezubin jasota dago (*EHHA*), eta lekukoak oker egon ezean, elurra eta euria uztartzea zaparradaren kategoria adierazteko harrigarria samarra da.

Eurasta elea beste *hápx* bat izan liteke; izan ere Nafarroa Behereko Behorlegi herrian baizik ez dago jasota (*EHHA*). Osagaiei dagokienez, lehenengoa argi dago *euri* dela eta bigarrena, baliteke *-sta* txikigarria izatea; adibidez, *zarbasta* “orritxo”, *mehasta* “mehetxo”. Azaldu bezala, adimen-begia, sarritan, txikigarriez baliatzen da handitasuna adierazteko.

Euri-lanbro (uri lanbro) elkarketa Harrieten hiztegitik hartuta dago (*OEH*). Harrigarri samarra da, zeren *euri* eta *lanbro* berbek topo egiten duten bakoitzean “euri xehea” adierazteko izaten da; adibidez, Gipuzkoako zenbait herritan (Beizama, Getaria, Ikaztegieta..) aipatu bezala, “euri xehea” da (*EHHA*).

Euri-parrasta (uri parrasta) terminoa Lapurdiko Ahetze herrian bildurikoa da (*EHHA*). Kasu honetan adimen-begia onomatopeia batez baliatzen da ugaritasun kontzeptua aditzera emateko: “parrasta iz. Gauzen edo pertsonen multzo handia. Sos parrasta bat. Duela urte parrasta bat. Jende parrasta bat bazen pilota (...)” (*EH*).

Euri-usu (uri usu) hitz-elkarketa Harrieten hiztegitik ere bildua da (*OEH*). *Usu* elea arrunta izaten da ekialdeko hizkeretan “maiz” edo “sarritan” adierazteko, baina hemen *euriari* loturik ugaritasuna ematen du aditzera.

Euri-zafrada (uri zafrada) eta *uri erauntsia* Ahetzen ere jasoak dira euri-zaparradari irizteko (*OEH*). Bistan denez, *zafrada* elea onomatopeikoa ere bada eta “kolpea” esan nahi du: “*zafrada*. Golpe. Han amildu hituen, gizon eta puska, patapunpaka, zafrada izigarri batean. GH 1955, 55” (*OEH*).

Elurbusti eta *euribusti* terminoak beste bitxikeria batzuk dira azpi-kategoria honetan; izan ere *elurbusti* gehienetan “ia urturik erortzen den elurra” adierazteko (*EH*) erabiltzen da Euskal Herriko hainbat bazterretan, baina beste eskualde askotan “euri-zaparrada” ere esan nahi du (*EHHA*). Harrigarri samarra da adimen-begiak bi fenomenoak uztartzea. Susmoa dut ez ote

дутен лекukoek galdera ondo ulertu. *Euribusti*, aldiz, Lapurdiko Hazparne herrian baizik ez da jaso (EHHA). *EHHaren* mapan, ematen du kontraesan asko azaltzen direla²⁹.

Euri-brusta hitz elkarketa Nafarroa Behereko Ezterenzubi herrian jasota dago (EHHA). *Brusta* berbak berez “sasia” esan nahi du Iparraldeko zenbait herritan: Altzürükün, Domintxainen, Garrüzen, Irisarrin, eta abarretan. Antza denez, adimen-begiak erlazionatzen ditu sasia euri-zaparradarekin. Beharbada, sasiaren hostotzari dagokio euri-zaparradak sortzen duen irudia.

Euri gogor berba oso deskriptiboa da, euriaren nolakotasuna nabarmentzen du eta Bizkaiko Ondarroa eta Zaratamo herrian entzuten da termino hori (EHHA).

Euri-aldi (*aurialdi*) hitz-elkarketa Euskal Herriko mendebalderen kokatu dagoen herrian bildua da, Bizkaiko Zollon, hain zuzen ere (EHHA). Kasu honetan adimen-begiak –*aldi* denborazko atzizkiak eransten dio euriari; iraupena nabarmentzen da horrela.

Euri-ase berba Bizkaiko Laukiz herrian bildu zuen Mokoroak (Mokoroa, 1990): "Ordu beteko *euri-ase* bat bear luke gure solo onek". “Asetasuna” edo “betetasuna” ematen du aditzera hitz-elkarketa honek itxuraz. *Eulase* hitza ere baliatzen dute beste leku batzuetan gauza bera adierazteko: “*eulase* (G-azp). Lluvia abundante. “*Eulasie* izan deu (G-azp)” (comunicación personal de N. Etxaniz); probablemente de *eul-* (< *euri-*) + *ase* . Santiyotako *eul-asiak* artoak zuzentzen ditu (G)” (OEH).

Euri-eraso (*urieaso*) hitz-elkarketa Lapurdiko Donibane Lohizune herrian bildutakoa da (EHHA). Oso erabilia izaten den *euri-erauntsia* herri horretan *urieaso* bihurtzen da, hau da, *eraso* eta *erauntsi* baliokideak dira.

Euri-etxakada Bizkaiko Errigoiti herrian jasotako hitz-elkarketa da. Beste inon ez da horrelakorik entzun (EHHA). Ziurrenik *etxakada* berbak Bizkaiko mendebaldean erabili ohi den *etxa* (bota) aditzarekin dauka zerikusia.

Euri-irutxin hitz-elkarketa Nafarroako Urdiain herrian bildurikoa da (EHHA). *Irutxin* Aralar aldeko mendi eta kobazulo baten izena da. Urdianekiko ipar-ekialdean kokaturik daude. Baliteke *euri-irutxin* terminoak ezagutzen ez dudana mitologia-kontu batekin zerikusia izatea, hau da, euri-zaparradak hantxe sortzen direlako sinesmena edo.

Euri-zigorrada (*eudi-zigorrada*) Gipuzkoako Hondarribia herrian bildutako hitz-elkarketa da (DVEF). Antza denez, euskal hiztunen adimen-begiak “zigor” gisa hautematen du horretariko euria; izan ere, *zigorrada* hitzaren definizioa hauxe da: “Zigor kolpea; zigorraldia

²⁹https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_ehha&view=frontpage&Itemid=466&lang=eu&testua=&gaia=Eguraldia&mapa=240&lekua=

egunero ehun *zigorrada* bizkarrean hartuta. Inor hiltzen duenak auzitegiaren *zigorrada* merezi du” (EH).

Osti-zaparrada hitz-elkarketa bilduta dago Gipuzkoako Azkoitia eta Azpeitia herrietan (Mokoroa, 1990). Antza denez, elkarketaren lehenengo terminoak *Ortzirekin* daukala zerikusirik; seguru asko, *ortzi* > *osti*. Azaldu izan denez, *ortzik* harreman handi dauka ekaitz eta erauntsiekin. Mokoroak ematen duen itzulpena “chaparrón de verano” da; beraz, denborako, udako ñabardura eransten dio adimen-begiak. Urteak aurrera joan ahala, ematen du elkarketa honek jatorrizko zentzua galdu duela, eta gaur egun *hostia* berbarekin nahasten dela. Maiz azaldu izan denez, analogia motore gotor eta sendoa da hitzen bilakaeran eta sorreran. Hauxe dakar OEHK:

OSTI-ZAPARRADA (G-azp). Ref.: Gketx Loiola; Gte Erd. “Chaparrón de verano. El pueblo confunde **osti** con Hostia” Gketx Loiola. Zaparrada itsu-itsua dator (V-gip, G-azp-go), *osti zaparrada* egin du (G-azp), uri. (OEH)

Aurrekoaren ildo berekoa da *ostots-erauntsi* (*ostoseauntsi*) hitz-elkarketa. Beraren azterketak *ortzi* + *hots* + *erauntsi* osagaiak ematen ditu; beraz, “hotsa” edo “soinua” ere bada adimen-begiak sumatzen duen beste kontzeptu bat; izan ere, ostots “trumoia” esateko erabiltzen da gaur egun Nafarroako Arbizu herrian, eta *ostotseauntsi* “ekaitza” da, handik urrun ez dagoen Etxarri (Larraun) herrian. *Ostoseauntsi* Nafarroako Oderitz herrian jaso da (EHHA).

Adar Añada Asera Ataskak Erauntsi-adar
63. taula. Euria. Kantitatea: Euri-zaparrada (haizea + denbora laburra)

63. taulan aztertuko da euri-zaparrada haizetsu eta laburra izan ohi denean: horretarako ondoko termino hauek jaso dira: *adar*, *añada*, *asera*, *ataskak* eta *erauntsi-adar*. Horrelako hitz guztiak OEHtik ateratakoak dira. Honela dakar:

MANGA de agua. Turbion, aguacero repentino con viento fuerte, *zaldozko* (c), *adar* (G, L, BN, S), *erauntsi-adar* (BN), *erauntsi* (G, L, BN, S, R), *euri-erauntsi*, *euri-jasa* (G), *erauntsi zuperna*, *uri-zarrasta*, *uri-tarrapata* (AN), *uri-zarrapata* (L), *erazarri* (BN), *idol*, *añada*, *asera* (B), *ataskak* (Hb.); *zaldizkuak* heldu dira (Lhi.), han llegado los aguaceros; *adarrez* dator euria (G), la lluvia viene en manga; *aseraz* euria egin (B), llover desigualmente y en manga. (OEH)

Bestalde, komeni da gaztelaniaren *turbión* hitzak zer esan nahi duen azaltzea. *DRAE*ren arabera hauxe: “*Turbión*. (De turbio). 1. m. Aguacero con viento fuerte, que viene repentinamente y dura poco” (*DRAE*).

Hortaz, adimen-begiak badirudi bi kontzeptu biltzen dituela bere baitan: batetik, bat-bateko euri-zaparrada eta bestetik, haize zakarra eta iraupen laburrekoa.

Euriak sortutako lokatza	Uholdea		
Euri-lirdiska (Eurilirdiska) Euri-lardiska Eurilardaska)	Hurte Hurte Iholde Maienko Pesi Tulubia Turebio Udalde Udalde Ufala Ufalaldi Ugalde	Ugarre Ugolde Uhalde Uhaste Uhate Uhazte Uheldo Uholde Uial Uiol Uiolte Ujal Ujol(a)	Ur Handi Uralde Uraldi Uramil Urarangel Urasti Euri-elementa (Uri- elementa) Uriol Euri-zaparta (Uri- zaparta) Urolde Usal
64. taula. Euria. Kantitatea: Euriaren ondorioak			

Nahiz eta, berez, fenomeno atmosferikoa izan ez, tesi honetan tokitxo bat utziko zaiei euriaren ondorioei. Beraren ondorioak direla-eta, nabarmentzekoa da *uholde* azpi-kategoriaren inguruko kontu eta azterketa. Gehientsuenek hasieran *ug-*, *uh-*, *ui-*, *uj-* edo *ur-* osagaia daukate; beraz, urari lotutakoak bide daude, uholdeak urak sorrarazten ditu eta. Hitz hauen artean, besteak beste, interesgarriak dira *uholde* bera eta haren aldaerak, *ur-amil*, eta *ur-arangel*. *Uholde* dela-eta, garbi samar dago adimen-begiak horrelako gertakariak “uraren oldetzat” hartzen dituela. Gaur egun euskara batuan *uholde* elea gailendu dela ematen du. Ahoz Lapurdiko Azkaine eta Nafarroa Beherko Jutsi herrietan bildua da (EHHA). *Ur-amil* (*uramil*) Gipuzkako Oñati herrian jasotako hitz-elkarketa da (EHHA). Badirudi *amil* berba solte gisa ez dela erabiltzen, baina bai aditza, *amildu*:

amil (V-gip ap. Iz ArOñ; Lar, vEys A, Hb ap. Lh), anbil (AN-5vill ap. A). 1. "Rodadura" Lar. "Rotación; sólo se usa en los derivados: [...] amilka, amilaga, amiltegi, amildu, amilerazi.

amildu ad. da du amil amiltzen Toki garai batetik behera erori edo bota”. Mendi tontorrera eraman zuten handik amiltzeko. Leizean behera **amildu** zituen ardiak. Zaldia eta zalduna itsasoan **amildu** ziren ad. da du”. (OEH)

Eguraldiaren lexikoari dagokionez zenbaitetan azaltzen da *amil* berba: *amilena*, *lur-amil*, *ur-amil* eta *elur-amil* (OEH). *Ur-amili* buruz hauxe dakar OEHk:

UR-AMIL (V-gip, G-goi; H s.v. anbiltzea; *ur-anbil* Izt 17v). Ref.: A Apend; Iz ArOñ (*urámill*). “Avenida de las aguas, urambillak” Izt 17v. “*Uramillak*, (eaux qui se précipitent) torrents” H (que cita a [erdara] mendi-gora urangel edo *uramilla* bezala. Camp EEs 1908, 67. Zeregan pixa zuri, goian laño beltzak, / *uramillak* banatzen ditu zure ertzak . J.J. Garmendia in Onaind MEOE 796. *Ur-amillaren* zarata-ots aserrea. (OEH)

Ur-arangel (*urarangel*) hitz-elkarketa Nafarroako Baztan haranean jasotakoa da (Izeta, 1996). Azpimarratzekoa da *arangel* elea iluna dela; ez dago garbi zer sumatzen duen adimen-begiak horren bitartez. Ez da beste inongo testu-ingurutan aurkitu.

Gainerako terminoei dagokienez, *maienco* eta *mayenco* eleek merezi dute arreta berezi eta xehea. *Maienco* Erronkarin erabiltzen zen “erreka oso handi zetorrela” adierazteko, batez ere, elurra mendietan urtzearen ondorioz: “Arroyada debida al deshielo”³⁰. Beraz, nolabait, sar liteke azpi-kategoria honetan, “uraren oldea” tarteko. Era berean, hitz berbera aurkitu dut Benas-Benasque (Goi-Aragoi) aldeko aragoiera hizkuntzan gaur egun ere erabiltzen dela gauza bertsu aditzera emateko: “Mayenco, m.- Crecida general del río en general. Aumento que experimenta el caudal del Esera durante mayo y parte de junio debido a la fusión de las nieves en días de calor” (Ballarin, 1978). Berrikiago Viñasek ere aipatzen du:

mayenco= Nombre dado al deshielo primaveral en el Alto Aragón. El término se emplea tanto para describir la propia fusión del hielo y la nieve, como la crecida que experimentan los ríos y torrentes pirenaicos como consecuencia de ese deshielo. (Viñas, 2019)

Litekeena da **gainean + ko = *gailenko = maienco* hitzaren bilakaera izatea, eta ustezko *mayo* eletik ez etortzea; izan ere, azpimarratu behar da *gailendu* aditza *gainean + dutik* datorrela. Gauzak horrela, zer dela-eta egun oraindik Benas / Benasque (Huesca) aldeko hizkeran erabiltzea? Euskararen substratua, bertan erronkarieraren antzeko euskalkia mintzatzen ote zen adierazle, ala mailegu hutsa? Autore askok agertu dutenaren arabera, euskara Pirinioen bi aldeetan barrena hedatzen bide zen, eta baliteke zenbait hitz bertako hizkeretan iharturik geratu izana (Lacasta, 1994 / Lopez-Mugartza, 2008).

4.5.2.3. Kalitatea

Nolako euria								
Izenondoak			Izenak					
Positiboak	Negatiboak	Ugaritasuna	Motela	Ugaria	Ugari eta ona	Uherra	Xehea	Xehe-xehea
Ezti Gozo	Lardats Lingirdatsu	Mardul Mamitsu	Bera Berera	Emana Jaustea	Berera	Uharlo Ur ubel Ur uher	Ikus 66. taula	Ikus 67. taula
Denbora	Jatorri ezezaguna							
Sarri	Istungor							

65. taula. Euria: Kalitatea

³⁰Diccionario Etimológico Vasco-Español, Michel Morvan: http://projetbabel.org/basque/diccionario_vasco.php

Hirugarren nozioari dagokionez, kalitatea, bi adar dauzkan arlo bakarria hartu da aintzakotzat: nolako euria den. Nolakotasuna dela-eta, aipaturiko beste azpi-sailkapen bat egin da, berez euriarekin batera erabiltzen diren izenondoak eta bere baitan kalitatea ere adierazten duten izenak.

Izenondoen aldetik, beste sailkapen bat egin da; adjektiboek beren baitan daukaten konnotazioaren arabera, hain zuzen ere: positiboak, negatiboak, ugaritasuna, denbora eta jatorri edo esanahi ezezaguna.

Izenak direla-eta, sei azpi-kontzeptu aurkitu dira korpusean: euri motela, ugaria, ugari eta ona, uherra, xehea eta xehe-xehea. Berauen artean beste bi taula egin behar izan dira, Euri xehea (66. taula) eta xehe-xehea (67. taula) kategoriak, behar besteko garrantzi eta zabaltasuna dauzkatelako.

Izenondoei dagokienez, honako hauek aztertuko dira: *ezti* eta *gozo* (positiboak); *lardats* eta *lingirdatsu* (negatiboak); *mardul* eta *mamitsu* (ugaritasuna adieraztekoak); *sarri* (denbora), *istungor* (jatorri ezezagunekoa). Izenez bezainbatean ondoko hauek: *bera* eta *berera* (motela); *emana* eta *jaustea* (ugaria); *berera* (ugari eta ona); *uharlotu*, *ur ubel* eta *ur uher* (uherra).

Lardats terminoa erabiltzen da euria desatsegina eta etengabea dela adierazteko: “Atzo hasitako tonikan, mendebaldeko haizeak giro eskasari eutsiko dio gaur, etengabeko euri *lardats*arekin. Euri *lardatsa* goiz partean eta arratsaldean, haizea baretu eta atertze aldera egingo du” (Landa, 2001-01-31).

Landa Itziarren bizi da, gaur egun mendi aldeko Debako auzoa (Gipuzkoa). Handik kilometro gutxira, Zestoan, *euri-lardatsa* baliatzen dute “euri xehea” aditzera emateko: “Euri txikiz jositako eguraldi narrasa, zikina” (Azpeitia, 2003: 18). Euskaltzaindiaren Hiztegiak (*EH*) hauxe dakar *lardats* berbari buruz: “lardats adj. Narrasa; zikina Gizon *lardatsa*. Esaera lohi *lardatsak* adj. Lanean zabarra dena. Idazle *lardatsa zen*” (*EH*). Beraz, adimen-begiak horrelako euri motari “narrasa eta zikina” deritzo, gogaikarria, alegia.

Ildo berekoa da Mokoroak jasotakoa: euri *lingirdatsua*; Nafarroako Etxarri-Aranatz herrian jasotakoa da (Mokoroa, 1990). Euskaltzaindiak, berriz, *lirdinga* erabiltzea gomendatzen du, eta ez *lindirga* (*EH*):

lingirda iz. Oharra: Euskaltzaindiak, **lingirda** -k euskara idatzian izan duen erabilera kontuan harturik, forma hori ez erabiltzea gomendatzen du; ik. *lirdinga*. (*EH*). **lirdinga** iz. Lerde edo gai likatsua. Behiak, umea egin duenean, botatzen duen **lirdinga**. iz Itsasertzeko haitzetan eta harri hezeetan eratzen den geruza berdea, algek, goroldioek eta behe mailako zenbait landarek osatua. (*EH*)

Hortaz, adimen-begiak *lingirdatsu* izenondoa oso ezezkor eta negatibotzat jotzen du: “gai likatsua eta lerdetsua”.

Gainerako berbei dagokienez, honako hauek ikertzea merezi dute: *berera*, *uharlo*, *sarri* eta *istungor*.

Berera berba Bizkaiko Ispaster herrian bildutakoa da (*DVEF*). *Bererari* dagokion sarreran “lluvia abundante y benéfica” dio, baina *euri-bererari* dagokionean, “lluvia que cae tranquilamente”. Nolanahi ere, *berera* izenondo gisa erabilia da Bizkai aldean “eroso” edo adierazteko. Hauxe dakar *EHk*:

berera (V ap. A; A DBols). I (Adv.). Cómodamente, a sus anchas. “Descansadamente” A. “Cómodamente” A DBols. Antton, akura zak beor ongi ezi bat, Ibarretik gorakoa Andre Medelek **berera** egin dezan . A Ardi 60. An irentsiko ziran txal, oilasko-oilanda, bildots ta arkume, izokin, kui, arrautza ta gainerako jakiz, gezurrik esan gabe, bi urte luzetan etxea **berera** erabiliko degu . Ib. 77. Sakristauak dirade, beñipein geienak. (*EH*)

Ziurrenik bizkaieraz oso arruntak diren *honetara*, *erara* edo *zeitara* nolatasun motako egiturekin dauka zerikusia, hau da, *bere+ra*, nolatasuna nabarmentzeko. Adimen-begiak, hortaz, hiru kontzeptu biltzen ditu: euri motela, ugaria eta ona.

Uharlo elea Lhandek dakar bere hiztegian (Lhande, 1926), eta adierazten du “euri uherra” dela, hau da, “euri nahasia edo arrea”. Gainera, *uhar* terminoa *ur + ar(re)* izan liteke.

Euri *sarria* Gipuzkoako Zumaia herrian Mokoroak jasotako hitza da: “Euri *sarria* bear]da emen” (Mokoroa, 1990). Izenondo funtzioa betetzen du, nahiz, gehienetan denborazko perpausetan erabili ohi den *sarri*.

Azpi-kategoria honi amaiera emateko hitz bitxi askoa aztertuko da: *istungor*. Ele hori Archuk erabiltzen du eskuizkribu batean (*DRALV*), eta ez dago berataz beste inongo jakingarririk. Badirudi “eguraldi euritsua” eman nahi duela aditzera. *OEhk* ez dakar *istungor* berba, baina bai *istun* “ubide”ri irizteko:

Urbide edo kanalak bazituzten . Prop 1911, 188 (ap. DRA). Uri ontan asten dire bi **istun** edo ur-bide. Taustekoa ta Aragongoa. Bera EEs 1915, 213. Ura dutenezkioz, zerukoa ala ur-bidekoa, lurra aberatsagoak eta gizenagoak dira . (Zub 117 *apud DRALV*)

Nekez jakin liteke zer zerabilen adimen-begiak berba hau sortu zenean. Zer ote dira *istun* eta *gor* euri-kontuetan?

Euri +				+Euri	Laino +
Eulandar Eulanpar Eulase Santiago-Santa Anetako Euri- ase (Santio- Santa Anetako Eulazi) Euri (Auri) lanbri Euri (Auri) garo Euri (Auri) garrotxu Euri (Auri) lanbro Euri (Auri) uger Euri (Ebi) lanbro Euri (Ebi) xehe (Ebixe, Eurisei Uri xe Uri xehe) Euri-bruma (Auri gurme, Euri grume) Euri bruma (Ebibrume) Euri-hanka mehe	(Ebiankame, Euri ankame) (Euri)-lantxurda (Lantzurda Uri lantxurda, Uri lantxurda Uri lantzurda) Euri-zirtzil, (Euri xirxira, Euri-zirtzira Euri zirtzir, Euri zirtzirika, Euri zirzil, Uritxirtxira, Uri-xirtxira, Urixirlintxa) Euri alarguntsa (Urilarguntza) Eurixka (Eudixka) Urixka) Euri ihintza (Ebi intza, Ebintza, Eudi intxa, Euri intz, Uriintx) Euri inontz (iñutz) Euri kizi / kiza	Euri laintx, lantxe Euri lanbro Euri lanbro (Euri lanbri, Ebilanbro) Euri lanbur Euri landur Euri langar (Ebilangar, Uri lankar) Euri-lanpar Euri lardats Euri lauso (Ebilauso) Euri mehe (Euri mehe) Euri memel Euri mirrizka Euri pizar Euri txar Euri txigi (Ebitxigi) Euri txiki Euri uger Euri xirphil Euri-zarama	Euri-zintzar (Eudi txintzar) Euri ziri Euri zirimiri (Auri sirimiri) Euri zirin Euri zirin (Auri sirin) Euri-zirrista Euri zizi (Ebizizi) Eulantz Euri -garapa Euri-garo Euri laino (Euri laiño, Uri laino) Euri landar (Eurilambar/ Eulandar Eurilandur) Eurilantz Euri pixa (Ulipixa) Euri (Uri intzarka, Intzarka)	Jitoeuri (Ijito- euri) Lanbro euri Zintzar (Sintzar) euri	Lañuger Lanatzza, Lainatzza Lanbar Landar Langar Lanhotzar Lankar Laino ihintz (Lanointz) Lano Lankar Lanpar Lanprix Lantar Lantsar Lantzurda Lantzar Lantzurdiña Lantzurda Lantzar Lantzer Lanzar
Lanbro +		+Lanbro	Bestelakoak		
Lanbots Lanbrasta Lanbri Lanbrixe Lanbro Lanbro zintzar	Lanbro zirin Lanbrotz Lanbrotxa Lanbroxka Lanbrus Lanburra	Auri lanbri Auri lanbro Ebi lanbro Euri lanbri Euri lanbro	Aixaixak bustitzeko euria Hanka mehe (Ankame) Asaro Bruma Garapa Garazta (garasta) Gurmeka Iparrintz (Ipharrintz)	Kuku-izerdi (Kukuixerdi) Lauso Narria Mirrizka Sarama Txarraka (Lantzer) Txirimiri Xiribiri Xirimiri Xirrimirri	Xirrista Xirxir Zamar Zarama Zerzera Zintzurdira Zirimiri Zirin Zirtzira Zirzira Zirzirra Zürübila
66. taula. Kalitatea: Euri xehea					

Euri +	Laino +	Lanbro +	Bestelakoak
Eulauso Euri landur Euri-lanpartxo Euri memel	Laino-ihintz (Lano intze, Laiño intze)	Lanbro-zirin (Lanbro ziiñ) Lanbroska	Atun-adur Landarra Landur(a)
67. taula. Euria. Kalitatea: Euri xehe-xehea			

66. eta 67. taula hauetan euri xeheari dagozkion hitz eta hitz-elkarketa guztiak bildu dira: *euri-* lehenengo osagaia dela, *-euri* bigarren osagaia dela, *laino-* lehenengo osagaia dela, *lanbro-* lehenengo osagaia dela, *-lanbro* bigarren osagaia dela, eta bestelako hitz eta hitz-

elkarketak. Hala ere, are interesgarriagoa da hiztunen adimen-begiaren arabera hitz eta hitz-elkarketa guztiak sailkatzea, hiztunen iruditeria hutsari erreparatzea, alegia. Horretarako euriari buruzko berbak bazter utzita –euria bera berezko osagaia baita–, 70. taulan agerizko terminoak eta irudi hutsak aztertuko dira; biak batera ezartzea erabaki da argigarriagoa izango delakoan.

Kasu honetan aipatutako bi taulatan agertzen dira termino guztiak: bata, “euri xehea”-ri buruzkoa, eta bestea, “xehe-xehea”-ren gainekoa. Hori da, hain zuzen ere, aukeratu den izendapena “mehea den euria”-ri irizteko. Oso garbi ez badago ere, multzo horren barruan tamaina txikiko tantadun euri-motak sartzen dira.

Euri xeheari dagokionez, aurrekoetan bezalaxe sailkapen bikoitza egin beharra dago: bata, hitz solte edo lokuzioen ingurukoa eta bestea, hitz-elkarketak. 66. taulan, horrelako bereizketarik ez dago zein den hitz nagusia argiago geratzen delakoan. Esate baterako, *euri memel* (izen + adj.) edo *lantzar* (*laino* + *tzar*). Euriarekin batera izena elkarketan edo adjektiboak erabili ohi dira.

Bestalde, Euri xehe-xehe kategorian sartu diren berbak ere badira aurreko kategorian. Badirudi euskalki kontuan datzala bereizketa, hau da, hiztunen ikuspegia aldatzen da euskalkitik euskalkira, hain da lausoa euriari buruzko pertzepzioa.

Euri berba hitz-elkartetan lehenengo osagaia dela, ondoko azterketa hau egingo da:

Eulandar berba *euri* + *landar* osagaiez eraturik dago. Elkarketa zaharretan, antza denez, *-ri-z* amaituriko hitz *l-* bihurtu izan dira; adibidez, *afari* > *afal-*; *bazkari* > *bazkal-*; *gosari* > *gosal-*; *ugari* > *ugal-*. Elkarketa hori Gipuzkoako Oñati herrian erabiltzen da (Izagirre, 1959), baina kontraesan bat dago; izan ere, bi aldiz azaltzen da hiztegian: lehenengoan, “llovizna (menos que ‘lanbro’) eta bigarrenean, ‘con gota mayor que ‘lanbro’”. Liburu berean hurrengo hitza, *landarra* “la llovizna”. Lekukoen edo informatzaileen erantzunak desberdinak direnez gero, adimen-begiaren pertzepzioa ere desberdina da. Gainera, *eurilandarra* ere jasota dago herri berean, baita *edurlandar* “el polvo de nieve que pasa los cristales” ere (Izagirre, 1959). OEHN *landar* berbaren bigarren sarreran hauxe dugu:

2 **landar** . 1. “(V-oro), terreno baldío” A . 2. “(V-ger-m), borra de líquidos, especialmente del café” A. 3. “(G-nav, AN-gip), arado de veinte púas” A . Cf. VocNav: “*Landarra*, rastra (Cuenca, Tierra Estella). Grada o rastra formada por cuatro travesaños llenos de púas de hierro” (Val de Ilzarbe). (OEH)

Horren arabera, hiztunen adimen-begiak bigarren adieran izan lezake oinarri “borra de líquidos...,” edo hirugarrenean “arado de veinte púas”. Bietan azaltzen da txikitasun- edo mehetasun-kontzeptua. Guztiarekin ere, *lanpar* eta *langar* eleak ere lotu ohi zaizkio euriari; beraz, *landarrek* hitz horietan izan lezake jatorria. Gainera, *eulanpar* berba Oñatitik hurbil dagoen Gipuzkoako beste herri batean erabiltzen da, Bergara (EHHA).

Ildo beretik, aurreko berbaz baliaturik, ikertuko dira hurrengo eleok: *euri lanpar* Bizkaiko Arrietan baturik dago (Gaminde, 2001a), Bizkaiko Getxon, eta, oro har, Uribe Kostan (Paia, 2011), baita herrialde bereko Fikan ere (*EHHA*). Arrietan ere *lanbar* berba baliatzen dute bertako hiztunek (*EHHA*). *Euri* osagaia barik, hau da, *lanpar* soil soilik baturik ere badago Bizkaiko beste herri batzuetan: Zollon (*EHHA*), Mendatan (Mallea, 2002) eta Abadiñon (Gaminde & Salterain, 1991). Azken herri honetan ere, *langar* (*lankar*) ere erabiltzen da (Gaminde & Salterain, 1991), eta aipatutako Mendatan ere bai. Malleak definizioa ere ematen du: “lainoa dagoenean botatzen duen euri finari deitzen zaio” (Mallea, 2002). Eta hor ez ezik, Nafarroako Arakil eta Dorrao herrietan (*DVEF*) eta Baztan haranean ere jasoa da (Izeta, 1996). *Langar* hitza dela-eta, nabarmendu behar da Gipuzkoa aldean oso hedaturik dagoela; adibidez, *euri-langar* Ordizian (*DVEF*), *ebilangar* Asteasun (*EHHA*). Zestoan *euri-langarra* zer den zehatz adierazi digute: “Euri lanbroa, tanta guztiz xehetan erortzen den euria” (Azpeitia, 2003: 19). Beste aldaera bat ere bada; *lantar*, Orozkon bildua (*DVEF*). Beraz, Euskal Herrian barrena, han-hemenka erabiltzen den terminoa dugu. Ildo beretik, *landar*, *langar*, *lanbar*, *lankar*, *lanpar* eta *lantar* aldaerak ditugu aztergai. Nire ustez, *langar* berba izan liteke jatorrizkoa, eta gainerakoak horretatik etor litezke. Izan ere, hiztunek horrelako euria “lainoaren garra” bezala hautemango lukete, “lainoari darion garra”, alegia. Ezin uka daiteke metafora ederra dela euri xeheari irizteko.

Horiezaz gain, *Santiago-Santa Anetako Euri-ase* (*Santio-Santa Anetako Eulazi*) hitz-elkarketa xelebrea topatu da Gipuzkoako Zestoa herrian: “Uztaila inguruan egiten duen euri suabea; xiri-miri baino gehiago, baina zaparrada izatera heldu gabe” (Azpeitia, 2003: 27). Bistan da denbora nozioan dagoela oinarrituta, Santiagotik Santa Anara bitarteko euritxua, hots, uztaillaren 25etik 26ra. Hala ere, esanahia “xiri-miri baino gehiago, baina zaparrada izatera heldu gabe” denez gero, euri xeheekin batera sailkatzea erabaki da. Horrezaz gain, Bizkaiko Laukiz herrian ere erabiltzen dute hiztunek *euri-ase* elkarketa, baina “zaparrada” esan nahi bide du, lurra “euri asetzea” behar balu bezala (Mokoroa, 1990).

Euri eta *lanbro* berbak nahasirik egoten dira zenbait elkarketatan; adibidez, Bizkaian *auri lanbri*, Jatabe herrian bildua (Gaminde, 2002), *aurilanbro*, Uribe-Etxebarrin jasoa (*EHHA*) eta *eurilanbro* Mungian (*EHHA*). Gipuzkoan ere badira zenbait adibide: *euri lanbro* Getarian (*EHHA*); *ebilanbro*, Ikaztegieta eta Beizaman (*EHHA*). Amaitzeko, Nafarroa Behereko Jutsi herrian ere erabiltzen dute hiztunek *euri lanbro*, *lantzar* elearekin batera (*EHHA*). Sarritan aipatzen da *lanbroa* dela “lainabera hezea, adibidez, itsasotik datorrena” (*MetHizt*: 185 or). Hala eta guztiz ere, *lanbro* berba kostaldean ez ezik, Euskal Herriko barrualdean ere erabiltzen da. Beraz, hemen suma daitekeenez, Euskal Herriko barrualdeko berbak ere bilduak dira, nahiz

euskara batuan “itsasotik datorren lainabera” adierazteko erabili ohi den. *Lanbro* hitza bera Euskal Herriko bazter batzuetan aditzen da euri xehari irizteko; adibidez, Gipuzkoako Oñatin (Izagirre, 1959). Bestalde, aurreraxeago aztertuko dira *lanbro* berbari lotutako zenbait termino.

Hurrengo lerrootan *garo / ihintz* bikotea izango da aztergai. *Garro* berba ere erabiltzen da euriari lotuta edo bakarrik. Lehenengo esanahia “goizeko ihintza” izaten da (*EH*), landareetan pausatzen dena, baina “iratzea” ere bai (*EH*). Eskuratutako adibide guztiak Bizkai aldekoak dira; beraz, pentsa liteke hiztunen adimen-begiak horrelako euri xehea erkatzen duela goizeko landareetan ikus daitekeenarekin. Adibidez, *auri garro* Jataben bildua da (Gaminde, 2002); *euri garro*, Larrabetzu eta Mungian (*EHHA*); Arrietan, batetik, *euri garro*, baina, bestetik *garro* soilik (Gaminde, 2001a). Herri horretan *ihintza* eta *garroa* bereizten dira, Gamindek aditzera ematen duenez: “Euriaren osteko garroa, *ihintza* euria egin barik sortzen da; *garroa* berriz, euria egin eta ostekoa”. Mendatan ere bereizten da: “Landareek euria fin-fin bota ondoren, edo goizean edo iluntzetan izaten den ura” (Mallea, 2002). Hala eta guztiz ere, *ihintz* hitza ere erabiltzen da Gipuzkoa aldean euri xehari irizteko; adibidez, *euri-intz*, Zestoan: “euri lanbroa, tanta guztiz xehetan erortzen den euria” (Azpeitia, 2003: 19); *ebi intza*, Hernanin (*EHHA*); *ebintza*, Rafa Elizondori entzunda (Usurbil); *eudi intxa*, Hondarribian (*EHHA*); Lapurdiko Hendaian ere, *uriintx* (*EHHA*). Bizkaian ere, adibide bat lortu da: *euri iñutz*, Mungian (*EHHA*). *Inontz* eta *ihintz* berbak baliokideak dira. Beraz, antza denez, *garro / ihintz* bikotearen esanahia desberdina da han-hemenka. *Garro* elera itzuliz, Oñatin ematen du txikigarri bat erantsen diola adimen-begiak garoari: *garasta* (Izagirre, 1959). Bizkaiko Jataben ere gauza bertsua gertatzen bide da, baina berba *garro* da: *auri garrotxu* (Gaminde, 2002). Hori dela-eta, *garro* barik, *garro* izan liteke “Olagarroen eta kidekoen buruko beso moduko luzakin lirain eta malgua” (*EH*). Adimen-begiak euri xehea olagarroen garro luzakin lirainekin alderatuko luke. Baliteke horrela izatea.

Euria *ugerra* ere izan daiteke. *Uger* terminoa arrunt samarra da Bizkai aldean “azalean edo zerbaiten gainean itsatsita geratzen den lohia” aditzera emateko (*EH*). Beraz, horrelako euriari hiztunen adimen-begiak “zikina” edo “lohia” deritzo, hain da txikia. Adibidez, Getxo eta Uribe Kostan sarri entzuten da *auri uger*: “Ziri-miri berbe baten baizen giautan batun badu bere, *auri-ugerra* dineutse gure edadeko gehienek ortureko balio ez daun auriri” (Paia, 2011). Adimen-begiak pentsatzen du “orturako balio ez duen euria” dela; *ugerra* da, ez da batere garbia. Hauexek dira datutegian bildutako berbak: *auri uger*, Laukiz eta Uribe Kostan (*EHHA*); *euri uger*, Meñakan (Gaminde, 2001c); *euri uger*, Mungian (Jasone Larrinaga). Getxo aldean, *auri uger* ez ezik, *lañuger* berba ere jaso da (*EHHA*), hau da, “lainoaren ugerra”.

Goratxoago azaldu denaren arabera, kategoria hau izendatzeko Euri xehea terminoa aukeratu da. “Euri mehea” ere egokia izan liteke, baina, nire ustez, xehetasun kontzeptuak mehetasunak baino hobeto adierazten du euri mota hau. Nolanahi ere, herri-meteorologian sarri dihardute aurkakotasunean *mehe* eta *lodi* izenondoek. Esanak esan, besteak beste, honako herri hauetan aurkitu da *euri xehe* elea: *euri xehe*, Nafarroa Behereko Arboti-Zohotan (EHHA); *ebi xehe*, Bearnoko Eskiulan eta Zuberoako Pagolan (EHHA); *ebixe*, Gipuzkoako Beasain (EHHA); *uri xehe*, Lapurdiko Mugerren (EHHA); *eurisei*, Gipuzkoako Leintz-gatzagan (EHHA) eta *uri xe*, Nafarroako Zugarramurdin.

Ildo beretik, lanbroarekin gertatzen den bezalaxe, badirudi *bruma* hitza ere azaltzen dela euriari lotuta. Bizkai aldean, adibidez, Jataben, *auri gurme* bildua da (Gaminde, 2002) eta Gizaburuagan *euri grume* (EHHA). Horiezaz gain, Txorierri haranean *gurmeka* bildu zuen Azkuek (DVEF). Gipuzkoan, aldiz, *bruma* eleaz beraz baliatzen dira: Zestoan, *bruma* (EHHA) eta *euri bruma*: “Euri lanbroa, tanta guztiz xehetan erortzen den euria” (Azpeitia, 2003: 19). Azkenik, Gipuzkoako Elduainen, *ebibrume* (EHHA). Itxuraz berba hau latinetik edo gaztelaniatik dator. Izan ere, DRAEk hauxe dakar: “Bruma. Del lat. *bruma* 'solsticio de invierno'. 1. f. Niebla, y especialmente la que se forma sobre el mar. 2. f. desus. invierno (1 estación del año)” (DRAE).

Bizkaiko beste zenbat herritan adiera horrekin erabiltzen dute hiztunek; adibidez, Ondarroan, *gurma* lanbroa adierazteko (EHHA); Elantxobe eta Lekeitio, *gurma*, “goizeko lanbroa” aditzera emateko (EHHA); Kortezubin, *grume*, lainoa izendatzeko (EHHA).

Euri xehea hanka meheekin erkatzen du adimen-begiak sarritan. Horrela, Gipuzkoako zenbait bazterretan hauxe entzuten da: Alkizan, *ankame* (EHHA) eta *euri ankame* (DVEF); Ikaztegiatan, *ebiankame* (EHHA); Urretxun, *euri ankame* (EHHA). Azpimarratzekoa da oso euri mota hau hanka mehea izango balitz bezala hautematea. Gainera, Bermeon, *ollanka* berba ere erabiltzen dute zaldizkoa esateko, “zutabe euritsuak”, alegia; oiloaren hankak ere balio du euriari lotzeko, hain da sortzailea adimen-begia. Bestalde, *lañoanka* elkarketa ere bildua da “hodeitzarra” dela adierazteko (Mokoroa, 1990).

Lantzurda elea ere azaltzen da euriaren xehetasuna adierazteko. Antza denez, berez, “lainoaren zurda” izan litekeen arren, beheragoko 68. taulan ikus daitekeenez, esanahi askotarikoa da hitz hau.

Hitza	Herria	Esanahia
Lantxurda	G-Aia / N-Arakil, Baztan / zuberera	Antzigarra
Lantxurda	G-Bidania / N-Etxarri-Aranatz	Elur-pikorra
Lantxurda	BN-Arruta / N-Erronkari / L-Ahetzea	Euri xehea
Lantxurdina	Z-Ligi	Euri xehea
Lanzurda	N-Baztan / lapurtera	Hezetasuna, arropari itsasten zaiona, euria izan balitz bezala
Lantxurda	Elizanburu (Idazlea)	Ihintza
Lantzurdia	N-Urdiain	Izotz-burruntzia
Lantzurda	G-Beizama	Izotz-burruntzia
Lantxurda	N-Auritz	Laino beltza
Lantxurda	BN-Aldude / erronkariara / zuberera	Laino-euria
68. taula. Euria. Kalitatea: lantzurda		

Elkarketei dagokienez, Lapurdin, Donibane Lohizunen *uri lantxurda* jaso da (EHHA); Saran, *uri lantzurda* (EHHA) eta Azkainen, *urilantxurda* (EHHA); herrialde berean, baina soilik, Mugerren, *lantzurda* (EHHA). Ekialderago, Nafarroa Behereko Arruta herrian, *lantzurda* eta *lantxurdiña* (EHHA) eta Nafarroako Erronkari haranean, *lantxurda* (Estornes, 1997). *Lantxurdiña* ere bildua da Zuberoako Ligi herrian: “*Lantxurdiña* erraten düzügü ez -ari bai -ari dan ebi xehe xarra: laiñoaren bustia (Z-Ligi)” (DVEF).

Azken hau lainoarekin batera aipatzekoa da, “lainoaren bustia” baita; baina, “euri xehe xarra” denez gero, hemen ere sartzea erabaki da.

Arropari eta jantziei loturiko kontzeptuak ere erabiltzen dira euri xehea izendatzeko; haietariko bat *zirtzil* da:

zirtzil adj. Zarpatsua, jantzi zahar eta urratuak erabiltzen dituen Eskale **zirtzil** bat. Emazteki *zirtzila* eta emazteki garbia adj. Balio gutxikoa, huskeriatzat jotzen dena. Izaki **zirtzil** ezerez bat. Abereetan *zirtzilena*, lurrean herrestan nekez dabilena. Laguna behar duzue, zuhaitz **zirtzil** bat gurdira jasotzeko. Lurreko atsegin *zirtzilak*. (EH)

“Zarpatsua”, “zahar” eta “urratua”... horrela ikusten du, hain zuzen ere, adimen-begiak euri xehea; gainera, “balio gutxikoa”. Hala ere, *zir* berba bikoiztetik etor litezke zenbait ele, *zir+zir*, alegia. Eskuratutako adibide guztiak Euskal Herriko ekialdekoak dira, batez ere Lapurdikoak: *urixirlintxa*, Azkainen bildua (EHHA); *euri xirxira*, Makean bildua (EHHA). Hori ere, agian, onomatopeikoa izan liteke; *urixirxira*, Donibane Lohizunen entzunda (EHHA); *euri zirtzir* eta *zirizira*, Hazparnen (EHHA); *euri zirtzirika*, Nafarroa Behereko Arnegi herrian bildua (EHHA); *euri-zirtzil* (DRALV); *zirtzira*, Lapurdiko Ainhoan batutakoa (DVEF); *zirzirra*, Nafarroako Uztarroze herrian (DVEF) eta bokalarteko *-e-z* ere bai, *zerzera*, Erronkari haranean (Iribarren, 1952). Bestalde, *xirphil* izenak ere izan lezake zerikusirik *zirtzilekin*; esaterako, Lapurdiko Bardozen *euri xirphil* erabiltzen dute hiztunek (EHHA).

Azkainen ere *huri alarguntsa (urilarguntza)* eta *urilantxurda* eleak erabiltzen dira (EHHA). Oraingoan horrelako euri xehe eta mehea adimen-begiak alarguntsa izango balitz bezala hautematen du.

Jakina, euri xehea euri ttikia denez gero, zenbait bazterretan txikigarriak baliatzen dituzte; adibidez, Gipuzkoako Hondarribian, *eudixka* (EHHA); Nafarroa Behereko Bidarrain, *eurixk*, *-xka*-ren *-a* galdua, eta Jutsin, *eurixka* (EHHA); Lapurdiko Senperen, *urixka* (DRALV).

Kizi terminoa ere erabiltzen da euriari lotua. Aurreko eremuan ere *elur kizi (edur kidxixe)* aztertu da: “elurra abiatzerakoan jausten den elur xehea eta urria”. Bizkaiko Abadiñon entzundakoa (Gaminde, 1992). Horrezaz gain, bada beste aldaera bat: *huri-kiza*. Bizkaiko Markinan jasoa da (DVEF). *Kizi* eta *kiza* berbak txikitasunari dagozkion terminoak ditugu. Horrelakoxetat hartzen du adimen-begiak *kizi* berba: “apurra, pixka esnari koñak *kizi* bat botatzen zion Bizk” (EH). *Kizak* ere badu sarrera oparoa OEHn:

kizi. 1. (V-m-gip), kixi (V-gip), **kiza** (V-m). Ref.: A (kizi, **kiza**); Iz ArOñ (kixi) IzG (euri-); Elexp Berg (kixi) . Mota, cosa muy pequeña, pizca. “**Kiza**, mota, cosa menuda. Ule-**kiza** bat, una mota de pelo”. Euri-**kiza**, lluvia menuda. “Atomo, cosa muy menuda” Ib. . “Zer-edo-zer txiki, xe ta mea danean **kiza** ta kizi dala diogu. Adibidez, ile-**kiza**, euri-**kiza**. Kizbil itzak **kiza**-biribila adieraziko du” Zait RIEV 1933, 65. “*Euri-kixixa, edur-kixixa* diardu, está lloviznando”. (OEH)

Begi-bistan da, eta esan gabe doa, adimen-begiaren sormena oso handia dela.

Euri-laintx eta euri *lantxe* Bizkaiko Ondarroa herrian erabiltzen dituzte hiztunek (Barrutia, 2000). Bizkai aldean *lantxe* “legetxe” adierazteko erabiltzen da. Dirudenez, adimen-begiak euri xehe hau “euria itxurako zerbait bezala” ikusten du.

Azaldu bezala, euri eta lanbroari loturiko hitz-elkarketa gehiago aztertuko dira. Ondoko hauek bildu dira, besteak beste: *huri lanbro*, Gipuzkoako Getarian eta Nafarroa Behereko Jutsin (EHHA); *auri lanbro*, Bizkaiko Uribe-Etxebarrin (EHHA); *ebilanbro*, Gipuzkoako Beizama eta Ikaztegietan (EHHA); *hurilanbro*, Bizkaiko Mungian (EHHA). Horietaz gain, Mendebaldeko Bizkaian arrunt samarrak *lanbri* berbadunak; adibidez, *lanbri*, Munitibarren (DVEF); *huri lanbri*, Gatican (Gaminde, 1997) eta Meñakan (Gaminde, 2001c); *auri lanbri*, Jataben (Gaminde, 2002). Bestalde, *lanbrixe* aldaera Leioan erabiltzen da: “Ba antzen siri miri te sera, *lanbrixe*, *auri lanbrixe*, guk batera nai bestera esaten geuntzen, siri miri, aitu selau, e, auri siri miri datorren edo, ai selau *lanbrixe* datorren” (Gaminde, 2001a).

Nondik ote datorren *lanbri* berba asmatzeak lanak eman ditzake. Jakin dakigu adimen-begiak euri xehea zenbait bazterretan euria eta lanbroa nahasita ikusten dituela edo lanbro soilik, baina zer dela-eta *lanbri*, *-i* bokalaz amaiturik? Jakina, adierazi bezala, *lanbro* hutsa ere erabiltzen da Gipuzkoako honako herrietan: Oñatin (Izagirre, 1959); Bergaran *lanbro zirin* (EHHA) eta Oñatin ere *lanbro-ziiñ* (Izagirre, 1959). Berriz ere adimen-begiak honelako euria

zikinkeriarekin lardaskatzen du. Izan ere, *zirina*: “Hegaztien gorotza Enara habia batetik **zirin** berri apur bat begietan sartu zitzaion. Iz. Gorotz mehea adj. Ipurtarina; zirikatzailea Batez ere Bizk. adj.” (EH).

Zirin bakarrik edo *huri zirin* ere bildua da Bizkai aldean; adibidez, *aurisirin* Uribe-Etxebarrin (EHHA). Azkuek hauxe adierazten du: “Garia burututa gero *huri ziriña* bada, galduak gara, gorriñeak joko deusku labore guztia” (DVEF). Beraz, oso kaltegarritzat jotzen dute hiztunek euri klase hau.

Alderantzizko hitz-elkarketa ere jasota dago: “Iluntze aldera *lanbro-huri* pixka bat egin dezake” (Landa, 2003-03-11). Bestalde, *lanbroaren* alboan ere *zintzar* izena azaltzen da Andoainen: *lanbro zintzar* (DVEF). Pasaian, oster, *eudi txintzar* erabiltzen dute hiztunek (EHHA). Txintzar hitzak txikigarria ematen du. Aurrerago aztertuko den txingorraren eremuan *zintzar* elea aztertu eta adieraziko da ekialdeko euskalkietan baliatzen dutela txingor edo txingor txikia izendatzeko. Ziurrenik, *zintzar* / *zintzar* bikoteak nolabaiteko harremana izango du.

Bestalde, *lanbro* berbarekin zerikusia dutenak ere bilduak dira; adibidez, *lanbrots* Nafarroa Behereko Aldude haranean (DVEF), baita herrialde bereko Jutsi eta Zuberoako Urdiñarbe herrietan (EHHA). Adimen-begiak “lanbroaren hotsa” ikusten ote du? Badirudi soinuarekin estekatzen duela honetariko euria; *lanborts aldaera* era bada (DRALV); *lanbrotxa*, Lapurdiko Makean bildurik dago (EHHA). Txikigarria ematen du. Ildo beretik, berriki aipaturiko Jutsin *lanbrotxa* ere bada (EHHA). Herri horretan bost ele erabiltzen omen dituzte hiztunek: *eurixka*, *lanbrots*, *lanbrotxa*, *lantzar* eta *huri lanbro*; *lanbrus* aldaera Nafarroako Alkotz herrian bildua da (EHHA). Baliteke, *lanbrots* → *lanbros* → *lanbrus* bilakaera izatea. Horretaz gain, badira beste aldaera batzuk ere; adibidez, gorago aipatu bezala, *lanbar*, Bizkaiko Arrieta herrian eskuratua (EHHA). Gamindek ez du berba horren berri ematen, baina bai *huri lanparrarena* (Jatabe: Gaminde, 2002); *lanburra*, horrela, *-a* itsatsi eta guzti Nafarroako Urdiain herrian erabiltzen omen da (EHHA). Bizkaiko itsasertzean, berriz, elkarketan azaltzen da *huri lanbur*; adibidez, Bermeo, Mundaka eta Ondarroan (Barrutia, 2000). Beste aldaera bat *landur* edo *huri landur* izan liteke. Hala ere, adimen-begiak Bizkaiko zenbait tokitan euri-xehezat hartzen badu ere, beste batzuetan xehe-xehetzat hartzen du; esate baterako, Bizkaiko Fikan, euri xehea da (EHHA), baina Gernikan eta Mundakan “*huri landurra* (la lluvia menudísima)” euri xehe-xehea (DVEF).

Aipatu da euria *zirtzila* izan daitekeela, baina *lardatsa* ere bai; hau da, “narrasa” edo “zikina” (EH). Gorago zikinkeriari loturiko adibide gehiago aztertu izan dira (*uger*). *Euri-lardats* hitz-elkarketa Gipuzkoako Zestoa herrian bildutakoa da: “Euri txikiz jositako eguraldi narrasa, zikina” (Azpeitia, 2003: 18). Beste adibide batzuk ere badira, baina aidanez gehiago

da “etengabea” “zikina” baino: “Atzo hasitako tonikan, mendebaldeko haizeak giro eskasari eutsiko dio gaur, etengabeko *huri lardatsarekin*” (Landa, 2001-01-31). Adimen-begiak nolabaiteko “lohikeria” sumatzen du horrelako euriarekin.

Euri xehea lausoa ere izan daiteke. Izen hori begiei buruzkoa izaten da:

Begiaren alde gardenean agertzen den orbantxo zurixka, ikusmena iluntzen duena Begian *lausoa* balu. Gure aurrekoek ez zuten, agidanean begi *lausoa* handirik gaizkiari antzemateko. Zein *lausoa* lodiak bekatuak sortzen dituen, behar bezala begiratzeko. (EH)

Horretariko euriak, zenbaitetan, gure ikusmena galarazten du, ilundu egiten du. Horixe da adimen-begiaren ikuspegia. Zenbait adibide ikusiko dugu Gipuzkoan: *ebi lausoa* Ataun eta Ikaztegiatan herrietan (EHHA); *euri-lausua* Oñatin (Izagirre, 1959). Herri berean *eulausoa* ere bildua da, euri xehe-xeheri irizteko (Izagirre, 1959). *Lausoa* soilik Urretxun (EHHA). Gogorarazi behar da ikusgaiztasunari loturiko berba hau elurrarekin ere erabili ohi dela: *lausoa* “elur-erauntsia” izan daiteke Nafarroako Lesaka herrian eta Zaraitzu haranean (DVEF).

Aipatu izan den bezala, eremu hau izendatzeko *euri xehea* edo *mehea* izan da zalantza. Azkenean, *xehea* erabiltzea erabaki da, baina euri mehedun adibideak ere badira; Esate baterako, “Goiz partean lainoak sareagoak izango dira eta arratsaldean *euri mehea*” (Landa, 2004-01-09) edo *euri mehea* Zuberoako Domintxaine-Berroeta herrian (EHHA). Mehe izenondoa oso egokia da eguraldiaren inguruko lexikoan; izan ere, oso interegarria da adimen-begiak hautematen duen *mehe / lodi* dikotomia. Adibidez, *euria lodi hasi* aditz-lokuzioa (Mokoroa, 1990).

Bizkaitar hiztun batzuek uste dute euria *memela* izan daitekeela, “lela” edo “kokola”, alegia. Egia esan, uste da femeninoa dela, jasotako adibide bakarrek *memel* baitute oinarritzat. Adibidez, *euri memel*, Añibarro idazleak erabilita, *euri xehe-xehea* izan liteke: “insignificante. *euri memel*: llovizna” (DVEF). Bestalde, hauxe ere topatu da:

EURI-MEMEL (A), EURI MAMEL . "(V, msLond), llovizna" A. v. EURI-LANGAR. *Euri mamela* ari ta ari egun guztian. Anab Usauri 86. Euri **memel**, txirtxilla ari zuan. Anab Poli 99. (OEH)

Agidanez, Gipuzkoa aldeko zenbait bazterretan euri mota honek ahultasun edo eskasiarekin dauka zerikusia. *Euri mirrizka* Aia, Donostia eta Usurbilean bildutako terminoa da (DVEF). Baliteke adimen-begiak euri hau honelakotzat hartzea: “Royendo. Iñurritzarrak be zugatz inguruban ibiltten dira ta *mirrizka-mirrizka* azala jaten dautse . “Rodono” . Otx 14” (OEH). Badirudi honetariko euriak inguruak “marraskatu” edo “hortzikatu” egiten dituela, hain da lardatsa.

Pixkatasun edo apurtasunaren gaineko kontzeptuak ere erabiltzen dira euri xeheri irizteko. Esate baterako: “Izpizuak zeruari behatu eta, garbiegi zagok eguna lupiatarako, esan

zuen, egun beltzak hobeak dituk horretarako, batez ere euri *pixarra* baldin bada” (Etxeberria, 2003: 110). Hauxe dakar *pizar* berbari buruz Euskaltzaindiaren Hiztegiak (EH):

pizar iz. Pixka, apur Diru **pizar** bat bildu dute. Lasto pizarra. Egur *pizarrak*. Nire bizi guztian altxatutako diru *pizarrak*. Etxean utzitako *pizarrak* jatera. (EH). **pizar** . Etim. Originariamente, var. de bizar. 1. (G-bet, AN, L-côte, B... ap. A; A Apend). Pizca, brizna, pequeño pedazo; pequeña cantidad. 2.º (AN), mota, brizna. Egur-*pizarrak*, las briznas de leña. Arri-*pizarrak*, las piedrecillas. (EH)

Beraz, antza denez, adimen-begiak *bizar* hitzaz baliatu eta *pizar* bihurtu du “pixka”, “apur bat” edo “kopuru txikia” aditzera emateko. Baliabide metaforiko hau arrunta izaten da hizkuntzetan lexikoa garatze aldera.

Gainera, euri xehea *txarra* ere izan daiteke; adibidez, Nafarroa Behereko Bastida herri hiru-eledunean (euskara, frantsesa eta gaskoia) *euri txar* bildua da (EHHA). Izan ere, *txar* izenondoa arrunt askoa da Euskal Herriko hainbat bazterretan eguraldiaren gorabeheraren bat izendatzeko. Adibide hauek guztiak EHHAtik hartutakoak dira: esaterako, ekaitzari irizteko, *denbora txarra* Bizkaiko Zeanurin edo Lapurdiko Mugerre, besteak beste. Hortaz, hiztun batzuen adimen-begiaren arabera, euri xehea ez da batere ona, *txarra* da.

Txarra ez ezik, euria, ustez, *gutxi*gi izan daiteke. Izan ere, Gipuzkoako Beasain herrian *ebitxi*gi aldaera erabiltzen dute hiztunek. Bilakaera hau izan liteke: *gutxi*gi > *gutxi*gi > *utxi*gi > *txi*gi. Hori guztia, jakina, hitz-elkarketan. Kasu honetan, ematen du adimen-begiak euri tankera hau txiki-txikia hautematen duela. Gainera, *euri txiki* aldaera ere entzuten da zenbait herritan; adibidez, Gipuzkoako Aia eta Zestoa herrietan (EHHA). Pello Zabalak ere irratian sarritan erabiltzen du *euri tiki* terminoa.

Aipatu bezala, euria *ugerra*, *zirtzila*, *lardatsa*... izan daiteke, eta, zikinkeriak zikinkeria, *zaramari* lotua ere bai; esate baterako, Bizkaiko Lekeitio *euri zarama* jasota dago: “*Euri-zaramea* danean, aztalakoan bustiango egiten gara euri-zaparradatzan baño, bai ta ez gitxi” (DVEF). Berrikiago, Bizkaiko Fikan ere bildutako berba da (EHHA). Beraz, bazter horietariko hiztunek ezdeustzat jotzen bide dute horrelako euri mota.

Zirimiri berba arrakasta ukaezina lortu badu ere, —gaztelaniaz, *sirimiri* barra-barra erabiltzen da—, ez dirudi Euskal Herri osoan entzun daitekeen terminoa denik. Eraketa guztiz onomatopeikoa du; izan ere, lehenengo hitza *ziri* da eta bigarrena, *miri*, errepikatzen da hasierako *z-* *m-* bihurturik. Berdintsu gertatzen da beste hainbat elerekin; adibidez, “zurrumuru”, “txutxu-mutxu”, “zaldiko-maldiko” eta abar. Berez *ziri* hauxe da:

1 iz. Zurezko edo metalezko atala, puntako ertza aski zorrotza duena, pitzadurak zartarazteko, zuloak estaltzeko edo kideko gauzetarako erabiltzen dena. Ik. **kabila**; **taket 2**; **zotz 2**. Egur *lodi hori hausteko*, *ekar ezazu aroztegitik ziri handi bat*. Zurezko *ziri bat egizu aizkorarekin*, *bitarte horretan sartzeko*. *Zotzetik da ziria*, *hazitik bihia* (esr. zah.). 2 iz. Haga txiki baten edo zotz baten itxurako pieza luze eta mehea. *Marrubiak sartzeko belar ziri bat atera zuen errotik*. *Plastikozko ziri batekin edanez*”. 3 iz. Esaldi mingarria, eztenkada. Ik. **zirikada**. *Gaizki esaka ari garelarik*, *maiz hartzen ditugu ahotan*

aipamen ilunak, ziri bihurriak. Ipuin horiek eta bertsoak berdin-berdinak dituzte beren pipermina, eztena, ziria. Ziri bertsoak” (EH).

Beraz, adimen-begiak metafora ederra sortzen du: hitzunek uste dute horrelako euri xehea hautematen dutenean, “zurezko edo metalezko atal baten idekotsua” dela. Bestalde, *zirimiri* berba baino lehen, *ziri* soilik ere erabili izan da; adibidez, Bizkaian, Meñakan, *euri ziri* (Gaminde, 2001c); Mungian ere *euri ziri* (EHHA). *Ziri-ziri* ere bada nola jausten den euri edo elurra eztiki Gipuzkoako Oñatin (Izagirre, 1959). Herri berean, *euri ziri-ziri hasi* aditz-lokuzioa baliatzen dute hitzunek (Mokoroa, 1959). *Zirimiri* berba soilik erabilia, zenbait tokitan entzuten da; esate baterako, Bizkaiko Lekeitio eta Mundaka herrietan eta behe-nafarreraz (DVEF); Abadiñon ere bai (Gaminde & Salterain, 1991). Horietaz gain, beste aldaera batzuk ere badira: *txirimiri*, Bakion (Gaminde, 1999); *xiri-miri*, txikigarri gisa ere baliatzen du Gandiaga idazleak (DRALV). Onomatopeikoa izanda, bigarren osagaia *b-z* has liteke: *xiribiri*, Nafarroako Alkotz herrian bildutakoa (EHHA). Euriarekin batera, *euri zirimiri* ere erabiltzen da; adibidez, *aurisirimiri* Bizkaiko Uribe-Etxebarrin (EHHA). Amaitzeko, *xirri-mirri* ere jasoa da: “Euriarentzat erran ditake: lantzurda, *xirri-mirria*, erauntsiak, elementak eta abar” (Gure Herria, 1975, 60 *apud* DRALV). Bestalde, adibide bat bera ere bildurik ez badago ere, Euskal Herriko zenbait bazterretan *ziziri* berba “dilista” izaten da; horrenbestez, adimen-begiak horrekin ere egin lezake erkaketa moduko bat. Hori dela-eta, Gipuzkoako Ikaztegieta herrian bildutako *euri zizi* (*ebizizi*) hitz-elkarketaren bigarren osagaiak izan lezake zerikusirik *ziziri* hitzarekin (EHHA).

Ildo beretik, badira beste hitz-elkarketa onomatopeiko batzuk. Haietariko bat, *euri-zirrista* da (DRALV). Zirrista hauxe da: “Zurrusta, turrusta Ur *zirrista* txikia izan arren, iturri begia ia ez da sekula agortzen” (EH). Beraz, kasu honetan erlazioa zuzena da, adimen-begiak horrelako euria ur-zirristatzat hartzen du eta. Badira beste antzeko batzuk; adibidez, *uri-xirrista* (Harriet *apud* OEH).

Hain da xehea euri mota hau, toki batzuetan *eulantz* esaten baitute; esaterako, Gipuzkoako Oñatin (Izagirre, 1959). Azkuek dio “traza de lluvia”, beste azalpenik gabe (DVEF). Bergaran ere bildua da, baina “llovizna casi imperceptible” omen da (Elxepuru, 2004). Horregatik, euri xehe-xehearen eremuan sartzea erabaki da.

Bizkai aldean *garapa* berba ere baliatzen dute horretariko euria izendatzeko; adibidez, Markinan, *garapa* bera erabiltzen bide da (DVEF) eta Mungian *eurigarapa* (EHHA). *Garapak* honako hau esan nahi du:

iz. (B) 1. Bilketaren ondoren bildu gabe geratzen den mahats-mordoa. 2. Zuhaitzean bildu gabe geratzen den gaztaina-multzoa. 3. Txirbila. (Harluxet)

Hirugarren adiera interesatzen zaigu, txirbil edo txirlora “Ebaketa-erreminta baten eraginez harrotzen den material-zati fin eta kizkurra” da (Harluxet). Beraz, adimen-begiak euri xehea “material-zati fin eta kizkur” gisa hautematen du.

Horrezaz gain, Euskal Herriko zenbait herritan euri xehe hau igartzen da lainoa izango balitz bezala. Gipuzkoako Getarian, *eurilaiño* esaten da (EHHA) eta Nafarroako Zugarramurdin, *uri laino* (EHHA).

Jakina denez, euliek pixarik egiten ez badute ere, Lapurdiko hiztunek baietz uste dute, zeren *ulipixa* aldaera baliatzen baitute (Lhande, 1926). Adimen-begiak horrelako euri xehea ustezko eulien txizarekin aldaratzen du. Aurrerago aztertuko denez, animaliak ez dira arrotzak izaten euriaren inguruko hitz-elkarketetan.

Jarraian, Nafarroako Etxalar herrian *intzarka* elea dela-eta (EHHA) beste aztergai bat azalduko da; izan ere, ostadarra izendatzeko erabiltzen den beste ele bat ere jasota dago Nafarroako Etxalar herrian: *uri intzarka* edo *intzarka* (EHHA). Ostadarraren eremuan honako aldaera hauek bildu ziren Gipuzkoa aldean: Okinan, *intxearka*; Aizarnazabalen, *intzearka* eta *inzarka*; Arroan, *intzerka*; Itziarren, *inzirkea?*, *intzirka* eta *intzirki*; Getarian, *itzearka* (Bähr, 1931). Gaur egun, Arroan, *antzirka* eta Getarian, *arkoiris* (EHHA). Etxalarren, oster, *ortzeder*. Bähr-ek 1932an eman zuen izendapenen berri, gaur egun ia-ia ez dago aztarnarik; adibidez, Arroako izena, *intzerka* bide zen; egun, *antzirka*. Hala ere, termino horiek guztiak ostadarraren eremuan; euri xehearenean, aipatu bezala, Etxalarren batutakoa, *intzarka*. Antza denez, bi osagai dira ustezko hitz-elkarketa honetan: *ihintz* eta *arka?* Baliteke. Nolanahi ere, ez dago batere garbi erabakitzea zer hautematen ote duen adimen-begiak.

Hurrengo hitz-elkarketa, *ijito-euri* (*jito-euri*) Nafarroako Ezkurra herrian bildutakoa da (EHHA). Orixe idazleak *ijito-euzki* ere erabiltzen du (DRALV). Adimen-begiak zer ote sumatzen duen aztertuz gero, tentazioa handia da lehenengo osagaia *jito* izan daitekeela aditzera emateko; izan ere, Bizkai aldean, *jito* berbak noraezean esan nahi du; beraz, euri xehea noraezean erortzen dela esan liteke:

jito iz. Itsas edo ur gainean, urak edo haizeak bultzaturik, noraezean dagoen edozein gauzaren egoera. *Izotz pusken jitoa.* (EH)

jitoan adb. Itsas edo ibai gainean, uraren edo haizearen eraginez noraezean. *Jitoan dabil txalupa.* (EH)

Hala ere, badirudi ekialdeko euskalkietan *ijitoren* orde, *jito* elea baliatzen dutela; beraz, bai, itxura guztien arabera ijitoen euria izan liteke:

ijito. Etim. De Egipto . 1. (V-gip, G, AN-gip), *ijitu*, **jito** (V-gip, G-nav, AN-ulz; Dv), *gito* (BN; Dv, H), *kito* (B), *kitu* (B), *ejito*, *zito* (Sal, R), *xito* (Sal, R). Ref.: A (*ijito*, *gito*, *kito*, *xito*, *zito*); Iz ArOñ (*jitto*), Als (...) (...) algún ej. moderno. La forma **jito** es la más usual en los textos navarros y labortanos. *Ijto*, que aparece en Axular, podría ser errata por *ijito* o por **jito**. Berze ijitorik ere baduk Baztanen. (Sumbilla, 1597). ConTAV 5.2.5. Zeren hura da ohoiñen. (OEH)

Gauzak horrela, adimen-begiak nola sumatzen duen zenbaitetan euri mota hau ikusita (pixa, ugerra, zikina, zarpaila, zarama...) ez da zentzugabea pentsatzea *jito-euri* elkarketak oso konnotazio negatiboa daukala. Horrenbestez, kontzeptu horiekin guztiekin batera txertatu behar litzateke zalantzarik gabe.

Batzuetan, hitz-elkarketan osagaik tokiz aldatzen dira; lehenengo bigarrena izan daiteke eta alderantziz; gorago aztertu da *euri-lanbro* eta orain, berriz, *lanbro-euri*; adibidez, Landak honako eguraldi-iragarpen hau egin zuen Gara egunkarian: “Iluntze aldera *lanbro-euri* pixka bat egin dezake” (Landa, 2003-03-11). Berdintsu gertatzen da *zintzar* berebarekin. Esate baterako, Gipuzkoako Andoainen *lanbro-zintzar* elkarketa bildua da eta harrigarriro herri berean *sintxar euri* (DVEF).

Lainoarekin ustezko zerikusia izan dezaketen hitz batzuk aztertu dira dagoeneko; beste batzuek, aldiz, merezi dute iruzkinen bat edo beste egitea. Adibidez, Nafarroako Zugarramurdin, adimen-begiak euri xehea *lainatzarekin* lotzen du: *lainatza* eta *lainatza* (EHHA). Usu etortzen da horretariko euria lainotik. Ildo berekoa izan daiteke *lanhotzar* aldaera; Nafarroa Behereko Arboti-Zohota herrian erabiltzen da (EHHA). Bai *-tza*, bai *-tzar* atzizkiek handitasuna adierazten dute. Berdintsuak ematen dute *lantsar* eta *lantzar* eleek; lehenengoa, Nafarroa Behereko Behorlegi herrian baliatzen dute eta bigarrena, Arnegin (EHHA). Horietaz gain, *lantzer* eta *lanzar* ere badira, Nafarroa Behereko Ezterenzubin eta Nafarroako Luzaiden jasotakoak, hurrenez hurren (EHHA). Herri horiek aipaturik, ondorioztatzen da ohiko eleak direla eremu zabal horretan.

Elkarketa desberdin samarra *laino-ihintz* dugu (*lanointz*). Nafarroako Baztan haranean bildutakoa da (DVEF). Adimen-begiak lainotatik etortzen dela ihintza igartzen du. Gorago aztertu da ihintz eta garoaren arteko erlazioa. Haran bereko Amaiur herri historikoan *laino-langar* (*lano lankar*) hitz-elkarketa ere baliatzen dute hiztunek. Ziurrenik *lankar* elearen *laino* osagaiaren kontzientzia galdu, eta osteria ere *lainoarekin* elkartzeko beharra sentitu du adimen-begiak. Bestalde, Bizkaiko Arrankudiaga herriko Zollo auzoan lainoari loturiko oso berba bitxia bildua da: *lanprix* (EHHA). Zer ikusten ote du adimen-begiak bigarren osagaian? *Brix* edo *bris* izan liteke. Ba ote dauka zerikusirik *brisa* haize motarekin? Ez dago erraz jakiterik. Ziurrenik, *lanprix* hápax legómenon da, hots, **corpus** batean behin baino agertzen ez den hitz, hitz-forma edo adierazpidea.

Azkenik, bada berba multzo bat euri eta laino hitzekin zerikusirik ez daukana. Batzuk hitz-elkarketetan azaldu dira; adibidez, *hanka mehe* (*ankame*), *bruma*, *garapa*, *gurmeka*, *sarama*, *txarraka*, *txirimiri*, *zarama*, *zirimiri* eta *zirin*. Beste batzuk, ordea, ez.

Zerrendan agertzen den lehendabizikoa *Aixaixak bustitzeko euria* da (Izagirre, 1959). Lokuzio hori Gipuzkoako Oñatin erabiltzen omen da; bertako hizkeran *aixaixa* azeria da. Beraz, adimen-begiak uste du euri xehea azeriak bustitzeko gauza dela:

.. cuales se observa la forma «aixal». Aixalko es el zorrito de las fábulas. «**Aixaixak** bustitzeko eurixa» = lluvia como para mojar a las zorras, se dice cuando ha llovido poco. «Aixarra» es palabra típica de la zona que indica espantadizo, huidizo, que no se (...) (...) ASJU-Anuario del Seminario de Filología Vasca “Julio de Urquijo” Artikuluak ASJU IV (1970), 5- 48 Fr. Cándido Izaguirre, O. F. M. El Vocabulario Vasco de Aranzazu-Oñate y zonas colindantes. (Izagirre, 1959)

Hurrengo berba *asaro* da, Bizkaiko Arrieta herrian jasoia (*EHHA*). Bertan beste bi termino erabiltzen dira: *lanpar* eta *zirimiri* (*EHHA*). *S-z* agertuagatik ere, agian, *z-z* idatzi behar litzateke; izan ere, *EHHA*n 79 agerpen ditu, eta gehienetan urteko 11. hilabetea adierazteko izaten da. Hilabetez gain, zein tokitan erabiltzen den aurkitu ezinik, txotorra eta euria nahasten direnean ere esaten da Bizkai aldean: “Sélago *asaroa*. Txotorra eta eurie nasteen iten dau. Eurie iten dau, edurregas nasteen” (*EDEL*, 1983). Horretaz gain, “euri onuragarria” ere bada Bizkaiko Leioa herrian: “*Asaro* ixetan da, siketa edo sikun osten datorren euriri esaten jako *asaro*” (Gaminde, 2001b). Garbi dago espero den euria dela, sikatearen osteko euria da eta. Bizkaiko beste zenbait bazterretan (Gernika, Ispaster, Markina, Otxandio herrietan eta Txorierrri haranean), berriz, “urteko edozein euri onuragarri da” (*DVEF*). Azkenik, *azaro* “hostoen gaineko ihintz-tantak” ere bada Bizkaiko Orozkon (*DVEF*). Orotarikoa da adimen-begia kasu honetan, *-aro* atzizkia lagun.

Ipar-ihintz (*iparrintz*) hitz-elkarketa, jatorrizko hiztun euskaldunak galdu dituen Nafarroako Zaraitzu haran eta Uztarroze herrian bildutakoa da: “lluvia menuda y fria que viene con el viento norte” (*DVEF*). Hortaz, adimen-begiak euri xeheari beste kontzeptu bat eransten dio; nondiktasuna, iparretik etortzen dela, alegia. Bizkaiko beste toki batzuetan (Bermeo eta Mendata) eta Gipuzkoako Zumaian, *ipar-euri* hitz-elkarketa ere baliatzen dute hiztunek “Lluvia del norte (o este?)” adierazteko (*DVEF*). Azkuek zalantza izan zuen iparralde edo ekialdetik ote zetorren. Jakina denez, itsasertzeko marinelen ustez iparra ekialdea izaten da.

Animaliei dagokienez, azeria eta atuna ez ezik, kukua ere erabiltzen da euri xehea izendatzeko; esate baterako, Bizkaiko Kortezubi herrian hitz-elkarketa ezin xelebregoa dago bilduta: *kuku-izerdi* (*kukuixerdi*: *EHHA*). Ezin interesgarriagoa da adimen-begiak sorturiko metafora hau. Euri mota hau kukuak egiten duen izerdiarekin erkatzen da; izan ere, oso zabaldua dago herritarren artean kukuak ahalik eta ahalegin gutxiena egiten duela bere kumeak aurrera ateratzeko; beste txori batzuen habietan errun eta horiek berotzen dituzte arrautzak eurenak ez direla ohartzeke; alfer askoa da kukua. Hortaz, hain lan gutxi eginda, ez du inondik ere izerdirik egiten; ez du kolpe zorrik jotzen. Kontuak kontu, euri xehe hau kukuek egiten

duten izerdiaren antzekoa da hiztunen adimen-begiaren arabera. Oso termino antropologiko eta motibatua dugu *kukuixerdi*.

Narria hitza Nafarroako Zaraitzu haranean erabiltzen bide zen euri xehea aitzera emateko (Iribarren, 1952). Ez da beste inon ere aurkitu. Beste testuinguru batean lera berbaren sinonimo izan daiteke. Badirudi gaztelaniara ere pasatu dela:

Izeta BHizt ; Iz ArOñ (lurkateia), To (lega), Ulz; Elexp Berg . **Narria**, trineo. “Viniendo parte del camino en carros y parte en leras (que es en que se portean las cosas en Guipúzcoa y Vizcaya por no poder andar carros por la aspereza y fragosidad de la tierra) (1648)” Historia de Aránzazu atribuida al P. Fr. Gaspar de Gamarra. “Traîneau” VocBN . “**Narria**, carro rústico sin ruedas” A. “Liak, n. plur., le traîneau sans roue, pour descendre du fourrage sur les pentes” Lrq”. (OEH)

Del vasco narria, cajón o escalera de carro, a propósito para llevar arrastrando cosas de gran peso. (DRAE)

Azaldutako zikinkeria kontzeptuari loturiko beste berba bat *zamar* da: “2. Llovizna, lluvia menuda” (DVEF). Azkuek ez du ematen aditzera non den jaso. Hala ere, lehenengo adieran, *zirinen* baliokidetzat hartzen du: 1. “(V-ger), excremento de ave”. Antza denez, Euskal Herriko zenbait hiztunen adimen-begiak ez du batere gogoko euri mota hau, eta txorien zirinarekin alderatzen dute, hain da higuigarria.

Azkenik, Zuberoa ondoko Eskiula Bearnoko herrian, euri xeheari irizteko, *lantzer* eleaz gain, *zintzurdina* hitz ederra baliatzen dute hiztunek (EHHA). Lehenengo begiratu irudi lezake *zintz* + *urdin* berbez osatua dela edo *zintzur*+*din*. Nolanahi ere, ez da erraz jakiten adimen-begiak nola osatu duen hitz-elkarketa hori.

Euri +	Laino +	Lanbro +	Bestelakoak
Eulauso (Euri) landur Euri-lanpartxo Euri memel	Laino-ihintz (Lano intze, Laño intze)	Lanbro-zirin (Lanbro ziiñ) Lanbroska	Atun-adur Landarra Landur(a)
69. taula. Euria. Kalitatea: euri xehe-xehea			

69. taula honetan euri xehe-xehari dagozkion termino guztiak bildu dira. Aipatu bezala, hiztun ugari ez dituzten bereizten euri xehe eta euri xehe-xehearen artean; gainera, taula honetako berbak bietarako erabiltzen dira batzuetan. Gauzak horrela, lau azpi-kategoriatan silkatu daude: hitz-elkarketak, *euri* lehenengo osagaia dela; hitz-elkarketak, *laino* lehenengo osagaia dela; hitz-elkarketak, *lanbro* lehenengo osagaia dela; hitz-elkarketak, *laino* lehenengo osagaia dela eta bestelakoak. Azter ditzagun berba guztiak.

Lehenengoak direla-eta, gorago aztertu denaren arabera, *eulauso* Gipuzkoako Oñati herrian erabiltzen dute hiztunek (Izagirre, 1959). Dirudenez *euri* + *lauso*-tik dator; izan ere, euri mota hau, sarritan hain da txikia, nekez ikus daitekeela uste du adimen-begiak. Oñatin ere

landarra baliatzen dute hiztunek: “Llovizna menor que *lanbrúa*” (Izagirre, 1959). Herri emankor berean, aztertu bezala, beste bi termino jaso ziren euri xehe-xehea izendatzeko: *lanbro-zirin* (*lanbro ziiñ*) eta *lanbroska* (Izagirre, 1959). Esan gabe doa, adibideak ikusita, adimen-begia oso joria da Oñati aldean. Bestalde, aztertu bezala, herrialde bereko Urrutxun, *landarra* euri xehea da (*EHHA*). Ildo beretik, *euri landur* ere aztertu da, euri xehea ere esan nahi baitu. Kasu honetan, elkarketa Bizkaiko Gernika eta Mundaka herrietan bildurik dago: “luvia menudísima” (*DVEF*). *Euri lanpar* Bizkai aldeko zenbait herritan baliatzen dute euri xeheri irizteko. Hitz-elkarketa horrek, *-txo* txikigarria erantsita, euri-xehe-xehea izendatzeko balio du (Mokoroa, 1990). Txikigarriak erabiltzea oso baliabide arrunta izan ohi da adimen-begiarentzat. Bestalde, *euri memela* hitz-elkarketaren berri ere eman da, iturri berean bi esanahi ditu eta: Añibarro idazlearentzat “oso euri xehea” da (“insignificante”, *euri memel*), baina beste toki batean “llovizna” azaltzen da (*DVEF*). Gogora dezagun, *memel(o)*, batez ere Bizkai aldean “ergela, tentela edo adimen txikikoa” dela (Harluxet). Ezagun da Bizkai aldeko hainbat hiztunek horrelakoxetzat jotzen dutela euri mota hau.

Laino elearen inguruan hitz-elkarketa bakarra dago: *laino-ihintz*. Bi aldaera ditu; bata, *lano intze* eta bestea, *laño intze* (“llovizna muy fina”), biak Nafarroako Baztan haranean erabiltzen direnak (Izeta, 1996). Beste iturri baten arabera, haran berean, *lanointz* euri xehea (“luvia menuda”) da (*DVEF*). Garbi dago zenbaitetan oso zaila dela zein motatako euria den erabakitzea. Adimen-begiak oso euri txikia hautematen du, baina informatzaile edo elebiltzaileak ez dira bat etortzen, gaitza baita pertzepzio beretsua izatea.

Amaitzeko, *atun-adur* berba-elkarketa bitxia dugu, Bizkaiko Lekeitio herrian bildutakoa: “Luvia muy menuda” (*DVEF*). Oso metafora bihurria sortu du adimen-begiak; izan ere, behin arrantzaturik, ontziaren gainaldean, euri mota hau atun edo hegaluzeari darion adurrarekin erkatzen da; adur likits eta zikina. Arrain baten likiskeria sumatzen du adimen-begiak, Lekeitio euria xehe-xehe egiten duen aldioro.

Alarguntsa	Animaliak	Arropa zarpaila	Garapa	
Euri alarguntsa (Urilarguntza)	Aixaixak bustitzeko euria Atun-adur Kuku-izerdi (kukuixerdi)	Euri + xirpil zirlintza zirtziri(ka) zirtzira zir(t)zil	Garapa	
Huskeria /Txikikeria		Ihintza	Lainoa eta lanbroa	
(Atun adur) Euri alarguntsa Euri garrotxu Euri kiza, kizi Eurilantx Euri mehe Euri memel Euri pizar Euri txiki	Euri xehe Eurixka Garapa Mirrizka Hanka Hanka mehe (Ankame) Euri-hanka mehe (Ebiankame, Euri ankame)	Euri-ihintza (Ebi intza, Ebintza, Eudi intxa, Euri intz, Uriintx) Euri inontz (iñutz) Iparrintz (Ipharrintz) Laino-ihintz (Lano intze, Laño intze)	Lainatza Laino Lainotzar Laintx, lantxe Lanbar, langar, lankar, lanpar, lantar, lantsar Lanbrasta Lanbri(xe), lanbro	Lanbrots Lanbrotxa Lanbroxka Lanbrus Lanbur, landur Langar Lanprix Lantxurda, Lantxurdina Lantzar Lantxurda Lantzurga
Maileguak	Onomatopeiak	Santuak	Txikigarriak	
Bruma Gurmeka	Txarraka Xirixira Xirrista / zirrista zirimiri zirizirra	Santiago-Santa Anetako Euri-ase (Santio-Santa Anetako Eulazi)	Eurixka (Eudixka) Urixka) Euri (Auri) garrotxu Garazta (garasta)	
Xehetasuna	Zikinkeria	Zintzarra / Txintzarra	Ziria	
Euri (Ebi) xehe (Ebixe, Eurisei Uri xe Uri xehe)	Euli-pixa (uli pixa) Euri txar Euri uger Euri-zarama (sarama) Euri zirin (Auri sirin) Jito euri (Ijito- euri) Laino uger (lañuger) Zamar Zirin	Euri zintzar (Eudi txintzar) Zintzar euri	Euri ziri Euri zirimiri (Auri sirimiri) Xirimiri Xirrimirri Zirimiri	
70. taula. Euria. Kalitatea: euri xehe eta xehe-xehea /adimen-begiaren iruditeria eta irudiak				

70. taula honetan sailkatu dira euri xeheari eta euri xehe-xeheari buruzko hitz guztiak osagaien, adimen-begiaren eta eraturiko irudien arabera. Honako hauek guztiak dira: alarguntsa, animaliak, arropa zarpaila, garapa, hanka, huskeria eta txikikeria, ihintza, lainoa eta lanbroa, maileguak, onomatopeiak, santuak, txikigarriak, xehetasuna, zikinkeria, zintzarra (txintzarra) eta ziria.

Lehen adierazi denaren arabera, *euri* berba izan da nagusi, baina iruditeriari erreparatzen bazaio, gauzak desberdin samarrak bide dira; izan ere, *lainoa* eta *lanbroa* bazter utzita, huskeria

/ txikikeria eta zikinkeria nabarmentzen dira. Zikinkeria kontzeptua erabili da, inor mintzeko ezelango asmorik gabe, tasun komunak dauzkaten berbak multzo berean sailkatze aldera. Ikus daitekeenez, orotariko baliabideak erabiltzen ditu adimen-begiak, elkarren artean oso bestelakoak direnak. Euskal hiztunak hurbilen edo bere inguruko gauza, objektu eta animaliei erreparatuz sortu izan du hainbat ele, lexikoan igarri dituen hutsuneak betetzeko asmotan. Antza denez, lehenengo baliabideetariko bat hitz-elkarketak eratzea izan da, jadanik ezagun askoak eta maiz baliatzen zituen hitzak elkartuz. Horrela, *huri*-, *laino*- eta *lanbro*- edo alderantziz, -*huri*, -*laino* eta -*lanbro* berbak biziki arruntak izan dira euri xehe eta xehe-xeheari irizteko. Ezin jakin daiteke, ordea, zein izan daitekeen ondorengo jardunbidea, baina, baliteke, aipatu bezala, inguruko objektuak aintzakotzat hartzea, irudi ederren bidez lexiko berria eratzeko. Gauzak horrela, animaliak, arropa zarpaila, garapa, hanka, santuak, zintzarra eta ziria objektu zehatzak dira, euriarekin alderatzen direnak; gainerakoak, berriz, alarguntsa, huskeria eta txikikeria, onomatopeiak, xehetasuna eta zikinkeria kontzeptu abstraktuak dira, berez, beste abstrakzio-maila eskatzen dutenak. Bestalde, txikigarriak euskararen gramatika-baliabideetariko bat erabiltzea da. Horren guztiaren odorioz, baiezta daiteke euri xehe eta euri xeheren mundu sinbolikoa oso oparoa dela. Izan ere, azpimarragarria da euskarak azeri (*aixaixak*) eta kuku animaliez baliatzea euri mota hauek izendatzeko. Garbi asko dago hizkuntzek kulturarekin daukaten lotura hertsia, ez baita lexikoaren sormena mugatzen gramatika hutsaren arlori, bada sarri baino sarriago kontu antropologikoa ere bada; adimen-begiaren ariera ez da nolana hertsia; badu kulturari uztartuko barneko logika bat. Horregatik, berriz ere nabarmendu behar da hiztun-komunitate baten arima eta “ideologia” islatzen dela lexikoaren sormenean; ideologia linguistiko kontzeptual eta kulturala. Adimen-begia egiazkotasunaren giza esperientzia eta bizikizun oro antolatzen saiatzen da; hortaz, errealitatearen eta gizakiaren arteko elkarrekintza adierazi eta irudikatzen da lexikoan, eta, ezinbestez, hitzak aipatuz gero, elkarrekintza hori eratu eta interpretatzen da. Esan liteke adimen-begiak unibertso magikoa sorrarazten duela irudimen sinbolikoaren bitartez. Bestela, ezin uler liteke *aixaixak bustitzeko euria* eta *kukuizerdi* esapideak. Testuinguru kultural zehatz bateko hiztunek baizik ez lituzkete ulertuko horretarikoak. Ondorioz, hizkuntzaren eta kulturaren arteko lotura hertsia-hertsia ukazina da.

4.5.2.4. Jarduera

Nola egiten duen euria (gogotik)			
Adarka Adarrez Antxoa adurra Ase barik Asto Karrerak Auri Etxala (Euri Etxa Ahala) Barra-barra Bota ahalean Botalako Danba-danba Egin ahalean Erautsiaka Etxabotaka Eurria goian behean	Euria zaldiz ari Euriak euriari (Uriak uriari) Galanki Garratz Gogotik Goiak eta beheak hautsi beharrean Goian beian Ibaika Idolaz Jasa itsua ari Jausi ahalean Jautsi ahala Jazarrika Jeutsahala	Lainoak lehertu beharrean Letro / Etro Lodi Lurrak hartu ahala Pesiaka Purrustaka Samur Sarkaran Suilez Tzar-tzar Tzurripitaka Zerua hustu beharrean Zeruak bota ahala Zeruak bota ahalean Zurripitaka Zurrustaka	
Nola egiten duen euria	Euriak norbera busti	Jarduera motak (ikus 75. taula)	
Bizi-bizi Gozaro-gozaro Xehe-xehe (Xi-xi) Zarra-zarra Zurripitan	Blai eginda Briyeldute Euriz murgilduta Hondatuta Lurmen Mela-mela Talatruk Tximu eginda Txipetu	Arriskua egon Atertu Bazterrak asetzeko adina Behar bezala euria izan Busti Desagertu Eragotzi Erasan Erauntsia Esker oneko euria Etengabekoa Euri antz egon Euri jasa izan Euri xehea izan Eurria / Elurra izan Eurria egin nahi	Euria gogor hasi / egin Eurria hasi / egin Eurria nekez Euriagatik geratu Euritarako joera Eurite luzea izan Euritea hasi Euritea luzatu Gorde Hotzak euria eragotzi Lehertu Lurra bigundu Ugaldu Urak Hartu Ustekabeen harrapatu Zaparrada bota
71. taula. Eurria: Jarduera			

Laugarren nozioa jarduera dugu. Azaldu denaren ildotik, nozio honen barruan lau kategoria jorratu dira: “Nola egiten duen euria (gogotik)”, “Nola egiten duen euria”, “Euriak norbera bustitzea” eta “Berezko jarduerak”, 75. taulan aztertuta. Lehenengo eta bigarren kategoriak elkarrekin adimen-begiaren eta iruditeriaren arabera aztertuko dira 71. taulan.

<p>Onomatopeiak Barra-barra Danba-danba Purrustaka Tzar-tzar Tzurripitaka Xehe-xehe (Xi-xi) Zarra-zarra Zurripika Zurrustaka</p> <p>Adarra Adarka Adarrez</p> <p>Ahalsuna Auri Etxala (Euri Etxa Ahala) Bota ahalako (Botalako) Bota ahalean Egin ahalean Etxabotaka</p>	<p>Euria goian behean Goiak eta beheak hautsi beharrean Goian behean (beian) Jausi ahalean Jautsi ahala Jeutsahala Lainoak lehertu beharrean Lurrak hartu ahala Zerua hustu beharrean Zeruak bota ahala Zeruak bota ahalean</p> <p>Animaliak Antxoia adurra Asto Karrerak Euria zaldiz ari</p> <p>Ariera lodia Bizi-bizi Galanki</p>	<p>Garratz Gogotik Gozaro-gozaro Ibaika Idolaz Jasa itsua ari Jazarrika Letro / Etro Lodi Pesiaka Samur Sarkaran</p> <p>Etengabetasuna Ase barik Erautsiaka Euriak euriari (Uriak uriari)</p> <p>Objektuak Suilez</p>
<p>72. taula. Eurria. Jarduera: Nola egiten duen eurria (gogotik) eta Nola egiten duen eurria, adimen-begiaren iruditeria eta irudiak</p>		

Lehenengo eta bigarren kategoriei dagokienez, erraz pentsatzekoa denez gero, *nola* ari duen eurria adierazten denean, euskal hiztunaren adimen-begiak gehientsuenetan kopuru handiari lotu ohi dio. Termino gehienak Euskal Herrian barrena, han-hemenka, bilduak badira ere (Mokoroa, 1990), beste lexiko-iturri batzuk ere badira. Hiztunen adimen-begiak sumatzen dituen desderdintasunen araberrako sailkapena hauxe da: adarra, ahalsuna, animaliak, ariera lodia, etengabetasuna, objektuak eta onomatopeiak.

Azken hauek hizpide, adibidez, ez bide dira gauza bera, eurria *barra-barra*: “Ipar-mendebaldeko haizeak laino ugari ekarriko digu eta eurria *barra-barra* botako du” (Landa, 2003) edo *zarra-zarra* egitea: “Bigarren egunean, eurria *zarra-zarra* jausi arren...” (Mokoroa, 1990). Ziur asko bi lokuzio onomatopeikoez baliatzen diren euskalkietan hiztunek guk nekez atzeman ditzakegun azpi-kontzeptuak darabiltzate buruan: ugaritasuna eta etengabetasuna. Ohi bezala, lexikoa sortzeko baliabideetariko bat *onomatopeiak* dira. Aipatutakoez gain, sail honetan ere agertzen zaizkigu: *danba-danba*, *purrustaka*, *tzar-tzar*, *tzurripitaka*, *xi-xi*, *zurripika*, *zurrustaka*... *Purrustaka* jatorriz haserrea adierazteko erabiltzen da, eta hortik ematen du euriari ere egokitzea beronen nolabaiteko sumina agertzeko. Gizpuzkoako Andoain herrian jasotakoa da (*DVEF*). Gainerakoan artean, azpimarratzeko da Gizpuzkoako Aian herrian bildutako *tzar-tzar* eta *xi-xi* onomatopeiak. Lehenengoa “copiosamente” bide da eta bigarrena “menuda” (Mokoroa, 1990); beraz, *tzar-tzar* hitzak, handigarria izateaz gain, “ugaritasun” kontzeptua darama berekin eurria egiten duenean, eta *xi-xi* berbak txikitasuna.

Azken hau baliteke *xehe-xehetik* etortzea, hurbiltasun fonetikoa ikusita. Dena dela, Aian, azaldu bezala, euri txikia erabiltzen dute euri xeheari irizteko (*EHHA*). Eskuratutako beste onomatopeien artean, *danba-danba* aipatzekoa da (Mokoroa, 1990). Jakina denez, *danba* hitza hauxe da: “danba onomat. Kolpe gogor baten edo tiro baten onomatopeia” (*EH*). Hortaz, euria gogotik egiten duenean, indarraren indarrez *danba-danba* ere ari du, biziki zaratatsua da eta.

Adarrari dagokionez, *adar* hitza lexiko etnometeorologikoan zabaldu samarturik dagoela azaldu behar da. Interesgarria da oso *adar* hitzaren beraren hedadura semantikoa, hau da, nola euskal hiztunaren adimen-begiak mendeak joan, mendeak etorri hedatu duen *adarraren* irudia bestelako beharrizan lexikoetara. Tesi honetan eremu askotako terminoak daude. Ostadarra bera adierazteko hauxe: *auriadar* (goi-nafarrera / N-Aezkoa: *DVEF*); *itxasoadar* (N-Bera: Barandiaran. 1983b); *zibiadar* (N-Erronkari: Estornes, 1997); *zubiadar* (N-Uztarroze: *DVEF*). Ekaitza edo erauntsia adierazteko: *adar* (L-Bardoze: Duvoisin, *DRALV*); *adarraire* (L-Bardoze: *EHHA*); *adarraira* (behe-nafarrera: Lhande 1926 / *OEH*). Laino eta hodeiekin batera, trumoia: *trumoi-adar* (gipuzkera: Mokoroa, 1991). Erauntsi baten adarra, hau da, goitik behera ikusten den euri-zutabea: *erauntsi-adar* (behe-nafarrera / zuberera: *DVEF*). Kategoria honetan interesatzen zaigun aditz-lokuzioa, euria bota ahalean egin: *euria adarrez etorri* (gipuzkera: Mokoroa, 1991). Han-hemenka txingorra botatzen duen hodeia: *harri-adar* (N-Erronkari / Zaraitzu: *DVEF*). Euriz beterik datorren hodeia: *adar gaizto* (gipuzkera: Mokoroa, 1991). Hodeitxo: *odoi-adar* (*DVEF*).

Ahaltasuna adierazten duten lokuzioen artean, aipatzekoa da *ahala*, *ahalean* eta *beharrean* aditzondoan erabilera; oso arruntak dira euskalki guztietan. Aipatzekotan, *goiak eta beheak hautsi beharrean*, Eusebio Erkiaga idazleak erabilia (*DRALV*). Beste bat izan liteke Anjel Lertxundik aipatutakoa EtnoMet blogean (Dieguez, 2005):

«Beharrean» ere zuk diozun «ahalean» horren oso antzekoa da: «lainoak lehertu beharrean», zerua hustu beharrean...«Euria goi ta behe» ere espresioa bitxia iruditzen zait, eta Eusebio Erkiagak badu esaldi polita bata eta bestea uztartuz —beharrean eta goi ta behe—«Batetik bestera» liburuan: «Goiak eta beheak hautsi beharrean hasi zen (euria)». (Lertxundi-EtnoMet)

Animaliak erabiltzea dela-eta, antxoa, astoa eta zaldia jasota daude. Antxoa hizpide, *antxoa-adurra* hitz elkarketa bildu da³¹. Zoritxarrez, ez dago beste erreferentziarik. Hala eta guztiz ere, arrantzaleak antxoatan ibili, eta arrainontzira antxoa ugari biltzen dutenean, adur asko isurtzen da ontziaren gainaldean, atunekin gertatzen denaren antzera. Hori dela-eta, horrelako erkaketa ederra egiten du adimen-begiak: *antxoen adurra* eta *euria gogotik*. Horretaz gain, antxoadun beste atsotitz bat ere baturik dago: “Uri lantxe (mehea, goxoa) apirillean,

³¹ <https://intza.armiarma.eus>

antxo bitsa molla gañean” (Garate, 1998). Kasu honetan euri mehe eta goxoa – hemen, xehea– antxoaren bitsa bezalakoa da moilaren gainean. Jakiteko non ote dagoen atsotitz hori bilduta, datu-basean arakatu eta *lantxe* edo *laintx* berba Ondarroan erabiltzen direla aurkitu dut; adibidez, aipatutako *euri-laintx / lantxe* euri xeheari irizteko (Barrutia, 2000). Bestalde, *asto karrerak* esapidea erabiltzen da Bizkaiko Urduliz herrian:

Urdulizen entzuna dut zaharrenek "llover a cantaros" horri *asto karrerak* esaten diotela-ziotela. Noski, dagoeneko ez dira egiten egun, garai batean herri gehienetan egin ohi ziren asto lasterketak, astorik ez dago-eta ia-ia. Baina pentsatzen jarrita, asto karreretan entzungo zen zaratagatik izango zen agian hainbeste apatx arrapaladan, zarata antzekoa izango zen? (Jabi Zabala, 2005-11-17)

Beraz, astoek karreretan ateratako astrapalarekin alderatzen du adimen-begiak euria erruz egiten duenean, aipaturiko *danba-danba* aditzondoarekin gertatzen denaren antzera. Berrikuntza azpimarragarria da, adimen-begia ia adimen-belarri bihurtzen baita; aintzat hartzen du zarata, eta ez nola ikusten den; metafora onomatopeikoa dela esan liteke. Amaitzeko, *euria zaldiz ari* (*uria zaldiz ari*) aditz-lokuzioa dugu, Lapurdiko Makea eta Uztaritz herrietan jasoa (EHHA). Hau ere zaldiek lauhazkan sortzen duten zalapartaren eta euria gogotik egiten duenaren arteko alderaketa izan liteke. Gainera, zaldia hitza erabiltzea ez da arrotza euriaren eremuan. Gogora dezagun, adibidez, Gipuzkoako Oñatiko *zaldizko* berba (Izagirre, 1959), urruneko euri-zutabeak izendatzeko edo Bizkaiko Kortezubiko hitz bera (*saldisko*), euri-zaparrada laburra haizearekin adierazteko (EHHA). Herrialde bereko Bakio herrian *zaldi gainekoak* (*saldi ganekoak*) “euria dakartean hodeiak dira” (Gaminde, 1999).

Euriaren ariera lodia aditzera ematen dutenen artean, ikerlanerako garrantzitsutzat jotzen diren esapide batzuk baino ez dira azalduko. Hasteko, euria *garratz* izan Gipuzkoako Oñati herrian bildua da (Izagirre, 1959); bizkaieraz ere erabiltzen da, antza (Mokoroa, 1990). Interesgarritzat jotzen da adimen-begiaren ikuspegia, zeren, gehienetan, *garratz* izenondoa beste esanahi batzuekin erabiltzen baita:

garratz adj. Ahoan halako laztasuna edo mintasuna sentiarazten duena Limoia baino garratzagoa. Ozpina bezain garratza. Sagar heldugabeak. Abstraktuez edo pertsonen mintzatuz Hitz gogor eta garratzak. Atsekabe **garratz** saminak. Istilu garratzak sortu dira. Marinelaren ogibide garratza. Penitentzia garratzak egin. Juje **garratz** bezain zuzena. Iparraldeko jende **garratz** haiek. (EH)

Beste alde batetik, aipatzekoa da *ibaika* lokuzioa erabiltzea ugaritasuna adierazteko (Mokoroa, 1990). Gaztelaniaz, adibidez, *a mares* erabiltzen da; *itsasoka* edo kidekorik ez da aurkitu; hortaz, euskal hiztunaren adimenaren begiaren arabera, badirudi *ibaia* euri gogotik egitearekin lot daitekeela; euriari dagokionez, ugaritasun kontzeptua ibaiari atxikita dago eta ez; beraz, itsasoari. Beste hitz bat aipatutako *idolaz* da; Gipuzkoako Oñati herrian bildua da:

IDOLAZ. *Ídolas* botaten dau: llueve fuerte; ídolas da edurra, euríxa: fuerte" Iz ArOñ (cf. nota: “**Idolaz** significa mucho (Arricruz). Pero sólo se emplea hablando de la lluvia (Ladislaio). Claudio de Beillotsaa dice que ídolia es golpe de agua o de cualquier otra cosa. La hija (Juana) sólo parece conocer

la forma adverbial **idolaz** que indica una lluvia recia, en forma de golpes de agua. Lo mismo me han dicho otros del barrio”. “Idolas, asko, gogor, normalean euriari buruz esaten da”. (Izagirre, 1959)

Gaur egun, *idola*, -z gabe, Oñatitik hurbil dagoen Zegama herrian baliatzen dute “uholdea” esateko. Halanda ze, zantzu guztien arabera, berba hau uraren ugaritasunari lotuta dago adimen-begiaren arabera. Ildo beretik *letro* / *Etro* bikotea dugu; goi-nafarreraz erabiltzen bide dira: *letro*, Larraunen: “*Letro* ari du. Euria jasa jasaren ondotik ari du”; *etro*, Ultzama haranean: “*Etro* ari du, llueve torrencialmente”³². Itxura denez, mailegua da; agian, latinetik etor liteke. Euri xehea aztertu denean, *euri mehea* elkarketa aipatu da (Landa, 2004). Kontrako terminoa ere erabiltzen da: *lodi*. Gipuzkoako Tolosan bildutako hitza dugu: “Ebia *lodi* egin du goizean” (Mokoroa, 1990). Adimen-begia *mehe* / *lodi* dikotomiaz baliatzen da, urritasuna eta ugaritasuna kontrajartzeko. Aurretik sarri aipatu izan da. 73. taula honetan argi ikusten da erabilera zenbait eremutan:

Mehe	Lodi
Euri mehe / eñri mehe	(Laino) lodia
Elur mehe (edurme)	(Hodeiak) loditu
Haize mehe	Elur-jasa lodi ari
(Haizea) gozo mehe etorri	Euria lodi hasi / egin
(Eguraldia) mehetu	Eguraldia lodi
73. taula. Euria. Jarduera: mehe / lodi	

Bestalde, *samur* ere aipatzekoa da. Hauxe esan zidan behin berriemaile batek, euria bota ahalean adierazteko: “euria *samur* egiten dau esan daroagu guk” (Pedro Mari Etxezarraga). Itxura denez, adimen-begiak erabilera ironikoa egiten du lokuzio honetan, kontrakoa esan nahi baitu; izan ere, Euskal Herriko mendebaldean, *samur* hitza honela erabiltzen da:

Gogortasunik ez duena. Jesu Kristok berak dio bere uztarria **samur**, bigun edo eraman erraza dela. Gauza abstraktuez mintzatuz Hitz *samurrak*. Irribarre *samurra*. Eztia zerien solas **samur** batzuk. Begiratu **samur** batez. Jainkoaren alderako amodio **samur** bat. Maitasun *samurra*. (EH)

Amaitzeko, *sarkaran* elea ere nabarmentzekoa da: “Euria *sarkaran* ari da (para expresar que la lluvia no resbala superficialmente)” (*DRALV*). Hasierako *sar-* osagaiak sartu aditzarekin zerikusia daukala ematen du eta *-kara* atzikia ekialdean antzekotasun kontzeptua adierazteko baliatzen da; adibidez, lumakar, beirakara, arrosakara...; beraz, “euri sarkorra” esan nahi du, hau da, sartu nahi duela.

³² <https://intza.armiarma.eus>

Etengabetasun kontzeptuaz bezainbatean, jasotako hiru hitzek ez dute ezer berezirik adierazten: *ase barik*, Bizkai aldean erabiltzen da (Mokoroa, 1990); *erautsiaka*, Duvoisini hartutakoa da (OEH) eta *euria eurari* Harrietek erabiltzen du (OEH).

72. taularen azalpenari jarraituz, objektu baten erabilera aipatuko da: *suila*: “Isurkariak, ura batez ere, garraiatzeko zurezko ontzia, oinarria ahoa baino zabalagoa duena eta burdinazko uztaiak dituena” (EH). Gaztelaniaz “cántaro” da, eta ondotxo dakigunez *llover a cántaros* hitzun askok erabiltzen dute; beraz, *euria suilez ari* aditz-lokuzioan, itxuraz euskararen eta gaztelaniaren arteko kultur artekotasuna dago objektu bera erabiltzen baita, ugaritasuna aditzera emateko: “*Suilez ari dik*” (Pello Zubiria-EtnoMet); bide beretik hauxe esan ohi da: “Ene! atzoko euria ez zuan behintzat *suil* batean kabitzekoa” (Anjel Lertxundi-Etnomet). Halanda ze, *suila* ez da arrotza izaten euskararen lexiko etnometeorologikoan, nolabaiteko hedadura baitu. Lhanderen hiztegian begiratu eta hauxe dakar: “Suilaz hari du uria. Il pleut a seaux”; aurreraxeago: “Cf. lat. situla” (Lhande, 1926). Hortaz, antza denez, *suila* latinezko *sutilatik* dator: aspaldiko mailegua, alegia.

Euria norbera busti kategorian, oso ohikoak ez diren bi hitzen berri emango da: lehenengoa, *briyeldute* eta bigarrena, *talatruk*. *Briyeldute* Bizkaiko Mendata herrian bildutakoa da, “euri-zaparradak harrapatu ondoren busti-busti egitea”; adibidez, “Ori mutiltxue potxingora jeusitte dana *briyeldute* dau” (Mallea, 2002). OEHn ez dago hitz honen aztarnarik; hortaz, ez da erraz jakiten zelan idatzi behar litzatekeen aditza; agian, **brialdu*. Kideko beste berba bat ere jaso da herri berean; *briyura*: “Eguraldi hotzaren eraginez izaten den hozgiroa” (Mallea, 2002). Hortaz, bustitzen garenetan, izaten dugun sentrazio hotz eta umelak izan lezake zerikusirik hitzaren eraketan, adimen-begiaren arabera. Bigarren berba, *talatruk*, Nafarroako Erronkari haranean erabiltzen zen (Estornes, 1997); euskara batuan *talaturik* izango litzateke; izan ere, *talatu* aditza ere bada, bertan ere bildua (Estornes, 1997). Ziurrenik ez dauka kontu honekin zerikusirik baina *tala-tala* onomatopeia erabiltzen da Nafarroako Baztan haranean: “txakurrak ura edatean egiten duen hotsa”. Horrenbestez, ura dute komunean ele biek.

Jarduerei berei dagokienez –askotxo baitira–, behezagoko 74. taulan ez dira aditzak eta aditz-lokuzioak txertatu, kontzeptuak baizik. Hori dela-eta egokitzen jo da 75. taula ezartzea terminoak argiago ikustearren. 74. taulan ikusten denez, asko eta asko dira jarduerekin zerikusia duten kontzeptuak; guztira, 31. Ukaezina da euriaren inguruan kontzeptu ugari biltzen direla, Euskal Herrian, oro har, gehienetan gertatu ohi den fenomeno meteorologikoa da eta. Kontzeptuok garbiago atzemateko asmoz, 71. taulatik erauzi dira jarduera motak.

<p> Arriskua egon Atertu Bazterrak asetzeko adina Behar bezala euria izan Busti / Blaitu Desagertu Eragotzi Erasan Erauntsia Esker oneko euria Etengabekoa Euri antz egon Euri jasa izan Euri xehea izan Euria / Elurra izan Euria egin nahi </p>	<p> Euria hasi / egin Euria gogor hasi / egin Euria nekez Euriagatik geratu Euritarako joera Euritea hasi Eurite luzea izan Euritea luzatu Gorde Hotzak euria eragotzi Lehertu Lurra bigundu Ugaldu Urak Hartu Ustekabeen harrapatu Zaparrada bota </p>
<p>74. taula. Euria. Jarduera: jarduera motak</p>	

Jarduera mota horien azpian honako aditz eta aditz-lokuzio hauek daude:

<p>Arriskua egon Erasan behar Euri arriskua jarri Euria ekarri Euritan izan Euritara egon</p> <p>Atertu Argitzen ari Arindu Ateri, ateriztatu, atertu Atetzera egin Barazi</p>	<p>Hodei leinurua ageri (Odei leñhürü agei) Klartzen ari Zabaldu Zerua zaharra agertu, agertzen ari Zohartzen ari</p> <p>Bazterrak asetzeko adina Bazterrok asetzeko adina euri</p>	<p>Behar bezala euria izan Ganoraz egin Zintzo egin</p> <p>Busti / Blaitu Blai-blai egin Blaitu Busti-busti egin Euriz murgildu Iboildu Melau Mela-mela egin Mulitu</p>	<p>Pelatu Talatu Txipa egin Txipetu Oiloa/Txita bezala busti Txitxakatu (Txitxikatu, Txitxilkatu) Txopairatu (Txopatu) Urasetu Urioldu Xiralkatu</p>	<p>Desagertu Desagertu</p> <p>Eragotzi Euria jan</p> <p>Erasan Erasan</p>
<p>Erauntsia (ikus 78. taula) Erasoa alderatu Euria zaldiz (ari) Euriak euriari ari Idolaz bota Jaseko euri-jasa izan Jautsi ahala (ari) Jazarteka (ari) Uherraka (ari)</p>	<p>Esker oneko euria Grazia onean ari Jasa ederrean ari</p> <p>Etengabekoa Dariola egon</p> <p>Euri antz egon Antz egon Euriaren itxura hartu</p>	<p>Euria egiteko arret Euria egiteko gogoak eman Eurirako (ez) egon Euritara egon Itxurak hartu</p> <p>Euri xehea izan/ hasi Euri zipriztinak bota Euria ziri-ziri hasi</p>	<p>Euri-kumea hasi Gesala (Gexala) ari</p> <p>Euria / Elurra izan Eragon Eramaitu Eraso Erazarri Jazarri</p>	<p>Euria egin nahi Negarrari eman nahi</p> <p>Euria nekez Euria zaildua egon</p>
<p>Euri-jasa izan (L)etro ari Euri asko bota Euri ederrak bota Hori euriz ari Euri eta euri egon Euri zapartaka ari Euri adarrez etorri Euri truxalak hartu</p>	<p>Euria adarka izan Euria anitz ari Euria barra-barra bota Euria erruz ari Euria garratz izan Euria gogotik ari Euria goian behean ari Euri handia egin</p>	<p>(Euria) isolaka ari Euria purruzataka ari Euria sarda ari Euria sendo izan Euria suilez ari Euria zinez ari Euria zurrutan ari Euritan jausi</p>	<p>Euritza itzelak egin Euritzeak ari Ibaika ari Jasa bizia ekarri Mardul ari Pesiak ari Truxalak egin Uherraka ari</p>	<p>Euria gogor hasi / egin Euria gogor hasi Euria lodi hasi Hodeiak urtu</p>
<p>Euria hasi / egin Bota Busti Erasan Eraso Euri(a) egin Euria ari Euria larri-larri egon</p>	<p>Euria sartu Euria zaldiz ari Euriak ekin Euria erauntsi Euria hasi Euria izan Euriak eman Euriak eraso</p>	<p>Euriak ekin Euria(k) jardun Euriari egon Euriari eragon Euriari izan Euriari inotsi Euriboketa Euritan</p>	<p>Euritu Euriztatu Gogotik erori Hodeiak ura jario Jautsi ahala erori Negarrari eman Zerua euria jario</p>	<p>Euriagatik geratu Euriz egotea</p> <p>Euritarako joera Eurira egon Eurira joan Euritara jo Eguraldiak eurira eman</p>
<p>Euritea hasi Euriteak eman Euriteari eraso</p> <p>Eurite luzea izan Eurite luzea joan</p> <p>Euritea luzatu Bustitze handia joan</p>	<p>Gorde Aterbustatu Aterbutu</p> <p>Hotzak euria eragotzi Hotzak ateriari eutsi</p>	<p>Lehertu Lehertu</p> <p>Lurra bigundu Mordindu</p>	<p>Ugaldu Ugaldu</p> <p>Urak hartu Baldartu Bazterrak Aseta Egon Ur Egon Urak Azpian Hartu</p>	<p>Ustekabea harrapatu Euriak eman</p> <p>Zaparrada bota Ehais ahala ari Txurrubilaka euria ari Zurrupitak aritu</p>

75. taula. Euria. Jarduera: jarduerak

Lehenengo begiratuan erraz asko suma daitekeenez, ezin konta ahal aditz eta aditz-lokuzio dira bildutako 32 kontzeptuetarako. Batzuk, bakanak dira: desagertu, eragotzi, erasan, lehertu, lurra bigundu edo ugaldtu; beste batzuk, ordea, oparoak dira: euri-jasa izan edo euria hasi edo egin. Hitzunen adimen-begiak errealitatean azaltzen zaion ia edozein egoeratarako sortu du aditz edo aditz-lokuzioren bat. Jakina, gehiago izango dira 75. taulan ez daudenak, baina daudenak adierazgarri askoak dira. Zenbait aditz eta aditz-lokuzio besterik ez dira aztertuko; izan ere, gehientsuenak esanahi zuzenekoak dira; adibidez, *euria eman* (G-Oiartzun: Mokoroa, 1990); *bazterrak aseta egon* (G-Azkoitia: Mokoroa, 1990); *euria ekarri* (Labayru Hiztegia); *eurite luzea joan* (gipuzkera: Mokoroa, 1990); *huri zipriztinak bota* (Landa, 2003), eta abar. Bildutako asko eta asko Mokoroarenak dira, zeren, haren lana, *Repertorio de locuciones del habla popular vasca* baita (Mokoroa, 1990): euskararen esapide eta esamoldeak biltzen jardun, eta horixe izan zuen ikerlan bere bizialdian. Aipatzea merezi dutenen artean, ondokoak dira.

Hodei leinurua ageri (*Odei leñhürü agei*) aditz-lokuzio eder hau Zuberoako Altzürükü herrian bildutakoa da (*EHHA*). Berez, “atertu” esan nahi du, baina horretarako adimen-begiak bi izen eta aditz bat konbinatu ditu: “*hodei, leinuru* —Izpia Eguzkiaren leinuruak. Zerutiko leinuruez argiturik. Itxaropen **leinuru** bat errainu. Batez ere Zub. iz. Distira Goizetan eder du ekiak **leinuru**— eta *ageri*” (*EH*). Hortaz, badirudi, atertzen duenean, “hodeien artean leinuruak ageri direla”. Oso gertakizun poetikoa hautematen du adimen-begiak. Altzürükün ere *zeru zaharra agertu* aditz-lokuzioaz ere baliatzen dira (*EHHA*).

“Busti” eta “blaitu” adierazteko hainbat aditz eta aditz-lokuzio ditugu; adibidez, Nafarroako Erronkari haranean jasotakoak hauek dira: *mulitu, talatu, txitxakatu, txitxikatu, txitxilkatu, txopairatu, txopatu* eta *xirakaltu* (Estornes, 1997). Guztiok “blaitu” esan nahi dute, eta gehienak onomatopeikoak dira. Izan ere, ez da zaila irudikatzea nola adimen-begiak lotzen dituen blai egotea soinuren batekin. Kontzeptu bera aditzera emateko, animalei loturiko bat aurkitu da: *Oiloa/Txita bezala busti* (Elhuyar Hiztegia). Oiloak eta txitak kanpoaldean egon eta euria hasiz gero, ikusgarri bustitzen direnez gero, ziurrenik, hortik etorriko da adimen-begiak eraturiko aditz-lokuzio hori.

Euri xehea hasten duenerako, Gipuzkoako Getaria herrian bildutako *huri-kumea hasi* aditz-lokuzio adierazgarria dugu (Mokoroa, 1990). Adimen-begiaren arabera, euria ez dago oraindik helduta; *kumea* da: *Euri-kumea hasten du*. Azpimarratzekoa da nola animaliei aplikatzen zaien “kume” berbak gaintitzen duen eremu semantiko bat etnometeorologiarenara igarotzeko. Aise lerratzen bide dira berba eremu batetik bestera; adimen-begiak beharrezana atzeman eta horrax darama berba.

Jarduera bertsua aditzera emateko, *gesala (gexala) ari*, Gipuzkoako Tolosa herrian jasorikoa: “*Gexala* ari du... ebi maxkala” (Mokoroa, 1990). Gesala hauxe izaten da: “Itsas ura; ur hori lurruntzean gelditzen den gatz hondarra Itsas gesala” (EH). Hala ere, elurraren eremuan, gehienbat, “elurraren urtzea”-ri loturik daude adierak: *elur-gezal* (elur oso urtua, N-Arakil: DVEF); *gesal* (elur geruza mehea, N-Baztan / B-Arratia, Otxandio: DVEF); *gesaldu* (elurra urtu, Behe-Nafarrera: DVEF); *gesale* (urtutako elur-putzua: DVEF). Etimologia dela-eta, hauxe dakar OEHk: “Etim. Para su posible origen en un préstamo (lat. *aquae sal*), v. FHV 560. I”. Baliteke hortik abiatu adimen-begiak beste eremu batzuetara iragatea. Izan ere, urtzen den elurrak itsasoko uraren tankera hartu ohi du sarritan. Era berean, hasten duten euri-zipriztinek ere usu hartzen dute itsas gesalaren itxura.

Ildo beretik, beste metafora eder bat sorrarazi du adimen-begiak Bizkaiko Ibarrangeluko hiztunen artean; *negarrari eman*: “Asarratu yakun eguraldia ta *negarrari emon* eutson” (Mokoroa, 1990). Tankera berekoa goi-nafarreraz baliatzen dutenak: “Negarrari eman nahi zion denborak” (Mokoroa, 1990). Euria hasten duenean, zeruak *negar* egiten du edo euria dakarrenean, *negarrari* eman nahi dio. Ezin dira ahaztu beste eremu batzuetan aztertutako hitz-elkarketa hauek; adibidez, *kandela-negar*, izotz-burruntziari irizteko (B-Abadiño: Gaminde & Salterain, 1991) edo *lei-negar*, meteoro bera aditzera emateko, Bizkaiko Bakion (Gaminde, 1999). Adimen-begia isurkarien goitik beherakotasunaz baliatzen da, ez bairik gabe.

Azkenik, demagun euria etengabe jarduten duela zenbait egunean, eta lurra erabat biguntzen direla. Horretarako, Bizkaiko Arratia haranean jasoriko *mordindu* aditza dugu: “Euri-elurrak erortzen baitira zerutik geiago arc ez itzultzeko, eta lurra *mordintzen* eta erasaten baitute” (Orixe, *Isaias*, 55 *apud DVEF*). Aditz azpimarragarri hau dela-eta, hauxe dakar OEHk:

ABLANDARSE : v. r. : BERATU (C...), BIGUNDU (B, G...), GURITU (ÜUV.), ISTIKATU (BN), MARDOTÜ (S). Ablandarse la nieve, LANBERATU (B). Ablandarse las tierras, MORDINDU (B). Ablandarse el piso de un camino, ISTIKATU (BN). Ablandarse las frutas, UMELDU (B). ABLANDATIVO : adj. : BERAGA (Diccionario español y vasco. Cuaderno I. A-Agazapar. Garmendia y Viciola. Bilbo. 1916. 1-64 or. 1916). (OEH)

4.5.2.5. Denbora

<p>Euria etengabe Busti-sarri Bustitze luze Esetsi Eurika Hordi-zahagiak (ordi-zaragiak)</p> <p>Euri-eguna Eulegun</p> <p>Euri-giroa Euri-giro</p> <p>Euri-zaparrada Ikus 61. taula</p> <p>Zozomikoteak Zozomikoteak Ordizegunak</p>	<p>Garaia (Euria) Asete Busti Bustite (Bustitze) Eurialdi Eurite (Aurite, Ebite Ebrite, Urite) Eurite luze Euri-bolada Uhaste Uielte</p> <p>(Euri xehea) Uharaste, uharats</p> <p>Goizeko euria Goizeuri</p> <p>Euriaren ondoren Eulondoan (eulonduan)</p>	<p>Aterrunea Ahindura Argidü Ater(r)aldi Ater(r)arte Aterribitarte Aterrunea Ater(r)i (bestelakoak) Bekantzia Bitargi (-une) Euri-arteka (uri-arteka) Euritarte Garbiunada Kalmaldi Laino bitarte Ostargi Ostarte Xedarte Xeharte Zeru argi Zeru blu (zelü blü) Zeru zahar</p>
76. taula. Euria: Denbora		

Bosgarren nozioa denbora da. Begi-bistakoa denez, nozio honetan euria eta denbora uztartzen dituzten kontzeptu guztiak sartzen dira. Zalantzarik izan bada ere, honako kategorio hauek jorratzea komenigarritzat jotzen da: Euria etengabe, Euri-eguna, Euri-giroa, Euri-zaparrada, Aterrunea, Garaia, Goizeko euria, Euriaren ondoren eta Zozomikoteak. Euri-zaparradari dagokionez, aurretik azaldu da barnean bi noziok egiten dutela topo: kantitatea eta denbora. Beraz, biei atxikita badago ere, kantitatean baino ez da jorratu beraren berezitasuna (ikus 71. taula). Hemen aipaturik besterik ez da gertatuko.

Euri-zaparradaz gain, kontzepturik ugariena *aterrunea* da, hau da, euria ari duelarik atertzen dueneko unea. Alegia, *euria* / *ateria* kontrajarrian. Bertan *ater(i)*- hitzari loturiko elkarketa eta eratorpenak nagusi dira: *ate(r)raldi* (bizkaiera / gipuzkera / N-Baztan: *DVEF*), *ater(r)arte* (G-Oñati: Izagirre, 1959), *aterribitarte* (B-Zeanuri: *EHHA*), *aterrunea* (B-Meñaka: Gaminde, 2001c). Ziurrenik, hitz horien lehenengo osagaiak *at(e)*-rekin dauka zerikusirik, eta bigarrenak denbora adierazten duen osagaiaren batekin: *-aldi*, *-arte*, *bitarte*, *-une*. Adimen-begiak zenbait hitz-elkarketa doitzen ditu denbora kontzeptua aditzera ematen duten beste hitz edo atzizki batzuekin.

Horietaz gain, badira bestelakoak ere: adibidez, *ahindura*, Zuberoako Domintxaine-Berroeta herrian bildutakoa (*EHHA*). Baliteke *ahin* eleak *arinekin* lotura izatea; beraz, *arindura* izango litzateke, hau da, euria ari duela, une batez atertu duela. Herrialde berean, Z-Altzürükü eta Barkoxen *argidü* bilduta dago (*EHHA*). Adimen-begiak giroaren argitasunari lotzen du ele

hau. Zerrenda berean, *bekantzia* berba dugu: hapax bat izan liteke. Izan ere, Darricarrerek baizik ez du erabiltzen (*DRALV*).

Bitargi eta *Bitarte* hitz eta osagaiak zenbaitetan erabiltzen dira Bizkai aldean; adibidez, azaldutako *aterribitarte* (*EHHA*); *bitargi*, Orozkon (*DVEF*) eta Zollon (*EHHA*); *bitargi-une*, Arratia, Markina, Orozko eta Txorierrri aldean (*DVEF*); azkenik, *lainobitarte* (*lañobitxarte*), Korte Zubin (*EHHA*).

Euriaren inguruko bi ditugu: *euri-arteka* (*uri-arteka*) eta *euritarte*. Lehenengoa Eskualduna aldizkarian (*DRALV*) agertutako esaldi batean azaltzen da:

Ageri dena da, aro horrek handizki gibelatzen dauzkula lanak. Ogiak ezin arhatu dituzte gutiz gehienek, lurra hezeegi izanez. Baxenabarren eta Amikuzen ari dira han hemenka emaztekiak puska zonbeit bederen jorratu nahiz. Ikhusi ditut ari zirela atzo *uri-arteka*. (*DRALV*)

Garbi dago adimen-begiaren arabera *euri-arteka* dela bi eurialdiren artean gertatu ohi den aterrunea. Bigarrena, *euritarte*, Bizkaiko Ondarroa herrian bilduta dago (*EHHA*); kontzeptu bera adierazi nahi du: euria atertzea.

Gainerako elei dagokionez, *-arte* atzizkia beste izen batzuekin ere erabiltzen da; adibidez, *xedarte*, *xeharte* eta *ostarte*. Lehenengoa Nafarroa Behereko Baigorri herrian jasota dago (*EHHA*) eta bigarrena herrialde bereko Oztibarren (*DVEF*). Bestalde, *ostarte* berba gaur egun “zeruan agertzen diren garbiuneak gisa” ulertu arren, eskuratutako datuek adierazten digute aterruneari lotuago daudela. Gauzak horrela, Gipuzkoako Oñatin honetarako baliatzen dute: “Ratos de sol entre la lluvia” (Izagirre, 1959). Definizio horretaz gain, hau ere bada (*oztarte*): “Momentos de despejo y serenidad en día lluvioso o nublado” (B-Markina / G-Andoain, Oñati, Ordizia, Zegama: *DVEF*). Zalantzarik gabe, hitz eratorri honetan *ortzi+arte* osagaiak dira. Adimen-begiak, atertzen duenean, ortzian tarteak zabaltzen direla hautematen du. Denbora nozioa adierazten duten beste bi atzizki ere erabiltzen dira: *-aldi* eta *-une* (*-unada*). Bildutako berben artean, *kalmaldi* eta *garbiunada* ditugu. Lehenengoa Bizkaiko Lekeitio herrian erabiltzen da (*EHHA*); euria atertzen duenean, nolabaiteko “barealdi” edo “kalma” suertatzen da, antza. *Garbiunada* herrialde bereko Meñakan bildutakoa da (Gaminde, 2001c). Funtsean, *ostarte* elearen ildotik eraikitakoa da. *Ostargi* berban *ortzi* elementua ere bada; berriki jasotakoa da, Arabako Aramaio herrian (*EHHA*). Kasu honetan ortziaren argia nabarmentzen da. Ildo berekoa, *zeru argi* da, Nafarroa Behereko Baigorri herrian entzunda (*EHHA*); kontzeptu bera ematen du aditzera adimen-begiak. *Zeru* elea bera beste bi elkartetan bildutakoa da: *zeru blu* (*zelü blü*) eta *zeru zahar*. Eguraldiari loturiko datu askok zeruak kolorerik ez daukala ulertarazten badigute ere, seguru asko, ondoko erdaren eraginez sortu izan dira termino berriak, bere barnean *urdin*, *azul* edo *blu* koloreak dauzkatenak. *Zelü blü*

Zuberoako Pagola herrian baliatzen dute (EHHA). Azpimarratzekoa da erabilitako *blü* elea biarnesaren *blutik* datorrela ematen duela. Beste aldetik, *zeru zahar* elkarketa Iparraldeko zenbait hizkeratan erabiltzen da; adibidez, Lapurdiko Urketa herrian edo zeru zahar Nafarroa Behereko Arrutan (EHHA). Itxura denez, adimen-begiak uste du zerua edo ortzia hodeian artean agertzea “zeru zaharra” dela, betiko edo ohiko zerua, alegia.

Gainerako kontzeptuak direla-eta, euria etengabe egiten duenerako ondoko hauek batu dira: *busti-sarri* elkarketa, Gipuzkoako Azpeitia herrian bildutakoa (Mokoroa, 1990); *bustitze luze* herrialde bereko Lazkaon (Mokoroa, 1990). Biak egituraketa argikoak. *Esetsi* berba, Bizkaiko Lekeitio eta Zeanurin erabilia: “Insistencia (se dice de la lluvia continua)”;

“Onelako *esetsirik*” (DVEF). *Esetsik* beste bi adiera ere badauzka:

1 *du/dio* ad. Eraso. (*dio* ad. denean, *nor* osagarririk gabea da). *Ardiari esesten dion otsoa. Banaka batzuek gutxietsi eta are esetsi izan dute Etxepareren bertso lana. Esetsi zion berriro lotsak.*
2 *du/dio* ad. Ihesi doanari, atzemateko edo harrapatzeko, jarraitu. (*dio* ad. denean, *nor* osagarririk gabea da). Ik. **jazarri**; **pertsegitu**. *Lapurrei esetsi. Txakur batek esetsi zion.* **3** (Ihesi ez doanari). *Gaizkileei esesteko. Berri honekin hartu zuten Jesus esesteko gogo gehiago. Dioklezianok kristauei esetsi zien garaian. Hartzekodunak esesten zion.* (EH)

1 iz. Eraso. **2** iz. Esestea, atzemateko jarraitzea. Ik. **esetsaldi**; **jazarpen**; **pertsekuzio**. *Lapurren esetsia. Elizak jasan dituen esetsiak*” (EH).

Bigarren adiera izena izanda, hurbilago dago Azkuek ematen duen lehenengo esanahitik: eraso. Horretaz gain, *eurika* eta *hordi-zahagiak* (*ordi-zaragiak*) ere badira; lehenengoa Nafarroa Behereko Amikuze haranean baliatzen dute (DVEF). Adimen-begiak *-ka* atzizkiaren bidez jarraikortasuna adierazi nahi du. *Hordi-zahagiak* (*ordi-zaragiak*) hitz-elkarketa bitxia hemen jasota dago:

HORDI-ZAHAGI (Pl.). Lluvias prolongadas. “Lengoen esaera da: San Migelek botauko ditu bai *ordi-zaragiak*” Vill in And Auspoa 52-53, 46n. San Migeletan ziran / “ordi *zaragiak*” (euriteak, egun askoko euriak) / euri-jasa lodiak / neurririk gabiak. And Auspoa 52-53, 46. (OEH)

Adimen-begiak euriteak hordien zahagiekin erkatzen ditu, egun askoko euriak, euri-jasa lodiak, neurririk gabeak. Egun guztian euria etengabe jarduten duenerako *eulegun* hitz-elkarketa dugu, Oñatin bildutakoa (Izagirre, 1959). Zahar askoa da; izan ere, antzina joera zegoen *-ri-z* amaitutako hitzak *-l* bihurtzeko hitz-elkarketetan; adibidez, *afari* > *afal-*; *bazkari* > *bazkal-*; *gosari* > *gosal-*; *ugari* > *ugal-*. Goizeko euria baino ez bada, *goizeuri* terminoa dugu (DRALV). Horretaz gain, oso hitz-elkarketa garbia dago giro euritsua aditzera emateko: *eurigiroa* (Landa, 2004). Bestalde, euria izan eta behin atertuta, *eulondoan* (*eulonduan*) aditzondoa erabiltzen da Gipuzkoako Oñati herrian (Izagirre, 1959).

Euriak irauten duen bitartean, garaiari berari irizteko ondokoak ditugu: *asete*, Nafarroako Erronkari haranean erabiltzen zutena: “Temporada de lluvias excesiva” (Estornes, 1997). *Bustite*, Zuberoako Zalgize herrian baliatzen dutena (Larrasquet *apud DRALV*) eta

bustitze (Lhande, 1926); *eurialdi* (Labayru Hiztegia); *eurite* eta aldaerak: *eurite* orokorra da Euskal Herrian (*DVEF*); *aurite*, goi- nafarreraz (*DVEF*); *ebite* Zuberoako Atharratzen (Herria *apud DRALV*); *ebrite*, zubereraz (Lhande, 1926); *urite*, Nafarroako Baztan haranean eta Lapurdiko Ainhoa herrian: “Idorte deneko, nausia ur-eske; urite bada, gu urez ithoak, atheri-eske” (Duvoisin. Labor. 16-28 or. *apud DVEF*); *eurite luze*, Gipuzkoako Oñatin jaso (Izagirre, 1959); *huri-bolada* zalantzakoa da; kantitatea zein denbora nozioak eduki lizateke berekin: “Laster pasako da baina eguerdi aldera *huri bolada* izango da” (Landa, 2003); *uhaste* (*DRALV*), baina horrek ere “uholdea” ematen du aditzera (*DRALV*). Nafarroa Behereko Isturitze herrian *uharaste* erabiltzen dute eta Hazparden *uharats*, “Tiempo de llovizna que dura varios dias” adierazteko (*DVEF*). Azkenik, *uielte*, Bizkaiko Ispaster, Lekeitio, Markina eta Gipuzkoako Itziar herrietan bildua. Azken honek *uiolte*, *uholde* eta kideko terminoekin zerikusia dauka, gehienbat kantitate nozioari buruzkoak. Denbora nozioa adierazteko adimen-begia, oro har, *-te* eta *-aldi* atzizkiez baliatzen da. Bestela, izenak ere baliabideak dira: *bolada*, *uharats*...

Denbora nozioari amaiera emateko, azkenik, *Zozomikoteak* direla-eta, kontzeptu honek aparteko azterketa sakona merezi du. Edukiari dagokionez zenbait adierazpen badugu: Barandiaranek eskuraturiko elezahar eta *EHHAn* bildutako adierazpenen arabera, martxoko azken bi egun eta erdiak eta apirilaren lehenengo bi egun eta erdiak dira, oso euritsuak izaten ziren:

Artzaiak esan zuen harrokeriaz: «Martxo, Martxo diat esker gaizto, nere bildotsik eskaxenak hamar oiñian salto». Martxoak orduan: «Apirilla biribilla, hik emaikidak bi egun da erdi, nik emango dizkiat beste bi terdi; atera daiogun begia artzai gaizto honi». Orduan egualdi txarra hasi zen, trumoia, tximista eta elurra. Dena zuritu eta janik ez. Mendian ardiak galdu danak, janik ezak eta. Orduan artzaiak bizkarrean aharia hartu eta etxera zetorrela ahariak adarrakin jo eta begia atera”. (Barandiaran, 1972: 249)

Zabalak honako hau dio:

Harrituta utzi nau: *Zozomikote* kontu hau, nik geurea- geurea zela uste nuen, eta halaxe pentsatuko nuen gerora ere. Baina, ez, aizue! Badu tradizioz hemendik kanpora ere: *Dijo marzo al pastor: con tres días que me quedan y tres que me preste mi hermano abril, he de poner tus ovejas a parir*. Horrelaxe topatu dut Madrilgo INM, hots, *Meteorologia Institutu Nazionalak* urtero prestatzen duen Almanaka batean. Sobrante ere izanen ditu, zeren, bereak hiru eta apirilaren beste hiru nahi dituzte Gaztela aldetik. (Zabala, 2000: 129)

Aurreraxeago ondoko hau:

Zozomikoteak. (...) Orixek Euskaldunak poema sortan honela dio notatxo batean: “Zozo mikote, zozo-bikote: zozoak bikoka kabi-egiten asten diran garaia. Martxoaren azkeneko bi ta Apirilaren leneko bi egunak, Martxoak esan-omen Apirilari: Apiril, biribil, ekatzik egun bi. Ta Apirilak: Martxo Martxo: ematen diat esker gaizto. Nere ardirik aulenak egiten dik zazpi oin salto. Lenagoko urte batez eman egin omen zizkion, eta artaldea erreka ezin pasaz ito”. (*Idem*)

Zubiriak hauxe idatzi zuen:

Frantzian ere antzeko istorio bat bada; Malicorne musika taldeak bere disko bateko liburuxkan aipatzen zuen. Hartan martxoko azken hiru egunak eta apirilaren lehen hirurak ziren protagonista, eta agertzen zen animalia txoria zen: "...Eta txoriaren arrautzak habian jeltuko ditut" zen martxoak apirilari hiru egun eskatzen zizkionean esaten zuena" (Pello Zubiria: EtnoMet, 2005).

J. P. Chassanyk (Chassany, 1989) idatzitako *Dictionnaire de Meteorologie Populaire* izeneko ikerlanean honako honekin guztiarekin egin dut topo (itzulpenak neureak dira):

Frantziako Bas Vivarais eskualdean (Lozère departamendua) martxoaren 28tik apirilaren 3rako tartea eguraldi kaxkarra da nagusi: ae période du 28 Mars au 3 Avril est marquée par des maléfices du temps. Bertako oc hizkuntzan honako legenda hau dela-eta Los vacheïrious (behizainak) izendatzen: martxoaren 27 batean eguraldia ederra zen eta atso batek bere behi-taldearentzat zuen bazka guztia agortua zuela-eta, behiak sortu berria zen belardira atera ahal izatea pentsatzen zuen. Hilzorian zegoen hilabeteari (martxo) iseka eginez erronka bota omen zion".):

Mar enné tas eimolistchados
Obriéou enné tos obrivados
Eï soouve moun agnélado".

("Martxoak, hire eguraldi gaiztoa gorabehera, Apirila, hire « avrilados » gorabehera, neure jaio berria salbatu diat")

Martxoak adar jota apirilari esan zion:

Presto m'en très
Que ièou n'eï quatrè
Lo paouro vieillo
Foren battre".

("Utzikidazu hiru ze lau besterik ez daukat. Atso gizagaixoa, akabatu egingo dugu") (Chassany, 1989: 217)

28an, goizean eguraldi txakurra izan zen; atsoak ezin izan zuen txahal jaio berria atera, bazkarik gabe hil zena (Chassany, 1989: 217).

Aldaera:

Martxoak Apirilari hauxe esan zion :

Prête m'enn trois / Car je n'en ai que quatre / L a pauvre vieile nous fera battre. (Chassany, 1989: 217)

Auvergnen, martxoaren 27 batean, artzaintsa gazte batek oiuhu egin zuen pozarren eguzkia ederra ikustean egun txar batzuk pasaturik:

Martxoak eta beraren segi-taldea, haizea, euria eta elurra, gorabehera neure ahuntz eta antxume guztiak dauzkat. Martxoak erantzun zion: "Zu azkarregi pozten zara oraindik bizitzeko hiru egun baitauzkat! Neure apiril lagunari hiru egun eskatuko dizkiot eta zure behi-talde guztia hilgo da". Martxoak eutsi zion hitzari. (Chassany, 1989: 217)

Kortsikako herri-ipuin batek martxoari adarra jotzen zion artzaina azaltzen dumendekua hartzekotan, apirilari esan zion (Chassany, 1989: 218):

O Apri tu me fratedu
Impresta tre di li to di,
Par puni lu pasturedu
Ci ni vodu fa pinti.

("Oi apirila, ene anaia, hire egunetatik utzikidak hiru artzain txikia zigortzek, damu dakion nahi diat eta")

Vosgos eskualdean, maitagarri gaizto batek besterik ez zeukan martxoaren azken hiru egunen gaineko boterarik. Epe hori bere nahia asetzeko nahikoa ez zenez gero, apirilari hiru egun eskatu zizkion. Berau ez zen uko egitera ausartu. Orduan berak eskuak igurtziz esan zuen:

Avec les 3 que j'ai, et 3 que me prête Avril, je gèlerai la mère (ou le merle) sur son nid". (Chassany, 1989: 218). ("Neure hiru egunekin eta apirilak uzten dizkidan hiruekin, ama (edo ZOZOA) izoztuko dut haren habian")

Eta hortxe dago Zozomikoekiko lotura; izan ere "merle" frantsesez "zozoa" da; beraz, geure-geuretzat hartzen genuen elezahar hau, Frantzian aldean, behintzat, oso hedatuta egon da. Adimen-begiak egokitzapena egin du gure artean.

Urdiainen *Ordizegunak* hitz-elkarketa erabiltzen omen da; badakigu martxoaren 30ean "Artzai(n)-eguna" ospatzen dela; hortaz, artzainen eta Zozomikoteen arteko lotura begibistakoa da. Interneteko Universitat de Barcelonako atsotitz-webgune batean antzekoa aurkitu dut: "Le dijo Marzo al pastor: Con tres días que me quedan y otros tres que me preste Abril, te veré otra vez con pieles y los carneros en el cuadril"³³.

Beraz, edukia garbi samar badago ere, hau da, martxoaren azken egunak eta apirilaren lehenengoak, kaxkar samarrak eguraldiaren aldetik, adierazlearen aldetik zalantzak dira; izan ere, Orixeren azalpena bitxi samarra da. Bestalde, Zabalaren harridura ulergarria da, sarritan uste izaten da gure kulturaren gertakizun asko geure-geureak direla, eta beste kultura batzuetan badirela ohartzen garenean zer pentsatu ematen digu. Horrek nire teoria behin eta berriro sendotzen du: euskaldunen adimen-begia hautematen zuena, mendeak joan, mendeak etorri, beste kultura batzuen eraginez moldatuz joan da oraingo buru-iruditeria osatu arte: euskal hiztunon kultura-artekotasuna nabarmena da.

³³ <http://stel.ub.edu/paremio-rom/es/refranes>

4.5.2.6. Espazioa

Euri-aterpea	Hostoetako euria Garo	Euriaren jatorria	
Ateri Aterpe Atertu-leku Atherbü Babes Estalpe (estalpa) (Euri-) Aterbe (Euri-) Babes Euri-geriza (uri geriza) Euri-gorde Euri-malda (eüri malda) Euri oste Ezkupe Harpe Idor Kapena Lehor(pe) Lezoi	Lur gaineko euri-geruza Kaparra	Ipar-euria Ipar-euri	Oñatiko euria Hodeikoa (oreikua)
	Toki euritsua Zirtziratsu		
	Lur gaineko putzu euritsuak Bustiune (bustiuna) Potxingo Sokil (sokille)		
77. taula. Euria: Espazioa			

Azken nozio orokorra espazioa da. Bertan euriaren inguruko espazio-kutsua daukaten termino guztiak sartzen dira. Erdietsitako hitzen arabera, honako azpi-kategoria hauek adierazteari irizten zaio egoki: Euri-aterpea, Hostoetako euria, Lur gaineko euri-geruza, Lur gaineko putzu euritsuak eta Toki euritsua.

Lehendabiziko kategoriak —Euri-aterpeak— zenbait berba badauzka ere, gainerakoek bana baino ez daukate. Euri-aterpea ikerkizun, oro har, hitz-elkarketan eta eratorrien lehenengo osagaia *ater(i)* eta *euri* elei loturikoak dira nagusi; bigarren osagaia, oster, ohikoak izaten diren *-be*, *-pe*, *geriza*, *gorde*, eta *leku* atzizki eta hitzak: *ateri* (EH); *aterpe*, besteak beste, Bizkaiko Fika herrian erabilia (EHHA); *atertu-leku* Bizkaiko Leioan jaso (EHHA); *atherbü*, besteak beste, Zuberoako Altzai, Domintxaine-Berroeta, Larraine eta Urdiñarbe herrietan bildua; *babes*, Gipuzkoako Urretxun erabilia (EHHA); bertan ere *euri-babes* eta *euri-gorde* (EHHA); *estalpe*, Nafarroako Alkotz herrian entzuna; baina Bizkaiko Errigotin, *estalpa* (EHHA); *euri-aterbe*, Nafarroa Behereko Baigorri erabilia (EHHA); *euri-geriza* (*uri geriza*), Lapurdiko Ahetzen bildua (EHHA); *euri-malda* (*eüri malda*), Nafarroa Behereko Arruta herrian bildua (EHHA). *Malda* berbaren erabilera azpimarratzekoa da, zeren eskuarki “aldapa” adierazteko erabiltzen baita; *euri oste*, Bizkaiko Bolibar herrian bildua (EHHA). *Oste* berba gehienetan denbora eta espazio nozietan mugitzen da; hemen espazioari lotuta dago; *ezkupe*, Nafarroako Urdiain herrian erabilia (EHHA). Ziurrenik lehenengo osagaiak *ezkutatu* aditzarekin dauka zerikusirik; *harpe* (*harphe*) Zuberoako Santa Grazi herrian jaso. Bitxia da hitz hori erabiltzea; izan ere, eskuarki “haitzuloa” aditzera emateko baliatzen da. Bertan ere aipatutako *atherbü* elea bildua

da (*EHHA*). Herrialde bereko Sohüta herrian *atherbe* eta *harpe* eleak ere entzuten dira (*EHHA*); *idor*, Nafarroako Etxalekun herrian erabilia (*EHHA*). Nabarmentzekoa da *idor* izenondoa tokia adierazteko erabiltzea, baina berdin gertatzen da Bizkaiko Zaratamo herrian *lehor* (*legor*) berbaz baliatzen dira eta (*EHHA*). Handik hurbil, Etxebarrin, *lehorpe* (*liorpe*) batutakoa da (*EHHA*); *kapena* –baita *haizoble* ere-, Nafarroa Behereko Arboti-Zohota herrian erabilia (*EHHA*). Hápax bat da; ez da beste inon ere jaso. *Cabane* frantsesezko elearekin loturarik izan lezake? Baliteke. Amaitzeko, *lezo*i elea, Gipuzkoako Oiartzun herrian bildua (*EHHA*). Baliteke *leze* hitzarekin zerikusia izatea, hau da, *leze* + *ho(b)i*; izan ere, *lezo*i ere erabiltzen da “pezoia, lurrezko hesia” (*EH*) adierazteko. Adimen-begiak bi esanahien arteko erlazioa egiten du.

Gainerakoei dagokienez, Hostoetako euria dela-eta, *garo* berba Bizkaiko Mendatan bildua da: “Landareek euria fin-fin bota ondoren, edo goizean edo iluntzetan izaten den ura” (Mallea, 2002); edo Arrietan: “Euriaren osteko *garoa*, ihintza euria egin barik sortzen da; *garoa*, berriz, euria egin eta ostekoa” (Gaminde, 2001a). Beraz, adimen-begiak, euria egindakoan, hostoetan geratzen diren euri-tantei *garo* deritze. Ildo beretik, azaldutako *Garoa* vs *Ihintza* bikotea kontrajarrita dago. Bestalde, aurretik aztertu denaren arabera, *garo* berbak adiera hauek ditu: *euri garo*, “euri xehea” da, Bizkaiko Arrieta (Gaminde, 2001a), Larrabetzu eta Mungian herrietan (*EHHA*), besteak beste; Mendatan ere *garo* “euri xehea” da (Mallea, 2002). Aipu hau ere badugu: “*Garoa*, ez bakarrik iruntz-urari, baita euri lanbroari edo, gorriña-euriari bere esaten jako” (Euskalzale, 1897 *apud DRALV*); hostoen gaineko euri-uraz gain, lur gainean geratzen euri-geruzari *kapar* esaten zaio Bizkaiko Ispaster herrian (*DVEF*). Kostaldeko beste herri batean, Bakion, aldiz, berba hau “edurte apurtxu bet eta gero leitxu, ori de *kaparrie* esaten dana” (Gaminde & Salterain, 1991). Adimen-begiak esnearen gainean sortzen den geruza eta lurraren gainekoa erlazionatzen ditu: “1 kaparra. 1. (V-m ap. A). "Capa o tela de lluvia en las tierras" A. 2. "(V-m), nata de leche" A” (*OEH*). Lur gainean putzu euritsuak sor daitezke: *bustiune* (*bustiuna*); Gipuzkoako Eibar herrian bildua da (Etxebarria, 1965-1966); Bizkaiko Mendatan, beste bi berba: *potxingo* eta *sokil* (*sokille*) (Mallea, 2002). Beronek oso ñabardura interesgarria du: “Euri asko egin ondoren soroetan sortzen diren lur multzotxuak”; horrenbestez, berez ez dira putzuak, euriaren eraginez eratzen diren lur multzotsuak baizik, dena urez beterik dagoen arren. Toki euritsua dela-eta, *zirtziratsu* elea jasota dago: “Sitio en que hay frecuentes lloviznas” (Duvoisin *apud DRALV*). Gogoratu behar da Iparraldeko zenbait hizkeratan “euri xehea” dela; adibidez, Lapurdiko Ainhoan (*DVEF*) edo *euri zirtzir*, Hazparnen (*EHHA*). Euriaren jatorriari dagokionez, bi hitz aurkitu ditugu corpusean: bata, iparretik datorren euria, *ipar euria*; Azkuek ez du argi ikusten, duda egiten du: “Lluvia del norte (o este?) (*DVEF*); bestea, Oñatiko bertako euria, *hodeikoa* (*oreikua*) (Izagirre, 1959).

4.5.2.7. Ondorioak

Lehenengo eta behin azpimarratzekoa da euriaren eremua, nozio orokor guztiak betetzeaz gain, nozio espezifikoko gehien batzen dituela; izakiak nozio orokorrak dauzka kategorian gehien: guztira, 16; gutxien jarduerak, 3. Guztiarekin ere, izakiak nozio orokorrak ez dauzka nozio espezifikoko gehien, kantitateak baizik; kalitateak eta jarduerak ere nozio espezifikoko ugari dauzkate. Horrek guztiak ematen du aditzera norainoko garrantzia daukan euriak Euskal Herriko kliman: adimen-begiak hiztunek bizi duten esperientzia era naro eta oparoan segmentatzen du. Ezin uka daiteke euri etnometeoroaren inguruan eratzen den orok isla daukala euskararen lexikoan: zenbat-gura ñabardura eta xehetasun bereizten dira. Zail gertatzen da oso nozio espezifikorik nabarmentzea: hainbat aipa litezke, baina baten bat adieraztekoan, euri xeheari irizteko, Bizkaiko Kortezubi herrian erabiltzen den *kuku-izerdi* hitz-elkarketa azaldu beharrekoa da: termino motibatu eta antropologikoa da, ezbairik gabe. Kategorietan, kalitate nozio orokorreko Euri xeheari buruzko guztia utzi behar da agerian, bazterrean utzi gabe izakiak nozio orokorreko Euria eta eguzkia aldi berean kategorian.

Euriak hainbat antzezleku sorrarazten du, bereziak eta oso bitxiak. Euskal hiztunaren adimen-begiak guztiei antzeman eta irtenbide lexikoa ematen die: miragarria da datutegian bildutako 1104 nozio espezifikoei —aldaerak, barne—, nola bereizten duten naturaren esperientzia. Guztiak, jakina, ez dira erabiltzen hizkera eta aldi berean, baina denek islatzen dute esperientziaren agertokia. Hori dela-eta, adimen-begia eraz dauzkan tresna guztiez baliatzen da: hitz-elkarketak, hitz soilak, maileguak, onomatopeiak, eratorriak eta jarduera nozio orokorraren barruan, aditzak eta lokuzioak ere azaltzen dira.

Aztertutako hitz-elkarketa guztien arabera, *euri* elea nagusitzen zaiei gainerakoei. Horien artean, adibidez, izakiak nozio orokorreko *justuleuri* eta *hodei-euri*; kantitate nozio orokorreko *euri-tarrapata* eta *euri-jasa*; kalitate nozio orokorreko *euri-ihintz* eta *euri-lanbro*. Hala ere, badira beste asko bere baitan *euri* ez daukatenak; esate baterako, aipatutako Euria eta eguzkia aldi berean kategorian berba nagusia *azeri* da, horrek daukan konnotazio kulturala tarteko. Berba soilak ere ez dira gutxi: ugari dira nozio orokor guztietan; esaterako, izakiak nozio orokorrean *afoinu* eta *zizar*; kantitate nozio orokorrean *liprits* eta *pesi* nozio espezifikoak; kantitate nozio orokorrean, *indriska* eta *satarabi* eleak; kalitate nozio orokorrean, *lardats* eta *mardul* eleak; espazio nozio orokorrean, *harpe* eta *kaparra*. Hainbeste nozio espezifikoko dauzka euri eremuak, maileguak ere asko baitira; adibidez, *aguaxer*, *sapora*, *tulubia*, *denborale*, *tenpesta*, *elementa*, *manga* eta *bruma*. Onomatopeiei dagokienez, euri eremuak gehien dauzka, besteak beste, *zaparrada*, *zurrupita*, *burrusta*, *txapasta*, *parrasta*, *zafrada*, *zarrazta*, *barra-barra*, eta *zirtzira*. Hitz eratorriak batez ere azaltzen dira kalitate eta denbora nozio orokorretan,

baita *-ka* atzizkia jardueretan ere; adibidez, *lingirdatsu*, *mamitsu*, *lanbroxka*, *garazta*, *adarka*, *jazarrika*, *asete*, *bustite*, eta *aterraldi*. Bestalde, jarduera nozio orokorrean makina bat aditz eta aditz-lokuzio dira; esate baterako, besteak beste, *euria zaldiz ari*, *jausi ahalean*, *huri-jasa izan*, *huri-ziprztinak bota* eta *euria suilez ari*. Hori guztia atal honetan jorratutako nozio espezifikoko guztien lagin txiki bat besterik ez da, baina oso adierazgarria aldarrikatzeko euriaren eremua bizki motibatua dela, eta ikoniko samarra ere bai, zeren onomatopeietan —azaldu bezala—, onomatopeia askotan erabiltzen diren *z-* kontsonantea eta *a* eta *i* bokalak azaltzen baitira: *zirimiri*, *zarra-zarra*, *zirzira*, *zizar* eta *zurripita*, besteak beste. Hots-sinbolismoa deritzo horri (Berlin, 1992): nozio espezifikoko baten hots-forma esanahiari berari lotzen zaio automatikoki. Hizkuntzaren ikonotasunean oinarrituriko prozedura da, hizkuntzaren motibazioa agerian uzten baitu, eta ez haren arbitrariotasuna. Esan liteke hots-sinbolismo hau kultur sinbolismoan funtsatutako baliabidea dela.

Azpimarratu behar da kalitate nozio orokorreko Euri xehe eta Euri xehe-xehea kategorien azterketan, euskal hiztunaren adimen-begiak bere esperientziaren eta errealtatearen iruditeria oparora azaleratzen duela: euriaren eremu honetan berau jo liteke interesgarrientzat kulturari oso loturik baitago: animaliak, arropa zarpaila, huskeria eta txikikeria, santuak, zikinkeria eta ziria dira adimen-begiaren kultur sinbolismoaren zutabeetariko batzuk. Goratxoago *kuku-izerdi* hitz-elkarketaz gain, aipatzeko da Oñatin jasotako *aixaixak bustitzeko euria* terminoa (Izagirre, 1959): esaera guztiz kulturala, non hautematen den nola eragiten dion kulturak lexikoari. Inguru honetan eraturiko hitz-elkarketa da, azeriei buruzko konnotazioak aintzat hartzen dituena.

Beraz, euriaren eremuko nozio espezifikoko guztien nondik noraren berri emanda eta sakon azterturik, lexikoa, guztiz motibatua dela eman behar da aditzera, lexikoa sortzeko baliabideek erakusten dutenaren arabera: hitz-elkarketa, irudi eta onomatopeia ugari azaltzen dira.

Azkenik, etnometeorologiaren eremu guztietan legetxe, argi eta garbi esan behar da euskal hiztunaren adimen-begiak goitik beherako sistema sendo-sendoa eraiki duela, euriaren inguruan burura lekizkigukeen egoera oroi heldu eta irtenbidea ematen baitie.

4.5.3. Hezetasuna

Denok dakigu Euskal Herrian arropa eskegi, zabaldu eta lehortzea zail samarra gertatzen dela, nahiko toki hezea da eta. Hotz egiten duenean, eta euria egin berria denean ere bai, zaila izaten da arropa lehortzea. Izan ere, aire hotzak hezetasun gutxi onartzen du. Egun beroan, aldiz, normalean lekua hezea den arren, ura berehala lurruntzen da; aire beroak hezetasun handia onartzen baitu (zenbat eta tenperatura altuagoa izan, orduan eta gehiago). Horregatik da “hezetasun erlatibo” izenez ezagutzen dena “hezetasun absolutua” baino garrantzitsuagoa. Azken honek “airezko metro kubiko batean dagoen ur-lurrunaren gramo-kopurua” neurtzen du; baina, balio hori ez da normalean inportantea izaten. Gehienetan hauxe jakin behar dugu: airea ase dagoen ala ez, hau da, aireak hezetasun gehiago onar dezakeen ala ez. Horren guztiaren berri hezetasun erlatiboak ematen digu, zeren hori “ aireak ase egoteko behar lukeen eta une jakin batean duen hezetasunen arteko erlazioa” baita. Ehunekotan ematen da. Airearen hezetasuna %20koa dela esanez gero, norberak ez daki —ezta beharrik ere— zenbat gramo lurrun dugun metro kubiko aire bakoitzeko, baina hauxe badakigu: aire horrek daukana baino bost aldiz lurrun gehiago eduki dezakeela. Guk badakigu arropa edo heze dagoen edozein gauza berehala lehortuko zaigula. Eta gure baratza edo lorategia ureztatu behar dugula ere bai, landareak zimeltzea nahi ez badugu (Medina, 1990: moldatua).

1. Izakiak	2. Kantitatea	3. Kalitatea	4. Jarduera	5. Denbora	6. Espazioa
Izendapena Hezetasuna eta Hotza					Itsasotiko hezetasuna
78. taula. Hezetasuna: Sailkapen etnosemantikoa					

78. taulan argiro ikus daitekeenez, bi nozio besterik ez du biltzen hezetasunak, izakiak eta espazioa. Jakina, fenomeno guztiek nahitaez eduki behar dute berez izakiak, eta horretaz gain, besteren bat. Hezetasuna oso ostagi oparoa ez denez gero, espazioa besterik ez dauka. Izakien nozioak bi kategoria dauzka: Izendapena eta Hezetasuna eta hotza, hots, bera beste fenomeno batekin eta espazioak Itsasotik datorren hezetasuna.

4.5.3.1. Izakiak

Izendapena	Hezetasuna eta hotza
Afoinu (apoiñu) Astare Berase Busti Bustiro Hezetasun Lantzurda (lantxurda) Umeltasun	Bustiotz
79. taula. Hezetasuna: Izakiak	

Aipatu bezala, hezetasuna bi kategoriatan banatzen da bildutako corpusaren arabera: Izendapena eta Hezetasuna eta hotza.

Izendapenari dagokionez, honako berba hauek jaso dira ordena alfabetikoz: *apoiñu*, *astare*, *busti*, *bustiro*, *hezetasun*, *lantzurda* eta *umeltasun*. Jarraian aztertuko dira.

Apoiñu hitza ziurrenik latinetik dator, *favoniu(m)*-etik, hain zuzen ere *Zefiroa*. Hitz horrek jatorriz mendebaldeko haizea eta jainkoa irudikatzen du, eta euskara batuan *afoinu* aldaera zabaldu da. Datuen arabera, Bizkai aldean erabiltzen da gehienbat. Adibidez, Azkuek (*DVEF*) Ispasterren topatu zuen eta Mogel idazleak ere erabiltzen du hitz bera, hezetasuna ez ezik, beroa edo sargoria ere adierazteko. Antza denez, mendebaldeko haizea bero samartzat hartzen zuten antzinako euskaldunek; izan ere, honako aldaerak daude bizirik gaur egun: *bapañu* lurretiko edo abereetatiko beroa-, *afoinu* edo *afoñu* (usaina), *afoin* (haize sargoria edo kiratsa), *apoiñu* (hezetasuna edo sargoria), *apaiñu* (eguraldiaren biguntasuna) eta *apoin* edo *apoñu* (sargoria edo aro sobernatsua). Gaur egun Zumarragan (Gipuzkoa), *bafaño* aldaera erabiltzen da haize beroari irizteko (*DRALV*), eta, zer esanik ez, *bafada* berba zabaldua dago oso. Guzti-guztiek dute jatorria aipatutako *favoniu(m)* hitzean. Beraz, eta laburbilduz, berari loturiko hitz guztiek honako kontzeptu guztiak islatzen dira: hezetasuna, beroa, kiratsa... hau da, aro *astuna* edo *armina*; *astare* berba, Azkuek (*DVEF*) jaso eta Andoainen erabiltzen zela adierazi zuen. Elkarketa honen berri eman zuen: *astare-egun*, hezetasun-egunak, alegia; *berase* berba Azkuek (*DVEF*) ere bildu zuen. Haren arabera, Arrasate eta Oñatin (Gipuzkoa) erabiltzen da. Lehenengo osagaia *bera-* garbia da eta “biguna” esan nahi du. Bigarrena, berriz, *-ase* izan liteke, hau da, *bete* edo aditzera ematen duen aditza edo izena eta hortik *berase* elkarketa, “biguntasunez beteta”, alegia; *busti* berba, oro har, izen zein izenondo eginkizunak hartzen ditu eta *hezetasun* hitzaren beraren baliokidetzat har daiteke; *bustiro* terminoa Iturriagaren lan batetik jaso da (*DRALV*), eta dirudienez bi hitzen elkarketa da, batetik *busti* eta, bestetik, *aro*; halanda ze, *busti+aro*; hezetasun berbak berak ematen dio izendapena azpi-kategoria honi, gainera, bera gailendu da euskara batuan; *lantzurda* hitza eta haren aldaerak eremu frankotan

ageri dira. Euskaltzaindiaren Hiztegian *-tz-z* idatzita azaltzen da (EH). Antza denez, *la(i)no* eta *zurda* berben arteko elkarketa oso emankorra izan da eguraldiaren arloan. Kontuan hartu behar da *zurda* terminoaren hiru adiera bildu direla: “lei zuria”, “antzigarra” eta “lainoa” (Harluxet). Horrenbestez, erutzen diren elkarketak esanahi horien arabera izaten dira. Berriz ere argi apur bat ematearren, euriaren eremuko 68. taula (§4.5.2) ezarriko da.

Hitza	Herria / Idazlea	Esanahia
Lantxurda	G-Aia / N-Arakil, Baztan / zuberera	Antzigarra
Lantxurda	G-Bidania / N-Etxarri-Aranatz	Elur pikorra
Lantxurda	BN-Arruta / N-Erronkari / L-Ahetzea	Euri xehea
Lantxurdina	Z-Ligi	Euri xehea
Lanzurda	N-Baztan / lapurtera	Hezetasuna, arropari itsasten zaiona, euria izan balitz bezala
Lantxurda	Elizanburu	Ihintza
Lantxurdia	N-Urdiain	Izotz burruntzia
Lantzurda	G-Beizama	Izotz burruntzia
Lantxurda	N-Auritz	Laino beltza
Lantxurda	BN-Aldude / erronkari / zuberera	Laino euria
80. taula. Hezetasuna: lantzurda (§68. taula)		

80. taulan nabari denez, lantzurdaren adiera guztiek ostagi bustiekin dute zerikusia: *antzigarra*, *elur pikorra*, *euri xehea*, *hezetasuna*, *ihintza*, *izotz-burruntzia*, *laino beltza* eta *laino euria*. Hortaz, esanahi zabaltze oparo samarra gertatu dela ematen du.

Bukatzeko *umeltasun* berba azaldu behar da. Labayru Hiztegiak baizik ez dakar, ez dago beste inon ere, ezta *OEHn* ere. Honela dakar: “aintzira ondoan umeltasun handia dago: hay mucha humedad junto al lago” (Labayru Hiztegia).

Izakien nozioari dagokionez, berba bakarra dago corpusean: *bustiotz*. Izagirrek bildu zuen (Izagirre, 1959), eta bi adiera zekartzan liburuan; batetik, “euria eta hotza” eta bestetik, “hezetasuna eta hotza”. Beharbada, hiztun batzuek ez zituzten argi eta garbi bereiztuko bata eta bestea.

4.5.3.2. Espazioa

Itsasotiko hezetasuna
Bendebal
81. taula. Hezetasuna: Espazioa

Beste nozioei dagokienez, espazioa besterik ez da islatzen. Berba bakarra *bendebal* da, beste eremu batzuetan agertzen dena, mendebaldeko haizea izendatzeko. Ikerketa honetan sartu izanagatik ere, zalantzazko terminoa da. Izan ere, noraino izan liteke ostagia *bendebal* “itsasoak

dakarren hormetako hezetasuna” adieraziz? Hala eta guztiz ere, aztertzea erabaki da, berez, daukan esanahia berezia da eta. Aurreko hitzarekin gertatzen den bezala Izagirrek (Izagirre, 1959) jaso zuen. Oñati itsasotik zeinen urrun dagoen kontuan harturik, harrigarria da hiztunaren adimen-begiak hezetasunarekiko daukan pertzepzioa.

4.5.3.3. Ondorioak

Hasteko eta behin azpimarratu behar da, hezetasunaren eremuak nozio orokorretan izakiak eta espazioa baizik ez dauzkala: izakiak nozio orokorrak bi kategoria dauzka: Izendapena eta Hezetasuna eta hotza; espazioak, ordea, Itsasotiko hezetasuna baino ez. Horien artean izendapenak dira nagusi. Hori dela-eta, adieraz daiteke hezetasun eremua euskal hiztunaren adimen-begiarentzat ez dela garrantzi handikoa. Nozio espezifikorik aipatzekotan *bendebal* aipatuko da, espazio nozio orokorrean itsasotiko hezetasuna aditzera eman nahi duena; bustiotz hitz-elkarketa ere interesgarria da aipatzea, hezetasuna eta hotza esan nahi duena.

Nozio espezifikoen eraketari dagokionez, nahiz gutxi diren, hitz-elkarketak, hitz soilak, hitz eratorriak eta maileguak dira; onomatopeiarik ez dago. Hitz-elkarketetan azalduko *bustiotz* eta *berase* besterik ez daude; hitz soilak ere ez dira ugari: *astare* eta *busti*; hitz-eratorrien aldetik, *bustiro*, *hezetasun*, *lantzurda* eta *umeltasun*; maileguetan, *afoinu* eta *bendebal*.

Horrenbestez, azpimarratu behar da hezetasunaren eremuaren lexikoa, gehienbat, motibatua dela: beren-beregi eratzen diren terminoak motibatuak motibatu gabeak baino gehiago dira. Bestalde, *bendebal* maileguak hutsune lexiko bat betetzen du; izan ere, lexikoaren gabeziak hizkuntzek beste hizkuntza batzuei berbak atzemanek konpontzen dituzte, hiztunen esperientziaren alorra zabalduz doan heinean, edota, hizkuntzek dauzkaten hitzen esanahia zabalduz, edota, analogiaren bidez ele berriak sortuz berezko baliabideak tarteko.

Amaitzeko, adieraztekoa da hezetasunaren eremua txikitzea dela, eta euskal hiztunaren adimen-begiak nahikotzat jotzen duen sistema egokia eraiki duela bere beharrak asetzeko.

4.5.4. Ihintza

“Lurreko edo handik hurbileko objektuen gainean jarritako ur-tanten multzoa, inguruko aire argiko ur-lurrinaren kondentsazioz sortua” (*MetHizt*, 1988: 148). Ez da beharrezkoa halabeharrez euri- edo elur-prezipitazioa izatea. Jende guztiak izan dezake bere esperientzia giro-hezetasunari dagokionez, eta noiz eta nola gertatzen den behatu: garai askotan, goizez, landak edo autoak ihintzez estalita agertzen direnean, hain zuzen ere. Itsasotik hurbil bizi direnek bertako itsas-haizearen eragina ere hauteman dezakete. Hala ere, barnealdean ere haizea lehorra edo bustia ote den ohar gaitzke eta zenbaitetan barnealdekoek itsas haizeari erreparatu eta bertako lexikoan islatzen da.

Bestalde, ur-lurruna beti egoten da eguratsean, batzuetan besteetan baino gehiago. Ur-lurruna airean gas eran dago, nahiz eta ezin dugun ez usaindu, ez ikusi, ez dastatu. Tenperatura jakin batean, aireak gehienezko ur-lurrun kopurua beregana dezake. Aireak zenbat eta beroago egon, orduan eta ur-lurrun gehiago har dezake. Aitzitik, airea hozteak ur-lurruna bereganatzeko ahalmena gutxitzen du.

1. Izakiak	2. Kantitatea	3. Kalitatea	4. Jarduera	5. Denbora	6. Espazioa
Izendapena Ihintz-geruza Ihintz-tantak			Ihintzari loturiko ekintzak	Ihintz-garaia Gaueko ihintza	Ihintz -tokia

82. taula. Ihintza: Sailkapen etnosemantikoa

Corpusean eremu honi lotutako berbak honako kategoria hauetan bildu dira: Izendapena, Ihintz-garaia, Gaueko ihintza, Ihintz-tokia eta Ihintz-geruza. Nozioak, aldiz, kontuan hartzen baditugu, hiru besterik ez dugu topatuko: izakiak –Izendapena eta Ihintz-geruza–, denbora —Ihintz-garaia eta Gaueko ihintza—, eta espazioa– Ihintz-tokia. Hori guztia, gorago eta beherago diren tauletara bildu, eta azterketa egingo da.

4.5.4.1. Izakiak

Izendapena		Ihintz-geruza	Ihintz-tantak	
Arrosada	Ipar-ihintz	Ihintzagain	Azaro	
Babada	Izar-ihintz		Basagaro	
Basur(a)	Izotz		Iñusmota	
Errosio	Lantxer			
E(h)untz	Lantxurda			
Freskura	Mana			
Garo	Sereno			
(Gau) seden(a), zeren	Taruza			
Ihintz(arritz)	Urzondo			
Iluntz, iruntz	Zohart-ihintz			
83. taula. Ihintza: Izakiak				

Izakien nozioari dagokionez, hiru kategoria aurkitu dira corpusean, Izendapena, Ihintz geruza eta Ihintz tantak. Izendapenaz bezainbatean, 83. taulan ikus daitekeenez, berba ugari daude. Aldarea fonetikoak kenduta, ordena alfabetikoz honako hauek dira: *arrosada, babada, basur(a), errosio, e(h)untz, freskura, garo, (gau) seden(a), zeren, ihintz(arritz), iluntz, iruntz, ipar-ihintz, izar-ihintz, izotz, lantxer, lantxurda, mana, sereno, taruza, urzondo* eta *zohart ihintz*.

Hasteko, lehenengo azterketan, ustez, ondarezko berbak eta maileguak bereiztuko dira. Zenbait kasutan zalantzaren bat agertzen da, ez baitago garbi asko. Irizpide horren arabera, honako taula hau azalduko da:

Ondarezko berbak		Maileguak
Basur(a)	Ipar-ihintz	Arrosada
E(h)untz	Izar-ihintz	Babada
Garo	Izotz	Errosio
Ihintz(arritz)	Lantzer	Freskura
Iluntz,	Lantzurda	(Gau) seden(a), zeren
Inontz, iruntz	Taruza	Mana
	Urzondo	Sereno
	Zohart-ihintz	
84. taula. Ihintza: Izendapena		

Ondarezko berbak azterbide, honako hauek dira: *basagaro basur(a), e(h)untz, garo, ihintz(arritz), iluntz, iruntz, ipar-ihintz, izar-ihintz, izotz, lantxer, lantzurda, taruza, urzondo,* eta *zohardi-ihintz*.

Hitz horiekin guztiekin zenbait multzo egin daitezke egoki aztertze asmoz. Batetik, *e(h)untz, ihintz(arritz), iluntz, inontz, iruntz, ipar-ihintz, izar-ihintz* eta *zohardi-ihintz*. Berba horiek fonetika aldetik, behintzat, hurbil samar daude. Euskara batuan *ihintz* erabiltzea erabaki bada ere, ahozko euskaran zenbait aldaera badira: Horiek asko badira ere, itxura denez nekez atera daiteke jatorrizko terminoa. Hala ere, *euntz* berbak, Azkueren arabera (*DVEF*) Bizkaiko

Txorierrri haranean eta Arabako Zigoitia herrian erabiltzen denak, argi apur bat eman liezaguke. Ez litzateke zentzugabea pentsatzea jatorriz **enhuntz* edo kideko berbaren bat izatea. Izan ere, badira zenbait termino euskaraz, *eh-*, *ih-*, *in-*, *iu-* hasierako osagaiak dituztenak. Adibidez, ekaitza eremua aztertu direneco *ehurtziri*, *ihurtzuri*, *inurtziri*, *iusturi* hitzak trumoiari irizteko (§4.2). Bokalarterko *-h-* eta *-n-* hizkiek jatorriko *-nh-* izan zitekeela pentsatzera eraman gintzake. Hori dela-eta, litekeena da azalduko **enhuntz* berba izatea eta beharbada ere *ilun* elearekin nahaste fonetiko-semantikoa jazo izana. Esan gabe doa, aldaketa fonetiko eta semantikoen eragile behinenetako bat hiztunek erabiltzen duten ustezko analogia izaten da. Horrezaz gain, oso da arrunta euskaraz bokalarterko *-l-* eta *-r-*ren arteko txandakatzea; horrek egokiro azalduko luke *iruntz* terminoa. Esaterako, *Uribarri* / *Ulibarri* aldaeretan gertatu ohi da *-r-* eta *-l-*ren arteko aldaketa. Horretaz guztiaz gain, beste hipotesi erakargarri bat haxe izan liteke: *ihintz* terminoaren *ih-* lehenengo osagaia *ur* berbatik etor litekeelakoa. Izan ere, ematen du *ur* hitzak elkarketetan beste itxura bat hartzeko joera duela, *uh-* edo *ih-*; adibidez, *ur + arte > uharte*; *ur + erroi > *uherroi > ubarroi*; *ur + hotz > izotz -ihintz + hotz* elkarketatik etor litekeelako ustea era bada (*FHV*: 411)–. *EHHE*n honako hau azaltzen da:

Elkartu-eratorrietako u- / i- txandakatze ezaguna ondoko kontsonanteari egotzen dio Mitxelena (*FHV* 75-76), ezpainkariari bereziki (cf. *ibi*, *ibide*, cf., bestalde, *ume > bizk. ime*), baina bestelako aukerak baztertu gabe (cf. *igeri*, *igel*). Gure ustez, *uh-* > *i-* gertatu da, eta hasperenak eragin ahal izan du sabaikaritzea; ez dugu paralelo erabatekorik aurkitu hasperenak eraginiko *u > i* horretarako, baina ik. Hualde (2008: 207), bertan aipatzen den hasperen aurreko sabaikaritzea ezberdina bada ere (**-ah > -e* bilakaeraz ari da). (*EHHE*, 379)

Bazter batzuetan, *ihintz* izenari beste bat eransten diote. Honela, aldaerak aldaera, Lapurdiko Itsasu herrian (*EHHA*) *ipar-ihintz* elkarketaz baliatzen dira, Nafarroako Luzaide eta Nafarroa Behereko herrietan (*EHHA*) *izar-ihintz* bikoteaz. Horietaz gain, badira beste aldaera fonetiko batzuek ere, baina funtsean bera adierazten dute: *izarrintz*, *izarrihintz*... Ildo beretik eraturiko beste elkarketa bat *zohart ihintz* da, Zuberoako Altzai eta Larraine herrietan bilduak (*EHHA*). Lehenengo osagaia *zohardi* da elkartetean *zohart* bihurtzen dena. Behinolako elkarketetan arazo fonetiko bera sumatzen da *-gi*, eta *-ri* bukaerako hitzetan: *ogi+arte > otarte*; *haragi+tegi > harategi*; *begi+aurreko > betaurreko*; *afari+ondo > afalondo*... Adimen-begiaren azterketari dagokionez, hiztunak *ipar ihintz* berban iparra eta ihintza uztartzen ditu, sortzen den ihintza iparrarekin edo ipar haizearekin zerikusia izango balu bezala. *Izar* eta *zohart ihintza* elkarketari buruz nabarmendu behar da hiztunak gaueko “zeru garbia” eta “ihintza” lotzen dituela, hau da, beraren ustez, hori ezinbestekoa da ihintza sor dadin. Azaldu bezala, badira beste aldaera batzuk fonetikoki *ihintz*-tik hurbil samar direnak; adibidez, *iluntz* (*illuntze*) Bizkaiko Leioan batu zuen Gamindek (Gaminde, 2001a). Hitz horretan baliteke *iluntz* eta

iluntze berben arteko interferentzia sortu izana. Izan ere, *iluntzek* “ilunsentia” esan nahi du eta *ihintza* gauez sortzen denez gero, hortik etor liteke gurutzaketa. Gainerako hitzez bezainbatean, zerrendako lehenengoa *basur(a)* da. Hiru iturritatik etorritako berba dugu; batetik, Azkuek (*DVEF*) honako herri hauetan erabiltzen zela zioen: Donostian, Gabirian, Ordizian eta Zizurkilen, denak Gipuzkoan. Bestetik, Mokoroak (Mokoroa, 1990) Tolosa herria aipatzen du, hori ere Gipuzkoan, eta, azkenik, *EHHA*n ere bildu da, eta, besteak beste, Azkoitia (Gipuzkoa) agertzen da (*EHHA*). Beraz, argi dago erabilera esparrua Gipuzkoan dagoela. Osagaiak direla-eta, nahiko gardenak direla bistan dago, lehenengo hitza *baso* da eta bigarrena *ur*, hots, “basoko ura”. Hiztunak berba hori sortu zuenean, *baso* hitzak, nonbait ez zuen gaur egun daukan esangura edukiko. Izan ere, basoa “baserritik at zegoen oro” izan zitekeen, ezezaguna zena, jende gabekoa, mendia eta gaurko basoak batera biltzen dituen terminoa; hurrengo berba *garo* da. Azkueren arabera (*DVEF*) bizkaieraz erabiltzen da eta esangura horretaz gain, beste batzuk ditu: “ira” edo “iratzea” eta “euri lanbroa” edo “langarra” ere bai. “Ihintza” izateaz gain, beste zenbaitetan, adibidez, Bizkaiko Mendatan, “Landareek euria fin-fin bota ondoren izaten duten ura” (Mallea, 2002) izaten da, hots, gaueko ihintza ez ezik, landareetan geratzen diren euri tantak ere bai. Begi-bistan dago hiru esanahiek urarekin daukatela zerikusia, ur mehe eta xehea, hain zuzen ere; *izotz* hitzak, ostera, beste eremu bat osatzen du eta azpi-kategoria honetan bitxi samarra ematen du. Azkueren hitzetan (*DVEF*) Nafarroako Uztarroze mendian erabiltzen bide zen. Gaur egun, dakigunez, galdutako dago bertako euskalkia, errokariera, alegia. Mendatan gertatzen den bezalaxe, Uztarrozen *izotz* berba beste esangura baterako ere erabiltzen zuten hiztunek, “laino ura edo euria” adierazteko, hots, lainoak eragindako euri ttiki-ttikia; *lantzer* terminoak bere baitan *lan(o)* berba daramala ez dago ukatzerik. Zein den bigarren osagaia ez da asmatzen erraza; izan ere, badira zenbait aldaera: *lantzer*, *lantxe*... Berba hori Astigarragak erabiltzen du (*DRALV*, 1990) ihintza adierazteko, baina Azkuek (*DVEF*) ere eman zuen beraren berri beste adiera bat zuela lehen aipaturiko Uztarroze herrian, hau da, “lainoa”. *Lantxe* hitza, -*r* gabekoa, Ondarroan erabiltzen da gaur egun (Barrutia, 2000) euri mehe-meheari irizteko, *euri laintx* edo *lantxe*, hain justu ere. Bestalde, *lantzer* aldaera ere bada euri xehea Urdiñarben (Zuberoa) eta Ezterenzubin (Nafarroa Beherea) (*EHHA*). Esangura horietan guztietan ezagun da *ur* osagaia bertan dagoela; *lantzurda* hitza aurreko eremuan (§4.5.2.3) luze eta zabal azterturik geratu da. Hainbat esanahi dauzka euskalkiz auskalki eta begi-bistan dago osagaiak *lan(o)* eta *zurda* dituela; *taruza* berba bitxia da; izan ere, aipamen bakarra dago, Azkuek egin zuena (*DVEF*). Beraren ustez Bizkaiko kostaldeko Ea herriko Bedarona auzoan erabiltzen da. Izan litezkeen berben osagarriei antzik ere ez diegu hartzen; izan ere, hasierako *t-* kontsonantea ez da oso sarria euskal hiztegian; *urzondo* berbak zerikusi garbia du urarekin. Bigarren osagaia

–*ondo* da, eta zuhaitzekin erabili ohi dena dakarkigu gogora: *madariondo*, *sagarrondo*... ziurrenik erdiko -z- epentetikoa da, lotura, *ur-* eta *-ondo* lotzeko. Azkuek jaso (*DVEF*), eta Erronkariko elea zela adierazi zuen.

Ustezko maileguak honako hauek ditugu aztertzeakoak: *arrosada*, *babada*, *erosio*, *freskura*, (*gau*) *seden(a)*, *zeren*, *mana* eta *sereno*. Azter ditzagun banan-banan.

Lehenengoa Azkuek Erronkarin ere (*DVEF*) bildutako *arrosada* terminoa dugu. Ziur asko gaztelaniazko *rosada* berbatik dator, “antsigarra” edo “ihintza” esan nahi duena; *babada* berba berriz ere Erronkarin erabiltzen zutela bertako hiztunek agertu zuen Azkuek (*DVEF*). Baliteke jatorri erromantzea izatea; izan ere, Aragoiko Sos del Rey Católico herriko lexikoan honi adiera emateko erabiltzen bide da: “humedad que deja en la tierra el hielo al fundirse; barrillo debido a esta humedad; primera capa de nieve que no se derrite, que «se pega”³⁴. *DRAE*k ere honela dakar: “2. f. rur. Ar. y Cast. Barro que se forma en los campos a consecuencia del deshielo” (*DRAE*). Horrenbestez, badirudi adieren arteko nolabaiteko antzekotasuna badela izan, urak osagaia izaten jarraitzen baitu. Nabarmendu behar da hiztun askok “ihintza” eta “antzigarra” adieraziak nahasten dituztela, bata bestearen ondorioa izan daitekeenean, hots, “antzigarra” *ihintz izoztua*. Hiztunek naturarekin zenbat eta harreman gutxiago izan, orduan eta zehaztasun gutxiago izan ohi dute kontzeptuak bereiztean, adimenaren begia doitasuna galduz doa, eta antzeko fenomenoaren arteko muga ezabatzen dute oharkabeaz; *erosio* hitza ere ezagun dugu erdaratik datorrela. Ziurrenik mailegu hau ez da oso berria, hasierako *–er* hori dela bide. Gaztelaniaz “*rocío*” da berba eta itxura guztien arabera, Gipuzkoako Getariako hiztunek (*EHHA*) bertatik hartuko zuten. Zerk eragiten ote duen lexiko aldaketari antzematen izaten da korapilatsua; izan ere, beste terminoren bat erabiliko zuten eta zerbait edo norbaiten eraginez hedatuko zen delako *erosio*; *freskura* hitza ihintzari irizteko Bizkai aldean erabiltzen da, eta egindako ikerketen arabera Arrietan (Gaminde, 2001a), Gatican (Gaminde, 1997) eta Leioan (Gaminde, 2001b) erabiltzen da. Hiru herriok elkarretatik hurbil daude, eta esan daiteke hizkera bertsuaz baliatzen direla. *OEHk* ez dakar adiera hau, bai, ostera, “freskotasuna” esanahia. Baliteke hura beste horrek eragindakoa izatea; izan ere, goizez ihintza azaltzen denean zelanbaiteko “freskura” edo “freskotasuna” igartzen da giroan. Berba honekin batera, Leioan, adibidez, *iluntze* eta Arrietan *intze* berbez ere baliatzen dira; beraz, bi berba erabiltzen bide dituzte fenomeno bera izendatzeko; (*gau*) *seden(a)* elkarketa eta *zeren* elea direla-eta, zenbait aldaera erabiltzen dira ekialdeko euskalkietan; adibidez, Nafarroa Beherean *gau seden* Arboti-Zohota herrian edo *gaurtzeren* Isturitzen, *seden* Gamarten,

³⁴ http://usuarios.multimania.es/sos_del_rey_catolico/sosb.html

Zuberoako Pagola herrian *zeen* (EHHA). OEHk ere badakartza aipaturiko berbok, Azkuek bildua, eta Gipuzkoako Azpeitia herrian ere erabiltzen da. Ondoko hau agertzen da: “(G-azp). Niebla de la mañana”, hau da, beste adiera batekin. Elkarketaren osagaiei dagokienez, lehenengoa, *gau*, berezkoa izanagatik ere, bigarrena, ziur asko gaskoitik edo frantsesetik dator; izan ere, *serein* “Humidité qui tombe avec le soir après une belle journée”³⁵.

Aurreko berbarekin gertatzen zen bezalaxe, kasu honetan ere, bikoteak izaten dira herriotako hizkeretan. Adibidez, Arboti-Zohotan *gau seden ez ezik, ihizarritz* eleaz ere baliatzen dira. Hortaz, badirudi nola edo halako bizikidetzaz izan ohi dela ondarezko hitz eta mailegatuen artean. Ildo berekoa da, antza, *sereno* berba, gure datu basean bi esangura dauzka: bata, “goizeko lainoa” eta bestea Nafarroako Urdiain herriko *seenu* aldaeraren bidez, “ihintza”. Hitz hori EHHA-n bilduta dago eta itxuraz ondoko erdara batetik etorriko litzateke; izan ere, adibidez, “sereno”-k gaztelaniaz, “Humedad de que durante la noche está impregnada la atmósfera” esan nahi du. Horrenbestez, hortik pasatuko zatekeen “ihintza” izendatzera; *mana*, mailegatuen artean, azken berba dugu. Nafarroa Behereko Ezterenzubin bildurik dago (EHHA). Zein jatorri duen asmatzea gaitza da, baina susmoa da ez ote den mailegua. Herri berean azaldutako *xeden* eleaz ere baliatzen dira.

Bigarren kategoria Ihintz geruzari dagokio eta ordezkari bakarra du, *ihintzagain*. Lhandek (Hiztegia, 1926) jasotzen du eta ez dauka beste ezaugarririk. Osagaien aldetik, garbi-garbiak direla azpimarratu behar da, lehenengoa *ihintz(a)* eta bigarrena *gain* dira.

Izakien nozioaren hirugarren kategoria ihintz tantei buruzkoa da. Hiztunen errealitatearen hautematea tantak bereizteraino ere iritsi da. Beste bi termino bildu dira corpusean: *azaro*, *basagaro* eta *iñusmota*. *Azaro* (DVEF) hitz ezagun askoa beste eremu batzuetan, hamakaigarren hilabetea izateaz gain, “euri onuragarria” (DVEF) eta “ereiteko garai egokia” (Estornes, 1997) ere esan gura du. Adiera honi dagokionez, Bizkaiko Orozko haranean eskuratu zela azaldu behar da; *basagaro* berbarekin berdin gertatzen da Azkuek eskuratutakoa izan zen Orozko haranean (DVEF). Osagaien gainean adierazi behar da lehenengoa *basa-* eta bigarrena *-garo* direla. *Basa-* eremu etnometeorologikoan aski zabaldurik dago aurrizki edo izenondo gisa. Esaterako *basahaize* edo *basahegoa*, aurrizki gisa; izenondo gisa, *eguraldi basa* edo *haize basa*. Agerian dago *baso* hitzaren aldaera dela aurrizki moduan erabiltzeko eta “bakartua” edo “herriz kanpoko” esan nahi du; *iñusmota* berba dela-eta azpimarratu behar da zehaztapena handi samarra dela “ihintz tanta handia” esan gura du eta. Izagirrek jaso zuen termino hori Oñatin (Izagirre, 1994). Tamalez, ez dugu hitzik aurkitu “ihintz tanta txikia”

³⁵<https://dictionnaire.lerobert.com>

adierazteko. Hiztunek Oñatin *iñuntz* aldaera erabiltzen dute *ihintza* esateko eta beharbada horrek bere baitan hartzen du eta berezkoa da txikitasuna. Osagai bezainbatean, badirudi aipaturiko *iñuntz* eta *mota* direla, hau da, “ihintz mota”, edo.

4.5.4.2. Jarduera

Bigarren nozioa jarduera da eta kategoria bakarra dauka; aditz bat eta aditz lokuzio bat. Horietan berba bana ere badira. Lehenengoari dagokionez, *ihinztu* aditza dugu, *ihintz + tu*, hain zuzen ere. Harrietek bildu zuen bere hiztegian (OEH). Bigarrena, aditz-lokuzioa da eta corpusean dagoen bakarra *ihintza hasi* da. Mokoroak batu zuen bere bildumarako (Mokoroa, 1990); ez dauka beste inolako ezaugarririk.

4.5.4.3. Denbora

Ihintz-garaia	Gaueko ihintza
Ihinzte	Zohardi-ihintz
85. taula. Ihintza: Denbora	

Hirugarren nozioa denbora da eta bi kategoria biltzen ditu bere baitan: Ihintz garaia eta Gaueko ihintza.

Lehendabizikoan, termino bakarra dago, *ihinzte*, Azkuek jasotakoa (DVEF). Ez du beste inolako aipamenik, aldaera baizik ez, *ihizte*. Osagaiak direla-eta, garbi samarrak dira, *ihintz- + -te*. Azken hau, hain zuzen ere, “denbora” edo “sasoia” adierazten duen atzizkia dugu eta arlo askotan hedaturik dago, baita etnometeorologikoan ere. Adibidez, *eurite*, *haizete*... Sarritan atzizki honek “garaia” ez ezik, ostagiaren “handitasuna” ere ematen du aditzera.

Bigarren kategorian, gaueko ihintza, beste berba bakar bat dago, *zohardi-ihintz*. *Zohardi* hitzak, berez, “zeru garbia” edo “zeruko argitasuna” esan nahi du ekialdeko euskalkietan (Harluxet), eta, gorago aipatu bezala, elkarketa honek “ihintz hutsa” izendatzen du edo “gaueko ihintza”. Corpusean bilduriko aldaera *zohart-ihitz* dugu; Azkueren arabera (DVEF) Zuberoako Barkoxe herrian erabiltzen da. Elkarketa honetan lehenengo osagaien amaierako *-di -t* bihurtu da; adibidez, *ardi + ile > artile*. Bukaerakoa *-gi* ere izan liteke *-t* ematen duena; adibidez, *argi+izar > artizar*. Baina, Azkuek berak diosku Barkoxen *zohardi* eleaz baliatzen direla (DVEF); izan ere, Zuberoako bertako zenbait herritan, *zohardiz* gain, *zohargi* (DVEF) eta *zoharbi* ere entzuten dira: Santa Grazin “Esne-Bidea” adierazteko (EHHA), eta Larrainen “aterrune”ri irizteko (EHHA).

4.5.4.4. Espazioa

Ihintz tokia
Ihintz-toki
86. taula. Ihintza: Espazioa

Hirugarren nozioa Espazioa da. Hemen ere kategoria bakarra eta termino bakarra ditugu, *ihintz-toki*. Azkueren hitzetan (*DVEF*) hauxe da: “Lugar en que dura mucho y tarda en evaporarse el rocío”. Horrenbestez, hiztunen adimen-begiaren arabera, toki batzuk beste batzuk baino egokiagoak dira ihintza eratzeko.

4.5.4.5. Ondorioak

Hezetasunaren eremua baino handiagoa da ihintzarena, eta, sarreran adierazi bezala, lau nozio orokor dauzka, izakiak, jarduera, denbora eta espazioa, eta bi ez, kantitatea eta kalitatea; izakiak nozio orokorrak dauzka kategoria gehien, hiru: Izendapena, Ihintz-geruza eta Ihintz-tanak. Izendapenei dagokienez, adimen-begiak makina bat dauzka euskararen hizkeren arabera; gainera, nabarmendu behar da mailegu ugari daudela horien artean. Aipatzekoa da *ihintz* eta *garo* berben arteko bereizketa, *zohardi-ihintz* (gaueko ihintza) eta *ihintz-toki*.

Nahiz eta oso eremu zabala izan ez, adimen-begiak lexikoa eratzeko hitz-elkarketak, hitz soilak, hitz eratorriak eta maileguak erabiltzen ditu, eta jarduera nozio orokorraren barruan, aditz bat eta aditz-lokuzio bat. Hitz-elkarketak ugari dira, batzuk agerikoak; adibidez, *basur*, *ipar-ihintz* edo *izar-ihintz*; beste batzuk, berriz, ez hain agerikoak; esaterako, *lantzer* edo *lantzurda*. Maileguak ez diren hiru hitz besterik ez dira: *garo*, *ihintz* eta *taruza*. Eratorrien artean, *urzondo* eta *ihinzte* aipatu behar dira, eta maileguak ugari dira izendapenetan, ikusita hezetasunaren eremua nolakoa den. Hala ere, Bizkaiko hizkera batzuetan ondarezko hitza eta mailegua elkarrekin bizi dira: *freskura* eta *iluntze / intze*.

Beraz, datuok ikusita, ihintzaren eremua aski motibatua dela eman behar aditzera. Ez dirudi maileguk hutsune lexikorik betetzen dutenik, baina, agian sumatzen ez den ñabarduraren bat erants diezaiokezte esperientziaren alorrari.

Azkenik, azpimarratu behar da ihintzaren eremua, txikia izanda ere, adimen-begiak eraiki duela hautemandako esperientziaren arabera, eta xehetasun lexikoak asetzeko lain dela.

4.5.5. Izotza

Lurraren gainean, izotza hezetasuna izoztearen ondorioz gertatzen da: adibidez, antzigarra, lurrarekin batera trinkotatutako izotza; bestalde, ura izozteagatik ere izaten da. Elurak edo txingorak jardun ondoren, batzuetan nola lurra izozten den ere ikus dezakegu. Basoetako laiotz eta ospelek eta mendietako ospeletan kokaturiko parajeek izotza sortzeko joera handi samarra dute. Gainera, haize hotza ibiltzeak ere leiak sortaraz ditzake. Euskaraz bildutako lexikoak adierazten bide du aurreko sasoi batzuk oraingoa aino hotzagoak izan zirela. Esaterako, adibide gisa, kostaldean zein barrualdean makina bat hitz ditugu *izotz-burruntzia* adierazteko. Corpusean bildu diren hitz guztiak aztertu eta honako sailkapen hau egin da:

- Antzigarra.
- Izendapena.
- Garaia.
- Ekintzak.
- Izotz geruza.
- Izotz beltza.
- Izotz zuria.
- Izotz burruntzia.
- Izotz kristala
- Izotz lekua.
- Izotz orratza.
- Izoztutako ur putzua.
- Izozten hasi den ura.
- Izotz zatia.
- Harriarena egiten duen izotz zatia.

1. Izakiak	2. Kantitatea	3. Kalitatea	4. Jarduera	5. Denbora	6. Espazioa
Izendapena Antzigarra Izotz beltza Izotz zuria Izotz-burruntzia Izotz-orratza Izotz-geruza Izotz-kristala Izozten hasitako ura Izotz zatia Harriarena egiten duen izotz zatia			Izotzari loturiko ekintzak	Garaia	Izotz lekua Izoztutako ur-putzua
87. taula. Izotza: Sailkapen etnosemantikoa					

87. taulan bildutako lau nozioak ikus daitezke: izakiak, jarduera, denbora eta espazioa. Kantitate eta kalitate noziek ez daukate inongo kategoriarik edo, behintzat, ez dugu orain arte bat ere jaso. Ugariena izakien nozioa da, hamaika kategoria hartzen ditu bere baitan: Izendapenak, Antzigarra, Izotz beltza, Izotz zuria, Izotz-burruntzia, Izotz-orratza, Izotz-geruza,

Izotz-kristala, Izozten hasitako ura, Izotz-zatia eta Harriarena egiten duen izotz-zatia. Bigarren nozioa jarduera da eta kategoria bakarra dauka: Izotzari loturiko ekintzak. Hirugarren nozia denbora dugu, eta horrek ere beste kategoria bat biltzen du: Garaia. Laugarren eta azken nozioa espazioa da eta bi kategoriaz jabetzen da: Izotz lekua eta Izotutako ur putzua.

4.5.5.1. Izakiak

Izendapenak	Izotz beltza	Izotz zuria	Izotz-burruntzia		
Edur Horma Izotz Izotzela Jela Karrakoin, Karro, karroin(keta) Koila Lei, Leikarraldo	Antzigar Horma (beltz) Horma karroin Horma zuri Hormate Intziar Izotz beltz, gaitz Izotz karroin Izotz horma Jela(te) Karrailo Karraldo(i)	Hormatze Horma zuri Ihintz hotz Intzirri Izotz zuri, izozketa Izotz karraska Jela Karro(a) (zuri), karroin(te), karroinketa Lantziarra Lei (zuri)	Antzigar Arañ Bitre Elur saila Elur bloke Elur kandela Elur negar Elur lausaro Elur ziri Engalas Garranga Glaxa Glazunak Horma saila (Horma)berina Horma kizki Horma lindiri Horma peska Horma tortxa Horma txorro Horma xirrixta Horma zintzarri Horma zior Horma ziri(te) Horma ziztor	Izotz saila Izotz bela Izotz burrunzi Izotz garranga Izotz kandela, kandelerero, kandelo, kandelon Izotz kozkor Izotz ziztor Izoztruma Jela ziri Kandela saila Kande(la)a, kandalu Kandela negar Kandelez de karro (gask.)	Karroin saila Karroin kandelu Karroin metxa Karroin tortza Karroin ziri Karroin tilingo Karru kandela Kirriski Koila zintzarri Kristal Kristira Lantrotxa Lantzeta Lantxurda Lei saila Lei kandela Lei karraldo Lei negar Leien mokoa Miall Teilatuko kandela Zintzili(kario), txintxirri Zinzirrin Ziri Zitoitza glaziatu
Antzigarra					
A(i)ntzigar, intzigar Bitxuri Brisa Galtzurda / Gaintzurde Iruntz garratz Izotz Izotz babada Izotz zuri Kalamoko (euri) lantxurda Lantzar(a) Lei Lei beltz Mukuts Zurda	Karroa, karroin, karro(n) (beltz), (zuri) Karruleida Lauparda Lei (belt z) Lei karraldo Lanbroe Mitratu				
Izotz-orratza	Izotz-geruza		Izotz-kristala	Izotz-zatia	Harriarena egiten duen izotz-zatia
Antzigar ziri	Geruza Horma(-zizki) Izotz horma Karranga Karroinziri	Kikarraldo Latrontxa (Lei)karraldo Leira	Engalas Izozten hasi den ura koila	Izozki	leiarri
88. taula. Izotza: Izakiak					

<p style="text-align: center;"> Edur Horma Izotz (intzotz, itzotz, ixotz) Izotzela Jela Karrakoin, Karro, karroin(keta) Koila Lei, Leikarraldo </p>
--

89. taula. Izotza: Izendapenak

Izakien nozioaren lehenengo kategoriaz bezainbatean, Izendapenak, azpimarratu behar da ugari direla, 12 guztira: *edur, horma, izotz, izotzela, jela, karrakoin, karro, karroin(keta), koila lei eta leikarraldo*. Bederatzi badira ere, badirudi horietako bi zerrendako beste batzuekin elkarlot daitezkeela. Izan ere, *izotzela izotz + jela* izan liteke, eta *karrakoin karroin* elearen sortarekin batera ipin liteke.

Edur berba, besteak beste, (Gaminde, 1997) Bizkaiko Gatika herrian bilduta dago. Ageri denez, bertan *edur* terminoaren bitartez “izotza” eta “elur” izendatzen dituzte. Beraz, hiztunek ez bide dituzte bereizten bata eta bestea. Horrelako bitxikeria ez dugu beste inon aurkitu.

Horma hitza hedatu samaturik dago Nafarroako euskalkietan, baita beste hizkera batzuetan ere. Adibidez, Azkuek (*DVEF*) agertzen du ezen *orma* berba Nafarroako Baztan haranean, Nafarroa Behereko Aldude haranean, gipuzkeraz eta Lapurdiko Getaria herrian erabiltzen dela. Gaur egun, aldiz, nekez entzun daiteke Gipuzkoako herrietan *-jela* nagusia da, nonbait- eta gainerako tokietan, gaur egun, batik bat, lehen aipatu bezala, Nafarroako hizkeretan adi daiteke. Bestalde, Azkuek berak Nafarroako beste haran batean, Zaraitzu, erabiltzen zela adierazi zuen. Horrezaz gain, idazleetan, Axularrek (*OEH*) ere baliatzen zuen euskara batuan gehien erabiltzen den *izotzari* irizteko. Hitzaren jatorriari buruz, “pareta” esateko “horma” berbarekin izan dezakeela zerikusia. Ezaguna da berau latinezko *forma* terminotik datorrela.

Izotz da, hain justu ere, kategoria honi izena ematen diona. Agian, ez zen zabalduena izango, baina, azkenaldi honetan euskaraz gehien entzuten den hitza dugu. Jatorriz, beharbada, adiera bakarra izan bazezakeen ere, gaur egun zenbait esanahi hartu ditu bere gain, oroz gain, “jela” eta “antzigar” izendatzeko. *OEHk* hainbat jatorri eta aldaera dakartza: *intzotz, itzotz, ixotz* eta *izotz*. Itxuraz, bi berbaz osaturiko termino da, bigarrena zein den, (*h*)otz, garbi dago, baina lehenengoa esan liteke *i(h)intz* dela, corpusean dauden aldaera guztiak aintzat harturik. Bilakaera ona hau izan liteke: $*i(h)i(n)tz + *(h)otz > i(h)tzotz > itzotz > izotz$. Ez dirudi zentzugabeko hipotesia denik; izan ere, jatorrizko esanahia horixe izan baitaiteke, “antzigarra” edo “lei zuria”. Iritzi berekoa da Mitxelena: “no sería con todo fonéticamente imposible que el com. *izotz* ‘escarcha’ ‘hielo’, conforme a una opinión que se viene repitiendo desde hace mucho

tiempo, viniera de *ih(i)n*tz, etc. ‘rocío’ y (*h*)otz ‘frío’” (FHV: 411). Gainera, hipotesi horren alde, gaur egun Zuberoako herri batean, Sohüta, *ihitz hotz* erabiltzen da, eta Nafarroa Behereko beste batean, Larzabale, *ihizotz* (EHHA). Hortaz, hiztunek adimen-begiaren bidez ikusiko zuten, ziurrenik, *izotz*aren jatorria eta sorburua belar, landare, zuhaixka eta soroetan izan zitekeela: “Gau eta goizalde hotzetan, aireko hezetasunagatik, lur, landare eta kidekoen gainean eratzten diren ur tanta xeheen multzoa” (EH).

Izotzela berba, azaldu bezala, nonbait, *izotz* + *jela*-tik etor liteke. Beraz kategoria honetan dauden bi berbaren arteko elkarketa. Azkueren esanetan (DVEF) Bizkaiko Markina herrian erabiltzen dute. Herri berean *jela* berbaz ere baliatzen dira (EHHA), gehienbat Gipuzkoan eta Nafarroako mendebaldean entzuten dena; beraz, ba dirudi biak *izotz* eta *jela* elkarrekin bizi eta beste hirugarren bat sortu dutela. Ez dago corpusean, ez OEHN, honi buruzko beste aipamenik.

Jela terminoa hainbat iturritatik har daiteke; adibidez, Labayru Hiztegian *izotz* eta *lei* berben baliokidetzat hartzen da. Esanahi aldetik hori ez ezik, “lei beltza” ere esan gura du Gipuzkoa eta Nafarroako zenbait herritan, beheago adieraziko dugunez. Jatorriari dagokionez, latinezko *gelu* hitzetik etor liteke, gaztelaniaz “hielo” portugesez eta italieraz “gelo”, frantsesez “gel” eta galegoz “xelo” eman dituen. Oskoz *géla* ere erbailtzen zen, antza. J.B. Agirrek (Erakusaldiak I, II, 1803-1850 *apud DRALV*) “gelatu” aditza erabiltzen du, seguru asko, jatorrizko grafiari eutsi nahian.

Hurrengo eleekin sail bakarra egingo da: *karrakoin*, *karro*, *karroin* eta *karroinketa*. *Izotz* terminoarekin jazotzen den bezalaxe, sail honetako berbek “antzigarra” edo “lei zuria” ere eman dezakete aditzera. Esan liteke ekialdeko hizkerari lotutako hitz saila dela. Gaur egungo hiztegi modernoetan, *karroin* aldaera baizik ez da azaltzen. Mitxelenaren arabera (FHV: 199), jatorrizko berba **karrone* izan zitekeen. Lhande hiztegiak (1926), aldiz, biarnesaren *carreu* eta *carroche* hitzekin lotzen du. Dena dela, ez da ahaztu behar bearnesez *karroun* terminoa ere erabiltzen dela *izotz*ari irizteko. Beraz, agian, jatorri erromanikoa izan lezake. Aldaerei dagokienez, *karrakoin* hitza Azkuek agerrarazten du (DVEF) eta ezartzen duen ezaugarri bakarra SP, hau da, Silvain Pouvreau (OEH) idazleak erabili zuela; *karro* terminoa, besteak beste, Estornes (Estornes, 1997) ikertzaileak batu zuen. Aspaldi samarrean galdutako Erronkariko euskalkiaren berba zen; *karroin* berba guztietarik hedatuena dela ematen du eta azaldu bezala, *karro* + **one* elkarketak sor zezakeen. Hainbat egile eta idazleri irakur dakioke ele hau, baina bat adieraztekotan, Azkue adieraziko dugu (DVEF). Beraren esanetan, behe nafarreraz, Lapurdiko Ainhoa herrian eta Erronkari haraneko Uztarroze herrian erabiltzen da. Garai modernoagoetan Nafarroako Luzaide herrian ere entzun izan da (EHHA); *karroinketa*

elea Azkuek ere biltzen du hiztegiaren eranskinean (*DVEF*) eta Nafarroako Aezkoa haranean erabiltzen zela agertu zuen. Aipatutako *karroinez* gain, berba honetan *-keta* atzizkiak ere esku hartzen du.

Koila hitza “izotza” ez ezik, “izotz-burruntzia”ri irizteko ere baliatzen dute Nafarroako hizkeretan. Azkuek ere badakar (*DVEF*) eta beraren esanetan Gipuzkoako Berastegi herrian erabiltzen zen. Berak ere *koille* aldaeraren berri ematen du goi-nafarrerako berba dela adieraziz. Ahozko ikerketetan, aldiz, *kolla* aldaera bildu izan da Nafarroako zenbait herritan, adibidez, Baztan haranean (Izeta, 1996), “izotz burruntzia” edo “hormatzen hasi den ura” adierazteko. Berba honek jatorri erromanikoa izan lezake; izan ere, gaztelaniazko *cuajo -ar*, frantsesezko *caillée* eta katalanezko *cuallo -ar* oroitarazten dizkigu eta nola ez horietatik eratortzen direnak, *cuajada*, *kaillatu* (“mamia” edo “gatzatu” izendatzeko). Nolanahi ere, azpimarratzeko da nola mintzatzaileek bere egiten dituzten beste mintzaira batzuetako eleak, sarritan eurenei muzin egin gabe. Horrela baizik ezin azal daiteke euskarak ostagi hau izendatzeko daukan lexiko narotasuna.

Lei eta *leikarraldo* berbak Euskal Herriko mendebaldeko hizkeretan erabiltzen dira, batik bat bizkaieraz. *Izotz* eta *karroin* hitzekin gertatu bezala, litekeena da *lei* “antzigar” adieraztetik bestelako “izotz” adieraztera ere igaro izana. Beharbada, aipaturiko **gela* termino erromaniko batetik abiatuak, *jela* sortu duena, hark metatesiaren bidez *leia* eman zezakeen. Gaur egun toki ugarian erabiltzen delarik ere, Azkuek (*DVEF*) honako hauen berri ematen du: Bizkaiko Arratia harana, Gernika, Lekeitio, Mundaka eta Orozko. Bestalde, *leikarraldo*, izotz burruntzia ere esan gura duena, Iturzaeta idazleak baliatu zuen bere Berbaldietariko batean (*DRALV*). Kasu honetan bi berbek gauza bera ematen dute aditzera, eta bat eginda indar handiagoa daukate; *leikarraldo* berbak “izotz zuria” (B-Mendata: Mallea, 2002) edo “izotz geruza” ere esan nahi du (bizkaiera: *DVEF*).

Hurrengo kategoriak, Antzigarra, Izotz zuria eta Izotz beltza, hiztunek bereizteko zailtasun nabariak izaten dituztenez gero, Meteorologia Hiztegiak (*MetHizt*, 1988) ematen dituen definizioetara joko dugu esanahiak argitze aldera. Hiztunen adimen-begia ia-ia tokian-tokikoa izaten da, eta beherago irakurriko denez, hitzak kategoria guztietan nahasten dira. Gure lana horien guztien azalpen ahalik eta garbien egitea izango da. Izotzaren corpusaren erabat komenigarria da ondo asko desberdintzea taxuzko azterketa egin ahal izateko.

Antzigarra:

Izotz-mota bat, aleak gutxi-asko tarteko airez bananduta dauzkana, sarritan kristalezko adarrez apaindua. Honako egoera honetan sortzen da: ur-tantak, lainoarekin super-hoztearen prozesuan objektu solido batekin topo egin, 0°C azpitik dagoena, erortzen dena metatu eta haziz doa; sarritan lei zuriarekin nahasten da. Berau ihintza izozten denean sortu egiten da. (*MetHizt*, 1988: 44)

Izotz zuria:

Kristal itxurako jela multzoa, gehienetan, ezkata, orratz, luma edo abaniko erako formaz osatua. Hidrometeoro hau ihintzaren modu berean eratzen da, baina 0°C-z azpiko tenperaturetan. (*MetHizt*, 1988: 162)

Izotz beltza:

Temperaturaren 0°C azpiko beherakada gogorra, landareak ihartzen dituena. Landareetan diren eraginei dagokienez, izozte lehorra da, hau da, landareen barneko izoztea da, izotz zuriaren babesik gabekoa. Lei beltza beti lei hilgarria da eta bere izena erasandako landaretzaren itxura beltzekatik dat Landarea barrutik ihartzen da. (*MetHizt*, 1988: 161)

Horrenbestez, zientziak berak ematen digu aditzera, hiztunen adimen begiak behinola bereiztuko zituen ostagiak. Gaur egun badira mintzatzaile batzuk nekez desberdin ditzaketenak hirurok. Meteorologia Hiztegiaren lehenengo definizioan bertan azaltzen da “sarritan lei (izotz) zuriarekin nahasten dela”; ez dira gauza bera, “antzigarra” eta “izotz zuria”. Lehenengoan, lurra hotz-hotz dago eta bertan ezartzen diren tantak lur edo landareekin bat egitean, leitu egiten dira; bigarreanean, ordea, ezartzen direnak, dagoeneko, izozturik egoten dira: “ihintzaren modu berean eratzen da”. Bestalde, “izotz beltza” eratzeko ez da zertan ihintzik sorturik; izan ere, zera da, “temperaturaren 0°C azpiko beherakada gogorra, landareak ihartzen dituena”. Hori dela-eta, badirudi azalduko *ihintz+hotz* elkarketak *izotz* berba sortu izanak badaukala funtsik; bada, “hozten den ihintza” da *izotza* jatorrizko adieran. Hortaz, beraien arteko muga mehe-mehea denez gero, jasotako datuak, kasu batzuetan, agian, nahasgarri samarrak gerta litezke. Hala eta guztiz ere, datuak datu, ahalik eta era argienean aztertzen saiatuko da.

A(i)ntzigar, intzigar Bitxuri Brisa Galtzurda / Gainzurde Iruntz garratz Izotz Izotz babada Izotz zuri Kalamoko (euri-) lantxurda Lantzar(a) Lei Lei beltz Mukuts Zurda
90. taula. Izotza: Izotz zuria

Aztertu beharreko hitz zerrenda ondoko hau da: *antzigar / intzigar, bitxuri, brisa, galtzurda, iruntz garratz, izotz, izotz babada, izotz zuri, kalamoko, (euri)-lantxurda, lantzara, lei, lei beltz, mukuts eta zurda*.

A(i)ntzigar eta *intzigar* berbek jatorri bera dutela dirudi. Bizpahiru adiera horietaz gain, badira beste zenbait corpusean, *antziar*, *antsigar*, *antziliar*, *inziar*... baita *añxier* ere, higadura handien izan duena; *aintzitik*, *antzi-* zein *intz(i)-* etor litezke. *Intz(i)* dela-eta, agian *ihintz* berbarekin izan du gurutzaketa fonetiko zein semantikoa. Eremu erabilerari dagokionez, eskuratutako datuen arabera, mendebaldeko hitza dugu, Bizkaian nahiz Gipuzkoan erabiltzen dena. Iturririk aipatzekotan, L.L. Bonapartek (Bonaparte, 1897: 132 *apud OEH*) idatzitakoa: “*antziar* esaten da Bizkaian ta Gipuzkoan erdarazko ‘escarcha’ gaitik”. Berbaren jatorriari buruz, litekeena da bi terminok talka egin izana. Batetik, gogoratu behar da, *aintzi* berbak “*aintzira*”, “*idoi*”, “*istinga*” edo “*zingira*” esan nahi duela, “*urez* eraturako eremua, txikia zein handia izan daitekeena” (Harluxet). *Antzigarra* sortzearen prozesuan ur-tantek esku hartzen dutenez, beharbada hiztunen adimen begiek ur-tanta izoztutzat jotzen dute. Bestetik, bigarren osagaia, *-igar* edo *-gar* izan liteke. Lehenengo berba horrek “*ihar*” rekin izan lezake zerikusia, hau da, “*sikua*” edo “*lehorra*”. Hortaz, *antzigarra*, zentzu metaforikoan “*ur-eremu siku* edo *lehor*” tzat eman liteke. Bigarrena, “*gar*” izango balitz, hiztunean adimen begiak sorturiko oso metafora ederra izango litzateke, hots, “*garraren ur-eremua*”. Jakina, zenbaitetan izotzak, esku artean hartzen dugunean, erre egiten duela ematen du.

Bitxuri terminoari gagozkiolarik, aipamen bakarra aurkitu da Larramendiren hiztegian (*OEH*). Ez dago bertan beste inolako erreferentziarik. Hitza zatitzekotan, bigarren osagaia, *-txuri* (*-zuri*) izan liteke eta lehenengoa, agian, *bisuts*, “*haizearekin batera elur-ekaitza*” edo “*haizeak lurretik altuera txikian altxatutako elur zatien multzoa*” (Harluxet). Horrenbestez, *bisuts* + *zuri* elkarketak *bitxuri* eman lezake.

Brisa berbari buruz aipamen bakarra aurkitu da Izagirrek egindako lanean (Izagirre, 1959): “*Antziar* esaten da Bizkaian... “*escarcha*” gaitik. Oñati aldean *brisa* bere esaten dabe”. Hitz berori “*haize leuna*” adierazteko erabiltzen da gaur egun eta Andoainen *brisalaño* (*EHHA*) “*goizeko behe-lainoa*” da. Haizea eremua hitz aztertu eta hauxe adierazi zen: *Brisa* hitzaren jatorria ez dago batere garbi. Joan Corominasek (1961-1987) hauxe dio: “*Viento del Nordeste* o del Este, por lo general muy fuerte”, 1504; “*viento suave*”, s. XIX (y alguna vez en los SS. XVII-XVIII), voz común a todos los romances de Occidente (documentada en Cataluña desde el S. XV), de origen incierto”. Bestalde, gaztelaniaz haize hotz eta zakarrari “*bris*” ere esan ohi zaio. Beraz, baliteke horrekin loturaren bat izatea.

Galtzurda / *Gaintzurde* bikotea dela-eta, badira arrazoiak elkarrekin jartzeko; jatorri berekoak izan litezke. Izan ere, *gain-* osagaia denboraren joanean *ga(i)l-* bihur zitekeen. Adibidez, **gaineandu* => *gailendu* bilakatu zen (*FHV*: 126). Beste alde batetik, baliteke *galtzurda* *aintzi* + *zurda* izatea. *Aintzi* + *zurda* elkarketaren bilakaera hauxe izan zitekeen:

**aintzurda => *antzurda => *altzurda => galtzurde*. Ekar dezagun gogora *zurda* terminoa, zentzu meteorologikoan, “antzigarra”, “lainoa” edo “lei zuria” aditzera emateko erabiltzen dela. Osaerari dagokionez, hasierako *g-* hori sarritan hiztunek beste hitz batzuen antzekotasunez itsasten dute. Esaterako, zenbait tokitan *altzairu* barik *galtzairu* esaten dute, hasierako *g-* hori, beharbada, *galtza* hitzaren gurutzaketa fonetikoaren eraginez. Berben arteko analogia izaten da aldaketa eta eboluzio fonetikoaren eragile gailenetariko bat. *Galtzurda* terminoa Azkuek jaso zuen (*DVEF*) eta Gipuzkoako Ormaiztegi herrian erabiltzen zela adierazi zuen. *Gaintzurde*, ostera, Barandiaranek (Barandiaran, 1983) bildu eta marka bezala “G-goi” ipini zuen, Gipuzkoako Goierri eskualdea, alegia.

Iruntz garratza, honelaxe dakar bere hiztegian Azkuek (*DVEF*); *iruntz* “ihintza” da eta *iruntz garratza* “antzigarra”, Bizkaiko Ispaster eta Markina herrietan; “Rocío fuerte, escarchado: forte rosée, givre” adierazten du Azkuek. Beraz, mintzatzaileen adimen begiaren arabera, ematen du garratzen den *iruntza* “antzigar” bihurtzen dela. Jakina *garratz* hitzak “zapora mina” adierazteaz gain, “gogorra eta latza” ere esan gura du.

Izotz berbari, jakina, heldu behar zaio. Aurreko lerroetan sorreraren hipotesia azaltzen saiatu da, *ihintz* + *hotz* hitzen elkarketa, alegia. Hemen aipamen pare bat baizik ez da egingo: batetik, Izagirrek (Izagirre, 1959) Oñatin (Gipuzkoa) bildu zuen, eta, bestetik, Azkuek egindako lan eskergan (*DVEF*) agerrarazten du “antzigarra”ri irizteko.

Izotz babada dela-eta, *babada* hitzaren gaineko azalpena egin zen *ihintzaren* eremua aztertu zenean. Gogoraraziko dugu *babada* berbaren adieretariko bat “ihintza” dela. Beraz, beharbada, Nafarroako Erronkari eta Zaraitzuko hiztunek (*DVEF*) *izotz* terminoaren kontzientzia galdu eta beste zerbait eransteke premia igarriko zuten, horregatik *izotz babada* sortuko zen. (Fenomeno hau hizkuntzaren beste alor batzuetan ere gertatzen da. Ez ohi da arrotza izaten.

Izotz zuri kategoria honetan sartzeko zalantza egon da. Izan ere, *Refranes y Sentencias*-en, besteak beste, agertzen da, eta *DRALVen* hauxe azaltzen da: “helada blanca o escarcha”. Jakina, kontu biak ez dira berdinak, gorago azaldu bezala, gauza bat “izotz zuria” da eta beste bat “antzigarra”. Nolanahi ere, uste dugu hemen aipamena egitea merezi duela fenomenoaren arteko nahasketaren erakusgarri gisa.

Kalamoko berba Azkuek jaso (*DVEF*) eta Erronkarikoa zela adierazi zuen. Beste inon ere ez bide da topatu. Hitz horren berri Estornesek (Estornes, 1997) ere eman zuen. Esaldi berean, definizioa emanda, bi termino oso interesgarriak jakinarazten ditu: “Bizpur gairen buruko biltan den arrosada, elur gisa, da kalamokoa”. Hots, *ihintzaren* eremuan azterturiko

arrosada eta oraingo *kalamokoa*. Jatorriari dagokionez, gaztelaniaz *calamoco* terminoa ere erabiltzen dela azpimarratu behar da: “De *calar* ‘bajar’ y *moco*” (*DRAE*).

Euri-lantxurda, *lantxurda edo zurda*. *Euri-lantxurda (ebilantzurde)* hitz-elkarketa oso bitxia da, osagaiak banaka hartuta: *euri* + *lantxurda*, hezetasunaren eremuan luze eta zabal azterturik (§4.5.3). Berau Gipuzkoako Ikaztegieta herrian baliatzen dute hiztunek (*EHHA*). Aldaera bera ez, baina beste zenbait bai, adibidez, *uri lantxurda (EHHA)* erabiltzen da Lapurdiko Donibane Lohizune herrian “euri xehea” adierazteko, baina ez “antzigarra”. Ikaztegieta gauza bera aditzera emateko, *ebiankame*, *ebilauso*, *ebilanbro* edo *ebizizi* berbak erabiltzen dituzte (*EHHA*). Agian, inguru hartako hiztunak *lantxurdaz* berataz baliatuko ziren “antzigarra” adierazteko eta adimen begiaren bitartez beste zerbait ikusiko zuten *ebi-* eransteke. Jakina, *lantxurda* soila askoz ere arruntago eta hedatuago dago. Adibidez, corpuseko datuetan, Azkueren arabera (*DVEF*) Gipuzkoako Aia herrian, Nafarroako Arakilen eta Zuberoan erabiltzen da; Izetaren hitzetan (Izeta, 1996) Nafarroako Baztan haranean baliatzen dute. Baliteke hitz honek (*laino* + *zurda*) ostagi hau ondoen azaltzea; izan ere, goiko definizioaren arabera “ur-tantak, lainoarekin super-hoztearen prozesuan objektu solido batekin topo egin, 0°C azpitik dagoena, erortzen dena metatu eta haziz doa” (*MetHizt*, 1988). Horrenbestez, batetik, *lainoa* dugu eta bestetik, *zurda*, “antzigarra” bera edo “elur pinporta” (Elhuyar Hiztegia) izan daitekeena. *Zurda* berba Arrese Beitia olerkariak erabili zuen (*DRALV*). Etnometeorologian garrantzi handiko termino dugunez gero, aurretik ipinitako taula (§68. taula) jarriko dugu osterera ere, garbiago uzte aldera:

Hitza	Esanahia	Herria / Euskalkia / Iturria
Lantxurda	Antzigarra	G-Aia / N-Arakil, Baztan / zuberera
Lantxurda	Elur pikorra	G-Bidania / N-Etxarri-Aranatz
Lantxurda	Euri xehea	BN-Arruta / N-Erronkari / L-Ahetzea
Lantxurdina	Euri xehea	Z-Ligi
Lanzurda	Hezetasuna, arropari itsasten zaiona, euria izan balitz bezala	N-Baztan / lapurtera
Lantxurda	Ihintza	Elizanburu
Lantxurdia	Izotz burruntzia	N-Urdiain
Lantxurda	Izotz burruntzia	G-Beizama
Lantxurda	Laino beltza	N-Auritz
Lantxurda	Laino euria	BN-Aldude / erronkarieta / zuberera
91. taula. Izotza: lantzurda (§68. taula)		

Ur-meteoroez bezainbatean, adiera ugariko beste hitz bat dugu: *lantzar(a)* eta aldaerak; lehenengo osagaia, *la(i)no* garbi samarra den arren, zein den bigarrena nekez suma daiteke. Azkuek (*DVEF*) bildu, eta aditzera eman zuen Behe Nafarroako hiriburuan, Donibane Garazi,

Nafarroako Erronkari haraneko Uztarroze herrian eta Zuberoan orokorra zela. Urte batzuk geroago Estornesek (Estornes, 1997) ere eman zuen ele horren berri.

Lei berbari buruz gorago aipatu eta iradoki da, beharbada, latinezko *gelu* hitza oinarri, *jela* hitzaren bokal-aldaketa izan litekeela. Bizkaiko zenbait hiztunen ustez *leia* “antzigarra” da Azkueren arabera (DVEF).

Lei beltz (*leibaltz*) terminoa kategoria honetan sartzeko zalantza izan da; izan ere, Ormaetxek (Euskal Esnalea, 1916: 217 *apud DRALV*) egindako aipamen eta definizio hau besterik ez dugu: “Gabaz bedar eta ostantzeko gauzen ganera jausten dan bustitasunari *iruntza* esaten deusagu. *Leibaltza*, iruntza gogortuta baltziturik dagoanian. *Leikarraldoa*, batez bere ur gitxija, oxintxua gogortuta egoteari, edo orretariko ur gogortuari”. Hiru berbaren berri aipamen bakarrean; batetik, *iruntza* gogortuta egotea bat dator *antzigarraren* definizioarekin, baina, bestetik, bezturik dagoenean, ez. Hortaz, zalantzazko kasua da, *izotz beltza* izan baitaiteke; izan ere, gaur egun Bizkaiko zenbait bazterretan horrelaxe da, *izotz baltza*.

Mukuts hitza Izetak Baztanen bildu eta adierazi zuen *lantxurda* eta *izotz* berben baliokidea: “Gaur mendi zoko oietan bazen *mukutse*” (Izeta, 1996). Kategoria honetan aurkitutako aipamen bakarra da. Ez da erraza jakiten nondik ote datorren edo zein den jatorria. Antzeko bat topatu da, *mukutx*, Garatek aipatuta, baina ez da antzigarra txingor txikia baizik: “mukutx (AN-5vill). «Es el granizo pequeño, en Ituren»” (*DRALV*). Fenomeno desberdinak badira ere, bion osagai nagusia izotza da, hortaz jatorri berekoak izan litezke.

Hormatze Horma zuri Ihintz hotz Intzirri Izotz zuri, izozketa, Izotz karraska Jela Karro(a) (zuri), karroin(te), karroinketa Lantziarra Lei (zuri)
92. taula. Izotza: Izotz zuria

Ordena alfabetikoz *izotz beltzari* legokiokkeen arren, *antzigarra* eta *izotz zuria* antzeko ostagiak eta gainera, esan bezala, nahasteko modukoak direnez gero, erabaki da orain aztertzea. Batzuetan bereizgaitzak dira oso, azaldu bezala, fenomeno bion terminoak batetik bestera ibiltzen dira eta. Aldaera guztiak kontuan harturik, honako hauetara biltzen dira corpusean topatutakoak: *hormatze*, *horma zuri*, *ihintz hotz*, *intzirri*, *izotz zuri*, *izozketa*, *izotz karraska*, *jela*, *karro*, *karroin(te)*, *karroinketa*, *lantziarra* eta *lei zuri*. Jarraian aztertuko dira.

Hormatze elearen gainean aipamen bakarra dago eta testuinguruaren arabera izotz zuria izan daitekeela susmatzen da: “Negu luzeak ditu ontzen baratzeak; Mertxika goiztiarra zaintzen *hormatzeak*”. Hiribarrenek idatzi zuen *Eskaldunak* (1853) izeneko obran (*apud DRALV*).

Horma zuri (*ormazuri*) izotz zuriren baliokidea da. Azkuek (*DVEF*) bildu eta adierazi zuen Nafarroako Baztan haranean eta lapurteraz erabiltzen zela. Nafarroa Behereko Armendaritz herrian ere baliatzen dute (*hormaxuri: EHHA*), baina badirudi “izotz beltza” esan nahi duela.

Ihintz hotz euskara batuan jarri badugu ere, *ihitz hotz*, *ihitzotz*, *itzotz*, eta *izotz* (*isotz*) aldaerak, besteak beste, darabiltzagu corpusean. Aldaera horietatik guztietatik ondorioztatu da gorago *izotz* berba *ihintz hotz* elkarketatik etor litekeelako hipotesia. Gainera, batzuen batzuk herri berean erabiltzen dira. Adibidez, Zuberoako Sohüta herrian *ihitz hotz* eta *izotz* eleak (*EHHA*) baliatzen omen dituzte biztanleek; *ihitzotz* Nafarroa Behereko Larzabale herrian (*EHHA*), *itzotz* Nafarroa Behereko Baigorri herrian eta Euskal Herriko beste muturrean, Bizkaiko Mungia herrian, *isotz* (*EHHA*).

Intzirri berba bakarra da corpusean; izan ere, Bizkaiko Zaratamo herrian (*EHHA*) jaso da termino hori. Itxuraz, bi osagai dauzka bere baitan, bata, garbia da, *ihintz*, baina, bestea, ilun samarra da; *zirri*, baina beste hitz baten bilakaera izan liteke.

Izotz barbari loturikoak dira azterkizun. *Ihintz hotz* terminoaren gainekoekin batera egin zitekeen, baina hobetsi da horren bilakaera eta elkarketak azaltzea. Hiru dira: *izotz zuri*, *izozketa* eta *izotz karraska*. *Izotz zurik* ematen dio izena kategoria honi. Hainbat hizkeratan erabiltzen da, *isoztxuri* eta *izozuri*, Gipuzkoako Tolosa herrian (*EHHA*), *izotxui* Zuberoako Altzai herrian (*EHHA*), *izotz zuri*, Bizkaiko Markina-Etxebarria herrian (*EHHA*), *izotza xuri* Nafarroa Behereko Larzabale herrian (*EHHA*), *isoztxuri* Nafarroako Gaintza herrian (*EHHA*), besteak beste. Beraren zabalkundeagatik erabaki da izendapen hori kategoriatzat hartzea. Izendatze ezin gardenagoa da, zeren, “sortzen den izotza zuria da”; *izozketa* eleak prozesua dagoela ematen digun aditzera. Azkuek bildu eta agertu zuen behe-nafarreraz erabiltzen dela (*DVEF*). Egitura dela-eta, *izotz-* + *-keta* atzizkiaz osaturik dago, hots, “izozteko ekintza eta horren ondorioa”; *izotz karraska* elkarketa Mokoroak biltzen du bere lan erraldoian (Mokoroa, 1990), eta beraren ustez Gipuzkoako Getaria herrikoa da. Zalantzazkoa da, “ligera helada” esan nahi duela dio eta. Nolanahi ere, interesgarria da *izotz* eta *karraska* hitzak elkarrekin erabiltzea, bigarrenak “apurtzen den zerbaiten soinu idorra” gogorarazten digulako, izotza dagoela, soroetan barrena ibiltzen garenean ateratzen dugun zaratatxoa, alegia. Horrenbestez, hiztunen adimen begiak “izotza eta soinua” erlazionatzen ditu. *Jela* hitza gorago aztertu da, izotzaren izakienak aztertu direnean, hain zuzen ere. Hori ere, aipatu bezala, Bizkaiko Markina-Etxebarrian (*EHHA*)

erabiltzen da eta baliteke ondoko hizkeren barneratze edo eragite prozesu baten ondorioa izatea. Aztertutakoaren arabera, *jela* eta *lei(a)* latinezko berba beretik etor litezke.

Hurrengo ele sailari buruz izotzaren izendapenetan aipatu izan da; *karroin* terminoaren gainekoak dira, hain zuzen ere: *karro(a)* (*zuri*), *karroin(te)* eta *karroinketa*. *Karro(a)* (*zuri*) “izotz hutsa” adierazteaz gain, “izotz zuria” ere bada. Honako aldaera hauek ditugu corpusean: *kharro* Zuberoako Ürrustoi-Larrabile herrian (*EHHA*), *kharroa* edo *kharroa xui* herrialde bereko Sohüta herrian (*EHHA*), azken hau *izotz zuri* izendapenaren berdin-berdina. *Karroin(te)* hitzaren aldaerak direla-eta, ondoko hauek: *karruin*, *kharroin*, *kharroñ*, *kharruin*, *karrointe*, *karruinte*, *karrunte* eta *karraoinketa*, besteak beste. Aldaera horiek guztiak, gutxi-asko “izotza” adierazteko ere erabiltzen dira. Banan-banan aztertuko ditugu: *karruin* terminoaren berri Herria egunkarian (*DRALV*); *kharroin* aldaera *izotz* elearekin batera Nafarroa Behereko Ezterenzubi herrian (*EHHA*) erabiltzen da; *kharroñ* eta *kharruin* eleak Zuberoako Domintxaine-Berroeta herrian (*EHHA*); *karrointe*, *karruinte* eta *karrunte* hitzek, *-te* atzizkia dute bigarren osagaitzat, eremu etnometeorologikoan sarri samarra dena: denbora edo ugaritasuna adierazten du, hau da, behin eta berriz gertatzen denean. *Karrointe* aldaera Bonaparteren eskuizkribuan (Bonaparte, 1897) dago eta behe-nafarreraz baliatzen dutela adierazten du; *karruinte*, berak ere aipatuta eta Nafarroa Behereko Donapaleu herrian erabiltzen dela eta *karrunte* elea, *Eskualduna* agerkarian (1906) azaltzen da (*DRALV*), ez dakigu nork idatzia. Amaitzeko, *karraoinketa* berba Azkuek jaso eta (*DVEF*) azaldu zuen goi-nafarreraz baliatzen zirela. Azaldu bezala, hitz honek “izotza” ere esan nahi du Nafarroako Aezkoa haranean. Sail honetako ele guztiak Euskal Herriko ekialdeko hizkeretan erabiltzen dira; beraz, *karroin* terminoaren jatorria ekialdetik bertatik etor litekeelako hipotesia ez da baztertzekoa. Mendebaldeko euskalkietan ez bide dago horren inongo arrastorik.

Lantziarra hitza dela-eta, horixe besterik ez dela aurkitu nabarmendu behar da. Nafarroako Ezkurra herrian erabiltzen da (*EHHA*). Baliteke *antzi(g)arra* terminoari *l-*epentetiko erantsi izana, beste hitzen batekin gurutzaturik. Agian, *lan(o)-* lehenengo osagaidun eleren batekin. Nolanahi ere, beste zenbait bazterretan, azaldu bezala, *antzigarrari* izena emateko *lantzara* aldaera baliatzen dute hiztunek.

Lei edo *lei zuri* dira azken berbak. Horiek, ostera, Bizkai aldean erabiltzen dira. *Lei* soila agertzen direnen artean, *lai*, *lei* eta *leie* aldareak ditugu. Lehenengoa Bizkaiko Uribe eskualdeko Etxebarri herrian baliatzen dute hiztunek (*EHHA*). Corpuseko datuen arabera, *lai* aldaera erabiltzen den toki bakarra dugu Etxebarri. Ez dakigu beste berba batzuetan *-ei* > *-ai* aldaketa gertatzen ote den. Halaber, aurrerago aipatuko denaren arabera, “izotz beltza” *lei beltz* esaten dute. Azkueren hitzetan (*DVEF*), *lei* Bizkaiko Arratia haranean eta Gernika, Lekeitio,

Mundaka, Orozko herrietan erabiltzen da eta *leie*, Bizkaiko Zeanuri herrian (EHHA). “Izotza” esan nahi izateaz gain, “izotz zuria” ere adierazten du herriotan. Azkenik, *lei zuri*, Getxo, Laukiz eta Mungia herrietan erabiltzen da (EHHA). Jasotako aldareak *leisuri* (Getxo, Laukiz) eta *leixuri* (Mungia) dira. Agiri denez, Bizkaiko mendebaldeko terminoak ditugu.

<p style="text-align: center;"> Antzigar, intziar Horma (beltz) Horma karroin Horma zuri Hormate Izotz beltz / gaitz Izotz-karroin Izotz-horma Jela(te) Karrailo, Karraldo(i) Karroa, karroin, karru(n) (beltz), (zuri) Karruleida Lauparda Lei (beltz) Lei karraldo Lanbroe Mitratu </p>
93. taula. Izotza: Izotz beltza

Izotz beltza kategoriak dauka bere baitan ele gehiago aurreko biek, *antzigarrak* eta *izotz zuriak* baino. Hala ere, agerian dagoenez, eremu honetako terminoak batetik bestera dabilta eta baten batek hiru kategorietarako balio du. Jarraian ordena alfabetikoz zerrendatuko dira, beraiekin zenbait sail egin badaiteke ere: *antzigar*, *horma (beltz)*, *horman-karroin*, *horma zuri*, *hormate*, *intziar*, *izotz beltz / gaitz*, *izotz karroin*, *izotz-horma*, *jela(te)*, *karrailo*, *karraldo(i)*, *karroa*, *karroin*, *karru(n) (beltz)*, *(zuri)*, *karruleida*, *lauparda*, *lei (beltz)*, *lei karraldo*, *lanbroe* eta *mitratu*. Horiek guztiak kategoria honetan sartuta egon arren, batzuetan zalantzak sortu dira hitzaren esanahia garbi asko egon ez baita. Nolanahi ere, horrelaxe erabaki eta era horretara aztertuko dira.

Antzigar berba sakon aztertu izan da bere izena daukan kategorian. Esanak esan, esplikatu behar da, *izotz beltza* adierazteko badirela zenbait aldaera. Adibidez, *antzier* eta *antzier* Gipuzkoako Beizama herrian (EHHA) erabiltzen dira eta *antzier* eta *antzierra* Bizkaiko Nabarniz herrian (Martinez de la Cuadra, 2006). Honako aipu interesgarri hau jaso zuen:

Leidxe ikusi ezin denean eta oso gogortuta dagoenean, *antzierra* esaten da. *Lei baltza* ere esaten da. Ik. lei baltza, lei suridxe. *Antzierra* leidxe bayo be gogorra da. Leidxe ei leike, leidxe da surittu apur bet eta ba leidxe da. Baya *antzierrak* ya asko gogortzen deu, lurre be bai, euriri..., posurik atrapetan badeu, kristela eitte tzo ganien da axe da *antzierra*. Leidxe suridxe ixeten da, *antzierra* gris antzera. *Antzierra lei baltza* da; kristela ikusten da bakarrik, suridxe esta ikusten leidxen modun. Antzierra esta eitten, suridxe esta antzierra, illune ba, gogortu eitten deu. Ba etxak igerri eitten, gogortute beye. Leidxe da suridxe. Da suridxe egon es, da gogortute badau basie ba ori, ba *antzierra*. ? —Ño, *antzierra* ein dxok!. (Martinez de la Cuadra, 2006: 64-65)

Deskripzioaren arabera, hiztun horrek azterkizun diren hiru kategoriok bereizten ditu azalpenean: beraren ustez, gure terminologiaren arabera, *antzigarra izotz beltza* da eta *leia izotza*. Beste toki batean *lei zuria* definitzen du, gure *izotz zuria*. Haren aldaera *intziar* berba da, *antzigarrekin* batera ere aztertu dena. Kasu honetan, *izotz beltza* ere esan nahi du. Azkuek bildu (*DVEF*), eta Bizkaiko Orozko herrian erabiltzen zela adierazi zuen. Lekeitio aldean, berriz, lekukotasun hau dugu lei beltzaren inguruan:

Leia igarten da hotz handia egin eta bedarrak-eta zuri-zuri agertzen diranean. Lei baltza, ostera, egiten dabenean izotzu arren ez da ikusten. Leia baino hotzago izaten da. “Lei baltza dagonean izaten dira kotxe istripurik handienak”. Gaztelaniazko “helar” Lekeitio eta inguruetan “leia egin (edo bota)” esaten dogu. (Lekeitio lantaldea, 2001: 22)

(*H*)orma saila dugu orain aztergai. *Horma* eta *horma beltz* Lapurdi eta Nafarroa Beheren hedatu samarturik daude. Nafarroako hizkeretan, berriz, *izotza* esateko erabiltzen da gehienbat *horma* elea. *Horm* aldaera ere jasota dago Nafarroa Behereko Bidarra herrian (*EHHA*); *horma*, adibidez, Lapurdiko Azkaine eta Mugerre herrietan (*EHHA*) erabiltzen da eta *horma beltz* Nafarroa Behereko Armendaritze eta Ezterenzubi herrietan eta Lapurdiko Ahetze herrian. Armendaritzen, bilduriko datuen arabera, eta harrigarria bada ere, *horma zuri* (*EHHA*) ere erabiltzen da kategoria bera izendatzeko. *Beltz* izenondoak *izotz beltzaren* fenomenoaren ikusgaiatasuna ematen du aditzera; *horma karroin* elkarketak zenbait aldaera ditu: besteak beste, Lapurdiko Urketa herrian *ormakharroñ(a)* batu da (*EHHA*); goratxoago aipaturiko Bidarra herrian *ormakharroin* —*ormabeltz* ere bai—. Osagaiei dagokienez, biak garbi askoak dira, bai *karroin*, bai *horma* eleek *izotza* esan nahi dute eta biek bat eginda zenbait bazterretan *izotz beltza*; azkenik, *hormate* (*ormate*) berba dugu, Santa Grazin jaso (*EHHA*). Bertan *kharru* terminoa ere erabiltzen da. Osaera denaz bezainbatean, *horma + te*, azken hau gorago aipaturiko atzizkia, denbora edo ugaritasuna adierazi nahi duena. Nahiko arrunta izaten da eremu etnometeorologikoan.

Jarraian *izotz* saila dugu; batetik, kategoria honi izena ematen diona, *izotz beltz*, eta bestetik, *izotz gaitz*, *izotz karroin* eta *izotz horma*. *Izotz beltz* eta aldaerak hainbat bazterretan erabiltzen dira: *izotz baltz* (*isoz baltz*) Bizkaiko Markina-Etxebarrin eta Bolibarren, *izotz beltz* bera Nafarroako Leitzan eta Mezkiritz herrietan eta Zuberoako Ürrüstoi-Larribile herrian eta *izozbeltz*, Gipuzkoako Beizaman. Datu horiek guztiak *EHHA*n bildurik daude (*EHHA*). Esan gabe doa, *izotz beltz*, *horma beltz* eta *lei beltz* era berean sortutako terminoak dira; *izotz gaitz* Mezkiritzen (*EHHA*) erabiltzen da *izotz beltzarekin* batera. Euskal Herriko ekialdeko hizkeretan *gaitz* izenondoak “handi-handia” esangura hartzen du bere baitan: “4 adj. Oso handia. Haserre gaitza. Larramendiren astinaldi *gaitzak* zabaldu zuen lurrikara. Begiramen *gaitza* zioten eskribauari, apaiz eta fraideei bezalakoa. Neurri *gaitzekoa* zuen sudurra” (*EH*); beraz, inguru

hartako euskaldunen adimen begiak horrelaxe ikusten zuen horrelako izotz mota. Aurreratxoago ikusiko denez, beste zenbait tokitan *horma gaitza egin* lokuzioaz ere baliatzen dira; *izotz karroin* elkarketa, goragoko *horma karroinen* antzera eraturik dago. Adibide bakarra dugu, Azkuek bildua (*DVEF*), eta ez du beste daturik ematen; azkenik, beste elkarketa bat, *izotz horma (izotzorma)* Zegaman bildua (*EHHA*). Antza denez, hiztunek beste osagai baten beharra sumatu eta bi ele batera erabiltzea erabaki zuten behinola.

Jela eta *jelate* hitzek *izotza* eta *izotz zuria* ez eze, “izotz beltza” ere adieraz dezakete. Lehenengoa, Azkoitian eta bigarrena, Getarian (*EHHA*) jasota daude. *Jelate* hitza gorago azaldu bezala, eratorria da *jela + te* atzizkia, hain zuzen ere.

Karrailo eta tankera bereko hitzak. *Karrailo* berba Labayru Hiztegiari hartu zaio eta berak ez dakar beste azalpenik (Labayru Hiztegia). *OEHN* ez dago, eta ez dugu beste inongo daturik lortu. Hala ere, litekeena da *karraldo(i)* eta gainerako berbeekin zerikusia izatea. Izan ere, corpuseko datuen arabera, mendebaldeko euskalkietan erabiltzen dira horrelako terminoak; *karraldo* hitza izotza eremuaren zenbait kategoriatan erabiltzen da. Izotz beltzari irizteko, Azkueren esanetan (*DVEF*), Bizkaiko Gernika, Markina eta Otxandio herrietan. Gorago aztertu bezala, lehenengo osagaia karro berba izan liteke, baina ilun samar dago bigarrena. Hala ere, *karraldoi* terminoa ere badugula, beharbada *-doi* atzizkia izan liteke, gaur egun bazter gehienetan *-di* bihurtu dena, naturan izaten diren multzoak adierazteko; adibidez, *sagardi*, *zuhaizti*, *ezpeldoi*, *otadui*... Nabari da Euskal Herriko mendebaldean eta ekialdean ustezko jatorri bereko terminoek baliatzea, mendebaldean *karraldo(i)* eta ekialdean *karroari* lotutako eratorriak eta elkarketak. Litekeena da antzinako berba komuna izatea; *karraldoi* berba, aldiz, Azkueren hiztegian agertzen den arren (*DVEF*), Izagirrek (Izagirre, 1959) ez dakar; izan ere, Gipuzkoako Oñati herrian erabiltzen da. Bestalde, gaur egun, Bizkaiko Zeanuri herrian baliatzen dute hiztunek (*EHHA*). Bestalde, aurrerago aztertuko dugun *izotz burrunzia* kategorian *karraldori* loturiko hainbat berba ditugu.

Segidan *karro* elearekin zerikusia duen hitz sorta. Datu guztiak Euskal Herriko Hizkeren Atlasetik (*EHHA*) bildu dira. Lehendabizikoa, *karro* bera, zenbait aldaera dituen Zuberoako herrialdean; *kharrro* Ürrustoi-Larrabile herrian erabiltzen da eta *kharru* Altzürükün; *karroinen* aldaeretan, *karroña*, Lapurdiko Ahetze herrian; *karrun*, Nafarroa Behereko Garruze herrian eta *kharruñ*, Lapurdiko Bardoze eta Nafarroa Behereko Arruta herrietan. Bestalde, *beltz* izenondoa dutela, *kharroa beltz*, Zuberoako Sohüta herrian, *kharru beltz*, herrialde bereko Pagola herrian eta harritzeko modukoa izanagatik ere, Lapurdiko Bardoze herrian, aldi berean, lekukoen hitzetan, *kharrun beltz* eta *kharrun zuri*. *Zuri* izenondoa *izotz zuria* izendatzeko erabiliagatik ere, kasu honetan fenomeno bientzat azaltzen da. Beharbada, lekukoaren okerren bat izan liteke.

Azkenik, Zuberoako Altzürükü herrian baliatzen duten *kharruleida* termino interesgarria; izan ere, badirudi mendebaldeko *lei* hitza bertan dagoela. Bestalde, Azkueren arabera (*DVEF*) Zuberoan *leira* edo *leida* “costra de hielo, glissoire” da (Harluxet); beraz, horra hor datu ohargarria.

Lauparda berba Gipuzkoako Bergara herrian eskuratu du Elexpuruk (Elexpuru, 2004). Lortu den lekukotasun bakarra da, ez bide da beste inon ere erabiltzen. Halaber, hitz horrek beste adiera bat dauka Bergaran bertan eta inguruan, “mozkorra” (Elexpuru, 2004). Zein ote da beraien arteko lotura kontzeptuala? Agian, hiztunen adimen begiaren arabera, fenomenoaren gogortasuna.

Lei (*beltz / karraldo*) eta kidekoak dira aztergai. *Leie* –horrelaxe dago jasota, *-a* eta guzti–, Bizkaiko Zeanuri herrian baliatzen dute; Azkueren esanetan (*DVEF*), berriz, bizkaiera osorako *lei baltz* ematen du. Era berean, berrikiago, besteak beste, Lekeition (Lekeitioko lantaldea, 2001: 22), Getxon (*EHHA*) eta Mendatan (Mallea, 2002) elkarketa bera erabiltzen da, *lei baltz*. Bizkaiko Uribe-Etxebarri herrian, *lai baltz*. Getxon honako hau zioen lekukoak: “Léisuri te léibaltza. Lei suri goixetan (eg)oten da kampo dusti suri suri suri. Ta lei baltza (eg)oten da kampo gogor eta otz eta esétango errasturik pes” (*EHHA*). Hortaz, erabateko herri ikuspegia, hiztun jakin baten adimen begiaz ikusita.

Lanbroe elea ere harrigarri samarra da. Izan ere, *lanbro* hitza ezagun askoa da beste eremu batzuetan, Eurian zein Laino eta Lanbroan. Aipamen bakarra Azkuek (*DVEF*) bildu eta adierazi zuen Nafarroako Arakil herrian erabiltzen zela. Bestalde, ezin jakin daiteke, amaierako –e hori artikulua ala itsatsia den.

Kategoria hau amaitzeko, *mitratu* berba dugu azterkizun. Nafarroa Behereko Ezterenzubi herrian (*EHHA*) bildua da. Handik hurbil, Baigorriin, *borta mitratua* esaten dute “kristaldun atea” adierazteko (*OEH*). Baliteke ele honek frantsesarekin zerikusia izatea; izan ere, frantsesez “kristal” *vitre* esaten da; beraz, inguruko hartako euskaldunen adimen begiak horrelaxe ikusten du *izotz beltza*, kristala izango balitz bezala.

Elur saila	Horma saila	Izotz saila	Jela saila	Kandela saila
Elur-bloke Elur-kandela Elur-negar Elur-lausaro Elur-ziri	(Horma)-berina Horma-kizki Horma-lindiri (dindirri) Horma-makila Horma-peska Horma-tortxa Horma-txorro Horma-xirrixta Horma-zintzarri Horma-zidor Horma-ziri(te) Horma-ziri dindirri Horma-ziztor	Izotz bela Izotz-burruntzi Izotz garranga Izotz-kandela, -kandelero, -kandeloe, -kandelon Izotz-kozkor Izotz-ziztor Izoztruma	Jela (dindirri) Jela-ziri	Kande(la)ja, kandalu Kandela-negar Kandelez de karru (gask.) Teilatuko kandela
Karroin saila	Lei saila	Sail gabekoak		
Karron-kandelu Karroin-metxa Karroin-tortza Karroin-ziri Karroin-tilingo Karru.kandela	Lei-kandela Lei-karraldo Lei-negar Leien mokoa Lei-txorro	Antzigar Arañ Bitre Engalas Garranga Glaxa Glazunak Kirriski Koila-zintzarri	Kristal Kristira Latrontxa / Lantrotxa (kandela) Lantzeta Lantzurda Miall Zintzili(kario), txintxirri	Zinzirrin Ziri Zitoitza glazatu Ziztor
94. taula. Izotza: Izotz-burruntzia				

Naturak eman ohi dituen irudirik ikusgarrienetan, izotz-burruntziak izaten dira ederrenetarikoa: “nonbaitetik tantaka erortzen den ura izozten denean zintzilik gelditzen den izotz-puska” (Harluxet). Horrelako bat ikusi eta gure adimen-begiak irudi ugari sortu ohi ditu. Izan ere, arbasoengandik fenomeno harrigarri hori izendatzeko ezin konta ahal hitz heldu bazaizkigu ere, gure irudimenak *izotz-burruntzia* sumatzen duen bakoitzean, etengabe jardun izan du irudi berriak sortuz. Hauxe da, hain zuzen ere, lexiko etnometeorologikoaren aldetik, kategoria batek daukan esparrurik interesgarrienetakoa. Hori dela-eta, euskalkiak euskalki eta aldaerak aldaera, euskararen iruditeriaren oparotasuna kontuan harturik, adimen begiaren azterketa sakona egingo da. Egindako corpusean 112 hitz, aldaera eta guzti daude. Goiko 94. taulan corpuseko hitzak, batetik, sailkakoak ezarri dira eta bestetik, sail gabekoak, ordena alfabetikoz. Saildunek berba sorta jakina osatzen dute eta sail gabekoak hitz bakanak dira. Sailak sail eta hitzak hitz, sortutako irudi eta adieraziaren arabera saiatuko da bildutako berba guztiak elkarri lotzen. Sei sail eratu dira: elurra, horma, izotza, kandela, karroina eta leia. Azkenik, sail gabekoak ditugu. Adimen-begiaren arabera, “eite luze, zorrotz eta hotza” da izotz burruntzia (Harluxet). Mendeak joan, mendeak etorri, hiztunen adimen begiak iruditeria oso zehatza sortu izan du. Iruditeria hori era honetara sailkatzen da.

Argizari edo zuziaren itxura: *elur-kandela, izotz-bela, izotz-kandela, kandela, kandela-negar, kandelez de karru, karron kandelu, karru-kandela, lantrontxa / latrontxa (kandela), lei-*

kandela eta *teilatuko kandela* (eta horien guztien aldaerak), *horma tortxa*, *karroin-metxa* eta *karroin-tortza*.

Tresna baten itxura: *elur-ziri*, *horma-kizki*, *horma-makil*, *horma-zintzarri*, *horma-ziri(te)*, *horma-ziri dindiri*, *izotz-burruntzi*, (*izotz-*) *garranga*, *karroin-ziri*, *jela-ziri*, *koila-zintzarri*, *lantzeta*, *txintxilli*, *txintxirri*, *zinzirrin* eta *ziri*.

Janariaren itxura: *horma-ziztor*, *izotz ziztor* eta *zizt*.

Beiraren itxura: (*horma-*) *berina*, *bitre*, *kristal*, *kristira* eta *mirail (miall)*.

Malko edo negarren itxura: *elur-negar*, *kandela-negar* eta *lei negar*.

Dilindan dagoenaren itxura: *horma-lindiri*, *kharruña-tilingo*, *jela-dindirri*, *leien moko* eta *zintzilikario*.

Isurkariaren itxura: *horma-txorro*, *horma-xirrixta* eta *lei-txorro*.

Multzoaren itxura: *elur bloke* eta *izotz kozkor*.

Maileguak: *engalas*, *glaxa* eta *glazunak*. Hemen ere beiraren itxura adierazten dutenak sartuko lirateke.

Bestelakoak: *elur lausaro*, *horma-peska*, *horma-zidor*, *izoztruma*, *lei-karraldo*, *antzigar*, *arañ*, *kirriski*, *lantzurda* eta *zitoitza glazatu*.

Argizari, kandela edo edo tortxaren itxura dute “izotz burruntziek”, baina alderantziz, buruz behera, alegia. Antzinako euskaldunen adimen begiak era horretara sumatzen zituen. Ziurrenik, kandlekiko pertzepzioa aplikatu zien “izotz burruntzei” metafora oso ederra eraturik. Argizaria, “gehienetan zilindro bat osatuz, inguratzen edo biltzen duen mukia, argi egiteko erabiltzen dena” (Harluxet). Beraz, euskaldunen adimen begiak antzeko zerbait ikusi zuen izotz-kandlei erreparatuta, eta metafora liluragarriaz baliaturik, osatu zuen eremu hori. Gaztelaniaz ere antzeko terminoak erabiltzen dira: “candelizo. Una de las muchas formas con las que, coloquialmente, se conoce al → carámbano. Comparte idéntica raíz y significado con *candela* (localismo alavés), *candelón* (localismo aragonés) y *canelón*” (Viñas, 2019). Horren inguruan, honako termino hauek bildu dira datutegian: *elur-kandela*, *izotz-bela*, *izotz- kandela*, *kandela*, *kandela-negar*, *kandelez de karru*, *karron-kandelu*, *karru-kandela*, *lantrontxa / latrontxa (kandela)*, *lei-kandela* eta *teilatuko kandela*, eta horien guztien aldaerak. Bestalde, ondoko hauek: *horma-tortxa*, *karroin-metxa* eta *karroin-tortza*. Azter ditzagun berbok multzoka. Lehenengo eta behin elkarketarik gabeko terminoak.

Kandela berba, elkarketarik sortu gabe, Bizkaiko Mendebaldeko zenbait herritan erabiltzen dute hiztunek, Sondikan (EHHA) eta Arrietan (Gaminde, 2001a), besteak beste. Antzekoak ondoko hauek ditugu: *kandelero* Bizkaiko Lekeitio eta Gipuzkoako Orio herrietan (EHHA); *kandelo*, Korte Zubin, *kandeloe*, Ibarburin eta *kandelo*, Busturian, guztiak Bizkaiko

herriak (*EHHA*); Azkuek (*DVEF*) ere *kandelon* bildu zuen Erronkarin, eta ekialdeko euskalkietan, *khandalu*, *kandelu* eta *kanderu* (*EHHA*) ditugu. Lehenengoa Montorikoa, bigarrena Sohütakoa eta hirugarrena Ürrustoi-Larrabilekoa, hirurak Zuberoako herriak. Montorin gaskoia ere erabili ohi dute bertako hiztunek eta, horregatik *EHHA*n *kandeloz* aldaera ere bilduta dago. Zer esanik ez, bi berben arteko antza nabaria *Lantrotxa* edo *latrontxa* hitzak Euskal Herriko medebaldean erabiltzen dira, *lantrotxa*, Gernikan (*DVEF*) eta *latrontxa* Arabako zenbait herritan (*DVEF*).

Latrontxa kandela elkarketa Arabako mugatik hurbil dagoen Gipuzkoako Oñati herrian ere jasota dago (Izagirre, 1959). Gaztelaniaz, “antorcha” eta frantsesez “torche” berbak direla kontuan harturik, ezin uka daiteke beraien arteko antzekotasuna.

Elkarketei dagokienez, honako hauek aztertuko dira.

Kandela bigarren berba duten elkarketetan, *elur* (*edur*), *izotz*, *karru*, *karroin*, *latrontxa*, *lei* eta *teilatuko* terminoak azaltzen dira. Gogora dezagun gaztelaniaz ildo honetako *candela* eta *candelizo* erabiltzen direla. Datutegiaren arabera, honako emaitza hauek ditugu: *elur-kandela* – *edur kande*le– elkarketa Gamindek (2001a) bildu, eta adierazi zuen Bizkaiko Leioa herrian erabiltzen zela; *izotz-kandela* Azkuek (*DVEF*) dakar bere hiztegian eta Markinako hitza zela azaldu zuen. Aldaera berriago bat *izozkandela* dugu, Gipuzkoako Beizama herrian bildua (*EHHA*); *karron-kandelu* Azkuek bildu zuen hiztegian (*DVEF*) eta zuberera euskalkiaren elea zela agertu zuen; *karru-kandela* (*kharru kandale*) elkarketa berrikiago dago jasota Zuberoako Santa Grazi herrian (*EHHA*); Nafarroa Behereko Bastida herrian, gaskoizko terminoa ere batutakoa da, *kandelez de karru* (*EHHA*). Begi-bistakoa da euskal elkarketaren antz handia duela. Ni neu entzunda nago duela 12 urte Bastida herrian taberna batean hiru lagun gaskoiz mintzatzen. Goratxoago azpimarratu denaren arabera, *latrontxa-kandela* elkarketa Oñatin (*EHHA*) baliatzen dute hiztunek. Beste inon ere ez da horrelakorik aurkitu. *Lei* berbari loturik ere badugu *lei kandela*. Azkuek (*DVEF*) dioenez, Bizkaiko zenbait bazterretan erabiltzen da: Arratia, Orozko eta Txorierrin. Berrikiago, herrialdeko bereko Errigoiti herrian ere jaso da elkarketa bera (*EHHA*) eta hantxe ere, aldi berean *lei-karraldo* elkarketa. Sail honi amaiera emateko, *teilatuko kandela* aipatu behar da. Bizkaiko Larrabetzu herrian bildu da (*EHHA*) eta horretariko terminoak dituen elkarketa bakarra da datutegian.

Kandelaz gain, Nafarroa Garaiko Abaurregaina herrian *izotz-bela* (*izoz bela*) elkarketa (*EHHA*) bildu da. Aldaketa bakarra *kandelaren* ordez gaztelaniatiko hitza *bela* erabiltzea da.

Kandela elkarketetan bigarren berba ez ezik, lehenengoa ere badugu, *kandela-negar*, hain zuzen ere. Metafora ezin ederragoa osatzen du; izan ere, hitz berberak erabiltzen dira Abadiñon (Gaminde & Salterain, 1991) *kandela piztuta* dagoela, goitik behera erotzen diren

argizari zatiak izendatzeko. *Izotz-burruntziari* irizteko, Lekeition bilduta dago elkarketa polit hau (EHHA).

Bestalde, ekialdeko zenbait euskalkitan euskaldunen adimen-begiek zuzi gisa ikusi izan dituzte izotz-burruntziak. Horrela, *horma-tortxa*, *karroin-metxa* eta *karroin-tortza* eta berauen aldaerak ditugu.

Horma-tortxa (ormatortxa) Nafarroa Behereko Irisarri herrian erabiltzen da (EHHA). Zuzia frantsesez, “torche”, gaztelaniaz “antorcha” eta okzitanieraz “entorcha”; beraz, baliteke jatorri erromanikoa izatea; handik ez urrun, Behorlegin, *karroin-tortza* (EHHA) baliatzen dute eta herrialdeko bereko Garruze herrian *karroin metxa (karruin metxa)* elkarketa erabiltzen dute bertako hiztunek. Azpimarratzekoa da hiru elkarketok elkarretatik hurbil diren hiru herritan jasota daudela.

Tresna baten itxura dela-eta, antzinako euskaldunen adimen-begiak izotz-burruntziei tresna antza ere hartzen zien. Hori dela-eta, zenbait hitz eta elkarketa bildu dira. Honako hauek dira: *elur-ziri*, *horma-kizki*, *horma-zintzarri*, *horma-ziri(te)*, *izotz-burruntzi*, *(izotz)-garranga*, *karroin-ziri*, *jela-ziri*, *koila-zintzarri*, *lantzeta* eta *ziri*. Zein lanabes adierazi, horrelako metafora eratu da. Tresnak burruntzia, garranga, kizkia, lantzeta, zintzarria eta ziria dira. Ondoko 95. taula hau eratu da hobeto sailkatzekotan:

+Burruntzia Izotz-burruntzia	+Garranga Izotz-garranga Garranga	+Kizkia Horma-kizki Kizki
+Lantzeta Lantzeta	+Zintzarria Horma-zintzarri Koila-zintzarri	+Ziri(te)a Elur-ziri Horma-ziri(te)+(dindiri) Karroin-ziri Jela-ziri Ziri
95. taula. Izotz-burruntzia: tresna baten itxura		

Kategoria honi izena ematen dion hitz elkarketa izango dugu lehendabizi aipagai, izotz-burruntzia, hain zuzen ere. *Burruntzia* hauxe da:

1 iz. Okela su gainean erretzeko erabiltzen den burdinazko ziria. Ik. **gerren**. *Oilanda lumatu eta burruntzian sartu. Burruntzian erreta. Burruntzia eskuan harturik. Errementariaren etxean zotza burruntzi* (esr. zah.). **2** iz. Intsektu buru-biribila, sabelalde luze eta mehea eta lau hego garden eta zaintsu dituen (Libellula). Ik. **mariorratz**; **mariburduntzi**; **sorgin-orratz**. *Burruntziak hirurogeita bost kilometro egin ditzake orduko*. **3** iz. (*izotz* eta kidekoen eskuinean). Zintzilik dagoen izotz puska. Ik. **kandela 2**. *Teilatuetako izotz burruntziak antzo. Horma burruntzi tenteak. (EH)*

Zaila da adieraztea zein den ustezko lehenengo esanahia, baina zentzuzkoa da pentsatzea burdinazko tresna dela jatorria. Hortik beste eremuetara hedatuko ote zen susmoa dago. Lehenengo definizioan “hagaxka-moduko” hori hartuko zuten aintzat antzinako

euskaldunek eremu lexikoak handitzeko. Antza denez, “teilatutik dilindan jausten den izotz zati hori” euskaldunek “hagaxka” gisa ikusiko zuten metafora ederra sorturik. Ohar gaitezen hirugarren definizioan intsektuaren gorputz luzea “hagaxka”-tzat ere harturik dagoela. Hitz elkarketari dagokionez, datutegiko adibidea Gipuzkoako Legazpi herrian jasota dago (*DVEF*). Horretaz gain, *burduntzi* berba eremu etnometeorologikoan ere erabiltzen da hodei mota bat izendatzeko. Izan ere, Azkueren arabera (*DVEF*) “estrato, nubes de forma de cintas largas negras que traen lluvias” dira. Berriz ere, “luzera”ren kontzeptua. Eguneroko bizitzaren hautematean lexikoaren zabaltze garrantzitsua gertatzen zen sor zitezkeen hutsuneak betetzeko.

Bigarren izena eta hitz ekarketa, *izotz-garranga* da. *Garranga* hauxe da:

1. Amua, eta bereziki, amuaren zati zapala edo artza. 2. Txakurrei jartzen zaien lepokoa, burdinazko puntak dituen. 3. Ardiei belarrian egiten zaien ebaki-mota. (Harluxet)

Horietaz gain, beste esanahi batzuk dakartza. Honako aipamen hau dago, besteak beste: “(G-azp), instrumento a modo de tenedor para coger peces en aguas de poca profundidad” A. (*OEH*). Esangura guztion artean, nolabaiteko kontzeptu komuna sumatzen da, zorroztasuna, alegia; amuak, lepokoak, ebakiak eta sardexka moduko trepetak zorrotzak dira eta izotz-garrangak, jakina, zorrotzak izaten dira. Bestalde, terminoen erabilerari dagokionez, hiru adibideak elkarretatik hurbil samar dauden herrietan batu dira: Gipuzkoako Oñati herrian, *garranga* (Izagirre, 1959), Arabako Aramaion, *garranga* ere bai (*EHHA*), eta, Gipuzkoako Leintz Gatzagan *izotz-garranga* elkarketa (*EHHA*). Agiri denez, metafora hori inguru horretan sortutakoa da. Bestalde, Arabako erdararen erabiltzen den berba dugu. *OEH*k ondoko hau dakar *garrangari* buruz:

(V-och-gip, G-goi-nav), **karranga** (V-gip-al), **karranka** (Lcc). Ref.: A (*garranga, karranga*); *EDEL* 225; Iz *Als* (*izotzá*), *ArOñ*. “Carámbano”, “helada <e-> o hielo” Lcc. “Canelón, carámbano de hielo” A. “Costra de hielo” Ib. Cf. *VocNav*: “*Garrangla*: carámbano de hielo que cuelga de un tejado (Améscoa)”. En *Laminoria (Alava) hay carranca 'hielo de los charcos'*. *Biotzean labe gorria ta buruan izoztea ta garranga dutenak*. Zait Plat 83. (*OEH*)

Izotz-burruntziari irizteko hirugarren tresna *kizkia* da. *Kizkia* hauxe da: 1. “Makila gakoduna. 2. Gako mutur-zorrotza, gauzei heltzeko erabiltzen dena” (Harluxet). Beraz, ostera ere errepikatzen da lehengo kontzeptua, zorroztasuna; bai makila, bai gakoak zorrotzak dira eta teilatuetatik dilindan dauden izotz-zatiak ere bai. Azkuek hauxe dakar: *kizki*, Nafarroako Baztan haranean, Nafarroa Behereko Aldude haranean eta lapurteraz erabiltzen dela, eta Baztanen, batik bat, *horma-kizki* (*ormakizki*) elkarketa (*DVEF*). Gaztelaniaz antzeko kontzeptua ere erabiltzen dute, *chuzo*: “el chuzo es un palo armado con un pincho de hierro que se usa para defenderse y que su origen está en la palabra suizo, probablemente porque los soldados suizos usaban esta arma” (*DRAE*). Hortaz, irudi berdintsuaz baliatzen dira gaztelaniazko hiztunak ere.

Laugarren tresna *lantzeta* da, eta baliteke aurrekoarekin zerikusia izatea. Datutegian adibide bakarra aurkitu da, Dorraon (Nafarroa) erabiltzen den hitza, hain zuzen ere (*EHHA*). *OEH*ren arabera, *lantzeta* gaztelaniazko “lanceta” da; beraz, “lantza txikia”. Ostera ere, tresna puntadun eta zorrotza. Agian, hitzak *lan-* hasiera duenez gero, lortu du nolabaiteko arrakasta. Izan ere, hamaika hitzek daukate *lan-* osagaia lexiko etnometeorologikoan.

Bosgarren tresna, *zintzarria* da: “abereen lepotik zintzilika jartzen den kanpaitxo” (Harluxet). Kasu honetan irudi metaforikoa desberdin samarra da. Goitik beherako tresnatxoa bada ere, ez dirudi zorrotasuna bere kualitate nagusia denik. Bi elkarketa ditugu, *horma-zintzarri* eta *koila-zintzarri*. Lehenengoa, *orma zintzarri*, Ataunen (Gipuzkoa) jasotakoa da (*EHHA*); lehenengo hitza oso arrunta da zenbait hizkeratan “izotza” adierazteko. Bigarrena, —*kollezintzerri*— Nafarroako Ezkurra herrian bildutakoa da (*EHHA*). Lehenengo hitza, *koila*, zenbait euskalkitan usu baliatzen dute “izozten hasten den ura” aditzera emateko (*OEH*). Erromanikotzat jotzen da:

Bouda BAP 15, 249 lo considera préstamo románico. El verbo románico que procede de *coagulare* y está muy extendido en la Romania, se llama en Anso *kwal'a* ‘cuajar’, *kwal'ada* ‘nata’, ‘crema’, etc. Cat, *cuallar*. Puede contribuir a ello el mfr. y nfr. *caillot* ‘petite masse á demi solide, produite dans un liquide’. (Agud eta Tovar, 1989-1995)

Beste trena bat *txintxirri*, *txintxilli* eta *zinzirrin* dira: “Haurrentzako jostailua, eragitean txintxarri edo kaskabiloaren antzeko hotsa ateratzen duena” (Harluxet). Aurreko *zintzarri*arekin zerikusia izan lezake. Abere batzuek lepotik zintzilika erabiltzen duten tresna hori izan daiteke. *Txintxirri* Bizkaiko Dima herrian bilduta dago (*EHHA*); *txintxilli* handik hurbil dagoen Orozko herrian eta *zinzirrin* are urrunago dagoen Nafarroako Arbizu herrian (*EHHA*). Goitik beherako tresna, dilindan dagoena da hiztunen adimen-begiak gogoan gorde duena.

Azken tresna *ziria* dugu: “Zurezko edo metalezko atala, puntako ertza aski zorrotza duena, pitzadurak zartarazteko, zuloak estaltzeko edo kideko gauzetarako erabiltzen dena” (*EH*). Ostera ere zorrotasun kontzeptua azaldu da. Sarri agertzen den adierazia da. Antzinako euskal hiztunaren adimen-begiak horixe sumatzen zuen batik bat, zorrotasuna, inondik ere. Honako hauek dira *ziria*arekin zerikusia daukaten hitzak: *elur-ziri*, *horma-ziri(te)+(dindiri)*, *karroin-ziri*, *jela-ziri* eta *ziri*. Ereku zabal samarrean erabiltzen dira *ziriri* loturiko elkarketak; *elur-ziri (elhurziri)* Nafarroa Behereko Baigorri herrian jasota dago (*EHHA*). Bitxia da *elhur* hitza agertzea, eta ez izotzari lotutakoren bat. *Horma-ziri* dela-eta, ondoko aldaerok ditugu: *hormaziri*, *ormaziri*, *ormaziridindiri* eta *ormazirite*. *Hormaziri* Baigorri herrian ere bilduta dago (*EHHA*); *ormaziri* Nafarroa Behereko Isturitze, Gipuzkoako Hondarribin eta Oiartzun, Lapurdiko Hazparren eta Nafarroako Lesaka herrietan bildutakoa da (*EHHA*). Hortaz, Oiartzundik hasita Euskal Herriko ekialdean koka liteke hitz hau; *ormaziridindiri* terminoak

ziriz gain, *dindirri* osagaia ere badu, beste elkarketa batzuetan edo bakarrik ere azaltzen dena. Adibidez, *dindirri* edo *jela dindirri* izotz-burruntzia ere aditzera emateko. *Dindirri* hauxe da: “Sudurretik zintzilik dagoen mukia edo (batez ere B) oihal edo soineko maiztutik zintzilikatzen den zarpa” (Harluxet). Kasu honetan, zorroztasunari “dilindatasuna” gehitzen zaio, goitik behera doan zerbait da, muki edo zarparen antza duena. *Ormaziridindirri* terminoa Larramendik jasotzen du bere hiztegian (*OEH*); *ormaziriteri* dagokionez, ematen du *-te* atzizkia erantsita dagoela. Oro har, denbora adierazteaz gain, ugaritasuna ere esan ohi du. Adibidez, *euritea*. Hitz hori Nafarroa Behereko Aldude herrian eskuratuta dago (*EHHA*), goratxoago aipatutako herrietatik ez oso urrun. *Horma* berbaz gai, *karroin* ere erabiltzen da *zirirekin*, *karroin-ziri*. Elkarketa hori Nafarroa Behereko Uharte-Garazi inguruan bilduta dago (*EHHA*). Handik urrun samar, Gipuzkoa aldean, Oiartzunen *jelaziri* dugu. *Jela* berba gehienbat Gipuzkoako hizkeretan erabiltzen da. Azkenik, *ziri* hitz soila ere baliatzen dute Gipuzkoako Pasaiaiko eta Nafarroa Behereko Arruta herrietako hiztunek.

Bestalde, hirugarren irudia janariari dagokio; izan ere, ilun samar dago zein izan zen lehenengo hitza, *ziztor* “izotz-burruntzi”ari irizteko elea edo *txistor* “lukainka edo txorizoa baino meheagoa den hestebete-mota” (Harluxet). Jatorrizko hitza janariari buruzkoa izan zela ontzat ematen bada, gerora sortuko ziratekeen, beraren eraginez, ondoko berba hauek: *horma-ziztor*, *izotz-ziztor* eta *zizt*. Ziurrenik, behinolako mintzatzaileek *izotz-burruntziak* dilindan dauden “izotz-txorizo” gisa ikusiko zituzten. Eskuratutako lehenengo elkarketa, *horma-ziztor*, Azkuek jaso zuen (*DVEF*). Bi marka dauzka hitz horrek, goi-nafarrera eta Nafarroa Behereko Aldude herria. *Ormaziztor* aldaera ere bilduta dago, eta antza denez, Nafarroako Aniz eta Luzaide eta Nafarroa Behereko Bidarra herrietan baliatzen dute hiztunek (*EHHA*); bigarrena, *izotz-ziztor*, Azkuek berak ere batu zuen, eta Nafarroako Zaraitzu haranean erabiltzen zela adierazi zuen (*DVEF*). Azkenik, *ziztor*, berba huts gisa ere erabiltzen da hainbat bazterretan: goi-nafarrera, Aldude eta Nafarroako Zaraitzu haranean (*DVEF*). Beraz, badirudi aipaturiko eremuetan, *horma-ziztor* nahiz *ziztor* erabiltzen direla.

Esan gabe doa, izotzak beiraren antza ere badu euskal hiztunaren buru-iruditeriaren arabera. *Beira*, *berin* edo *ispiluari* loturiko hitzak azaltzen dira lexiko etnometeorologikoan. Erraza izan da analogiaz eremu lexiko hori naturara igaro izana. Beraietariko batzuk izotz-burruntzia izendatzeko erabiltzen dira: (*horma*)-*berina*, *bitre*, *kristal*, *kristira* eta *mirail* (*miall*). *Berina* eta *horma-berina* (*hormabereina*) Lapurdiko Arrangoitze eta Beraskoitze herrietan jasota daude (*EHHA*). Elkarretatik ez daude urrun herriok; *bitre*, frantsesez “vitre”, kristala esan nahi duena, Zuberoako Domintxaine-Berroeta herrian bilduta dago (*EHHA*); *kristal* berba (*kristel*) Bermeo aldean baliatzen dute bertako mintzatzaileek (*EHHA*); *kristira* eleak ere

kristalekin bide du zerikusia, baina ez da erabiltzen mendebaldeko hizkeretan, ekialdekoetan baizik (EHHA), Lapurdiko Makea herrian, hain zuzen ere; azkenik, *mirail* (*miall*) berba Zuberoako Pagola herrian (EHHA) bildurik dago. *Mirail* eleak ekialdeko hizkeretan *ispilu* adierazi nahi du.

Horrezaz gain, negarraren itxurari dagozkion hitz-elkarketak honako hauek dira: *elur-negar*, *kandela-negar* eta *lei-negar*. Ez dago ukatzerik izotz-burruntzia negar edo malkoarekin erkatzea metafora ezin ederragoa dela. *Negar* berba Bizkaiko hizkeretan azaltzen da; *elur-negar* (*edurnegar*) Bizkaiko Mungia herrian erabiltzen da (EHHA). Inguru horretan *edur* izotzari irizteko ere erabiltzen da. Adibidez, Gatican (EHHA); *kandela-negar*, berez, argizariaren malkoa adierazteaz gain, Bizkaiko Lekeitio herrian izotz-burruntzia da (EHHA). Aspaldiko hitzunik sortutako irudi ederra; *lei-negar* ildo berekoa da. Bizkaiko Bakio herrian jasota dago (Gaminde, 1999).

Dilindan dagoenaren itxura dela-eta, honako hitz hauek dira datutegian: *horma-lindiri*, *kharruña-tilingo*, *jela-dindirri*, *leien moko* eta *zintzili(kario)*. Lehenengo eta behin, hitz berriak sortzeko antzinako euskal hitzunik, ziurrenik, bere ingurura begiratu eta bertan aurkituko zituen lexiko-hutsuneak asetzeko baliabideak. Hurbilena, jakina, bere gorputza zen, eta hori dela-eta, sudurretik dilindan egoten diren mukiak edo dindirriak izango zituen gogoan, naturan aplikatzeko. Hortik dator, nonbait, *dindirri*, *dindirri* edo *lindiri* berba, beste elkarketa batzuetan edo bakarrik ere azaltzen dena; adibidez, *dindirri*, *jela-dindirri* edo *horma-lindiri* izotz-burruntzia ere aditzera emateko. *Dindirri* hauxe da: “Sudurretik zintzilik dagoen mukia edo (batez ere B) oihal edo soineko maiztutik zintzilikatzen den zarpa” (Harluxet). Kasu honetan, zorrotzasanari “dilindatasuna” gehitzen zaio —hurrengo kontzeptua— goitik behera doan zerbait da, muki edo zarparen antza duena. *Jela-dindirri* elkarketa Larramendiren hiztegian agertzen da (OEH). Mukia delako ustea beste hizkuntza batzuetan ere azaltzen da. Adibidez, gaztelaniaz zenbait tokitan *calamoco* berba erabiltzen dute: “carámbano largo y puntiagudo que cuelga de las canales cuando se hiela el agua de lluvia o se derrite la nieve” (DRAE). Ildo horretatik Viñasek gaztelaniazko izendapen batzuen berri ematen du:

Existen decenas de localismos con los que ese identifica al carámbano, tales como *chapel*, *pinganil*, *candelizo*, *calambrizo*, *calamoco*, *caramelo*, *chorlito*, *churro*, *chuzo*, *chupón*, *chupador* o *rencello*, entre otros. (Viñas, 2019)

Idea horri loturik, *leien moko*a ere badago, Azkuek bildu, baina Mikoleta idazlearengandik hartu bide zuen (DVEF). Horretaz gain, *karroina-dilingo* (*kharruña-tilingo*) elkarketak (EHHA) dilindan dagoen izotza ere ematen du aditzera. Lapurdiko Bardoze herrian jasota dago. Amaitzeko, *zintzilikario* (*txintzilikario*) hitza Gipuzkoako Oñati herrian erabiltzen

dute mintzatzaileek izotz-burruntziari irizteko (EHHA). *Zintzilikario* “zintzilik dagoen gauza” (Harluxet) da. Gaur egun zentzu ugari erabiltzen da, adibidez, lepoan janzten diren apaingarri horietariko bat. *Zintzil*- erroari lotuta zenbait berba aurkitu ditugu: *zintzarri*, *txintxilli*, *txintxirri* eta *txintxilikaio*.

Ez dago ukatzerik izotz-burruntziak darion ur izoztuaren antz handia duela. Hori dela-eta, isurkariari loturiko bi elkarketa ditugu iruditeria honetan; bata *zirristaren* ingurukoa eta bestea *txorroa* oinarri duena. Lehenengoari dagokionez, *horma-zirrista* (*hormaxirrista*) Nafarroa Behereko Armendaritze herrian bilduta dago (EHHA). *Zirrista* hitza zenbait tokitan “txorroa” adierazteko erabiltzen da. Beraz, *horma-zirrista* izotzari darion txorroa da. Bigarrena dela-eta, bi elkarketa dira, *horma-txorro* (*ormatxorro*) eta *lei-txorro* (*laitxorro*). Aurrekoaren mota bereko elkarketak dira. “Txorro” hitza dela-eta, hauxe dugu: “voz común al castellano con el portugués, el vasco y el gascón. La acepción originaria parece haber sido «agua que salta en cascada o torrente». Onomatopeya de la caída del agua” (Corominas, 1961-1987). *Ormatxorro* Nafarroako Eugi herrian eskuratua da (EHHA), eta *laitxorro* Bizkaiko Uribe-Etxebarri herrian (EHHA). Inguru horretan, aipatu bezala, *lei* esan beharrean, *lai* erabiltzen bide dute hiztunek.

Beste zenbaitetan mintzatzaileek teilatuetatik behera zintzilik geratzen den izotz-puska bloke gisa hautematen dute, “edozein materiazko zati nahikoa handia, landu gabea edo gutxi landua” (Harluxet). Hori oinarri, bi elkarketa erabiltzen dira: *elur-bloke* eta *izotz-kozkor*. *Elur-bloke* (*edurbloke*) Gipuzkoako Arrasate herrian bilduta dago (EHHA) eta *izotz-kozkor* (*izozkozkor*) herrialde bereko Aia herrian (EHHA). *Kozkor* berba “material jakin bateko puska txiki eta bereziki gogorra da (hitz-elkarteetako bigarren osagai gisa)”, eta etnometeorologian ere erabiltzen da “euri-hodeien azpian arin mugitzen diren hodei-zati baxuak” (Harluxet).

Maileguen artean, *engalas*, *glaxa* eta *glazunak* eleak ditugu, eta gorago beiraren itxura adierazten dutenak ere azaldu beharrekoa da, *bitre*, *kristal* eta *kristira*.

Engalas (*engales*) berba Bizkaiko mendebaldeko Zollo herrian jasota dago (EHHA). Gaztelaniaz *engelante* izenondoa erabiltzen da, adibidez “lluvia engelante” esateko. “Cazatormentas” webgunean hauxe ematen da aditzera:

La **lluvia engelante** no es un hidrometeoro que se dé con frecuencia en nuestro país, aunque tampoco es desconocido. Tiene que ver con la capacidad del agua de bajar su temperatura por debajo del punto de congelación, 0°C, sin congelarse (estado de subfusión). Esto ocurre porque el agua, para pasar al estado sólido desde el estado líquido, necesita de *núcleos de solidificación*. En agua pura, pequeñísimos cristales de hielo. Ocurre que, si el agua se enfría lo suficientemente rápido como para que no haya tiempo de que se formen estas partículas del hielo, su temperatura desciende por debajo del punto de congelación, sin solidificarse, manteniendo el estado líquido³⁶.

³⁶ www.cazatormentas.net

Baliteke latinezko *gelu* (izotza eta hotza) terminoan jatorria izatea *engalas* berbak. Latinez ere “glacies” berba ere badago, baita “glas” bearnesez eta “glace” frantsesez ere. Bizkai aldean bilduriko esangurak honako hauek dira:

Engalas: “Frio producido por el hielo”. B-Gernika; “*Cristal del hielo*”. B-Arratia, Orozko, Txorierri; “*capa de agua que cubre los cristales en invierno*” B-Arratia, Orozko, Txorierri / gipuzkera. (DVEF); *Engales*: “Carámbano”. B-Zollo. (EHHA); *Engalastu*: “*Cubrirse de hielo el cristal*”. B-Arratia, Orozko, Txorierri. (DVEF)

Glaxa elea Nafarroa Behereko Arboti-Zohota herrian jasota dago (EHHA). Baliteke *glace* frantses edo *glas* bearnesetik etortzea. Aipatzekoa da herri berean gorago iruzkindutako *ziri* terminoa ere erabiltzen dutela izotz-burruntzia izendatzeko.

Glazunak berba Arboti-Zohotatik hurbil bilduta dago, Lapurdiko Mugerre herrian (EHHA). Esan gabe doa, azaldutakoak ere balio du kasu honetan, hau da, frantseseko *glace* hitzak izan lezakeelako zerikusia.

Bestelako terminoak direla-eta, sail honetan aurreko irudietan sailkagaitzak diren elkarketa eta berbak ekarri dira. Ondoko hauek dira: *antzigar*, *arañ*, *elur-lausaro*, *horma-peska*, *horma-zidor*, *izoztruma*, *kirriski*, *lei-karraldo*, *lantzurda* eta *zitoitza glaziatu*. *Antzigar* berba dela-eta gogoratuko dugu Ekialdeko haizea (§4.3) aztertu denean ezarri den taula:

Hitza	Esanahia	Herria / Euskalkia / Iturria
Antsin	Ipar haizea (hotz-hotza)	B-Markina, Ondorroa. Azkue
Antzigar (antziar)	Ipar haizea (hotz-hotza)	Bonaparte-Euskalzale aldizkaria
Antziliar	Ipar haizea (hotz-hotza)	Darricarrere
Intzigar(intziar)	Ipar haizea (hotz-hotza)	B-Galdakao
Antzigar (antzier)	Ekialdeko haizea	A-Aramaio
Antzigar (antziar)	Ekialdeko haizea (izotza sorrarazten duena)	G-Leintz Gatzaga
Antsigar	Izotz zuria	bizkaiera / gipuzkera. Azkue
Antzigar	Izotz zuria	G-Oñati-Zestoa
Intzigar (intziar)	Izotz zuria	J.B. Uriarte
Antziliar	Izotz zuria	Darricarrere
Antzigar (antziar)	Izotz beltza	B-Ispaster, Nabarniz / G-Beizama
Intzigar (intziar)	Izotz beltza	B-Orozko
Antzigar (antzier)	Izotz-burruntzia	G-Azpeitia
96. taula. Izotz-burruntzia: antzigar		

Kasu honetan *antzier* aldaera erabiltzen da izotz-burruntziari irizteko. Adiera guztietan sumatzen denez, “hotza” edo “izotza” kontzeptua nabarmentzen da. Gipuzkoako Azpeitia herrian bilduta dago (EHHA). *Arañ* hitzaren jatorria iluna da. Herrialde bereko Zestoa herrian erabiltzen omen da (EHHA). *Elur-lausaro* elkarketa Nafarroako Donamaria herrian erabiltzen dute hiztunek (EHHA). Elkarketa bera erabiltzen da herrialde bereko Goizueta herrian “elur-jausia” adierazteko (EHHA). Ziur asko lexiko-lerraketa bat izan da; izan ere, bata “goitik

beherako elurra” da eta bestea “goitik beherako izotza”. *Horma-peska* (*ormapeska*) elkarketa Lapurdiko Itsasu herrian bilduta dago (*EHHA*). *Peska* berba baliteke *p(h)esiakarekin* zerikusia izatea. Handik urrun ez den Azkaine herrian *pesi(ak)* “euri-zaparrada” da, ugaritasuna, alegia (*EHHA*). Bestalde, *phesiaka* barra-barra adierazteko agertzen da Barbierrek idatzitako testu batean: “Uria heldu zen, *phesiaka*, Noeren egunetan bezala” (P. Adames I, 199 *apud DRALV*). Itsasun *kandela* aldaera ere erabiltzen da gauza bera adierazteko, Euskal Herriko hainbat bazterretan bezala (*EHHA*). *Horma-zidor* (*Ormazior*) elkarketa Itsasutik hurbil dagoen Sara herrian (*EHHA*) erabiltzen dute mintzatzaileek. *Zidor* basabidea edo bidexka da eta bereziki *bidezidor* hitzaz baliatzen da euskal hiztuna. Itsasun bezalaxe, Saran ere *kandela* elea erabiltzen da. Badirudi *ormazior* elkarketak “izotzaren bidea” ematen duela aditzera. *Izoztruma* berba Azkueren hiztegian bizkaiera eta ihartutzat jota dago. Beste inon ez da agertzen hitz hori. Azpimarratu behar da *truma* osagaiaren iluntasuna. *Kirriski* terminoa Orozkon bildua da (*EHHA*). Bakarra da, ez dago besterik. Horrela idatzita ez da agertzen *OEHn*, baina bai, *Kirriskia*, *kirriskia*, “la corteza del lino que se hacía desprender” (Iz *ArOñ apud OEH*). Bestalde, *kirrizki* ere badago: “resquemor, resentimiento” (Labayru Hiztegia). Fonetikoki *kizki* berbatik ere hurbil samar dago. Azaldu bezala, *kizki* hauxe da: “makila gakoduna” edo “gako mutur-zorrotza, gauzei heltzeko erabiltzen dena” (Harluxet). *Lei-karraldo* elkarketa (*leikarraldo* eta *lekarraldo*) Bizkai aldean erabiltzen da ondoko herriotan: Abadiño, Errigoiti, Fika eta Ibarurri (*EHHA*). Errigoitin *lei-kandela* ere erabiltzen da. *Karraldo* berba arrunta da Bizkaiko beste zenbait herritan *izotz beltzari* irizteko: aipu hau aurkitu da: “*Leikarraldoa* es más central que *engalasa*: éste se usa desde Orozco a Bilbao en los contornos de esta villa. No hay inconveniente en usar sólo *karraldoa*, pues así se dice en muchos pueblos Ur, carta a Bon 3-4-1858. v” (*OEH*). *Lantzurda* (*lantzurdia* eta *lantxurda*), Urdian (Nafarroa) eta Beizama (Nafarroa) herrietan bilduta dago (*EHHA*). Euriaren eta hezetasunaren eremuetan zabal-zabal aztertu da. Gogoratuko dugu lehenengo aldiz ezarritako taula (§68. taula).

Hitza	Esanahia	Herria / Euskalkia / Iturria
Lantxurda	Antzigarra	G-Aia / N-Arakil, Baztan / zuberera
Lantxurda	Elur pikorra	G-Bidania / N-Etxarri-Aranatz
Lantxurda	Euri xehea	BN-Arruta / N-Erronkari / L-Ahetzea
Lantxurdina	Euri xehea	Z-Ligi
Lanzurda	Hezetasuna, arropari itsasten zaiona, euria izan balitz bezala	N-Baztan / lapurtera
Lantxurda	Ihintza	Elizanburu
Lantxurdia	Izotz burruntzia	N-Urdiain
Lantzurda	Izotz burruntzia	G-Beizama
Lantxurda	Laino beltza	N-Auritz
Lantxurda	Laino euria	BN-Aldude / erronkariera / zuberera
97. taula. Izotz-burruntzia: lantzurda (§68. taula)		

97. taulan ikus daitekeenez, hezetasun hotz eta izoztuari loturiko terminoa da *lantzurda*. Aipatu bezala, baliteke **lan(o)* eta *zurda* hitzek bat egitetik etortzea.

Amaitzeko, *zitoitz(a) glazatu* terminoa dugu. *Zitoitz* elea Ipar Euskal Herriko hizkeretan “itaxura” adierazteko erabiltzen da (Harluxet). *Glazatu* partizipioak, antza denez, gaskoiarekin edo frantsesarekin du zerikusia. Beraz, “itaxur izoztua” esan nahi du. Lapurdiko Mugerre herrian (*EHHA*) jasota dago. Zenbait euskalkitan hiztunek barrukoari *itogin* eta kanpokoari *itaxur* esaten diete (*EH*).

4.5.5.2. Jarduera

Engalas	Horma	Izotz	Jela
engalastu	Horma egin Hormatu Hotz-hormatu Horma gaitza egin Horma galanta ari	Izotz egin Izotz izan Izoztu	Gelatu Jelatu
Karraldo	K(h)arroin	Koila	Lei
	K(h)arroindu Karroindatu Karrontatu Karrondu Karruntatu / -tü	Koillatu kollatu	Alagalako leiak egin leitu *Lei-karraldotu
98. taula. Izotza: Jarduerak			

98. taulan izotzari loturiko jarduerak adierazita daude, bai aditzak, bai esapideak, bai lokuzioak. Osagai nagusia duten hitza hartuko da oinarritzat azterketa egitean.

Engalas berbari lotuta, aditz bat: *engalastu*. Aditz horrek gorago aztertutako *engalas* berba du oinarri. Azkuek bildu zuen, eta nabarmendu zuen Bizkai aldeko Arratia eta Txorierr

eskualdeetan eta Orozko herrian erabiltzen zela. Honela definitzen du: “cubrirse de hielo el cristal” (*DVEF*).

Horma elearen eremua batik bat Euskal Herriko ekialdekoa aldekoa izanda, inguru horretan azaltzen dira adibide gehienak: *horma egin*. Aditz-lokuzio hori, besteak beste, J. Mokoroak batu (Mokoroa, 1990) eta goi-nafarreraz baliatzen zutela eman zuen aditzera. *Egin* aditzaz baliatzea oso arrunta da eremu etnometeorologikoan; *hormatu*. Aurrekoaren parekoa da eta oraingoan aditz hori Lhanderen hiztegitik hartuta dago (Lhande, 1926); *hotz-hormatu*. Aditz-lokuzio horrek Lhandek ere jaso zuen bere hiztegian (Lhande, 1926). Badirudi bi adiera ematen duela: “Geler, être glacé de froid”. Dena dela, aurrekoen ildo berekoa da, antza; *horma gaitza egin*. Esapide hori Mokoroarengandik hartuta dago (Mokoroa, 1990). Haren arabera, goi-nafarreraz eta behe-nafarreraz erabiltzen da. Kasu honetan *gaitz* izenondoak beste mailakatze bat dakar. Izan ere, ez dira gauza bera *horma egin* eta *horma gaitza egin*; *horma galanta ari*. Mokoroak berak bildutakoa da (Mokoroa, 1990) eta esangura bera du. *Galanta* izenondoak ñabardura bertsua ematen dio lokuzioari. Beraren esanetan, *horma* hitzaren erabilera harrigarri samarra izanik ere, gipuzkeraz erabiltzen da. Ez du besterik adierazten, bain agian. Gipuzkoako ekialdean baturik dago, ekialdeko hizkeretatik hurbilago dagoena, batez ere lexikoaren arloan.

Izotz hitzari oinarri duten hiru aditz aurkitu dira: *izotz(a) egin*. Mugatu gabe topatu den arren, Labayru Hiztegiak (Labayru Hiztegia) dakarren *izotza egin* adierazten da hemen. Gaztelaniaren “helar” anbigua denez gero, jarraian “echar una helada” ere badakar; *izotz izan* hiruetatik arraroena da. Adibide bakarra aurkitu da Beraren Hiztegian: “Izotz al da?” (*apud DRALV*); *izoztu* aurrekoen antzekoa da, baina oraingoan hitzetik beretik eratortzen da aditza. Hiztegi berean (Labayru Hiztegia), bigarren adieran agertzen da honi dagokion esanahia. *Izotzuko du* adibidea dakar, fenomeno atmosferiko gehientsuenekin erabiltzen den nor-nork erako laguntzailea.

Jela hitzari dagokionez, *gelatu* eta *jelatu* aditzak ditugu. Biek jatorri berekoak ematen dute, eta baliteke *gelatu g-z* idatzi izana grafia kontua izatea. Aditz horrek *jela* berba du abiapuntu eta, gaur egun Gipuzkoa eta Nafarroako hainbat bazterretan erabiltzen da. Datutegian jasotakoa Landak Gara egunkarian idatzitakoa da: “Kostaldea *jelatuko* da, zero azpiko tenperaturak izango baitira” (Landa, 2003-02-16).

Karraldori dagokionez, *lei-karraldotu* dugu. Aditz-lokuzio hori bi tokitan azaltzen da: batetik *lei* lehenengo osagaia delako, eta bestetik, *karraldo* bigarrena. Hala ere, hemen baino ez da azalduko. *Lekarraldo* forma aurkitu da. *Lekarraldo* berba “izotz-burruntzia” esateko Bizkaiko mendebalde eta erdialdean nahiko arrunta da. Hala ere, kasu honetan “izotza” edo

“leitu” besterik ez du esan nahi. Eskuratutako adibidea Euskal Esnalea aldizkarikoa da (1913, 75 *apud DRALV*).

*K(h)arroi*ni loturiko aditzak Euskal Herriko ekialdean kokatu behar dira ezinbestez; Nafarroa eta Euskal Herriko iparraldeko hizkeretan. Ez dago beraren zantzurik mendebaldeko hizkeretan. Bi hitz daude hedaturik, *k(h)arro(a)* eta *k(h)arroi*, eta, jakina, beraien aldaera ugariak. Azaldu bezala, gaur egungo hiztegietan *karroi*n aldaera besterik ez da agertzen, tarteko -h- gabe. Bestalde, Mitxelenak zioenez, jatorrizko hitza **karrone* izan zitekeen (*FHV*: 199). Era berean, Lhandek, aldiz, biarnesaren *carreu* eta *carroche* hitzekin lotzen du (Lhande, 1926). Dena dela, ez da ahaztu behar bearneseraz *karroun* terminoa ere erabiltzen dela “izotza” esateko. Hortaz, beharbada, jatorri erromanikoa izan lezake *k(h)arroi*n eleak. Eskuraturiko aditz aldaerak ondoko hauek dira: *k(h)arroi*ndu (*DVEF*), *karroi*ndatu (*DRALV*), *karroi*ntatu (Lhande, 1926), *karrondu* (lapurtera: *DRALV*) eta *karruntatu* / -tü (*DRALV*).

Koilla hitzarekin zerikusia duten aditzak *koillatu* eta *kollatu* dira. Antza denez, *koila* terminoa Gipuzkoako ekialde eta Nafarroako iparraldean zabaldurik dago. Horren berri, *koila* hitzaren beraren inguruko azterketan bertan eman da. Azaldutakoaren arabera, *koilla* Gipuzkoako Berastegi herrian erabiltzen den bezalaxe *koillatu* aditza bertan ere erabiltzen da (*DVEF*), eta, *kolla* aldaera Nafarroako Baztan haranean baliatzen duten moduan, *kollatu* aditza bertan ere baliatzen dute (Izeta, 1996). Gogora dezagun *koila* berbaren jatorria erromanikoa izan litekeela; gaztelaniazko *cuajo -ar*, frantsesezko *caillée* eta katalanezko *cuallo -ar* gomutarazten ditu *koilak* eta nola ez, horietatik eratortzen direnak, “cuajada” eta “kaillatu”, “mamia” edo “gatzatua” izendatzeko.

Lei berbaren inguruan, *alagalako leiak egin*, Mokoroak (Mokoroa, 1990) esapide hau bildu eta azaldu zuen Bizkaiko Zeanuri herrian erabiltzen zela. *Alagalako* izenlaguna baliatzen dute Bizkai aldeko mintzatzailleek “egokia” edo “aproposa” adierazteko. Hala ere, *lei* hitzari lotuta “egundokoa” edo “sekulakoa” ematen du; *leitu* aditza Bizkai aldean oso hedaturik dago, eta, badirudi *lei* izenetik eratortzen den “berezko” aditza dela. Adibide ugari dira, baina bat hartzearen Labayruren Hiztegitik hartuko dugu honako hau: *Negu gogorrean ura be leitu egiten da* (Labayru Hiztegia).

4.5.5.3. Denbora

Hormate	Izozte	Jelate	Karroate
Hormate ormate	izozte	jelate	karruate
99. taula. Izotza: Denbora			

99. taula honetan izotza eta denbora uztartzen dituzten hitzak bilduta daude; den-denek *-te* atzizkia daukate bere baitan, aldia adierazteko erabiltzen dena. Orain arteko analisian bezalaxe, euskalkien arteko banaketa dago, *horma*, *izotz*, *jela* eta *karroa* hitzak tartean daudela. Mendebaldeko *lei* berba falta da, **leite* terminoa aurkitu ez baita.

Horma oinarri, bi aldaera daude datutegian: *hormate* eta *ormate*. Lehenengoa Duvoisininen testu batetik hartuta dago (OEH), eta itxuraz “izotz edo lei aldia” esan nahi du; bigarrena, esanahi berberarekin, Azkueren hiztegian aurkitu da (DVEF). Hitzaren sarreran azaltzen da goi-nafarreraz, lapurteraz eta Gipuzkoako Andoain herrian erabiltzen dela.

Izotzi dagokionez, *izozte* berba Azkueri hartuta dago (DVEF). Honako toki hauetan erabiltzen zela adierazi zuen: Gipuzkoan, oro har eta Nafarroan Zaraitzu eta Aezkoa haranetan; eta Elkano, Goñi eta Olza herrietan. Azken hauetan euskara galduta dago dagoeneko.

Jela dela-eta, *jelate* hitza Azkuek jaso zuen Donostian (DVEF). Izotz-garaia adierazteaz gain, “izotz beltza” ere esan nahi du Gipuzkoa aldeko Getaria herrian (EHHA).

Karruri dagokionez, Ekialdeko adibide bakarra aurkitu da: *karruate*. Azkuek biltzen du hiztegian (DVEF) eta Nafarroako Erronkari haranean erabiltzen omen zen (Estornes, 1997).

4.5.5.4. Espazioa

Izotz-lekua	Izoztutako ur putzua
Eluts Hormazoin Leikoi	kristal
100 taula. Izotza: Espazioa	

Azken 100. taula honetan izotza eta espazioa lotzen dira; batetik, izotz-lekua eta, bestetik, izoztutako ur-putzua. Lehenengoari dagokionez, *eluts*, *hormazoin* eta *leikoi* berbak dira; *eluts* eleak “Toki hotza, horma egiten duena” esan nahi du. Izetak batu zuen (Izeta, 1996). Nafarroako Baztan aldean erabiltzen da; *hormazoin* hitzak “izotza egiten den lekua” adierazten du (FedeProp, 1907 *apud DRALV*); azken terminoa, *leikoi* da. Ez da izena, izenondoa baino; beraz “toki *leikoia*” esan behar litzateke, hots, “*lei* asko egiten duen tokia”. *Lei* berbak ematen digu aditzera Bizkai aldekoa dela. Izan ere, Azkuek jaso (DVEF) eta Gernika marka ezarri zion.

Amaitzeko, “izoztutako ur-putzua” adierazteko *kristal* (*kristela*) mailegua dugu. Zehazkiago esan da, “ur-potxingoetan izozten den leia”. Gamindek bildu zuen Bizkaiko Leioa eta Bakio herrietan (Gaminde, 2001b).

4.5.5.5. Ondorioak

Lehenengo eta behin azpimarratu behar da *izotz* elea aukeratu dela, baina Euskal Herriko euskalkietan ez dago batasunik, gehienbat, bost berba erabiltzen baitira: *horma*, *izotz*, *jela*, *karroin* eta *lei*. Ihintzaren eremuan bezalaxe, izotzaren eremuak lau nozio orokor dauzka izakiak, jarduera, denbora eta espazioa, eta bi ez, kantitatea eta kalitatea. Izakiak nozio orokorrak dauzka kategoria gehien, eta aldi berean nozio espezifikoko gehien. Denen artean Izotz-burruntzia kategoria nagusitzen da, makina bat nozio espezifikoko edukitzeagatik ez ezik, adimen-begia irudi eta sinbolismo berezi askoz ere baliatzen delako.

Nozio espezifikorik nabarmentzekotan, izotz-burruntziari irizteko negar berba bigarren osagaitzat dauzkaten hiru hitz-elkarketa nabarmenduko dira: *elur-negar*, *kandela-negar* eta *lei-negar*. Ez dago esan beharrik biziki termino motibatuak direla: adimen-begiak begien negarra izotzarenarekin erkatzen du. Izotz-burruntziarekiko xarmak eta lilurak bide ematen diote euskal hiztunaren adimen-begiari hitz-elkarketa ezin ederragoak sortzeko. Bestalde, ez da baztertzekoa Izakiak nozio orokorrean ere Antzigar, Izotz beltz eta Izotz zuri kategorien arteko bereizketa: elur eremuan gertatzen den legez, Euskal Herriko klimaren argazki diakroniko bat ematen digute horrelako ostagiek.

Aipatuak aipatu, izotza, hainbat egoera bitxi sortzen duelarik, euskal hiztunaren adimen-begia denez jabetu eta aterabide lexikoa ematen ahalegintzen da. Denetariko baliabideak azaltzen dira lexiko eratzeko: hitz-elkarketak, hitz soilak, onomatopeiak, hitz eratorriak eta jarduera nozio orokorraren barruan, aditzak eta aditz-lokuzioak.

Hitz-elkarketez bezainbatean, agerikoa da *horma*, *izotz*, *karroin* eta *lei* berbak gailentzen direla, batik bat izotz-burruntziaren izendapenetan: besteak beste, mahai-gaineratzekoak dira *horma-makila*, *izotz-ziztor*, *karroin-ziri* eta *lei-kandela*. Hitz-elkarketetan antzematen da adimen-begia nolako iruditeriaz baliatzen da, bere esperientzian tinkaturiko irudiak erabiltzen ditu: argizaria, beira, isurkaria, janaria, malko eta negarra, multzoa, tresnak eta zuzia. Horrek guztiak mugatzen du euskal hiztunaren esperientziaren eremua, bere inguruneari lotua, zalantzarik gabe. Aise eta erraz asko eratu ohi ditu hitz-elkarketak, eta, gainera, euskalki gehienetan antzeko samarrak dira adierazian, adierazle desberdinak izan arren: nolabaiteko batasuna sumatzen da hiztunen “ideologia” sortzailean. Berba soilak urri dira; adibidez, Izendapenetan, *lei* —azterketan azaldu bezala, *izotz* antzinako hitz-elkarketa izan liteke—; Izotz-burruntzia kategorian, *kirriski* eta *ziri*. Izotzaren eremua oparo samarra izanda, maileguak franko ere badira: hiztunaren adimen-begiak hainbat egoki ditu nolabaiteko “natibazioa” emanaz; adibidez, Izendapenetan, *jela* eta *koila*; antziggarrari irizteko, *brisa*; izotz-burruntzia

esateko, *bitre* eta *engalas*; izotz-zuria izendatzeko, *kalamoko*; jardueretan *engalastu* eta *jelatu* aditzak; izoztutako ur-putzua, *kristal*. Hizkera guztiek maileguak edukitzeak sarritan hizkuntzen arteko harremanak sendoxeagoak izan direla elkarren ondoko hizkeren artean baino, nahiz jakina horien artean maileguak ere izan diren. Onomatopeiak, jakina, aipagarriak ere badira, batez ere Izotz-burruntzi kategorian: *dindirri*, *txorro* eta *xirrista* hitzak agertzen dira, zerbait goitik behera erortzen delako irudipena emanez. Hitz eratorrien arten denbora eta espazio nozio orokorretakoak nagusitzen dira; adibidez, *hormate* eta *jelate*, izotzaren denbora adierazteko eta *leikoi* izotz-lekuari irizteko. Azkenik, jarduera nozio orokorrean aditzak eta aditz lokuzioak ere badira; esate baterako, *horma egin*, *izotz izan* eta *alagalako leiak egin*.

Azaldutako guztiaren ondorioz, adimen-begiak izotzaren inguruan eraiki duen eremua oso motibatua dela, hitz-elkarketak eta hitz eratorriak gainerako guztiei gailentzen baitzaie, zalantzarik gabe. Hizkera guztietan baturiko piezek osatzen dute puzzle arrunt sendoa eta zirrikiturik gabea, zenbait maileguk lagunduta.

Bukatzeko, esan beharrik dago izotz-burruntziaren gaineko izendapen guztiek eratzen dutela biziki kultur sinbolismo interesgarria: euskal hiztunaren adimen-begiak esperientzian funtsatutako baliabide metaforikoak erabili ditu hitz-elkarketa liluragarriak sortzeko. Ikerlan honen kategoria behinenetarikoa da.

4.5.6. Lainoa, lanbroa eta gandua

Hurrengo eremua hiru fenomenoren arabera sailkatu da: *lainoa*, *lanbroa* eta *gandua*. Antz handia dute, baina komeni da haien artean bereiztea, bazter askotan nahasi samar egon arren. Aipatutako izendapenak erabili dira, baina hizkeraz hizkera aldaera ugari daude eta, bestalde, hiztun batzuek *lainoa* eta *lanbroa* berdintzat jotzen dituzte. Erreferentzia bezala, Meteorologia Hiztegiak (*MetHizt*, 1988) dakartzan definizioak baliagarria dira, kontzeptuak garbiago egongo direlakoan. Honako hauek dira hitzon definizioak:

Lainoa: ur-ttanta oso txikien aireko suspentsioa, lurrazaleko ikuspen horizontala kilometro bat baino gutxiagora murrizten duena (*MetHizt*, 1988: 184); kontuan hartu behar da ezen Euskal Herriko bazter askotan, hemen *lainoa* bezala izendatzen dugunak *hodeia* esan nahi duela. Hori dela-eta, eta, nahasketak ekidite aldera, Meteorologia Hiztegia izan da gidari.

Lanbroa: lainabera hezea da, adibidez, itsasotik datorrena. (*MetHizt*, 1988: 185).

Gandua: atmosferan, partikula guztiz txiki eta lehorren suspentsioa da; ezin dira ikusi begi hutsez baina nahikoa ugariak dira aireari opaleszentzia (atmosferaren kolore zuriska) itxura emateko (*MetHizt*, 1988: 119).

Han-hemenka bilduriko hitzak aztertu eta aditzera eman nahi dutenaren arabera, ondoko sailkapena hau egin da, *lainoa*, *lanbroa* eta *gandua* aintzat harturik:

- Lainoa: Izendapena.
- Garaia
- Antzigarra sortzen duen lainoa.
- Laino arina.
- Behe-lainoa.
- Laino beltza.
- Ekintzak.
- Erreka aldeko lainoa.
- Lainoa eta haizea batera.
- Sakaneko lainoa.
- Iparraldeko lainoa.
- Narras pasatzen den lainoa.
- Laino iluna.
- Laino itsaskorra.
- Laino itxia.
- Laino lodia.
- Mendiz mendiko lainoa.
- Lainoa: nolakoa.
- Trumoi-lainoa.
- Txingor-lainoa.
- Laino-ura.
- Lanbroa: Izendapena.
- Lanbroa: ekintzak.
- Goizeko lanbroa.
- Ostertz aldeko lanbroa.
- Gandua.

4.5.6.1. Lainoa

1. Izakiak	2. Kantitatea	3. Kalitatea	4. Jarduera	5. Denbora	6. Espazioa
Izendapena Antzigarra sortzen duen lainoa Eguraldi- aldaketa adierazten duen lainoa Behe-lainoa Lainoa eta haizea batera Narras pasatzen den lainoa Mendiz mendiko lainoa Trumoi- lainoa Laino-ura		Laino arina Laino beltza Laino iluna Laino itsaskorra Laino itxia Laino lodia Nolako lainoa	Lainoari loturiko ekintzak	Garaia	Erreka aldeko lainoa Ipar aldeko lainoa Herria (Altsasu) Sakaneko lainoa
101. taula. Lainoa: Sailkapen etnosemantikoa					

Lainoaren eremua aztertzeko bost nozio etnosemantiko bildu dira lehenengo 101. taula honetan; denak kantitatea izan ezik.

1. Izakiak: Izendapena, Antzigarra sortzen duen lainoa, Behe-lainoa, Lainoa eta Haizea batera, Narras pasatzen den lainoa, Mendiz mendiko lainoa, Trumoi-lainoa, Txingor-lainoa eta Laino-ura.
2. Kalitatea: Laino arina, Laino beltza, Laino iluna, Laino itsaskorra, Laino itxia, Laino lodia eta Nolako lainoa.
3. Jarduera: Lainoari loturiko ekintzak.
4. Denbora: Garaia.
5. Espazioa: Erreka aldeko lainoa, Hego aldeko lainoa eta Ipar aldeko lainoa.

Lanbroaren eremuan bost nozio etnosemantiko ere aztertuko dira, denak kantitatea izan ezik: Izendapenak; Kalitatea: lanbroari loturiko izenondoak; Jarduera: lanbroari loturiko ekintzak; Denbora: goizeko lainoa; azkenik, Espazioa: ostertz aldeko lanbroa.

Ganduaren eremuan nozio bakarra aztertuko da; izendapenak.

Izendapenak			Antzigarra sortzen duen lainoa	Lainoa eta haizea batera
Amilana (Amillena) Bisuts Bruma, Brumoi Euri-laino (Ebi Lanho) Enbat Erlaino, Erleño Erreka-laino (Errekallaño) Goibel Gurma, Grume Hauts (Autza) Ilun (Ilhun) Inontz (Iñutz) Ipar Lauso Itsutu Kain Kalma Lainabera (Lañabera) Lainape	Lainaza Laino (aiño, laino, lanbo, lano, laño, lañu, leñoa, llano eta llaño) Laino-gandu (Lañogandu) Lainoitsu (Laiñoitxu, Lañoitzu) Lañuitxu) Lainape (Lanhape, Lanhope) Laino zerratu Lanbo Lanbrots Langar (Lankar) Lanhuen Tzola Lantzara, lantzer Lantzurda Murruma	Hodeiatu (Odaietu) Printza (Brintza) Seren Laino (Serenolaño) Terraje (Terrajia) Ufan Ur-laino (Ur lañu, urlaiño) Xintzar Zarrazoi / Zerrazoi (zarrazoa, zarrazoe, zarrazoi, zerrezoi) Zoko-laino (zokolaño) Zurda (Surde)	Antzigar laino	Ipar-lauso
			Behe-lainoa (Goizeko lainoa)	
			Behe-laino (belaño) Erlaino (erlaiño) Goiz-laino (goizlaiño) Lainabera (laiñabera, lañabera, lañobera) Lainope (lanape)	
			Eguraldi-aldaketa iragartzten duen lainoa	
			Gandu (kando, kandu)	
			Herrietaraino sartzen den lainoa	
			Herri-laino (errilano, errilaño)	
Narras pasatzen den lainoa		Mendiz mendiko lainoa	Trumoi-lainoa	Laino-ura
Laineri Laino arrastaka Laino-herresta (lanho-herresta) Laino-herrestak (laño-errestak) Laino itsu (laiño itsu)	Laino jaitsi (laiño jatsi) Laino narras (laiño narras) Laino tarras (laiño tarras)	Mendebal- laino (Mendebal-laiño)	Hodei-laino (Odei-laiño) Trumoi-laino (Trumoi-laiño)	Ipar-ihintz (iparrintz) Lantzurda (lantzurda) Izotz
102. taula. Lainoa: Izakiak				

Lainoaren eremuko lehenengo nozio etnosemantikoan, izakiak, Izendapenak aztertu behar dira. Ugariak dira eta haietariko asko beste eremu batzuetan ere azaltzen dira. Euskara batuan erabiltzen den ortografia agertzen da hitz bakoitzean, eta parentesi artean nola jaso den ahoz. Honako hauek aurkitu dira ordena alfabetikoz: *amilana (amillena)*, *bisuts*, *bruma*, *brumoi*, *huri-laino (ebi lanho)*, *enbat*, *erlaino*, *erleño*, *erreka-laino (errekallaño)*, *goibel*, *gurma*, *grume*, *hauts (autza)*, *ilun (ilhun)*, *inontz (iñutz)*, *ipar-lauso*, *itsutu*, *kain*, *kalma*, *lainabera (lañabera)*, *lainape*, *lainaza*, *laino (aiño, laino, lanbo, lano, laño, lañu, leñoa, llano eta llaño)*, *laino-gandu (lañogandu)*, *lainoitsu (laiñoitxu, lañoitzu, lañuitxu)*, *lainape (lanhape, lanhope)*, *laino zerratu*, *lanbo*, *lanbrots*, *langar (lankar)*, *lanhuen tzola*, *lantzara*, *lantzer*, *lantzurda*, *murruma*, *(h)odeiatu (odaietu)*, *printza (brintza)*, *sereno laino (serenolaño)*, *terraje*

(*terrajia*), *ufan*, *ur-laino* (*urlaño*), *xintxar*, *zarrazoe*, *zarrazoi* / *zerrazoi*, *zoko-laino* (*zokolaño*) eta *zurda* (*surde*). Jarraian, banan-banan aztertuko dira berba guztiak.

Amilana (*amillena*) berbaren berri haizeen eremuan izan da lehenengo aldiz. Han eduki litzakeen adiera guztiak azaldu dira. Hemengo adiera Gamindek batu zuen Bizkaiko Abadiño herrian, eta lekuko baten arabera “Anbotok janzten duen txapela omen da *amillena*” (Gaminde, 1992). Haizeen eremuan azaldu bezala (§4.3), baliteke hitz hau *amil* + *lan(o)* hitz-elkarketatik etortzea.

Bisuts (*bisuts*, *bixutz*, *isutz*) hitza beste zenbait eremutan ere erabiltzen da; gehienbat *haize biziak altxatzen duen elurra* adierazteko erabiltzen bada ere, eremu honetan ere azaltzen da. Hiru aldaera dira: *bisuts*, *bixutz* eta *isutz*. Lehenengoa, Azkuek biltzen du hiztegian (*DVEF*), eta Añibarro idazlea ere aipatzen du; bigarrena, *bixutz*, Orozkon (Bizkaia) eskuratuta dago (*EHHA*) eta azkena, *isutz*, Bizkaian ere bai, Fika herrian (*EHHA*). *Bisuts* berbaren jatorria dela eta, elurraren eremuan honako hau azaldu da: agian *bris(a)* + *hauts* elkarketatik etor liteke. *Brisa* hitzaren jatorria ez dago batere garbi. Joan Corominasek hauxe dio: “Viento del Nordeste o del Este, por lo general muy fuerte”, 1504; “viento suave”, s. XIX (y alguna vez en los SS. XVII-XVIII), voz común a todos los romances de Occidente (documentada en Cataluña desde el S. XV), de origen incierto” (Corominas, 1961-1987). Bestalde, gaztelaniaz haize hotz eta zakarrari *bris* ere esan ohi zaio.

Bruma berba Bizkaiko Zollo herrian jasota dago (*EHHA*). Haren aldaera bat, *brumoi*, herrialdeko bereko Bermeo herrian (*EHHA*), ustezko izen batetik etor litekeena, *brumón*, edo beste izen batekin nahasia, *zarrazoi*, adibidez. *Bruma* gaztelaniaz erabiltzen da eta antza denez, latinezko *brevimatik* dator, *brevi*s adjektiboaren antzinako superlatiboa. *Bruma* latinez neguko solstizioa izendatzeko erabiltzen zen, urteko egunik laburrena, argi gutxien zeukana, alegia, eta horren eraginez, itxuraz, egun laburretako negua adierazteko ere baliatzen zuten hiztunek; *brumalis* eta *brumosus* berbek “negu tankerakoa” edo “neguantzekoa” esan nahi zuten eta handik geroago, “neguko iluna” edo “lainoa” izendatzera lerratu zen.

Euri-laino (*ebi lanho*) elkarketa Zuberoako Altzai herrian erabiltzen dute hiztunek (*EHHA*). Beste zenbait bazterretan, adibidez, Mundakan eta Bermeon, “euria dakarten hodeiak” adierazteko erabiltzen da (*EHHA*).

Enbat terminoa oso ezaguna da beste eremu batzuetan, adibidez, haizearenean. Gogora dezagun bertan ipinitako 34. taula, lainoari dagokiona lehenengo tokietan adieraziz (§4.3).

Hitza	Esanahia	Herria / Euskalkia / Iturria
Enbat	Goizeko lanbroa	B-Getxo, Erandio: EHHA
Enbat	Laino iluna	B-Arratia, Orozko: Azkue
Enbat	Lainoa	B-Sondika: EHHA
Enbat(a)	Galerna eta itsasaldeko lainoa	B-Gatika: EHHA
Enbat	Hodeia	B-Mungia: EHHA
Enbat	Bero ikaragarriaren ondoko haize leuna	G-Itziar, Zumaia / L-Senpere; Azkue
Enbat	Ekaitza	G-Aia, Oiartzun; L-Hendaia
Enbat	Enbata / Galerna	R. Inzagaray
Enbat	Ipar haizea / Ipar ekialdeko haizea	B-Bermeo / gipuzkera; Azkue
Enbat	Itsasotiko ekaitza	bizkaiera / gipuzkera / L-Bidarte, Senpere: Azkue
Enbat	Lehorretiko haizea	B-Txorierrri; Azkue
Enbataize	Mendebaldeko haizea	L-Itsasu / Sara; Z-Úrrustoi-Larrabile: EHHA
103. taula. Lainoa. Izendapenak: enbat(a) (§34. taula)		

Ikusten denez, “laino hutsa” esateko Bizkaiko Sondika herrian bilduta dago (*EHHA*) eta beste toki batzuetan “behe-lainoa” edo “laino iluna”. *Embate* terminoa gaztelaniaz ere erabiltzen da, eta *DRAE*ren arabera lau adiera ditu: “embate. (De *embatirse*). 1. m. Golpe impetuoso de mar; 2. m. Acometida impetuosa. U. t. en sent. fig.; 3. m. *Mar*. Viento fresco y suave que reina en el verano a la orilla del mar.; 4. m. pl. *Mar*. Vientos periódicos del Mediterráneo después de la canícula” (*DRAE*).

Erlaino (*erlaino, erleño*) terminoak, “laino hutsa” adierazteaz gain, “behe-lainoa” eta “hegoaldeko lainoa” ere esan nahi du. *Erlaino* terminoa Nafarroako Urdiain herrian bilduta dago (*EHHA*) eta *erleño* aldaera handik hurbil dagoen Dorrao herrixkan (*EHHA*). Dirudenez, bi hitzen elkarketa da; batetik, (*h*)*erri* eta, bestetik, *laino*. Bi hitz osoak dauzkan terminoa, *errilaino* (*errilano, errilaño*), Nafarroako Baztan haranean jasorik dago “herriraino sartzen den lainoa” izendatzeko (Izeta, 1996).

Erreka-laino (*errekallaño*) beste elkarketa bat da Gipuzkoako Orexa herrian bildua (*EHHA*) lainoari irizteko. Hala ere, beste bi tokitan esanahi desberdina du; *errekallaño* aldaera Bizkaiko Uribe eskualdeko Etxebarri herrian “goizeko lainoa” izendatzeko erabiltzen da (*EHHA*), eta Andoainen (Gipuzkoa) *errekalaño* hitzak “erreka aldean sortzen den lainoa” esan nahi du (*DVEF*).

Goibel elea izenondoa izaten da adierazteko “zerua lainoturik” dagoela, baina Nafarroak Eugi herrian (*EHHA*) “lainoa” esan nahi du; herrialde bereko Baztan eta Aezkoa haranetan, adibidez, “hodeia” ematen du aditzera. Garbi samar dago *goi+bel(tz)* bat egitetik datorrela.

Gurma terminoa Bizkaiko kostaldean erabiltzen da, bestek beste honako herri hauetan: Elantxobe, Kortezubin, Lekeitio eta Ondarroan (*EHHA*). Batzuetan ez dago argi, “lainoa” edo “lanbroa” ez ote den. Adibidez, Kortezubin *grume* aldaera “lainoa” da eta Ondarroan *gurmak* gauza bera esan nahi du. Itxura denez, “bruma” terminotik dator. Bestalde, Gizaburuagan *eurri-*

gurma (*euri grume*) eta *Jataben* (*auri gurme*) “euri xehea” da (*EHHA*), eta *gurmeka* berba Txorierri aldean “euri xehea” ere bai. Beraz, termino ezagun askoa da Bizkaian.

Hauts (*autza*) hitza Getarian jasota dago (*EHHA*). Esan gabe doa, badauka zerikusirik “Solidoen zatiki guztiz txiki eta banatuen multzoa”-rekin (Harluxet). Herri ikuskerak berdin edo antzekotzat jotzen ditu adiera biak.

Ilun (*ilhun*) elea Nafarroa Behereko Bastida herri hirueledunean bildurik dago (*EHHA*). Jakina denez, izenondoa ere izaten da, *goibel*-en antzera.

Inontz (*iñutz*) berba Bizkaiko Mungian baturik dago (*EHHA*). “Lainoa” ez ezik, “behe-edo goizeko lainoa” ere esan nahi omen du toki berean. *Inontz* terminoa Bizkai aldean erabiltzen da eta “lainoa” adierazteaz gain, “ihintza” edo “garoa” ere ematen du aditzera.

Ipar-lauso elkarketak “lainoa” esan nahi du Azkueren arabera (*DVEF*); haren ustez, bi herritan erabiltzen zen, Bizkaiko Durango eta Markinan. Horren harira, beste eremu batzuetan agertzen den elkarketa honek bestelako azterketa merezi du:

Hitza	Esanahia	Herria / Iturria
Ipar-lauso (Iferlauso)	Goizeko lanbroa	Markina-Etxebarri (Bizkaia)
Ipar-lauso	Ipar-ekialdeko haizearen hodei iragarleak	Bergara (Gipuzkoa)
Ipar-lauso	Goizeko laino itsaskorra	Markina (Bizkaia)
Ipar-lauso	Lainoa	Durango (Bizkaia)
Ipar-lauso (Ipar-lauso)	Haize freskoa lainoxkarekin batera; “cierzo”-aren lainoa	Laramendi (Hiztegia)
104. taula. Lainoa. Izendapenak: ipar-lauso		

Lauso hitzak esan nahi du “ondo ikustea oztopatzen duela zerbait dagoela” (Harluxet); elkarketen kasu guztietan hori ematen da aditzera: “lanbroa, lainoa, hodeia edo haize lainoxka”rekin. Beraz “iluntasun” edo “ondo ez ikusi”ari dagokion terminoa da “lauso”.

Itsutu elea Nafarroa Behereko Isturitze herrian bildurik dago (*EHHA*). Ematen du *itsutu* aditza izen bihurtu dela.

Kain berba Azkuek jaso zuen (*DVEF*) eta badirudi “lainoa” edo “izotzaren gaineko lainoa” esan nahi duela. *Refranes y Sentencias* (RS 447 *apud OEH*) atsotitz liburuan horrelaxe agertzen da: “Izotzen gaineko kaina, gorputz guztiko mina”. Horrek adierazten du zeinen txarra den horrelako lainoa gorputzarentzat.

Kalma hitza, dirudienez, Nafarroako hizkeretan erabiltzen dute; batetik, “hodeia” esan nahi du Nafarroako herri batzuetan; adibidez, Leitzan (*EHHA*); eta, bestetik “lainoa” hegoalderago, Arbizun (*EHHA*).

Lainabera (*lañabera*) berba erabiltzen da “lainoa” zein “behe-lainoa” esateko. Adiera biak, Bizkaian; lehenengoa, Zaratamon (*EHHA*) eta bigarrena, Basaurin, Azkueren arabera (*DVEF*). Herriok elkarretatik hurbil samar daudenez gero, zalantza da ez ote den kontzeptu bera adierazten *lañaberaren* bidez.

Lainape (*lanhape*, *lanhope*) terminoaren esangura “lainoa” bera zein “behe-lainoa” esateko erabiltzen da. Toki batzuetan bien arteko muga oso lausoa da, zein den hiztunaren egoera. Hala ere, sarriago erabiltzen da “behe lainoa” esateko “lainoa” bera izendatzeko baino. Bi aldaera ditu lainoa adierazteko. Baditu beste adiera batzuk, aurrerago aztertuko direnak. *Lainape* aldaera hobesten da; izan ere, berba zaharretan ohikoa izaten da amaierako *-o -a* bihurtu izana. Itxura denez, *laino+pe*-tik dator hitz hau. *Lanhape* aldaera zubereraz erabiltzen da; Azkuek jasoa da (*DVEF*). *Lanhope*, era berean, Nafarroa Behereko Arboti-Zohota herrian bildua da (*EHHA*).

Lainaza (*laiñhaza*, *lanhaza*) hitzak ematen du atzizki bat daukala berekin, *-za*, ugaritasuna adierazten duena; *laiñhaza* aldaera Landerretchek bildu zuen Azkueren hiztegiari egindako zuzenketetan eta Lapurdiko itsasertzean erabiltzen zela adierazi zuen (*OEH*). Beste aldaera, *lanhaza*, *Federaren Propagacionean* azaltzen da (*DRALV*).

Laino hitzak ematen dio izena eremu honi. Jakina denez, bazter askotan “hodeia” eta beste batzuetan “gandua” edo “lausoa” ere esan nahi du. Badirudi, *laino* hodeiari irizteko erabiltzen den tokian, *laino* beste era batera esaten dela; hitz honen inguruan nahasketa handia dago, baina adierazia garbi samar dago: “airean ur-tanta guztiz txikiz osatutako esekidura, lurretik hurbilekoa eta ikustea eragozten duena” edota, Euskal Herriko mendebaldeko euskalkietan, “hodeia” (Harluxet). Aldaera ugari ditu berba honek: *aiño*, *laino*, *laiño*, *laiñotxu*, *lanbo*, *lano*, *laño*, *lañu*, *leñoa*, *llano* eta *llaño*. Horrek jatorrizko hitza **lanno* (*FHV*) ote den pentsatzera garamatza.

Aiño Azkuek bildu (*DVEF*) eta bizkaieraz, gipuzkeraz eta goi-nafarreraz erabiltzen zela adierazi zuen; *laino* hainbat tokitan bilduta dago, edozein hiztegi eta bildumatan agertzen da; *laiño* Azkuek ere bildu zuen (*DVEF*). Erabiltzen den tokiei dagokienez, bizkaiera, Gipuzkoako Andoain herria eta Nafarroako Zaraitzu harana markak jarri zizkion berbari; *lanbo* hitza *lanbrotik* oso hurbil dago. Baliteke beste hizkuntza batzuen berbeekin nahasketa gertatu izana —gasc. *l'embrun* eurixka—; frantsesez “Poussière de gouttelettes formée par les vagues qui se brisent, et emportée par le vent”³⁷. Aldaera hau Harrietek jaso zuen bere hiztegian inongo beste markarik gabe (Harriet *apud OEH*). Bestalde *lanbo* eleak beste gauza bat ere esan nahi du:

³⁷ <https://dictionnaire.lerobert.com/definition/embrun>

garra edo *lama*; *lano* aldaera, besteak beste, Nafarroako Erronkari haranean bildu zen (Estornes, 1997); *laño* hitza ziurrenik, zabalduena da. Horrela ematen du aditzera Azkuek, “Orokorra” marka ezartzen baitio. Beste hizkerei dagokienez, adibidez, Bizkaiko Bakio herrian ere jaso zen (Gaminde, 1999); *lañu* aldaera Monzonek erabiltzen du (Urrundik, 143 *apud DRALV*); *leñoa* hitza, amaierako *-a* eta guzti, Bizkaiko Zeberio herrian bildu zuten (EHHA). Hantxe ere baturik dago *leiño* aldaera hodeia esateko. Beraz, baliteke *-a* hori artikulua izatea; *llano* elea Nafarroako Aezkoa haranean batu zen (Camino, 1997). Bitxia da hasierako bustidura; azken aldaera, *llaño*, aurrekotik hurbil, Gipuzkoako Hondarribia herrian bildu zen (EHHA).

Horietaz gain, *lainoari* loturikoak badira, elkarketak zein eratorriak:

Laino-gandu (*lañogandu*) elkarketa Gipuzkoako Aia herrian bildu da (EHHA). Dirudienez, bigarren hitzak ez dio esangura bereziriik eranstean elkarketari. Espero izatekoa zen bestelako ñabardura izatea, baina, ez; antza denez, “laino hutsa” esan nahi du.

Lainoitsu hitza dela-eta, hiru aldaera aurkitu dira: *laiñoitsu*, *lañoitsu* eta *lañuitxu*. Horiek direla-eta, uste da jatorrizko hitza *laino* + *itsu* dela. Izan ere, beste aldaera bat dago datutegian, *laino itsu*, *hitz biak* bananduta, “herrestan dabilen lainoa” esan nahi duena. Aldaerei dagokienez, *laiñoitsu* Bizkaiko Dima herrian erabiltzen da; *lañoitsu*, herrialde bereko Zornotzan eta *lañuitxu* Gipuzkoako Elgoibar herrian (EHHA).

Hurrengo izendapena *laino zerratu* da. Hiru aldaera daude, eta hirurak Nafarroan bilduta (EHHA): *laño zerratu*, Goizuetan eta Sunbillan eta *llano zerratu* Abaurregainan. *Zerratu* hitzak ematen du izenondo eginkizuna betetzen duela, “itxia” edo “sarria” adierazteko.

Lanbo elea Harrieten Hiztegian agertzen da (OEH), tarteko *-r-* gabe. “Lainoa” esan nahi du, baina “lanbroa” ere bai, Azkueren arabera (DVEF).

Lanbrots hitza Zuberoako Pagola herrian bilduta dago (EHHA). Ziurrenik *lanbro* + *hots* elkarketatik dator. Dirudienez, bertako euskal hiztunaren adimen-begiak uste du lanbroak nolabaiteko hotsa ateratzen duela. Handik hurbil, Urdiñarben, “lainoak sortutako eurixka” esan nahi du, baita Nafarroa Behereko Jutsi herrian (EHHA) eta Aldude bailaran ere (DVEF). Bestalde, badirudi “lanbroa” ere esan nahi duela (DRALV).

Langar (*lankar*) terminoa oso ezaguna da eremu etnometeorologikoan. Ziur asko *la(i)n(o)* + *kar*, *gar* elkarketatik dator, hau da, “lainoak sortzen duen garra edo lama”. Beraz, “euri xehe edo oso mehea”. Kasu honetan, Nafarroa Behereko Bidarrai herrian jasota dago ele hau “laino hutsa” adierazteko (EHHA).

Lanhuen tzola terminoa, esaten den bezalaxe, adieraztea erabaki da, jatorrizko aleak garbi ez baitaude. Euskal Herriko ipar-ekialdeko Larraine herrian bildua da (EHHA).

Lantzara eta *lantzer* (*lantxer*) berbak Nafarroan ere bildurik daude. Lehenengoa Azkuek bildu zuen Zaraitzu haranean (*DVEF*) eta bigarrena, berak ere Erronkari haraneko Uztarroze herrian. Argi apur bat ematearren tankera horretako hitzek daukaten esanahia emango da aditzera honako 105. taula honetan:

Hitza	Esanahia	Herria / Euskalkia / Iturria
Lantzer (<i>lantxer</i>)	Ihintza	J.A. Astigarraga
Lantzer (<i>lantxer</i>)	Lainoa	N-Erronkari
Lantzer	Euri xehea	BN-Ezterenzubi; zuberera
Lantzar	Euri xehea	BN-Arnegi / Jutsi
Lantzara	Antzigarra	BN-Donibane Garazi; N-Erronkari; zuberera
Lantzara	Lainoa	N-Zaraitzu
105. taula. Lainoa. Izendapena: <i>lantzer</i> / <i>lantzara</i>		

Badirudi berba honen adierek daukatela zerbait komunean, hezetasuna, alegia: *ihintza*, *lainoa*, *euri xehea* eta *antzigarra*.

Lantzurda beste zenbait eremutan aipatu izan da, batez ere, elur, euri eta izotzari dagokionez; lehenengo aldiz euriaren eremuan (§4.5.2). Hemen “*lainoa*” baizik ez da, eta Nafarroa Behereko Larzabale eta Zuberoako Ürrüstoi herrietan bildu da (*EHHA*). Itxuraz bi osagai dauzka bere baitan: *lan(o)* eta *zurda*.

Murruma berba ez da agertzen ez Euskaltzaindiaren Atlasean (*EHHA*), ez *OEHN*, baina, Gamindek, bai, jaso egin du Bizkaiko Bakio herrian (Gaminde, 1999). Itxuraz, onomatopeikoa ematen du, *lainoak* soinua aterako balu bezala.

(*H*)odeiatu (*odaietu*) berba inguru berean bilduta dago, Mungia herrian (*EHHA*). Ez dago esan beharrik *hodeirekin* zerikusi zuzena duela.

Printza (*brintza*) hitza Hondarribian bildurik dago (*EHHA*). Euskaraz berba hori “*eguzki-izpia*” ere esateko erabili ohi da: “(Argi) *izpia*. *Eguzki printzak*. *Mendi ertzetik urrezko printzak agertzen ditu eguzki argiak*” (*EH*).

Sereno laino (*serenolaño*) elkarketa Gipuzkoako Beizama herrian jasota dago (*EHHA*). Bitxia da gaztelaniatik datorren *sereno* hitza erabiltzea. Hala ere, ez da arrotza herri-meteorologian; izan ere, honako hauetan erabiltzen da:

Hitza	Esanahia	Herria
Sereno	Behe-lainoa	G-Elgoibar
Sereno	Lainoa	G-Beizama
Seden	Behe-lainoa	G-Azpeitia
Seden	Ihintza	BN-Gamarte
Gau-seden	Ihintza	BN-Arboti-Zohota
Xeden	Ihintza	BN-Ezterenzubi
106. taula. Lainoa. Izendapenak: <i>sereno</i>		

Garbi dago herrialdeen arteko sailkapena; Gipuzkoa aldean “behe-lainoa” edo “lainoa” esateko erabiltzen da elkarretatik hurbil dauden zenbait herritan (*EHHA*) eta, Nafarroa Beherean, “ihintza” adierazteko baliatzen dute hiztunek (*EHHA*). Gogora dezagun *sereno* hitzak zer esan nahi duen gaztelaniaz: “Seren (Del lat. *serēnum*, de *serum*, la tarde, la noche)”:

1. Humedad de que durante la noche está impregnada la atmósfera.
2. Claro despejado de nubes o nieblas (*DRAE*).

Terraje (*terrajia*) hitza Donostian bertan baturik dago (*EHHA*). Ez da beste inon agertzen. Bai, oster, *terral* “behe-laino”-ari irizteko, Gipuzkoako Deba herrian (*EHHA*). Beste zenbait lekutan, adibidez, Bizkaiko Lekeitio, “lehorretik datorren haize”-ari esaten zaio (Lekeitioko lantaldea, 2001: 26). Gaztelaniazko “terraje” terminoak ez bide dauka zerikusirik euskarazko esangurarekin: “1. m. terrazgo (renta)” (*DRAE*).

Ufan elea Gipuzkoako Ataun herrian baino ez da aurkitu (*EHHA*). Bai, “lainoa”, bai “behe-lainoa” esan nahi omen du.

Ur-laino (*urlaño*) hitz-elkarketa Nafarroako Oderitz herrian jasota dago (*EHHA*). Beherago ikusiko dugunez, Bizkaiko Ondarroan beste esanahi batekin erabiltzen da.

Xintzar berba Harrietek bildu zuen bere hiztegian (*OEH*). Gogora dezagun *lanbro-zintzar* elkarketa ere erabiltzen dela euri xeheari irizteko (*DVEF*).

Zarrazoi terminoaren jiran zenbait aldaera daude. *Zarrazoa* (*sarrasoa*) Bizkaiko Mendata herrian erabiltzen da (*EHHA*). Toki berean *zarrazoi* (*sarrasoi*) aldakia ere badago; haren definizioa ematen zaigu: “Eguraldia iluntzen duen ur tanta txikien masa” (Mallea, 2002).

Bestalde, esangura hori edukirik, herrialde bereko zenbait herritan ere ohikoa da: Bermeo, Leioa eta Lemoizen, adibidez (*EHHA*). Gamindek, aldiz, beste definizio baten berri ere ematen du: “Geldi geldi lotxen dana sarrasoi da” (Gaminde, 1997); *zarrazoe* (*sarrasoe*) beste aldaera bat da, Mendatatik hurbil, Ibarri herrian (*EHHA*); *zerrazoi* hitza Gipuzkoako Orío eta Zestoa herrietan bilduta dago (*EHHA*). Horretariko berbek, ezbairik gabe, gaztelaniaren *cerrazón* terminoa gogorarazten digute. Izan ere, *cerrazón*:

En un contexto meteorológico, se refiere a la oscuridad asociada a las tormentas o a otras situaciones en las que el cielo también se cubre de nubes de gran espesor, lo que reduce considerablemente la luz ambiental. Es común referirse a un cielo cerrado para expresar que está encapotado. (Viñas, 2019: 54)

Zoko-laino (*zokolaño*) elkarketa Nafarroan bildurik dago, Etxarri (Larraun) eta Leitza herrietan (*EHHA*); lehenengoan “lainoa” da; bigarrean, aldiz, “behe-lainoa”.

Amaitzeko, *zurda* (*surde*) berba beste eremu batzuetan elur edo izotzari lotuago dago, baina, kasu honetan, Bizkaiko Dima herrian “lainoa” esan nahi du (*EHHA*). Goratxoago aipatu da *lantzurda* “lainoa” ere adierazteko.

Behin izendapenak aztertutik, gainerako kategoriak aztertu behar dira. Hurrengoa Antzigarra sortzen duen lainoa da. Elkarketa bakarra aurkitu da, *antzigar-lainoa* Azkueren Hiztegian (*DVEF*).

Hurrengo kategoria ezbaian dago, Behe-lainoa izenekoa, hots, behe-behean eta goizez eratzen den laino mota hori. Hori dela-eta, zalantza izan da Behe-lainoa edo Goizeko lainoa kategoria sortzea. Azkenean, erabaki da “Behe-lainoa”, ostagi hori hobeto adierazten duelakoan. Izan ere, Azkuek (*DVEF*) “niebla matinal” erabiltzen du. Bestalde, hiztunen artean nahasmen handia omen dago; batzuek “lainoa” dela diote, besteek “lanbroa”. *EHHAn*, gaztelaniaz, *bruma matinal*, frantsesez, *brume matinale* eta ingelesez *morning haze*. Hori dela-eta, bertan azalduriko hitz guztiak beste kategoria baterako utzi dira, Goizeko lanbroa, alegia. Nolanahi ere, ez da batere garbi “goizeko lainoa”, “behe-lainoa” eta “goizeko lanbroa” gauza bera ez ote den. Kontuak kontu, “behe-lainoa” adierazteko honako hitz hauek aurkitu dira.

Behe-laino (belaiño) elkarketak ematen dio izena kategoria honi. Gaur egungo hedabideetan zabalduea denez gero, hartaz baliatzea erabaki da. Bazter ugaritan erabiltzen da hitz hau, besteak beste, Bizkaiko Markina eta Berriz herrietan (*DVEF*).

Erlaino (erlaiño) berba goratxoago ere aztertu da “lainoa” esan nahi dutenen artean. Oraingoan, “behe-lainoa” da, Azkuek jasota (*DVEF*); Bizkaiko Orozko herrian, Arratia haranean eta Gipuzkoako Oñatin erabiltzen da.

Goiz-laino (goizlaiño) elkarketak ere ematen du aditzera zer-nolakoa den laino mota, goizean goiz sortzen dena, alegia (*DVEF*).

Lainabera (laiñabera, lañabera, lañobera) hitza aztertu ere egin da aurreko kategorian, lainoari irizteko. Aipatu bezala, Bizkaian, *laiñabera* Basaurin eta *lañobera* Arratian erabiltzen dira (*DVEF*). Bestalde, *lañaberaren* berri ere ematen du (*DVEF*).

Lainope (lanape) terminoa esan daiteke *behe-laino* alderantziz dela. *Laino* eta *-pe* atzizkiaz osaturik dago. *Lanape* aldaera Harrietek jasotzen du bere hiztegian (*OEH*). Horretaz gain, azaldu bezala, “lainoa” ere esan nahi du, baita “laino lodia” ere (*Axular-OEH*).

Hurrengo kategoria Herrietaraino sartzen den lainoaz eraturik dago. Bertan, hitz bakarra dago: *herri-laino (errilano, errilaño)*. Azaldu bezala, Izetak bildu zuen Nafarroako Baztan haranean (Izeta, 1996). Hitzaren osaera oso garbia da ez baitu higadurarik izan; izan ere, (*h*)*erri* eta *laino* eleez osaturik dago.

Hurrengo kategorian, Eguraldi-aldaketa iragartzen duen lainoa, hitz bakarra da: *gandu*. Ikerlan honetan *gandu* terminoa beste eremu bat izendatzeko erabiliagatik ere, etnometeorologian beste zenbait adiera ditu: “lanbroa” edo “aldaketa iragartzen duen hodeia” ere bai. Azken honek orain aztertzen denarekin zerikusirik handia du. Bi aldaera aurkitu dira:

kando eta *kandu*: lehenengoa Izetak jaso zuen Nafarroako Baztan aldean (Izeta, 1996). Aipa hau dakar: “Mendi oietan *kandoa* bada, eguraldiek badu aldakuntze”; beraz, eguraldia aldatzen denean, zeruaren eta mendien artean agertzen dena; bigarrena, *kandu*, Gipuzkoako Ikaztegietan erabiltzen da (*EHHA*) eta antzeko definizioa bildurik dago: “*Kandue*: mudantza daukenean”.

(G-azp-bet), *kandu* (G-to, L), *kando* (B). Ref.: A; Lh (*kandu*); Iz To (*kandube*); Gte *Erd* 108; Izeta *BHizt2* (*kando*). (Sentidos prop. y fig.). Niebla, bruma. Las refs. dialectales (Iz To, Gte *Erd*) apuntan más bien a 'neblina, calina'. "*Gandua da* (laino mehea. Egunik eguzkitsuenetan ere izan liteke) (G-azp)" Gte *Erd* 108. “Bruma. Mendi oietan *kandoa* bada, eguraldiek badu aldakuntze” Izeta *BHizt2*. [Berriak] *Ana Josepari animako gandua kendu zioten*. Ag G 367. *Itsasotik geldi geldi yeikitzen zen gandua zuri ariña*. Or Mi 110. *Begiak lauso ta burua gandua <gun=> zeuzkan, ba, gaxoak!* TAg *Uzt* 252. *Jentil-aroko gandua artetik*. SMitx *Aranz* 74. *Ezin ikus ditzake; gainerazkoak oro gandua batek estalirik daudelako*. Mde *Pr* 266. *Intensuaren lurrun- / ganduen antzean*. Gand *Elorri* 78. *Kandu ondorengo aize garbitzeak, edo egoia edo euria*. EgutAr 18-9-1965 (ap. *DRA*). *Lanbroak bere ganduz estaltzen zituen bazterrak*. MEIG IX 94. (*OEH*)

Hurrengo kategorian Lainoa eta haizea batera termino bakarra ere badugu: *ipar-lausoa*. Izendapenetan ere agertzen denez gero, goratxoago eman da adieren berri. Kasu honetan Larramendik jasotzen du: “haize freskoa lainoxkarekin batera; *cierzo*-aren lainoa” (*OEH*).

Narras pasatzen den lainoa kategoriari dagokionez, honako hitz hauek aurkitu dira: *laineri*, *laino arrastaka*, *laino itsu* (*laiño itsu*), *laino-herresta* (*lanho-herresta*), *laino-herrestak* (*laño-errestak*) eta *laino jaitsi* (*laiño jatsi*).

Laineri terminoa Nafarroako Ziordia herrian eskuratuta dago (*DVEF*). Hauxe erantsi zuen: “boira, niebla que pasa por los montes”. Badirudi *-eri* atzizkiak *-eriarekin* zerikusia duela multzoa adierazteko.

Laino arrastaka hitz-elkarketa Ziordiatik hurbil dagoen Etxarri Aranatz herrian bildurik dago (Maiz & Mundiñano, 1998). Oso elkarketa adierazgarria da. Garbi dago zer esan nahi duen: “arrastaka doan lainoa”.

Laino itsu (*laiño itsu*) izena eta izenondoa, Azkuek jasotzen du (*DVEF*). Haren arabera honako herri hauetan erabiltzen da: Bizkaiko Orozko eta Ubidean eta Gipuzkoako Andoainen. Hiztunen adimen-begiak sumatzen du herrestan igarotzen den lainoa “itsua” dela; ez da harritzekoa, barruan egonda nekez ikus baitaiteke. Bestalde, aurretik azaldu da antzeko terminoa; *lainoitsu* (*laiñoitxu*, *lañoitzu*, *lañuitxu*), “laino” hutsa aditzera emateko. Baliteke biak berdinak izatea, hemen bereizi diren arren.

Laino-herresta (*lanho-herresta*, *laño-errestak*) oso berba garbia da; izan ere, adierazi egiten du zer-nolako den lainoa, hau da, “herrestan” doala. *Lanho-herresta* aldaera ere badago (Lhande, 1926) eta *laño-errestak* Azkuek dakar Hiztegian (*DVEF*) eta zuberera euskalkiaren marka darama.

Laino jaitsi (laino jaitsi) izena eta aditz partizipioa; Azkuek ere badakar (*DVEF*), eta, dioenez, Bizkaiko Ispaster herrian erabiltzen da. “Jaitsi egiten den lainoa” da, antza.

Laino narras (*laino narras*) izena eta izenondoa. Azkueren arabera (*DVEF*) Araban eta Bizkaiko Markina herrian erabiltzen da. *Narras* adjektiboak “herrestan, arrastaka doana” esan nahi du (Harluxet).

Laino tarras (*laino tarras*) izena eta adizlaguna aurrekoaren antzekoa da. *Tarras* Bizkai aldean erabiltzen da “narras” edo arrastaka adierazteko (Labayru Hiztegia). Azkueren esanetan, Bizkaiko Arratia haranean eta Galdakao herrian baliatzen dute hiztunek (*DVEF*).

Hurrengo kategoria Azkuek emandako definizio baten arabera eraturik dago (*DVEF*): Mendiz mendi joaten den lainoa. Elkarketa bakarra dago, *mendebal-laino* (*mendebal-laino*). Azkuek ez du bestelako argibiderik ematen.

Azken aurreko kategoria Trumoi-lainoari dagokio, hau da, “trumoiarekin batera azaltzen den lainoa”. Bi elkarketa dira: *hodei-laino* eta *trumoi-laino*. Biak Gipuzkoa aldean bildurik daude; lehenengoa, Oñatin, eta bigarrena, Andoainen. *Hodei-laino* dela-eta, ezagun da euskal mitologiako jeinuarekin zerikusia duela; izan ere, Mari jainkosaren esanetara egoten da eta ekaitz edo trumoi gisa irudikatzen dute hiztunek (Barandiaran, 1983).

Azken kategoria Laino-ura. Hiru termino dira: *ipar-ihintz* (*iparrintz*, *lantxurda* eta *izotz*). Horiek guztiak Azkuek bildurikoak dira.

Ipar-ihintz (*iparrintz*) elkarketak, adiera honi dagokionez, ez du inolako argibiderik. Bai, ostera, dakarren beste adieran: “llovía menuda y fría que viene con el viento Norte”. Nafarroako Zaraitzu haranean eta Erronkariko Uztarroze herrian erabiltzen zen (*DVEF*).

Lantzurda (*lantxurda*) berba gorago aztertu da Lainoa adierazteko kategorian. Bertan aipatzen denez, etnometeorologiaren beste eremu batzuetan erabiltzen da, batik bat elurrari, euriari eta izotzari dagokienez. Aurrerago ere aztertuko da Nafarroako Auritz herrian “ardiak gaixoarazten dituen laino beltza” baita (Iribarren, 1952). Oraingo hitza, *lantxurda*, Azkuek jasorikoa da Behe-Nafarroako Aldude haranean, eta adierazi zuen erronkaria eta zuberera euskalkietan erabiltzen zela (*DVEF*).

Izotz elea kategoria honetan bitxia da; izan ere, oso hitz erabilia da “jela” adierazteko eta harrigarri samarra da beste zenbait eremutan ere agertzea. Hemengo adiera, “laino-ura”, Azkuek berak ere bildutakoa da eta eman zuen aditzera Lapurdiko Ainhoa eta Nafarroako Uztarroze herrietan erabiltzen zela (*DVEF*). Hitzaren balizko osaerara jotzen bada, agian, adimen-begiak honela sortuko zukeen: *ih(i)n(t)z + hotz*, hau da, “tanta hotza” edo esan nahi luke. Izotzaren eremuan azaldu da hitzaren nondik norakoa (§4.5.5).

Hitz hori azterturik, amaitu da lainoari buruzko lehenengo nozioa, Izendapenak. Kantitatea dela-eta, ulertzekoa denez, ez dago termino bakar bat bera ere; izan ere, garrantzizkoagoa bide da lainoaren nolakotasuna, zenbatasuna baino.

Laino arina	Laino beltza	Laino iluna	Laino itsaskorra	Laino lodia	Nolako lainoa
Hodeixka (Hedoiska) Lanbrodura	Lantzurda (Lantxurda)	Enbat	Ipar-lauso Tabosa (taosa)	Lainope (lanhape, lanbope, lanope) Murmoi Eguraldi sumin (egoaldi sumiña)	Beltz (baltz) Gorri Itsu Lodi
107. taula. Lainoa: Kalitatea					

107. taula honetara biltzen dira kalitate nozio etnosemantikoari dagozkion kategoriak. Ondoko hauek dira: Laino arina, Laino beltza, Laino iluna, Laino itsaskorra, Laino itxia, Laino lodia eta Nolako lainoa den.

Laino arina dela-eta, bi hitz dira datutegian: *hodeixka* (*hedoiska*) eta *lanbrodura*. *Hedoiska* aldaera Oxobi idazleak erabiltzen du (Gure Herria, 1925 *apud DRALV*). Antza denez, ele hau *hedoi-* + *-xka* txikigarritz osaturik dago. Ez da oso arrunta *hodei* berba eremu honetan aurkitzea; bai, ordea, *laino* hodeien eremuan; *lanbrodura* terminoa Azkuek jasotakoa da, eta ez du beste inolako argibiderik ematen. Osaerari dagokionez, garbi dago *lanbro* hitzak eta *-dura* atzizkiak parte hartzen dutela.

Laino beltzaz bezainbatean, beste kategoria batzuetan aztertutako *lantzurda* (*lantxurda*) berba dugu. Azaldu bezala, oso bitxia da haren esanahia: “ardiak gaixoarazten dituen laino beltza” da; Nafarroako Auritz herrian topatu zen (Iribarren, 1952). Bertako hiztunen adimen-begiak kausa-ondorioa sumatuko zuen laino mota hau azaltzen denero.

Hirugarren kategoria Laino iluna da; berba bakarra dugu: *enbat*. Hitz hori aski ezaguna da haizeen eremuan, eta bertan azterketa sakona egin da (§34. taula). Lainoa bera ere adierazteko erabiltzen da, azaldutakoaren arabera. Hemengo adiera Bizkaiko Arratia, Txorierrri eta Orozko haranetan bildu zuen Azkuek (*DVEF*).

Hurrengo kategoria “Laino itsaskorra” da. Bi hitz dira: *ipar-lauso* eta *tabosa* (*taosa*). *Ipar-lauso* elkarketa gorago ere aztertu da Lainoaren kategorian. Hemen “goizeko laino itsaskorra” esan nahi du elkarketak (*DVEF*). *Tabosa* (*taosa*) hitzak, ostera, “itsasaldetik datorren laino edo lanbro itsaskor eta lodia” adierazten du; beraz, “Laino lodia”ren kategorian ere sar liteke, *murmoi* berbarekin batera. Gaur egun, ahoz, *taosa* aldaera nagusitu da: “Zumaia

aldean, berriz, *taosa* esaten diote, zehatz-mehatz itsasotik sartutako lanbro itxi horri”³⁸. Fonetika aldetik, bitxi samarra da hitz hau euskaraz. Izan ote lezake zerikusirik erdarazko *babosa* berbarekin, hau da, likitsa den zerbaitekin?

Bosgarren kategoria “Laino lodia” da. Kategoria honetan beste bi berba eta beste termino bat dira: *lainope* (*lanhape*, *lanbope*, *lanope*), *murmoi* eta *eguraldi sumin* (*egoaldi sumiña*). Zalantza egon da bi kategoria sortu edo bakarra. Zer ote da egokiagoa, *laino itxia* ala *lodia* esatea? Azkenean *lodia* lehenetsi da. *Lainopek* “lainoa bera” ere esan nahi duenez gero, gorago ere aztertu da. Lehenengo aldaera *lanhape* da (*DRALV*). Osaerari dagokionez, *laino* hitzari *-pe* atzizkia eransten zaio. Beraz, “lainoaren azpian” edo antzeko zerbait ematen du aditzera. Bigarren aldaera *lanbope* da. (Lhande, 1926); eta azkena, *lanope*, Axular idazle handiak erabilia (Gero, 1643 *apud OEH*). Bigarren hitza, *murmoi* da. Esan bezala, aztertutako *tabosaren* parekoa izan liteke. Datutegiko termino hau Azkueren hiztegian jasota dago (*DVEF*); gaur egun, Bizkaiko kostaldeko Bermeo eta Mundaka herrietan bizirik dago eta itsasotik lehorra etortzen den laino lodi hori ematen du aditzera; azkena, izena gehi izenondoa da: *eguraldi sumin* (*egoaldi sumiña*). Hemen sartu da Mokoroak erdaraz “niebla cerrada” itzulpena ematen baitu (Mokoroa, 1990). Haren esanetan, Gipuzkoako Goierri eskualdean erabiltzen da.

Azken kategorian lainoarekin erabiltzen diren koloreak eta izenondoak eta sartu dira: *beltz* (*baltz*), *gorri*, *itsu* eta *lodi*: *laino beltz* (*laño baltz*) Gamindek batu zuen Bizkaiko Meñaka herrian (Gaminde, 2001c), baina alboan “laino beltza” besterik ez zela adierazi zuen. Ezin jakin daiteke zer ote den *laño baltza*; gauza bera gertatzen da bertan bildutako *laino gorriarekin* (*laño gorri*). Berbaren definizioan “laino gorria” besterik ez zela idatzi zuen. Baina zer ote da “laino gorria”? Lehenengo izenondoa *itsu* da. Mokoroak (Mokoroa, 1990) *laño itsue* transkribatzen du Bizkaiko Zeanuri herrian entzundako elkarrizketa batean: “Artzañak baso-bideak jakiteko nai-ta *laño itsue* egon eztabe bear brujula edo ostantzeko tramankulurik”; bigarrena, *lodi* da. Mokoroak berak bildutakoa da eta adierazi zuen Zuberoako herrialdean erabiltzen zela (Mokoroa, 1990).

Lainoari loturiko ekintzak
Laino izan (laño izan)
Laino sarea egon (laño sarea egon)
Lainoak hartu (lañoak artu)
Lainoak jo (lañoak jo)
Lainotu
108. taula. Lainoa: Jarduera

³⁸ <http://sustatu.eus/1331824121>

108. taula honetan jasotzen da jarduera nozio etnosemantikoari buruzko kategoria bakarra: “Lainoari loturiko ekintzak”. Haren barruan honako lokuzio eta aditzak bildu dira: *laino izan* (*laño izan*), *laino sarea egon*, *lainoak hartu*, *lainoak jo*, eta *lainotu*. Lehenengo laurak Mokoroak bildutakoak dira (Mokoroa, 1990).

Laino izan (*laño izan*) goi-nafarrera euskalkian erabiltzen da: “laño da...” (Mokoroa, 1990); *laino sarea egon* (*laño sarea egon*) Gipuzkoako Zarautz herrian eskuraturik dago, eta badirudi “laino lodia”ren kontrakoa dela; *lainoak hartu* (*lañoak artu*) bizkaieraz erabiltzen da Mokoroaren esanetan, eta “ustekabeen lainoak harrapatzen gaituela” da (Mokoroa, 1990); *lainoak jo* (*lañoak jo*) aditz-lokuzioak aurrekoaren antzeko esanahia du eta Gipuzkoako Urnieta herrian jaso zuen Mokoroak; azkenik, *lainotu* aditza Elhuyarrek argitaratutako hiztegiak dakar, eta gaztelaniaz honako hau dio: “Aparecer la niebla, cubrir(se) de niebla” (Elhuyar Hiztegia).

Garaia
Lanaghei Lainotei (lanotei)
109. taula. Lainoa: Denbora

109. taulak denbora nozio etnosemantikoa hartzen du aintzat eta kategoria bakarra azaltzen du: Garaia. Hari dagokionez, bi hitz baino ez; *lanaghei* eta *lainotei* (*lanotei*). Bi berbok aurkako esangura dute; lehenengoak “lainorik gabeko aldia” esan nahi du zubereraz, Lhandek bildurikoa da (Lhande, 1926); bigarrenak, aldiz, “laino-aldia” (Armanak Uskara 1895: 87 *apud DRALV*). *Lanaghei la(i)no* hitz eta *g(h)ai / g(h)ei* atzizkiaz osaturik egon liteke, eta *lainotei laino* eta *-te(i)* atzizkiaz; izan ere, *-te* atzizkiak aldia edo garaia esan nahi du.

Erreka aldeko lainoa	Ipar aldeko lainoa	Herria (Altsasu)	Sakaneko lainoa
Erreka-laino (errekalaño) Gangarabi Ur-laino	Ipar-laino (ifar-laino, iparlaño, iper-lano, iper- laño)	Hegoakatz (egoakatz)	Erlaino (erlaño)
110. taula. Lainoa: Espazioa			

Lainoari dagokionez, 110. taula hau azkena da; espazio nozio etnosemantikoa jorratzen du, lainoa egoten den toki jakinaren ingurukoa da. Guztira, lau kategoria eratu dira: Erreka aldeko lainoa, Ipar aldeko lainoa, Herria eta Sakaneko lainoa.

Erreka aldeko lainoa dela-eta, hiru termino jaso dira: *erreka-laino* (*errekalaño*), *gangarabi* eta *ur-laino*.

Erreka-laino (*errekalaiño*) elkarketa aurretik aztertutik dago Lainoari buruzko izendapenetan, “laino hutsa”, alegia. Kasu honetan hitz honek izena ematen dio kategoriari, garbi-garbia baita. Aurrerago ere aztertuko da; izan ere, “Goizeko lanbroa” aditzera emateko ere erabiltzen da zenbait herritan. Hemengo aldaera, *errekalaiño*, Gipuzkoako Andoain herrian bildurik dago (*DVEF*).

Gangarabi berba bitxia Azkuek aipatzen badu ere (*DVEF*), hona Bizkaiko Lekeitio herrian jasotakoa dakargu; izan ere, oso definizio eta deskripzio zehatza ematen dute bertan:

Lurruna da eta erreketan sortzen da terralaren hotzaren eraginez. Fenomeno atmosferiko hau sortzen da atmosferako hotzak eta erreka barruko tenperatura ez hain hotzak bat eginda. Portuan igarten da bau antzekoa ateraten dalako bapor artean. (Lekeitioko lantaldea, 200: 26)

Beraz, beste ñabardura bat erantsi behar diogu; erreketan sortzeaz gain, hotza da.

Ur-laino elkarketa dela-eta, hiru bertsio derberdin ditugu: *urlaiño* “laino hutsa”, gorago aztertutakoa, eta Bizkaiko Ondarroa herrian bi egileren interpretazioak; bata, *ur lañu*, Barrutiaren hitzetan (Barrutia, 2000), “Hotzak ateratzen duena erriotan, kea”, eta, bestea, *urlaiño*, Azkueren esanetan, “lanbroa edo behe-lainoa” (*DVEF*). Itxura denez, Eneko Barrutiaren interpretazioa zehatzagoa da Azkuerena baino, hitzaren deskripzioa ematen digu eta. Hala ere, Azkueren bertsioa Lanbroaren azterketan jorratuko da.

Bigarren kategoria Ipar aldeko lainoa da eta dagoen hitz bakarra *ipar-lainoa* da, hain zuzen ere. Aldaera guztiek bere baitan *ipar* hitza badute ere, ematen diren definizioak ez datoz bat. *Ifar-laiño* aldaerak bi interpretazio ditu: bata, “*Cierzo* haizeak sorrarazten duen lainoa” eta bestea “Ipar-haizeak dakarren lainoa” (*DVEF*). Lehenengoa Gipuzkoako Hernani herrian eta Nafarroako Arakil eta Etxarri-Aranatz herrietan erabiltzen da, eta bigarrenari buruz ez dago argibiderik. Baliteke hitz bera izatea bi definizioekin; izan ere, *cierzo* haizeak ipar-edo ipar-mendebaldetik jotzen du; *iparlaño* aldaera Gipuzkoako Oñati herrian bildu zuen Izagirrek (Izagirre, 1959) eta idatzi zuen “Niebla que viene de hacia Anboto”. Izan ere, Anboto mendia Oñatirekiko ipar-mendebaldean dago; *iper-lano* eta *iper-laño* aldaera biak Izetak jaso zituen Nafarroako Baztan haranean (Izeta, 1996) eta azaldu zuen “Iparrak dakarren lainoa” zela.

Hirugarren kategoria “Herria” da. *Hegoakatz* (*egoakatz*) berba bakarra dago datutegian. Izagirrek batu zuen Gipuzkoako Zegama herrian (Izagirre, 1959). Nafarroako Altsasu aipatzen du definizioan: “Niebla que entra por la parte de Alsasua y se detiene por Otzaurte”. Otzaurte Zegamako auzoa da; izan ere, Altsasu eta Otzaurte Zegamarekiko hego-ekialdean daude.

Azken kategoria Sakaneko lainoa da; hitz bakarra dago, *erlaino* (*erlaiño*) askotariko adierak dituen. Izagirrek ez du ezer adierazten (Izagirre, 1959), “Niebla de hondonada” dela baizik ez. Hona hemen, esanahiak:

Hitza	Esanahia	Herria	Iturria
Erlaino	Lainoa	N-Urdiain	Euskaltzaindia
Erlaino (erleño)	Lainoa	N-Dorrao	Euskaltzaindia
Erlaino (erlainño)	Behe-lainoa	B-Arratia, Orozko / G-Oñati	Azkue
Erlaino (erlainño)	Sakaneko lainoa	Oñati	Candido Izagirre
Erlaino (erlainño)	Goizeko lanbroa	G-Oñati / Araotz	Euskaltzaindia
111. taula. Lainoa. Espazioa: <i>erlaino</i>			

4.5.6.2. Lanbroa

1. Izakiak	2. Kalitatea	3. Kalitatea
Izendapenak		Lanbroari loturiko izenondoak
Herri-laino (Errilaño) Euri-lauso (Euri-Lausua) Lauso Gandu Gau Gurma (Gurme) Hedoipe (Edoipe) Lainabera (Laiño-Bera) Lainaza (Lañaza) Laino (Lanho, Lanhu, Lano) Lanbro (Lanbo) Lanbro Gizi Lanbrots Lanbroxta Lanintz (Laninz) Lanpu Lantzurda (Lanxurda) Ur-laino (Urlaño)		Gandutsu Hedoitsu (Edoitsu) Lainodun (Lanhodun) Lanbroxtatsu
4. Jarduera	5. Denbora	6. Espazioa
Lanbroari loturiko ekintzak	Goizeko lanbroa	Ostertz aldeko lanbroa
Lanbrotu Lanbroak jan	Amilan-laino (amillan lañu) Amilana (amillana) Andandoi Azpi-laino (azpilaño) Behe-laino belaño, beleño) Brisa-laino (brisalaño) Bruma Enbat Erlaino (Erlaño) Erreka-laino (erregalaño, erreka lano, erreka laño) Euri-laino (ebilaño) Euri xehe-xehe (euri xe xea) Goizeko laino (goizeko laño) Gurma Hauts (autz) Ipar-lauso (iferlauso) Lainabera (lañobere) Lainaide (lañaide) Laino (lanho) Lanbro (lanbro, lanbru) Seden, sereno Terral Ufan Zarrazoi (sarrasoi) Zoko-laino (zokolaño)	Laino arraia (lanharraia)
112. taula. Lanbroa: Sailkapen etnosemantikoa		

Sarreran azaldu bezala, *lanbroa* “lainabera hezea da; adibidez, itsasotik datorrena”. (*MetHizt*, 1988: 185). Hala eta guztiz ere, *lanbroa* berba kostaldean ez ezik, Euskal Herriko barrualdean ere erabiltzen da; *lanbro* hitza bera ez bada ere, bai kontzeptua. Lainoaren eremuan bezalaxe, bost nozio orokor ditugu, hau da, guztiak, kantitatea izan ezik: izakiak, kalitatea, jarduera, denbora eta espazioa. Baina, lainoan ez bezala, askoz kategoria gutxiago ditugu eremu honetan; bana, hain zuzen ere. Horrenbestez, nozioei etnosemantikoei kategoria bana dagokie.

Izakiak dela-eta, izendapenak izango dira aztergai. Honako hauek dira jasotako berbak: *herri-laino* (*errilaño*), *huri-lauso* (*huri-lausua*), *lauso*, *gandu*, *gau*, *gurma*, *gurma* (*gurme*), *hedoipe* (*edoipe*), *lainabera* (*laino-bera*), *lainaza* (*lainaza*), *laino* (*lanho*, *lanhu*, *lano*), *lainodun* (*lanhodun*), *lanbro* (*lanbo*), *lanbro gizi*, *lanbrots*, *lanbroxta*, *lanintz*, (*laninz*), *lanpu*, *lantzurda* (*lanxurda*) eta *ur-laino* (*urlaño*).

Herri-laino (*errilaño*) elea Azkuek batu zuen Nafarroako Baztan haranean (*DVEF*). Oso termino garbia da; izan ere, (*H*)*erri* eta *laino* izenez osaturik dago, hots, “herrian dagoen lainoa”. Baina, Azkueren arabera, “bruma” baino ez da. Gorago aztertu bezala, Izetak ere ematen du hitz honen berri, baina “herrietaraino sartzen den lainoa” dela adierazten du (Izeta, 1996). Beraz, oso ausarta den arren, baliteke Azkuek “lainoa” eta “lanbroa” ondo ez bereiztea. Zilegi bekigu hori adieraztea; izan ere, baturiko datuen arabera, Azkue jaiotako herrian, Lekeitio, “lanbroa” *gurma* esaten da.

Euri-lauso edo *lauso* Azkuek jaso zuen Gipuzkoako Arama herrian (*DVEF*). Azpimarratu behar da *lauso* hitzak “Gandua edo hautsa, edo ikustea galarazten duen edozein gauza” esan nahi duela (Harluxet).

Eta *gandu* elea da, hain zuzen ere, aztertu beharrekoa; J.B. Agirrek erabiltzen du (Erakusaldiak II, 477 *apud DRALV*). Hauxe da definizioa: “Atmosferan esekiduran dauden partikula guztiz txiki eta lehorren multzoa, eguratsa zerbait lausotzen duena” (Harluxet).

Gau berba Azkuek bildu zuen bere herrian, Lekeitio (Bizkaia); ohar hau erantsi zuen “Bruma (A diferencia de *gaba* la noche)” (*DVEF*). Hortaz, bertakoek *gau* eta *gaba* bereizten dituzte zalantzarik gabe.

Gurma (*gurme*) berba oso ezaguna da Bizkaiko itsasertzean; Azkuek bizkaiera marka ezarri zion *gurma* hitzari, eta bere herrian (Lekeitio) erabiltzen zela *gurme* aldaerari. (*DVEF*). Berrikiago, aurreratxoago aipatuko denez, “goizeko lanbroa” adierazteko ere erabiltzen da inguru berean (*EHHA*).

Hedoipe (*edoipe*) hitza J.H. Etxeitak erabili zuen (Euskal Esnalea, 1912 *apud DRALV*). Eratorpenaren bitartez sorturik dago, (*h*)*edoi* izena + *pe* atzizkia, “azpian” esan nahi duena.

Lainabera (*laino-bera*) gorago ere aztertu da “lainoa” eta “behe-lainoa” kategorietan. Aldaera hau Azkuek jaso, eta adierazi zuen Bizkaiko Arratia haranean eta Markina eta Orozko herrietan erabiltzen zela (*DVEF*). Geroago Euskaltzaindiak egindako ikerlanean (*EHHA*) berriz ere bildu zen beste aldaera bat (*lañobere*) Arratiako Zeanuri herrian, goizeko lanbroari irizteko. Aurreraxeago ostera ere aipatuko da. *Laino* eta *behera* hitzez osaturik dago termino hau.

Lainaza (*lañaza*) berba ere gorago aztertu da “laino” hutsa adierazteko. Oraingoan “lanbroa” esan nahi du (Fedearen Propagacionea, 77 *apud DRALV*). Hitz eratorria da, *laino* berba eta *-za* atzizkiaz osatua. Azken honek ugaritasuna adierazi ohi du.

Laino (*lanho*, *lanhu*, *lano*) aldaerek ez dute ohiko “lainoa” esan nahi, “lanbroa” baizik. *Lanho* *DRALV*en aipaturik dago (*DRALV*); *lanhu* Azkuek biltzen du zuberera marka ezarrita (*DVEF*), eta *lano* aldaera Harrietek adierazten du (*OEH*). Azaldu bezala, Euskal Herri osoan nahasmen handia dago hiztunen artean “lainoa” eta “lanbroa” bereizteko; batzuek egiten dute; beste batzuek, aldiz, ez.

Lanbro (*lanbo*) hitzak ematen dio izena eremu honi; agian, hedatuena da Euskal Herri osoan eta gaur egun euskara batuan gehien erabiltzen dena. *Lanbro* hainbat tokitan jasota dago, baina baten bat aipatzearen, Azkuerena aipatuko dugu (*DVEF*). Honako tokietan erabiltzen zela adierazi zuen: Bizkaian orokorra; Behe-Nafarroako Aldude haranean; Gipuzkoan ere orokorra; Lapurdiko Ainhoa eta Senpere herrietan eta Nafarroako Baztan haranean. Beraz, Euskal Herriko euskalki gehienak biltzen ditu bere baitan berba honek. Azkuek hauxe idatzi zuen: “Lanbroa laño antzekoa da”. Horrek uzten ditu agerian Azkueren zailtasunak horrelako ostagiak sailkatzerakoan. Bestalde, *Lanbro* terminoa ere erruz erabiltzen da Euriaren eremuan, batez ere, “euri mehe edo xehea” adierazteko (§4.5.2). Zenbaitetan, ondoan beste izen bat izaten du; adibidez, *lanbro zirin* “euri xehe-xehea”; *lanbro gizi* terminoa Azkuek eskuratu zuen Gipuzkoako Oñati herrian (*DVEF*). Geroago Izagirrek egindako ikerlanean ez da agertzen (Izagirre, 1959). “Brumilla” erdarazko ordaina ematen du; beraz, *gizi* txikigarritzat har daiteke, agian, “gutxi” aditzondoarekin zerikusia duena; *lanbrots* berba dela-eta, adibide bakarra jaso da (Herria, 1966-03-10 *apud DRALV*); agian, *lanbro* + (*h*)*ots* izenez osaturik dago. Aurretik ere aztertu izan da hitz hau: “laino hutsa” eta “euri xehea” ere esan nahi du; *lanbroxta* Duvoisinek (*OEH*) bildurikoa da. Badirudi txikigarri batez eraturik dagoela, *-xta*, hain zuzen ere; hala ere, arruntagoa izaten da *-xka* atzizkia.

Lanintz (*laninz*) eleak jatorriz hitz-elkarketa ematen du: *lain(o)* + *i(h)intz*. Oso ugaria da *ihintz* hitza lexiko etnometeorologikoan eta, agian, aparteko azterketa egin behar litzateke. Hitza Azkuek biltzen du (*DVEF*), eta Nafarroako Baztan haranean erabiltzen dela aipatzen du; urte batzuk geroago Izetak ez zuen horrelakorik agerrarazi bere hiztegian (Izeta, 1996).

Lanpu elea Azkuek bildu zuen (*DVEF*); adierazten du zubereraz erabiltzen dela. Hitz honetan, ematen du lehenengo osagaia *la(i)no* dela, baina bigarrena ilun samarra da.

Lantzurda (*lanxurda*) berba beste eremu batzuetan aztertu izan da, elur, euri, izotz eta lainoari dagokienez. Lehenengo aldiz euriaren eremuan (§4.5.2). Azterketan ikusi denez, polisemikoa da. Hemen “lanbroa” besterik ez da, eta Azkuek azaldu zuen Nafarroako Baztan haranean erabiltzen zutela hiztunek (*DVEF*). Azaldu bezala, bi osagai dauzka bere baitan: *lan(o)* eta *zurda*. Berrikiago, Izetak (Izeta, 1996) ele beraren berri eman, eta adierazi du *lantzurde* aldaera “antzigarra” edo “euri xehea” izendatzeko baliatzen dutela mintzatzaileek; ez dago, ostera, *lanxurda* aldaeraren aztarnarik.

Ur-laino (*urlaño*) hitza “lanbroa”ri irizteko bildu den azkena da. Laino kategoria aztertzean azaldu da elkarketa hau Bizkaiko Ondarroa herrian ere erabiltzen zela (*EHHA*). Beraz, bi aldaera batu dira: bata, Nafarroako barrualdean erabiltzen da —Oderitz— eta bestea, Bizkaiko kostaldean —Ondarroa—; barrualdean, “lainoa”, kostaldean, “lanbroa”.

Bigarren nozio etnosemantikoa kalitatea da, eta aipatutako moduan, kategoria bakarra dago: Lanbroari loturiko izenondoak. Terminoak honako hauek dira: *gandutsu*, *hedoitsu* (*edoitsu*), *lainodun* (*lanhodun*) eta *lanbroxtatsu*. Hitzok izena + atzizkia osaera dute: hiruk izena + *-tsu*, eta batek izena + *-dun*. *Gandutsu* hitza Txillardegik erabiltzen du (*Leturiaren egunkari ezkutua*, 27-*DRALV*); *hedoitsu* (*edoitsu*) aldaera Lhandek dakar bere hiztegian (Lhande, 1926); *lainodun* (*lanhodun*) elea Lhandek ere badakar (Lhande, 1926); eta *lanbroxtatsu* elea Azkuek biltzen du bere hiztegian inongo markarik gabe (*DVEF*).

Hirugarren nozio-etnosemantikoa jarduera da eta, esan bezala, ekintzak besterik ez da azaltzen: *lanbrotu* aditza eta *lanbroak jan* aditz-lokuzioa; *lanbrotu* Izetak dakar bere hiztegian (Izeta, 1996) eta azaltzen du “lanbroz estali” dela; *lanbroak jan* lokuzioa, Mokoroak bildu zuen (Mokoroa, 1990); itzulpenean “penetrar la bruma” eman zuen. Lapurteraz erabiltzen bide da.

Laugarren nozio etnosemantikoa, denbora —Goizeko lanbroa—, bakarra izan arren, berba ugari biltzen ditu bere baitan: *amilan-laino* (*amillan lañu*), *amilana* (*amillana*), *andandoi*, *azpi-laino* (*azpilaño*), *behe-laino* (*belaño*, *beleño*), *brisa-laino* (*brisalaño*), *bruma*, *enbat*, *erlaino* (*erlaño*), *erreka-laino* (*erregalaño*, *erreka lano*, *erreka laño*), *euri-laino* (*ebilaño*), *euri xehe-xehe* (*euri xe xea*), *goizeko laino* (*goizeko laño*), *gurma*, *hauts* (*autz*), *ipar-lauso* (*iferlauso*), *lainabera* (*lañobere*), *lainaide* (*lañaide*), *laino* (*lanho*), *lanbro* (*lanbru*), *sedon*, *sereno*, *terral*, *ufan*, *zarrazoi* (*sarrasoi*) eta *zoko-laino* (*zokolaño*).

Amilan-laino (*amillan lañu*) hitz-elkarketa Gipuzkoako Leintz-Gatzaga herrian baturik dago (*EHHA*). “Goizeko lanbroa” esan nahi izateaz gain, *amilana* termino soilak beste adiera

batzuk ere baditu. Haizearen eremuan ezarritako 32. taula bera ekarriko dugu hona, argiago ikustekotan:

Hitza	Esanahia	Herria / Euskalkia / Iturria
<i>Amillan lañu</i>	Goizeko lanbroa	G-Leintz-Gatzaga
<i>Amillana</i>	Goizeko lanbroa	Anboto aldeko hizkerak
<i>Amillena</i>	Lainoa	B-Abadiño
<i>Amillena</i>	Hego-ekialdeko haizea	B-Otxandio; G-Eibar
<i>Amillana</i>	Hego-mendebaldeko haizea	B-Zeanuri
<i>Amilana</i>	Ipar haizea	Azkue
<i>Amillana</i>	Ipar haizea	B-Otxandio
<i>Amillen</i>	Laino hotza, haizearekin	B-Gernika, Mañaria
<i>Amillen</i>	Mendebaldeko haizea	A-Aramaio
113. taula. Lanbroa. Denbora: amilana (§32. taula)		

Baliteke *amillan lañu* erredundantea izatea; izan ere, beharbada, *amilana* terminoa *amil* + *la(i)n(o)* berbez osaturik dago, eta horrek frogatzen lezake **lanno* hitzaren antzinatasuna; izan ere, hortik eratorriko zirateken sorturiko terminoak: **lanno* > *lano* > *laino* (§263-264). Bestalde, agian, hiztunen adimen-begiak eraketa horren kontzientzia galdu eta, berriz ere, *laino* berba erabili beharra sumatuko zukeen.

Tankera berekoa, taulan azaldutako *amilana* (*amillana*) da; Anboto inguruko hizkeretan erabiltzen da³⁹. Inguruko beste zenbait bazterretan, azaldu bezala, “Anbotok janzen duen txapela da”, Mari jainkosa tontorreko labean ogia egiten dabil eta.

Andandoi hitz bitxia Bermeon bildurik dago (EHHA). Termino bakarra da, ez baita beste inon aurkitu. *Andan* berba nahiko arrunta da Bermeon beste kontu batzuk adierazteko; adibidez, “abiadura” edo “abiada” esan nahi du; beste zenbaitetan, *andanadan* edo *andanan* “arinetan” edo “korrika” esateko erabiltzen dute bermeotarrek (Perez Bilbao, 1984: 64). Horrenbestez, *andandoi* terminoak, agian, “arinetan dabilen lanbroa” izan liteke.

Azpi-laino (*azpilaño*) hitz-elkarketa Gipuzkoako Asteasun herrian bildurik dago (EHHA); *behe-laino* terminoaren parekoa da; izan ere, *azpi* eta *laino* izenez osaturik dago.

Behe-laino (*belaño*, *beleño*) beste hitz-elkarketa bat da; gorago aztertu da, berezko “Behe-lainoa” kategoria izendatzeko. Hemen bi aldaera dira, *belaño* eta *beleño*; lehenengoa, Bizkaiko Orozko herrian erabiltzen da (EHHA), eta bigarrena Nafarroako Dorrao herri txikian jasota dago (EHHA).

Brisa-laino (*brisaño*) elkarketa bitxi samarra da; *brisa* berbak “haize leuna” (Landa, 2003-12-10) adierazteaz gain, “antzigarra” (DRALV) ere esan nahi du, eta *brisote* eleak “haize

³⁹ http://www.bizkaia.net/Nekazaritza/Zabalguneak/Fitxak/eu_mitologia.htm

zakarra zaparradekin” (Estornes, 1997). Hemengo elkarketa Gipuzkoako Andoain herrian bildua da (EHHA).

Bruma elea mailegua da; Lapurdiko Arrangoitze eta Senpere herrietan bildua da (EHHA). Lainoa kategorian aztertu da hitz hau; *brumak* latinez “neguko solstizioa” esan nahi du. Aztertzea da *lanbroa* eta *bruma* hitzen arteko harreman fonetiko; izan ere, *-br-* kontsonante-multzoa, agian, ez da kasualitatea. Kontuan hartu behar da, aipatu bezala, gaskoiz *l’embrun* esaten dela.

Aztertu denaren arabera, *enbat* terminoa oso arrunta da lexiko etnometeorologikoan; “Lainoa” ere esan nahi duenez gero, bertan ezarri da adiera guztiak biltzen dituen 34. taula, haizeak eremukoa, hain zuzen ere. Hemengo berba Bizkaiko Getxo (EHHA) eta Erandio (Bizkaia irratia) herrietan erabiltzen dute. Getxoko lekukoak haren definizioa ematen du: “*Embata* da goxetan agertzen dana, illuntasun bet, edoi bajue, axe da *embata*” (EHHA).

Erlaino (*erlaño*) berba, “Lainoa” kategorian aztertu da; izan ere, “lainoa”, “behe-lainoa” eta “hego-lainoa” esan nahi du. Adiera hau Gipuzkoako Oñati herriko Araotz herrian bildua da (EHHA); Azkuek herri berean ere batu zuen hitz bera, baina berak “behe-lainoa” esanahia eman zuen. Azaldu denez, badirudi batzuek nekez bereizten dituztela “behe-lainoa” eta “lanbroa”. Hitzaren eraketari dagokionez, (*h*)*erri* + *laino* izenez osaturik dago.

Erreka-laino (*erregalaño*, *erreka lano*, *erreka laño*) hitz-elkarketa aurreko zenbait kategoriatan aztertu da; berezko “erreka-lainoa” izateaz gain, “laino” hutsa ere esan nahi du. Hona hiru aldaera ekarri dira: *erregalaño*, *erreka lano* eta *erreka laño*; lehenengoa, Gipuzkoako Beasain herrian bildua da *-g-* tarteko kontsonante eta guzti; bigarrena, Nafarroa Behereko Arnegi herrian erabiltzen da, eta hirugarrena, mendebaldean, Bizkaiko Uribe eskualdeko Etxebarri herrian (EHHA).

Euri-laino (*ebilaño*) hitz-elkarketa Gipuzkoako Ikaztegieta herrian jaso da (EHHA). Bertan *ebilanbro* terminoa ere erabiltzen da “euri xehea” adierazteko.

Euri xehe-xehe (*euri xe xea*) terminoak itxuraz “euri mehe-mehea” ematen badu ere, Gipuzkoako Legazpi eta Urrutxu herrietan goizeko lanbroari irizteko erabiltzen da (EHHA). Beste zenbait tokitan, *euri xehak* “euri txikia” esan nahi du.

Goizeko laino (*goizeko laño*) terminoak “goizeko” denbora nozioa darama bere baitan; Nafarroako Ultzama haraneko Suarbe herrixkan baturik dago (EHHA).

Gurma berba gorago aztertu izan da, “lainoa” eta “lanbroa” adierazten baitu, baina hemen bestelako ñabardura du Bizkaiko Elantxobe eta Lekeitio herrietan (EHHA). Adiera guztiak taula honetara bildu dira:

Hitza	Esanahia	Herria / Euskalkia
Euri-gurma (euri grume)	Euri xehea	B-Gizaburuaga
Euri-gurma (auri gurme)	Euri xehea	B-Jatabe
Gurma (grume)	Lainoa	B-Kortezubi
Gurma	Lainoa	B-Ondarroa
Gurma	Lanbroa	bizkaiera
Gurma (gurme)	Lanbroa	B-Lekeitio
Gurma	Lanbroa (goizekoa)	B-Elantxobe, Lekeitio
114. taula. Denbora: <i>gurma</i>		

Hauts (*autz*) hitza aipatu da Gipuzkoako Getaria herrian (*autza*) erabiltzen dela “laino hutsa” adierazteko; hemen, ordea, “goizeko lanbroa da” eta Bizkaiko Bermeo herrian bildutakoa da (EHHA).

Ipar-lauso (*iferlauso*) hitz-elkarketa dela-eta, gorago adiera guztiak biltzen dituen taula bat ezarri da; aldaera honek “goizeko lanbroa” esan nahi du eta Bizkaiko Markina inguruko Etxebarri herrian erabiltzen dute hiztunek (EHHA).

lainabera (*lañobere*) berba Bizkai aldean erabiltzen da. Azaldu bezala, *Lainabera* (*lañabera*) erabiltzen da “lainoa” zein “behe-lainoa” esateko. Hitz hau Zeanurin bildua da (EHHA). Jatorria dela-eta, baliteke *laino* eta *be(h)era* berbez osaturik egotea.

Lainaide (*lañaide*) hitza Gipuzkoako Ezkio-Itsaso herrian jasota dago (EHHA). *Laino* eta *aide* hitzez osaturik dago. *Aide* terminoa oso interesgarria da mitologia aldetik:

Aideko euskal mitologiako naturaz gaindiko jeinu edo irelu bat da; kasuan kasuko giza ekintzak zaildu edo errazten zituena. Berez ikusiezina da, baina zenbait itxura hartu dezake, lainoarena esate baterako. Batzuetan gaizkilea eta zenbaitetan ongile edo neutroa izan daiteke. Hori arrunta da euskal mitologiaren pertsonaien artean⁴⁰.

Munduak eta gizakiak bi alde dauzkate: bata da “berezko, bere kasa dena, naturala”; bestea, ordea, “aidekoa” da, airekoa. Naturaz gaindikoa, magikoa, mistikoa:

Y se establece así una dualidad de seres y de hechos: unos pertenecen al mundo de los genios (AIDKO); otros, al natural (BEREZKO). Dos mundos, en los que sólo podemos entrar y actuar utilizando sus respectivas leyes y técnicas. (Barandiaran, 1983: 23)

Laino (*lanho*) berba Lapurdiko Mugerre eta Behe-Nafarroako Arnegi herrietan bildua da “goizeko lanbroa” izendatzeko. (EHHA). Hortaz, *lainoak* hiru adiera ditu: “laino hutsa”, lanbroa” eta “goizeko lanbroa”.

Lanbro berba soila Nafarroako Eugi herrian eskuratua da (EHHA); horrek “goizeko lanbroa” esan nahi du eta *goibel* eleak “lainoa” (EHHA); *lanbru* aldaera Gipuzkoako Orrio herrian erabiltzen dute hiztunek (EHHA).

Seden eta *sereno* aldaerak dira aztergai, jator berekoak izan litezkeenak; *sedem* Gipuzkoako Azpeitia herrian jasoa da (OEH) eta *sereno* berba herri horretatik urrun ez dauden

⁴⁰ Wikipedia, <http://eu.wikipedia.org/wiki/Aideko>

Elgoibar eta Mendaro herrietan (*EHHA*). Gogoratu behar da *serenolaño* aldaera Beizaman “laino hutsa” dela (*EHHA*).

Terral hitza aztergai dela, nabarmendu behar da ez daukala zer ikusirik Gipuzkoako Deba eta Bizkaiko Lekeitio herrietako adierekin; lehenengoan, “Hotz handia” da (Azpeitia, 2003: 26) eta, bigarrenean, “Lehorretik datorren haize hotza” (Lekeitioko lantaldea, 2001: 26). Hemengo esanahia Gipuzkoako itsasertzeko Deba herrian bildua da (*EHHA*). Bestalde, gaztelaniaz *terral* hitzak “viento terral” esan nahi du, batzuetan hotza eta beste batzuetan beroa.

Ufan hitzari dagokionez, gorago aztertu den termino berbera da; Gipuzkoako Ataun herrian “laino hutsa” adierazteaz gain, “goizeko lanbroa” adierazteko ere erabiltzen omen da (*EHHA*). Beraz, zein hiztunek darabilen halako esanahia dauka.

Zarrazoi (*sarrasoi*) berba gorago ere aztertu da Bizkaiko zenbait bazterretan “lainoa” esan nahi du eta. Hala ere, adiera honetan hedatuago bide dago beste toki batzuetan; adibidez, Bermeon, Gatakan, Leioan eta Lemoizen. Gatakan honako hau jaso zuen Gamindek: “Geldi geldi lotxen dana sarrasoi da” (Gaminde, 1997).

Azken hitza *Zoko-laino* (*zokolaño*) hitz-elkarketa da; Nafarroako Leitza herrian erabiltzen dute (*EHHA*). *Zoko* izenak honako hau esan nahi du, besteak beste:

1. Iz. Inguruko lurra baino sakonago dagoen espazioa; sakongunea. Etxe hori zokoan dago.
2. Iz. Leku ezkutua edo bazterra. Gordeko naute zoko ilunetan.
3. izond. Zokoan dagoena. Mendi-hegal zoko batean”. (Harluxet)

Azken nozio orokorra espazioa da eta, aurrekoetan bezalaxe, kategoria bakarra da: “Ostertz aldeko lanbroa”. Hitz-elkarketa bakarra dugu: *Laino-arraia* (*lanharraia*). Hitz hori Lhandek biltzen du (Lhande, 1926). Baliteke *arraia* terminoak “marra” esan nahi izan, eta horrek ortzemugarekin zerikusia izatea.

4.5.6.3. Gandua

Izendapenak
Gandu Hodei-litz (oreilitza) Iparbiso Laino-litz (laiñolitza) / litz
115. taula. Gandua. Sailkapen etnosemantikoa: Izakiak

Gandua “atmosfera, partikula guztiz txiki eta lehorren suspentsioa ezin dira ikusi begi hutsez baina nahikoa ugariak dira aireari opaleszentzia (atmosfera kolore zuriska) itxura emateko” (*MetHizt*, 1988: 119); Harluxet Hiztegi Entziklopedikoak dioenez, *Gandua* da “Atmosfera esekiduran dauden partikula guztiz txiki eta lehorren multzoa, eguratsa zerbait lausotzen duena” (Harluxet). Eredu honetan, nozio etnosemantiko bakarra dago, izakiak, eta

horrek kategoria bakarra ere badauka, Izendapenak. Haren barruan, honako hitz hauek daude: *gandu*, *hodei-litz*, *iparbiso* eta (*laino*)-*litz* / *litz*; *gandu* izan ezik, gainerako guztiak Gipuzkoako Oñati herrian bildu ziren (Izagirre, 1959).

Gandu berbak ematen dio izena eremu honi. Haren zabalera semantikoa handi samarra da; izan ere, “lanbroa”, “lainoa” eta “hodeia” ere bada. Beraz, esanahi horien guztien artean lerratzen da, zein den hizkera eta euskalkia. Hemengo adiera Gotzon Garatek jaso zuen Gipuzkoako Azpeitia herrian. Ematen duen definizioa ezin egokiagoa da eremu hau izendatzeko: “Gandua da laino mehea. Egunik eguzkitsuenetan ere izan liteke” (Garate, 1988).

Hodei-litz (*oreilitza*), *laino-litz* (*lainolitz*) eta *litz* berbak Izagirrearen hiztegiaren sarrera berean agertzen dira elkarrekin (Izagirre, 1959). Agidanez, esanahi desberdina dute.

Litz, *liztxua*: “calina, nube muy tenue”; *oréilitza*: “la alta”; *lainolitz*: la pegada a la tierra”; *laino-litz*: “la nube transparente”. *Litz* hitzak ez bide du aparteko esanahirik, baina *lits* terminoak bai: “Oihal batek ertzean duen hari- edo kordoi-multzoa, alde batetik finko eta beste aldetik solte daudenak. Batzuetan oihalarenak berarenak dira eta beste batzuetan xingola bat eratuz oihalaria jos dakizkioke” eta “Zerbaiten zati txiki edo baztergarria” (Harluxet). Bestalde, Izagirrearen beraren liburuan *lista* hitzak ere badu bere sarrera: “(el) cordel”. Horren guztiaren arabera, metafora ederra sortu dute Oñatiko hiztunek *hodei* eta *laino* hitzak *lits* berbari erantsita.

Amaitzeko, *iparbiso* elkarketaren berri ematea falta da, lehen esan bezala, Izagirrek berak bildua. “Ipar-haizeak ekarri ohi duen gandua” da (Izagirre, 1959). Izan ere, elkarketaren bigarren hitzak *bisutsekin* zerikusia izan lezake. Azaldu bezala, lainoaren izendapenak aztertzean, haizeen eremuan aztertu da hitzaren nondik norakoa: *bisuts* berbaren jatorria dela-eta, agian *bris(a)+ hauts* elkarketatik etor liteke. *Brisa* hitzaren jatorria ez dago batere garbi. Joan Corominasek hauxe dio: “Viento del Nordeste o del Este, por lo general muy fuerte”, 1504; “viento suave”, s. XIX (y alguna vez en los SS. XVII-XVIII), voz común a todos los romances de Occidente (documentada en Cataluña desde el S. XV), de origen incierto” (Corominas, 1961-1987). Bestalde, gaztelaniaz haize hotz eta zakarrari *bris* ere esan ohi zaio. Beraz, baliteke horrekin loturaren bat izatea.

4.5.6.4. Ondorioak

Lehenik adierazi behar da, lainoak eta lanbroak nozio guztiak betetzen dituztela kantitatea izan ezik; ganduak, ordea, izakiak nozio orokorraren barruan Izendapenak kategorია baino ez dauka. Lainoak dauzka kategoría gehien, bereziki izakiak nozio orokorrean. Hor azaltzen dira nozio espezifiko gehien, baina lanbroaren eremuan Goizeko lanbroa kategoriak dauzka nozio espezifiko gehien. Jasotako nozio espezifiko guztiek ematen dute aditzera tamainako garrantzia daukatela hiru ostagiek Euskal Herriko kliman, gure aroaren adierazle. Euskal hiztunaren adimen-begiak horretaz jabetu eta nozio espezifiko franko sorrarazi ditu. Ereku gehienetan bezala, ez da samurra nozio espezifikorik gailurtzea; oso interesgarriak dira Euskal Herriko kostaldean bilduriko berbak laino-mota zenbaiti irizteko; adibidez, *gurma*, *tabosa* eta *zarrazoi*; lanbroaren eremuan, ostera, *amilena* berba polisemikoa aipagarria da. Herriko berben artean *gangarabi* nabarmendu behar da.

Hiru ostagiek batera arrunt antzeztoki ederrak sortzen dituzte, lainoa, lanbroa eta gandua ikusgarriak izaten baitira, nahiz kontraesana dirudien, hirurek ikuspena murrizten dute eta. Euskal hiztunaren adimen-begiak oso era berezian segmentatzen du bere esperientzia. Hori dela-eta, lanbes guztiak ipintzen ditu eraz adimen-begiak antolaketa berezi samarra agerrarazteko: hitz-elkarketak, hitz soilak, maileguak, berba eratorriak eta jarduera nozio orokorraren barruan, aditzak eta aditz-lokuzioak ere azaltzen dira. Bestalde, onomatopeia bakarra dago: *marruma*.

Xehatutako hitz-elkarketa guztiak aintzakotzat harturik, *laino* elea, alde handiz, gailentzen zaie beste guztiei; zenbait aipatzekotan, *behe-laino*, *euri-laino* eta *goiz-laino* azaldu behar dira; lanbroaren eremuan, *amilan-laino*, eta ganduaren eremuan, *hodei-litz*, *laino* ele gabea. Hitz soilak, maileguak ez direnak, ez dira asko; gogora ekarri behar dira eremuak izendatzekoak: *laino*, *lanbro* eta *gandu*. Ereku guztietan letxe, maileguak ugari dira, nolabaiteko kultura artekotasunaren adierazle: aipatu izan da, sarritan, handiago izaten dela beste hizkuntza batzuen eragina elkarren ondoko hizkerena baino. Haien artean honako hauek azalduko dira: *kalma*, *sereno*, *zarrazoi*, *gurma*, *enbat*, *murmoi* eta *terral*. Horrek guztiak pentsatzera garamatza hiztunaren adimen-begiak antzina egin zuela zelanbaiteko mestizajea. Hitz eratorriei dagokienez, *lainotsu*, *lainape* eta *lainabera* terminoak azpimarratu behar dira. Aditzak eta aditz-lokuzioak direla-eta, lainoaren eremuan, besteak beste, *laino sarea egon* eta *lainoak jo*, eta lanbroaren eremuan, *lanbrotu* eta *lanbroak jan*.

Aipatutako lagina aski da ulertzeko laino, lanbro eta ganduaren eremua motibatu askoa dela, agertzen diren termino gehienak hitz-elkarketak dira eta. Euskal hiztunaren adimen-begiak esperientzian oinarritutako bereizketa ugari eratu ditu eremu honetan: elkarketa franko

izatea ez da kasualitate hutsa, ziurrenik mintzaira guztiek eskura daukaten baliabiderik erabilgarriena da.

Amaitzeko, adierazi behar da adimen-begiak ñabardura asko sumatzen dituela laino, lanbro eta ganduaren inguruan, eta horrek isla nabaria daukala lexikoan: hainbat egoera hartzen dira aintzat: sistema irmo samarra eraikita dago, ezbairik gabe.

4.5.7. Txingorra

Txingor hitza erabiltzen da hemen generiko bezala, baina beste edozein baliokide erabil zitekeen; adibidez, *kazkabarra*, *inetazia* edo *babazuza*. Gaur egun euskara batuak ustez gehien zabalduko *txingor* terminoa erabiltzea erabaki da.

Txingorra “izotz-ale edo koskorren prezipitazioa da; aleek 5-50 mm-ko diametroa dute, inoiz handiagoa ere bai, eta bananduta edo mordo irregularretan pilatuta erortzen dira. Txingor-aleak ia osorik izotz-gardenez osaturik daude, edo gutxienez 1 mm-ko lodiera duten izotz-geruza gardenak geruza transluzidoekin txandakatuz” (*MetHizt*, 1988: 246).

Barandiaranek bildutako mitologia-kontakizunen arabera, Mari jainkosak gizakioi bidal diezagukeen zigorrik handiena txingor edo kazkabar-ekaitza da. Hori zela-eta, apaizak haitzuloetara joaten ziren konjuroak egitera. Beraien helburua ez zen jainkosa deuseztatu edo ahalmenak kentzea, baizik eta Mariren bizitokiaren ateak itxiaraztea. Horrela, Mari barruan harrapatuz gero, ez lirateke kanpora aterako ekaitzak, baina Dama kanpoan egonez gero, ezin sar liteke barrura eta etengabe botako lituzke harri-jasa beldurgarriak (Barandiaran, 1983).

Han-hemenka, ahozko eta idatzizko corpus eta liburuak arakatu eta miatu ondoren, corpusean honako kategoria hauek bildu dira azterlana aurrera eramateko:

- Harriaren garaia.
- Onomatopeiak.
- Txingor ale handia.
- Txingor ale txikia.
- Txingor eta elurraren arteko meteoroa: txotorra.
- Txingor kaltegarria
- Txingor sendoa.
- Txingor-erauntsia / -ekaitza / -zaparrada.
- Txingorra, haizea eta euria aldi berean.
- Txingorraren izendapenak.
- Txingorraren hotsa.
- Txingorraren inguruko ekintzak.

Kategoria horiek guztiak ikusita, txingorraren eremua aztertzeko bost nozio orokor edo etnosemantikotan banatu dira; denak espazio nozioa izan ezik. Ez da lortu txingorra eta espazioa uztartzen dituen berba bat ere. Euskal hiztunaren begiak ez bide du beharrezkotzat jo. Beraz, honela geratzen da sailkapen etnosemantikoa:

1. Izakiak: Izendapena; Txingor eta elurraren arteko meteoroa; Txingorra, haizea eta euria aldi berean, txingorraren hotsa eta onomatopeiak.
2. Kantitatea: Txingor-erauntsia / -ekaitza / -zaparrada.
3. Kalitatea: Txingor ale txikia, txingor ale handia eta txingor sendoa eta txingor kaltegarria.
4. Jarduera: Txingorrari loturiko ekintzak.
5. Denbora: Garaia.
6. Espazioa. Ez da.

1. Izakiak	2. Kantitatea	3. Kalitatea	4. Jarduera	5. Denbora	6. Espazioa
Izendapena Txingor eta elurraren arteko meteoroa Txingorra, haizea eta euria aldi berean Txingorraren hotsa Onomatopeiak	Txingor erauntsia / ekaitza/ zaparrada	Txingor ale handia Txingor ale txikia Txingor sendoa Txingor kaltegarria	Txingorrari loturiko ekintzak	Garaia	
116. taula. Txingorra: Sailkapen etnosemantikoa					

Jarraian banan-banan xehatu eta tauletara ekarriko dira aipatutako bost nozio orokorren kategoria guztiak.

4.5.7.1. Izakiak

<p>Izendapena Ahuntz-hiltzaile (ahuntziltzalea) Airegaizto Babazizkor (baazizkor, babazizkor, bagazizkor, barazizkor, bazizkor) Babazuza (abasusi, abazuz, abazuza, abazuze baazuza, bahazuz, barazuz, barazuza, bazuz, bazuza, halazuza) Elur-pikor (elurpikor) Elur-fits (elurpitzek) Gantxigor (gantxior) Grezilla Harriabar (harrabar) Inetazi (iñatazi, inestasi, iñetasi, initasi, liñetasi, liñetazi) Kaskara</p>	<p>Kazkabar (kaskabar, kazkabar) Kazkabor (kaskabor, (kaskabur, kaskabür, kaskapura, kazkabor) Kazkalabar (kaskalabar) Kazkar Kazkarabar (kaskarabar, kazkarabar, kazkabra) Kazkarabiko (kaskabiko, kaskabiko, kaxkabiko) Kazkarabito (kaskarabito) Kazkarabitz Kazkaragar (gazkaragar, kaskaragar, kazkaragar) Kazkarra Kixkora Ostarri Piperkoila (piperkoilla) Tximista Txingor (txigor, txingorra, tzingor)</p>	<p>Txingorale (tzingorale) Txintxerkoila (txintxerkol) Txirgora Txokor Zirzikora (tzitzerkor, zirzikora, zizerkor, zizerkora, zizorka) Zitzar (txitxar, tzitzor, xitxar, xitxer, xixar, xixer, zitzer) Zitzar xehe (zitzartxehia) Zizkor (xikhor, xiskor, zizkor)</p> <p>Txingor eta elurraren arteko meteoroa Txotor</p> <p>Txingorra, haizea eta euria aldi berean Babazuza (abazuze)</p>	<p>Txingorraren hotsa Aire-orro (aireorro) Asots Eraotea Habarrots Harri-arroitu (arri- arroitu) Harri-soinu (arri-sonu) Harri-zurru (arri-zurru) Hodei-asots (edoi-asots, edoi-asotz, odoi-asots) Hodei-hots (orots)</p> <p>Onomatopeiak Kiski-kaska Tirrizka Zirt-zart</p>
117. taula. Txingorra: Izakiak			

Izakiak txingorraren eremuko lehenengo nozio etnosemantikoan honako kategoria hauek aztertuko dira: Izendapena; Txingor eta elurraren arteko meteoroa; Txingorra, haizea eta euria aldi berean; Txingorraren hotsa eta onomatopeiak.

Izendapenei dagokienez, esan behar da ugariak direla, eta haietariko zenbait beste eremu batzuetan ere azaltzen direla. Euskara batuan erabiltzen den ortografia agertzen da hitz bakoitzean, eta parentesi artean nola jaso den ahoz edo idatziz. Honako hauek bildu dira ordena alfabetikoz: *ahuntz-hiltzaile (ahuntziltzalea)*, *airegaizto*, *babazizkor (baazizkor, babazizkor, bagazizkor, barazizkor, bazizkor)*, *babazuza (abasusi, abazuz, abazuza, abazuze, baazuza, babazuza, bahazuz, barazuz, barazuza, bazuz, bazuza, halazuza)*, *elur pikor (elurpikor)*, *elur-fits (elurpitzek)*, *gantxigor (gantxior)*, *grezilla*, *harriabar (harrabar)*, *inetazi (iñatazi, inestasi, iñetasi, initasi, liñetasi, liñetazi)*, *kaskara*, *kazkabar (gazkaragar, kaskabar, kaskabar, kazkabar)*, *kazkabor (kaskabor, kaskabur, kaskapura, kazkabor)*, *kazkalabar (kaskalabar)*, *kazkar*, *kazkarabar (kaskarabar, kazkarabar, kazkabra)*, *kazkarabiko (kaskabiko, kaskabiko, (kaxkabiko)*, *kazkarabito (kaskarabito)*, *kazkarabitz*, *kazkaragar (kaskaragar)*, *kazkarra*, *kixkora*, *ostarri*, *piperkoila*, *tximista*, *txingor (txigor, txingorra, tzingor)*, *txingorale (tzingorale)*, *txintxerkoila (txintxerkol)*, *txirgora*, *txokor*, *zirzikora (tzitzerkor, zirtzikor, zirzikora, zizerkor, zizerkora, zizorka)*, *zitzar (txitxar, txitxer, txitxor, tzitzar, tzitzor, xitxar,*

xitxer, xixar, xixer, zitzer), *zitzar xehe* (*zitzartxehia*), eta *zizkor* (*xikhor, xiskor, zizkor*). Jarraian, banaka aztertuko dira hitz guztiak.

Ahuntz-hiltzaile (*ahuntziltzalea*) elkarketa Nafarroa Behereko Baigorri herrian jasota dago (*EHHA*). Baigorriko lekukoaren arabera, *ahuntziltzalea* “babazuza da, harri xehe bat” eta “ahuntzak burua kanpoan badu, futitzen da”. Elkarketa honen alboan ohar hau ere agertzen da: “Ikus gaztelaniazko *Matacabras*, baina haize mota bat baizik ez da Moliner-en arabera. Ikus aldiz Palay: *matecrabade: averse de grêle*, eta *matecrabe: averse de grésil, hain zuzen*” (Moliner, 1966-2016). Izen-elkarketa honek (*euntzaixie*) ipar-ekialdeko haizea ere esan nahi du Bizkaiko Bakio eta Arrieta herrietan, eta Meñakan, ekialdekoa (*EHHA*). *EHH*Ako oharrean agertzen den bezala, gaztelaniaz *Matacabras* hitzak “viento norte fuerte” ematen du aditzera (*DRAE*).

Aire gaizto (*airegaizto*) elkarketa “txingorra” adierazteko Lapurdiko itsasertzean erabiltzen da edo zen Azkueren arabera (*DVEF*). Hitz hau, gehienbat, tximistari irizteko erabiltzen den arren, mitologian ere azaltzen da: “Aide gaiztoa, tximista. Ekaitzak sortu eta zuzentzen dituen iratxoa, Lapurdiko kondairen arabera” (Barandiaran 1983).

Sail honetan elkarketa dugu, *babazizkor*, edo hitz soila, *zizkor* Lehenengoari dagokionez, honako aldaera hauek aurkitu dira: *babazizkor, babazizkor, bagazizkor, barazizkor* eta *bazizkor*. Beherago aztertuko da, baina hitz hau zenbait bazterretan “txingor txikia” esateko ere erabiltzen da. *Babazizkor* aldaera, oso-osorik, Nafarroako Luzaide herriko hiztunek erabiltzen dute (*EHHA*). *Bagazizkor*, ostera, Azkuek bildu zuen (*DVEF*). Baliteke Euskaltzaindiako ikertzaileak *baba* entzun, lekukoak *baga* esan arren. Sarritan gure aurre-usteak baldintzatzen gaitu. Nolanahi ere *baba* eta *baga* hurbil-hurbil daude fonetikoki. *Baba* hitza irudi metaforikoa izan liteke, “txingorra” baratze-landarearen haziaren antzekoa da eta; *zizkor* berba hutsa ere, azaldu bezala, “txingorra” izan liteke. Aurrerago aztertuko da, baina hitz asko dira bere barnean (tx) z...(t)...z(k)...r letrak dituztenak. Agian, antzinako esanahiren bat gordetzen dute beren baitan. Hurbilen dagoena *xikor* da:

Terme de boulangerie ou de ménage, petit son ou son menu" *VocBN*. "Menu son de froment" Dv. "Salvadillo" A. "Salvadillo, menudillo" A *Apend*. "Zai, salvado. *Xikorra*, 'menudillo'. (*OEH*)

Antzeman daitekeenez, bat dator *txingorraren* deskripzioarekin. Gauza bertsua gertatzen da *baazizkor* eta *barazikor* aldaerekin. Biak daude Nafarroa Behereko Aldude haranean bilduak; hura, Euskaltzaindiaren Atlasean (*EHHA*) eta hau, Azkueren hiztegian (*DVEF*). Beharbada, orduan entzun edo aipatu zioten hitzak gaur egun bokal arteko *-r-a* galduko zukeen. Aldudetik ez oso urrun, Nafarroa Behereko Arnegi, Uharte-Garazi eta Ezterenzubi herrietan *bazizkor* aldaera dugu (*EHHA*), *baba, baga* edo *bara* osagaiaren bigarren bi hizkiak guztiz galdu dituen. Arrunt samarra izaten da euskalki batzuetan bokalarteko *-b-, -*

g- edo -r-, galdu, eta gero -aa- -a- soil bihurtzea; adibidez, *baratxuria*, *batxu(r)ia* esaten da Zuberoako bazter gehienetan.

Baba berba gabe, hiru aldaera ditugu: *xikhor*, *xiskor* eta *zizk* Gorago esan bezala, *xikor* hitzarekin zerikusia eduki lezakete. Lehenengoa, Nafarroa Behereko Jutsi herrian bildurik dago (*EHHA*), bigarrena, Harrietek jasotzen du (*OEH*) eta azkena, Nafarroa Behereko Irisarri herrian (*EHHA*). Beraz, garbi dago Nafarroa Behereko eskualde horretako elea dugula.

Babazuza dela-eta, ez da erraza jakiten hitz elkarketa ote den ala berba soila; izan ere, *zuza bigarren osagaiak zer esan nahi duen ez dago batere garbi. Aurkitutako aldaerak hauexek dira: *abasusi*, *abazuz*, *abazuza*, *abazuze*, *baazuza*, *bahazuz*, *barazuz*, *bazuz*, *bazuz* eta *halazuza*. Aldaera batzuek “txingor hutsa” adierazten dute eta beste batzuek, aldiz, “txingor handia”, “txingor txikia”, “txingorra eta haizea aldi berean” edo “txingor sendoa”; azken hau intentsitateari dagokiona. Kalitate nozioan jorratuko dira horrelakoak.

“Txingor hutsa” adierazten dutenen artean, hasierako *b-* gabekoak Mendebaldean topatu dira: *abasusi* Bizkaiko Zeanuri herrian (*EHHA*), *abazuz* Gipuzkoako Aia herrian (*EHHA*), *abazuza* Bizkaian, oro har, Azkueren hiztegian (*DVEF*), eta *abazuze* Bizkaiko Lemoiz herrian, Fredi Paia bertsolariak aipatuta (Paia, 2011); hasierako *b-*ari eusten diotenek ekialdean irauten dute: *baazuza* (Daskonagerre, Atheka, 59 *apud DRALV*); *bahazuz* (J. Etchepare, Gure Herria, 1932 *apud DRALV*); *barazuz* Lapurdiko Arrangoitze eta Uztaritze herrietan (*EHHA*); *bazuz* Lapurdiko Hendaia herrian (*EHHA*), *bazuz* Lapurdiko Sara eta Nafarroa Behereko Armendaritze herrietan (*EHHA*), eta *b-*ren ordez *h-*a azaltzen duen aldaera bat, *halazuza* (*DRALV*), lapurtera euskalkian erabiltzen dena.

Elur pikor (*elurpikor*) eta *elur fits* (*elurpitzek*) terminoak ditugu aztergai. Elurrari loturiko berba bi dira. Hiztunak “txingorra” elur mota gisa ikusten du zenbaitetan, ostagi desberdinak izan arren. *Elurpikor* Nafarroako Goizueta herrian jasota dago (*EHHA*). Elkarketa hori arrunt samarra da Ekialdeko hizkeretan “elur maluta” adierazteko edo Gipuzkoakoetan “elur maluta txikia”-ri irizteko. Bigarren osagaia, “pikor” da “alea edo likido edo nahaste batean bilduta edo gogortuta geratzen den zatia” (Harluxet) edo “Alea, garaua; hainbat gauzaren zati xehe biribil antzekoa” (*EH*). Beraz, zentzuzkoa da pentsatzea hiztunak irudi bat sortu duela horretatik abiatuta eta “txingorra” aletzat hartzen duela; *elurpitzek* terminoa Nafarroako Eugi herrian bildurik dago (*EHHA*) eta badirudi bigarren osagaia *fits* dela, “gauza txikia edo hutsala” (Harluxet) esan nahi duena. Aurreko hitzarekin gertatzen den bezalaxe, Nafarroako Etxaleku herrian —Eugitik ez oso urrun— hitz hori “elur maluta” izendatzeko erabiltzen da.

Gantxigor (*gantxior*) hitza Gipuzkoako Hondarribia herria bilduatakoa da (*EHHA*); ematen du hitz-elkarketa dela, *gantz* eta *txigor* berbetatik datorrena:

Txantxigorria, txaltxigorria, gantxigorra edo txintxorra (askotariko izenez ezagutzen dugu gure inguruan) txerriaren gantza urtzean geratzen diren hondakin solidoekin, hots, txintxortekin, egin ohi da. Txintxortak zuzenean jan daitezke (hotzean edo beroan), baina gehienetan plater gozoak edo gaziak prestatzeko erabiltzen dira⁴¹. (Antxon Agirre, Sukaleku webgunea)

Ez da erraza asmatzen irudi bien arteko lotura. Zer dela eta, hiztun batek hatzen du “txingorra” halakotzat? Hitz honi dagokionez, hiztunaren buru-iruditeriaz jabetzea zail samarra da. Baliteke kontu fonetiko hutsa izatea; izan ere, *gantxior* eta *txingor* berbak aski hurbil daude eta frogatuta dago analogia eragile oso emankorra dela termino berriak sortzeko.

Grezilla hitza Nafarroa Behereko Bastida herri hirueledunean erabiltzen da (EHHA). Ezagun da frantsesez *grésil* esaten dela eta, ziurrenik, gaskoiz *grezil*. Bastidako biztanleen lexikoa nahasi samarra da, euskara, gaskoia eta frantsesa erabiltzen baitira. Beste adibide bat da, *bendunor*, ipar-haizeari irizteko. *Grezillez* gain, azalduko *baazuza* elea ere baliatzen omen dute bertako bizilagunek (EHHA).

Harriabar (*harrabar*) hitza Lhandek dauka jasota bere hiztegian (Lhande 1926) “txingorra” adierazteko. Dena dela, beste toki batzuetan “txingor handia”-ren esanahia hartzen du. Idanez, bi hitzek osatzen dute terminoa; “harri” eta “abar”. Izan ere, hiztunaren adimen-begiak “harri baten abarra” ikusten du, hain da gogorra.

Inetazi berba Bizkai aldean topatu da. Ez dago jakiterik hitz elkarketa batetik datorren ala hitz saioila den; izan ere, hasierako l-dunak ere badira. *In-* osagaia ere azaltzen da beste berba batzuetan Bizkai aldean: adibidez, “ihintza” adierazteko *inontz*, *iñontz*, *iñuntz* eta kidekoak; “tximista”ri irizteko *inusturi* elea eta antzekoak. *In-*ek ezer adieraz lezake? Barandiaran baiezkotan dago:

De varios de los nombres del rayo, del trueno y del pedrisco se puede inferir que el cielo fue también designado con el vocablo IN. Así, a ORTZIRI “trueno” corresponde INUSTURI “trueno” de Ataun; a OZKAR “trueno” de Arratia y a a OZKARRI “trueno” de Zumarraga, IÑAR de Estribar, INHAR “relámpago” de Labourd e INHAZI “Rayo” de Tardets. A este círculo corresponden los nombres INHAZÜ “rayo, relámpago”; IÑATAZI “pedrisco”; IÑASTURA “relámpago, rayo, lluvia de estrellas”; INDRISKA “chubasco”; INTZ, inontz “rocío”. En todos la raíz IN ocupa el lugar que las ORTZ, URTZ, OST “cielo” ocupan en voces de análoga significación. Es posible que esta vieja raíz sirviera para la formación del nombre INKO con que hoy se llama a Dios en algunas regiones del País Vasco. (Barandiaran, 1983)

Zenbait aldaera ditu *inetazik*: *iñatazi* (Euskalzale, 1898: 315 *apud DRALV*, 1991); *inestasi* (Arantzazu Egutegia, 1960 *apud DRALV*); *iñetasi* (EHHA), Bizkaiko Mungia herrian bildua eta ondoko herrian ere bai, Meñakan Gamindek bilduta (Gaminde 2001c), *initasi* aldaera, Diman entzuna (EHHA). Bestalde, badira zenbait aldaera hasierako l- daukatenak: *liñetasi* Gernika alboko Mendata herrian jasota (Mallea, 2002) eta Zornotzan ere bai (EHHA) eta *liñetazi* (Eusko Folklore, 1922 *apud DRALV*).

⁴¹ <http://www.nirea.eus/es/nirea/nirea-proyectos-iniciativas/6420-sukaleku-saborea/6420-sukaleku-saborea>

Hitz ugari dira txingorraren eremuan *kask-* / *kazka-* osagaia daukatenak. Honako hauek dira: *kaskara*, *kazkabar* (*kaskabar*, *kaskabar*, *kazkabar*), *kazkabor* (*kaskabor*, *kaskabur*, *kaskapura*, *kazkabur*), *kazkalabar* (*kaskalabar*), *kazkar*, *kazkarabar* (*kaskarabar*, *kazkarabar*, *kazkabra*), *kazkarabiko* (*kaskabiko*, *kaskabiko*), (*kaxkabiko*), *kazkarabito* (*kaskarabito*), *kazkarabitz*, *kazkaragar* (*gazkaragar*, *kaskaragar*) eta *kazkarra*. Hiru kontu aztertzeoak dira berba sail honetan: batetik, *kaska-* / *kazka-* osagaiak, bestetik, berba, berez, oso-osoa da eta ez da elkarketa, eta, azkenik, bigarren osagaiaren jatorria.

Lehenengoari dagokionez, *kaska* berba “kolpea edo ukaldia” adierazteko erabiltzen dela azpimarratu behar da; “grava” ere adierazten du, antza (*OEH*), hau da, “legarra” edo “hartxintzarra”, hots, “ibaien eta itsasoaren ertzetako harkoskoa; erreka ondoko legarra” (*Harluxet*). Beraz, antzinako euskal hiztunaren adimen-begiari begitanduko zitzaiokeen zerutik erortzen den harritxo gogor hori “harri koskor modukoa”.

Bigarren kontua dela-eta, baliteke hitz batzuk soilak izatea; adibidez, *kaskara*, *kazkar*, *kazkarabiko* edo *kazkarra*. Horri lotuta azaldu beharrekoa da *kazkabilo* edo *koskabilo* elea Nafarroako Erronkari haranean erabiltzen zela “ciruelas claudias, cierta variedad de ciruelas” adierazteko (*OEH*); bestalde, *koskabilo* edo *kaskabilo* berbak Hegoaldeko euskalkietan arrunta da lagunarteko hizkeran “barrabila” izendatzeko. Hortaz, eiteari dagokionez, antzekotasunak badirela gailurtu behar da. Bestalde, analogia da eragile nagusietariko bat hitzak sortzerakoan; hiztun batek gauza bat entzun eta beste batek berak dakien edo hurbil fonetikoki dagoen beste hitz batekin nahastea ohiko gertaera da mintzairetan. Gainera, ukaezina da hitz eta esanahi nahasketa handia dagoela, tartean fenomeno onomatopeikoak direla.

Kaskara berba Bizkaiko Mungia herrian jasota dago (*EHHA*). Azaldutakoaren haritik, *kaskara* ere erabiltzen da mendebaldeko hizkeretan; “legarra”, edo “artoaren *kaskara*” ere adierazteko (*OEH*). Hortaz, adimen-begiak sorturiko metafora bat izan liteke “txingorra” *kaskararekin* identifikatzea.

Kazkabar (*kaskabar*), *kazkabor* (*kaskabor*, *kaskabur*, *kaskapura*), *kazkalabar* (*kaskalabar*), *kazkarabar* (*kaskarabar*, *kazkabra*) eta *kazkaragar* (*gazkaragar*, *kaskaragar*) hitzak jatorri bera izan lezaketen arren, banan-banan aztertuko dira; izan ere, den-denak balizko **kazka*+*garagar* batetik etor litezke, hau da, “garagarra”-ren alearen metafora izan liteke. Dena dela, susmoak baizik ez dira. Bestalde, *-abar* bukaera eremu honetan ere azaltzen da; adibidez, *harriabar*, gehienetan, txingorraren ale handia adierazteko. Hitzei dagokienez, *kazkabar* nagusitu samartu da euskara batuan *txingorrarekin* batera. Nafarroako Baztan haranean, bai *kazkarabar*, bai *kazkabar* aldaerak erabiltzeak, agian, adieraz lezake *kazkabar* *kazkarabarretik* datorrela eta, azaldu bezala, *kazkarabar*, *kazkaragarretik*. Gaur egun *kazka-* idazten bada ere,

zenbait tokitan *kaska-* ere azaltzen da; *kaskabar* aldaera Azkuek dakar bere hiztegian (*DVEF*). Bizkaiko Bakio herrian ere erabiltzen da (Gaminde, 1999); *kazkabor* (*kaskabor*, *kaskabur*, *kaskabür*, *kaskapura*): *kaskabor* kenduta, (Lhande, 1926), gainerako *-u-*dun aldaera horiek guztiak Zuberoako hizkeretan erabiltzen dira. Horietaz gain, *kaskabura* eta *kaskaburra* eleak (*EHHA*) ere batu dira “txingor ale handia” esateko. Uste da *kazkabor* dela jatorrizkoa, Zuberoa aldean, *-o-* *-u-* bihurtzeko joera testuinguru batzuetan arrunta izaten delako; adibidez, *gizon*, *gizun* (*FHV*: 469-473). *Kaskabur* Azkuek dakar (*DVEF*) zuberera marka duela. *Kaskapura* hitza Zuberoako Ürrustoi-Larrabile herrixkan baturik dago, *txitxer* berbarekin batera (*EHHA*); *kaskalabar* aldaera Gipuzkoako Hondarribian jasota dago (*EHHA*). *Kazkarabarretik* etor liteke; izan ere, *-l-* *-r-* alternantzia aski arrunta da euskal hitzetan; adibidez, Ulibarri / Uribarri; edo Irunberri / Ilunberri; *kaskarabar* Bilintx bertsolariak erabiltzen du (*DRALV*); *kazkabra* Nafarroak Donamaria herrian baliatzen dute bertakoak (*EHHA*); *gazkaragar* aldaera Azkuek biltzen du bere hiztegian (*DVEF*) eta dirudenez Nafarroako Arakil herrian erabiltzen da; *kaskaragar* aldaera Bizkaiko mendebaldean oso zabalduta dago: Getxo, Loiu, Leioa eta Sopela herrietan entzun daiteke oraindik gaur egun (Llosa, 2002).

Kazkar berba Nafarroako Altsasu herrian erabiltzen da; Izagirrek jasotzen du (Izagirre, 1959); *kazkarra* terminoa *-a* eta guzti, Altsasutik hurbil dagoen Urdiain herrian eskuratutakoa da (*EHHA*). Hortaz, elkarretatik hain gertu egonda, ziurrenik termino bera izango da, baina Urdiaingoak amaierako *-a* dauka.

Kazkarabiko (*kaskabiko*, *kaxkabiko*) eta *kazkarabito* (*kaskarabito*) aldaera horiek guztiak zaku berean sar litezke, baina baliteke *kazkarabiko* eta *kazkarabito* desberdinak izatea; lehenengoaren aldaerak eremu geografiko zehatz batean erabiltzen dira: *kaskabiko*, Azkuek jasota, Gipuzkoako Ormaiztegi, Usurbil eta Zegama herrietan (*DVEF*); *kaxkabiko*, Ezkio-Itsason (*EHHA*); *kaskarabito*, aldiz, hegoalderago, Nafarroako Sakana aldeko Dorrao eta Arakil herrietan (*EHHA*).

Kazkarabitz berba behin baizik ez da agertzen datutegian: “*Kazkarabitzko* ekaitz ikaragarria”. Iztuetak erabiltzen du horrelako terminoa (Iztueta 1824 *apud DRALV*).

Kixkora hitza dela-eta, nabarmendu behar da Gipuzkoako Oñati herrian bi gauza desberdin esateko bildurik dagoela “txingorra” (*EHHA*) eta “txingor txikia” Izagirrek bildua (Izagirre 1959). Baliteke azken adiera hau errealitatetik hurbilago egotea. (*Harri*)-*kizkorarekin* zerikusia izan lezake: “‘Guijo <gr=>’ A. “*Zizkor* (BN), grain. Syn. *bihi*’ Lh. v. koskor, kizkirri (2). *Kiskorrari atheratu su mokorra*. SoEg Herr 22-12-1960, 3 (*DRA* traduce ‘piedrecilla del chisquero’)” (*OEH*). Beraz, *OEHk* dakarrenaren arabera, beste metafora bat azalduko litzateke

hemen: “bihia” edo “harri koxkorra” izan liteke. Adimen-begiak berriz ere ikusten du bere buru-iruditeriaren bitartez erortzen den ale txiki moduko bat.

Ostarri elea B. Estornesek jaso zuen Nafarroako Erronkari herrian (Estornes, 1997). Hasierako *Ost-* osagaiak zalantzarik gabe *Ortzirekin* dauka zerikusia, beste hitz ugarirekin gertatzen den bezala: *ostadar*, *oskarbi*, *ortzantz...* Ziurrenik “Ortziren harria” esan nahi du. Aurreko eremuetan azaldu bezala, badirudi *ortzik* euskal aitzin-hiztunarentzat zerua adierazi nahi zuela (§4.2). Beraz, adierazpen hori dela-eta, hainbat termino etnometeorologiko loturik daude *ortziri*, zerealdean gertatzen diren ostagiak, alegia.

Piperkoila (*piperkoilla*) hitza aurreko haran berean bildutakoa da; *piperkoila* Azkuek dakar bere hiztegian (*DVEF*) eta *piperkoilla* berriz ere Erronkariko uskararen hiztegian azaltzen da (Estornes, 1997). Buru-iruditeriari dagokionez, itxuraz, bi osagai ditugu: *piper* eta *koila*. *Koila* elea izotzari loturik dago zenbait hizkeratan: Gipuzkoako Berastegin “izotza” da (*DVEF*); oro har, goi-nafarreraz “izotza” ere bada (*DVEF*); Nafarroako Leitzan “izotz-burruntzia” da (*EHHA*). Berastegi kenduta, haren eremu geografikoa Nafarroan kokatzen da. Guztiarekin ere, Erronkari aldean *koila* ez dago jasota “izotza” adierazteko. Estornesen arabera *izotza* zen bertan erabiliriko hitza (Estornes, 1997). Bestalde, *piper* berba, bai, Erronkarin erabiltzen bide zen. Hala ere, txingor ale batek ez dirudi piperra, baina, beharbada, euskal hiztunaren adimen-begiak horixe ikusiko zuen buru-iruditeriaren bitartez: “piper izoztu” moduko ale bat.

Tximista berba entzuten dugun bakoitzean zero aldeko fenomeno argitsua datorkigu burura; hala ere, Azkuek “piedra, granizo” eta G? dakar hiztegian (*DVEF*), hau da, agian gipuzkeraz erabiltzen da. *EHHA*n ez dago horren inongo aztarnarik. Baliteke Labayru hiztegiak Azkuerenetik ere adiera bera hartzea (Labayru Hiztegia).

Txingor (*txigor*, *txingor*, *tzingor*), *txingorale* (*tzingorale*) sail honek ematen dio izen eremu honi. Ziur aski *kazkabarrekin* batera euskara batuan gehien erabiltzen den terminoa dugu. Osaera dela-eta, baliteke *txingo*+(*go*)gorretik etortzea; *txingo* berbak Gernikan “elur maluta txikia” esan nahi du; beraz, “elur maluta txiki eta gogorra”, izoztua, alegia (*DVEF*). Erabilerari dagokionez, *txingor*, adibidez, gaur egun Bizkaiko Mendata herrian erabiltzen da (Mallea, 2002), baita Gipuzkoako Oñati herrian ere (Izagirre, 1959); *txigor*, Bizkaiko kostaldeko Ondarroan erabiltzen da (*EHHA*); *tzingor* aldaera, Gipuzkoako Legazpi eta Urretxu herrietan (*EHHA*). Azken herri hauetan ere *tzingorale* aldaera jasota dago (*EHHA*). Adieraziak adierazi, bi hipotesi egin daitezke hitz horren inguruan; bata, bi hitzen nahasketa gertatu izana: *txingor* eta *denborale*, eta baliteke azken honek hari eragin izana; bestea, *txingor* eta *ale* hitzek bat egitea, izen-elkarketa moduko bat eratzeko.

Txintxerkoila (*txintxerkol*) hitza, *ostarri* eta *piperkoila* bezalaxe, Erronkari haranean erabiltzen bide zen (Estornes, 1997); *koila* zer den gorago azaldu du; *txintxer*, bestalde, era askotara azaltzen da eremu honetan txingorra izendatzeko. Bildutako aldaera guztien arabera, ematen du jatorrizko elea **zitzar* izan litekeela: *txitxar*, *txitxer*, *txitxor*, *tzitzar*, *tzitzor*, *xitxar*, *xitxer*, *xixar*, *xixer*, *zitzer* eta *zitzartxehia*. Gaur egun hiztegi guztien arabera, **zitzar* elearen aztarnarik ere ez dago. *OEHN*, *zitzer*, *xitxer* eta *tzitzar*.

Txirgora berbak, seguru asko, *txirkorarekin* du zerikusia, “elur maluta txikia”, Bizkaiko Abadiño herrian (Gaminde, 1992) eta Gipuzkoako Arrasaten (*DVEF*). Ondoko herri batean, Bergaran, “elur pikor gogor eta hotza” adierazteko erabiltzen da (Elexpuru 2004); *txirgora* Bizkaiko Orozko herrian eskuratua da (*EHHA*). Hala ere, handik hurbil, Arratian eta Ubidean (hau, zalantzan), “txingor txikia” esan nahi du Azkueren arabera (*DVEF*). Arratia inguruko hiztegian *txirgorea* “hotzaren hotzez leiturik jaustan dan euri-tanga gogortua” da (Larrea & Rekalde, 2010). *Tx-z* hasten denez gero, pentsa liteke hitz baten txikigarria dela, hau da, beharbada, hasierako *z*-etik datorrela; baina, ez da horrela **zirkora* edo **zirgora* berben arrastorik ez dago. Bai, oster, beherago aztertuko diren *zirzikora* eta *zizerkora* terminoak. Buru-iruditeriari dagokionez, agian *txirlorarekin* eduki lezake zerikusia, hots, “oholean marrusketa pasau ostean, ateraten dan kirru formadun xaflatxo fina (birutea), txirbila edo txiria” (Larrea & Rekalde, 2011). Euskal hiztunraen adimen-begiaren arabera, zerutik jausten den *txirloratzat* jo zitekeen *txirgora* delakoa, metafora gisa.

Txokor berba toki bakarrean jasota dago, Bizkaiko Fika herrian (*EHHA*). Baliteke *txotor* hitzarekin zerikusia izatea, elurraren eremuan aztertutako hitza, txingor alearen antzekoa, baina biguna. Hauxe dago bildurik Bilbo inguruko Sondika herrian: “*Txotorra* da edur mea. Da lodi daunean botaten mamitzu dau. *txotorra* igual urtu iten da. Selan in, urtu” (*EHHA*). Aurreraxeago aztertu ere egingo da *txotorra*, Bizkiako Getxoko hiztunen ustez “txingorraren eta elurraren artekoa” baita (*EHHA*). Buru-iruditeriari dagokionez, Bizkai aldean *harri txotorra* “harri koxkorra” adierazteko erabiltzen da.

Azterkizun ditugunak fonetika aldetik oso hurbil daude. Denak ekialdeko euskalkietan erabiltzen dira. *Zirzikora* (*tzitzerkor*, *zirzikora*, *zizerkor*, *zizerkora*, *zizorka*) saila dugu; *tzitzerkor* aldaera Nafarroako Baztan haranean jasorik dago (*DVEF*); berrikiago *zizerkora* elea azaldu zen Baztango Hiztegian (Izeta, 1996); *zirzikora* bera gaur egun Nafarroa Behereko Aldude herrian erabiltzen da (*EHHA*); *zizerkor* terminoa Nafarroako Aniz herrian baturik dago (*EHHA*); *zizorka* aldaera Nafarroa Beheren ere erabiltzen omen da (*DVEF*). Buru-iruditeriari dagokionez, ez da batere erraza beste hitzen batekin zer ikusi lezakeen ala ez. Bestalde, *zirtzikor* elea Harrietek dakar bere hiztegian (*OEH*) “txingor txikia” adierazteko.

Zitzar (*txitzar*, *tzitzor*, *xitzar*, *xitxer*, *xixar*, *xixer* eta *zitzer*) eta *zitzar xehe* (*zitzartxehia*). *OEH*ren eta Labayru hiztegiaren arabera, *zitzer* izanagatik ere, hemen erabaki da *zitzar* idaztea, *-a*-dun aldaerak aurkitu dira eta; baliteke bokal-harmoniaren eraginez *-i-a-* *-i-e-* bihurtu izana. Aldaerei dagokienez, *txitzar* hitza Nafarroa Behereko Amikuze eskualdean jaso da (*DVEF*); *tzitzor* aldaera Nafarroako Zaraitzu haranean erabiltzen omen zen (Camino, 2012); *xitzar* aldaera Nafarroa Behereko Arboti-Zohota eta Garruze herrietan bildua da (*EHHA*); *xitxer*, besteak beste, Nafarroa Behereko Gamarte herrian (*EHHA*); *xixar* Arruta herrian, Nafarroa Beheren ere bai (*EHHA*); *xixer* J. Tartasek darabil bere *Onsa hilceco bidia* izeneko liburuan (*OEH*). Nongoa zen autorea kontuan harturik, Zuberoa aldeko aldaeratzat har liteke; *zitzer* elea Azkuek dakar hiztegian “S” (zuberera) marka duela (*DVEF*); sail honetan, azkenik, bitxikeria bat dugu: Lapurdiko Bardoze herrian *zitzartxehia* elea bildu da (*EHHA*), hau da, *zitzar xehe*; izan ere, *zitzar larri* erabiltzen dute bertako hiztunek “txingor handia” izendatzeko. Beraz, *xehea* ohikoa da eta *larria* handia. Azken hau kenduta, gainerako guztiak eskualde zehatz batean bildurik daude, Amikuze aldean; Tartas idazlearen mintzaira handik hurbil samartzat jo liteke, kilometro gutxira baitago bera jaiotako herrian Amikuze eskualdetik. Buru-iruditeriari gagozkioarik, ez dago beste hitz baten irudirik edo metaforarik. Oso ohikoa ez bada ere, hitz soiltzat hartu behar litzateke *zitzar* / *zitzer* terminoa.

Amaitzeko, *zizkor* (*xikhor*, *xiskor*, *zizkor*) elea dugu; *xikhor* aldaera Nafarroa Behereko Jutsi herrian bildurik dago (*EHHA*); *xiskor* Harrietek bere hiztegian ere badakar (*OEH*); beraz, “behe-nafarrera” marka ipintzea zilegi da; azkenik, *zizkor* bera dugu herrialde bereko Irisarri herrian jaso (*EHHA*). Ez dugu hitz honen beste esanahirik, baina bai, ordea, *zizkortu* aditza, *kozkortu*-ren antzekoa dena, hau da, “hazi” edo “handitu”.

Txingorraren bigarren kategoria dela-eta, Txingor eta elurraren arteko meteoroa, berba bakarra dugula gailurtu behar da —*txotor*— Bizkaiko Getxo herriko lekuko baten adierazpenean oinarrituta: “*Txotorra* da entre edurre da kaskabarra bitarte. Edurre ixinde be, erdi gogortute dauenen, kaskarrantzeko” (*EHHA*). Hortaz, hiztun horren arabera, *txotorra* ez da ez elurra, ez kazkabarra, bitarteko zerbait baizik.

Hirugarren kategorian Bizkaiko Getxo herri handia dugu berriro protagonista; izan ere, bertako lekuko batek honako azalpen hau eman du aldi berean txingorrak, haizeak eta euriak bat egiten dutenean:

Lantzean behin eta egun hotzenetan baino ez, *txingorra* datorru kaleak zuritzera, eta fenomeno honek badauzka izen ugari, hain hedadura txikerrean tokiak tokiko berba edo erabilpen desberdinak ematen dira modu ikaragarrian. Ezagunena *kaskaragar* hitza da, eta beste batzuk aipatzearren, *abazuze* (haizea, euria eta txingorra batera emoten direnean), *harri* (txingor handia) eta *txotor* (txingor txikerra). (Llosa, 2002)

Llosak dioenaren arabera, “tokian tokiko berba edo erabilpen desberdinak ematen dira (*sic*) modu ikaragarrian”. Harrigarria da nolako aberastasuna eta zehaztasuna egon izan den etnometeorologiaren eremuan. Gaur egungo hiztunen bati galdetuz gero, nekez egingo luke horrelako bereizketa.

Laugarren kategoria txingorrek erortzen denean ateratzen duen hotsari dagokio, hau da, Txingorraren hotsa edo soinua. Hotsa edo soinua da eta ez zarata; izan ere, hainbat berbatan *hots* hitza bera azaltzen da; *aire-orro* (*aireorro*); *eraotea*; *habarrots*; *harri-arroitu* (*arri-arroitu*); *harri-soinu* (*arri-sonu*); *harri-zurru* (*arri-zurru*); (*hodei*)-*asots* (*asots*, *edoi-asots*, *edoi-asotz*, *odei-asots*) eta *hodei-hots* (*orots*).

Aire-orro (*aireorro*) izen-elkarketa Nafarroa Behereko Amikuze eskualdean jasota dago: “ruido producido por la piedra que cae de las nubes” (*DVEF*) da. Beraz, garbi dago oso berezia dela txingorrek jausten denean ateratzen duen hotsa edo orroa, kasu honetan; izan ere, *orro* da “Lehoiaren eta beste zenbait animaliairen oihu ozena. Lehoi eta zezenen *orroak*. 2. (Z) Astoaren arrantza. 3. (hed.) Oihu handia, zarata ozena. Itsasoaren, ekaitzaren *orroa*” (Harluxet). Hortaz, adimen-begiaren arabera, airean gertatzen den *orroa* oihu handia da itsasoaren edo ekaitzaren *orroaren* bestekoa.

Eraotea badator aditz eta guzti bildurik dago Oñatin; “el ruido del pedrisco” (Izagirre 1959). Ez da jakiten zer ote izan litekeen “*eraotea*”; izan ere, ez dago inongo lorratzik hiztegiatan, ezta *OEHn* ere.

Habarrots elea lapurteraz erabiltzen omen da (Harriet, *apud OEH*). Gaur egun euskara batuan *harrabots* idaztea gomendatzen da; izan ere, *harri+ahots*-etik etor liteke, metafora ederra, harriek ahotsa izango balute bezala. *Harrabots* ere “zarata, batez ere ozena” adierazteko arrunt samarra da (Harluxet).

Harri-arroitu (*arri-arroitu*) elkarketa Nafarroako Zaraitzu bailaran bildurik dago (*DVEF*). Aztertzekoa da elkarketaren bigarren izena, *arroitu*; badirudi latinetik datorrela; izan ere, *rugitu(m)*-ek gaztelaniaz “rugido” eta “ruido” eman ditu. Euskaraz, *-a-z* hasteak mailegu zaharra dela adierazten digu. *Arroitu* elea Nafarroako Erronkari haranean bertako euskalkia galdu arte, ohikoa izan bide da (Estornes, 1997).

Harri-soinu (*arri-sonu*) hitza aurrekoaren antzekoa da; Erronkari haranean jasota dago (*DVEF* / Estornes, 1997). Azkuek dio “ruido producido por la piedra que cae de las nubes”. Beraz, badirudi *arroitu* eta *sonu* eleak erabiltzen zituztela bertako hiztunek. *Harri-zurru* (*arri-zurru*) elkarketa Bizkaiko Mundaka herrian bildurik dago (*DVEF*). Badu hitz honek berezitasun bat; izan ere, ez da txingorrek ateratzen duen hotsa, baizik ete lurrera heldu baino lehen sorrarazten duen soinua. Honela dio Azkuek: “Ruido de pedrisco, antes que llegue al suelo”.

Beraz, antzinako euskal hiztunaren adimen-begiak bi hots mota berezi izan bide ditu: bata, txingorrak lurra jotzean ateratzen duen soinua, eta, bestea, lurra jo baino lehen airean dagoela sortzen duena. Egia esan, desberdinak dira eta antzinako euskaldunaren buru-iruditerian islatzen bide zen bereizketa hau. Elkarketaren bigarren izenari dagokionez, *zurru*, gaur egun Bizkai aldean euskara batuaren “zurrunga” izendatzeko erabiltzen da. *Zurrumurru* hitza ere aski ezaguna da Euskal Herriko bazter guztietan.

(*Hodei*)-*asots* (*asots*, *edoi-asots*, *edoi-asotz*, *odei-asots*) elkarketak zenbait aldaera ditu han-hemenka.

Asots izen soila goi-nafarrera euskalkian erabiltzen da (*DVEF*). Horretarako atsotitz baten berri ematen digu: “*Asots* aunitz ta gilzaur guti”. (*H*)*ots* izena nabari da horren barruan; ez, ordea, zein izan litekeen hasierako “*As-*”. Dena dela, baliteke “*haitz-*”ekin zerikusia izatea; izan ere, beste elkarketa batzuetan “*As-*” edo “*Az-*” bezala agertzen da leku-izen ugaritan kontsonante leherkariaren aurretik; adibidez, *azpitarte* (*haitz+bitarte*); *astxiki* (*haitz+txiki*); *aspuru* (*haitz+buru*). Beraz, beharbada, zentzu metaforiko samarrean “*haitzak* sortzen duen hotsa izan liteke”.

Gainerako aldakiak *hodeiari* loturik daude: *edoi-asots* Nafarroako Baztan haranean bildurik dago (Izeta, 1996). Horren deskripzio zehatza ematen du: “*Harria hodeitik beheiti heldu delarik egiten duen hotsa*”. Horrela irakurrita ematen du lurra jo baino lehen ere izaten dela hotsa. Azkuek ere ematen du haran bereko aldaeren berri, *edoi-asotz* eta *odei-asots* idatzita (*DVEF*). Horrek, ostera “*ruido del cielo que precede al pedrisco*”. Baina, jakina, zeruak ez du inolako zaratarik ateratzen; bai, ostera, txingorrak erortzerakoan.

Azkenik, *hodei-hots* (*orots*) hitza dugu. Nafarroako Arakil herrian jaso zuen Azkuek bere hiztegia (*DVEF*). Ez dirudi ausartegia denik esatea *orots hodei* eta *hots* izenek bat egitetik datorrenik; izan ere, zenbait hizkeratan *orei* eta *ore* aldaerak ere erabiltzen dira; adibidez, azken hau Gipuzkoako Hondarribia herrian erabiltzen da (*EHHA*).

Izakien nozioari, lehenengo nozio etnosemantiko edo orokorrari, amaiera emateko onomatopeiak ditugu aztergai. Hots handia sortzen duen ostagia izanda, ez da harritzekoa zenbait onomatopeia izatea, hiru, hain zuzen ere: *kiski-kaska*, *tirrizka* eta *zirt-zart*.

Kiski-kaska adizlaguna Gipuzkoako Azpeitia herrian bildurik dago (Mokoroa, 1990): “*Txingortu jeiki zan Iñauteri-eguna: sei-t-erditan txingorra, kiski-kaska...*”. Elkarketa hau ere erabiltzen da buruan kolpe bat ere hartzen denean: “1 onomat. Sonido de un golpe en la cabeza. 2 onomat. Sonido de una granizada” (Labayru Hiztegia). Mokoroak berak ere beste adizlagun baten berri ematen du, *tirrizka*: “*Zeure leioetan aizea puzka, ta iñatazia tirrizka dabillanean...*” (Mokoroa, 1990). Baliteke *kirri(z)karekin* zerikusia izatea: “*Apurtzen den zerbaiten hotsa,*

karraska” (Harluxet). Azkenik, *zirt-zart* dugu, 1968ko Zeruko Argia aldizkarian bildua: “Tximist ikaragarri batek goitik beraño urratu zuan zerua, jotzen du aize zurrunbilo batek eta... *zirt-zart*, arri” (*DRALV*). Labayru Hiztegiak honela dakar: “onomat. Sonido que hace referencia al golpe, rotura, crujido, chispa, etc”.

4.5.7.2. Kantitatea

Txingor ekaitza / erauntsia / zaparrada
Ageta
Harri-erauntsi (arrerauntsi, arrerontsi, arri-erauntsi, arrierauntsi,)
Harri-jasa (arri-jasa)
Harri-uharre
Harri-zaparrada (arri-zaparrada)
Harrite
Mataza
Ostarri-erauntsi
Txingorrada
Txintxerkoila-erauntsi (txintxerkol-erauntsi)
Zitzar-erauntsi (tzitzar-erauntsi)
Zirzikora-erauntsi (zizerkor-erauntsi)
118. taula. Txingorra: Kantitatea

Hirugarren taula bigarren nozio etnosemantikoari dagokio: kantitatea. Sailkatzerakoan zalantza izan da; izan ere, hasieran zenbait hitz izakien nozioan sartu dira, haren kategoriakoak izango balira bezala. Hala ere, hiztunen arabera, ekaitzak, erauntsiak edo zaparradak, nolabait, kantitateari egiten diotela aipamen ikusita, erabaki da den-denak multzo berean sartzea argiagoa izango delakoan.

Izen-elkarketa askok bigarren osagaia *erauntsi* hitza dutenez gero, emango da beraren definizioa; *Erauntsia* etnometeorologian “Atmosfera-gertakariez, eraso, ekaitza” da (Harluxet). Azterketa egiteko honako termino hauek bildu dira: *ageta*, *harri-erauntsi* (*arrerauntsi*, *arrerontsi*, *arri-erauntsi*, *arrierauntsi* eta *arrierauntsi*), *harri-jasa* (*arri-jasa*), *harri-uharre*, *harri-zaparrada* (*arri-zaparrada*), *mataza*, *ostarri-erauntsi*, *txingorrada*, *txintxerkol-erauntsi*, *zitzar-erauntsi* (*tzitzar-erauntsi*) eta *zizerkor erauntsi*. Banan-banan aztertuko dira.

Ageta elea Orixe idazleak erabiltzen du Apocalipsis izeneko liburuan (*DRALV*). Oso termino bitxia da, beste hitz batzuekin zerikusia ez duena. Horren harira, *OEHN* “*ageta* botariko” esapidea baizik ez da aurkitu: “decaído, deshecho (G-nav)” (Inza *RIEV* 1928, 151. *apud OEH*).

Harri-erauntsi (*arrerauntsi*, *arrerontsi*, *arri-erauntsi*, *arrierauntsi*) dela-eta, datuen arabera, Nafarroako izen-elkarketatzat jo daiteke. Lehenengo aldaera, *arrerauntsi*, Azkuek

dakar bere hiztegiaren eranskinean goi- nafarrera euskalki marka daukala (*DVEF*); bigarrena, *arrerontsi*, Nafarroan ere bai, Aezkoa haranean bildurik dago (Camino, 2012); hirugarrena, *arri-erauntsi*, besteak beste, Nafarroako Baztan haranean erabiltzen da (Izeta 1996): “Anbateko *arri-erauntsie* in du”; azkenik, *arrierauntsi*, herrialde bereko Erronkari haranean bilduri dago (Estornes, 1997). Aipatzekoa da haran berean hiru izen-elkarketa erabiltzen zirela: *arrierauntsi*, *ostarri-erauntsi* eta *txintxerkol-erauntsi*; azken biak beherago aztertuta. Buru-iruditeriari dagokionez, lehenengo osagaia, *harri*, oso garbia da *txingorra* harriarekin erkatzen baita; gatzelaniaz antzekoa gertatzen da, “piedra” ere sarri erabiltzen baita.

Harri-jasa (*arri-jasa*) elkarketa Gipuzkoako Bidania herrian bildu da (*EHHA*). Bigarren osagaia, *jasa*, euriarekin ere erabiltzen da: *euri-jasa*; haizearekin ere bai: *haize-jasa*. Hauxe da *jasa*: fenomeno meteorologikoei dagokienez, “indarrez egitea edo eraso bortitza (gehienetan hitz-elkarteetan bigarren osagai gisa erabilia)” (Harluxet).

Harri-uharre elkarketa Fedearen propagacionea (1883) izeneko dokumentuan jasorik dago (*DRALV*); *uharre* edo *uhar* eleak ekialdeko euskalkietan erabiltzen dira “uholde-ura” edo “euri-erauntsia” adierazteko.

Harri-zaparrada berba Bizkaiko Jatabe herrian, Mungia aldean (Gaminde 2002) erabiltzen da. Zaparrada osagaia arrunt askoa da euriaren eremuan; esate baterako, *euri-zaparrada*, *hodei-zaparrada* edo *trumoi-zaparrada*. Itxura guztien arabera, *zaparrada* terminoa onomatopeikoa da:

1. Prezipitazio zakar eta sarritan laburra, tanta edo zatiki solidoak beste prezipitazioenak baino handiagoak izaten dituena. *Euri-zaparrada*.
2. (hed.) Mota bereko objektuen aldibereko edo bata bestearen ondorengo higidura zaratatsua.
3. (hed.) Bata bestearen ondoren eta azkar esandakoen multzoa; errieta. (Harluxet)

Lehenengo adierari erreparaturik, aipatzekoa da hiru kontzeptu darabiltzala: “zakarra, sarritan laburra eta tanta edo zatiki solido handiak”. Beraz, gehienbat kantitate nozioari dagokiola ematen du.

Harrite elea Intxauspe idazleak erabiltzen du Apocalipsis liburuan (*DRALV*). Idazlearen jatorria kontuan harturik, lapurtera euskalkikotzat jo daiteke; *harri* izena eta *-te* atzizkiak osaturik dago. Atzizki horrek eskuarki bi adiera sorrarazten ditu: bata, garaia adierazteko, eta bestea, ugaritasuna; adibidez, *eurite* eta *elurte*.

Mataza elea zenbait eremutan agertzen da: “elur-maluta” izateaz gain, adibidez, *edurmataza* Bizkaiko Arrieta herrian (Gaminde 2001a) hodeiekin ere badu zerikusirik, adibidez, *hodei-mataza* “hodei beltza” adierazteko (Mokoroa 1990). Txingorraren eremuan “txingor-erauntsia” esan nahi du *matazak* Bizkaiko Mundaka herrian (*DVEF*). Aurrekoetan

aipatu bezala, islatzen duen irudia nahiko garbia da; izan ere, “hari-matazaren itxura hartzen duenaz esaten da” (Harluxet).

Ostarri-erauntsi eta *txintxerkoila-erauntsia* (*txintxerkol-erauntsia*) elkarketak Nafarroako Erronkari haranean erabiltzen ziren (Estornes, 1997). Lehenago azaldu da zein izan litekeen *ost-* osagaiaren jatorria, *ortzirekin* zerikusia duena (§4.2); *txintxerkol* hitzaren nondik norakoa goratxoago ere azaldu da, *txintxer + koila* (izotza)-tik etor litekeena, hain zuzen ere. Azken honen antzeko elkarketa, *zizerkor-erauntsi*, jasorik dago herrialde bereko Baztan haranean (*DVEF*).

Txingorrada berba eratorria dela-eta, ez dago zehatzurik non dagoen hartuta; bai, ostera Bizkai aldekoa dela (Mokoroa 1990). Osaerari dagokionez, *txingor* hitza eta (*k*)*ada* atzizkiaz eraturik dago. Beharbada, gaztelaniaren eraginez “granizada” esaten da eta.

Zitzar-erauntsi (*tzitzar-erauntsi / erontsi*) elkarketa Nafarroako Aezkoa haranean jasorik dago (*DVEF*); “tempestad de granizo” ematen du aditzera.

Azkenik, Azkuek dioenez, *zirzikora-erauntsi* (*zizerkor-erauntsi*) herrialde bereko Baztan haranean erabiltzen dute hiztunek (*DVEF*).

4.5.7.3. Kalitatea

Txingor ale handia eta ugaria	Txingor ale txikia	Txingor sendoa	Txingor kaltegarria
Babazuza (baazuz bazuza) Grelo Harri (arri, arrie) Harri-txingor (arritxingorra) Harri-adar (arri-adar) / Harriabar (arriabar) Harri-banaka (arri-banaka) Harri-txingor (arri-txingorra) Harri-uhar (arri-uhar) Harriola (arriola) Harritzar (arritzar-jasa) Inetazi (ietaski) Justularri (juztularri) Kaskarau Kazkabor (kaskabura, kaskaburra) Zitzar (tzitzer) Zitzar larri	Babazizkor Babazuza (baazuza, babazeiza) Kixkora Mukuts Txingor, txingora Txingora Zirzikora (zirtzikor) Zitzar (txitxer, tzitzar, tzitzer, xixer)	Babazuza (abazuza, barazuza) Harri gaizto	Harriabar (arriabar)
119. taula. Txingorra: Kalitatea			

119. taula hau kalitateari dagokio, hirugarren nozio etnosemantikoa, alegia. Sailkapena lau kategoriatan egin da; lehenik, Txingor ale handia eta ugaria; bigarrenik, Txingor ale txikia; hirugarrenik, Txingor gogorra eta, azkenik, Txingor kaltegarria.

Txingor ale handi eta ugariari buruz, honako berba hauek dira aztergai: *babazuza* (*baazuz, bazuza*); *grelo*; *harri* (*arri, arrie*); *harri gaizto*; *harri-txingor* (*arritxingorra*); *harri-*

adar (*arri-adar*) / *harriabar* (*arriabar*); *harri-banaka* (*arri-banaka*); *harri-txingor* (*arri-txingor*); *harri-uhar* (*arri-uhar*); *harriola* (*arriola*); *harritzar* (*arritzar*); *inetazi* (*ietaski*); *justularri* (*juztularri*); *kaskarau*; *kazkabor*; (*kaskabura*, *kaskaburra*); *zitzar* (*tzitzer*) eta *zitzar larri*. Gorago esan bezala, txingorraren ale handia denean, gehienetan, *harri* berba azaltzen da. Bestalde, badira beste hitz batzuk aurretik ere aztertu direnak, baina ostera ere nozio honetan azaltzen direnak.

Babazuza (*baazuz*, *bazuz*) terminoa goragoa aztertu da txingorraren ale hutsa adieratzen duenerako; oraingoan, ale handia eta ugariari irizteko erabiltzen da *baazuz* eta *bazuz* aldaeren bitartez: lehenengoa, *baazuz*, Nafarroa Behereko Ezterenzubi herrian bildurik dago (EHHA), *harri* eta *tzitzer* eleekin batera; bigarrena, *bazuz*, Lapurdiko Bardoze herrian (EHHA).

Grelo hitza Bearnoko Eskiula herrian jasota dago (EHHA); ziurrenik, frantses edo bearnesarekin du zerikusia, frantsesez *grêle* esaten baita. Eskiula Euskal Herritik kanpoko herria da, baina zuberera euskalkia baliatzen dute.

Harri (*arri*, *arrie*) hitz hutsa ere ohikoa izaten da edo izaten zen; adibidez, *arri* Nafarroako Erronkari haranean (Estornes, 1997); *arri* Bizkaiko Gatican (Gaminde 1997); *arrie* Nafarroako Eugi herrian (EHHA). Gorago azaldu bezala, adimen-begiari dagokionez, txingorraren ale handiak harriekin erkatzen dira, gogor-gogorrak baitira.

Harri-txingor (*arritxingorra*) izen-elkarketa Garatek bildu zuen Bizkaiko Galdakao Herrian (DRALV). Kasu honetan *harri* eta *txingor* izenek bat egiteak indar handiagoa ematen dio ostagiari.

Harri-adar (*arri-adar*) izen-elkarketa, Nafarroako Erronkari eta Zaraitzu haranetan erabiltzen zen (DVEF); elkarketa bera erabiltzen da Zuberoan “txingorra etengabe botatzen duen hodeia” izendatzeko (DRALV). Bestalde, *harriabar* (*arriabar*, *harrabar*) aldaera dugu. *Harrabar* gorago aztertu da “txingorraren ale hutsa” adierazten du eta; *arriabar* eleak, bestalde, beste bi adiera ditu: bata, hodeien eremuan aztertuko dena, “txingor hodeia” (DVEF), eta bestea, “txingor handia eta ugaria”; besteak beste, Gipuzkoako Legazpi eta Urretxu herrietan erabiltzen da (EHHA). Etnometeorologiaren beste eremu batzuetan ere agertzen dira *-abar* / *-adar* osagaiak; adibidez, eremu honetantxe, aztertutako *kazkabar* eta aldaerak; ostadarra dela-eta, *ostadar* / *ortzadar* bera eta *ostabar* ere bai; gero analizatuko den hodeien eremuan, *hodei-adar*; ekaitzaren eremuan, *trumoi-adar*; euria goitik behera egiten duenerako, *adar* adizlagun gisa ere erabiltzen da. Beraz, datuen arabera ohikoa izaten da *-adar* eta *-abar* azaltzea. Badirudi *adar* naturari lotutako elementua dela, haren luzapenaren moduan agertzen dena.

Harri-banaka (*arri-banaka*) terminoa Gipuzkoako Goierri eskualdean bildurik dago (*DVEF*). Aztertzea da bigarren osagaia, *banaka*; izan ere, *banaka* hitzak “eskasa”, “bakana” edo “bitxia” esan nahi duenez gero, “harriaren bakantasuna” edo “harrigarritasuna” ematen da aditzera, hain zuzen ere.

Harri-txingor (*arri-txingorra*) elkarketa Bizkaiko kostaldeko Bakio herrian jasota dago (Gaminde, 1999): “harria” edo “inetazi handia” ematen du Gamindek definizio gisa. Ohiko *txingor* izendapenari *harri* berbak nolabaiteko indarra ematen dio.

Harri-uhar (*arri-uhar*) elkarketa dela-eta, inongo oharrik gabe azaltzen da (*DVEF*). Gehienetan *uhar* hitzak euriarekin izaten du zerikusia, “zaparrada” adierazten du eta; *uhar* berbaren lehenengo osagaia *ur*-etik dator; adibidez, *uholde* terminoa. Beraz, badirudi *uhar* terminoa ihartu eta lexikalizatu ondoren, hiztunek *harri* hitzarekin izen-elkarketa sortu dutela. *Harri-uharre* ere gorago aztertu da “txingor ekaitza” adierazteko.

Harriola (*arriola*) hitza Gipuzkoako Goierri eskualdean ere bildurik dago, herria zehaztu barik (*DRALV*); ziurrenik, aurrekoarekin gertatzen den bezala, *uriola* –uholde– terminoaren eraginez eta analogiaz sortu da.

Harrizar-jasa (*arritzar-jasa*) izen-elkarketa goragoa azterturiko *harri-jasaren* antzekoa da; hura “txingor-erauntsia” adierazteko, hau “txingor ale handia” (Lardizabal-*OEH*). Azaldu bezala, *jasa*, ostagiak hizpide ditugularik, indarrez egitea edo eraso bortitza (gehienetan hitz-elkarteetan bigarren osagai gisa erabilia) (Harluxet). Beraz, fenomenoaren bi indartzaile ditugu: batetik, *-tzar* handigarria; bestetik, *jasa* hitza bera.

Inetazi (*ietaski*) berba Bizkaiko Zaratamo herrian jasota dago (*EHHA*); *ietaski* aldaera uste da *inetazirekin* duela zerikusia, nahiz amaierako *-ki* desberdina izan. Agian, analogiaz beste berba baten eragina izan liteke.

Justularri (*jztularri*) dela-eta, *justularri* Bizkaiko Fika herrian bildua da (*EHHA*) eta *jztularri* Gipuzkoako Arrasaten (*DVEF*). Ziurrenik *justuri* eta *harri* izenez osatua da; adibidez *afari* izena *afaldu* aditza bihurtzen da edo *ugari ugaldu*. Hortaz, amaierako *-ri -l* bilakatzeko joera handia erakusten du euskarak. Bestalde, *justuri* berba, gehienbat, Euskal Herriko mendebaldean “tximista” adierazteko erabiltzen da; ba omen dauka zerikusirik *inusturi*, *ihurtzuri* eta antzeko terminoekin; izan ere, Ekaitzaren eremuan luze eta zabal aztertu dira horrelako hitzak (§4.2). Han aztertu bezala, baliteke *justuri* honek *ortzi* elearekin erlazioa izatea.

Kaskarau berba Bizkaiko Laukiz herrian jasota dago (*EHHA*); handik hurbil *kaskara* erabiltzen dute Mungiako hiztunek (*EHHA*) “txingorra” adierazteko. Beharbada, buru-iruditeriari dagokionez, hitzaren amaierak “garau”-rekin izan lezake zerikusia; izan ere, sarritan

gertatzen den bezala, txingorraren alea antzinako baserriko kontuekin alderatzen da; adibidez, “baba” (*babazuza*), “pikor” (*elur-pikor*) edo “garagar”-rarekin (*kaskaragarra*).

Kazkabor (*kaskabura*, *kaskaburra*) terminoari dagokionez, lehenago aztertu bezala, “txingor alea” esateaz gain, Zuberoako zenbait herritan, adibidez Santa Grazi eta Urdiñarben (*EHHA*), “txingorraren ale handia” adierazteko erabiltzen da. Azaldu legez, agian *kaskarabar* edo *kaskaragar* terminoekin izan lezake erlazioa.

Zitzar (*zitzer*) eleak hiru adiera ditu Euskal Herriko ekialdeko euskalkietan: “txingorra”, “txingor handia” eta “txingor txikia”. Dirudienez, hiztunen adimen-begia bestelakoa da, edo, behintzat, hitz honek garapen desberdina izan duela. Oraingoan, *zitzer* aldaera hau Nafarroa Behereko Ezterenzubi herrian bildua da (*EHHA*). Bertan, horretaz gain, *baazuz* eta *harri* terminoak ere erabiltzen dira. Bestalde, hitz honek *larri* izenondoa eraman dezake berekin: *zitzar larri*; Lapurdiko Bardoze herrian bilduta dago (*EHHA*). Aipatu bezala, bertan *zitzar xehe* (*zitzarxehia*) eta *zitzar larri* bereizten dituzte.

Txingor txikiaz bezainbatean, honako berba hauek dira aztergai: *babazizkor*, *babazuza* (*abazuza*, *babazeiza*) *kizkora*, *mukuts*, *txingor*, *txingor*, *zirzikora* (*zirtzikor*) eta *zitzar* (*txitxer*, *tzitzar*, *tzitzer*, *xixer*). *Mukuts* elea izan ezik, gainerako guztiak aztertu dira “txingorra” kategorian. Hori dela-eta, oraingoan xehetasun gutxiagoren berri emango da.

Babazizkor elea Harrietek dakar bere hiztegian (Harriet *apud* *OEH*); Nafarroa Beherekotzat jo liteke.

Babazuza (*baazuza*, *babazeiza*) dela-eta, lehenengo aldaera Nafarroa Behereko Baigorri herrian bildua da. Lekuko batek honela deskribatzen du: “*Baazuza* da harri xehe bat, hanitz aldiz nord-ouest. Asko zaharrek erraiten zuten *ahuntz-hiltzalea*; ahuntzak burua kanpoan badu, futitzen da, baina hori sartzen da hanitz aldiz, hartako erraiten zaikeen, baina bere izen garbiz *baazuza* zer ttipi da” (*EHHA*).

Kixkora (*kixkoria*) berba “txingorra” kategorian aztertu da; izan ere, bi adiera jaso dira herri berean bi iturritik: bata, “txingor hutsa” esateko (*EHHA*); eta bestea, “txingor ale txiki-txikia” (Izagirre 1959). Agian, azken hau eman behar litzateke egiazkotzat, zaharragoa baita.

Mukuts elea Nafarroako Bortziri eskualdean baturik dago, bereziki Iturenen erabiltzen da (Garate *apud* *OEH*). Herrialdeko bereko Baztan haranean hitz bera erabiltzen dute “antzigarra” edo “lantzurda” adierazteko (Izeta, 1996). Beraz, gai hotza den aldetik, badaukate zerikusirik. Buru-iruditeriari dagokionez, fonetikoki hurbil dauden hitzen artean, *morkots* dugu: “Barnean gaztainak dauzkan kupula arantzaduna” (Harluxet).

Txingor hitza dela-eta, ondo aztertu da eremu honetan berari izena ematen dio eta. Azkueren arabera, hiru euskalkitan erabiltzen da: bizkaiera, gipuzkera eta goi-nafarrera

(DVEF). Haren ustez, “ale txikia” esan nahi duenez, beharbada horrelakotzat hartu behar litzateke, aitzina horrelako ostagiak zehaztasun handiagoz bereizten baitziren.

Txingora berbarekin ere zalantzak sortzen dira; izan ere, azaldu bezala, Bizkaiko Orozko herrian “txingorra” esan nahi du (EHHA) eta handik kilometro batzuetara, Arratia haranean, “txingorraren ale txikia” (DVEF). Hortaz, aurrekoaren antzeko auzia izan liteke, hau da, jatorriz txikitasuna adieraztea eta ez, “ale hutsa”.

Zirzikora (*zirtzikor*) elea Harrietek dakar bere hiztegian: “Grésil. Granizo pequeño. Nahiz arbolak aurthen franko aitzina diren, egun hotako zirzikora-erauntsiek eztute halere kalte handirik egin” (Harriet *apud* OEH). “Grésil” frantsesez “variété de grêle, fine, blanche et dure”⁴². Hemen ere aurrekoaren kasu bera gertatzen da, lehen aztertu bezala, zenbait bazterretan “txingor ale hutsa” esan nahi baitu.

Zitzar (*txitxer*, *tzitzar*, *tzitzer*) azaldu bezala hiru adiera ditu: “txingorra”, “txingor ale handia” eta, oraingoan, “txikia”; *txitxer* eta *tzitzer* elea Azkueren arabera zubereraz erabiltzen dira (DVEF); *tzitzar* aldaera, beraren arabera ere, Nafarroako Aezkoa haranean (DVEF) *xixer* aldaerari buruz hauxe dakar OEHk:

Grêle, babazuza, arrabarra SP. "Grésil" VocBN, Dv y H. "Granizo pequeño" A. Leizarraga (Decl a) 7v) da *xixerra* como equivalente suletino de *babazuza*. v. *tzitzar*, *zitzer*. *Harria*, *xixerra*, *tenbesta*, *orajia*, *odeia*. Tt Onsa 69. Ezi *xitxerra* beno usuago / hoién kolpiak jiten dira. Mustafa (ap. DRA). Behi larruz abarkak, babazuz edo *xitxerraren* gainean errexkiago urhats egiteko. Prop 1897, 284. Mündü orok badaki hilabete hortan, ardüra, odeiak hozten direla, eta, eüría emaiteko lekhütan, *barazizkor* edo *xitxerrez* lurra zartakatzen diela. Eskual 9-5-1913, 4. (OEH)

Txingor sendoari dagokionez, bi hitz hauek ditugu: *babazuza* (*abazuza*, *barazuza*) eta *harri gaizto*; lehenengoa luze eta zabal analizatu da, batez ere, txingor hutsa adierazten duenean; *abazuza* aldaera Bilbo inguruko Sondika herrian jaso da. Bertako lekuko batek honela dio: “*Abasusea* da mea, da fuertea da aberi geau in dauena. Seari gatzain dau ta bestea *abasusea* segun temporak setara emoten deuden. *Abasuse* gogorra da ondatuten dauena dana...” (EHHA). Beraz, *abazuza* “mehea” izan daiteke, baina “fuerta”, “sendoa”; *barazuza* elea 1958ko Herria aldizkarian bilduta dago (DRALV). Laburbilduz, *babazuza* hitzak bost kategoriatan hartzen du parte, zein den hiztunen adimen-begia: txingorra, txingor handia, txingor txikia, txingor sendoa eta txingorra, euria eta haizea aldi berean. Bigarren berba *harri gaizto* da; Mokoroak bildu, eta Bizkaikoa zela adierazi zuen. Hauxe da aipua: “Tximistaz batera aserre biziaz *arri gaistoa* jaurtin eban odeiak” (Mokoroa, 1990).

Amaitzeko, azken kategoria Txingor kaltegarria dugu hitz bakar batekin: *harriabar* (*arriabar*). Lehen ere aztertu da, baina, oraingoan, Azkuek *hrik* gabe, bizkaieraz, gipuzkeraz

⁴² (<https://dictionnaire.lerobert.com/>)

eta goi- nafarreraz erabiltzen dela dio, eta harekin, lapurteraz; “granizo perjudicial” baino ez du adierazten.

4.5.7.4. Jarduera

Txingorrari loturiko ekintzak				
Babazuza egin / bota / izan	Ostarri egin	Txingorra egin / bota / izan / jausi	Txingorrek eraso	Txintxerkoila egin
Babazuza egin / bota / izan	Ostarri egin	Txingorra egin / bota / izan / jausi	Txingorrek eraso	Txintxerkol egin
Txingor ale handiari loturiko ekintza				
Harria (arria) sendo egin				
Zirzikora (zizerkora) erauntsia ari				
120. taula. Txingorra: Jarduera				

120. taula honetan laugarren nozio etnosemantikoaren berri ematen da: jarduera; bi kategoriaz edo ekintza motaz osaturik dago: Txingorrari lotutakoak eta Txingor ale handiari buruzkoak.

Lehenengoari gagozkiolarik, ziurrenik askoz ere gehiago izango dira, baina ikerlan honetarako honako aditz-lokuzio hauek bildu dira: *babazuza egin / bota / izan*, *ostarri egin*, *txingorra egin / bota / izan / jausi*, *txingorrek eraso* eta *txintxerkol egin*. Erraz suma daitekeenez gero, *egin*, *bota* eta *izan* aditzak nabarmentzen dira, beste eremu etnometeorologikoetan bezala; adibidez, *euria egin*, *bota* edo *izan*.

Babazuza egin / bota / izan aditz-lokuzioak Labayru Hiztegiak dakar, beste inongo markarik gabe (Labayru Hiztegia). Ulertzekoa da bizkaieraz erabiltzen dela. Hau da dakarren esaldia: “Gure piperrenak egin du, *babazuza egiten* segitzen badu luzarotan”.

Ostarri egin aditz-lokuzioa Nafarroako Erronkari haranean erabiltzen zen, antza (Estornes, 1997); gorago azaldu da *ostarri* elearen ingurukoa.

Aditz gehien jasotzen duen izena *txingorra* da: *txingorra egin / bota / izan / jausi* bizkaieraz ere erabiltzen dira nonbait; adibidez, *jausi* aditzarekin (Mokoroa 1991): “*Txingorra jausten* izan da”; *egin*, *bota* eta *jausi* aditzekin. Honako hauek dira hiztegian: “Bart *txingorra bota* dau zenbat-gural!; “Ene, *txingorra da* eta!, aurtengo lako udarik ez dot nik ezagutu” (Labayru Hiztegia).

Txingorrek eraso Gipuzkoako Getaria herrian entzuten bide da: “*Txingorrek eraso* eta arto danak zipiztuta laga zitun” (Mokoroa, 1991).

Txintxerkoila egin (*txintxerkol egin*) ere Erronkarin bildua da (Estornes, 1997); goragoa ere azaldu izan da *txintxerkol* terminoari buruzkoa.

Bigarren kategoriari buruz, Txingor ale handiari loturiko ekintza, honako bi aditz-lokuzio bilduak dira: *harria sendo egin* eta *zirzikora (zizerkora) erauntsia ari*.

Harria (arria) sendo egin Mokoroak ere ematen du berri eta emandako adibidearen arabera, antza denez, bizkaieraz erabiltzen da: “*Arria sendo egin dau emen, lengo domekan*” (Mokora, 1990). *Sendo* aditzondoa ez da arrotza izaten lexiko etnometeorologikoan; izan ere, *euria sendo* eta antzekoak arruntak dira.

4.5.7.5. Denbora

Garaia
Harritea
Harrite
121. taula. Txingorra: Denbora

Eremu honi amaiera emateko seigarren taula dugu, Denbora nozio etnosemantikoari dagokiona. Kategoria bakarra bildua da: Harritea. Berarekin batera, *harrite* ele bakarra (Labayru Hiztegia). Maiz azaldu bezala, *-te* atzizkiak lexiko etnometeorologikoan eskuarki bi adiera ematen ditu: bata, garaia adierazteko, eta bestea, ugaritasuna. Kasu honetan “harriaren garaia” ematen du aditzera.

4.5.7.6. Ondorioak

Eremu guztia osorik aztertutik, ondorio orokorren berri emango da jarraian. Hasteko, adierazi behar da nozio orokor edo etnosemantiko guztiak azaltzen direla, espazioa izan ezik. Esan bezala, adimen-begiak ez du beharrezkotzat jo txingorra eta espazioa uztartzea. Gehientsuenetan bezala, izakiak nozio orokorrak biltzen ditu bere baitan kategoria gehien: haien artean adimen-begiak Izendapen kategorian ezin konta ahal nozio espezifikoko eman ditu argitara. Ezagun da norainoko ostagi ikusgarria den txingorra: horretaz baliatuta, adimen-begiak hizkera guztietan izendapen ugari hornitu ditu: franko gailur litezke, baina baten bat aipatzekotan, *ahuntz-hiltzaile*, *babazizkor* eta *harriabar*. Kalitate nozio orokorreko Txingor ale handia eta ugaria eta Txingor ale txikia kategorietan ere badira nozio espezifikoko asko; aipatzekoak dira *babazuza* eta *zirzikora*.

Adimen-begiak txingorraren inguruko lexiko-eraikuntza jasotzeko, hain ostagi ikusgarri eta harrigarria izanda, irudimena abiada bizian jarri du: orotariko baliabideak azaleratu ditu: hitz-elkarketak, hitz soilak, maileguak, onomatopeiak hitz eratorriak eta jarduera nozio orokorraren aldetik, aditz-lokuzioak era badira.

Xehatu eta aletutako hitz-elkarketa guztiak ondoriobide, zenbait berba gailentzen dira: *baba*, *harri*, eta *kazkara*. Horiek osagai, ondoko hauek nabarmentzen dira: *babazuza* eta *aldaerak*, *harriabar* eta *aldaerak* eta *kazkarabar* eta *aldaerak*. Nolanahi ere, hitz-elkarketa antropologiko bat azpimarratuko da: *ahuntz-hiltzaile*. Horrek ematen du aditzera, txingor berezi bat jausiz gero, ahuntzak ere hil litezkeela. Horretarako baldintza bakarra egon behar da: hizkera hori erabiltzen den eremuan ahuntzak bizitzea, animalia horiek gogor eta indartsu samarrak baitira. Garbi dago nola eragiten dion kulturak lexikoaren sorkuntzari. Hitz soilei dagokienez, esan behar da ez direla ugari; izakiak, kantitate eta kalitate nozio orokorretan zenbait aipatuko dira: *besteak beste*, *kazkarra*, *kixkora*, *txingor*, *zizkor*, *ageta*, *harri* eta *mukuts*. Maileguez bezainbatean, *besteak beste*, hitz soilei dagokienez, bakarra dago: *grezilla*. Hala ere, *baba*- elea hitz-elkarketa batzuen lehenengo osagaia izanda, mailegu zaharra ere bada, eta zer esanik ez, *piperkoila* hitz-elkarketa. Onomatopeiak ere azpimarratzeko modukoak dira, txingorrek objektu eta gauzeekin jotzean astrapala galanta ateratzen du eta: batetik, hotsa handia adierazteko hiru onomatopeia gailurtzen dira: *kiski-kaska*, *tirrizka* eta *zirt-zart*. Ohart bedi hots-sinbolismoa hizpide, euskarak erabili ohi duen bokal osaketa: *-i-* / *-a-*; bestalde, *i* bokalaren nagusitasuna. Beste aldetik, zenbait hitz-elkarketatan zaratari loturiko berbak azaltzen dira: *hots*, *orro*, *arroitu*, *soinu* eta *zurru*. Euskal hiztunaren adimen-begiak, ezinbestez, erreparatzen dio txingorrek ateratzen duen hotsari, termino batzuetan bere esperientzia islatuz. Hitz eratorrien aldetik, corpusean atzizki bakarra aurkitu da, *-te*, kantitatea zein denbora adierazteko: *harrite*. Jarduera nozio orokorrean ez dago aditzik, baina bai aditz-lokuzioak: *bota* eta *egin* aditzak nagusi dira, gehienbat.

Horrenbestez, azterketan ezin argiago sumatu denez, txingorren gaineko lexikoa biziki motibatua da, eta ikonotasun kutsu bat ere badauka onomatopeien bitartez. Euskal hiztunaren adimen-begiak eremu honen jiran arrunt eraketa irmo eta sendoa osatu du esperientzian tinkotutako uneez baliaturik. Kulturaren sostenguak eskuratu dizkio behar adinako baliabideak lexiko adierazgarria eraikitzeko.

5. Ondorio orokorrak

Hasteko azpimarratu behar da oso egokia dela euskal lexiko etnometeorologikoa aztertzeko aukeratu den marko teorikoa, gehienbat, etnolinguistikan eta antropologia linguistikotan funtsatua. Azterlan osoan barrena sumatu denez, bi norabide berezi behar dira: sailkabidea eta azterbidea; batetik, nozio orokorrak eta espezifikoak sailkatzeko bidea, eta, bestetik, nozio horiek guztiak aztertzeko bide etnolinguistiko eta antropologikoa: hitzen jatorria, kategoriak, kontzeptu etnosemantikoak, adimen-begia, hiztun-komunitatearen kultur erreferentziak, lexikoaren arbitrariotasun eta ikonotasuna, azken batean, kulturaren eragina lexikoan. Frogaturik utzi da ez dagoela metodo etnolinguistikoa baino hoberik hizkuntza baten lexikoa aztertzeko: horrelaxe eman da aditzera behin eta berriz ikerlan osoan zehar. Ez dago ukatzerik kulturaren eragina ezin garbiago islatzen dela lexikoan. Lexikoa da hizkuntzaren barnean kulturaren isla eta eragina ongien eta artezen hautematen den eremua. Ziurrenik egongo da ikerlaririk esango duena hutsune batzuk dauzkala, eta oraindik guztiz azterturik ez dagoela: arrazoa eman beharko zaio, zuzen egongo da, nonbait. Hala eta guztiz ere, azterbide honek bidea urra dezake hurrengo batean ikerlariren batek hutsune horiek bete eta azterketa osatuagoa egin dezan.

5.1. Ondorio nozionalak

Lexiko etnometeorologikoaren eremu guztiek nozio espezifiko ugari daukate. Aztertutako eremuak aintzat harturik —batzuk bazter utzi dira—, hitz kopuru hauek erabili izan dira, zenbait aldaera eta guzti:

- Ostagiak
 - Ostadarra: 131 hitz.
 - Ekaitza: 494 hitz.
 - Haizeak: 935 hitz.
 - Hodeiak: 392 hitz.

Guztira: 1952 nozio espezifiko.


- Ur-meteoroak
 - Elurra: 475 hitz.
 - Euria: 1104 hitz.
 - Hezetasuna: 11 hitz.
 - Ihintza: 65 hitz.
 - Izotza: 325 hitz.
 - Lainoa, lanbroa eta gandua: 199 hitz.

- Txingorra: 188 hitz.


Guztira: 2367 nozio espezifikiko.

Ostagi guztiak baturik, 4319 hitz hartu dira aintzat azterketa egitean. Horrek ez du esan nahi guzti-guztiak azterturik daudenik, aldaerak ere badirelako, baina, bai, kontuan hartu direla. Une honetan datutegiak 6012 erregistro dauzka; beraz, corpusaren %72 erabili da azterlan hau aurrera eramateko. Nabari da euri eremuak dauzkala hitz gehien, aztertukoaren %25,5 eta gero haizeen eremuak, %21,6; beraz, bien artean %47,1; eremu txikiena, aldiz, hezetasuna, 11 nozio espezifikiko baino ez. Ezagun da euskal hiztunaren adimen-begiak zeri erreparatu izan dion gehienbat mendeak joan, mendeak etorri.

Ostagietan nozio orokor ugariena izakiak da, oro har, eta bakanena kantitatea. Izakien nozioaren barruan izendapenak daudenez, ulertzekoa da oparoena izatea. Hala ere, salbuespenak badira; adibidez, haizeen eremuan espazio nozioa da nagusi, nondik jotzen duten haizeek gailurtzen baita euskal hiztunaren adimen-begiaren arabera.



3. irudia: nozio espezifikoen banaketa ostagietan.



4. irudia: eremuen nozio espezifikoak ehunekoetan.



5. irudia: nozio orokorren banaketa ostagietan.

5.2. Ondorio etnolinguistikoak

Egindako azterketan suma daitekeenez, eguraldiari lotutako lexikoa oso oparoa da; izan ere, ezin konta ahal ñabardura dauzkate eremu guztiek, eta garbi asko igartzen da lexikoa ingurumenaren arabera eratu izan dela. Euskal Herria hain lurralde txikia izanda, ostagi orori erantzuten dio batutako lexikoak.

Etnolinguistikaren ikuspegitik, hizkuntza-komunitate baten esperientzia irudi eta metaforetan metatzea bezala da lexikoa, memoria kolektiboa antolatzeko lehenengo modua bezala. Hizkuntzaren atal garrantzitsua izanda, behin balioak errotu eta zentzua eraturik, kulturaren lehenengo geruzetariko bat osatzen du; munduaren ikuskera eta kosmosa estaltzen dituen giza esanahia eratzeko lehendabiziko pausoetariko bat da. Badirudi anabasa, kaos moduko zerbait izango balitz bezala azaltzen dela, loka eta uztargabea, modu zatikatuan; baina ikuspegi orokorra edukita, ez da inondik inora horretarikoa; argi eta garbi hautematen da era antolatu eta egituratua duela, zirrikiturik gabea, taxaturik dagoena, eta hizkuntza-komunitateak sortu duen hitz-gordailu bihurturik dagoela, hots, sistema konplexu eta oparoa; prozesu kultural baten ondorioz, hiztunek adimen-begiaren bidez eratu duten irudi multzo egituratua, eguraldiari buruzko lexiko-iruditeria.

Metafora, irudi eta onomatopeia asko azaltzen dira lexikoan; berba ugari oso deskriptiboak dira, oro har, euskararen lexiko gehiena bezala; gainera, motibatua izaten da, eta ez arbitrarioa. Bestalde, ikonotasuna nagusi da; izan ere, ikonotasun terminoa erabili ohi da ez-arbitrariotasunaz aritzeko. Euskal hiztunaren adimen-begia aurrean izan dituen fenomenoak izendatzeko dagoeneko beste eremu batzuetan erabiltzen ziren beste hitz batzuez baliatu izan da. Gainera, makina bat hitz-elkarketa eraiki izan du adimen-begiak; oro har, lehenengo osagaia eguraldiari lotutakoa, eta bigarrena beste eremu batetik hartutakoa. Adibidez, *elur-maluta* hitz-elkarketan, lehenengo osagaia *elur* bera da, baina bigarrena adimen-begiak eguneroko errealitate eta esperientziatik erauzitako berba da. Horrela, metaforen bitartez, adimen-begiak termino deskriptibo, metaforiko, ez-arbitrario eta ikonikoak sorrarazi izan ditu eguraldiaren eremu guztietan.

Azterlana eginda, uler daiteke nolako eraikuntza semantikoa eraman duen aurrera euskal hiztunaren adimen-begiak. Lexiko osoaren eremu hau azterturik, euskal hiztunak kulturaren eta lexikoaren artean eraiki duen zubia sumatzen da. Euskararen gramatikaz baliatu gabe, Sapir-Whorfen erlatibismo linguistikoaz bestera, hizkuntzak ez ditu errealitatea eta pentsaera baldintzatzen, baizik eta errealitateak berak baldintzatzen du hizkuntza-komunitate baten hizkuntza. Adimen-begiak inguruko berbak erauzi eta erabili egiten ditu bere nahieran,

hautematen dituen gabezia semantikoak betetzeko. Ez dauka zalantzarik edonolako terminoa sorrarazteko; jabekuntza horrek, nolabait, giza talde baten mundu-ikuskeraz jabetzeko balio du, eta azaleratzen du adimen-begiak zer-nolako unibertso sinbolikoa eraiki duen. Ziurrenik oso prozesu azkar eta metodikoa izan da mendeak joan, mendeak etorri. Baina, hitz-elkarketa edo termino bat gailentzeko hizkuntza-komunitateak onetsi beharko zuen, aurrera joango bazen. Ziurrenik iragazki ugari pasako beharko zituen termino batek komunitateak ohiko lexikoan oniritzi bitartean. Hainbat hitz-gai galduko ziren bidean. Hori dela-eta zeharo aproposa da zer dioen Rodríguez Adradosen:

En principio, cualquier hablante está autorizado, dentro de límites difíciles de definir, a ampliar la esfera de uso de una palabra: luego, esta ampliación se abrirá paso y afectará a la totalidad o no. Pero también en este caso esta posibilidad tiene un carácter inmenso: gracias a ella, la lengua, que es algo mostrenco y comunitario, heredado de múltiples generaciones, puede hacerse un instrumento vivo que se pliega a las necesidades del hombre individual. (Rodríguez Adrados, 1974)

Euskal hiztunaren adimen-begiak, ziur asko, bere ingurura so egin eta bertan aurkituko zituen lexiko-hutsuneak eraiki eta asetzeko baliabideak.

Lehenik, gorputzari behatuko zion, eta lexiko-sortzaile iturri agortezina dela ohartuko zen: besteak beste, *argi-begi* (egunsentia); *eki-begi* (toki eguzkitsua); *haizebegi* (haizeak jotzen duen tokia); *laino buruhandi* (hodeitzarra); *trumoi-buru* (hodei trumoitsuak); *laino-hanka* (hodeitzarra); *hanka mehe* (euri xehea) eta *oilanka* (zaldizkoak).

Bigarrenik, hiztunak erabiltzen zituen objektuak, arropa edo tresnak ere bihurtuko ziren lexikoa eratzekeo tresnetariko bat; adibidez, *euri-zirtzila* (euri xehea); *laban* (euria adierazten duten hodeiak); *izotz-burruntzia*; *izotz-kandela*; *harriabar* (txingorra); *haize-beroki* (haize-babesa); *elur-mataza* (elur-maluta handia); *karroin-ziri* (izotz-burruntzia); *lantzeta* (izotz-burruntzia); *zirimiri* (euri xehea) eta *narria* (euri xehea).

Hirugarrenik, nahiz harrigarri samarra izan, janaria bera izan daiteke baliagarria lexikoa garatzeko; adibidez, *elur-bikor* (elur-maluta); *izotz-ziztor* (izotz-burruntzia); *elur-lapats* (elur xehea); *elur-salda* (elur zapaldua); *elur-telada* (elur-geruza mehea); *elur-zopak* (elur-maluta handiak) eta *kaskaragar* (kazkabarra).

Laugarrenik, naturari emanda bizi izan den komunitate batean ezinbestekoa izan da animaliez baliatzea lexikoa sorrarazteko.

- Ostadarraren eremuan: *oilo-hanka* (ostadarra).
- Haizeen eremuan: *ahuntz-haizea* (ipar-ekialdeko haizea); *ahari-buruak* (hodeitzarrak); *atun-haize* (mendebaldeko haizea); *behor-biltzaile* eta *karakol-haize* (haize-zirimola) eta *arraza-zakur* (ekialdeko haizea).

- Hodeien eremuan: *zaldi gaineko* (euria dakarten hodeiak); *balen-hodei* (estratua) eta *ipar-zeroi* (zirruak).
- Elurraren eremuan: *oilo-luma* (elur-maluta) eta *kuku-elur* (udaberriko elurra).
- Euria: *aixaixak* (azeriak) *bustitzeko euria* (euri xehea); *asto-karrerak* (euria-barra barra); *azeri-ezkontza* (eguzkia eta euria aldi berean); *atun-adur* (euri xehe-xehea). *(e)uli-pixa* (euri xehea); *kuku-izerdia* (euri xehea); *zaldizkoak* (euri-zutabeak) eta *zozomikoteak* (martxoaren azken eta apirilaren lehenengo egun euritsuak).
- Txingorraren eremuan: *ahuntz-hiltzaile* (txingorra).
- Tesi honetan azterturik ez badago ere, eguraldiari dagozkion bi termino: *marmoka* (bero larria) eta *eguraldi zakurra* (eguraldi kaxkarra).

Bosgarrenik, mitologiak ere badu zeresanik eguraldiaren inguruko lexikoan. Nahiz eremu guztietan berbak egon ez, badira hitzak antzinako euskal gizakiaren pentsamolde mitologikoaren berri ematen dutenak:

- Ostadarraren eremuan. Nahiz zalantzazkoak izan, *ortzi* hainbat hitz-elkarketatan azaltzen da; adibidez, *ostadar*.
- Ekaitzaren eremuan. *Ortziri* lotutako guztiak sar daitezke multzo honetan; dela jainkoa, dela zerua, dela lurgainetik dagoen guztia, hainbeste hitz-elkarketa daukanez, ez da baztertzekoa; *oinaztarri* eta *oinusturi*, *aire gaizto* terminoak “tximista” adierazteko.
- Haizeen eremuan. *Ortzirekin* zerikusia ere azaltzen dira; adibidez, *ostaize*; haize-zurrunbiloari irizteko badira hitz batzuk izaera mitologikoa dutenak: *akelarre*, *bahomet*, *deabruaren lana*, *iratxo haize*, *kaskarot*, *mahoma*, *mahomet*, *mari txiker*, *satarra*, *sorgin-haize* eta *trabonarro*; *behor-haizeak* “ipar-haizea” izendatzeko izan lezake kutsu mitologikoa ere; beldur-haize eta haize-bihur hitz-elkarketek zama mitologikoa daukaten beren barnean: “haize-bolada latza” ematen dute aditzera; *traganarru* hitzak “ur-zirimola” izendatzeko badauka izaera mitologikoa ere.
- Euriaren eremuan. Euriak eta eguzkiak topo egiten dutenean, *deabru* elea erabiltzen da zenbait hitz-elkarketatan; adibidez, *deabruaren ezkontza*; *ortzi* berriz ere azaltzen da batzuetan: *ostebi*, *osteleuri*.
- Hodeien eremuan. *Eatek* konnotazio mitologikoa dauka; izan ere, haranez haran eta mendiz mendi trumoi-hodeiak zuzentzen dituen jainua da; *ortzi* osagaia ere agertzen da zenbait hitz-elkarketatan; adibidez, *justulodei* edo *hodei-laino*; *amilana* berbak

Anboto gaineko lainoa esan nahi duenean kutsu mitologikoa ere badauka; *Aidekok* lainoaren itxura ere har dezake.

- Txingorraren eremuan. *Marik* bidal diezagukeen zigorrik handienetariko bat txingor-ekaitza da.

Seigarrenik, nola ez, mitologiarekin zerikusia duten berbak ez ezik, erlijio kristauari loturikoak ere badira:

- Ostadarraren eremuan: *erromako zubi*, *Jaungoikoaren baranda / faxa* eta *gerriko*, *San Migelen*, *San Nikolasen* eta *zeruko zubi*.
- Ekaitzaren eremuan: *jainkoaren argi* (tximistargi).
- Haizeen eremuan: *aste santu haize* (ekialdeko haizea); *garizuma-haize* (ekialdeko haizea) eta *san migel haize* (ekialdeko haizea).

Azkenik, ez dago esan beharrik munduko hizkuntza guztien hiztegiaren atal txiki bat onomatopeiaz osatuta dagoela; adimen begiak ugari ere erabiltzen ditu; adibidez, *dart* (trumoiaren azantza); *kiski-kaska* (txingorraren onomatopeia); *mara-mara* (elur ugari egitea); *barra-barra* (euri-ugari egitea); *piri-piri* (elurraren onomatopeia); *zirt-zart* (txingorraren onomatopeia); *zik-zak* (tximistaren onomatopeia): *pil-pil* eta *firin-faran* (haizearen onomatopeiak); *zara-zara* (euriaren onomatopeia); *zir-zir* (euriaren hotsa) eta *zapar* (euriaren onomatopeia).

Aztertutako termino guztien artean, euskal hiztunaren adimen-begiak lilura berezia dio izotz-burruntziari, berak baitauzka bere baitan irudi gehien (§4.5.5).

Hiztunen adimen-begiak hainbat hitz euskalki guztietan sortu izan baditu ere, adieretan nolabaiteko batasuna sumatzen da. Euskararen hizkeren eremuan gertatzen diren eguraldi-egoerei, oro har, erantzuten die lexikoak. Hala eta guztiz ere, orografiak garrantzi handia du, eta hizkera bakoitzak bere eguraldi-errealitatea islatzen du; ez da gauza bera itsasertzeko hizkerek darabilten lexikoa, edo barrualdeko, edo Pirinio aldekoek. Zentzuzkoa denez, Bizkaiko kostaldeko hizkeretan askoz berba gutxiago erabiltzen dira elur edo izotzari lotutakoak, Pirinio aldekoetan baino. Hala ere, bietan oso bereizketa semantiko zehatzak egiten dira; adibidez, Gernikan oso elur-maluta xehea (*edur txingo*) eta elur-pikorra (*txinbo*) bereizten dituzte, eta Nafarroako Uztarroze herrian –bertako erronkaria euskalkia galduta–, elur-pikorra (*pirrina*) eta elur-maluta txikia (*txaparrada*) bereizten zituzten. Zenbaitetan herri berean bizpahiru aldaera aurkitu dira ostagi berari irizteko. Esaterako, kostaldetik hurbil dagoen Leioa herrian hiru izendapen erabiltzen dituzte elur-maluta esateko: *alpar*, *edur kopo* eta *mataza*. Beste batzuetan, elkarretatik urrun samar bi herritan izendapen bera erabiltzen da; adibidez,

haizeen eremuan, *beheko haize* (hego-haizea) erabiltzen da Bizkaiko Zollo herrian –hizkeretan mendebalderen dagoena–, eta Nafarroako Behereko Bidarra herrian; baina Bizkaiko kostaldeko zenbait herritan –Bermeo, Elantxobe, Mundaka– ipar-mendebal edo mendebala da beheko haize.

Lexikoak klima nola bilakatu den islatu ohi du; izan ere, hitz berri batzuk sortzen dira edo zaharrak erabiltzeari uzten zaio, nahiz batzuetan gelditzen diren hiztunen hitz-gordailuan. Hizkera eta herrietako terminoak azterturik, adimen-begia nola joan den egokituz eguraldi-egoera batzuetara ondoriozta daiteke. Oso azpimarragarria da adieraztea hizkera guztietan, kostaldean zein barrualdean, azaltzen direla hitzak edo hitz-elkarketak “elur-jausia” edo “elurak behera egitea” izendatzeko. Adibide guztiak *EHH*Atik aterata daude; adibidez, Bizkaian, Bakion, *edurgolpe*; Larrabetzun, *edurnarkada*; Gipuzkoan, Donostian, *elurpilla*; Oñatin, *edurnarra*; Zestoan *elur-jausi*; Araban, Aramaion, *edurlaprastara*; Nafarroan, Erratzun, *elurmendi*; Urdiainen, *korrituba*; Lapurdin, Arrangoitzen, *elur lehertze*; Ainhoan, *elur lauso*; Nafarroa Beherean, Bidarrain, *litatu*; Ezterenzubin, *eluso*; Zuberoan, Larrainen, *elhürlürta*; Zalgizen, *elhur-oso*. Hiztunen adimen-begiak ikusten zuen zer gertatzen zen “elurak behera egiten zuenean”, eta erabaki zuen hainbat eratarata adieraztea tokian tokiko. Hori dela-eta, ez da harrigarria pentsatzea antzina klima latzagoa zela oraingoa baino, kontuan harturik kostaldeko herriek “elur-jausia” adierazteko oraindik berbak gordetzen dituztela. Beste zenbait adibide ipin litezke izotz edo elur eremuetara joko balitz.

Eremu lexiko bateko ustezko hutsuneak betetzen dira beste hizkuntza edo hizkera batzuei maileguak hartuz, hiztunen esperientziaren alorra zabalduz doan heinean, edota dauzkaten hitzen esanahia hedatuz, edo analogiaren bitartez berezko baliabide linguistikoak lagun, hitz berriak sortuz. Termino guztien jatorriari dagokionez, nabarmentzekoa da maileguak ugari direla, baina, salbuespenak salbuespen, ez ohi dute hutsune lexikorik betetzen; maiz elkarrekin bizi dira ondarezko hitza eta mailegua; adibidez “euri-zaparrada” adierazteko zenbatgura berba eta hitz-elkarketa dira, ondarezkoak nahiz maileguak; adibidez, maileguen artean, *aguaxer*, *elementu* edo *manga*, eta ondarezkoan artean, *euri-jasa*, *eramaitu* edo *zaparrada*. Zer esanik ez, haizeen eremua hizpide, maileguen eta ondarezko berben arteko elkarbizitza erabatekoa da; esaterako Bizkaiko kostaldeko herrietan arrantzaleek hainbat mailegu ekarri izan dituzte beste leku batzuetako arrantzaleen ahotik; *suroesteko aixie* maileguaz baliatzen dira, baina *beko aixie* ere erabiltzen dute bertako hiztunek. Nahiz eta funtsean haize mota bera adierazi nahi duten, baliteke mailegua itsasoan erabiltzea eta ondarezkoa lehorrean, ikuspegia desberdina baita. Aipatu bezala, maileguk hutsunek lexikorik bete ohi ez badute ere, zenbaitetan, bai; esaterako kostaldean geratu ohi den haizete fenomeno ikusgarria izendatzeko,

maileguez baliatzen da euskal hiztuna: *bullarta*, *enbat*, *galerna* edo *galarren*, eta *zoperna*. Ondarezko hitzen aztarnarik ez bide dago; beraz, ziurrenik, mailegu horiek zahar askoak dira, edo euskal hiztunaren adimen-begiak uste izan du kontzeptu hori behar bezala izendaturik zegoela. Ez dago ukatzerik hizkuntzak harremanetan egotea berrikuntza eta aldaketa linguistiko anitzen eragile dela. Eskuarki eremu etnometeorologikoko mailegu gehienek “natibizazio” prozesu bat jasan dute: maila fonologikoan hotsak ahoskatzeko moduko bihurtzen dira, hots, hurbiltze fonologiko bat gertatzen da. Beraz, ez dira gutxi eremu honetako maileguak: eremu semantiko jakin batzuetan ugari egoteak darama pentsatzera kultur hedatze zehatz batekin batera iritsi direla maileguak.

Beste zenbaitetan berba batek hainbat adiera ditu hizkeren arabera: polisemia ez da arrotza eremu etnometeorologikoan. Horrela adierazi izan da zenbait aldiz tesian zehar. Adibide bat ipintzearen, berriki aipatutako *enbat* berba tokian tokiko esanahiak dauzka. Historian enbat asko ikaragarriak eta hilgarriak izan badira ere —1912ko zorigaiztoko enbatan, Bermeo aldean, 143 lagun hil ziren—, adimen-begiaren sotiltasuna aldatuz doa herritik herrira; adibidez, Gipuzkoako Zumaia herrian “bero ikaragarriaren ondoko haize leuna da”, Bizkaiko Txoriherri haranean, “laino iluna”, baina, beste herri askotan “itsasotiko ekaitza” da. Nork bere erara hautematen du fenomeno bertsua. Hala eta guztiz ere, gure ikuspegi etnolinguistikoaren arabera, hitzak ez dira guztiz polisemikoak edo monosemikoak; ez dira izate esanahi askotarikoak edo bakarrekoak, baizik eta zein den testuingurua halako esangurak dauzkate. Hori dela-eta, hiztun batek hitz bat testuinguru berri batean erabiltzen duenean, gehienetan metaforikoki, arrakasta lortuko du edo ez: lortuz gero, hitz horren eremu lexikoa zabalduko da. Printzipioz, edozein hiztunek du “baimena” hitz baten erabilera zabaltzeko, zehazteko gaitza diren mugen barruan: geroago adiera hedatze hori bidea urratu eta osotasunari eragingo dio edo ez. Hala ere, horrela izanda ere, aukera horrek sekulako interesa du: berari esker, hizkuntza tresna ezin egokiago bihur daiteke, mendeak joan, mendeak etorri belaunaldi askoren herentzia, gizakiaren beharretara moldatua.

Azaldu beharreko beste fenomeno etnolinguistiko interesgarri bat “holofrasia” da, termino bakar baten bidez, ideia konplexu bat adierazteko hizkuntza baten joera. Irudi du hizkuntza bat holofrastikoa izan daitekeela beste baten ikuspuntutik. Aztertu beharreko kontua izan behar luke, baina nekez har liteke holofrasia antzinako hizkuntzen oinarrizko ezaugarritzat. Eremu etnometeorologikoan konplexu samartzat har litezkeen gertakari batzuk adierazten dira hitz bakar tarteko; adibidez, *afrontu* maileguak aldi berean euria eta haizea adierazten du; gainera, natibizazio prozesua jasanda, egokitu da sistema fonologikora; *kalotx* eleak ematen du aditzera oinetakoari itsatsi zaion elurra; *kaiman* hodei motak esan nahi du ipar mendebaldetik

iparrera joaten diren hodeiak, itsaso zakarra iragarri eta udazken aldean agertzen direnak; *bagurrin* hitz-elkarketak oroitarazten du *cierzo* moduko haizea, pago-usaina esan nahi du, ipar-haizeak eramaten duen urrina; eultzietan erabiltzen zen, haizatzen zen bakoitzean. Horrelako berba askoren berri eman liteke, bere barnean kontzeptu konplexu samarra daukatena.

Beraz, eguraldiaren gaineko eremu guztiak azterturik, ez dago ukatzerik euskal hiztunaren adimen-begiak oso egitura lexiko sendo eta ahalmentsua eratu duela. Era askotariko klima-egoerei egiten die aurre lexikoak. Oso sare egituratu eta antolatua sorrarazi du; ñabardurak eta xehetasunak ugari dira, kultura eta bizimodua bilakatu diren heinean, egokituz joan direnak, nahiz eta, egia esan, hitz eta esapide batzuk galdu diren. Euskal hiztunaren adimen-begiak esperientzia bideratzen du, natura eta erreferentea; esanahi bati adierazlea ematen dio. Zentzuzkoa da adieraztea nolabaiteko natura eraldatze honen ondorioz, kultur prozesu bati esleia dakiokeela: ezin uka daiteke euskal hiztunaren adimen-begiak lexiko-zutabe gotor eta sendo askoa eraiki duela.

Bibliografia

- AEK (1988): *Euskalduntzerako helburu orokor eta zehaztuak*. Bilbo, Bizkaiko AEK. 2 argitalpena.
- Agud, M. & Tovar, A. (1989-1995): *Materiales para un Diccionario Etimológico de la Lengua Vasca I-VII. ASJU I-XXI*.
- Akesolo, L., De la Sota, M., Lafitte, P. (1991): *Diccionario Retana de Autoridades de la Lengua Vasca*. Bilbo, La Gran Enciclopedia Vasca (DRALV). 9 lib.
- Arana, A. (2001): *Zaraitzuko hiztegia*. Iruñea, Nafarroako Gobernua.
- Aurrekoetxea, G. (2000): “Haizeen izendapenak ahozko hizkeran”. *Txillardegi lagun giroan*. In T. Ormaetxea, G. Aurrekoetxea, P. Salaberri., P. Etxebarria (arg.). Bilbo. UEU, 93-115.
- Azkue, R. M. (1905-1906/1969): *Diccionario vasco-español-francés* (DVEF). Bilbo, La Gran Enciclopedia Vasca.
- Azkue, R. M. (1935-1947/1989): *Euskalerrriaren Yakintza*. 3. arg. Madril / Bilbo, Euskaltzaindia & Espasa Calpe.
- Azkue, R. M. (1923-1925/1969): *Morfología Vasca*. Bilbo, La Gran Enciclopedia Vasca.
- Azpeitia, A. (2003): *Zestoako hizkera*. Zestoa, Zestoako udala.
- Ballarín, A. (1978): *Diccionario del Bidasoa*. Zaragoza, Institución Fernando El Católico.
- Baráibar, F. (1903): *Vocabulario de palabras usadas en Álava*. Madril, Establecimiento tipográfico de Jaime Ratés.
- Barandiaran, J. M. (1972): *Diccionario ilustrado de mitología vasca*. Obras completas. Bilbo, La Gran Enciclopedia Vasca.
- Barandiaran, J. M. (1973): *Eusko folklore*. Obras completas II. Bilbo, La Gran Enciclopedia Vasca.
- Barandiaran, J. M. (1983): *Mitología vasca*. Donostia, Txertoa.
- Barandiaran, J. M. (1983b): “Hitz batzuek eta beren esan-nahiak, gehienak Ataunen erabiltzen ditugunak eta hiztegietan, batez ere Azkuenean, ageri ez diranak”. *IKER* 2, 189-204.
- Barandiaran, J. M. (1997). *Mitología del Pueblo Vasco*. Donostia, Ostoa.
- Bähr, G. (1931): “El arco iris y la vía láctea: (vocablos, etimologías y difusión, creencias populares)”. *RIEV* 22, 397-414.
- Bähr, G. (1931): “Alrededor de la mitología vasca”. *RIEV* 22, 119-122.
- Bally, C. (1952): *Le langage et la vie*. 3. arg. Ginebra, Droz.
- Barrutia, E. (2000): *Bizkaiko arrantzaleen hiztegia*. Bilbo, Labayru.
- Bera, P. & Lopez Mendizabal, I. (1948): *Diccionario Vasco-Castellano*. 3. argitalpena. Zarautz, Itxaropena.

- Berlin, B., Kay, P. (1969): *Basic Color Terms: Their Universality and Evolution*. Berkeley, University of California Press.
- Berlin, B., Breedlove, D., Raven, P. (1973): "General Principles of Classification and Nomenclature in Folk Biology". *American Anthropologist* 75 (1), new series, 214-242.
- Berlin, B. (1995): "Evidence for pervasive synesthetic sound symbolism in ethnozoological nomenclature". In L. Hinton, J. Nichols, & J. Ohala (arg.), *Sound Symbolism*. Cambridge University Press, 76-93.
- Berlin, B. (2006): "The First Congress of Ethnozoological Nomenclature. Ethnobiology and the Science of Humankind". *Journal of the Royal Anthropological Institute* 12, 23-44.
- Bigot, M. (2010): *Apuntes de Lingüística antropológica*. Facultad de Humanidades y Artes Universidad Nacional de Rosario. [<http://hdl.handle.net/2133/1367>. 2016-05-25ean kontsultatua].
- Boas, F. (1966): *Introduction to Handbook of American Indian Languages*. Lincoln, University of Nebraska Press.
- Bonaparte L. L. (1912): "Mots signifiant tonnerre". *RIEV* 6, 415-418.
- Bustintza, E. (1984): *Edo geuk edo inok ez (euskerearen alde)*. A. Arejita & X. Perea (arg.). Bilbo, Labayru.
- Camino, I. (1997): *Aezkoako euskararen azterketa dialektologikoa*. Iruñea, Nafarroako Gobernua.
- Caro Baroja, J. (1984): *Sobre la religión antigua y el calendario del Pueblo Vasco*. Donostia, Txertoa.
- Casenave, J. (1989): *Hiztegia français-eüskara. Züberotar eüskalkitik abiatzez*. Ozaze-Suhare, Hitzak.
- Casado Velarde, M. (1988): *Lenguaje y Cultura. La Etno-lingüística*. Madril, Síntesis.
- Chafe, W. (1990): "Some things that narratives tell us about the mind". In B. K. Britton & A. D. Pellegrini (arg.), "Narrative thought and narrative language", 79-98. Hillsdale, N. J., Lawrence Erlbaum.
- Chassany, J. P. (1989): *Dictionnaire de Météorologie Populaire*. Paris, Maisonneuve & Larousse.
- Cicourel, A. (1973): *Cognitiv Sociology*. Westminster-Harmondsworth, Penguin.
- Conklin, H. C. (1962): "Lexicographical Treatment of Folk Taxonomies". Berrargitaratua (2012) in J. Fishman (arg.), *Readings in the Sociology of Language*. Berlin / Boston, De Gruyter Mouton, 414-433.
- Cook-Gumperz, J. (1986): *The Social Construction of Literacy*. Cambridge University Press.
- Corominas, J. (1961-1987): *Diccionario etimológico abreviado de la lengua castellana*. Madril,

Gredos.

- Coseriu, E. (1981): "La socio- y la etno-lingüística: sus fundamentos y sus tareas". *Anuario de Letras* XIX, 5-30.
- Coseriu, E. (1986): *Introducción a la Lingüística*. Madril, Gredos.
- Dieguez, K. (2002): "Ortziren inguruan". *Uztaro* 40, 3-18.
- Dieguez, K. (2008): "Etnometeorologiari buruzko euskal hiztegia egiteko oinarriak eta osagaiak". *IKER* 19, 281-289.
- Dieguez, K. (2008): *Eguraldia eta kultura euskaldunen artean*. Donostia, Gaiak.
- Dunlop, S. (2015): *Wheather*. London, Collins Nature Guides.
- Duranti, A. (1997/2000): *Antropología Lingüística*. Cambridge University Press.
- Duvoisin, J. (1896): *Dictionnaire basque-français par le Capitaine Duvoisin*. Copie de M. L'abbé Daranatz.
- Egaña, M., Artola K., Arbelaz, J. J. (1983): *Euskal Herriko Atlas Etnolingüistikoa*. EAEL I atala. Aranzadi, Donostia.
- Elxepuru, J. M. (2004): *Bergara aldeko euskara*. Bergara, Bergarako udala.
- Erdozia, J. L. (2007): *Sakanako Hizkeren araberako Idazkera batua*. Lakuntza, Sakanako Mankomunitatea.
- Errekondo, J. (1989): *Landareen Hilabetekaria. Ekaina*. [www.zientzia.net (Elhuyar aldizkaria, 1989-05-01)].
- Estornes, B. (1997): *Erronkariko uskararen hiztegia*. Iruñea, Nafarroako Gobernua.
- Etxeberria, H. (2003): *Eulien bazka*. Donostia, Susa.
- Etxebarria, T. (1965-1966): *Lexicón del euskera dialectal de Eibar*. *Euskera*, X-XI. Bilbo, Euskaltzaindia.
- Euskaltzaindia (2008): *Euskararen Herri Hizkeren Atlas*. I Lexikoa. EHHA. Bilbo.
- Eys, W. J. Van (1873/2018): *Dictionnaire Basque-Français*. Paris, Hachette.
- Fernández González, A.R., Hervás, S., Báez, V. (1989): *Introducción a la Semántica*. Madril, Cátedra.
- Fernández Guizzetti, G. (1957): "La etnolingüística: del mundo del idioma al mundo de la cultura". *Revista de Antropología* 5 (1), 75-93.
- Foley, W. A. (1997): *Anthropological Linguistics*. Oxford, Blackwell.
- Frake, C. O. (1961): "The Diagnosis of Disease among the Subanum of Mindanao". *American Anthropologist* 63, 113-132.
- Frake, C. O. (2012): "The Ethnographic Study of Cognitive Systems". *Readings in the Sociology Of Language*. In Joshua A. Fishman (arg.). Berlin, Boston, De Gruyter Mouton, 2012, 434-446.

- Frake, C. O. (1981): “Palying Frames Can Be Dangerous. Some Reflections on Methodology in Cognitive Anthropology”. In R. W. Casson (arg.), *Language, Culture and Cognition*. New York, Macmillan, 366-377.
- Friedrich, P. (1975): “The Lexical Symbol and Its Non-arbitrariness”, In M. Dale Kinkade. K.L. Hale, O. Werener (arg.), *Linguistics and Anthropology in Honor of C. F. Voegelien*. Lisse, Peter De Ridder Press, 199-247.
- Gaminde, I. (1991): *Abadiñoko lexikoaz*. Bilbo, Bizkaiko Foru Aldundia.
- Gaminde, I. (1997): *Gatikako euskaraz*. Gatika, Gatikako Gogoz Euskara Taldea.
- Gaminde, I. (1999): *Bakio barbarik berba*. Bakio, Bakioko udala.
- Gaminde, I. (2000): *Zamudio barbarik berba*. Bilbo, Labayru ikastegia.
- Gaminde, I. (2001a): *Arrieta barbarik berba*. Arrieta, Arrietako udala.
- Gaminde, I. (2001b): *Leioa barbarik berba*. Leioa, Leioako udala.
- Gaminde, I. (2001c): *Meñaka barbarik berba*. Meñaka, Meñakako udala.
- Gaminde, I. (2001d): *Mungia barbarik berba*. Mungia, Mungiaiko udala.
- Gaminde, I. (2002): *Jatabe barbarik berba*. Jatabe, Jatabeko udala.
- Garate, G. (1998): *27173 Atsotitzak – Refranes – Proverbs – Probervia*. Bilbao, BBK.
- Gardner, H. (1985): *The Mind's New Science: A History of the Cognitive Revolution*. New York, Basic Books. (gaztelaniazko argitalpena: *La nueva ciencia de la mente: historia de la revolución cognitiva*. Bartzelona, Paidós, 1988).
- Garmendia, J., Peña, L. P. (2007): *El mar de los vascos II: Del Golfo de Vizcaya al Mediterráneo. Leyenda, tradiciones y vida*. Donostia, Eusko Ikaskuntza.
- Geckeler, H. (1976): *Semántica estructural y teoría del campo léxico*. Madril, Gredos.
- Germain, C. (1986): *La Semántica Funcional*. Madril, Gredos.
- Geze, I. (1873): *Elements de grammaire basque, dialecte souletin, suivis d'un vocabulaire basque-français et français-basque*. Baiona, Imprimerie de veuve Lamaignère.
- Goffman, E. (1981): *Forms of Talk*. Filadelfia, University of Pennsylvania Press.
- Golluscio, L. (2005): *Etnografía del habla*. Buenos Aires, Eudeba.
- Goodenough, W. (1975): “El concepto de cultura: textos fundamentales”. In J. S. Kahn (arg.), *Cultura, Language y Sociedad*. Anagrama, 157-248.
- Halpin M. M., Seguin M. (1990): “Tsimshian Peoples: Southern Tsimshian, Coast Tsimshian, Nishga, and Gitksan”. *Handbook of North American Indians*. In W. Suttles (arg.), Northwest Coast. Washington, Smithsonian Institution, 267-284.
- Hamill, J., Sidky, H., Subedi, J. (2002): “Birds for Words in Jirel: Structure and Function in Tibeto Burman Folk Taxonomy”. *Anthropological Linguistics* 44 (1), 65-84.

- Hard, R. (2004): *The Routledge Handbook of Greek Mythology based on H. J. Rose's Handbook of Greek Mythology*. London, Routledge (gaztelaniazko argitalpena: *El Gran Libro de la Mitología Griega*. Madril, La Esfera de los Libros. 2008).
- Hartsuaga, J. I. (1987): *Euskal Mitologia konparatua*. Donostia, Kriselu.
- Heath Shirley, B. (1983): *Ways with Words: Language, Life and Work in Communities and Classrooms*. Cambridge University Press.
- Hill, J. (1988): "Language, Culture, and World View". In F. J. Newmwyer (arg.), *Linguistics: The Cambridge Survey, vol. 4, Language: The Socio-Cultural Context*. Cambridge University Press, 14-36.
- Hinton, L., Nichols, J., Ohala, J. (arg.) (1995): *Sound Symbolism*. Cambridge University Press.
- Hjelmslev, L. (1971): *Prolegómenos a una teoría del lenguaje*. Madril, Gredos.
- Hymes, D. (1962): "The Ethnography of Speaking". In T. Gladwin & W.C. Sturtevant (arg.), *Anthropology and Human Behavior*. Anthropological Society of Washington, 13-53.
- Hymes, D. (1964): "A Perspective for Linguistic Anthropology". In S. Tax (arg.), *Horizons Anthropology*. Chicago, Aldine, 92-107.
- Hymes, D. (1971): "Sociolinguistics and the Ethnography of Speaking". In Edwin Ardener (arg.), *Social Anthropology and Language*. Londres, Tavistock Publications, 47-93.
- Hymes, D. (1981): *"In vain I tried to tell you": Essays in Native American Ethnopoetics*. Philadelphia, University of Pennsylvania Press.
- Ibarretxe-Antuñano, I. (2006): *Sound Symbolism and Motion in Basque*. Munich, LINCOM Studies in Basque Linguistics 06.
- Intza, D. (1927, 1928 eta 1974): *Esaera-zarrak*. Bilbo, Editorial Vasca.
- Intza proiektua: *Euskal lokuzioak sarean*. [<https://intza.armiarma.eus/>. 2014ko martxoaren 23an kontsultatua].
- Iribarren, J. M. (1952): *Vocabulario navarro*. Iruñea, Diario de Navarra.
- Iribarren, J. M. (1958): *Adiciones al vocabulario navarro*. Iruñea, Diario de Navarra.
- Izagirre, C. (1959): *Vocabulario de Oñate*. ASJU-ren Gehigarriak, 7.
- Izagirre, C. (1967): "Altsasuko euskararen gai batzuk". *ASJU* 1, 45-97.
- Izagirre, C. (1968): "Notas lexicográficas". *ASJU* 2, 49-71.
- Izeta, M. (1996): *Baztango hiztegia*. Iruñea, Nafarroako Gobernua.
- King, A. (1988-1996): *Atalase Maila*. Estrasburgo, Council of Europe.
- Koerner, E. F. K. (1992): "The Sapir-Whorf Hypothesis: A Preliminary History and Bibliographical Essay". *Journal of Linguistic Anthropology* 2, 173-198.

- Lacasta, G. (1994): “El euskera en el Alto Aragón”. *Eusko Ikaskuntza. Cuadernos de Sección. Hizkuntza eta Literatura* 12, 141-278.
- Lakarra, J., Manterola, J., Segurola, I. (2019): *Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa* (EHHE). Bilbo, Euskaltzaindia.
- Lakoff, G. (1987): *Women, Fire and Dangerous Things: What Categories Reveal about the Mind*. University of Chicago Press.
- Lakoff, G., Johnson, M. (1986): *Metáforas de la vida cotidiana*. Madril, Cátedra.
- Lamb, S. (1999): *Pathways of the brain. The Neurocognitive Basis of Language*. Amsterdam / Philadelphia, John Benjamins Publishing Company.
- Langacker, R. W. (1987): *Foundations of Cognitive Grammar*, vol. 1: *Theoretical Prerequisites*. Standford University Press.
- Larrasquet, J. (1939): *Le Basque de la Basse-Soule Orientale*. Paris, Librairie C. Klincksieck.
- Larrea, A., Rekalde, J. (2010): *Arratia inguruko hiztegia*. Bilbo, Beta III Milenio Ediciones S. L.
- Lee, D. (1983): “Conceptual Implications of an Indian Language”. *Philosophie of Science* 5, 89-102.
- Lekeitioko lantaldea (Altzibar, K., Korrea, M., Laka, J., Ogando, N., Portillo, N., Retolaza, A., Seijo, J. M., Seijo, J. A.) (2001): *Lekeitioko berbak 2*. Lekeitio, Lekeitioko udala.
- Lertxundi, A. (1996): *Letrak Kalekantoitik*. Donostia, Alberdania.
- Lhande, P. (1926): *Dictionnaire Basque-Français et Français-Basque (dialectes labourdin, bas-navarrais et souletin)*. Paris, Gabriel Beauchesne.
- Llosa, A. (2002): “Eguraldi kontuak”. *UK* 35, 58-59.
- Lopez-Mugartza, J. K. (2008): *Erronkari eta Antsoko toponimiaz*. Bilbo/Iruñea, Euskaltzaindia-Nafarroako Gobernua.
- Lucy, J. A. (1992a): *Language Diversity and Thought. A Reformulation of the Linguistic Relativity Hypothesis*. Cambridge University Press.
- Lucy, J. A. (1992b): *Grammatical Categories and Cognition: A Case Study of the Linguistic Relativity Hypothesis*. Cambridge University Press.
- Lucy, J. A., Gaskins, S. (2001): *Gramatical cathegories and classification preferences*. Cambridge, M. Bowerman & S.C.
- Maiz, E., Mundiñano, I. (1998): *Etxarrieratik Sakanerara*. Iruñea, Nafarroako Gobernua.
- Mallea, I. (2002): *Mendatako Hiztegia*. Bilbo, Mendatako udala.
- Mathiot, M. (1979): “Overview”. In Madeleine Mathiot (arg.), *Ethnolinguistics: Boas, Sapir, and Whorf Revisited*. The Hague, Mouton, 314-323.

- Martín Camacho, J. C. (2016): “Hacia una caracterización de una disciplina lingüística (casi olvidada: la Etnolingüística”. *ELUA* 30, 181-212.
- Martínez Lizarduikoa, A. (1998): *Euskal Zibilizazioa*. Donostia, Gaiak.
- Martínez de la Cuadra, A. (2006): *Nabarniztarren berbakera*. Nabarniz, Nabarnizko udala.
- Medina, M. (1990): *Meteorologiaren hastapenak*. Islada Bilduma 10. Usurbil, Elkar.
- Mitxelena, K. (1987-2017): *Orotariko Euskal Hiztegia, Diccionario General Vasco*. OEH. 16 lib. [www.euskaltzaindia.eus]. Euskaltzaindia, Bilbo.
- Mitxelena, K. (1961): *Fonética Histórica vasca* (3. argitalpena, 1985). *ASJU-ren Gehigarriak* 1.
- Mitxelena, K. (1964): *Textos arcaicos vascos*. Madril, Minotauro.
- Mitxelena, K. (1972): *Zenbait hitzaldi*. Bilbo, Mensajero.
- Mitxelena, K. (1972/2011): “Lengua y cultura”. In *Obras Completas. Lingüística General II*. *ASJU-ren Gehigarriak* LV, 81-108.
- Mokoroa, J. (1990): *Repertorio de locuciones del habla popular vasca*. Bilbo, Labayru.
- Moliner, M. (1966-2016): *Diccionario de uso del español*. Madril, Gredos.
- Monasterio, X. (2004): *Mintzairaren miraria*. Donostia, Gaiak.
- Morant Marco, R., Díaz Rojo, J.A. (2005): “Etnolingüística”. *Temarios de Humanidades. Lingüística general*. [www.liceus.com webguneko on-lineko dokumentua].
- Mugica, S. (1907): “Observaciones sobre la ley de afinidad de las vocales en los sub-dialectos septentrional y meridional de Gupúzcoa”. *RIEV* 1, 56-58.
- Murdock, G. P., Ford, C. S., Hudson, A. E., Kennedy R., Simmons, L. W., Whiting J. W. M. (1987-2000): *Outline of Cultural Materials: 5th revised edition*. Human Relations Area Files. New Haven, Connecticut.
- Navarro Hartmann, H. (2014): “El léxico etnobiológico en lengua mapuche”. *Cuadernos de Lingüística Hispánica* 23, 13-28.
- Ochs, E., Schieffelin B. B. (1995): “The Impact of Language Socialization on Grammatical Development”. In P. Fletcher & B. Mac Whinney (arg.), *The Handbook of Child Language*. Blackwell, 73-94.
- Olcina, J. (2013): “Clasificación de las nubes: de Lamarck y Howard al atlas internacional de nubes”. *Clima, naturaleza y desastre. España e Hispanoamérica durante la Edad Moderna*. A. Alberola (koord.). Publicaciones de la Universidad de Valencia, 193-224.
- Oñederra, L. (1990): *Euskal Fonologia. Palatalizazioa. Asimilazioa eta hots sinbolismoa*. EHU. Donostia, EHU.
- Oñederra, L. (2002): “Palatalization Revisited: bustidura adierazgarriaren estatusaz ohar batzuk”. *ASJU-ren Gehigarriak* 44, 499-509.

- Ortiz-Osés, A., Garagalza, L. (2006): *Euskal Mitologia (Izena duen guztia omen da)*. Donostia, Gipuzkoako Kutxa.
- Paia, F. (2011): “Denpore eta Aro”. *UK* 203, 47.
- Palmer, G.B. (1996): *Towards a theory of cultural linguistics*. Austin, University of Texas Press (gaztelaniazko argitalpena: *Lingüística Cultural*. Madril, Alianza Editorial. 2000).
- Paradis, M. (1974): “Relativité linguistique et philosophie”. In M. Mohagheg & T. Izutsu (arg.), *Collected Texts and Papers on Logic and Language*. Teheran University Press, 85-110.
- Perez Bilbao, A. (1984): *Bermeoko Herri Hizkera*. 2. arg. Bilbo, Igarri.
- Perurena, P. (1985): “Haizea, printzesa amorosaren arima galdua”. *Korrok* 8.
[<https://andima.armiarma.eus/korr/korr0803.htm>. 2015-10-21ean kontsultatua].
- Perurena P. (1992): *Koloreak euskal usarioan*. Donostia, Erein.
- Perurena P. (2004): *Harrizko paretak erdiurratuak*. Bilbo, BBK / Euskaltzaindia.
- Preziado, T., Martínez Lizarduikoa, A. (2003): *Euskaldunen kolore-unibertsoa (Argia eta koloreen pertzepzioaz)*. Donostia, Gaiak.
- Reynoso, C. (2014): *Lenguaje y pensamiento. Tácticas y estrategias del relativismo lingüístico*. Buenos Aires, SB.
- Rodríguez Adrados, F. (1974): *Lingüística Estructural I-II*. Madril, Gredos.
- Sainz Pezonaga, J. (2000): *El Euskera en la Ribera de Navarra*. Iruñea, Pamiela.
- Salaberry, M. (1856): *Vocabulaire des mots basques bas-navarrais, traduits en langue française*. Baiona, Imprimerie de veuve Lamaignère.
- Sarasola, I. (1996): *Hauta-lanerako euskal hiztegia*. Donostia, GK.
- Sapir, E. (1921/1962): *Language*. New York. Harcourt, Brace & World (gaztelaniazko argitalpena: *El Lenguaje*. Mexiko, FCE. 1962).
- Sapir, E. (1993): *The Psychology of Culture: A Course of Lectures. Reconstructed and Edited by Judith T. Irvine*. Berlin, Mouton de Gruyter.
- Saussure, F. (1915/1945): *Curso de Lingüística general*. Amado Alonsoren itzulpena. Madril, Alianza Editorial.
- Segura, S., Etxebarria, J. M. (1996): *Del latín al euskara. Latinetik euskarara*. Bilbo, Universidad de Deusto.
- Sillitoe, P. (1996): *A Place Against Time. (Land and Environment in the Papua New Guinea Highlands)*. New York, Harwood Academic Publishers.
- Slobin, D. I. (1996). From “thought and language” to “thinking for speaking”. In J. Gumperz & S. Levinson (arg.), *Rethinking Linguistic Relativity*. Cambridge University Press, 70-96.

- Sperber, D. (1978): *El simbolismo en general*. Anthropos, Barcelona.
- Tyler, S. A. (1969): *Cognitive Anthropology*. New York, Holt, Rinehart and Winston.
- Ullmann, S. (1991): *Semántica: Introducción a la ciencia del significado*. Madrid, Taurus Humanidades.
- Uriarte Cantolla, A. (1985): “El viento en la costa del País Vasco”. *Cuadernos de Sección. Historia-Geografía* 5, 55-74.
- UZEI (1988): *Meteorología Hiztegia*. Donostia, UZEI.
- Velasco Maillo, H. M. (2003): *Hablar y pensar, tareas culturales. Temas de antropología lingüística y antropología cognitiva*. Madrid, UNED.
- Verdet, J. P. (1987): *Le ciel ordre et désordre*. Paris, Gallimard.
- Viñas Rubio, J. M. (2006): “Arcaísmos y otras particularidades del lenguaje meteorológico popular”. [[http://www.meteored.com/ram/2013-03-12an kontsultatua](http://www.meteored.com/ram/2013-03-12an_kontsultatua)].
- Viñas Rubio, J. M. (2019): *Conocer la meteorología. Diccionario Ilustrado del Tiempo y del Clima*. Madrid, Alianza Editorial.
- Whorf, B. L. (1941): “La relación entre el lenguaje y pensamiento y conductas habituales”. In Garvin, P. L. & Y. Lastra de Suárez (arg.) (1974), *Antología de estudios de etnolingüística y sociolingüística*. México, UNAM, 125-152.
- Whorf, B. L. (1956/2011): *Language, Thought and Reality: Selected Writings of Benjamin Lee Whorf*. John B. Carroll. Cambridge, Mass., MIT Press (gaztelaniazko argitalpena: *Lenguaje, Pensamiento y Realidad*. Barcelona, Barral, 1971).
- Wierzbicka, A. (1992): “Furniture and birds”. *Cognitive Linguistics* 3, 119-123.
- Wilkins, D. A. (1976): *Notional syllabuses: A taxonomy and its relevance to foreign language curriculum development*. London, Oxford University Press.
- Zabala, P. (2000): *Naturaren Mintzoa*. Donostia, Alberdania.
- Zuazo, K. (2002): *Deba Ibarretik Euskararen Herrira*. Eibar, Badiharidugu Euskera Alkartia.

Berri emaileak

- Kristina Encinar (Beraskoitze)
- Pedro Mari Etxezarraga (Bilbo)
- Enrike Gorrotxategi (Elgeta)
- Mikel Irizar (Elorrio)
- Anjel Lertxundi (Orio / Zarautz)
- Aitziber Orue (Arrieta)
- Iñigo Roque (Etxarri Aranatz)
- Aitziber Velasco (Erandio)
- Jabi Zabala (Urduliz)
- Pello Zabala (Arantzazu-Oñati)
- Pello Zubiria (Usurbil)

Laburdurak

DVEF = Azkue, R.M. (1905-1906/1969): *Diccionario vasco-espagnol-francais*. Biblioteca de la Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo.

DRAE = Diccionario Real Academia Española. [<https://dle.rae.es/>]

DRALV = *Diccionario Retana de Autoridades de la Lengua Vasca* (= Akesolo et alii 1991).

EAEL = Euskal Herriko Atlas Etnolinguistikoa (1983). Lehen atala, Donostia.

EH = Euskaltzaindiaren Hiztegia: [www.euskaltzaindia.eus].

EHHA = Euskal Herriko Hizkeren Atlas. Euskaltzaindia (2008). I Lexikoa, Bilbo.

EHHE = Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa. Lakarra, J., Manterola, J., Segurola, I. (2019). Euskaltzaindia, Bilbo.

FHV = Fonética Histórica Vasca (3. argitalpena, 1985). *ASJU*-ren Gehigarriak 1.

HE = Hizketaren Etnografia.

MetHizt = Meteorologia Hiztegia. (1988). UZEI, Donostia.

OEH = Orotariko Euskal Hiztegia. Mitxelena, K. (1987-2017). 16 lib.

[www.euskaltzaindia.eus]. Euskaltzaindia, Bilbo.

RIEV = Revista Internacional de Estudios Vascos.

Euskal Herriko herrialdeak

A = Araba

BN = Nafarroa Beherea

B = Bizkaia

G = Gipuzkoa

L = Lapurdi

N = Nafarroa

Z = Zuberoa

Azkueren araberako euskalkiak (*DVEF*)

B = bizkaiera

BN = behe nafarrera

G = gipuzkera

GN = goi-nafarrera

L = lapurtera

Z = zuberera